IKER Bilduma / Colección IKER

IKER 16
La España Metafísica. Prudencio García Isasti. Euskaltzaindia, Bilbo, 2004.

IKER 17
Nerekin yaio nun: Txillardegiri omenaldia. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 2005.

IKER 18
Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri. Inés Pagola Hernández. Euskaltzaindia, Bilbo, 2005.

IKER 19
Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzarra: Euskalgintza XXI. mendeari buruz. Azkue eta Urkixoren omenez. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 2008.

IKER 20
Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944) Kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan. Amelia Hernández Matak paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 2007.

IKER 21
Jean Haritschelhar-i omenaldia / Homenaje a Jean Haritschelhar / Hommage à Jean Haritschelhar. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 2008.

IKER 22
Intelektuala Nazioa eraikitzen: R. M. Azkueren pentsaera eta obra. Jurgi Kintana Goirienak paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 2008.

IKER 23
Juan Mari Lekuona-ri omenaldia / Homenaje a Juan Mari Lekuona / Hommage à Juan Mari Lekuona. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 2009.

IKER 24
Agirre Asteasukoaren Eracusaldiac. *Sermoia ikuspegi sozio-diskurtsiboaren argitan.* Arantza Ozaeta Elorza. Euskaltzaindia, Bilbo, 2010.

IKER 25
Elgoibarko Ahozko Euskara. Jesus Mari Makazaga Eizagirre. Euskaltzaindia, Bilbo, 2010.

IKER 26
Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina. A. Sagarna; J. Lakarra eta P. Salaberri. Euskaltzaindia, Bilbo, 2011.

IKER 27
Onomastique du Nord du Pays Basque (XIe-XIVe siècles). Eugène Goyheneche. Euskaltzaindia, Bilbo, 2012.

IKER 28
Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan. Aiora Jaka Irizar. Euskaltzaindia, Bilbo, 2012.

IKER 29
Koldo Mitxelenaren zinema- eta liburu-kritiketako diskurtso-estrategiak: enuntziatu parentetikoak. Agurtzane Azpeitia Eizagirre. Euskaltzaindia, Bilbo, 2012.

IKER 30
Lehen Mundu Gerra «Eskualduna» astekarian. Eneko Bidegain. Euskaltzaindia, Bilbo, 2013.

IKER 31
Approche Textologique et Comparative du Conte Traditionnel Basque Dans les Versions Bilingues de 1873 à 1942. Natalia Mikhaïlovna Zaïka. Euskaltzaindia, Bilbo, 2014.

IKER 32
Gorbeia Inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak II. Juan Manuel Etxebarria Ayesta. Euskaltzaindia – Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2016.

IKER 33
Piarres Larzabalen antzerkigintza: 1950-1982. Isabelle Echeverria. Euskaltzaindia, Bilbo, 2016.

IKER 34
La politique linguistique de la révolution Française et la langue basque. Egoitz Urrutikoetxea. Euskaltzaindia, Bilbo, 2018.

ISBN 978-84-948489-5-7
9 788494 848957
20 €

GERRAOSTEKO EUSKALTZAINDIAREN HISTORIA KULTURALA (1936-1954)

iker 35

GERRAOSTEKO EUSKALTZAINDIAREN HISTORIA KULTURALA (1936-1954)

ANTÓN UGARTE MUÑOZ

Universidad del País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea

iker - 35

Antón Ugarte Muñoz (Oñati, 1978). Itzulpengintza eta Interpretazioan lizentziaduna eta Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologian doktorea. Donostia Kulturako liburuzain laguntzailea da. Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka eta Artxiboan eta Euskararen Historia Soziala egitasmoan lan egindakoa.

Portada Iker-35_camisa.indd Todas las páginas
5/9/19 10:45

IKER 16
La España Metafísica. Prudencio García Isasti. Euskaltzaindia, Bilbo, 2004.

IKER 17
Nerekin yaio nun: Txillardegiri omenaldia. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 2005.

IKER 18
Neologismos en la obra de Sabino Arana Goiri. Inés Pagola Hernández. Euskaltzaindia, Bilbo, 2005.

IKER 19
Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzarra: Euskalgintza XXI. mendeari buruz. Azkue eta Urkixoren omenez. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 2008.

IKER 20
Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944) Kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan. Amelia Hernández Matak paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 2007.

IKER 21
Jean Haritschelhar-i omenaldia / Homenaje a Jean Haritschelhar / Hommage à Jean Haritschelhar. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 2008.

IKER 22
Intelektuala Nazioa eraikitzen: R. M. Azkueren pentsaera eta obra. Jurgi Kintana Goirienak paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 2008.

IKER 23
Juan Mari Lekuona-ri omenaldia / Homenaje a Juan Mari Lekuona / Hommage à Juan Mari Lekuona. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 2009.

IKER 24
Agirre Asteasukoaren Eracusaldiac. *Sermoia ikuspegi sozio-diskurtsiboaren argitan*. Arantza Ozaeta Elorza. Euskaltzaindia, Bilbo, 2010.

IKER 25
Elgoibarko Ahozko Euskara. Jesus Mari Makazaga Eizagirre. Euskaltzaindia, Bilbo, 2010.

IKER 26
Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina. A. Sagarna; J. Lakarra eta P. Salaberri. Euskaltzaindia, Bilbo, 2011.

IKER 27
Onomastique du Nord du Pays Basque (XIe-XIVe siècles). Eugène Goyheneche. Euskaltzaindia, Bilbo, 2012.

IKER 28
Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan. Aiora Jaka Irizar. Euskaltzaindia, Bilbo, 2012.

IKER 29
Koldo Mitxelenaren zinema- eta liburu-kritiketako diskurtso-estrategiak: enuntziatu parentetikoak. Agurtzane Azpeitia Eizagirre. Euskaltzaindia, Bilbo, 2012.

IKER 30
Lehen Mundu Gerra «Eskualduna» astekarian. Eneko Bidegain. Euskaltzaindia, Bilbo, 2013.

IKER 31
Approche Textologique et Comparative du Conte Traditionnel Basque Dans les Versions Bilingues de 1873 à 1942. Natalia Mikhaïlovna Zaïka. Euskaltzaindia, Bilbo, 2014.

IKER 32
Gorbeia Inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak II. Juan Manuel Etxebarria Ayesta. Euskaltzaindia – Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2016.

IKER 33
Piarres Larzabalen antzerkigintza: 1950-1982. Isabelle Echeverria. Euskaltzaindia, Bilbo, 2016.

IKER 34
La politique linguistique de la révolution Française et la langue basque. Egoitz Urrutikoetxea. Euskaltzaindia, Bilbo, 2018.

ISBN 978-84-948489-5-7
9 788494 848957
20 €

GERRAOSTEKO EUSKALTZAINDIAREN HISTORIA KULTURALA (1936-1954)

iker 35

GERRAOSTEKO EUSKALTZAINDIAREN HISTORIA KULTURALA (1936-1954)

GERRAOSTEKO EUSKALTZAINDIAREN HISTORIA KULTURALA (1936-1954)

GERRAOSTEKO EUSKALTZAINDIAREN HISTORIA KULTURALA (1936-1954)

GERRAOSTEKO EUSKALTZAINDIAREN HISTORIA KULTURALA (1936-1954)

iker - 35

IKER Bilduma / Colección IKER

IKER 1
Euskalarien nazioarteko jardunaldiak / Baskologist international meetings / Encuentros internacionales de vascólogos / Recontres internationales de bascologues. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 1981.

IKER 2
Piarres Lafitte-ri omenaldia / Homenaje a Pierre Lafitte / Hommage à Pierre Lafitte. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 1983.

IKER 3
Erizkizundi irukoitza / Triple cuestionario / Triple questionnaire (euskara 1925). Ana Mª Echaide Itartek paratua, 2 t. Euskaltzaindia, Bilbo, 1984.

IKER 4
Resurrección Maria de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa / Correspondencia entre R.M. de Azkue y P. Broussain / Correspondance entre R.M. de Azkue et P. Broussain. (1897-1920). Piarres Charrittonek paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 1986.

IKER 5
Euskararen batasuna / La unificación de la lengua vasca / L'unification de la langue basque. Koldo Zuazok paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 1988.

IKER 6
Luis Villasanteri omenaldia / Homenaje a Luis Villasante / Hommage à Luis Villasante. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 1992.

IKER 7
Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak / Actas del Congreso Internacional de Dialectologia / Actes du Congrès International de Dialectologie / Proceedings of International Congres on Dialectology. G. Aurrekoetxea eta X. Videgainek prestatua. Euskaltzaindia, Bilbo, 1992.

IKER 8
Oihenarten laugarren mendeurrena / Cuarto centenario de Oihenart / Quartième centenaire d'Oihènart. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 1994.

IKER 9
Euskararen tratamenduak: erabilera / Uso de los tratamientos alocutivos en euskara / Emploi des traitements allocutives en basque. Jabier Alberdi Larizgoitiak prestatua. Euskaltzaindia, Bilbo, 1996.

IKER 10
Federiko Krutwig-i omenaldia / Homenaje a Federico Krutwig / Hommage à Federico Krutwig. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 1997.

IKER 11
Vasconiana. Jean Haritschelhar Duhalde eta Piarres Charritton-ek paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 1999.

IKER 12
Jose Ignacio Arana: Egunaria. Patxi Altunak paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 2000.

IKER 13
Euskalkia eta Hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera Euskal Diglosia Irazian / Dialecto y educación. De lo conocido a lo desconocido dentro del entramado diglósico del euskara / Dialecte et éducation. Du connu vers l'inconnu dans le tramage dysglosique de l'euskara (langue basque) / Dialect and education. From the know to the unknown inside the diglossia interwoven connections of euskara (basque language). Juan Luis Goikoetxea Arrietak paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 2003.

IKER 14
Euskal gramatika eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendearen atarian. Batzuk. Euskaltzaindia, Bilbo, 2003.

IKER 15
Euskal atsotitzak eta neurtitzak. Arnaud Oihenart, Patxi Altuna eta J.A. Mujikak paratua. Euskaltzaindia, Bilbo, 2003.

Portada Iker-35.indd Todas las páginas
5/9/19 10:45

IKER-35.indd 1 2/9/19 10:55

ANTÓN UGARTE MUÑOZ

GERRAOSTEKO EUSKALTZAINDIAREN HISTORIA KULTURALA (1936-1954)

IKER-35

EUSKALTZAINDIA
2018

IKER-35.indd 3 2/9/19 10:55

Argitalpen honen fitxa katalografikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la Biblioteca Azkue de la Real Academia de la Lengua Vasca:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

Euskaltzaindiak, UPV/EHUrekin elkarlanean, ikerketa lan hau argitaratzea erabaki du, horretarako ezarriak dauzkan kalitatea bermatzeko prozedurak egoki bete direla bermatu ostean. Halaber, argi gara bedi liburuan egiten diren baieztapenak egilearenak direla esklusiboki.

Testuaren hizkuntza orrazketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia Zerbitzua (HIZBEA)

Gainazaleko irudiak: goitik behera eta ezkerretik eskuinera: J. Urquijo, R.M. Azkue, N. Oleaga, F. Krutwig, Euskaltzaindiaren Erribera kaleko egoitza zaharra, L. Villasante, A. Irigaray, I.M. Echaide eta L. Michelena

© Antón Ugarte Muñoz
© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.
© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema infomatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Maketazioa: Composiciones RALI, S.A.
Particular de Costa, 12-14 - 48010 Bilbao

Inprimategia: Printhaus, S.L.

ISBN (Euskaltzaindia): 978-84-948489-5-7
ISBN (UPV/EHU): 978-84-9082-915-8

Lege-gordailua: BI 180-2018

EDUKIEN AURKIBIDEA

ESKER ONA XI

LABURDURAK XV

AITZINSOLASA (Andres Urrutia, Euskaltzainburua) XVII

HITZAURREA (Jon Zarate, UPV/EHU) XIX

SARRERA XXI

1. EUSKALTZAINDIAREN SORRERATIK GERRA ZIBILERA 1

1.1. Euskaltzaindiaren sorrera eta eginkizunak 1
1.2. Hamabi euskaltzainak 1936an 7

Resurrección M.ª Azkue 7
Julio Urquijo 10
Arturo Campión 12
Juan Bautista Egusquiza 14
Raimundo Olabide (SI) 15
Ramón Inzagaray 16
Pierre Lhande (SI) 18
Georges Lacombe 19
Severo Altube 21
Dámaso de Inza (OFMCap) 22
Bonifacio Echegaray 24
Jean Elissalde 26

1.3. «Euzkadi'ko Gogo-lantze Zaingoa» 27
1.4. «Instituto de España» eta «Real Academia Española» 38
1.5. Euskaltzainen ahaleginak euskal agintari frankistekin 54

IKER-35.indd 5 2/9/19 10:55

2. EUSKALTZAINDIA 1941-1949: NAHI ETA EZIN 63

2.1. Bizkaiko Probintzia Diputazioaren «Junta de Cultura de Vizcaya» . . . 63
2.2. «Junta de Cultura de Vizcaya»ren inposizioa Euskaltzaindiari 68
2.3. Gerraondoko Euskaltzaindiaren lehen batzarra (Bilbo, 1941-04-28). . 74
2.4. Gerraondoko euskaltzain berriak 80

Juan Irigoyen 80
Nazario Oleaga. 81
Pablo Zamarripa. 82
Juan Carlos Guerra. 84
Eladio Esparza (eta *Príncipe de Viana* aldizkaria). 86
Ángel Irigaray. 88
Ignacio M.ª Echaide 89

2.5 Euskaltzaindiaren egoera ekonomikoa eta laguntza ofizialak 90
2.6 Euskaltzaindiaren «Diccionario español-vasco» egitasmoa. 96
2.7 Euskaltzaindiaren batzarren egitura 1940ko hamarkadan 104
2.8 Mundu Gerra ondoko izendapen berriak 115

Julio Caro Baroja, Pedro Yrizar eta euskal atlas linguistikoa 117
Antonio Tovar, José Vallejo eta Alessandro Bausani 123
Federico Krutwig 126

3. EUSKALTZAINDIAREN ERREFORMA 129

3.1. Eladio Esparzaren dimisioa eta Bonifacio Echegarayren berrartzea . . . 129
3.2. Juan Miguel Seminarioren sarrera ekitaldia (Bilbo, 1949-06-25) 133
3.3. Erreforma prestatzeko euskaltzainen korrespondentzia 143
3.4. Erreforma dosierraren aurkezpena (Donostia, 1949-09-30) 159
3.5. «Euzko-Alderdi Jeltzalia»ren jarrera. 164
3.6. Pierre Lafitteren sarrera ekitaldia (Donostia, 1949-11-25) 171
3.7. Izendapen berriak 175

Pierre Lafitte. 176
Jean Saint-Pierre. 177
Manuel Lecuona. 179
Louis Dassance (eta *Gure Herria* aldizkaria) 180
René Lafon. 183
Henri Gavel 184

4. EUSKALTZAINDI ZAHARRAREN GAINBEHERA: 1950-1951. 187

4.1. Espainia frankistan euskaraz argitaratzeko zailtasunak. 187
4.2. Euskararen idatzi (eta klase) hizkuntza 193

Federico Krutwigen «Sobre ortografía vasca y el vascuence escrito» . . 198

IKER-35.indd 6 2/9/19 10:55

4.3. Manuel Lecuonaren sarrera ekitaldia (Iruñea, 1950-06-24) 204
4.4. Louis Dassanceren eta René Lafonen sarrera ekitaldiak (Baiona, 1950-07-15) 209
4.5. *Euzko-Gogoa*ren erronka eta urgazle berriak 217
4.6. Gipuzkoako ordezkaritza: Julio Urquijoren heriotza 223
4.7. «Orixe»ri betoa eta erbesteko Euskal Akademiaren mehatxua 231
4.8. Juan Gorostiagaren sarrera ekitaldia (Bilbo, 1951-04-28) 239
4.9. Sarrera ekitaldi baten fiaskoa eta «Junta de Cultura de Vizcaya»ren kontrola 245
4.10. Umezurtz: Resurrección M.ª Azkueren heriotza 252
4.11. Jean Saint-Pierre apezpikuaren heriotza 261
4.12. Luis Villasante (OFM) 263

5. EUSKALTZAINDIA BURURIK GABE: 1952KO KRISIA 275

5.1. «Que nos salven la lengua aunque sean los fascistas» 275
5.2. Euskaltzaindiaren zuzendaritza eta Salamancako Unibertsitatearen katedra 284

«Euskal-Kulturaren Elkharrgoa» 292

5.3. Luis Villasanteren sarrera ekitaldia (Bilbo, 1952-05-23) 298
5.4. Federico Krutwigen aurkako auzia 309

Legez kontrako propaganda 314

5.5. Izendapen berriak 335

Luis Michelena 335
Jules Moulier 339
Urgazleak eta baztertutako hautagaiak 339

5.6. Euskaltzaindiaren erresilientzia 341

6. EUSKALTZAINDIA 1953-1954: IRAUN ETA JARRAI 353

6.1. «Junta de Cultura de Vizcaya»rekin bakea. 353
6.2. «Seminario de Filología Vasca *Julio de Urquijo*» 358
6.3. Gipuzkoako probintzia bibliotekako hitzaldiak. 377
6.4. Resurrección M.ª Azkueren ondarea eta Bilboko egoitzaren egokitzapena. 383
6.5. Gipuzkoako eta Nafarroako diru laguntza ofizialak. 392
6.6. Euskaltzaindiaren argitalpenak 398

«Euskera» agerkari ofiziala. 398
Literatura sariak, lexikografia eta «klasikoak». 412

IKER-35.indd 7 2/9/19 10:55

6.7. Ignacio M.ª Echaideren zuzendaritza eta araudi berria 427
6.8. Euskaltzainorde berriak. 440

Antonio Arrue 440
José M.ª Lojendio (eta lojendiotarrak) 442

7. ONDORIOAK 445

8. ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA 453

8.1. Artxiboak eta bibliotekak 453
8.2. Hemeroteka 454

Egunkariak 454
Aldizkariak 455
Aldizkari Ofizialak 457

8.3. Bibliografia 458

9. ERANSKINAK 501

9.1. «Real Academia Española»ren batzar ez-ofizialak (1937-1939) 501

Akademikoen batzar kopuruak 503
Batzar kopuruak tokiko 503

9.2. Euskaltzaindiaren batzarrak (1941-1954) 504

Akademikoen batzar kopuruak 508
Batzar kopuruak tokiko 509

IKER-35.indd 8 2/9/19 10:55

Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean 2016ko irailaren 29an defendatu nuen tesian oinarrituta dago idazlan hau.

Euskararen historia soziopolitikorako: Espainiako Gerra Zibilak zauritutako Euskaltzaindia (1936-1954) izeneko lanak «cum laude» aipamena jaso zuen. Ondoren, 2018ko ekainaren 22an, UPV/EHUko graduondoko batzordeak doktoregoko sari berezia eman zion, Arte eta Giza Zientziak jakintza arloan.

Epaimahaiak adierazitako oharrak eta zuzenketak testu honetara ekartzen saiatu naiz, baina nirea da azken erantzukizuna, jakina.

Ikerketa honek ez du inolako diru laguntza ofizialik jaso.

IKER-35.indd 9 2/9/19 10:55

ESKER ONA

Familiari eta adiskideei; jasandakogatik.

Euskaltzaindiari.

Esteban Antxustegi tesi zuzendariari eta tesiaren epaileei: Joseba Agirreazkuenaga (UPV/EHU), Xarles Videgain (UPPA) eta Juan Madariagari (UPNA).

Era batera edo bestera lagundu didatenei.

Ahaztutakoei.

IKER-35.indd 11 2/9/19 10:55

Aro guztietan saiatu behar dugu tradizioa berorren gainetik nagusitzeko puntuan dagoen konformismoaren eskuetatik behin eta berriro askatzen.

WALTER BENJAMIN, *«Historia» kontzeptuari buruz,* VI

IKER-35.indd 13 2/9/19 10:55

LABURDURAK

ABA-AIB:	Euskaltzaindiaren Artxiboa, Andima Ibiñagabeitia funtsa
ABA-EUS:	Euskaltzaindiaren Artxiboa, Administrazio funtsa
ABA-LAF:	Euskaltzaindiaren Artxiboa, Piarres Lafitte funtsa
ABA-RMA:	Euskaltzaindiaren Artxiboa, Resurrección M.ª Azkue funtsa
AEB:	Ameriketako Estatu Batuak
BFAH-EC:	Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa, Administrazio atala, «Educación y Cultura» funtsa
BOE:	*Boletín Oficial del Estado*
BPD:	Bizkaiko Probintzia Diputazioa
BRSVAP:	*Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País = Boletín de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País*
CCG-RP:	Consello da Cultura Galega, Ramón Piñeiro funtsa
CAM:	Caja de Ahorros Municipal
CAP:	Caja de Ahorros Provincial
CE-PV:	*El Correo Español-El Pueblo Vasco*
CEDA:	Confederación Española de Derechas Autónomas
CSIC:	Consejo Superior de Investigaciones Científicas
EAE-ANV:	Euzko Abertzale Ekintza = Acción Nacionalista Vasca
EAJ-PNV:	Euzko-Alderdi Jeltzalia = Partido Nacionalista Vasco
EBB:	Euzkadi-Buru-Batzar
EGLZ-DCE:	Euzkadi'ko Gogo-lantze Zaingoa = Departamento de Cultura de Euzkadi
EI-SEV:	Eusko Ikaskuntza = Sociedad de Estudios Vascos

IKER-35.indd 15 2/9/19 10:55

EIL-SIEB:	Eusko-Ikaskuntzen Lagunartea = Société Internationale d'Études Basques
EJ-GE:	Euzkadi'ko Jaurlaritza = Gobierno de Euzkadi
ELA-STV:	Euzko Langileen Alkartasuna = Solidaridad de Trabajadores Vascos
FET-JONS:	Falange Española Tradicionalista y de las Juntas de Ofensiva Nacional-Sindicalista
GPD:	Gipuzkoako Probintzia Diputazioa
IAEV:	Instituto Americano de Estudios Vascos
ICOS:	International Council of Onomastic Sciences
IdeE:	Instituto de España
JAE:	Junta para Ampliación de Estudios e Investigaciones
JCV:	Junta de Cultura de Vizcaya
KMK:	Koldo Mitxelena Kulturunearen artxiboa, funts nagusia
KMK-JU:	Koldo Mitxelena Kulturunearen artxiboa, Julio Urquijo funtsa
LIAB:	Ligue Internationale des Amis des Basques
NBE:	Nazio Batuen Erakundea
NFD:	Nafarroako Foru Diputazioa
OFM:	Ordo Fratrum Minorum
OFMCap:	Ordo Fratum Minorum Cappuccinorum
pta.:	pezeta
RAE:	Real Academia Española
RIEV:	*Revista Internacional de Estudios Vascos = Revue Internationale des Études Basques*
RSVAP:	Real Sociedad Vascongada de Amigos del País
SAF-AA:	Sabino Arana Fundazioa, Abertzaletasunaren Agiritegia
SFVJU:	Seminario de Filología Vasca *Julio de Urquijo*
SI:	Societas Iesu
UNESCO:	United Nations Educational, Scientific and Cultural Organization

IKER-35.indd 16 2/9/19 10:55

AITZINSOLASA

Erakunderik gabeko herrietan zaila da oso herritarren arteko loturak eta estekadurak bermatzea, nortasun kolektibo baten peskizan. Are zailagoa da, zalantzarik ez, hauen ibilbidea edo historia egitea, funtsean bat dena sakabanaturik eta bilbatu gabe agertzen baita.

Horixe gertatzen zaiola Euskal Herriaren historiari eta, zer esanik ez, euskararen historiari ere, ezin uka. Izan ere, hauxe da Antton Ugarteren lanak proposatzen diguna. Euskal Herri garaitua, desegina, zatikatua eta erakunderik gabea da orriotan agertzen dena, 1936. urteko gerlaren poderioz.

Alabaina, aldi eta eremu ilunaren erdian, zutik baina mehatxupean, horra hor Euskaltzaindia, euskararen Akademia. Hogei urte ere ez dira igaro bere sorkuntzatik eta egundoko probaren azpian jarria da. Euskara du helburu, euskararen Iker eta Jagon sailak helmuga… eta hala ere, isilean dihardu, gizartean baztertua eta zokoratua.

Urte latzak dira horiek Euskaltzaindiarentzat. Kosta ahala kosta, Azkue euskaltzainburu eta euskal kulturaren erraldoia zutik dago. Lanean dirau, isilaldian bada ere, eta aldamenean ditu Oleaga, lehenik, eta gero Krutwig. Gipuzkoan Etxaide eta Lojendio ari dira, ozta-ozta bada ere. Hainbat euskaltzain oso erbesteraturik eta, artean, euren arteko bilkurak ere debekatuta.

Haatik, aurrera! Horixe da lanean jardun ahal duten euskaltzainen aldartea. Erregimen berriak, bateko ala besteko, bere beso luzeak edonora hedatu nahi eta euskararen Akademia ere begipean du. Laguntzak laguntza, halakoak itxura hutsa izan arren, erregimen berriak eragotzi nahi du Akademiaren ekina, agerian ez bada, barneko ikuskaritza hertsi baten bidez.

Horixe da, izatez, Antton Ugarteren azalpenetan agerikoa den historia. Talka baten kronika, euskararen defentsan aritu zirenen ohorerako. Egia esan,

IKER-35.indd 17 2/9/19 10:55

egileak iturriak berbertatik arakatu ditu, Euskaltzaindian Azkue Bibliotekan eta Artxiboan egindako egonaldi luzeen bidez.

Hortik egin du Ugartek historia soila baino kontakizun tankerakoagoa, osatuko den Euskaltzaindiaren historiari ekarpena egiten diona, iritziak iritzi. Horra, bada, irakurle, Antton Ugartek egindakoa. Berori geratzen da argitaratua, gerora etorriko diren beste batzuen esperoan, guztion artean moldatu beharko baita Akademiaren historia, hain zuzen ere, euskararen beraren historia islatzen duena azken mendean, bere argi-ilunak eta on-gaitz guztiekin islatu ere.

Dena den, egileak bezalaxe, egin ditzagun bestelako saioak, horrela eratuko baita Euskal Herriaren eta euskararen norabidea. Eskerrak egileari eta ongi etorria izan dadila argitalpen hau Euskaltzaindiaren Iker bildumara, aberasturik geratzen baita azken hau.

Andres M. Urrutia
Euskaltzainburua

IKER-35.indd 18 2/9/19 10:55

HITZAURREA

Pozgarria zait Euskal Herriko Unibertsitatean aurkeztu eta defendatu den doktoretza-tesi honen argitalpenari hitz batzuk jartzea. Pozgarria, gero eta ohikoagoa dela ikusten dudalako euskaraz idatzi diren tesiak han eta hemen aurkitzea. Gero eta ugariagoak dira euskaraz idazten eta defendatzen diren tesiak: normalizaziorako bidean goazen seinale.

Pozgarria zait, era berean, Euskaltzaindiaren Iker bildumarako argitalpen hau babestea; izan ere, iruditzen zait, Euskaltzaindia bere sorreraren mendeurrena betetzen eta ospatzen ari den honetan, Euskal Herriko Unibertsitateak ere ospakizun horrekin bat egin behar duela. Eta zer atseginago doktoretza-tesi baten argitalpenarekin egitea baino.

Aurretik ere izan dira Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren arteko koedizioak, Iker bilduma honetan bertan argitaratuak; eta izango dira etorkizunean ere. Gaiaren aldetik bilduma horretarako egokiak ikusten diren tesiak edo tesietan oinarritutako liburuak plazaratu izan dira, bi erakundeen arteko lankidetza-hitzarmenari esker.

Koedizio horiekin batera, aurten seigarren edizioa betetzen duten euskarazko tesien Koldo Mitxelena sariak deitu ditugu bi erakundeok. Bost arlo nagusitan, sari bana emango diogu euskararen aldetik kalitate onena erakutsi duen tesigileari: Artea eta Giza Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura, Osasun-zientziak eta Zientzia esperimentalak. Urtetik urtera indarra hartzen ari den ekimena dugu, eta, nire aldetik behintzat, ez da eragozpenik izango sari hauei etorkizunean ere jarraipena emateko.

Era horretakoak dira, izan ere, berriki onartua izan den UPV/EHUren Euskararen III. Plan Gidarian (2018-2022) jasotzen diren asmoak eta bideak euskararen normalizazioa lortzeko bidean: euskararen normalizazioaren gidaritza daramaten erakundeekin elkarlana sustatu; euskalgintzan diharduten

IKER-35.indd 19 2/9/19 10:55

erakundeekin elkarlanean euskararen erabilera sustatzeko ekintzak antolatu. Euskararen normalizazioari begira, ezinbestekoa izango da erakundeen arteko lankidetza, eta argitalpen honen bidez egiten dugun lankidetza da horren adibideetako bat.

Mende bat bete du Euskaltzaindiak: azkar esaten da. Bidea, ordea, ez zaio erraza izan. Hasieran, euskaldun guztientzat izango den erakundea sortzeak dakarren lan eskerga; gero, gorabehera politikoek sortutako zailtasunak. Garai gogorrak ezagutu ditu erakundeak bere ibilbidean, garai gogorrak eta ilunak. Gerrak sortutako egoera makurrera egokitu ahal izan zen erakundea, ordea, nola edo hala egoerari eutsi egin zioten garaian garaiko agintariek, garai oparoagoak etorriko ziren esperantzarekin, bistan denez. Eta etorri ziren, etorri: gau luze haren ondoren, atera zen, halako batean, hainbeste desiratutako eguzkia; erakundea bera indartzearekin batera, handik gutxira sortu zen euskaldunontzat hain garrantzitsua izango zen euskara batua; eta handik aurrera hasi ziren ikerketa-lanak ugaritzen, unibertsitateko ikertzailez hasi ziren hornitzen erakundeko batzordeak, eta handik etorri ziren euskararentzat lan garrantzitsuak: euskara batuaren oinarriak, gramatika-lanak, lexikografia-lanak, literaturari buruzkoak, onomastikakoak… Hori guztia, alabaina, ez litzateke posible izango Jean Haritschelhar zenak zioen «katakonbetako garai» horretan Euskaltzaindiak tinko eutsi izan ez balio, errazena desagertzea zen egoeran aurrera egin baitzuen Euskaltzaindiak.

Oso ezaguna eta ikertua ez den aro ilun, «katakonbetako» hori du hizpide Anton Ugarte ikertzaileak; proiektu garrantzitsu bezain zaila burutu du; bikain burutu ere. Historia ondo ezagutuz bakarrik egiten du aurrera gizarteak, eta horregatik deritzot garrantzitsu lan honi.

Dokumentazio-lan oparoa egin du ikertzaileak tesia ontzeko; informazio asko eta ondo antolatua ematen digu euskara bikain eta atseginean idatzitako lan honen bidez. Ezin baliagarriagoa izango zaigu lan hau ehun urte hauetako historian genuen hutsunea betetzeko, erakundearen historia osoa behar bezala ezagutzeko.

Zorterik onena opa diot egileari tesi honekin eta honetatik eratorriko diren etorkizuneko ikerketekin.

Jon Zarate Sesma
UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko
Prestakuntzaren arloko errektoreordea

IKER-35.indd 20 2/9/19 10:55

SARRERA

Ikerketa honen hasieran Federico Krutwigen (1921-1998) inguruko informazioa biltzeko saioa dago. Jakin-mina piztu zidan, gizarte jatorriagatik, euskal kulturaren historian «rara avis» zen euskaltzainak. F. Krutwigek *Bilbao de los años cuarenta* (1991) izeneko memorietan eman zuen ikuspegi partzialegia gorabehera, euskal kulturaren historian gutxi aztertutako garai baten lekuko pribilegiatua izan zen. Urteak igaro ahala, dokumentazio gero eta aberatsagoa aztertu ondoren, testuinguruaren garrantzi historikoaz jabetu nintzen (Ugarte Muñoz 2010-2011).

Hortik abiatzen ziren, hain zuzen, tesiarekin erantzun nahi nituen galdera nagusiak. Nola lortu zuen Euskaltzaindiak 1941ean berriz batzarrak egiteko baimena eskuratzea, Eusko Ikaskuntzak, esaterako, izoztuta jarraitzen zuen bitartean? Frankismoak bere politika linguistikoa zuritzeko erabili zuen tresna izan zen? Edo barne erbesteko erresistentzia kulturalean aritu zen Akademia izan zen? Horrelako galderei erantzun ahal izateko informazio berria agertuz joan den arren, 2019an ehun urte beteko dituen Euskaltzaindiaren eta euskal kulturaren garai iluna izaten jarraitzen du 1936-1954 arteko horrek.

Kontzienteki edo inkontzienteki, orduko euskaltzain gehienak eskuindartzat edo are frankistatzat jotzen direnez, nire ustez ikergaia arbuiatu edo erdeinatu egiten da. Alde batetik, 1936an amaitzen dira euskal kulturaren ikerketa asko, ondoren zehaztasunik ezaren behe lainoak irensten gaitu 1956-1960 arte, oinarririk gabeko interpretazioari bide gehiegi emanda. Pertsonaia politikoagoak alde batera utzita, euskal kulturaz den bezainbatean, nahiago izan da erbesteko idazle abertzaleak aztertu, frankismoak «zikindutako» lurraldetik ihes egindako sinboloak direlako: Nicolás Ormaechea, Severo Altube, Joaquín Zaitegui, Martín Ugalde, Vicente Amézaga edota Andima Ibinagabeitia, besteak beste. José Miguel Barandiaran, jeltzalea ez izanagatik, zerrenda horretan sartzen da.

IKER-35.indd 21 2/9/19 10:55

Ez dago maila horretako bibliografiarik, aldeak alde, Julio Urquijo, Bonifacio Echegaray, Juan Carlos Guerra, Nazario Oleaga, Juan Irigoyen edota José M.ª Lojendio eskuindar euskaltzainak ikertu nahi dituenarentzat. Adibidez, Ignacio M.ª Echaide euskaltzainburu integristaren biografia (gutxi erabili bezain zaharkitua) bere semeak idatzi behar izan zuen, bion arteko alde ideologikoagatik aski traumatikoa dirudien erabakian (Etxaide-Itharte 1986). Berriki, Antonio Arrue euskaltzain karlistaren ekarpena labur-labur aztertu nahi izan denean, berehala talka egin dute bi interpretazio ustez elkarrezinek (Martorell 2011; Sudupe 2012).

Baina iragana ez litzateke izan behar «gure» autoirudia alderdikeriaz apaintzeko nahierara erabiltzen den biltegia. Konpartimentazio politiko-linguistiko antzu batean sartuta gaude nire ustez, nazionalismo konstituzionalistak hizkuntza periferikoak gutxiesten dituelako eta, aldiz, historiografia abertzaleak ikuspegi partikularista eta erresistentzialista behin eta berriz lantzen duelako, barne kontsumorako bezala. Horregatik uste dut frankismoaren alderdi errepresibo hutsa, bereziki zentsuratzaile eta legegilea, nabarmendu dela ia esklusiboki, guztiz beharrezkoa dena, baina irudi partziala eskaintzen diguna (Torrealdai 1998; 1999; 2000; Irujo & Urrutia 2009; 2014; Anaut 2013).

Garaia hobeto ulertu ahal izateko, beharrezkoa da arreta gehiagorekin barnealde (uste osoz edo ezinbestez) frankista aztertzea. Hor sartzen dira Ángel Irigaray, Luis Michelena edota Alfonso Irigoyen bezalako euskaltzain abertzaleak, linguistika-filologiez kanpo, orain artekoak baino ikerlan sakonagoak merezi dituztenak. Ondorio bera aterako dugu, adibidez, erbesteko *Euzko-Gogoa* eta barnealdeko *Egan* aldizkariak konparatzen baldin baditugu. Ikuspegi arazo hau orokorra da Euskal Herriaren historiografiaz den bezainbatean (Rivera & Pablo 2018).

Espainiako gerra zibilak eta berrogei urteko diktadura amaigabeak euskarazko kulturaren memoria publikoa eraso eta, hasieran, genozidio kulturala burura eramateko asmoa izan arren, ez zuen katea guztiz eten. Maila guztiak hautsi izan balira, ez nintzateke honelako ikerlan bat egiteko gauza izango. Nire tesiaren asmoa da, hain zuzen, Euskaltzaindiaren eta euskal kulturaren aro ilunegi hori orain arte ez bezalako oinarri enpirikoarekin eta edozein azterketak izan beharko lukeen zintzotasun historikoarekin aztertzea.[1]

[1] Nire aurreko idazlanak ikerketa honen aurrelan gisa uler daitezke (Ugarte Muñoz 2012; 2013; 2014; 2015; 2016; 2017).

IKER-35.indd 22 2/9/19 10:55

Hain zuzen, Euskaltzaindiaren artxiboko dokumentuak eskuan izan dituztenak ere, zaratarik ez egitearren, oin puntetan igaro dira politikoki deserosotzat jotzen duten Akademiaren garai horretatik. Besteak beste, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak, F. Krutwig akademikoaren urrezko ezteiak ospatu zituztenean, Euskaltzaindiaren historia ezaugarri ia mitologikoak dituzten hiru arotan banatu eta arrakasta izan duen «katakonba»ren metafora errepikatu zuen:

> Hiru aro nagusi nabari dira Euskaltzaindiaren historian. Lehena, gerla aintzinekoa, 1919-tik 1936 arte; bigarrena gerla zibilaren ondotik 1968 arte; hirugarrena Arantzazuko kongresutik honara doa. Lehenbiziko urratsetarik katakunbetara, katakunbetarik berpiztera, berpiztetik euskara baturantz, hola deit daitezke hiru aro horiek (Haritschelhar 1997: 9).

Omenaldi liburu horretan, José M.ª Satrustegui idazkari ohiak bide beretik jarraitu zuen. Euskaltzainburuak bezala, Nafarroako ordezkariak garaiko dokumentu eta testigantzak ezagutu eta argitara eman arren, nahiago izan zuen bere interpretazioan narrazio poetiko idealizatuari eutsi, gaiak gehiagorako ematen ez zuelakoan:

> Gertakizunen abiapuntu berezkoa Azkue izan zen, basamortu gorriko lehortean bera baitzen lekukotasunaren aldaska bizirik mantendu zuen enborra, Erribera kaleko zuraje ilunen ataka meharretan erdi fosildutako itzalen antzera. Bizirik, hala ere, Euskaltzaindiaren eten gabeko historia idazten. «Cogito ergo sum» esan zezakeen itxura guzien aurka euskaltzainburuak Elkargo izkutuaren izenean, hainbat kultur elkarte eta ekintza garrantzitsu, oroigarrien sabaian zokoraturik zeuden bitartean.
>
> Ibaizabalgo ur kutsatuen ertzean bizirik iraun eta euskaraz amets egiteko adorea zutenen artean Gregorio Maidagan ere aipatu ondoren, F. Krutwig zatekeen bere germaniar abizen eta guzti, sator zuloko euskal gaietan gehiena azaltzen zen hurrengo mamua. Gutxi edo asko, hori da tiroketa eta sirena artean, nahiz geroago kaki nabarren ondoan joan-etorrika igarotako orduez euskararen inguruan esan daitekeena. Merezimendu asko eta itxaropen gutxi ameslarion zaletasunarentzat, arrisku guztiekin (Satrustegi 1997: 313).

Omenaldi horren aurretik eta ondoren, bestelako urteurren eta lorpenak ospatzeko, Euskaltzaindiak hainbat saio egin zituen bere historia kontatzeko. Urte eta ekintza askoren deskribapena orrialde gutxitan ematera behartuta, eta ikerketa zientifikoan ohikoak diren erreferentziak aipatzeko aukerarik gabe, aztertu nahi izan dudan garaian ezin izan zuten behar bezala sakondu. Ulerga-

IKER-35.indd 23 2/9/19 10:55

rria denez, erakundearen aurkezpen ofizialak edo ofiziosoak izateak ere, egileen interpretaziorako gaitasuna mugatu zuen. Orain arteko historia osoena Euskaltzaindiaren 90. urteurrenean plazaratu zen, baina dibulgazio testua da, ez ikerketa (San Martín 1968; Villasante 1976; Arana Martija & Ugalde 1984; Torrealdai & Murua Uria 2009).

Euskaltzaindiaren biblioteka-artxiboko zuzendari zenak, lehen eskuko informazioarekin, erakundearen historiako berri ugari bildu zituen, baina modu zatikatu eta asistematikoan (Arana Martija 1982; 1983; 1990; 1992a; 1992b; 1993; 2004). Beste horrenbeste esan daiteke Nafarroako Foru Diputazio frankistarekiko harremanaz argitaratutako artikulu bakanegiaz (Jimeno Jurío 1996). José Luis Lizundia euskaltzain diruzainak, halaber, «Euskaltzaindiaren historia» proiektua zuzendu zuen hiruzpalau urtez, baina emaitzarik argitaratu gabe eten egin zen, eta ondorioz tesi honetarako ezin izan dira proiektu horretako materialak erabili (Euskaltzaindia 2014). Linguista eta filologoek, euren espezialitateari jarraituta, euskararen estandarizazio prozesuan sakondu dute, baina testuinguru soziopolitikoa bigarren mailan utzita (Etxebarria 1986a; Zuazo Zelaieta 1988; Azkarate 1997; 2015; Goenaga 2000; Sarasola 2004; 2006; 2015; Alvarez 2011; Salaburu 2015).

Ezin dira aipatu gabe utzi Eusko Ikaskuntzari (Euskaltzaindiaren «ama»ri, beraz) eskaini zaizkion ikerlan aitzindariak. Hala ere, Autonomia Estatutuaren gaiari garrantzi gehiago eman zioten, eta halabeharrez Espainiako Bigarren Errepublikarekin amaitzen zen kontaketa (Estornés Zubizarreta 1983; 1990). Hain zuzen, azterketa horien nolabaiteko jarraipen tematikoak dira Euzkadiko Jaurlaritzaren kulturgintzaz edota Euzko Irakastola Nagusiaz egin diren ikerlanak, gerra zibilarekin bukatzen direnak (Sebastián García 1994; Aizpuru 2012). Gerraondoa aztertzen dutelako, aipamen berezia merezi dute Eusko-Ikaskuntzen Lagunartearen nahiz Instituto Americano de Estudios Vascos-en historiek, erbesteko ikuspegiari eusten diotenak (Larronde 2004a; 2004c; Beramendi 2012).[2]

Horregatik eredugarria da Institut d'Estudis Catalans-en historia ofiziala, Kataluniako goi mailako kultura eta ikerketarekin gertatu ohi den bezala (Gassol i Bellet 2017-2018). Alde batetik, egileek muga kronologiko kanonikoak gainditu zituztelako: bi liburukitan 1907-1942 eta 1942-1989 arteko historia jaso zuten, hurrenez hurren. Bestetik, Kataluniako erakunde kulturalaren azterketa dokumentatua eta kritikoa delako, ikuspegi nazionalistatik

[2] Euskarazko prentsaz nahiz euskararen erabilera (proto)unibertsitario garaikideaz egindako tesi sintetikoak ere erabilgarriak dira (Díaz Noci 1995; Artetxe Sánchez 2011; 2013).

IKER-35.indd 24 2/9/19 10:55

idatzita egonagatik (Balcells, Izquierdo & Pujol 2002; 2007). Agian bikaintasun historiografiko horretaraino iritsi ez arren, funtsezkoak dira filologoek hirurehun urteko Real Academia Española zaharraz egin dituzten saioak, RAEko kideen artean bi euskaltzain sortzaile (R. M. Azkue eta J. Urquijo) egon zirelako (Calvo Sotelo & al. 1992; Zamora Vicente 1999; García de la Concha 2014).[3]

Euskaltzaindiaren historia kritikoki aztertzeko aukera, euskaltzain bereziki entzutetsuen biografia intelektualetatik etorri da batez ere. Ezinbestean aipatu behar da Resurrección M.ª Azkuez egindako tesia, betiereko euskaltzainburuak irmo zuzendu zuelako erakundearen hasierako historia. 1919-1936 arteko Euskaltzaindiaren ibilbidea ezagutzeko azterketa onena izan arren, berriz ere Errepublikaren mugarekin aurkitzen gara (Kintana Goiriena 2008; 2015). Muga kronologikoaz beste, Pierre Lafitte Frantziako akademikoaren 1920-1944 arteko sare intelektualaz egindako tesiak ez du sakontzen iturri ekonomiko guztiak, egoitza eta jarduera nagusia Espainian zituen «Bilbaoko Akademia»n (Hernández Mata 2007). Beste horrenbeste esan daiteke Euskaltzaindiaren Baionako ordezkari historikoak egindako ekarpen ugariez (Charritton 1990; 1994; 1997a; 1997b; 2003a; 2003b; 2007; 2009; 2013).

Lehen frankismoko euskal barnealdeari askoz gehiago erreparatu zion beste akademiko baten biografiak, XX. mendeko euskal historia kulturalaren mugarri bilakatu denak. N. Ormaechea «Orixe»ren azterketan, ordea, idazle handietsiaren korrespondentzia izan zen erabilitako artxibo iturri ia bakarra (Iztueta 1991; Iztueta & Iztueta 2006).[4] Hain zuzen, hutsune historiografiko hori betetzeko egin dudan dokumentatze lana nabarmendu behar dut. Erabilitako artxibo nagusia, Bilboko Euskaltzaindiarena izan da, noski. Exhaustiboki aztertu dut erakundearen funtsezko dokumentazioa (aktak, zuzendaritza eta idazkaritzaren gutuneria, kontabilitate ekonomikoa), baita R. M. Azkue euskaltzainburuaren artxiboa eta bestelako funts pertsonalak ere. Horren gehigarri, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturuneak gordetzen dituen funts aberatsak aztertu ditut: J. Urquijo euskaltzainaren artxiboa, «Seminario de Filología Vasca *Julio de Urquijo*»ren dokumentazioa edota L. Michelena euskaltzainaren korrespondentzia, besteak beste.

---

[3] Gauza bera esan daiteke J. Urquijo buru izan zuen Real Sociedad Vascongada de Amigos del País-en historia ofizialez (Saiz Valdivielso & al. 1993; Goicoetxea Marcaida 1997; Aycart Orbegozo 2005; 2006).

[4] Azken lan horren ildokoa da 1950eko hamarkadako euskal literaturaz egin den tesi panoramikoa (Sudupe 2011a; 2011b; 2011c).

IKER-35.indd 25 2/9/19 10:55

Korporazioaren irudi horren osagarri, beste bi iturri nagusi erabili ditut. Alde batetik, Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa, Akademiaren kontrol politikoa zeraman frankismo ofizialaren ikuspegia ematen duena. Bestetik, Bilboko Sabino Arana Fundazioaren Abertzaletasunaren Agiritegia, EAJ-PNVk sortutako dokumentazioa gordetzen duena. Horrela, aztergaiaren irudi politiko orekatua eman ahal izan dut. Erabilitako artxibo zerrenda osoaz jabetzeko, irakurleak iturrien atalera jo dezake: Sancho el Sabio Fundazioa, Consello da Cultura Gallega, RAE, etab. Era berean, garaiko hemeroteka nagusia ustiatzeko egindako ahalegina aipatu behar dut, irakurleak gainerako bibliografiarekin zerrendatuta aurkituko duena.

Euskaltzaindiaren historia nahitaez euskararen historia soziokulturalean kokatzen da, erakundeak sorreratik hizkuntzan ez ezik gizartean ere eragin nahi izan zuelako, batez ere euskaraz hitz egiten zuen gizarte gutxituan. Nire ustez, euskararen historia sozial hori egiteko beharra eta tresna intelektualak *Un futuro para nuestro pasado* tesi soziolinguistikoan eta ondoko lanetan ezarri ziren (Sánchez Carrión 1987; 1991; 1992; 2015). Euskal Herriko politika linguistikoak alde batera utzita, bistan dago tesi horren eragina azken hogeita hamar urteko euskarazko kulturaren historiografian, baina kudeatu beharreko informazio ugariak arazoak sortzen ditu eta, ondorioz, pertsona edo erakunde aipagarrien azterketara jo da, salbuespen gutxirekin (Erize Etxegarai 1997; Madariaga Orbea 2014). Euskaltzaindiak, hain zuzen, euskararen historia sozial anonimo hori egiteko proiektua abiatu eta metodologia xehea proposatu du (Intxausti 2007; 2011; Zalbide, Joly & Gardner 2015).

Nire saioa ere intelektualen historiaren arlokoa izan arren, José M.ª Sánchez Carriónen idazlanen lorratzean egindako ikerketa da, pertsonen eta komunitateen arteko berdintasuna duelako helduleku etiko. Gabezien artean, emakumeen presentzia eskasa nabarmendu behar da, garaiko matxismo granitikoaren isla besterik ez dena. Aitzitik, gizonekin egin bezalaxe, emakumeen ekarpena dokumentatzen eta identifikatzen saiatu naiz, ahal izan dudan neurrian. Era berean, ezkerreko ideologiak ia ez dira agertzen, garaiko euskal gizartearen izaera kontserbadoreagatik eta euskarazko kulturan ezkerrak zuen pisu txikiagatik. Izan ere, frankismoaren errepresio hutsak eskasia hori ez du azaltzen, adibidez, eskola liberal menendezpidalistaren eta are katalanismo errepublikazalearen ondareak ere diktaduran izan zuten jarraitutasunarekin konparatzen badugu.

Nolanahi den, ez da hau euskal hiztunen azterketa, baizik eta neurri handi batean erdaraz ere aritzen zen Euskararen Akademiarena, frankismoko inte-

IKER-35.indd 26 2/9/19 10:55

lektualen historiografian kokatzen dena (Morente 2016). Pertsona bakarrari (F. Krutwig, adibidez) erreparatu ordez, historia biografiko kolektiboaren zenbait ideia ere erabili ditut akademikoen ekarpena, korporazio gisa, aztertzeko. Zentzu horretan eredugarri izan dira Eusko Ikaskuntzaren zuzendaritzako kideak, euskal parlamentario garaikideak edota Bilboko alkate frankistak aztertu dituzten taldeko lanak (Agirreazkuenaga & al. 1998; 2007; 2008). Dena dela, nire ikerketa oso pertsonalista da, baita filosofikoki ere, indibiduoaren gogoetak, ekintzak eta harremanak dituelako aztergai. Horregatik, garrantzi berezia eman diot korrespondentzia arakatzeari, gutun pribatuek, gehiago hurbiltzen gaituztelako pertsonen motibazioetara, publikoari begira idatzitako dokumentuek baino.[5]

Terminologiari dagokionez, irakurleari atentzio gehien emango diona agian «Espainia» nahiz «Frantzia» hitzen erabilera izango da. «Euskal Herria» termino arautua erabili dut mendetako errealitate etnokulturala adierazteko, Espainiari dagokionez Bigarren Errepublikan bere ahalmen juridikopolitikoa gauzatu gabe geratu zena.[6] Maila politiko-administratiboaz aritzean, «Hegoalde/Iparralde» anakronikotzat jo ditut, garaiko testuetan, gaur egun ez bezala, oso gutxi agertzen direlako. Bestalde, «barnealde/erbeste» bikote politikoa erabili dut, artean abertzaletasunak egiten zuen bezala. Hain zuzen, frankismoak Gerra Hotzean homologatzea lortu ondoren hasi ziren abertzaleak «Hegoalde/Iparralde» bikote geografikoa gehiago erabiltzen, «statu quo» politikoak luze joko zuelako seinale. Era berean, Frantzian izaera administratiborik ez duten «Lapurdi», «Nafarroa Beherea» eta «Zuberoa» lurralde historikoen ordez, «Pirinio Behereak» («Basses-Pyrénées») departamendu errepublikanoa erabili dut, barrutiak bereiztea nahasgarria zelakoan. «Euzkadi» termino ofiziala erabili dut lurralde nahiz Gobernu autonomoa izendatzeko, baina bestelako toponimia nagusian Euskaltzaindiaren forma arautuak erabili ditut.

---

[5] Erabilitako gutun gehienak argitaragabeak izanagatik, iturri argitaratu guztiak erreferentziatzen saiatu naiz: Onaindia 1974; Barandiaran Irizar 1995; Charritton 1997a; Ondarra 1997; Satrustegi 1997; Mirande Aipharsoro 1999; Ibiñagabeitia 2000; Urkizu 2004; Andiazabal & al. 2004; 2005; 2006; Jauregi 2005; Iztueta & Iztueta 2006; Iztueta & Diaz 2007a; 2007b; Irujo Ametzaga 2009a; 2009b; Escribano Hernández 2011; Kortazar 2016; etab.

[6] «País Vasco-Navarro» zioen gaztelaniaz 1932ko ekainean udal ordezkariek Iruñean bozkatu zuten Autonomia Estatutuaren testuak. BPDko batzorde kudeatzaileak estatutu proiektua euskarara itzultzea M. Arruzari agindu zion 1932ko apirilean, GPDk ere argitaratu zuena, egokitzapen morfologiko gutxi batzuekin: *Euskalerriarentzako sortarau-asmoa* (BPD 1932; GPD 1932; Gallastegi 2005: 69).

IKER-35.indd 27 2/9/19 10:55

Ahal izan dudan neurrian, ikerlan europeista eta «plurinazionalista» egiten saiatu naiz, eta horretarako «Espainia» eta «Frantzia» terminoak erabili ditut ehunka urteko egitura geopolitiko, juridiko eta historiko saihetsezinak izendatzeko, konnotazio identitarioak inposatzeko asmorik gabe (Clavero Salvador 2016). Gaur egungo Euskadi autonomoan abertzaletasunak izan duen gizarte hegemoniaren ondorioz, euskal kulturaren azken berrogei urteko historiografia irakurrita, balirudike Euskal Herria inoiz egitura politiko autonomoa edo are independentea izan dela. Espainia «nazio-estatua» eta frankismoa bata bestearekin identifikatuz eta nahastuz, lehenengoa tabu bilakatu da. Baina nire ustez hori errealitatearen distortsio boluntarista da, besteak beste, proiektu politiko abertzaleen ibilbidea ulertzea oztopatzen duelako. Historiografikoki uste dut zuzenago dela «Zesarrena Zesarri» ematea (Portillo Valdés 2018).

Onomastikarekin jarraituta, uko egin behar izan diot hasieran erabili nuen irizpide koherenteari, hots, Euskaltzaindiaren berariazko batzordeak araututako euskal deituren formak erabiltzeari. Zoritxarrez edo zorionez, irizpide hori ez da betetzen batzorde horretatik eta Akademiaren katalogoetatik kanpo (Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordea 1998; Azkue Biblioteka Batzordea 2006). Nire aurreko idazlanetan euskal arau onomastikoak jarraitzeko burua nekatu ondoren, bidegabea iruditu zait tesian «plus royaliste que le roi» agertzea. Azkenean, nahi baino berridazketa gehiago egin ondoren, *Euskera* agerkari ofizialean ikerketa honi dagokion garaian argitaratutako akademikoen izendegiak erabili ditut irizpide nagusi gisa, erdal grafiarekin idatzita agertu ohi direnak, salbuespen (R. M. Azkue, Raimundo Olabide) oso gutxirekin (Euskaltzaindia 1920c; 1930b; 1931; 1953; 1958; 1961b; 1962; 1963-1964; 1968).

Euskal idazle zaharren deiturak ere jatorrizko grafia «klasikoan» utzi ditut, forma arautuak nahiko hedatuak egon arren: «Bernard Dechepare», baina ez «Bernart Etxepare», etab. Horrek inkoherentzia bitxiak eragin ditu: «Luis Michelena» forma erabili dut Gipuzkoako euskaltzain ospetsua izendatzeko, nahiz eta haren «euskal» izena daraman Koldo Mitxelena Kulturunea (KMK) behin eta berriz aipatu behar izan dudan iturri gisa. Hain zuzen, garaiko erakundeen izenak ere, ulerterrazago diren jatorrizko erdal forma ofizialetan utzi ditut; itzulpen arruntagoak dituzten kasu ezagunetan (ministerio, diputazio, unibertsitate edota elizbarruti bezalakoak) izan ezik. Euskal Herriko gehiengo zabalarena bezala, nire lehen hizkuntza gaztelania denez, ekarpen bat egin nahi izan diot euskarazko produkzio intelektualari, beldur naizelako euskara ez ote den, maila jasoan, bitartekarien hizkera hutsa bihurtzen ari.

IKER-35.indd 28 2/9/19 10:55

1. EUSKALTZAINDIAREN SORRERATIK GERRA ZIBILERA

1.1. EUSKALTZAINDIAREN SORRERA ETA EGINKIZUNAK

Euskaltzaindia giro jakinean sortu zen, krisi soziopolitikoak jotako Espainiako Erresuman Lehen Mundu Gerrak izan zituen ondorioekin, hau da, arrisku iraultzailearen eta autonomismo wilsonianoaren gorakadan, bereziki katalanismoaren indarrak piztu zuena. Euskal Herriaz den bezainbatean, posibilistago bilakatutako abertzaletasunak eraman zuen autonomismoaren aldeko gidaritza. Alderdi jeltzaleak 1917ko probintzia hauteskundeak Bizkaian irabazi ondoren, Ramón de la Sota izendatu zuten Bizkaiko Probintzia Diputazioko presidente. Jeltzaleek euskal kulturaren aldeko neurri berritzaileak hartu zituzten administrazioaren eta hezkuntzaren alorrean, gerra zibileko Euzkadiko Jaurlaritzak hartutakoen nolabaiteko aurrekariak izan zirenak. Horrela, diputatu jeltzaleek Euskararen Akademia sortzearen aldeko mozioa aurkeztu zuten 1918ko urtarrilaren 25eko batzarrean. BPDren proposamena jaso ondoren, Oñatin irailean ospatu zen biltzarrean Akademia proiektua lantzea erabaki zuen Gipuzkoako Probintzia Diputazioak. Gipuzkoako biltzar jendetsuak izan zuen garrantziaren erakusgarri, bertan izan ziren Alfonso XIII.a erregea eta Euskal Herriko hiru apezpikuak. Lehenengo aldiz, Euskal Herriko lau diputazioak ordezkatzen zituen kultura erakundea sortu zuten Oñatin: Eusko Ikaskuntza («Sociedad de Estudios Vascos»).

Biltzarraren hizkuntza sailak, halaber, Euskararen Akademia bat sortzea erabaki zuen euskara ikertu eta zaintzeko. Ondoren elkarte horren lau kide sortzaileak hautatu zituzten: Arturo Campión, Resurrección M.ª Azkue, Julio Urquijo eta Luis Eleizalde. Nolabait Akademiaren izaera bikoitza irudikatu zuten. R. M. Azkue euskara katedraduna zen Bilboko irakaskuntza ertaineko

IKER-35.indd 1 2/9/19 10:55

institutuan. L. Eleizalde jeltzalea BPDko «Eŕi-Irakaskuntza-Batzorde» («Junta de Instrucción Pública») berriaren ikuskaria zen. A. Campión eta J. Urquijo errentadunek, ordea, ezin zuten euskaraz normaltasunez egin, nahiz eta historia-filologietan adituak izan. J. Urquijok, hain zuzen, Oñatiko biltzarraren hizkuntza saileko hitzaldi nagusia eman zuen: «Estado actual de los estudios relativos a la lengua vasca». Bitasun horrek hasieratik baldintzatu zuen gaztelania hizkuntza korporatibo nagusi izan zuen Euskaltzaindiaren jarduera. Ikerketa deskribatzailearen eta normatibizazio sozialaren arteko tentsioa eragin zuen erakundearen egituran; araudian ere islatu zena. Hain zuzen, L. Eleizaldek, euskararen gizarte arazoaz kezkatuta, «Metodología para la restauración del euzkera» izeneko hitzaldia eman zuen Oñatin (Antxustegi 1998).

EI-SEVek deituta, lau akademiko sortzaileak bildu ziren 1919ko irailaren 21ean GPDko jauregian. Laurokin batera, euskara eta euskal kultura lantzen zituzten aldizkarietako ordezkariak bildu ziren, gainerako zortzi akademiko hauek hautatzeko: D. Aguirre, P. Broussain, B. Adema, R. Inzagaray, J. Aguerre, J. B. Egusquiza, R. Olabide (SI) eta P. Lhande (SI). BPDk aurkeztutako moziotik beretik Euskararen Akademia eragin jeltzalepean lotzeko saioak egon ziren, baina elkartearen gutxieneko pluraltasun ideologikoa eta autonomia akademikoa ziurtatzea lortu zen. Nolanahi den, 1919-1920 artean bi euskaltzainek uko egin zioten postuari (B. Adema, J. Aguerre) eta beste bi hil egin ziren (D. Aguirre, P. Broussain). Ondorioz, lau euskaltzain berri izendatu behar izan zituzten berehala: M. Landerreche, D. de Inza, S. Altube eta G. Lacombe.[7]

Akademiak, Donostian, 1920ko ekaineko batzarrean onartu zituen bere estatutuak: *Euskaltzaindiaren sońtarauak = Estatutos de la Academia de Lengua Vasca*. Horren arabera, Akademiaren helburua euskara zaindu eta lantzea zen, hala filologiaren arloan nola gizarte erabileran. Horregatik, Euskaltzaindiak bi sail nagusi izango zituen: «ikerleen» saila eta «yagoleen» saila (Euskaltzaindia 1920a). «Ikerleen» saila («sección filológica») arlo zientifikoaz arduratu behar zen: fonetika, semantika, prosodia, morfologia, sintaxia edota ortografia. Hau da, euskararen deskribapen zehatza burutu behar zuen, gramatika eta, batez ere, hiztegi banatan jasoko zena. Garaiko ikerketa filologikoen mailan jarri nahiz, JAEren edota Institut d'Estudis Catalans-en gisako fonetika laborategia

[7] EI-SEVen nahiz Akademiaren sorreraren historiarako: Estornés Zubizarreta 1983; 1990; Akesolo & al. 1989; Iztueta 1991; Estornés Lasa 1996; Agirreazkuenaga & al. 1998; Hernández Mata 2007; Kintana Goiriena 2008; 2015; Torrealdai & Murua Uria 2009; Artetxe Sánchez 2013; Urrutia Badiola 2015.

IKER-35.indd 2 2/9/19 10:55

eta bulego lexikografikoak ezartzeko asmoa adierazten zuten 1920ko estatutuek. Tokiko unibertsitaterik ezean, Akademiak diruz lagundu zituen zenbait urgazle, filologia ikasketak egin zitzaten Europan, JAEko Centro de Estudios Históricos-en ereduari jarraituta, gero Euskaltzaindian lan egiteko, baina inkesta dialektologikoetan laguntza puntuala ematera mugatu ziren, lankidetza iraunkorrik sortu gabe (Etxebarria 1986a: 377-378).

Bigarren sailaz den bezainbatean, «yagoleen» sailak («sección tutelar») euskara gorde, hedatu eta araztu behar zuen bizitzaren maila eta gizartearen harreman guztietan. Horretarako bitarteko nagusia estandar literario bat sortzea zen, euskalki guztietan oinarrituta omen. Era berean, «ikerleen» sailari lexikografian lagundu behar zion. Euskaltzaindiak ahalegin handiak egin zituen gaztelania-euskara hiztegi normatibo handi bat plazaratzeko, baina ikusiko dugunez asmo horrek ere porrot egin zuen. Estandarizazioaren bidetik, *Informe de los señores académicos A. Campión y P. Broussain a la Academia de la Lengua Vasca sobre la unificación del euskera* (1920) delako dosierra aurkeztu eta eztabaidatu zen, baina, batez ere Bizkaiko abertzaleek egiten zuten oposizioagatik, Akademia ez zen ausartu bide horretan aurrera egiten. Neologismoen edota onomastikaren auziak arazo berak eragin zituen. Erdibide gisa, 1920an sabindar ereduari jarraitzen zion alfabetoa arautu zuen Euskaltzaindiak.

Erdarazko paisaia linguistikoan eragiteko asmoarekin, idatzizko bizitza publikoan nonahi agertzen ziren liburu, testu edota iragarkiak euskaratzeko asmoa agertzen zuen: eskola, eliza, museoak, laborategiak, agerkariak, egunkariak edota kale izendegiak. Halaber, euskarazko idazketa eta irakurketa areagotzeko, literatura lehiaketak antolatu eta idazlan klasikoen eta erlijiosoen itzulpenak sustatu behar zituen. Bestalde, hala euskarazko dokumentu zaharrak jaso eta argitaratzeko nola euskal hizkuntza nahiz literatura katedrak sortzeko asmoa agertzen zuten. «Ikerleen» sailarekin gertatu bezala, 1920ko estatutuek ezarritakoa baino maila apalagoan ibili behar izan zuen «yagoleen» sailak ere, eguneroko prentsan euskarazko presentzia testimoniala ziurtatzea ere nekeza zen garaian.

Akademiaren antolaketa organikoari dagokionez, Euskaltzaindia hamabi euskaltzainek («socios numerarios») eta zortzi urgazlek («correspondientes») osatzen zuten, guztiak euskal jatorrikoak eta hizkuntzaz euskaldunak. Gutxieneko kopuru horri, zehaztu gabeko deduzkoak («socios honorarios») eta urgazleak gehi zekizkiokeen, atzerritarrak barne. Euskaltzainen betebeharra, alde batetik, Akademiaren zereginetan laguntzea eta idazlanak argitaratzea zen eta, bestetik, batzarretan parte hartu eta erabakiak hartzea. Urgazleek, aldiz, ikerketak bidali behar zituzten Akademiara, eta euskal-

IKER-35.indd 3 2/9/19 10:55

tzainburuaren baimenarekin batzarretako literatura gaietan parte har zezaketen, hitzarekin, baina botorik gabe. Euskaltzainik atzerrian egon zenean 1920ko hamarkadan, batzarretarako behin-behineko ordezkoak ere izendatu ziren pare bat urtez.

Akademiaren zuzendaritza euskaltzainburuak, diruzainak, liburuzainak («gutuntzain» jatorrizko terminologian) eta idazkariak («idazlari» edo «zadorlari» jatorrizkoan) osatzen zuten, euskaltzainen artean botoz aukeratuak. Bestalde, soldatapeko idazkariorde bat (G. Maidagan) izendatu zen, ez zuenak euskaltzain izan beharrik. Euskaltzainburuaren zeregina zen batzarrak zuzentzea, araudi-erregelak eta erabakiak betearaztea, Akademiaren zereginak banatzea eta agintari eta erakundeen aurrean ordezkari izatea. Idazkariak Akademiaren akten, dokumentuen, gutuneriaren eta oroitidazkien ardura hartzen zuen bere gain. Bibliotekariak Akademiaren liburu eta eskuizkribuak zaindu behar zituen. Diruzaina, azkenik, kudeaketa ekonomikoaz arduratzen zen, Akademiaren nahiz diputazioen aurrean.

Euskaltzaindiaren egoitza Bilbon ezarri zen, behin-behinekoa izan behar zuen Ribera kaleko etxean, baina bulego egokiagoa lortzeko saioek huts egin zuten. Batzarrak ohikoak nahiz apartekoak izan zitezkeen. Ohiz kanpokoak deitzeko hiru euskaltzainek eskatu behar zuten. Estatutuen arabera, ohiko batzarrak pribatuak nahiz publikoak izan zitezkeen. Pribatuak hamabost egunean behin bildu behar ziren, literatura eta kudeaketa gaiez jarduteko. Batzar publikoak euskaltzain berrien sarrerak eta literatura sariketak antolatzeko ziren. Diputazioen laguntzarekin, euskaltzainei dietak ordaindu behar zitzaizkien batzarretara joan ahal izateko. Batzarrak botoz onartu gabe, Akademiak ezin zuen lanik agindu edota bere izenean idazlanak argitaratu.

Euskaltzaindiaren baliabide ekonomiko nagusiek diputazioen aurrekontuetatik etorri behar zuten. Bestelako instituzio eta partikularrek dohaintzak egin zitzaketen. Era berean, Akademiaren argitalpen eta proiektuek beste diru sarrera bat izan behar zuten. Horretarako, Akademiak izaera juridikoa behar zuen dohaintzak jaso, kontratuak egin eta baliabideak kudeatzeko. Hain zuzen, *Euskaltzaindiaren barneko araudia = Reglamento interior de la Academia de la Lengua Vasca* delakoak Akademia eta EI-SEVen arteko harremanak zehazten zituzten. Euskaltzaindia EI-SEVen filiala edo «alaba» zen, baina erabateko autonomia zuen beraren estatutuek adierazitako literatura ekintzetan. Asmoa badirudi Akademiaren izaera juridikoa filial gisa zehaztea zela, baina hori arazo bilakatu zen, gerra zibilean EI-SEV desagertu zenean (cf. Euskaltzaindia 1920b).

IKER-35.indd 4 2/9/19 10:55

Euskaltzaindiak, teorian, EI-SEVen gainerako sailen arloz arloko laguntza eskatzen zuen euskal hiztegia osatzeko. Horren ordainez, Euskaltzaindiak EI-SEVen sail zientifikoei lagundu behar zien testuen itzulpengintzan. Dena dela, EI-SEVen jardueran gaztelania nagusitzearen ondorioz, euskara ez zen inoiz lan hizkuntza transbertsala bilakatu eta horrek Akademiaren ahalmena ere murriztu egin zuen berehala. Era berean, Euskaltzaindiak ez zuen bere eginkizun normatiboa bete, esaterako, gaztelania-euskara hiztegiaren egitasmoan. EI-SEVen zuzendaritzan Euskaltzaindiak ordezkaritza izan behar zuen, unean uneko euskaltzainburu eta idazkariaren bidez. Hala ere, erregeletako behin-behineko artikuluak agintzen zuenez, Oñatiko 1918ko biltzarrean EI-SEVeko zuzendaritzako kide izendatutako J. Urquijo eta L. Eleizalde izan ziren hil arteko lehenengo ordezkariak. Euskaltzaindiak 1935 arte urtero 3.000 pezetako aurrekontua jaso zuen EI-SEVetik. Dena dela, Euskaltzaindiak ibilbide askea egin zuen, eta uste baino harreman gutxiago izan zuten bi erakundeek, nahiz eta 1933tik aurrera EI-SEVen Bilboko ordezkaritza Akademiaren Ribera kaleko egoitza bera izan. Azaleko harreman hori bistan dago Akademia zuzendu zuen R. M. Azkue elizgizonaren kasuan, gutxitan parte hartu baitzuen egoitza GPDko jauregian zuen erakundearen zereginetan.[8] Badirudi J. Urquijok euskaltzainburuaren gaitasunarekiko erakutsi zuen errezeloak eragin zukeela jarrera hori, R. M. Azkuek EI-SEVen buruari adierazi zionez:

> Por delicadeza jamás me he ent[r]ometido en asuntos concernientes a la Sociedad de Estudios Vascos. Desde que en Pamplona, con ocasión del Congreso, me dijo Urquijo «ahora le toca a V. entrar en la Sociedad, a no ser que prefiera V. renunciar a su derecho, para que siga Eleizalde en su puesto[»]. Yo, condescendiente por mi carácter, acepté aquella no sé hasta qué punto amistosa invitación y le dije que por mí no había inconveniente en que Eleizalde siguiera ocupando aquel puesto; desde entonces y aun hasta aquella fecha, jamás me he inmiscuido en asuntos concernientes a la dirección de la Sociedad. Pago mi cuota de socio y no hago otra cosa.[9]

Hain zuzen, L. Eleizalde euskaltzain idazkaria 1923an hil zenean, Carmelo Echegaray eskuindar historialaria izendatu zuten Akademiako ondoren-

[8] Batzarretako partaidetzak ikusita, L. Eleizalde hil ondoren, J. Urquijo eta B. Echegaray izan ziren EI-SEVen zuzendaritzako euskaltzain aktiboenak 1930eko hamarkadan. Bestalde, EI-SEVen hizkuntza saileko S. Altube nabarmendu behar da giro autonomista horretan. R. Inzagaray apaizak, halaber, eguneroko presentzia izan zuen egoitza Donostian zuen erakundean (cf. Estornés Lasa 1996).

[9] ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna J. Elorzari, 1929-06-11.

IKER-35.indd 5 2/9/19 10:55

gotzat; baina oso gutxirako, 1925ean hil baitzen. Bonifacio Echegaray anaiak bete zuen hutsunea. M. Landerreche zaharra ere 1930ean hil zen eta J. Elissalde elizgizona izan zen ondorengo izendatua. Hasierako aldaketen ondoren, diktadura primorriveristatik gerra zibila hasi arte, talde berak osatu zuen Akademiaren zuzendaritza, nolabaiteko egonkortasunarekin: R. M. Azkue buru, R. Inzagaray idazkari, S. Altube diruzain, A. Campión «ikerleen» sailburu, D. de Inza «yagoleen» sailburu eta G. Lacombe liburuzain. Zuzendaritza hori 1923ko azaroan aukeratu zenetik, 1925ean, 1927an, 1930ean eta 1932an berrautatu zuten. Hurrengo urteetan ez zen zuzendaritza berritzeko bozketarik egin (Euskaltzaindia 1925: 119-121; 1926: 65-66; 1930a: 46-47; 1933: 22-23, 285-286).

Hauek izan ziren hamabi euskaltzainak 1930-1936 artean:

1. Resurrección M.ª Azkue
2. Bonifacio Echegaray
3. Julio Urquijo
4. Arturo Campión
5. Severo Altube
6. Georges Lacombe
7. Jean Elissalde
8. Ramón Inzagaray
9. Dámaso de Inza (OFMCap)
10. Juan Bautista Egusquiza
11. Raimundo Olabide (SI)
12. Pierre Lhande (SI) (Arana Martija 1990: 22).

Guztiak ziren gizonezkoak eta batez besteko adina 61,58 urtekoa zen 1936an. Lurraldetasunari dagokionez, 1930eko hamarkadan, hamabi euskaltzainetatik bederatzi ziren Espainiakoak (%75), eta %25 Frantziakoak: G. Lacombe, J. Elissalde, P. Lhande. Bizkaikoak %25 (R. M. Azkue, J. Urquijo, J. B. Egusquiza), Gipuzkoakoak %25 (B. Echegaray, S. Altube, R. Inzagaray), Nafarroakoak %16,66 (A. Campión, D. de Inza) eta Arabakoak %8,33 (R. Olabide). Oreka geo-demolinguistiko horrek, diru laguntza ofizialetan ere isla nabarmena zuen.[10]

[10] Adibidez, 1930-1932 artean Akademiak urtero jaso zuen 26.490 pezetako aurrekontu ofiziala honela banatu zen: Gipuzkoako erakundeek 11.990 pta. ematen zituzten, Bizkaikoek 9.500 pta., eta Nafarroakoek 2.000 pta. Aurrekontua EI-SEVek emandako 3.000 pezetarekin borobiltzen zen. Araba eta Frantziako erakundeek ez zuten ezer ematen (ABA-EUS: G. Maidaganen kontabilitate liburua, 1930-1932).

IKER-35.indd 6 2/9/19 10:55

Ideologikoki guztiak ziren oso kontserbadoreak. Eliza katolikoaren hegemonia erabatekoa zen, eta hamabi euskaltzainetatik zazpi (%58,33) elizgizonak ziren; lau diozesiar apaiz (R. M. Azkue, J. Elissalde, R. Inzagaray, J. B. Egusquiza), bi jesuita (R. Olabide eta P. Lhande) eta fraide kaputxino bat (D. de Inza). Nork bere ideologia izan arren, aita santuari, apezpikuei edota ordenako nagusiei zor zieten mendekotasunak, nolabaiteko babesa ematen zion Euskaltzaindiari garaiko testuinguru politikoan saihetsezinak ziren borroka eta susmoekiko. Horrela, Espainiako Bigarren Errepublikan tentsio politikoak goia jo zuenean, ez zen ezker-eskuinaren arteko hausturarik egon, Akademian ezkerrik egon ez zegoelako.[11] Joera zentrista hori islatzen zuten jeltzaleak, bestalde, Akademiaren %25 ziren, horietako bi elizgizonak: S. Altube, J. B. Egusquiza eta R. Olabide.

Jeltzale eta eskuindarren arteko hausturarik ere ez zen egon hasieran, guztiak bat zetozelako Lizarrako Estatutuak irudikatzen zuen autonomismo katoliko konfesionalean: Errepublikarekiko gehienez ere akzidentalistak eta sozialki atzerakoiak ziren. Alde batetik, Akademian ez zegoen eskuin mutur antiabertzale eta antiestatutistarik. Bestetik, euskaltzain jeltzaleek ez zuten gehiengo esanguratsurik, EAJ-PNVk euskal gizartean zuen indar politikoa Akademiara eraman eta gainerako eskuindarrak posizionatzera behartzeko beste. Hain zuzen, Errepublikako urte giltzarri horietan ez zen euskaltzain berririk izendatu, eta Akademiak diktadura primorriveristan finkatutako egiturari eutsi zion. Ikusiko dugunez, gerra zibilak banatu zituen Espainiako euskaltzain katolikoak (cf. Goñi Galarraga 1989; Mees 2013).

1.2. **HAMABI EUSKALTZAINAK 1936AN**

Resurrección M.ª Azkue

Resurrección M.ª Azkue Aberasturi (1864-1951) Bizkaiko Lekeition jaio zen. 1888an apaiztu eta Bilboko irakaskuntza ertaineko institutuko euskara katedra irabazi zuen. Irakasle lanetan jardun zuen 1920an erretiroa hartu arte. *Diccionario vasco-español-francés* (1905-1906) bere lanik ospetsuena Frantzian

[11] Adibidez, 1930eko hamarkadan Akademiarekin monografia bat argitaratu zuen EAE-ANVko Justo Garate eruditua, ez zuten urgazle izendatu 1960 arte. Kontuan har bedi abertzale bezain moderatua zen ezkerraz ari garela. Gipuzkoako hautagai politiko izandakoak berdin gaitzesten zituen marxismoa, nazismoa edota freudismoa (cf. KMK-JU: J. Garateren gutuna J. Urquijori, 1948-02-12).

IKER-35.indd 7 2/9/19 10:55

argitaratzeko probak zuzentzen ibili ondoren, Belgikan eta Alemanian musika ikasketak egin zituen. Ezohiko lan gaitasunaren emaitza dira, halaber, *Cancionero popular vasco* kantutegia eta *Euskaleŕiaren yakintza = Literatura popular del País Vasco* (1935-1947) folklore bilduma, guztiak hizkuntzaren ikuspegi esentzialista eta ahistorikotik eginak izan arren. 1919tik aurrera Euskaltzaindira zuzendu zituen bere indarrak. 1921eko apirileko batzarrean eman zuen gipuzkeraren aldeko iritzia estandar literariorako. Akademiaren batzarretan irakurri eta eztabaidatu ondoren *Morfología vasca* edota *Gipuzkera osotua* bilakatu ziren idazlanak.

Politikagintza aktiboan ez zuen parte hartu, ideologikoki karlismotik integrismora eta integrismotik nolabaiteko abertzaletasun kulturalera igaro zen, baina EAJ-PNVrekin identifikatu gabe. Hain zuzen, eztabaida garratzak izan zituen S. Aranaren jarraitzaile dogmatikoekin, ez ziotelako autoritaterik aitortzen. Frankismoaren baliokide odolgabea den neurrian, diktadura primorriveristan izandako jokabidea da bereziki esanguratsua.

1924an, diktadorearekin berarekin biltzen saiatu ondoren, Ciudad Realeko apezpikuari idatzi zion. Euskaltzainburuaren ustez, separatismoaren aurka egiteko neurri eraginkorrena, hain zuzen, euskara lehen hezkuntzan sartzea zen. Euskaltzaindia instituzio zentsuratzaile gisa ere eskaini zion direktorioari, euskal liburuen argitalpena ziurtatzearren. R. M. Azkue, J. Urquijorekin batera, 1927an RAEko kide izendatu zuten, «sección vascongada»ren ordezkari gisa, gobernu dekretu baten ondorioz (Zamora Vicente 1999: 291-301). Kolaborazionismoa baino areago, euskaltzaletasunak gidatutako akzidentalismo politiko etengabea izan zen. R. M. Azkuek oso argi zuen unean uneko «mundutar» botereari zor zitzaion mendetasuna.[12]

Lizarrako Estatutu konfesionalaren aldeko jarrera eta harreman onak izan zituen diputatu jeltzaleekin; baita handiki eskuindarrekin ere, Errepublikaren aur-

[12] GPDko artxibozain ohiak, adibidez, Akademiaren aktetan agertzen ez den gertaera esanguratsuaren berri eman zuen: «Durante la dictadura de Primo de Rivera solía hallarse presente, sobre todo en los primeros tiempos, un policía; y ocurrió que uno de ellos planteó desde el primer momento la pregunta de si los presentes se disponían a expresarse en español o en *dialecto*. Oír esto don Resurrección y subirse a las paredes fue obra de un instante. El pobre policía, a quien hago la justicia de no creerle mal intencionado, quedó completamente acobardado; pero sucedió que se estaba tratando de la proyección de topónimos vascos fuera del país y que el policía se iba interesando en el asunto hasta el punto de que sugirió *sotto voce* al académico más cercano que él conocía algunos topónimos de ese género en su propia tierra, y como no le pareciera a éste desatinado, le invitó a que expusiese su información, la cual efectivamente no fue desatinada» (ABA-EUS: F. Arocenaren gutuna J. San Martíni, 1969-01-14).

IKER-35.indd 8 2/9/19 10:55

kako estatu kolpea prestatzen ari zirenak. Eliza katolikoari esleitzen zion aginpidean integrismo politikotik gertu egonda, beldurrez ikusi zuen Errepublikak hartu zuen bide laizista, eta susmo txarrez jeltzaleen ezkerrekiko elkartasuna. 1934ko greba iraultzailearen harira, adibidez, G. Bähr-ek honela idatzi zion: «Lacombe, con quien hablé brevemente en París el pasado octubre [...] me contó qué aterrado había estado Vd. por la revuelta de los comunistas» (Jauregi 2005: 168).

1936ko uztailaren 16an Iruñeko I. Baleztena karlistaren etxean egon zen. Konspirazio giroa bistan zegoen, baina euskaltzainburua inguruan gertatzen zenetik guztiz kanpo zegoen, bere ikerketa linguistikoetan murgilduta. Egoera guztia bertatik bertara bizi izan zuen B. Echegarayren arabera, gero ere «[p]ara Azkue, la guerra no existía» (Ibarzabal 2001: 31).

1936ko azaroan, «Euzkadi'ko Eŕi-zaintza Zaingoa»ri («Departamento de Gobernación») pasaportea eskatu zion itsasoz Baionara joan ahal izateko, bi hilabetez folklore bildumako materialak osatu nahi zituelako Frantziako Pirinio Behereetan.[13] Azaroaren amaieran R. M. Azkue Bilbon bildu zen T. Monzon sailburuarekin eta abenduaren 10ean «gipuzkera osotu»z idatzitako eskaria bidali zion. Euzkadiko buruzagi jeltzaleekiko oso adeitsu agertu arren, Lekeitioko baimenen arduradun komunistarekin zuen harreman txarra salatu zion. Gerra zibilak sortutako baldintza gogorrei zenbait hilabetez itzuri egin eta bere ikerlanetan murgiltzeko nahia nabarmena zen eskarian:

> Euskaleŕiari diozun maitasun andiaren arnari edo frutu bezala, ontzat ar zazu, aŕen! nire eskari au ta igoŕ zadazu «len bai len» pasaportea ta gainera salvo conducto deritzaion papertxoa.
>
> Lekeition paper onen arduraduna Ernaniko seme Apolinar Otxoa, comunista, dugu. Orain hamabost oŕa yoateko «salvo» oŕen eske yoan nintzakionean, oso gaizki ta otz ta motz artu ninduen. Beŕiz agertu banenkio ¿emango oteliket? Beldur bear, askori ukatu die-ta.
>
> Auŕetiaz ta biotzez eskertsu nauzu, Monzon. Otsailaren erdian andik itzultzean, ango lanen beŕi, labur laburtxorik bada ere, emango dizut.
>
> Ântzi etzaidanean! Beste eskaritxo bat. Esan didatenez batzui bost eunen ordez, miĺa pezeta eramateko eskubidea ematen omen diezu. Bi ilabetetan an bizi ta lankideai eskupekotxoak emateko, miĺa oriek eztitut laŕegi izango; ta oŕa or beste ¡aŕen! bat.

[13] ABA-RMA: T. Monzonen gutuna R. M. Azkueri, 1936-11-12.

IKER-35.indd 9 2/9/19 10:55

Zure lankide ta bion adiskide maite Agiŕe ta Leizaola ikus ditzazunean, ene biotz biotzetiko goraintzi andiak eman.[14]

1936ko udazkenean Gipuzkoa errepublikano ia osoa okupatuta zegoen eta Lekeitiotik oso gertu egonkortu zen gerrako frontea. Agian Frantziara joan eta han geratzeko asmoa izan zuen euskaltzainburuak, gertaeren zain. 1937ko udaberrian militar kolpistek aurrera egitearen ondorioz, R. M. Azkue Bizkaian geratu zen eta ez zuen erbesterako biderik hartu (Arana Martija 1983; Kintana Goiriena 2008; 2015).

Irudia 1. **Resurrección M.ª Azkue (Bilbo, 1940ko hamarkada)**

Iturria: Euskaltzaindia.

Julio Urquijo

Julio Urquijo Ybarra (1871-1950) Bizkaiko Deustun jaio zen. Kulturgintzan burutu zuen lanik garrantzitsuena *Revue Internationale des Études Basques* (*RIEV*) sortu eta 1907-1936 artean zuzentzea izan zen.[15] Parisen sortu zuen,

[14] ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna T. Monzoni, 1936-12-10.

[15] Hau da, JAE sortu zen urte berekoa eta Centro de Estudios Históricos-en *Revista de Filología Española* (1914) baino lehenagokoa da J. Urquijoren aldizkaria. R. Menéndez Pidal

IKER-35.indd 10 2/9/19 10:55

baina ondoren Donostian argitaratu zen, 1922tik aurrera EI-SEVen aldizkari ofizial gisa. J. Urquijoren edizio eta facsimileei esker eskura zituzten XX. mendeko euskaltzaleek Aro Modernoko literatura eta historia lanak. Bere euskal biblioteka munduko baliotsuenetakoa zen. *RIEV*i esker atzerrian lortutako sonaren erakusgarri, Bonn-eko Unibertsitateak «honoris causa» doktore izendatu zuen 1924an. EI-SEVen zuzendaritzako karguak bete zituen. Erakundeko buruorde izan zen 1930 arte, eta hizkuntza saileko kide 1933 arte. Euskaltzainburua bezala, diktadura primorriveristan RAEko kide izendatu zuten, «sección vascongada»ko ordezkari gisa.

Tirso Olazábal buruzagi karlistaren Vicenta Olazábal alabarekin ezkondu zen Donibane Lohizunen (Pirinio Behereak) 1894an eta bertan bizi izan ziren, Lehen Mundu Gerran Donostiara aldatu arte. Hain zuzen, karlismoaren politikagintzan aritu zen eta errege-nahiek Conde de Urquijo (1908) eta zaldun (1913) izendatu zuten. Bi aldiz hautatu zuten Gipuzkoako tradizionalismoaren ordezkari Espainiako Diputatuen Kongresuan (1906, 1931). Karlismoaren ildo autonomista eta euskaltzalearen ikurra zen, Conde de Rodezno-k irudikatzen zuen lerroaren aurrean. Uste izatekoa da Errepublikaren aurkako konspirazioen berri bazuela, besteak beste, Rafael Olazábal koinatuaren bidez.

Bizkaiko plutokraziako kide zen eta eragin politiko handiko bi anaia izan zituen.[16] Adolfo Urquijo (1866-1933) alfonsotar monarkikoa, BPDko presidente izendatu zuten 1905ean, eta bertatik euskal Akademiaren proiektua nahiz kontzertu ekonomikoaren negoziazioa bultzatu zituen. José M.ª Urquijo (1872-1936) neokatolikoa, berriz, *La Gaceta del Norte* egunkari arrakastatsuaren sortzaile (1901) izan zen. Lizarrako Estatutuaren sustatzaile izan arren, zentrismorantz abiatutako EAJ-PNV-ren aurkari ultramontanoa bilakatu zen ondoren (Estornés Zubizarreta 1983; Arana Martija 1993; Rodríguez Ranz 1994; Robles 1997; Agirreazkuenaga & al. 2007; Chacón Delgado 2015).

José M.ª Urquijo anaia, Donostia errepublikanoan epaitu ondoren, fusilatu egin zuten 1936ko irailaren hasieran, Víctor Pradera eta beste eskuindar

---

baten mailako ikerketa filologikorik ez eginagatik, zientifikoki progresista izan zen euskaltzain tradizionalista (cf. Cid1991).

[16] Ama oso gazte galdu zutenez, Rafaela Ybarra (1843-1900) izebak, «Santos Ángeles Custodios» kongregazioaren sortzaileak, hazi zituen. Gainera, R. M. Azkue Deustuko etxeko kapilau izan zuten 1889-1904 artean (Kintana 2015: 77-78).

IKER-35.indd 11 2/9/19 10:55

batzuekin batera.[17] E. Mola jeneralaren tropa kolpistek Donostia okupatu ondoren, hiriko egunkari eskuindarrek haren heriotza konfirmatu zuten (*El Diario Vasco* 1936-09-18). Propaganda frankistak abertzaleei eraso egiteko erabili zuen eskuindar ospetsuaren heriotza.[18] Aldi berean Baionako egunkari profrankistak J. Urquijok bizirik iraun zuela iragarri zuen:

> Nous nous réjouissons doublement, et du sauvetage de son incomparable bibliothèque basque, et surtout, de son heureuse survivance à la Révolution. Ses deux mois de cachette ont paru bien longs à ses nombreux amis de France, inquiets à son sujet. Le sort réservé à son frère José María, directeur de la Gaceta del Norte, fusillé para les rouges, endolorit malheureusement notre joie (*Le Courrier de Bayonne* 1936-09-18).

Gerra Zibilaren testuinguruan, jeltzaleak zigortzearren, Bizkai-Gipuzkoetako kontzertu ekonomikoak ezabatzeko arriskua agerikoa zenean, Jesús Etayo Nafarroako artxibozain karlistak, J. Urquijoren bizkar utzi zuen euskal kultura erakundeen etorkizuna:

> Pero no se salvarán, «sino [sic] las salva Vd.», —esta es mi convicción firmísima— las instituciones de cultura vasca. Aún le queda a Vd., don Julio, esta tarea salvadora para coronar su vida de servicio al País. No dudo que ha de cumplirla. A Vd. no ha de alcanzarle el recelo que ha de envolver, o [h]a de envolvernos a otros muchos, aunque yo creo, en conciencia, no merecerlo.[19]

Arturo Campión

Arturo Campión Jaimebón (1854-1937) Iruñeko senatari filojeltzale ohia eta EI-SEVko ohorezko burua, abertzaleendako ez ezik, euskaltzale guztien-

---

[17] Donostia erortzear zegoela osatu zuten Gipuzkoako «Tribunal Popular» delakoa. EAJ-PNVren ordezkaria heriotza zigorrak gutxitzen saiatu zen alferrik (*Frente Popular* 1936-09-04; cf. Gamboa & Larronde 2005: 274).

[18] EAJ-PNVk berak ikerketa abiatu zuen informazioa osatzeko. Gerra zibilean Zarauzko ordena publikoaren arduradun izandako José Cincunegui jeltzaleak azalpen hau eman zuen: J. M. Urquijo Zarauzko geltokian atxilotu eta Honorio Maura diputatu monarkikoarekin batera egon zen preso. Bagajea miatu zioten, baina ez zuen eduki konprometigarririk. CNTko (Confederación Nacional del Trabajo) milizianoek Donostiara eramateko asmoa agertu zutenean, eztabaida larria sortu zen. Zarauzko zenbait jeltzalez lagunduta eta bidean ez zutela hilko aginduta baino ez zieten utzi milizianoei atxilotuak Donostiara eramaten (SAF-AA: J. Cincuneguiren gutuna I. López Mendizábali, 1937-10-25, PNV_NAC_EBB, K.00365, C.1; cf. Gamboa & Larronde 2005: 360).

[19] KMK-JU: J. Etayoren gutuna J. Urquijori, 1936-09-20.

IKER-35.indd 12 2/9/19 10:55

dako ere euskal kulturaren sinbolo handienetakoa zen. Laurogei urteak beteta, literaturaren, Nafarroako historiaren edota linguistikaren alorretan idatzitako lan ugarien *Euskariana* bildumari amaiera ematen ari zen. Diktadura primorriveristaren etenaldiaren ondoren, 1930eko hamarkadan argitaratu zituen X., XI. eta XII. liburukiak: *Orígenes del pueblo euskaldun*en azken zatiak (1931, 1936) eta *Algo de historia* (1934). Espainiako historiografia ofizialaren aurka eraikitako erudiziozko harresi katoliko eta kontserbadorea ziren. Dena dela, idazlan horiek guztiak laguntzaileen bidez baino ezin izan zituen egin 1920ko hamarkadatik aurrera, itsututa eta fisikoki ezinduta zegoelako. R. M. Azkueri 1935ean idatzitako gutunean adierazi zuen bere egoera tamalgarria:

> El Estado orgánico de mi salud es perfecto, per[o] ahí termina todo lo que me satisface[,] en todo lo demás vivo sumido en la más terrible y completa de las impotencias, ni puedo andar sino llevado del brazo, ni puedo leer, ni escribir, ni tocar el piano, ni hacer nada por mí mismo, ni hacer nada para visitarles, a pesar de mis vivos deseos, para tomar alguna parte en los trabajos de Vd y de sus dignos compañeros, pues flaquean todos los recuerdos de cosas pasadas y no me atrevo a lanzarme a los caminos que tanto an[h]elo recorrer, así vivo sumido, si esto es vivir, en el más completo de los aburrimientos.[20]

Horrela bada, Akademiak urtero Iruñean egiten zuen batzarrean parte hartzera mugatzen zen. 1936ko uda, beti bezala, Donostiako Ategorrieta auzoko etxe dotorean eman zuen. Gerra zibilak izua besterik ez zion eragin eta ez zuen ulertu EAJ-PNVk ezkerrarekin bat egitea. M. Irujoren aginduz, A. Campiónen etxea babestuta egon zen, milizianoen erasoen beldur zirelako. Kolpistek Donostia okupatu ondoren, bere burua seguruago ikusi zuen eta, familiako eskuindarren ekimenez, frankisten aldeko adierazpena argitaratu zuen Iruñeko egunkarian: «Tengo el gusto de hacer constar que liberada esta ciudad de la tiranía roja, quiero manifestar a la vez que mi protesta más enérgica por el incalificable proceder del nacionalismo vasco, mi adhesión inquebrantable a la Junta Nacional de Burgos» (*Diario de Navarra* 1936-09-14). Hain zuzen, Nafarroako erudituak nahigabetuta idatzi zion J. Urquijori, errepublikazaleek fusilatutako anaiaren heriotzagatik: «Le escribo a Vd para manifestarle la indignación y la pena que me causa la horrible acto perpetrado [sic] contra su caballeroso hermano a quien estimaba mucho sin conocerle personalmen[te]».[21]

---

[20] ABA-RMA: A. Campiónen gutuna R. M. Azkueri, 1935-10-16.

[21] KMK-JU: A. Campiónen gutuna J. Urquijori, 1936-10-07.

IKER-35.indd 13 2/9/19 10:55

Gerra egoeraren presiopean sinatutako agure baten adierazpenak ziren. 1937ko abuztuaren 18an hil zen Donostian, baina jende gutxi bildu omen zen Iruñeko hiletara. Besteak beste, Kataluniako F. Cambók omenezko testua idatzi zuen, Nafarroako euskaltzainak EAJ-PNVren «okerreko» bidea saihestu zuela nabarmenduta. E. Esparzak *Diario de Navarra*n, ordea, A. Campiónen ikuspegi historiografikoaren aurka idatzi behar izan zuen. Gainera, haren ondare bibliografiko eta dokumentala NFD frankistak zabartu egin zuen hurrengo urteetan (Granja Pascual 1988; Estornés Lasa 1996; López Antón 1998; Ibarzabal 2001; Bidador 2003; Majuelo 2011).

Juan Bautista Egusquiza

Juan Bautista Egusquiza Meabe (1875-1939) Bizkaiko Lemoan jaio arren, apaiztu ondoren Lekeition, euskaltzainburuaren jaioterrian, bizi izan zen latin katedran eskolak ematen. Zornotzan 1912an sortutako Jaungoiko-Zale Bazkunako kide izan zen eta 1919an euskaltzain hautatu zuten. Era berean, alderdi jeltzaleak 1917ko probintzia hauteskundeak irabazi ondoren, BPDren «Eŕi-Irakaskuntza-Batzorde»ko kide izendatu zuten, beste jeltzale batzuekin batera. Hezkuntza abertzale eta konfesionalaren ikuspegitik, euskararen irakaskuntza sustatu eta eskolen azpiegiturak hobetu zituzten. Baina 1919an monarkiko espainolistak BPDn nagusitzearekin bat, gatazkak sortu ziren. Hain zuzen, 1921ean J. B. Egusquizak «Eŕi-Irakaskuntza-Batzorde» berrituaren gaitzespen botoa jaso zuen J. Altunaren eskuliburu «separatista» saritzeagatik (Akesolo & al. 1989: 64-71). Euskaltzaindian betetzen zuen eginkizuna ere gaitzetsi egin zuen G. Bähr Alemaniako urgazleak 1924an:

> El representante principal del grupo extremadamente opuesto, orientado políticamente en el nacionalismo, es Eguskitza. Es párroco en Lekeitio y puede que haya tenido una buena formación (seminarista), y es muy hábil en la oratoria y en la disputa, pero es obvia su exclusiva preparación en los métodos teológicos, de los cuales se sirve también en las discusiones académicas. Es el portavoz de los aranistas, luchó con corazón y alma a favor del término «euzkera», ridículo y de ninguna manera aceptable, y de parecidas monstruosidades. Y esto que ni siquiera se ha distinguido literariamente, a menos que me equivoque, pero considera sin duda su dialecto (el vizcaíno) como el mas primitivo, lógico y limpio y como la mejor base para la futura «κοινὴ» [koine] (Jauregi 2005: 243).

José Inchusagarri Bizkaiko elizgizon jeltzaleak, halaber, Akademia barneko tirabiren lekukotasuna eman zuen: «Beintzat neuk, bein baño geiagotan entzun

IKER-35.indd 14 2/9/19 10:55

neutsan Eguzkitza euskaltzañari, Azkue Euskaltzaindiko buru zan artean ez ebala euzkeriak auŕera txikirik be egingo, esaten».[22] J. B. Egusquiza euskarazko idazle eta sermolari ospetsua zen, Errepublikan *Gizarte-auzia* (1935) liburua argitaratu zuen, sozialismoaren («gizartekeria») eta komunismoaren («baltsakeria») mehatxuari aurka egiteko. Ikusiko dugunez, EGLZ-DCEren lanetan lagundu zuen. Militar kolpistak Lekeition sartu bezain laster, atxilotu eta epaitu egin zuten. Frogarik ezean, aske utzi zuten eta Lemoara itzuli zen oso gaixorik, baina susmopean jarraitu zuen. 1939ko irailean hil baino lehenago, R. M. Azkueri laguntza eskatu behar izan zion (Urrutia 2001). Maiatzaren 16an idatzi zion dokumentuak frogatzen du, J. B. Egusquizaren ustezko frankismoa baino areago, agintari errepresiogileek euskaltzainburua taldekotzat zutela, besteri berme politikoak ziurtatzeko gauza izan baitzen:

> Que desde hace muchos conozco y trato al sacerdote D. Juan Bautista Egusquiza y Meabe, miembro de número de la citada Academia de La Lengua Vasca, de quien me consta que jamás ha desarrollado actividad política de ningún género, ni participado en ideologías o propagandas afectas al Nacionalismo o Separatismo Vasco, pudiendo también afirmar que en sus labores en el seno de la Academia citada nunca ha rozado la esfera política, limitándolas al aspecto filológico propio de la Academia en general en contraposición con las teorías de este carácter propugnadas por los elementos nacionalistas pertenecientes a la misma.
>
> Certifico así mismo por el trato y relación tenidos con él desde la iniciación del Glorioso Movimiento Nacional, que el expresado señor, no sólo ha tenido actuación contraria al mismo, sino que constantemente ha expresado su plena simpatía y cordial adhesión a dicho Movimiento Salvador.[23]

Raimundo Olabide (SI)

Raimundo Olabide Carrera (1869-1942) gaitasun handiko jesuita Gasteizen jaio zen, eta Euskaltzaindiaren sorreran protagonista aktiboa izan zen.[24] J. B. Egusquizak eta biek literatura eskola garbizaleena ordezkatu zuten

---

[22] ABA-AIB: [J. Inchusagarriren] gutuna A. Ibinagabeitiari, [1955?].

[23] ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna J. B. Egusquizaren izenean, 1939-05-16. Euskaltzainburua abertzaletzat salatutako beste elizgizon batzuei laguntzen saiatu zen, hala nola Bilboko Santa Mª de Begoña-ko koadjutore izandako Federico Orbeari (ABA-RMA: F. Orbearen gutuna R. M. Azkueri, [1938?]).

[24] Aitaren familia Gipuzkoakoa zen. Juan Olavide Carrera anaia, ingeniari koronela izan zen, Donostiako historia liburu postumoaren egilekidea (Olavide, Albarellos & Vigón 1963).

IKER-35.indd 15 2/9/19 10:55

batzarretan, eta jeltzaleek Bizkaiko gizartean zuten eraginari esker, Akademiak sabindar ortografia arautzat hartzea lortu zuten 1920an. Ondoren, Akademiaren lexikografia normatiboan lanean aritu zen euskaltzainburuarekin. Hain zuzen, Arabako elizgizona R. M. Azkueren hiztegia ongien menderatzen zuen laguna zatekeen. Abertzaletasunagatik, diktadura primorriverista amaitu arte Loiolako santutegian baztertuta egon zen, euskarazko produkzioan buru-belarri sartuta (Ibiñagabeitia 1999: 181-182). Errepublikak jesuiten ordena desegin baino urtebete lehenago agertu zen R. Olabide euskaldun berriak grezieratik itzulitako *Itun Beŕia* (1931). Purismoaren monumentu literarioa izan zen; euskal literaturaren historiako erdarazko interferentzia lexiko eta sintaktiko guztiekin bat-batean eteteko esperimentua. Horretarako, gipuzkeraren morfologian oinarritu arren, euskara arkaikoa nahiz edozein euskalkitako lexikoa erabili zituen. 1934an frantziskotarren Arantzazuko santutegian babestuta zegoen, itzulpen biblikoarekin jarraitzeko. Akademiako idazkariordeari bibliografia eskariak egin zizkion, hala nola J. Duvoisinen Biblia (1859-1865).[25]

Hurrengo urtean Gernikara joan zen bizitzera eta bertatik bertara sufritu zuen gerra zibileko bonbardaketa frankista. Esanguratsuki, Euzkadiko Jaurlaritzak euskal hizkuntza eta literaturaz aholku emateko 1937ko urtarrilean izendatu zituen bost lagunen arteko euskaltzain bakarra izan zen, gero ikusiko dugunez. Erbesteratu eta Frantziako Tolosan hil zen auto istripu baten ondorioz. Euskaltzaindiaren garaiko aktetan ez zen haren heriotza jakinarazi, eta agian berandu izan zuten horren berri. Bonbardaketatik nekez salbatutako euskarazko Itun Zaharraren eskuizkribua Frantziako erbestean lantzen jarraitu zuen, besteak beste, N. Ormaechea urgazlearen laguntzarekin. Hil ondoren, Guatemalako *Euzko-Gogoa* aldizkariaren eredu teoriko bilakatu zen, baina jesuitek ezin izan zuten bere Biblia osoa 1958 arte argitaratu Bilbon (Iztueta 1991; Sebastián García 1994; Altuna 2001; Jauregi 2005; Kintana Goiriena 2008).

Ramón Inzagaray

Ramón Inzagaray Bastarrarena (1878-1947) Donostian jaio zen. Gasteizko elizbarrutiaren seminarioan ikasi ondoren 1903an apaiztu eta 1906tik aurrera Donostiako «La Asunción» ikastetxeko kapilau izan zen. 1916az

[25] ABA-RMA: R. Olabideren gutuna G. Maidagani, 1934-12-08.

IKER-35.indd 16 2/9/19 10:55

geroztik hiriko San Vicente elizan koadjutore jardun zuen bizi guztian.[26] Donostiako Euskal-Itz-Jostaldien Batzarreko («Consistorio de Juegos Florales Euskaros») kide izendatu zuten 1914an. Gazte integristen artean, euskarazko eskolak antolatzen aritu zen, gero aipatuko dugun I. M. Echaiderekin batera. Lehendabiziko euskaltzainetako bat izan zen 1919an. L. Eleizalde jeltzalea 1923an hil zenean, R. Inzagaray hautatu zuten Akademiaren idazkari. Era berean, Donostian bizi zenez, EI-SEVekin harreman zuzena izan zuen. 1931ko otsailean, EI-SEVeko J. Oruetak ordezkari bat eskatu zionean R. M. Azkueri, GPDk sortu behar zuen euskararen aldeko batzorderako, R. Inzagaray izendatu zuen.[27] Era berean, EI-SEVek euskara gaitasuna epaitzeko ahalmena eman zion 1934an, Gipuzkoako toki administrazioan hizkuntza eskakizunak ezartzeko prozesu ahulean (Rodríguez Ranz & Unanue López 1994).

Donostiako *Argia* astekariaren arduradunetako bat izan zen 1921-1936 artean. Aldizkari horrek apolitizismoa baztertuta, Errepublikan EAJ-PNVren eta Autonomia Estatutuaren alde egin zuen. Horregatik, beste euskal aldizkari eta elkarte gehienak bezala, gerra zibilak eta ondoko diktadurak irentsi egin zuten. Antza denez, arazoak izan zituen errepresio kolpistarekin, baina ez zuten zigortu, agian integrismoarekin izandako harremanagatik. Besteak beste, idazkari gisa berak zeraman Euskaltzaindiaren akta liburua falangistek eraman egin zuten. Nahigabetuta bizi omen zituen gerraondoko urteak R. Inzagarayk.[28] Euskaltzaindiaren gerraondoko Donostiako batzarretara agertu arren, ez zuen ekarpenik egin, seguru asko gerra zibilean izandako arazoek sortutako beldurragatik. Nolanahi den, haren ikerketen emaitza *Historia eclesiástica de San Sebastián* (1951) liburu postumoa izan zen (Zugasti 1971; Euzko Apaiz Talde 1981; Estornés Zubizarreta 1983; Díaz Noci 1995; Estornés Lasa 1996).

---

[26] M.ª Dolores Lecuona Gasteizko Elizbarrutiaren Artxibo Historikoaren zuzendariaren komunikazio pertsonala, 2014-04-15.

[27] ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna J. Oruetari, 1931-02-07.

[28] Artean hamabi urteko haurra zen historialariak honela gogoratzen zuen Mundu Gerrako Donostian: «Don Ramón Inzagaray, menudo y de voz metálica, conservaba resabios de sus años en el barrio llamado de la Jarana, era peleón y ocurrente. La política internacional del momento nos rebasaba por todas partes, pero certifico que una vez le oí decir algo que sólo hoy tiene para mí significado: —Pacto tripartito, partito, ¡mierda en bote! A mí me llamaba siempre *Mutil-eerra*, suprimiendo la *d* de *ederra* (¡hermoso chico!) y con tal nombre le designamos en casa durante mucho años» (Tellechea Idígoras 2003: 80).

IKER-35.indd 17 2/9/19 10:55

Pierre Lhande (SI)

Pierre Lhande (1877-1957) Baionan jaio arren, Zalgizen (Pirinio Behereak) hazi zuten. Jesuitekin ikasketak burutu eta apaiztu egin zen. Jesuitak Frantziatik kanporatu ondoren, Gipuzkoan aritu zen irakasle Lehen Mundu Gerrara arte. 1919an Akademia sortu zenean euskaltzain izendatu zuten, eta *Euskera* agerkariaren lehen arduraduna izan zen. 1921ean Espainiako Gobernuak muga zeharkatzea galarazi zion *Notre soeur latine, l'Espagne* (1919) saiakeran abertzaletasunaren alde egin omen zuelako. Frantziako Tolosan irakasle izan ondoren jesuiten Parisko *Études* aldizkari ospetsuko literatura kritikaz arduratu zen. Parisen auzo behartsuetako misioen arduradun izendatu zuten agintari erlijiosoek, komunismo ateoaren eraginari langileen artean aurka egiteko.

1934an odol isuria izan zuenetik, erretiratuta zegoen, oso makal eta ezinduta, Akademiari ekarpenik egin gabe. Linguistikan egindako lanik garrantzitsuena *Dictionnaire basque-français* (1926-1938) izan zen, berak hasi eta P. Lafitte eta Ph. Aranartek amaitua. Mundu Gerratik aurrera, P. Lhanderen hiztegiaren frantses-euskara bertsioaren lanetan hasi ziren, baina ez zuen aurrera egin.[29] Gerra zibilaren hasieran, J. M. Leizaolak berak aitortu zuenez, guztiz gaitzetsi zuen EAJ-PNV autonomistaren ezkerrarekiko elkarlana (*Euzko Deya* 1957-05-01). Baina gero, errepresio dramatikoaz jabetuta, Frantziako jesuiten uzkurtasuna eta erregezaleen filokarlismoa salatu zituen. Ez dago argi Euskaltzaindi berrituaz zer zekien zehazki P. Lhandek. 1946ko urrian hau idatzi zion Pauetik EJ-GEko F. J. Landábururi:

> Ha sido mi deseo de regalar esa pequeña biblioteca a la Academia de la Lengua Vasca de Bilbao, cuya sede provisional se encuentra en estos momentos en el Gobierno de Euzkadi (11, Av. Marceau, Paris, 16e) hasta que, deshaciéndose las trabas del momento esa Academia esté en condiciones de hacerse dueña de dichos libros. Mientras tanto queda todo el depósito a la disposición del Gobierno de Euzkadi y de todos los euskalzales que quisieran ocuparse de cosas de asunto vasco.[30]

Liburutegi hori funtsean *RIEV* aldizkariaren bilduma osoa zen eta J. Bilbaok Sarara (Pirinio Behereak) eraman nahi izan zuen 1947ko azaroan.[31]

---

[29] ABA-LAF: P. Lhanderen gutunak P. Lafitteri, 1945-06-29, 1945-07-19 & 1945-07-31.

[30] SAF-AA: P. Lhanderen gutuna F. J. Landábururi, 1946-10-24, LIAV-0004-01.

[31] F. J. Landáburuk eskariari emandako erantzunaren arabera, badirudi berarentzat ere Euskaltzaindirik ez zegoela: «Este Sr. ha dejado en depósito la biblioteca a la Delegación de París hasta tanto se pueda reconstituir la Academia de la Lengua Vasca, que será en definitiva la

IKER-35.indd 18 2/9/19 10:55

EIL-SIEBen 1948ko biltzarrean P. Lhandek aurkeztu zuen komunikazioan ikus daitekeenez, ardura zaharrei eutsi zien. Ameriketarako euskal emigrazio masiboak euskal katolikotasunari eta bereziki emakumeen moralari eragiten zizkion kalteak salatu zituen saminki (Lhande 1950). Seguru asko P. Lafittek egin zuen ahalegin gehien hura 1949an Donostiako Euskaltzaindiaren batzarrera eramateko, baina Mundu Gerra ondoko korrespondentzian ez da ageri jesuitaren Akademiarekiko interesik.[32] Azkenerako, ez zituen ezagutzen bisitan joaten zitzaizkion lagunak ere (Monier 1992; Larronde 1994; Urkizu 1998; Hernández Mata 2007; Aizpuru & al. 2007; Kintana Goiriena 2008; Barandiaran 2009).

Georges Lacombe

Georges Lacombe (1879-1947) Orthezen (Pirinio Behereak) jaio zen. Aitaren familia ospetsua Agen-ekoa (Lot-eta-Garona) zen eta amaren aldetik Saint-Jayme familia aristokratikoaren kide zen. Filosofian lizentziaduna zen, eta gehien miresten zuen filosofoa H. Bergson zen, linguistikan H. Schuchardt-ekin gertatu zitzaion bezala.[33] Lehen Mundu Gerran beso bat galdu zuen. Agnostiko liberala zen, ezohikoa garaiko Akademian. Baliabide paregabeak izanagatik ikerketa filologiko sakonik ez zuelako egin, diletante eta alfer ospea izan zuen. R. M. Azkuek, XVII. mendean prokrastinazioaz idatzitako euskal liburuari erreferentzia eginez, «[l]a personificación más completa que conozco de Gueroco Guero» deitu zuen.[34]

J. Urquijoren lankide estuenetakoa izan zen *RIEV* aldizkariaren idazkari gisa. Izaera minbera eta harro samarrekoa, 1919an uko egin zion urgazle soil izateari. 1920an euskaltzain izendatu zuten, Euskal Herritik kanpo jaio eta bizi arren, estatutuek agintzen zutenaren kontra. Dena dela, Akademiako liburuzaina eta kide aktiboa izan zen (Arana Martija 1992b: 657-658).[35] Familia aberatseko euskaltzalea izanda, euskal liburutegi eta artxibo garrantzitsua osatu zuen, J. Urquijok bezala, bildumazalearen pasioarekin. Mundu

---

beneficiaria de esos libros» (SAF-AA: J. Bilbao-F. J. Landáburu arteko gutunak, 1947-11-20 & 1947-12-13, LIAV-0012-06.)

[32] ABA-LAF: P. Lhanderen gutuna P. Lafitterri, 1951-05-01.

[33] ABA-LAF: G. Lacomberen gutuna P. Lafitteri, 1943-11-27.

[34] KMK-JU: R. M. Azkueren gutuna J. Urquijori, 1930-09-15.

[35] Olaso Dorrea Sorrerakundea, Georges Lacombe funtsa: G. Lacomberen «Projet de règlement de la Bibliothèque de l'Academie de Langue Basque», [1921].

IKER-35.indd 19 2/9/19 10:55

Gerran hondatuko zenaren beldurrez bizi izan zen.[36] Artikulu ugari argitaratu arren, bukatu gabe utzi zuen H. Gavelekin batera idatzitako liburu garrantzitsua: *Grammaire basque* (1929-1937). Aldudeko dialektoaz ehunka ohar interesgarri bildu arren, ez zuen tesi baten mailako lanik burutu.[37] Zubereraren garapen historikoa eta artxiboak aztertzen ere aritu zen (Gavel 1947; Lafitte 1979; Larronde 1997; Altonaga 2006; Hernández Mata 2007).

Gerra zibilaren ondorioz, EJ-GEren aldeko jarrera hartuz J. Urquijo lankide ohiarekiko harremana hoztu egin zuen. LIABeko kide gisa, Paristik prentsaren bidez jarraitzen zituen Euskal Herriko gorabeherak. J. A. Aguirre lehendakariak, esaterako, AEBetara itzuli aurreko Parisko gala afarira gonbidatu zuen. Horren harira, P. Lafitteri adierazi zion bere ikuspegia: «Je me tarde que l'on flanque Franco à la porte, et que les études euskariennes reprennent en Espagne».[38] *Gure Herria*n argitaratu zituen lanak Mundu Gerra hasi arte, eta ondoren baita *Aintzina* aldizkarian ere.[39] Gerra zibilak euskal ikasketei eragindako kaltea honela deskribatzen zuen: «Les études basques ne battent que d'une aile, mais cela vaut mieux que la léthargie».[40] Parisen «Société Paléo-Méditerranéenne» delakoa sortu zuen G. Dumézil-ekin, euskararen harreman genetikoak ikertzeko asmoarekin.[41] Horrek ere ez zuen aurrera egin, baina 1939ko martxoan J. Gorostiaga Parisko linguistika elkarte ospetsuko kide izendatua izateko aurkeztu zuen (RIEV 1936; Société de Linguistique de Paris 1938-1939; cf. Bilbao 1947).

Euskaraz jakin arren, nagusiki erdaraz aritzen zen eta P. Lafittek estandarizatu nahi zuen neolapurterari eragozpenak jarri zizkion: «Ce qui me frappe dans ce dialecte artificiel, syncrétique et mal fixé, c'est que chaque écrivain ou orateur emploie un basque à lui, en dépit d'une tendance très réelle á la unification».[42] Bere burua linguista euskaltzaletzat zuen, baina biak ez nahastearen aldekoa zen.[43] Hain zuzen, Aintzina taldeak P. Charrittonen *Eskualdunak*

---

[36] ABA-LAF: G. Lacomberen gutuna P. Lafitteri, 1946-08-21.

[37] Olaso Dorrea Sorrerakundea, Georges Lacombe funtsa: G. Lacomberen «Le parler basque des Aldudes», [1911-1937]. H. Gavel eta J. M. Barandiaranek, hurrenez hurren, «Notes sur le basque des Aldudes» argitaratu zituzten *Eusko-Jakintza*n eta *Anuario de Eusko-Folkore*n, uste baino lan azalekoagoa gertatu zena (Lacombe 1952-1972).

[38] ABA-LAF: G. Lacomberen gutuna P. Lafitteri, 1945-06-09.

[39] ABA-LAF: G. Lacomberen gutunak P. Lafitteri, 1938-10-19 & 1943-06-29.

[40] ABA-LAF: G. Lacomberen gutuna P. Lafitteri, 1943-09-30.

[41] Olaso Dorrea Sorrerakundea, Georges Lacombe funtsa, C. C. Uhlenbeck-en gutuna G. Lacomberi, 1936-01-07. ABA-LAF: G. Lacomberen gutuna P. Lafitteri, 1937-03-26.

[42] ABA-LAF: G. Lacomberen gutuna P. Lafitteri, 1943-06-29.

[43] ABA-LAF: G. Lacomberen gutuna P. Lafitteri, 1943-10-11.

IKER-35.indd 20 2/9/19 10:55

(1943) argitaratu zuenean, liburua atsegin izan arren, grina abertzalean urrutiegi joan izana salatu zuen.[44]

Linguistikan, Frantziako eskola soziologikoaren jarraitzailea izan zen. Hain zuzen, J. Vendryes irakasleak egin zuen haren hilberria (Société de Linguistique de Paris 1947-1948). A. Meillet eta M. Cohenek zuzendutako *Les langues du monde* liburu entziklopedikoaren bigarren edizioan agertu zen G. Lacomberen azken artikulua. Objektibotasunarekin deskribatu zituen euskararen ezaugarriak. Jeltzaleen irizpide linguistikoekin bat egin ez arren, abertzaletasunak prestigiorik gabe geratzen ari zen euskarari emandako indarra eta diktadura frankistak ezarritako debekua aitortu zituen (Lacombe 1952: 262).

Severo Altube

Severo Altube Lerchundi (1879-1963) Gipuzkoako Arrasaten jaio arren, Gernikako Udaleko musika bandaren zuzendaritza irabazi zuen 1901ean. Ondoren, Alkartasuna arma fabrikako kudeatzailea izan zen 1916tik aurrera. Alderdi jeltzale moderatuaren ordezkari, independentistekin bateratzeko negoziazioan parte hartu zuen 1930ean. EAJ-PNVko kide gisa, Gernika-Lumoko alkate izendatu zuten 1931ko udal hauteskundeetan eta Autonomia Estatutuaren prozesuan parte hartu zuen, ez arazorik gabe. Bizkaiko gobernadore zibil antiabertzaleak (T. Sevilla erradikal-sozialistak) alkatetza kendu egin zion 1933ko abuztuan, Gernikan irakaskuntza ertaineko institutu ofiziala ezartzearen aurka agertu zelako, baina zinegotzi izaten jarraitu zuen 1936an erbesteratu arte.

EI-SEVen zuzendaritzako kide eta euskaltzaina zen 1920az geroztik. Sabindar ortodoxoekin eztabaida ugari izan zituen, haien eredu linguistiko artifizialak, eta irizpide politikoegiak, euskararen erabilera oztopatzen zutelakoan. Euskaltzaindiko diruzainaren ustez, muturreko purismoak euskararen atzerakadari konponbidea eman ordez, kaltea areagotu egiten zuen. Herri euskarari, erdararen eragina barne, idatzizkoan jaramon gehiago egitea eskatu zuen, irakurleak erakartzearren. S. Altubek azken berrogei urteetako euskalgintzari egindako kritika ez zen oharkabean igaro eta eraso gogorrak jaso zituen. Hala ere, S. Altube uste osoko abertzalea zen eta ez zion uko egiten ideologia politikoari. Hain zuzen, euskararen iraupena ziurtatzea bi puntu hauetara bildu zuen:

[44] ABA-LAF: G. Lacomberen gutuna P. Lafitteri, 1943-11-27.

IKER-35.indd 21 2/9/19 10:55

> 1.ª Para el resurgimiento del euskera, es absolutamente necesario que el sentimiento patriótico arraigue fuertemente en el corazón de la inmensa mayoría de los vascos.
>
> 2.ª Es también absolutamente necesario que el euskera sea conservado sin grandes quebrantos en su actual «extensión» e «intensidad», hasta el día en que el patriotismo del pueblo conquiste las posiciones políticas y sociales necesarias para apoyar la ingente labor de reeuskerización de Euzkadi (Altube 1933: 386).

Lexikoan, teorikoki bederen, antipurista izan arren, morfologia, sintaxi eta fonologian erdal interferentzien kontra agertu zen lan hauetan: *Erderismos* (1930), *El acento vasco* (1932) edota *Observaciones al tratado de «Morfología vasca»* (1934). Politikagintza baino areago, kulturgintza izan zuen ardura nagusi. Euzkadiko Jaurlaritzan ez zuen kargurik izan, 1936ko irailaren 29an erbesterako bidea hartu baitzuen.

Lehenengo Argentinara, Gregoria Gangoiti emaztearen familia aberatsa han bizi zelako, eta ondoren Frantziara jo zuten. Paueko Hôtel de l'Europe-n osasunez makal bizi izan zen eta, besteak beste, *La fonction de la douleur* (1958) filosofia saiakera idatzi zuen, bere egoera psikologikoaren ezaugarri ere bazena (Velez de Mendizabal 1979; Estornés Zubizarreta 1983; Iztueta 2003; Delgado Cendagortagalarza 2005; Altzibar 2005; Altonaga 2006; Barandiaran 2009).

Dámaso de Inza (OFMCap)

Miguel Olasagarre Zubillaga «Dámaso de Inza» (1886-1986) kaputxinoa Nafarroako Intzan jaio zen. *Zeruko Argia* (1919-1936) hilabetekariaren zuzendari izateaz gain, 1920an euskaltzain izendatu zuten eta Akademiako «yagoleen» sailburu izan zen. Kargu horrek erantzukizun handia zuen, batez ere herri hizkuntzen sustapenak Espainian izan zezakeen inplikazio politikoengatik. Euskaltzaindia sortu eta berehala, A. Campión eta D. de Inza Iruñeko apezpikuarekin bildu zirenean, J. López Mendozak seminarioan euskarazko katedra sortzeko zailtasunak aipatu zituen.[45] Mateo Múgica apezpikuak, ordea, 1924-1928 artean euskararen erabilera areagotzea lortu zuen, eta Iruñeko apezpikuaren aginduz D. de Inzak prestatu zuen *Kristau ikasbidea* (1927). Baina geroztik Tomás Muñiz apezpikuaren jarrera euskararen aurkakoa omen zen. R. M. Azkuek eskatuta, 1935eko otsailean D. de Inzak dosier bat pres-

[45] ABA-EUS: D. de Inzaren dosierra Iruñeko elizbarrutiko euskararen egoeraz, 1935-02-24. Lana A. Campiónek ere sinatzen zuen.

IKER-35.indd 22 2/9/19 10:55

tatu zuen Iruñeko elizbarrutiaren politika linguistikoa deskribatzeko. Ikuspegi konfesional batetik, Nafarroako eremu euskaldunean erretoreek gaztelaniaz egiten zutela salatzeaz gain, horrek izan zezakeen arrazoi politikoa ere iradoki zuen, EAJ-PNVren eta Nafarroako eskuinaren arteko hausturaren testuinguruan. Dosierra Pío Montoya apaizari bidali zioten, horrek bere adiskide zen J. Echeguren apezpiku filojeltzaleari eman ziezaion, Vatikanon arazoa aurkezteko. P. Montoyak (Donostiako *El Día* egunkariaren sortzaileak) emandako erantzunean, euskarak eragiten zituen arazo politikoak azaleratu ziren:

> Lamento no haber estado acordes anteriormente, en nuestra común iniciativa, ya que el Sr Obispo de Oviedo, dada su delicada situación, quería permanecer en el anonimato más absoluto, sin salir a la palestra, donde las enconadas pasiones pudieran dar al traste con su apostolado episcopal, tan gloriosamente iniciado en el pueblo astur, hasta donde han llegado, sugerencias tan malévolas como falsas.[46]

Gerra zibila piztu zenean, D. de Inza Hondarribiko (Gipuzkoa) komentuko bikarioa zela, milizia anarkisten gehiegikeriak pairatu zituzten eta jeltzaleek babestuta egon behar izan zuten. Hain zuzen, J. M. Urquijo exekutatu zutenean, gutuna idatzi zion J. Urquijori, kaputxinoen Altsasuko (Nafarroa) ikastetxetik:

> Ayer recibimos la horripilante noticia de la muerte violenta dada también a su hermano D. José María. Ya desde que supimos que lo habían apresado en Zarauz temíamos por su suerte en manos de esas fieras humanas, que parecen demonios encarnados, según lo hemos experimentado también nosotros, pues yo me encontraba en Fuenterrabía y hemos visto su fiereza ante gente desarmada. Aquí toda la Comunidad y Colegio Seráfico le ha ofrecido al Señor la sagrada Comunión y mañana tendremos la Misa de sufragio por su eterno descanso. Goce de Dios!
>
> Le felicito a Vd. cordialmente por que ha sabido escapar con vida después de sufrir tantos sobresaltos como sin duda habrá padecido. También nosotros padecimos, ya el día que fuimos encerrados en Guadalupe, ya en los días en que nos arrebataron todo lo que les pareció útil para sí los de la C.N.T. de Irun.[47]

Kaputxinoen probintzia agintarien eta fraide abertzaleen artean tentsio gogorrak egon ziren 1930eko hamarkadan. Militar kolpistek Bidasoaldea oku-

[46] ABA-EUS: P. Montoyaren gutuna R. M. Azkueri, [1935].
[47] KMK-JU: D. de Inzaren gutuna J. Urquijori, 1936-09-16.

IKER-35.indd 23 2/9/19 10:55

patu zutenean, komentuko kaputxinoak susmopean geratu ziren, abertzaletasunak Gipuzkoako fraideen artean zuen indarragatik. Nafarroan askatutako errepresioaren testuinguruan, ordenako agintariek Santiago de Txilera destinatu zuten D. de Inza 1936ko amaieran, eta ez zen Nafarroara behin betiko itzuliko 1968 arte. Besteak beste, J. A. de Donostia (OFMCap) urgazlea ere, Lekarozko «Colegio de Ntra. Sra. del Buen Consejo»ko irakasle kargutik kendu eta Frantziara destinatu zuten (Díaz Noci 1995; Pagola 2005; Gamboa & Larronde 2005: 355-356; Aizpuru & al. 2007: 197; Echeverría 2007).

Bonifacio Echegaray

Bonifacio Echegaray Corta (1878-1956) Gipuzkoako Zumaian jaio zen. Bere anaia Carmelo Echegarayk bezala, eztabaida gogorrak izan zituen S. Arana abertzaletasunaren sortzailearekin XIX. mendeko amaierako prentsan. Hain zuzen, anaia nagusia zenaren aulkia hartu zuen Euskaltzaindian 1926an. Madrilen zuen bizitokia, 1916az geroztik baitzen Espainiako Auzitegi Gorenaren epaimahaiko idazkari («secretario de sala»). EI-SEVen zuzenbide eta historiaren arloetan ez ezik, euskararen ardura nagusia ere izan zuen Euzkel Bazkunen Alkartasunan («Federación de Acción Popular Euskerista»), eztabaidak eragin zizkiona J. M. Aguirre «Lizardi» bezalako jeltzaleekin. Errepublikan bi aldiz bildu zen Instrukzio Publikoaren ministroekin euskarazko hezkuntza ofiziala eskatzeko. 1932an Autonomia Estatutua idazteko ordezkari izendatu zuen Euskal Herriko udalen batzordeak. EAJ-PNVrekiko independente ez ezik, kritiko ere izaten jarraitu zuen, R. M. Azkueri 1930eko hamarkadan idatzitako gutunetan ageri denez.[48]

Euzkadiko Jaurlaritzaren «Zuzentza eta Gogo-lantze» («Justicia y Cultura») sailetako goi mailako aholkularia izan zen, J. M. Leizaola sailburu zela. EJ-GEren batzorde juridikoan, gai politiko, penal, administratibo eta juridiko-militarren saileko presidente izan zen.[49] Besteak beste, anaia zenaren biblioteka suntsitu zuen Gernikako bonbardaketa frankista Radio Euzkadi-n salatzeaz arduratu zen 1937ko maiatzean. Bilbo erori ondoren, Santanderren errefuxiatuta zegoela, M. Irujo Errepublikaren Justizia ministroak Auzitegi Goreneko

[48] ABA-RMA: B. Echegarayren gutuna R. M. Azkueri, 1932-12-06.

[49] «Orden nombrando la Comisión Jurídica Asesora = Agindua Batzorde Lege onuemalea izendatuaz», *Diario Oficial del País Vasco = Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa*, 1936-10-23.

IKER-35.indd 24 2/9/19 10:55

postura itzultzea agindu zion, baina Frantziara erbesteratu zen.[50] M. Irujo ministroaren eta J. A. Aguirre lehendakariaren adostasunarekin, gerra zibilean justizia administrazio errepublikanoak Espainiako iparraldean izandako jarduera deskribatu behar zuen, Euzkadiko Jaurlaritzaren historia antzeko bat, baina proiektua ezerezean geratu zen.[51] Azkenean, A. Onaindiak emandako eta EAJ-PNVrentzat kontuzkoak ziren dokumentuak («Santoñako hitzarmena») itzultzea agindu zioten. 1938ko abuztuan Errepublikaren funtzionario postua galdu egin zuen, uko egin ziolako Bartzelonara joateko Gobernu frontepopulistaren aginduari. [52] Gainera, Madril errepublikanoan hiru seme-alaba Txileko enbaxadan gordeta zituen, abertzaleen laguntza eskasarekin nahigabetuta. Seme zaharrena Errepublikaren alde borrokan ari zen Madrilgo frontean.[53]

B. Echegarayk, emaztea eta bi alabarekin, Donibane Garazin (Pirinio Behereak) ezarri zuen bizitokia, baldintza material gogorretan, Espainiara 1943ko maiatzean itzuli zen arte. 1939ko maiatzean EAJ-PNVk «Servicio de Emigración de los Republicanos Españoles»en (SERE) zuen ordezkariaren bidez saiatu zen EJ-GEk eskaintzen zion baino diru laguntza handiagoa lortzen, baina ukatu egin zioten.[54] EJ-GEko V. Amézagari 1939-1941 artean idatzi zizkion gutunetan, bizimodu latzaren ondorio psikologikoak eta erbesteko zenbait arduradun politikorekiko amorrua agertzen ziren. Ameriketara joateko asmoek huts egin zuten eta Espainiara itzultzeko baimenaren zain zegoen, 1939ko udan E. Bilbao Justizia ministro frankistarekin pos-

[50] «Orden disponiendo se le reintegre a su cargo de Secretario de Sala del Tribunal Supremo a don Bonifacio Echegaray y Corta», *Gaceta de la República*, 1937-08-01.

[51] «Orden encargando al Secretario de Sala del Tribunal Supremo, don Bonifacio Echegaray Corta, realice una recopilación histórica sobre el desenvolvimiento de la Administración de Justicia en todos sus aspectos en la región norte de España, desde el alzamiento militar a la fecha», *Gaceta de la República*, 1937-11-10.

[52] «Orden considerando a don Bonifacio Echegaray Corta, Secretario de Sala del Tribunal Supremo, como renunciante a dicho cargo, causando baja definitiva en el Cuerpo, con pérdida de todos sus derechos», *Gaceta de la República*, 1938-08-15.

[53] Euskadiko Artxibo Historikoa, Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa, Lehendakaritza Sailaren funtsa: «Secretaría General (Bilbao, Barcelona, París). Secretaría. Correspondencia (A-B ...)». B. Echegaray eta J. A. Aguirre, P. Basaldua eta A. Iralaren arteko gutunak, 1937-08-30/1940-03-12.

[54] Euskadiko Artxibo Historikoa, Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa, Lehendakaritza Sailaren funtsa: «Emigración. Sección Transitoria de Subsidios y Ayudas. Correspondencia General. Correspondencia (E)». B. Echegaray eta J. Jáureguiren arteko gutunak, 1939-05-28/1939-10-26.

IKER-35.indd 25 2/9/19 10:55

tazko harreman adeitsua berreskuratu baitzuen.[55] Bitartean, Bordeleko *Bulletin Hispanique* aldizkarirako artikulu historikoak idatzi zituen, gero bere antiseparatismoaren froga gisa erabili zituenak (Echegaray 1943; 1945; Estornés Zubizarreta 1983; Sebastián García 1994; Arana Martija 2004; Irujo Ametzaga 2007; 2009b; Aizpuru 2012; Artetxe Sánchez 2013; Chacón Delgado 2015).[56]

Jean Elissalde

Jean Elissalde «Zerbitzari» (1883-1961) Azkainen (Pirinio Behereak) jaio zen. Lehen Mungu Gerran mobilizatu egin zuten. Elizgizona izanda, erizaintzan aritu zen, baina erakutsitako adoreagatik hainbat aipamen eta domina jaso zituen. Liginagako erretore izendatu zuten, berak «Ziberia deithu desterru»tzat jotzen zuena, eta gero Lekornera destinatu zuten.[57] Baionako euskal aldizkarietan eta Eskualzaleen Biltzarreko idazkaritzan (1922-1953) oso aktibo agertu zen. Urgazle 1920an izendatu zuten, eta euskaltzain, 1930ean. Euskaraz oso ongi idazten zuen, lapurtera garbian, baina kezka intelektual gutxirekin. Hizkuntza estandarra sortzeko prozesuan, Frantziako euskaltzaleen eragin urria eta sabindar eskolak Espainian zuen indarra oztopo nagusiak zirela uste zuen (Larronde 1994; Murua Uria 1996; Altonaga 2006; Hernández Mata 2007; Barandiaran 2009; Kalzakorta 2012; Bidegain 2013).

Elizgizon ultraeskuindarra zen, eta, besteak beste, P. Dourisboure Kotxintxinako misiolariaren *Bahnar deithu Salbaiak* (1936) itzuli zuen euskarara. Action Française-ren ildokoa; halako filokarlismo bat erakutsi zuen gerra zibilean. Gerrak areagotutako frantses nazionalismoa eta euskaltzaletasuna kontraesanik gabe bizi izan zituen. 1940-1942 arteko alemanen okupazioan, nazien aurkako gerlari ohien jarrera izan zuen. Aldi berean, Frantziako buruzagi erradikal-sozialistei eta Fronte Popularrari egotzi zien Mundu Gerraren errua. Ondoren politikoki bertso askea izaten saiatu zen, P. Lafitteri *Herria*ren gaullismoaz adierazi zionez: «vous avez *votre* politique, et je sais que *quelques* membres du Comité d'Administration en ont un

[55] SAF-AA: B. Echegaray eta E. Bilbaoren arteko gutunak, 1939-08-17 & 1939-09-07, DP-1603-02.

[56] SAF-AA: B. Echegarayren «Contestación que el firmante ofrece al pliego de cargos que se le formula en el expediente de depuración de su conducta desde el 18 de Julio de 1936 hasta su regreso a España» dosierra, 1945-06-14, DP-1603-02.

[57] ABA-LAF: J. Elissalderen gutuna P. Lafitteri, [192-?].

IKER-35.indd 26 2/9/19 10:55

autre». Gutun berean, kexu zen eskuindarrei zuzendutako «energuménes» iraina argitaratu zuelako astekariak.[58]

1.3. «EUZKADI'KO GOGO-LANTZE ZAINGOA»

1936ko urriaren 1ean Espainiako Errepublikaren Gorteek onartu zuten «Euzkadi'ren Berjabetasun Araudia» («Estatuto de Autonomía del País Vasco») hiru probintziaz osaturiko eskualde autonomorako; Fronte Popularrak hauteskunde orokorretan boterea berreskuratu, eskuin muturrak estatu kolpea jo eta zorigaitzeko gerra zibila hasi ondoren, alegia.[59] Abertzaleen eta ezkerraren adostasunarekin, Autonomia Estatutuak zazpigarren artikuluan euskararen erabilera ofiziala arautu zuen, horretarako eremu euskalduna ongi mugatzeko betebeharrarekin. «Euskaltzaleak» taldeak 1931n egindako kalkuluaren arabera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 370.000 euskal hiztun (8.500, 167.000 eta 195.000, hurrenez hurren) zeuden, biztanleriaren %40,26, beraz.[60] EAJ-PNVk 1936 inguruan egindako estimazioaren arabera, ordea, Euzkadiko hiru probintzia horietan 458.000 inguru euskal hiztun (8.000, 250.000 eta 200.000, hurrenez hurren) zeuden, hau da, biztanleriaren %50etik oso gertu (*Alderdi* 1950-02).[61] Inkesta horien zehaztasuna gorabehera, Autonomia Estatutuak euskararen gutxiagotasun historikoaren aurka egin nahi zuen, lurraldetasunean oinarritutako gizarte elebitasun funtzionalki orekatuagoaren bitartez.

«Euzkadi'ren Berjabetasun Araudia» diputazioetako batzorde kudeatzaile errepublikanoek egindakoaren ildokoa zen eta Euskaltzaindiari ez zion aginte ofizialik eman, agian desegokitzat jo zutelako jeltzaleek eta indar frontepopulistek. EAJ-PNVko José Antonio Aguirre (1904-1960) karismatikoa lehendakari zuela, 1936ko urriaren 7an eratutako behin-behineko Euzkadiko Jaurlaritzaren («Gobierno de Euzkadi») gerra garaiko legegintza ugariak ere ez zion Akade-

[58] ABA-LAF: J. Elissalderen gutuna P. Lafitteri, [194-?].

[59] «Ley relativa al Estatuto Vasco», *Gaceta de Madrid*, 1936-10-07; «Estatuto de Autonomía del País Vasco = Euzkadi'ren Berjabetasun Araudia», *Diario Oficial del País Vasco = Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa*, 1936-10-09; 1936-10-10; 1936-10-11; 1936-10-12; 1936-10-13.

[60] Nafarroaz den bezainbatean, 75.000 euskaldun zenbatu zituzten, probintziako biztanleen %22,7 (Aitzol 1931: 72).

[61] Araba-Bizkai-Gipuzkoek guztira 891.710 biztanle zituzten 1930ean eta 955.754 biztanle 1940an (Instituto Nacional de Estadística). Oxford Unibertsitateko «Alfonso XIII» katedradunak ere 450.000 euskaldun zenbatu zituen Espainian (Nafarroa barne) urte horretarako (Entwistle 1936: 5).

IKER-35.indd 27 2/9/19 10:55

miari instituzio gisa inolako aipamenik egin. EI-SEV eta Euskaltzaindia ez ziren integratu Euzkadiko Jaurlaritzaren egitura instituzionalean, eta ez zuten aurrekonturik jaso EJ-GEtik. Gerra zibilean, jarduna eten egin zuten eta hibernatuta geratu ziren bi erakundeak. Seguru asko, horri esker, diktadura frankistak ez zituen ofizialki deuseztatu, nahiz eta EI-SEVen kasuan, ezerezean geratu ziren hura berpizteko saioak.

R. M. Azkue, bere ohiko jokabide apolitikoari jarraituta, uzkur edo hotz samar agertu zen Euzkadiko Jaurlaritzarekiko. Horrek ez du esan nahi jeltzaleekin parekotasun handiak ez zituenik, Autonomia Estatutuaren beharraz edota euskarazko hezkuntzaren premiaz den bezainbatean. Hain zuzen, B. Echegarayk, Akademiako idazkariordearen bidez, mezu hau helarazi zion Lekeitiora 1936ko azaroan: «Dígale a D. Berbiz [i. e. Resu(rrección)] que convendría tener una pequeña reunión de Euskaltzaindi en Bilbao con los miembros de nº de esta provincia o que residan en ella, juntamente con los correspondientes».[62] 1936ko urritik B. Echegaray, besteak beste, Euzkadiko Lege Onuemale Batzordeko («Comisión Jurídico Asesora») kide zen.[63]

G. Maidagan idazkariordeak euskaltzainburuari eskatu zion hitz egin zezala J. B. Egusquiza eta R. Olabide euskaltzain jeltzaleekin erabaki bat hartzeko.[64] Berariaz ez adierazi arren, argi dago Euskaltzaindiaren EJ-GE sortu berriarekiko harremanak bileraren gaietako bat izan behar zuela. B. Echegarayk seguru asko sortzear zen Euzkadiko Gogo-lantze Batzordean («Consejo de Cultura ») Akademiak izan behar zuen ordezkaritzaz hitz egin nahi zuen. Bestalde, R. M. Azkuek uste zuen militar kolpistek urriaren 17an Gipuzkoako Hernanin fusilatutako J. Ariztimuño elizgizonaren heriotza salatzeko izan zitekeela bileraren deia. «Aitzol»en aktibismo kultural eta politikoaren ondoan, euskaltzainburuaren irudia herabe eta barnerakoi ageri zen.[65] Bizkai errepublikanoan Fronte Popularrak elizgizonen aurka har zitzakeen neurrien beldur zen R. M. Azkue. Urduri, gutun bat bidali zion B. Echegarayri, oker, «Presidente de Justicia y Cultura»ri zuzenduta; hau da, urriaren 7tik «Zuzentza ta Gogo-lantze Burukide» zen J. M. Leizaola balitz bezala:

---

[62] ABA-RMA: G. Maidaganen gutuna R. M. Azkueri, 1936-11-02.

[63] «Orden nombrando la Comisión Jurídica Asesora = Agindua Batzorde Lege onuemalea izendatuaz», *Diario Oficial del País Vasco = Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa*, 1936-10-23.

[64] ABA-RMA: G. Maidaganen gutuna R. M. Azkueri, 1936-11-02.

[65] Bilboko egunkari jeltzaleak azalean jaso zuenez, J. M. Leizaola sailburuak hildakoari omenaldi hunkitua egin zion, Euzkadiko kulturaren sustatzaile nagusi eta ia bakartzat jota. Ondoren, Bermeoko Santa Eufemia elizako hiletan ere parte hartu zuen (*Euzkadi* 1936-10-27; 1936-11-01).

IKER-35.indd 28 2/9/19 10:55

> Reunirnos en Euskaltzaindi? He estado con Eguskiza. Ni él ni yo tenemos traje de paisano para ir ahí. No sería mejor que un domingo nos reuniéramos en Guernika? Altube y Olabide residen allí. Allá iríamos Eguskiza y yo. Usted podría venir acompañado de Nazario Oleaga y Maidagan. ¿Le parece bien? [...] Si se trata de honrar la memoria de Aitzol, parece preferible hacer esto más tarde con solemnidad.[66]

Ez dut aurkitu bilera hori egin zenaren frogarik, ordea. Legegintzaz beste, B. Echegaray EJ-GEren kulturgintzan guztiz inplikatuta egon zen. Besteak beste, Euzko Irakastola Nagusiaren («Universidad Vasca») eta Euzkadiko Gogo-lantze Batzordearen araudien idazketa taldekoa izan zen 1936ko urri-azaroetan eta 1937ko otsail-martxoetan, hurrenez hurren, baina batzordeek ezin izan zuten beraien aholkularitza lana behar bezala bete, Euzkadi errepublikanoaren indar guztiz gehiena gerrara bideratu behar zelako. B. Echegarayk L. Michelenari kontatu zionez, garai horretan R. M. Azkue Lekeition jaso eta Bilbora eraman zuten lehendakaria agur zezan. Euskaltzainburuak ez zuen politikarik aipatu, bere bilduma etnografikoa baino ez. Bidean ikusitako milizianoak zer ziren ere ez omen zekien, eta lehendakariarekin izandako bileran ezeroso egon zen, umea zenetik ezagutzen zuen J. A. Aguirre gazteari zein tratamendu eman ezin asmatu zebilelako (Ibarzabal 2001: 31-32).[67]

Gerra zibilaren ondorioz, EJ-GEk erabateko autonomiarekin kudeatu zituen eskumen gehienak, baina ia Bizkaira besterik mugatzen ez zen lurraldean. Kataluniako ereduari jarraituta, 1936-1937 artean, EAJ-PNVko Jesús Mª Leizaola buru eta Alfredo Ruiz del Castaño idazkari nagusi zituen «Euzkadi'ko Gogo-lantze Zaingoa»k («Departamento de Cultura») hainbat neurri hartu zituen hizkuntzaren alorrean, Autonomia Estatutuak araututako koofizialtasunaren bidetik. Gainera, legez eztabaidagarria izan arren, Estatuaren hezkuntza alorreko eskumen guztiak J. M. Leizaola sailburuak bereganatu zituen 1936ko abenduan.[68] Hala ere, EGLZ-DCEk neurri gehienak ezin izan zituen behar bezala garatu gerra egoeragatik, eta militar kolpisten garaipenak

---

[66] ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna B. Echegarayri, 1936-11-04. Horren arabera, S. Altube artean Bizkaian zegoen, baina biografiek diote irailaren 29an erbesteratu zela emaztearekin (cf. Velez de Mendizabal 1979).

[67] Ez dut aurkitu bisita horren erreferentziarik Bilboko *Euzkadi* egunkari jeltzalean.

[68] «Decreto delegando en la persona del Consejero de justicia y Cultura del Gobierno provisional del País Vasco cuantas facultades referentes a materia de enseñanza competen al Estado = Oroagindua.- Laterriari, Irakaskintzari buruz dagozkion eskubideak, Zuzentza ta Gogo-lantze Burukide danaren eskuetan utziaz», *Diario Oficial del País Vasco = Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa*, 1936-12-12.

IKER-35.indd 29 2/9/19 10:55

eten egin zuen euskalduntze instituzionala. J. M. Leizaola EAJ-PNVren gizona zen EJ-GEn, baina justizia sailburu gisa lanpetuago zegoelako, A. Ruiz del Castaño sabindar ortodoxoak eragin handia izan zuen kulturgintza ofizialean. «Euzkera»z den bezainbatean, bistan dago Euskaltzaindiaren autoritatetik kanpo aritu nahi izan zutela, hizkuntzaren izenetik bertatik hasita. EGLZ-DCEko idazkaritza nagusiak 1936ko azaroaren 26an prestatu zuen antolatze proiektuak, adibidez, ez ikusiarena egin zion Akademiaren ordura arteko lanari:

> Esta Oficina tiene por finalidad dar al Euzkera la difusión e intervención que necesita para popularizarse y que, según se ha visto hasta ahora, no se ha logrado desde el terreno literario o académico. Responderá a la necesidad de:
>
> – que exista un núcleo o centro destinado, al margen de otras actividades que la del idioma: a mantener el uso del Euzkera, a propagar su empleo, a aprovechar sus recursos naturales, a facilitar su enriquecimiento, todo ello con criterio amplio pero depurador, en la oficina, en el comercio, en los tribunales, en la calle, en espectáculos, en los diarios, en los templos, en los elementos de transportes y de comunicaciones, etc.;
> – proteger y estimular tanto la producción literaria como el uso vulgar del idioma;
> – orientar y vigilar la labor intensiva inicial de preparación euzkérica de funcionarios;
> – evitar que la perentoriedad de los problemas corrientes y de Gobierno haga muchas veces que se prescinda, como no indispensable, de la versión euzkérica en las disposiciones que se dicten, en las comunicaciones escritas, en los informes, en la práctica diaria de las oficinas oficiales;
> – adoptar para la práctica oficial una norma morfológica y ortográfica;
> – buscar el ajuste, a los giros propiamente euzkéricos, de la terminología y expresiones corrientes en el lenguaje de la administración pública, y, en los casos indispensables, la formación del correspondiente neologismo; todo esto como medida defensora del Euzkera en este momento de su generalización oficial;
> – conseguir la regularidad lingüística necesaria para la práctica generalizada del euzkera en la enseñanza, así como la provisión de la terminología que esta ha de propagar (apud Sebastián García 1994: 169-170).

EI-SEV, ordea, eredu baliagarria izan zen EGLZ-DCErentzat, euskal kulturaren, unibertsitate publikoaren eta autonomia politikoaren egitasmoekin 1918-1919tik aurrera izan zuen lotura estuagatik. Euskararen gizarte sustapenean ere, J. Ariztimuñoren Euskaltzaleak taldea Akademia baino gehiago konprometitu zen Errepublikako urteetan (Ugalde 1988; Larrañaga 1988; Iztueta

IKER-35.indd 30 2/9/19 10:55

1991: 496-513). J. M. Leizaola sailburuak Euzko Irakastola Nagusia («Universidad Vasca») sortu zuenean azaroaren 17ko dekretuz, EI-SEVen eta «Aitzol»en aitzindaritzari omenaldia egin zien.[69] Era berean, EJ-GEren dekretuak unibertsitate mailan ere euskarak izan zezakeen garrantzia nabarmendu zuen:

> Euzko Irakastola Nagusia eratzerakoan oso aintzakotzat artu beaŕeko zer-nolak badira noski. Luŕaldeari, ikaslez ornituko duan eŕiari, irakasletzari eta irakaskintzari dagozkionak alegia. Euzko-gogoaren ezaugaŕiak, Irakastola beŕiari txertatzea ere etzaigu aztu: euskera, gizarte-gaiak eta legedi-eralguntza batik-bat.[70]

Baina gerra egoeragatik, soilik fakultate bakarra ireki zuten, une horretan beharrezkoena zena: Bilboko Osakintza Ikastola («Facultad de Medicina»). J. M. Leizaolaren asmoaren arabera, Osakintza Ikastolan euskararen irakaskuntzak nahitaezkoa izan behar zuen, Belgika eta Suitzako hezkuntza eleaniztunaren bidetik. J. A. Aguirre lehendakariak, abenduaren 22an Radio Euzkadi-n emandako lehen gabon mezuan, bere egin zuen Euzko Irakastola Nagusiaren proiektua, baina gerra egoerak asko apaldu zuen euskararen goi mailako garapenaren zenbaterainokoa. Osakintza Ikastolako laugarren mailan borondatezko ikasgaia ezarri zuten: «sendakintz-euzkera» («euzkera médico»). Ikasgai horren katedraduna, hain zuzen, José Cincunegui (1886-1964) urgazlea izan zen, Gipuzkoako jeltzale ortodoxo eta 1936ko udan Zarauzko ordena publikoaren arduradun izandakoa, baina 19 ikasle besterik ez zituen izan militar kolpisten okupazioak laburtutako ikasturte bakar horretan (Ugalde 1981: 613-614; Sebastián García 1994; Aizpuru Murua 2000; 2012; Barruso Barés 2006: 124, Makazaga 2012).[71]

---

[69] Gerra zibileko desinformazioaren erakusgarri, Gipuzkoan preso zegoen L. Jáuregui «Jautarkol» eta Txilera destinatutako Hilario de Estella (OFMCap) ere faxistek hildakotzat jo zituen dekretuak.

[70] «La obra de la fundación de la Universidad Vasca ha de tomar en cuenta un importante conjunto de elementos, entre los cuales figuran su territorio, su población, de la que han de proceder normalmente los escolares, su profesorado, las modalidades pedagógicas, la actividad funcional y orgánica y la incorporación de los caracteres culturales vascos, especialmente la lengua y la constitución social y jurídica, entre otros más que podían señalarse» («Decreto creando la Universidad Vasca = Oroagindua.- Euzko Irakastola Nagusia sortu-eraziaz», *Diario Oficial del País Vasco = Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa*, 1936-11-18.

[71] «Decreto constituyendo la Comisión encargada de preparar las bases de la Universidad Vasca con el funcionamiento de la Facultad de Medicina de Bilbao. Nombramiento de la Comisión. Inclusión de la enseñanza del idioma vasco entre las enseñanzas de la Facultad de Medicina = Osakintza Ikastola eratuaz Euzko-Irakastola Nagusiaren oñarriak gertutzeko Batzordea izendatzen dun oroagindua. Batzorde izendatzea. Osakintza Ikastolako ikas-gaietan euskera jartzea», *Diario Oficial del País Vasco = Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa*, 1936-10-12.

IKER-35.indd 31 2/9/19 10:55

Bilboko Osakintza Ikastolaz harago, Katalunia errepublikanoan ez bezala, elizgizonen eragina oso handia izan zen EJ-GEren kulturgintzan. EGLZ-DCEko «Euskera ta Euskal Elerti Saĺa» («Sección de Lengua y Literatura») 1936ko azaroaren 7an sortu zutenean, Juan Gorostiaga Bilbao (1905-1988) apaiz gaztea izendatu zuten buru. Bizkaiko Deustun jaiotako jeltzalea zen, noski. Ekialde Hurbileko hizkuntza zaharretan aditua (Erromako Biblia Institutu Pontifikalean ikasi zuen), 1932an urgazle izendatu zuten. Lexikografian eta *Euskera* agerkarian laguntzeko kontratatu zuen Akademiak, N. Ormaechearen hutsunea betez. 1934-1935ean, besteak beste, Eusko-Gogo-Berria («Esprit Nouveau Vasco») literatura talde jeltzaleko kide izan zen eta euskal gramatikaz jardun zuen EI-SEVen udako ikastaroetan.

Ondoren, J. Gorostiaga bete-betean aritu zen Euzkadi autonomoaren alde lanean. 1936ko urrian, A. Apraiz, B. Echegaray eta beste lagun batzuekin batera, EJ-GEren Euzko Irakastola Nagusiaren oinarriak ezarri behar zituen batzordeko kide izendatu zuten. M. Múgica Gasteizko apezpiku deserrituaren agindupean, halaber, Bizkaian 1937an sortu zen seminarioko irakasle ere izendatu zuten. Ekainaren 19an Bilbo erori aurretik, Frantziara erbesteratu eta EJ-GEren haur kolonietan eta propaganda antifrankistan aritu zen, baina berehala Kubara alde egin behar izan zuen Mundu Gerragatik. Hala ere, R. M. Azkue eta J. Gorostiagak postazko harreman adeitsuan jarraitu zuten (EI-SEV 1935a; 1935b; 1936a; Clero Vasco 1966: 356-358; Arana Martija 1990: 17-19; Alonso Carballés 1998: 207; Aizpuru 2012: 109-117; Kintana 2015: 374-395).[72]

J. Gorostiagak «Euskera ta Euskal Elerti Saĺa»ra elizgizon ugari bildu zituen, besteak beste, R. Olabide eta J. B. Egusquiza euskaltzainak eta Jaungoiko-Zale Bazkunako kide ziren J. C. Ibarguchi eta G. Manterola urgazleak. Talde horren egiteko nagusia euskarazko ikasliburuak prestatzea izan zen, hezkuntzaren bidez hizkuntzaren eta euskaldunen kultura maila jasotzearren, 1936ko Autonomia Estatutuak agintzen zuen bidetik. J. Gorostiagaren zuzendaritzapean, orobat, «Euzkel Irakasletza» izeneko talde jeltzalea bildu zen euskarazko hezkuntza antolatzeko asmoarekin 1936ko abendutik 1937ko otsailaera arte. Horien artean, 1919an urgazle izendatutako F. Belausteguigoitia, A. Urriolabeitia eta J. M. Errazti. Euzkel Irakasletzako idazkaria A. Urrutia klaretar hiperpurista izan zen. Era berean, «Euskera ta Euskal Elerti Saĺa» euskararen erabilera ofiziala eragiten saiatu zen, ez soilik administrazioan, baita soldaduen artean ere:

[72] ABA-RMA: J. Gorostiagaren gutunak R. M. Azkueri, 1940-02-26 & 1940-07-01.

IKER-35.indd 32 2/9/19 10:55

> Por la Academia de la Lengua y de la Literatura [sic] se han cursado órdenes a los batallones, para que todos los gudaris perfeccionen o aprendan el euzkera, teniendo presente que al terminarse la guerra serán preferidos los vascos que conozcan el euzkera y hayan sido milicianos, para ocupar los cargos públicos en los Departamentos del Gobierno Vasco y todos los de carácter oficial (*Euzko Deya* 1937-03-28).

Gerra egoeragatik, «Euskera ta Euskal Elerti Saľa»k ezin izan zuen N. Ormaechea urgazlearen *Euskaldunak* poema «nazionala» argitaratu ere. Beste proiektu filologiko batzuk ere bete gabe geratu ziren: Erdi Aroko euskal onomastika edota J. Leiçarragak (1571) erabilitako aditz formak jasotzea. Euzkadiko mapa linguistikoa burutzeko asmoa agertu zuten, halaber, Autonomia Estatutuaren araudi linguistikoa aplikatzeko ezinbestekoa zena. R. M. Azkue, ordea, ahalegin ofizial horietatik oso urruti agertzen zen. «Euskera ta Euskal Elerti Saľa»rekin izan zuen harreman bakarra aldizkari zientifiko baten egitasmoarekiko elkarlan zapuztua izan zen. J. Gorostiaga lankide ohiarengana soilik laguntza eske jo zuen 1937ko martxoan, Lekeition komunistek ustez egindako salaketa faltsu baten kasua konpon zezan J. A. Aguirre «adiskidea»ren bidez. [73]

G. Maidagan Akademiako idazkariordeak ez zuen parte hartu «Euskera ta Euskal Elerti Saľa»n, baina gogo handiz egin zuen EJ-GEren alde. 1937ko urtarrilaren 4an Alemaniako abiazioak Bilboaldea bonbardatu eta gutxienez zazpi hildako eragin zituen, baina errepublikanoek bi abioi nazi lurrera botatzea lortu zuten (Landa Montenegro 2007). Biharamunean G. Maidaganek R. M. Azkueri idatzi zion Bilbotik Lekeitiora. Milizianoek egun berean mendekuz hildako 225 inguru preso eskuindarrak ez zituen aipatu, agian artean ez zekielako horren berri: «Ayer tuvimos un día de jaleo. La aviación rebelde se llevó una lección; su merecido. La gloriosa aviación vasca se portó heroicamente. ¡Bien por ellos!».[74]

EJ-GEren kulturgintzaz den bezainbatean, 1936ko abenduaren 14an Euzkadiko Gogo-lantze Batzordea («Consejo de Cultura ») sortu zuten, kul-

---

[73] «Por malos informes de esta villa (probablemente de la Delegación de Guerra, formada por dos comunistas procedentes de Rentería, vendedores allí de periódicos de extrema izquierda) hoy está el muchacho en el cuartel del Batallón Disciplinario de Portugalete, en calidad de detenido, sometido a riguroso trabajo y mal alimentado. Los delegados de aquí, a que arriba me refiero, desconocedores en absoluto de esta villa, catalogaron a Alberto [Ortiz Colmenares] como fascista y emboscado. Nunca ha estado afiliado a ningún partido, jamás ha mostrado afición a la política y nada de esto se le puede imputar». (ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna J. Gorostiagari, 1937-03-07).

[74] ABA-RMA: G. Maidaganen gutuna R. M. Azkueri, 1937-01-05.

IKER-35.indd 33 2/9/19 10:55

turaren alorrean aholkulari ofizial izan zedin.[75] J. M. Leizaola sailburuak 1937ko urtarrilaren 28an, besteak beste, B. Echegaray eta R. Olabide euskaltzainak izendatu zituen Euzkadiko Gogo-lantze Batzordeko kide; legelaria Goi-Irakaskintzaren («Enseñanza Superior») sailean eta elizgizona Euskera eta Euskel-Elertiaren («Lengua y Literatura Vasca») sailean. Hain zuzen, euskara eta euskal literaturaz arduratzeko izendatutako bost kideak ezpal jeltzale garbiko letra gizonak ziren: Tomás Aguirre «Baŕensoro» eta José Altuna «Amilgain» BPDko euskara irakasleak, Bernardo M.ª Garro «Otxolua» eta Esteban Urquiaga «Lauaxeta» idazleak, eta aipatutako Raimundo Olabide euskaltzaina. Esanguratsuki, aginduak R. Olabide (SI) izendatzean, «euskaltzain» barik, «euskera-jakitunen batzordeko» erabili zuen «académico de la lengua vasca»ren pareko termino gisa, itzultzailearen Akademiarekiko nolabaiteko errezeloa aditzera ematen duena.[76]

Esan bezala, Euskaltzaindiak instituzio gisa ez zuen parte hartu EGLZ-DCEko jardueran. Sintomatikoa da J. Gorostiaga bera langile izan zuen Akademiaren *Diccionario español-vasco* bezalako literatura tresna erabilgarria, «Euskera ta Euskal Elerti Saĺa»ren lan plangintzan ez agertzea. Hain zuzen, Euskaltzaindia ez zen gauza izan euskara estandar bat arautzeko, gramatika eta lexiko mailetan bederen, eta ondorioz, EJ-GEren 1936-1937ko irizpide linguistikoak tradizio jeltzaleko idaztankera eta terminologia garbizalearenak izan ziren. Alde batetik, J. M. Leizaola sailburuak ezarri zuena, nagusiki gipuzkeraz idatzita egonagatik, *Diario Oficial del País Vasco = Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa*n. Hizkuntza teknikoaren mailan, beste horrenbeste gertatu zen Osakintza Ikastolako «sendakintz-euzkera»rekin, R. Olabideren *Gizasoña* (1917) hiztegi anatomikoaren bidea hartu zuena. Euskarazko testugintza ofizialak, eten historikoen erruz, unean uneko indar politikoen eraginari erantzuten zion, hizkuntza ereduaz den bezainbatean, neurri handi batean adanismora kondenatuta (Lobera Revilla 1995; HAEE-IVAP 1997; Aizpuru 2012; Makazaga 2012; Trebiño 2014).

1937ko urtarriletik ekainera arte, Bilbon argitaratu zen euskara hutsezko historiako lehen egunkaria. EAJ-PNVren *Egunako* erredaktore eta itzultzaile

[75] «Decreto creando el Consejo de Cultura de Euzkadi = Oroagindaua.- Euzkadi'ko Gogo-lantze Batzordea sortu-eraziaz», *Diario Oficial del País Vasco = Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa*, 1936-12-16.

[76] «Orden designando a las personas que se citan para constituir las diferentes Secciones que integran el Consejo de Cultura de Euzkadi = Agindua Euzkadi'ko Gogo-lantze Batzordea osatzen duten Sailletara nortzuk joan izendatuaz», *Diario Oficial del País Vasco = Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa*, 1937-01-30.

IKER-35.indd 34 2/9/19 10:55

talde saiatuak (A. Zubicaray, E. Erquiaga, J. M. Arizmendiarrieta, A. Mendizábal) ere, bizkaierazko prosa naturalagoa erabili arren, Esteban Urquiaga «Lauaxeta»k *Euzkadi* egunkariko euskal atalean bultzatutako eredua izan zuen eskola nagusi. Errepublikan, alderdikeriaz, lehenago E. Bustinza «Kirikiño»k bezala, gogor egin zuen Euskaltzaindiaren autonomia akademikoaren aurka.[77] Euskaltzainek, esaterako, ez zuten *Eguna*n testurik idatzi (Díaz Noci 1995; Altzibar 2005; 2015; Urkiaga 2005; Kintana Goiriena 2008: 601-609). Eskuindar kolpistek Gipuzkoan fusilatutako Ángel Osoro «Abeŕi» kazetari zaharraren heriotzaren berri zabaldu zenean, «euzkel-idazle eraildakoen gogo-aldez»ko meza antolatzea proposatu zuten euskarazko egunkariaren kolaboratzaileek: «Jazokunok oldozketa (pentsamentu) gogorik emoten dauskue: Euzkeltzalien odola ixuri ta *Eguna* jayo... *Eguna* jayo ta Unamuno il» (*Eguna* 1937-01-31).[78]

Evaristo Bustinza «Kirikiño»ren (1866-1929) heriotzaren urteurrenean, 1937ko urtarrilaren 31n, izan zen ekitaldia Bilboko Santos Juanes elizan. Donostiako Euzko-Abesbatzak kantatutako meza oso jendetsua izan zen. EJ-GEko J. A. Aguirre lehendakaria eta J. M. Leizaola eta T. Monzon sailburuak bertan izan ziren, baita *Eguna*ko kolaboratzaile andana ere, baina prentsako berrietan ez da euskaltzainik agertzen. Santos Juanes elizara bertaratutako guztiak jeltzale militanteak ziren eta ondoren bazkaria egin zuten Emakume Abertzale Batzaren egoitzan. [79] E. Urquiaga «Lauaxeta»ren ekimenez lau urte lehenago (hain zuzen, A. Osoro «Abeŕi»ri egindako omenaldian) sortutako Euzkel-Idazle-Batza («Federación de Escritores Vascos») suspertzea zuten asmo, baina gerra egoerak ez zuen halakorik egiten utzi, eta EAJ-PNVren *Eguna* bera izan zen idazleon bilgune historikoa.[80] Egun berean Lekeition hil

---

[77] Hauxe zen «Lauaxeta»ren jarrera euskararekiko, gerra zibila hasi baino lehenago: «Euzkeraz idazten dogunok, abeŕijaren elia dalako baño eztogu idazten. Eta neketuta gagoz beti abeŕtzale eztiran iru edo laugaťik, geure abeŕijari ezetz egiťen. *Abeŕi* [A. Osoro] azkaŕa, abeŕtzale zintzua ixan da beti, idazle ona, baña abeŕtzale obia. Eta geure aintzarik andijena, abeŕtzale ixatia da, ez idazle ixatia» (*Euzkadi* 1933-07-16).

[78] Eragin txikiagoa izan zuen EAE-ANVren menpeko *Ereintza* aldizkariak («Euzkadi'ko Nekazaritza Zaingoan Entzukia»), bost zenbaki besterik ez baitzituen argitaratu 1936ko abendutik 1937ko apirilera arte (Díaz Noci 1995: 251-252).

[79] F. Belaustegui, G. Rentería, E. Aranzadi, G. Gorostiza, I. Azpiazu, A. Urrutia, R. Erce, I. Eizmendi, J. Azcue, J. Eizaguirre, N. Arizmendi, M. Arruza, A. Urriolabeitia, J. Bareño, J. Labauria, E. Urquiaga, A. Arcelus, T. Aguirre, R. Múgica, J. Gabilondo, M. Olaizola, D. Arruti, L. Arbeloa, J. Insausti, S. Alustiza, M. Ortuzar, A. Arrasate, A. Ruiz de Azúa, A. Arocena, R. Arrieta, J. Abando, M. Ziarsolo, etab. (cf. Altzibar Aretxabaleta 2015).

[80] *Eguna* 1937-01-13; 1937-01-14; 1937-01-16; 1937-01-19; 1937-01-24; 1937-01-28; 1937-01-29; 1937-01-30; 1937-01-31; 1937-02-02; 1937-02-03; 1937-02-04.

IKER-35.indd 35 2/9/19 10:55

zen R. M. Azkueren arreba Aurora Azkue Aberasturi (1860-1937), Bilboko egunkariek eskelan iragarri zutenez.[81]

Euskararen gutxiespen historiko baten inertziaren zamaz gain, gerrara bideratutako ahalegin ikaragarriak eta, azkenik, 1937ko ekainean Bilboren erortzeak, ezabatu egin zuten Euzkadiko gizarte erabileran elebitasun orekatuagoa hedatzeko asmo hura. Aipatutako EGLZ-DCEko kide guztiek erbestera joan behar izan zuten, hil edo atxilotu ez bazituzten. Euskararen gizarte sustapen lan hori politikoki zein delikatua zen frogatzen du zeregin horretan gehien konprometitutako euskaltzainek erbesterako bidea hartu behar izateak: D. de Inza, B. Echegaray, S. Altube edota R. Olabide. Are okerrago dena, Gasteizen fusilatutako Esteban Urquiaga «Lauaxeta» (1905-1937) poeta jeltzalearen kasu sinbolikoaz beste, Akademiarekiko elkarlanean nabarmendutako hainbat elizgizon 1936ko urrian Gipuzkoa okupatuan epaiketarik gabe exekutatu zituzten. Hain zuzen, *Eguna*k antolatutako mezan omendutakoak ziren: José Ariztimuño «Aitzol» (Euskaltzaleak), Martín Lecuona (Euskaltzaindiaren Laguntzaleak) edota R. M. Azkueren «gipuzkera osotu»a sustatzeko batzordean aritutako José Marquiegui eta Leonardo Guridi Arrasateko koadjutoreak (Euzko Apaiz Talde 1981; Akesolo & al. 1989: 138-140; Ormaetxea 1991b: 428, 861; Sebastián García 1994; Aizpuru & al. 2007: 198-204).

R. M. Azkue agertzen da erbesterako bidea hartu ez zuen salbuespen gisa. Gerra zibilak euskaltzainak sakabanatu eta Akademia zatitu egin zuen. Txilera destinatutako D. de Inzak (OFMCap) 1937ko irailean euskaltzainburuari idatzi zion gaztelaniaz (ohi zuenaren aurka) akademikoen berri eskatzeko:

> Mi distinguido amigo D. Resurrección. ¿Vive? Dios sea bendito!
>
> No sé una palabra de todos nuestros compañeros de Academia. Solo he sabido hace tres días, con inmensa pena, la muerte de D. Arturo de Campión. Todos nosotros, navarros y vascongados le hemos encomendado con sufragios particulares. Si V. sabe el paradero de los otros compañeros, hágame el favor de comunicarme.
>
> Estoy aquí desde primero de este año. Estuve en Fuenterrabía hasta la entrada de los de Franco, sufriendo algo, que algún día Dios mediante, le contaré. Aquí me mandaron mis Superiores y estoy contento con mi suerte.

[81] Politikoki esanguratsua da egunkarien tratamendu ezberdina. J. Urquijoren anaiak sortutako egunkari katolikoak atsekabea erakutsi zion «ilustre euzkerólogo»ari, baina eskelan «Azcue» ageri zen deitura. EAJ-PNVren egunkariko eskelan «Azkue» grafiarekin ageri zen, baina Lekeitioko hiletaren ondoren adierazi zion dolumina «presbítero» hutsari (*La Gaceta del Norte* 1937-02-02; *Euzkadi* 1937-02-02; 1937-02-04).

IKER-35.indd 36 2/9/19 10:55

> Qué fue de las hermanas de Vd? Tendré la dicha de tener dos letras de Vd?
>
> A mi salida supe que Orixe estaba en el Castillo de Pamplona ¿sabe V. algo de él?
>
> Desde mi salida ruego mucho por Vds. al Señor.
>
> Yo estoy trabajando incesantemente en el sagrado ministerio desde mi llegada, sin tiempo para otros asuntos.
>
> Saludos cordialísimos a todos mis amigos y compañeros.[82]

R. M. Azkuek gutunez erantzun zion Aurora eta Sol arrebak urte horretan hil zirela modu naturalean, baina euskaltzain guztiak bizirik zeudela, eta G. Maidagan Akademiako idazkariordeak ere lanean jarraitzen zuela Bilbon bestelako arazorik gabe. Azken berri horiek asko poztu zuten fraide kaputxinoa. Gerra zibilak bere horretan irauten zuenez, D. de Inzak kolpisten garaipena opa zuen, ustez erlijio katolikoaren babesle agertzen ziren neurrian: «Mucho me alegro de que ya se vislumbre el triunfo final del ejército católico».[83] Euskaltzainburua oso nahigabetuta zegoen gerra zibilak euskaltasunari marrazten zion etorkizun beltzarekin. Militar matxinoek Bilbo okupatu eta lau egunera, ekainaren 23an, Lekeition hil zen Sol Azkue Ozerín (1855-1937) arrebaorde ezkongabea, bizirik zuen azken haurridea.[84] Buenos Airesko adiskide bati adierazi zionez, 73 urte betetzear zegoen R. M. Azkuek une horretan, eta gerra zibilak iraun zuen artean, bizimodu publikoa zeharo baztertu eta «Salvator» izeneko ordena erlijiosora erretiratzeko asmo sendoa izan zuen:

> Al quedarme yo solo me ocurrió escribir al P. Pancratius Pfeiffer (que es el nombre del General) ofreciéndome a tener en mi casa por tres meses y a mi cuenta a tres religiosos de su orden (Rector, Vicerrector y cocinero) para que se dedicaran a fundar una Casa suya, que sería la primera que tendrían en España; y fundada ella iría yo a pasar entre ellos los ultimos días de mi vida. Aceptaron mi invitación muy agradecidos pero ha tenido que aplazarse el proyecto por las dificultosas circunstancias en que vivimos.
>
> Esto sí. Gracias a Dios va muy bien la tremenda lucha de España, siendo muy posible que antes de un mes termine con la victoria de nuestro gran caudillo el generalísimo Franco.[85]

---

[82] ABA-RMA: D. de Inzaren gutuna R. M. Azkueri, 1937-09-27.
[83] ABA-RMA: D. de Inzaren gutuna R. M. Azkueri, [1937/1938?].
[84] ABA-RMA: Sol Azkue Ozerínen heriotza agiria, 1941-07-16.
[85] ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna Sara Azcueri, 1938-03-31.

IKER-35.indd 37 2/9/19 10:55

1.4. «INSTITUTO DE ESPAÑA» ETA «REAL ACADEMIA ESPAÑOLA»

«Errege» izendapenaz gabetuta zegoen Academia Española errepublikanoaren 1936ko azken batzar ofiziala ekainaren 25ean egin zen Madrilgo Felipe IV.a kaleko egoitzan.[86] Gerra zibila piztu ondoren, Academia Españolak aldaketa berriak jasan zituen. Euskaltzaindian bezala, Academia Españolan ere eskuindarrak nagusi ziren, baina R. Menéndez Pidal burua, JAEko Centro de Estudios Históricos-en liberalismo errepublikazale eta demokratikoaren sinboloa, beste akademiko eta intelektual batzuekin Errepublikaren alde agertu zen manifestu labur baten bidez Madrilgo egunkarietan:

> Los firmantes declaramos que, ante la contienda que se está ventilando en España, estamos al lado del Gobierno de la República y del pueblo, que con heroísmo ejemplar lucha por sus libertades. Ramón Menéndez Pidal, Antonio Machado, Gregorio Marañón, Teófilo Hernando, Ramón Pérez de Ayala, Juan Ramón Jiménez, Gustavo Pittaluga, Juan de la Encina, Gonzalo Lafora, Pío del Río Ortega, Antonio Marichalar y José Ortega y Gasset (*ABC*, Madril, 1936-07-31).

M. Azaña Errepublikaren presidenteak 1936ko irailaren 15ean sinatutako dekretuak, Espainiako sei Errege Akademia ohiak desegin, kideak kargugabetu eta ondasunak konfiskatu zituen, «Instituto Nacional de Cultura» delakoa sortzeko.[87] Hain zuzen, R. Menéndez Pidal berak iradoki zion F. Barnes Instrukzio Publikoko ministroari egitura berria, gerta zitezkeen kalte okerragoak saihestearren. Gobernuaren helburua instituzio berrian soil-soilik ezkerreko errepublikazaleak aritzea zen, noski. Dena dela, gerra egoeragatik, Instituto Nacional de Cultura-k ez zuen jardunik izan, eta akademikoak sakabanatu egin ziren, Bordeleko erbestera 1936ko abenduan iritsitako zuzendaria barne. Gerra zibilak iraun artean milizianoek zaindu zuten egoitza, barruan soilik atezaina zegoela (García de la Concha 2014: 281-285).

Burgosko Gobernu kolpistak, halaber, Frantziako ereduari jarraituta, «Instituto de España» delakoa sortu zuen, F. Franco estatuburuak sinatutako 1937ko abenduaren 8ko dekretuz. JAE nahiz Instituto Nacional de Cultura errepublikanoa ordezkatu eta Espainiako sei Errege Akademia ofizialak batzen zituen: «Academias de la Lengua Española, de la Historia, de Ciencias Exac-

---

[86] RAEren Artxiboa: «Libro de Actas de la Real Academia Española», 1936-06-25.

[87] «Decreto (rectificado) declarando disueltas todas las Academias dependientes de este Ministerio», *Gaceta de Madrid*, 1936-09-17.

IKER-35.indd 38 2/9/19 10:55

Irudia 2. **«Instituto de España»ren lehen ekitaldi publikoa (Salamanca, 1938-01-06). Mahaiburuan Leopoldo Eijo, Nicolás Franco, Francisco Gómez Jordana edota Pedro Sainz Rodríguez daude.**

© Biblioteca Nacional de España

tas, Físicas y Naturales, de Ciencias Morales y Políticas, de Bellas Artes de San Fernando y de Medicina».[88] Espainiako errege akademiei dei egiten zitzaien frankismoaren kultura inperialismora biltzera. IdeE-ren sustatzaile nagusiak Pedro Sainz Rodríguez (ministro izendatua izan baino lehenago) eta bereziki E. Ors handigura izan ziren. Azkenak amesten zuen kulturaren senatu edo kupula izan behar zuen IdeE-k. Hain zuzen, 1911-1920 artean Eugenio Ors idazkari izan zuen Institut d'Estudis Catalans-ek bezalaxe, Institut de France-ren eredua segitzen zuen.[89]

[88] «Decreto núm. 427.- Disponiendo la convocatoria de las Reales Academias», *BOE*, 1937-12-08.

[89] Hamar urtez Parisen bizi ondoren, Eugenio Ors (1881-1954) Iruñean zegoen 1937ko apiriletik, Fermin Yzurdiaga apaizaren zuzendaritzapean prentsa eta propaganda falangistaz arduratzen ziren idazleekin lanean. Iruñeko *¡Arriba España!* egunkariko eta *Jerarquía* aldizkariko falangismo beligeranteak eztabaida sortu zuen F. Yzurdiaga eta M. Olaechea

IKER-35.indd 39 2/9/19 10:55

Junta Técnica del Estado matxinoko Comisión de Cultura y Enseñanza-a-k errege akademien hiruna ordezkari deitu zituen berrantolaketan parte hartzera.[90] RAEren ordezkariak Agustín González de Amezúa, Miguel Artigas eta E. Ors izan ziren. Abenduaren 27an, Burgosko irakaskuntza ertaineko institutuan, IdeE sortzeko batzarra bildu zen. Mahaiburua J. M. Pemán (1897-1981) monarkiko erreakzionarioa zen, ministro maila zuelako Comisión de Cultura y Enseñanza-ko buru gisa.[91] Bertan izendatu zuten IdeE-ren zuzendaritza: Manuel de Falla (buru), P. Sainz Rodríguez (buruorde), E. Ors (biziarteko idazkari), Pedro Muguruza (kantziler), V. Castañeda (argitalpen idazkari), M. Artigas (liburuzain) eta A. González de Amezúa (diruzain). Gainera RAEren behin-behineko zuzendaritza izendatu duten: Miguel Asín (buru), J. Urquijo (idazkari) eta M. Artigas (bibliotekari). 1938ko urtarrilaren 1eko dekretuak IdeE-ren egitura arautu zuen.[92]

M. de Fallaren agintaritza sinbolikoa zen; egiazko zuzendariak buruorde-idazkariak ziren. Ekainean IdeE-ren zuzendaritza funtzio guztiak P. Sainz Rodríguezek hartu zituen.[93] 1938ko urtarrilaren 5ean, sei Errege Akademiak

---

apezpikuaren artean, baita hierarkia politiko-erlijiosoen artean ere. E. Orsen estilo barrokoari jarraituta, Falange-ren imajinario inperialista elikatu zuten, Nafarroako «Covadonga» katolikotik. 1938ko urtarrilaren 31n osatutako lehen gobernu frankistan, P. Sainz Rodríguez (1897-1986) Hezkuntza Nazionaleko ministro monarkikoa izan zen. Bellas Artes-etako zuzendari nagusi E. Ors izendatu zuen, Europan zuen ospeagatik. Lliga Regionalista-ren ildoko intelektuala eta Kataluniako Mankomunitatearen hezkuntza arduradun nagusia izan zelako, susmoak eragin zituen izendapenak, baina urte asko ziren katalanismoarekin hautsi zuela. 1920-1921 artean, Mankomunitatean dimisoa aurkezteaz gain, Institut d'Estudis Catalans-eko idazkaritzatik kargugabetu zuten. E. Orsen eboluzio ideologikoa eta pertsonalismo ia megalomaniakoa jasanezina egin zitzaizkien Kataluniako agintari politiko-kulturalei. Irainduta, E. Orsek bizkarra eman zion jatorrizko katalan kulturari, eta mendeku antzekoan falangismoa besarkatu eta frankismoaren intelektual organikoa bilakatu zen. (Sainz Rodríguez 1987; Balcells, Izquierdo & Pujol 2002; Martínez Sánchez 2012; Ucelay-Da Cal 2012; Varela 2017).

[90] «Orden.-Designando Comité para actuar en la reorganización de Reales Academias y convocándolo para el 27 de diciembre», *BOE*, 1937-12-17.

[91] IdeE eta RAEren historiarako erabilitako iturri nagusiak: Alted Vigil 1984; Calvo Sotelo & al; Escribano Hernández 1998; Ascunce 1999; Zamora Vicente 1999; García de Juan 2001; González González 2010; García de la Concha 2014. IdeE-ko kide guztien biografia laburretarako: Ramírez Jérez 2005.

[92] «Decreto núm. 436, constituyendo el Instituto de España con el conjunto de Académicos Numerarios de las Reales Academias», *BOE*, 1938-01-02.

[93] «Orden eximiendo de toda función directiva, como Presidente del Instituto de España, al Excelentísimo Sr. D. Manuel de Falla», *BOE*, 1938-06-23.

IKER-35.indd 40 2/9/19 10:55

IdeE-n integratu ziren Salamancako Unibertsitatean egindako ekitaldi pribatuan. Mahaiburuak P. Sainz Rodríguez, J. M. Pemán, E. Ors, Conde de Romanones eta Duque de Alba izan ziren. Burgosko Gobernuaren sorrera dekretua onartu eta F. Franco estatuburuari telegrama bat bidaltzea erabaki zuten (*ABC*, Sevilla, 1938-01-06; *La Gaceta del Norte* 1938-01-06; *El Diario Vasco* 1938-01-06).

IdeE-k lehen ekitaldi publikoa 1938ko urtarrilaren 6an egin zuen Salamancako Unibertsitatean. Junta Técnica del Estado-ko buruaz (F. Gómez Jordana) eta idazkariaz (Nicolás Franco) gain, nazioarteko diplomazialariak bertan izan ziren, Burgosko Gobernu kolpistaren erakundeari zilegitasuna eman nahian: Italia, Alemania, Japonia, Guatemala, El Salvador eta Erresuma Batukoak. M. de Falla ustezko burua, Cadizen gaixorik zegoelako, ez zen batzarrera agertu (*El Diario Vasco* 1938-01-07).

JAEko Centro de Estudios Históricos-ek hogeita hamar urtez bildutako ondare zientifiko eta kulturala, filologia eta historiaren arloan R. Menéndez Pidalek eta bere dizipuluek ongien irudikatzen zutena, ezabatzeko asmoa ageri zen. P. Sainz Rodríguezek azaldu zuen IdeE-ren zeregin nagusia, erreakzionarioen fronte intelektuala izatea zela:

> Por eso este Instituto es unidad. Unidad en la inteligencia, unidad en la tarea, unidad en la conciencia moral de nuestro pueblo. No olvidemos que vamos a jurar ante el yugo y las flechas, que es el emblema sagrado de la redención de nuestro pueblo y que por eso este Instituto ha de tener este carácter de frente de guerra. Somos los encargados de trazar las trincheras del pensamiento para que la muerte que todos los días mata a este pueblo español, que ha sabido sublevarse por su tradición, no sea infecunda en las trincheras de la guerra (*ABC*, Sevilla, 1938-01-07).

F. Gómez Jordanak akademien autonomia gordeko zela agindu zuen, baina instituzio berriko kide guztiak E. Orsek asmatutako, eta dekretuz ezarritako, zin lotsagarria egitera behartu zituzten. Gainera, zin hori Itun Berriaren eta Falange-ren ikurra zeraman *Don Quijote de la Mancha*ren ale banaren gainean egin behar zuten: «¿Juráis en Dios y en vuestro Ángel Custodio servir perpetua y lealmente al de España, bajo Imperio y norma de su Tradición viva, en su catolicidad, que encarna el Pontífice de Roma; en su continuidad, representada por el Caudillo, Salvador de nuestro pueblo?»[94].

[94] «Orden dictando normas para el reingreso e ingreso de los señores Académicos, de conformidad con lo preceptuado en el Decreto de 8 de diciembe último», *BOE*, 1938-01-02.

IKER-35.indd 41 2/9/19 10:55

Irudia 3. **Julio Urquijo eta Ignacio Urquijo iloba (Mutriku, 1944-09-12)**

© argazkiarena: San Telmo Museoa.

Baiezkoa emana zuten Burgosen batzartutakoek, eta Salamancan RAEko beste kide hauek zin egin zuten: L. Eijo apezpikua, R. Cabanillas, G. Maura, W. Fernández Florez, Marqués de Lema, R. M. Azkue, J. Urquijo eta Pío Baroja. P. Barojak 1935ean RAEko sarrera hitzaldia irakurri zuenean, G. Marañón liberal errepublikazaleak erantzun zion, baina horrek ez bezala, P. Baroja Parisko erbestetik 1937ko irailean itzuli eta zin frankista egin zuen. Madril-Alcaláko apezpikuak, zina heretikotzat jota, promes baino ez omen zuen egin. Kontuan hartu behar da gerra zibileko jazarpen giroak susmagarri bilakatu zituela ortodoxia katolikotik kanpo aritutako guztiak. Donostiako liburutegi eta liburu dendak depuratu zituen batzordeak, adibidez, P. Barojaren «pozoi intelektuala» edota W. Fernández Florezen «materialismo sentsuala» gaitzetsi zituen (Alted Vigil 1984: 64).

Lehen aipatu dudan urtarrilaren 5eko RAEren batzar pribatuan, kide hauek kargua hartu zuten: E. Ors, W. Fernández Flórez eta J. M. Pemán. Halaber, bi akademiko berri izendatu ziren: P. Sainz Rodríguez eta Manuel Machado. Militar matxinoen esku zeuden lurraldeetako akademikoak bildu eta erakundea berrezartzeko presa nabaria zen. Estatutu-erregelei jaramonik egin gabe, gerra zibilean hildakoen hutsarteak bete eta behin-behineko

IKER-35.indd 42 2/9/19 10:55

zuzendaritza berria izendatu zuten: J. M. Pemán (behin-behineko buru), Madril-Alcaláko apezpikua (behin-behineko zentsore), J. Urquijo (behin-behineko idazkari), A. González de Amezúa (diruzain), R. Cabanillas (kide laguntzaile) eta M. Artigas (behin-behineko liburuzain).[95]

R. Menéndez Pidal RAEren buru ohia erbesteratuta zegoen. F. Rodríguez Marín liburuzain eta J. Casares idazkari ohiak Madril errepublikanoan zeuden artean eta ezin zituzten kargu horiek bete. Gainerako prentsak ez bezala, Bilboko egunkariak jaso zuen J. Urquijo euskaltzain sortzailea RAEko idazkari (akademia bateko bigarren postu garrantzitsuena) izendatu zutela (*La Gaceta del Norte* 1938-01-07). Hilaren bukaeran, berriz eman zuten izendapenaren berri, fotografia eta guzti. Bilboko eta Donostiako egunkariek testu bera argitaratu zuten, gobernu mailako agindua zelako. RAEko idazkari berriak egindako lan zientifikoaren izaera politiko antiabertzalea nabarmentzen zen:

> La labor de Urquijo, aparte de su fecundidad científica, ha tenido en nuestro País un carácter político histórico que conviene destacar. En efecto; sus trabajos históricos y lingüísticos han sido siempre de una absoluta honradez científica, ajena por completo a todo mal entendido apasionamiento hacia el País Vasco, pudiéndose apreciar a través de su obra que una de sus principales características ha sido la de reducir a sus justas y verdaderas proporciones todas las fantasías que con fines bastardos, antipatrióticos y criminales habían sido puestas en circulación por el nefasto Sabino Arana Goiri y sus secuaces del Separatismo Vasco (*La Gaceta del Norte* 1938-01-23; *El Diario Vasco* 1938-01-25).

IdeE-k Euskaltzaindia bere barruan hartu ez arren, zin ofiziala egin zuten zortzi akademikoen artean R. M. Azkue eta J. Urquijo zeuden, beraz. Horrek bi euskaltzainon kolpistekiko lotura ofizialdu zuen, batez ere R. M. Azkueren kasuan, garai horretan RAEko kideen filiazio politikoaz egindako dosier frankista batek hura «nacionalista»tzat jotzen zuelako (cf. García de Juan 2001: 30).[96] Artean Madril eta Bartzelona errepublikanoen esku zeudenez, Donostia atzegoardiako hiriburu kulturala bilakatu zen. Frantziako mugatik hurbil eta gune turistiko baten zerbitzu guztiekin, militar matxinoen aldeko intelektual, kazetari eta idazle ugari erakarri zituen. Beste aukera batzuk baztertuta, 1938ko urtarriletik, IdeE eta RAEren behin-behineko egoitzak Donostia frankistan egon ziren. A. Paguaga karlista alkate zuen Donostiako Udalak urteko 10.000

[95] KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», 1938-01-05.

[96] Vicente García de Juan irakaslearen komunikazio pertsonala, 2017-10-25.

IKER-35.indd 43 2/9/19 10:55

pta. IdeE-ri ematea erabaki zuen. Conde de las Quemadas presidente zuen batzorde kudeatzaileak, halaber, probintzia jauregiko gelak eskaini zizkion IdeE-ri. Zenbait errege akademien idazkaritzak (Bellas Artes, Medicina eta Ciencias Sociales y Políticas) San Telmo museoan ezarri zituzten (GPD 1939: 18-19; Mendiola Querejeta 1963: 136; Ascunce 1999: 21-32; Múgica 2005: 233-234).

J. Urquijo bera harreman onetan zegoen probintziako aginte errepresiboarekin, besteak beste, Conde de Vastameroli diputatu eta Junta de Orden Público-ko buruaren ekimenez, Gipuzkoako Artxibo Orokorra sortzeko asmoa zuen batzordeko kide izendatu baitzuten 1937ko azaroaren 10ean (cf. Aizpuru & al. 2007: 114-115).[97] Era berean, Frantziako muga zeharkatzeko baimena zuen, 1937ko irailean J. B. Daranatz elizgizonarekin Baionan biltzen saiatu baitzen.[98] Besteak beste, Ginea Espainiarreko edota Londresko paradiplomazia frankistarekin harremanetan zegoen.[99] J. Urquijoren RAEko idazkari izendapenak diktadurarekin zuen lotura ideologikoa argi utziko ez balu, J. Pujol (1883-1967) CEDAko diputatu ohiak Donostian zuzentzen zuen *Domingo* astekari berrian argitaratutako artikulura jo dezakegu. 1936ko udan prestatzen ari omen zen «La boina ¿se usaba en Navarra en el siglo XVI?» izeneko artikuluaren gaia berez euskal txapelaren jatorri historikoa zen, baina kolpistek Donostia okupatu izanaren urteurrena baliatu zuen, gerraren osagai zibila nabarmendu eta Nafarroako errekete «txapelgorri»ei gorazarre egiteko:

> Hoy se cumple el primer aniversario de la entrada en San Sebastián de los requetés navarros, encuadrados en la esforzada y valiente oficialidad de nuestro Ejército. Muchos les debemos la vida.
>
> La aparición de «los Boinas Rojas», los campos de amapolas, como les llamaba la Prensa extranjera, causó verdadero estupor en el mundo. Nadie esperaba una reacción tan rápida, unánime y abnegada contra el comunismo. Como me decía, a mediados de Septiembre último un periodista francés, que presenciaba absorto un desfile de «Boinas Rojas» en San Sebastián, «la heroica colaboración de los requetés d[a] tal carácter popular y nacional al Movimiento de Franco, que las naciones de Europa tendrán que rendirse a la evidencia, y reconocer, antes o después, que éste no es un levantamiento exclusivamente militar». La unión al

[97] KMK-JU: Conde de las Quemadas-en ofizioa J. Urquijori, 1937-11-15.

[98] KMK-JU: J. B. Daranatzen gutuna J. Urquijori, 1938-01-06.

[99] KMK-JU: M. Mendívilen eta A. Merry del Valen gutunak J. Urquijori, 1937-05-14, 1938-12-12 & 1938-12-16 (cf. Merry del Val 1939).

IKER-35.indd 44 2/9/19 10:55

mismo de miles y miles de falangistas y otros voluntarios, en entusiasmo y valor, han confirmado elocuentemente la predicción del escritor galo (*Domingo* 1937-09-12).[100]

Ikusiko dugunez, 1937ko abendutik 1939ko maiatzera RAEren batzar gehienak Gipuzkoako hiriburuan egin ziren, bi euskaltzainak mahaian egoten zirela. Une horretan hogeita hemeretzi kidek osatzen zuten korporazioa, nahiz eta batzuk soilik izendatuta egon, sarrera hitzaldia egin eta kargua hartu gabe, alegia. Gerra zibilak iraun artean, J. Urquijo behin-behineko idazkari zela RAEk egin zituen hemezortzi batzarretan 39 kide horietatik hamaseik (%41,02) hartu zuten parte. Parte hartu ez zuten gehienak Madril errepublikanoan zeuden bakartuta. Dena dela, hogeita hemeretzi kide horietatik soilik hamaika (%28,20) nabarmendu ziren, uneren batean edo bestean, Errepublikaren zilegitasunaren alde: R. Menéndez Pidal, A. Machado, G. Marañón, R. Pérez de Ayala, I. Bolívar, N. Alcalá Zamora, T. Navarro Tomás, E. Díez Canedo, S. Madariaga, B. Cabrera eta J. Benavente (Zamora Vicente 1999: 459-460). Hauek ziren RAEk ordura arte izendatutako kide biziak, kargua hartu gabekoak barne, aulkien letraz letra:

– A Vicente García de Diego
– B Ricardo León
– C Ramón Pérez de Ayala
– D Niceto Alcalá Zamora
– E Joaquín Álvarez Quintero
– F Ignacio Bolívar
– G Eduardo Marquina
– H Serafín Álvarez Quintero
– I Blas Cabrera
– J Julio Casares
– K Gregorio Marañón
– L [hutsik]
– M Salvador Madariaga
– N Manuel Machado
– O Salvador Bermúdez de Castro
– P José Martínez Ruiz «Azorín»
– Q Manuel Linares Rivas
– R Enrique Díez Canedo

[100] Esanguratsuki, *Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarr*a liburuko bibliografia zehatzean ez da artikulu hori jasoko, agian J. Urquijok berak hala nahi izan zuelako (cf. Bilbao 1949).

IKER-35.indd 45 2/9/19 10:55

– S Wenceslao Fernández Flórez
– T Eugenio Ors [«sección catalana» ohia]
– U Leopoldo Eijo
– V Antonio Machado
– X [hutsik]
– Z Agustín González de Amezúa
– a Pío Baroja
– b Ramón Menéndez Pidal
– c Pedro Sainz Rodríguez
– d Miguel Asín
– e Gabriel Maura
– f Miguel Artigas
– g Francisco Rodríguez Marín
– h Tomás Navarro Tomás
– i José M.ª Pemán
– j Jacinto Benavente
– k Armando Palacio Valdés
– Resurrección M.ª Azkue [«sección vascongada» ohia]
– Julio Urquijo [«sección vascongada» ohia]
– Ramón Cabanillas [«sección gallega» ohia]
– Armando Cotarelo [«sección gallega» ohia]
– Lorenzo Riber [«sección catalana» ohia]
– Luis Fullana (OFM) [«sección catalana» ohia] (Gómez Asencio 2011: 1101-1102)[101]

J. Urquijoren artxiboan eskuizkribu eta gutun ugari dago RAEren gerra zibileko akten jatorrizko egile bera izan zena frogatzen dutenak. 58 orrialdeko sorta luze batean, J. Urquijok eskuz eta makinaz idatzitako aktak gordetzen dira.[102] Burgosen IdeE-ren zuzendaritza hautatu eta, instituzio berriaren barruan, RAE berrezarri zenetik hiru egunera, 1937ko abenduaren 30ean, RAEren beste batzar bat egin omen zuten kide hauek Donostian: A. González de Amezúa, R. M. Azkue, M. Artigas, P. Sainz Rodríguez, M. Asín, Marqués

[101] Artikulu horretako zerrendan R. Pérez de Ayala, A. Machado, J. Benavente, L. Riber eta L. Fullana (OFM) falta dira.

[102] Dena dela, RAEren historialari ofizialek aitortu dutenez, gerra zibilaren garaiko aktek interpretazio arazoak sortzen dituzte: «En realidad, las actas procedentes de la zona nacional no son un modelo de transparencia. Aparecen sin firmar y con enmiendas. Se percibe que la persona que las redacta, seguramente apoyándose en notas manuscritas del secretario en funciones, no emplea los términos con el rigor académico» (Zamora Vicente 1999: 460).

IKER-35.indd 46 2/9/19 10:55

de Lema, E. Ors, P. Baroja, J. Urquijo eta J. M. Pemánek. Galdera ikur bat jarri zion azken horri idazkariak, agian bertan egon ez, baina agertzea komeni zelako. J. Urquijoren eskuzko aktak ez du edukirik zehazten, baina seguru asko Salamancako ekitaldia prestatu eta zuzendaritza berria jakinarazi zuten. P. Sainz Rodríguez artean ez zen RAEko kide ere, baina ministro izendatu zuten berehala eta seguru asko Gobernu mailako aginduen berri eman zuen.[103]

Nolanahi den, 1938ko urtarrilaren 13an M. Machado kide berriari ongietorri egin zioten Donostiako San Telmo museoan egindako RAEren batzarrean. J. M. Pemánek, bestalde, adierazi zuen behin-behineko buru izatea onartzen zuela, R. Menéndez Pidal 1936ko azarotik «kanpoan» zegoelako, eta Burgosko Gobernuak bizitza akademikoa berrezarri nahi zuelako. Akademikoen literatura lan guztiak biltzeko bilduma bat abiatzeko aukera aipatu zuten. IdeE-ri eskaria bideratzeaz M. Artigas, P. Baroja eta M. Machado arduratu behar ziren. Alemaniako H. Juretschke hispanistaren *Das Frankreichbild des modernen Spanien* (1937) tesiaren berri eman zuen E. Orsek, gaztelaniara itzuli zutena, A. Tovar falangistaren hitzaurre beligerantearekin (Juretscke 1940). Horren guztiaren berri eman zuen Donostiako prentsak handik bi egunera, baina ez zituen gainerako batzarkideak aipatu: M. Asín arabista, A. González de Amezúa, R. M. Azkue, Marqués de Lema (S. Bermúdez de Castro), E. Ors eta J. Urquijo (cf. *El Diario Vasco* 1938-01-15; García de Juan 2001: 36-37).[104]

RAEk beste batzar bat egin zuen 1938ko otsailaren 18an, baina zoritxarrez J. Urquijoren akta zirriborroan ez da agertzen zehazki nortzuk parte hartu zuten. P. Sainz Rodríguez Hezkuntza Nazionaleko ministro berriak ikasliburu ofizialez promulgatu behar zuen dekretuaz eztabaidatu zuten J. M. Pemán, E. Ors eta diruzainak. Horrek XIX. mendetik RAEk hezkuntzarako prestatzen zituen maila ezberdineko gramatikei eragiten zien, korporazioarentzat diru iturri ere bazirenak. *Epítome de gramática española*ren azken edizioa Academia Española errepublikanoak argitaratu zuen 1931n, baina akademiko eskuindarrek ezin zuten hori besterik gabe berrerabili, eta 1929ko edizioa hartu zuten oinarritzat (Gómez Asencio 2011). Era berean, A. Palacio Valdés akademikoaren heriotzaren berri eman zuten.[105]

---

[103] KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», 1937-12-30.

[104] KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», 1938-01-13.

[105] KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», 1938-02-18. Donostiako prentsak

IKER-35.indd 47 2/9/19 10:55

Biharamunean, IdeE-ren bigarren ekitaldi publikoa egin zuten San Telmo museoan. Mahaiburuak, bi ministro (Hezkuntza Nazionalekoa eta Herri Lanetakoa) eta RAEko burua izan ziren. Udal eta probintzia ordezkariak ere bertan izan ziren, baita Gasteizko administratzaile apostolikoa ere. Dena dela, IdeE-ko idazkariak Espainia eta Italia faxisten arteko harreman estua izan zuen hizpide. Ildo beretik, Alemaniako zenbait irakasle (Carl Schmitt, besteak beste), akademiko laguntzaile izendatu zituzten eta Alemaniako himnoa entzun zuten batzartuek, zutik eta besoa luzatuta. Ondoren, M. Machadok RAEko sarrera hitzaldia egin zuen. Sevillako poeta Estatu totalitarioak erabili egin zuen, Errepublikaren aldezle nabarmena zen Antonio Machado anaiaren aurkari sinboliko gisa. A. Machado 1927an izendatu zuten RAEko kide, baina kargua hartu gabe hil zen 1939ko otsailean. Ataka gaitzean zegoen M. Machado, Burgosen atxilotuta egon baitzen gerra zibila hasi zenean. J. M. Pemánek erantzun hitzaldian hitz erdika aipatu zituen iragan hurbileko arriskuak, poetaren ustezko ateismoari ez ezik, errepublikazaletasunari ere egindako erreferentziatzat ulertu behar direnak: «Así, puede llegarse al borde del abismo, pero para salvarse al fin...» (*La Voz de España* 1938-02-20, cf. Machado & Pemán 1940).

RAEko M. Machadoz eta M. Asínez gain, I. Zuloaga pintoreak, J. Allende-Salazar arte historialariak eta beste errege akademiko batzuek ere IdeE-ren zina egin zuten. Bertaratuen artean, J. Urquijo edota J. Zaragüeta egon ziren. Azkenik, P. Sainz Rodríguez Hezkuntza Nazionaleko ministroak hitz egin zuen ministerioak, eredu frantsesari jarraitzen zion izen berriak («Educación Nacional») adierazten zuenez («Instrucción Pública» izan zen 1901ean sortu zenetik ordura arte), herritarrei kontzientzia nazional berria emateko zuen asmoaz. Amaieran, hurrenez hurren, karlista-falangisten ereserkiak eta himno nazionala jo zituzten. Gauean afari bat ospatu zuten udaletxean, eta A. Urbina gobernadore zibil monarkikoak, 1937ko uztailetik kontzertu ekonomikoaz gabetutako gipuzkoarren ustezko espainolismoa argi utzi behar izan zuen (*El Diario Vasco* 1938-02-20).

Otsailaren 21ean, P. Baroja eta markesa izan ezik, urtarrilaren 13ko kideak batzartu ziren GPDko jauregian. Hezkuntza Nazionaleko ministerioa ikasliburuez dekretua argitaratzear zegoen. Lehen eskuko informazioa zuten IdeE-ko idazkariaren bidez. RAEko diruzaina, aukera hori baliatu eta eskola gramatikak berriz argitaratu eta banatzearen beharraz mintzo zen. M. Artiga-

horren berri eman zuen, baina edukien eta partaideen izenik aipatu gabe (cf. *El Diario Vasco* 1938-02-19; *La Voz de España* 1938-02-19).

IKER-35.indd 48 2/9/19 10:55

sekin batera, gai hori eramateko batzordea osatu zuen.[106] Martxoaren 29an berriz bildu ziren probintzia jauregian kide hauek: burua, M. Asín, markesa, E. Ors, M. Machado eta idazkaria. R. M. Azkuek huts egin zuen, beraz. Conde de Romanonesek IdeE-ri egindako 25.000 pezetako dohaintzaren berri eman zuten. Erdia RAEko akademikoen idazlan guztien bilduma handigurarako erabiltzea erabaki zuten. Era berean, M. Artigasen seme baten heriotzaren berri eman zuten.[107] Biharamunean IdeE-k hirugarren ekitaldi publikoa egin zuen Hezkuntza Nazionaleko ministerioaren Gasteizko egoitzan. Bertan izan ziren P. Sainz Rodríguez, Conde de Rodezno Justizia ministroa, J. M. Pemán edota Italiako enbaxadorea. A. Gregorio Rocasolano kimikariak (Real Academia de Ciencias Exactas, Físicas y Naturales) bere sarrera hitzaldia egin zuen eta erakundearen lerrokatze faxistarekin jarraituta, E. Ors idazkariak martxoaren 1ean hildako G. Annunzio poeta militarrari omenaldia eskaini zion (*La Voz de España* 1938-04-01).

Esan bezala, Espainia frankistan J. Urquijok idatzitako aktak ez dira oso fidagarriak. Zuzenketaz beterik daude, edukian ez ezik, baita datetan ere. Bestalde, komunikabideek ere informazio nahasgarria ematen zuten. Adibidez, 1938ko martxoaren 4an R. M. Azkuek J. M. Pemáni zera idatzi zion:

> Al despedirme de V. en San Sebastián le pregunté cuándo tendría lugar la próxima Junta de Nuestra Academia y me dijo V. que hacia fines de este mes de marzo, y esta mañana he quedado sorprendido al leer en la Gaceta del Norte que ayer se reunieron ustedes sin que los coristas (por lo menos yo) hayamos tenido noticia de ello.
>
> En la última junta a que tuve el gusto de acudir, al exponer nuestro dignísimo Tesorero lo de los textos de instrucción primaria, que desde el año de 1857 empezaron a salir del seno de la Real Academia, me acordé yo de que en Alemania, según supe la temporada larga que pasé allí, bajan de arriba aun los textos de bachillerato; lo cual podría intentarse también entre nosotros. No quise exponer el asunto hasta obtener de amigos alemanes que tengo en Bilbao datos más detallados. Y en efecto, luego de mi llegada estuve con el consul alemán, de quien supe que hasta ahora se hacía esto sólo por regiones, saliendo por ej. de las Autoridades de Münster los textos de los Institutos de Westfalia; pero muy pronto parece que saldrán de Berlín para todos los de la Nación.[108]

---

[106] KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», 1938-02-21.

[107] KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», 1938-03-29.

[108] ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna J. M. Pemáni, 1938-03-04.

IKER-35.indd 49 2/9/19 10:55

Bilboko egunkariak argitaratutako berri laburra irakurrita, argi dago otsaileko batzarraz ari zela, eta ez martxoan egindako beste bilera batez.[109] Nolanahi den, diktadura primorriveristan egin zuen bezala, euskaltzainburua agintari espainolistekin kolaboratzeko prest agertzen zen. Seguru asko, Euskaltzaindia berriz abiatzea eta euskararen erabileraren aurkako erasoak ahal zen neurrian gutxitzea ziren R. M. Azkueren helburuak. Nolanahi den, ez zuen erantzun positiborik jaso eta erabat bakartuta sentitzen zen. Egoera oso bihurria zen eta igartzen da euskal ikasketekin zer egin ez zegoela batere argi, diktadura frankistak euskaltasuna nahitaez abertzaletasunarekin lotzen zuelako. Hala ere, apirilaren bukaeran, euskaltzainburua Sevillaraino joan zen, atxikimendu adierazpen gisa.

Hain zuzen, IdeE-k laugarren ekitaldi publikoa Sevillan egin zuen apirilaren 28-30 artean. Besteak beste, E. Orsek (RAE), P. Zabala Lerak (Real Academia de la Historia) eta P. Muguruza arkitektoak (Real Academia de Bellas Artes de San Fernando) sarrera hitzaldiak egin zituzten. E. Orsek 1936ko Gabon zaharrean hildako M. Unamunoren hutsartea betetzen zuela adierazi zuen, Salamancako Unibertsitateko errektore zena gutxiesteko aukera galdu gabe (Ors & Pemán 1944). Legez ez zen zuzena, «sección catalana»ko kide izendatu baitzuten 1927an. Besteak beste, G. Queipo de Llano jeneralak ere hitzaldia egin zuen. Nolanahi den, Ameriketara zuzendutako politikagintza berria izan zen ekitaldiaren gai nagusia (*ABC*, Sevilla, 1938-04-29; 1938-04-30; 1938-05-01). R. M. Azkuek txantxetan hartu zuen IdeE-ren handinahikeria Perun bizi zen lehengusu bati idatzitako gutunean:

> Me sirven de distracción las correrías del Instituto de España a que pertenezco como miembro de una de sus seis academias. Se inauguró este Instituto (creado por el invicto Generalísimo) en Salamanca el día de Reyes. A fines de Abril tuvimos sesiones en Sevilla y las tendremos por Junio en San Sebastián y a fines de Julio en Compostela. Supongo que no querrán llevar-

[109] J. Urquijoren anaia zenak sortutako egunkariaren iturria idazkariaren akta zela dirudi, baina zuhurki ez zuen euskaltzainik aipatzen batzarrean: «Se ha reunido la Real Academia Española. Trató de los textos que servirán en los Centros de Enseñanza, particularmente en las Escuelas públicas y privadas, y de las relaciones que en esta materia se establecerán entre la Academia y del Instituto de España; así como del asunto con los académicos don Agustín G. Amezúa, don Eugenio d'Ors, don José María Pemán y don Miguel Artigas; y se acordó continuar examinando los diferentes aspectos del problema, designando a los señores Amezúa y Artigas para seguir preparando la labor futura» (*La Gaceta del Norte* 1938-03-04).

IKER-35.indd 50 2/9/19 10:55

nos a... Lima. Si tal sucediera te prometo subir de allí a Payta a pasar unos días con vosotros.[110]

Espainiak Hispanoamerika militarki konkistatzea ameskeria hutsa zen, baina hara zuzendutako politikagintzan kulturak, ordea, garrantzi berezia hartzen zuen. Inperioaren izaera «espirituala» aipatzen zuten agintari frankistek behin eta berriz. Diplomazia mailan, 1938ko udan soilik Ameriketako El Salvador, Guatemala eta Nikaraguak ezagutzen zuten ofizialki Gobernu frankista. Akademia mailan, berriz, E. Orsek grina berezia erakutsi zuen Hispanoamerikako filofrankistak kooptatzeko, RAE berregiteko asmoarekin. Hezkuntza Nazionaleko ministroaren kultura inperialismoak toki gutxi utzi zien gaztelania ez beste herri hizkuntzei:

> [E]s un deseo de incorporación a una misma nación, cuyas raíces arraigan aquí, pero cuyos frutos exuberantes pueden y deben nacer, igualmente, en cualquiera de los países que, sintiendo y pensando en la lengua de Cervantes, deseen que nuestro común y futuro destino se desenvuelva a la sombra y al amparo de la Cruz (apud Alted Vigil 1984: 142).

Apirilaren 30ean, RAEko kideek ere batzarra egin zuten Real Academia de Bellas Artes de San Fernando-ren Sevillako egoitzan: J. M. Pemán, E. Ors, Madril-Alcaláko apezpikua, G. Maura, R. M. Azkue eta M. Machado. Azkenak hartu zuen J. Urquijoren idazkari zeregina.[111] J. Urquijok batzarrean egotekoa asmoa izan zuen, baina badirudi ezustekoren bategatik ezin izan zuela joan.[112] Hezkuntza Nazionaleko ministerioren apirilaren 11ko aginduz IdeE-ren eskuliburuak (RAEren gramatikak barne) nahitaezko ikasliburutzat ezarri ziren lehen hezkuntzan, eta edizio berriak berrikusi beharraz mintzatu ziren.[113]Are garrantzitsuago zena, maiatzaren 19ko dekretu bidez Hezkuntza Nazionaleko ministerioak IdeE-ren estatutuak onartu, JAE deuseztatu eta haren egitura bereganatzeko prozesuarekin jarraitu zuen. Estatu totalitarioko kultura eta ikerketa, unibertsitatearekin elkarlanean, zuzentzeko asmoarekin, historia eta filologiarekin lotutako zentro eta mintegi hauek sortu ziren:

---

[110] ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna B. Aberasturiri, 1938-05-14.

[111] KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», M. Machadoren akta, 1938-04-30.

[112] KMK-JU: J. Caroren gutuna J. Urquijori, 1938-04-27.

[113] «Orden confiriendo al Instituto de España el encargo de redactar y editar los textos que se expresan con destino a la enseñanza primaria en sus distintos grados», *BOE*, 1938-04-15.

IKER-35.indd 51 2/9/19 10:55

– «Centro de Estudios Históricos»
– «Centro de Filología Románica»
– «Centro de Filología Semítica y Estudios Arábigos»
– «Centro de Arqueología e Historia Americana»
– «Comisión para la Historia de la Ciencia Española»
– «Comisión para formar una Biblioteca de Autores Españoles»
– «Seminario de Filología Clásica»[114]

Dekretuak euskararen ikerketa aipatu ez arren, uste izatekoa da J. Urquijok edota R. M. Azkuek IdeE-ren egituran Euskaltzaindia nolabait integratzeko aukera kontuan hartu zutela ordurako. Maiatzaren 26an RAEren kide hauek batzartu ziren Donostian: M. Asín mahaiburu, diruzaina, markesa eta J. Urquijo idazkaria. Ikasturte berrira begira, *Epítome de gramática de la lengua española* onartu eta hura ahalik azkarren baldintza onenetan saltzea erabaki zuten. Edizio berria A. González de Amezúaren bidez Zaragozan argitaratu zen IdeE eta RAEren izenean, Madril errepublikanoan ezinezkoa zelako (Gómez Asencio 2011).[115] Batzar horretan, idazkaria ez beste hiru akademikoek Alfred Coester (1874-1958) Stanford Unibertsitateko hispanista aurkeztu zuten akademiko laguntzaile izateko: «Es [...] simpatizante con el Movimiento Nacional, al cual ha contribuido con algún donativo».[116] Aurkezpenaren baldintza politikoak begien bistakoak ziren, baina AEBko unibertsitatetik Aurelio M. Espinosak jakinarazi zuen A. Coester ez zela Stanford-en bizi, eta RAEk Kanpo Arazoen ministerioko «Junta de Relaciones Culturales» delakoari (A. García Valdecasas legegizon falangista agertzen zen arduradun) jakinarazi behar izan zion hautagaitza bertan behera uzten zuela.[117]

Ekainaren 30ean, maiatzean batzartutako lau akademikoei Hezkuntza Nazionaleko ministroa, IdeE-ko idazkaria eta M. Machado gehitu zitzaizkien Donostian. Abendutik martxorako kontuak onartu eta ikasliburuez mintzatzen jarraitu zuten. E. Orsek, lerrokatze politikoarekin jarraituta, Portugal salazaristan Eugénio de Castro (1869-1944) poetari egindako omenaldiaren berri

[114] «Decreto confiriendo al Instituto de España la misión de orientar y dirigir la alta cultura y la investigación superior en España», *BOE*, 1938-05-20.

[115] KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», 1938-05-26.

[116] KMK-JU: M. Asín, A. González de Amezúa eta Marqués de Lemaren hautagai aurkezpena RAEri eta A. Coester-en curriculum laburra, 1938-05-[26].

[117] Fundación Universitaria Española, Pedro Sainz Rodríguez funtsa: J. Urquijo eta P. Sainz Rodríguezen arteko gutunak, 1938-07-28, 1938-08-02 & 1938-09-07.

IKER-35.indd 52 2/9/19 10:55

eman zuen (cf. *ABC*, Sevilla, 1938-05-26).[118] 1938ko abuztuaren 30ean Donostian bildu ziren RAEren behin-behineko burua, ministroa, M. Asín, diruzaina, E. Ors, M. Artigas, W. Fernández Florez, E. Marquina, R. M. Azkue eta idazkaria. Gai nagusien artean, Ameriketako hizkuntza akademien atxikimendua bilatzea zegoen, aipatutako politika kultural inperialistaren bidetik. Era berean, M. Linares Rivas akademikoaren heriotzaren berri eman zuten.[119]

Nolanahi den, R. Cabanillas eta P. Baroja idazleek 1938ko urtarriletik aurrera, RAEko batzarretara joateari utzi zioten, gaixotasunaren aitzakian. Lehena Galiziako jaioterrian babestu, eta bigarrena Parisko erbestera itzuli zen 1938ko otsailean, Espainia frankistako giro itogarriaz etsita. Artean Frantzian zeuden, antzeko egoera zalantzagarrian, RAEko R. Menéndez Pidal, G. Marañón, J. Martínez Ruiz «Azorín» edota R. Pérez de Ayala, laurok IdeE-ren zina egin gabeak. P. Barojak Nafarroako Gobernu Zibiletik jaso zuen Salamancara joateko agindua eta familiak hura betetzea eskatu zion. Negu gorrian P. Gaudin adiskideak autoz eraman behar izan zuen Salamancaraino. L. Eijo apezpikuak eta beste batzuek idazle antiklerikala oso hotz hartu omen zuten IdeE-ren ekitaldian, garaiko testuinguruan beldurgarria zena. Horregatik, 1940ko ekainean, Mundu Gerraren ondorioz, Espainia frankistara itzuli arren, RAEko batzarretan parte hartzeari uko egin zion (Caro Baroja 1972b: 337-338; García de Juan 2001; Fuster 2017).

Salbuespeneko egoeraren erakusgarri, RAEk Donostian batzartzen jarraitu zuen eta J. Urquijo, idazkari gisa, koordinazio lanaz arduratu zen, J. M. Pemán buruarekin eta gainerako akademikoekin postazko harremana eramanez. Adibidez, RAEko buruaren aginduz, P. Sainz Rodríguezi batzarren deiak bidaltzen zizkion ministerioaren Gasteizko egoitzara.[120] Aldi berean, Europako gorabeheren berri mugatua zuen Frantziako (G. Lacombe, H. Gavel, Ph. Veyrin) edota Alemaniako (G. Bähr, W. Giese, K. Bouda) lankide ohien bidez.[121] G. Lacombek 1936ko uztailaren 20an H. Schuchardt zenaz Donostian hitzaldia emateko asmoa zuen, baina estatu kolpe saioak eragotzi zuen (cf. EI-SEV 1936b).[122] 1938ko udaberrian berreskuratu zuen korrespondentzia eta argitalpen

[118] KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», 1938-06-30.

[119] KMK-JU: «Apuntes personales sobre reuniones celebradas por la Real Academia Española siendo secretario de la misma D. Julio de Urquijo», 1938-08-30.

[120] Fundación Universitaria Española, Pedro Sainz Rodríguez funtsa: J. Urquijoren gutun eta telegramak P. Sainz Rodríguezi, 1938-02-10, 1938-04-20, 1938-05-25, 1938-06-24 & 1938-08-23.

[121] KMK-JU: «Notas y encargos», 1938/1939.

[122] KMK-JU: G. Lacomberen gutunak J. Urquijori, [1936-07-16 & 1936-07-18].

IKER-35.indd 53 2/9/19 10:55

trukea J. Urquijorekin. G. Lacombe, besteak beste, Donostiako euskaltzainaren Société de Linguistique de Paris-eko kotizazioez arduratu zen, baina ez zuten inoiz aipatu RAEkorik, ezta EI-SEV edota Akademia berpizteko asmorik ere.[123] Areago, 1939ko urriaren 12an, Mundu Gerra hasi berritan, hitzordua jarri zuten Pirinio Behereetako tokiren batean, baina badirudi azkenean ez zirela elkartu.[124]

G. Lacombe minberarekin baino, J. Urquijok konfiantza gehiago zuen H. Gavelekin. G. Lacombe ez bezala, H. Gavel eskuindar kolpisten alde agertzeak lagundu zuen, noski: «le triomphe de la cause de la justice —et du bon sens— étant, de toute façon, assuré» zioen Angelutik Donostiara 1938ko neguan idatzitako gutunean.[125] Tolosako Unibertsitateko irakasleak Parisko ICOS biltzarreko eztabaiden berri eman zion, eta J. Urquijok ordainetan IdeE-z hitz egin zion, baita herri hizkuntzek erakunde berrian ikergai gisa izan zezaketen lekuaz zerbait adierazi ere.[126] Errezelo politikoak begien bistakoak ziren. Pirinio Behereetan isiltasun gorgarria nagusi zen bitartean, Hanburgoraino iritsi zen J. Urquijo RAEko idazkari izendatu izanaren berria.[127]

1.5. EUSKALTZAINEN AHALEGINAK EUSKAL AGINTARI FRANKISTEKIN

Gerra zibila amaituta, Gobernu eta ministerioen egoitzak ez ezik, kultura erakundeak ere Madrilera itzuli zirenean, Estatu totalitarioaren kulturgintzaren lehen lerroarekiko periferian geratu ziren R. M. Azkue eta J. Urquijo. Hezkuntza Nazionaleko ministerioak, IdeE-k eta RAEk Gasteiztik eta Donostiatik alde egin zuten, euskaltzainek Akademia berriz abiatzeko baimena lortu gabe. P. Sainz Rodríguez, E. Ors eta J. M. Pemánekin urte eta erdiz harreman zuzenak izanagatik, ez zuten ezer lortu. Horregatik, euskaltzainburuaren hurrengo ahaleginak tokiko aginte mailan burutu ziren. Garaiko agintariekin zuen harreman onaren beste froga bat da J. F. Lequericak, artean Bilboko alkate zela, 1939ko otsailean bidalitako gonbidapena, Léon Bérard Frantziako ministro ohiarekin bazkari ofi-

[123] KMK-JU: G. Lacomberen gutunak J. Urquijori, 1938-04-07 & 1938-07-17.

[124] KMK-JU: G. Lacomberen gutunak J. Urquijori, 1939-09-22, 1939-10-02, 1939-11-08 & 1939-11-22. G. Lacombe, besteak beste, F. Elizalderen (SI) *Apezendaco dotrina christiana uscaras* (1735) katiximaren edizio kritikoa prestatzen ari omen zen, gauzatu gabeko beste lan bat.

[125] KMK-JU: H. Gavelen gutuna J. Urquijori, 1938-11-27.

[126] KMK-JU: H. Gavelen gutunak J. Urquijori, 1936-12-20, 1937-09-29, 1938-10-28, 1938-11-27 & 1939-01-16.

[127] KMK-JU: W. Giese-ren gutuna J. Urquijori, 1938-09-06.

IKER-35.indd 54 2/9/19 10:55

zialean parte hartzeko.[128] Pirinio Behereetan jaiotako akademikoa Burgosera bidean zihoan, Kanpo Arazoetako ministroarekin Espainia frankistaren ezagutza eta Frantziarekiko neutraltasuna negoziatzeko. Testuinguru horretan, Ph. Pétain marexala enbaxadore izendatu zuten Espainian (Larronde 1997: 93-95).

Hezkuntza Nazionaleko ministroarekin Gasteizen zuen hitzorduak huts egin ondoren, R. M. Azkuek 1939ko apirilaren 4an gutun ezinago esanguratsua idatzi zion Bizkaiko CAPeko zuzendaritzari, diru laguntza eske:

> Esta Academia de la Lengua Vasca que surgió a la vida por iniciativa de las Corporaciones populares de todo el País Vasco-Navarro y que ha vivido al amparo de todas sus instituciones con las que ha mantenido cordialísimas relaciones, se dirige con todo respeto a ese digno Consejo en estos primeros días del año de la Victoria para prepararse a actuar cuando las autoridades lo demanden, inspirando toda su labor dentro de los marcos característicos de esta era triunfal de nuestra querida Patria Única, España.
>
> La Caja de Ahorros Vizcaína compartió, con las demás Corporaciones en sufragar los gastos de esta Academia [sic].
>
> Iniciada la revolución quedó enmudecida esta entidad y no se cerraron sus oficinas por no saber dónde depositar su copiosísima librería.
>
> En reciprocidad a la subvención anual de mil pesetas que las cajas de ahorros le concedían, se prestaba esta Academia a los trabajos que tuvieran a bien encargar a la misma. En diversas ocasiones fue requerida para hacer algunas traducciones de vocablos y escritos que habían de ser dirigidos en forma bilingüe a zonas en las que la lengua corriente es el vascuence.
>
> El Excmo. Ministro de Educación Nacional se expresó en términos que señalan esta nueva orientación en el elocuente y trascendental discurso que pronunció en esta villa con ocasión de la solemne apertura de curso del Instituto de 2ª Enseñanza y en conversaciones particulares que ha sostenido con el que suscribe.
>
> [Con] este motivo me animé a acercarme a las Cajas de ahorros de Bilbao y Sansebastián [sic] para que con su ayuda pudieran seguir abiertas estas oficinas.
>
> Pasan de cuatro mil las pesetas anuales que al efecto se necesitan entre el alquiler del local (2.500), teléfono, limpieza, recadista taquígrafo, agua y luz.
>
> Dos de los miembros de número de esta Academia, D. Julio de Urquijo y el firmante han colaborado, y actualmente lo hacen, con la Real Academia de la Lengua Española desde que aquel gran español que se llamó Miguel Primo de

[128] ABA-RMA: J. F. Lequericaren gonbita R. M. Azkueri, 1939-02-02.

IKER-35.indd 55 2/9/19 10:55

Rivera (Q.E.G.E.) dio prestancia a las lenguas regionales al incorporarlas a dicha Real Academia.

Por todo lo expuesto se suplica con todo respeto el restablecimiento de la subvención, con efectos retroactivos (año 1938 y 1939), ofreciéndose en reciprocidad a todo lo que requieran.[129]

Bizkaiko CAPek apirilaren 21ean jakinarazi zion euskaltzainburuari 2.000 pezetako diru laguntza ematea onartu zutela, hau da, mila pta. 1938rako eta beste mila 1939rako.[130] Euskaltzainburuak maiatzaren 4an bidalitako beste gutun baten ondorioz, ekainaren 12an Gipuzkoako CAPen zuzendariak, J. Beñarán integristak, erantzun zuen, 1.000 pezetako diru laguntza emango zutela, baina behin bakarrik eta etorkizunerako konpromisorik hartu gabe.[131] Gipuzkoako CAPen diru laguntza lortzeko, R. M. Azkuek Joaquín Churruca (1888-1957) GPDko presidenteordearengana jo zuen, probintzian Errepublikaren aurkako estatu kolpea prestatu zutenetakoa zena (Luengo Teixidor 1990: 88). Euskaltzainburuak 1939ko uztailaren 3an gutuna idatzi zion:

Tres veces (en mis cortas estancias ahí de fines de Marzo, Abril y Mayo) he intentado verme con usted. La primera con motivo de la herida que, según me dijo Julio Urquijo, recibió su ya difunto sobrino. La segunda y tercera para pedirle el favor de intervenir en que la Caja de ahorros provincial de su ciudad continuara dando las mil pesetas anuales (que daba a la Academia de la lengua vasca) a esta su oficina que con su intransladable librería debe seguir abierta para cuando nuevamente empiece a funcionar, incorporada al Instituto de España, según proyecto del que fue Ministro de Educación Nacional...

Las tres veces estuvo V. en junta con sus compañeros de Diputación. No recuerdo si la primera estaba V. ausente. Y no pude ir al Hotel Excelsior por tener que salir para Bilbao.

Quedé sorprendido al recibir a mediados del mes pasado una comunicación de la citada Caja que ofrecía «un donativo de 1.000 pesetas por una sola vez y sin compromiso para años sucesivos».

Me extraña sobremanera que Guipuzcoa, que tan generosa fue con la interrumpida Academia, cierre su Caja de ahorros en este asunto, para el cual tiene Vizcaya abiertas sus dos cajas municipal y provincial.

---

[129] ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna Bizkaiko CAPeko zuzendaritzari, 1939-04-04.
[130] ABA-EUS: Bizkaiko CAPeko zuzendariaren gutuna R. M. Azkueri, 1939-04-21.
[131] ABA-EUS: Gipuzkoako CAPeko zuzendariaren gutuna R. M. Azkueri, 1939-06-12.

IKER-35.indd 56 2/9/19 10:55

> Como me veo obligado en conciencia a seguir aquí trabajando, lo hago mañana y tarde sin más interrupción que los días de fiesta y la temporada de mes y medio que espero descansar en Lequeitio.
>
> Si mis posibilidades económicas bastaran para sostener abierto este centro lingüístico, no molestaría a nadie para ello.
>
> Así que espero me perdonen que a fin de año vuelva yo a molestar a V. y al Sr. Presidente de la Diputación con el mismo objeto.[132]

1939ko otsailaren 14rako egina zuen ahalegin bat Donostiako Udalean eta GPDn «para asuntos de la Academia de que soy o fui presidente».[133] Hain zuzen, R. M. Azkuek Donostiara egin zuen bidaia bat, 1939ko urriaren 2an, Euskaltzaindiaren diruzaintzatik ordaindu zitzaion.[134] Han, besteak beste, I. Lasquibar Buen Pastor elizako erretore karlistaren etxean egon zen bazkaltzen, ikusiko dugunez GPDko jauregian batzarrak egin ahal izateko baimena lortzeko giltzarri izan zen laguna.[135]

Gutunen beste hartzaile bat Zacarías Vizcarra (1880-1963) Bizkaiko apaiz integrista izan zen, Acción Católica-ren buruzagietako bat. Z. Vizcarra ezaguna zen batez ere R. Maeztuk *Defensa de la hispanidad* (1934) mugarrian egin zion bidegile aitortzagatik. Gutxiago aipatzen da R. M. Azkueri oharkabean igaro ez zitzaiona, hots, Z. Vizcarrak *Vasconia españolísima* (1939) diatriba antiseparatistan euskal elebitasunaren abantailak aldarrikatu zituela:

> He leído de cabo a rabo, en menos de dos días, su hermosa obra Vasconia españolísima, que seguramente tendrá gran influencia en el desarrollo de la política española. Mil enhorabuenas.
>
> [...]
>
> Y ahora otra cosa. Querría V. empezar a trabajar para conseguir que el Estado autorice la reapertura de la Academia de la lengua vasca, en cuyas oficinas escribo estos renglones? Podría V. tener una entrevista con el ex-ministro D. Pedro Sainz

---

132 ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna J. Churrucari, 1939-07-03.

133 ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna M. B. Kolb-i, 1939-02-15.

134 ABA-EUS: Euskaltzaindiko dieten eta osteren likidazioa, 1939.

135 ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna I. Lasquibarri, 1939-11-02. Altzako auzoan jaiotako Ignacio Lasquibar, frankistek Donostia okupatu ondoren atxilotu egin zuten 1936ko azaroan, seguru asko estatu kolpeak huts egin ondoren eskuindarrek elizako kriptan gordetako armak jeltzaleen esku utzi zituelako, baina kontrako agindu baten ondorioz askatu egin zuten. Beraren anaia, José Antonio Lasquibar (SI), ordea, Nikaraguako erbestean hil zen (Euzko Apaiz Talde 1981: 175; Ugalde 1988: 87-88; Gamboa & Larronde 2005: 89, 251).

IKER-35.indd 57 2/9/19 10:55

> Rodríguez, a quien tres o más veces le oí decir (una de ellas en el discurso que pronunció en el Paraninfo del Instituto de 2ª enseñanza, de Bilbao) que habría que dar vida al vascuence. Y dele afectuosos recuerdos míos.[136]

Z. Vizcarrak, hain zuzen, euskaldunen espainiartasuna frogatzea zuen xede. Euskal nazionalkatolizismoaren gailur den 1939ko liburuan, frankismoaren ildo politiko nagusitik aldendu zen, euskal elebitasun unibertsala aldarrikatzeko.[137] Euskaltzainburuak aginte mota guztietara jo zuen, Akademia berriz abiatzeko halabeharrezko saioan. P. Sainz Rodríguez baztertua izatearen ondorioz, F. Franco estatuburuaren sostengua zutenenengana zuzendu zituen laguntza eskaerak. 1940ko martxoan, R. M. Azkuek 1939ko abuztutik Justizia ministro zen E. Bilbao «adiskide zahar eta preziatua»ri idatzi zion, finantzaketa bila gerraondoko egoera larrian:

> Para cuando empiece de nuevo a funcionar la Academia de la lengua vasca (tarde ello más o menos) tiene que estar abierta esta oficina (Ribera 5, entresuelo) en que trabajo a diario mañana y tarde. Dónde, si no, podría yo depositar la enorme cantidad de libros que tiene su Biblioteca y la mía particular?
>
> Quisiera, para eso, que la Caja de ahorros vizcayna diese, como el pasado año, también en el presente, la cantidad de mil pesetas y que otro tanto haga el Ayuntamiento de San Sebastián.
>
> Antonio Paguaga, a quien me dirigí el mes de noviembre, por mediación de nuestro amigo Julián Elorza, accedió a ello; pero a mi solicitud de hace ya tres semanas o más no contesta. Otro tanto hace aquí José Luis Gaytán de Ayala respecto a la Caja de ahorros.
>
> Una cartita de V. les movería seguramente a uno y otro a remediar las necesidades de esta Oficina.
>
> Y esta duplicada cartita se la pido yo, como amigo, biotz biotzetik.[138]

---

[136] ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna Z. Vizcarrari, 1940-02-24.

[137] «A todos los vascos les conviene saber el castellano. Los padres que, pudiendo enseñar el castellano a sus hijos, no procuran que lo aprendan, los dejan, de regla ordinaria, en estado de inferioridad para ganarse la vida y desenvolverse en la sociedad actual. Pero esto no quiere decir que se haya de abandonar el uso del vascuence. Todo lo contrario: el interés de España, lo mismo que el de Vasconia, pide que el vascuence se conserve, se perfeccione y se difunda por todo el territorio vasco. Todos los vascos debieran ser bilingües, usando simultáneamente el *castellano*, la lengua imperial de las veinte naciones de ambos mundos que integran la Hispanidad, y el *vascuence*, lengua de la prosapia indígena de España, lengua de la tradición y del corazón, lengua que conserva el eco prehistórico de la raíz más honda de España, lengua que perpetúa la fisonomía paterna de los hijos de España. La lengua vasca, si bien se considera, no es ningún peligro para el espíritu español; sino, al contrario, una razón más para no dejarse aventajar por nadie en españolismo» (Vizcarra y Arana 1939: 229).

[138] ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna E. Bilbaori, 1940-03-13.

IKER-35.indd 58 2/9/19 10:55

Justizia ministroak berehala erantzun zion: «Acabo de recibir su atenta carta de 13 de los corrientes y con mucho gusto hago las gestiones que me pide».[139] E. Bilbaok, karguak agintzen zuen zuhurtasunez erantzun arren, ez zion erreparorik jarri Euskaltzaindia berriz abiatzeko diru laguntzak bideratzeari. Euskal frankismoaren ideologo nagusiak gobernu mailatik tazituki Akademiaren jarraipena onartzen zuen. Esteban Bilbao (1879-1970) euskaltzainburuaren ikasle izan zen Bilboko irakaskuntza ertaineko institutuan; aspaldiko harremana zuten. Hain zuzen, EI-SEVen sorreran guztiz inplikatu zen eta, BPDko presidente gisa, badirudi bitartekaritza lana egin zuela diktadura primorriveristak EI-SEV (eta agian Euskaltzaindia bera) debekatu ez zezan. Tradizionalismoaren zuzendaritzatik Errepublikaren aurkako ekintzetan parte hartu zuen. Estatu totalitarioan goi kargu garrantzitsuak bete zituen, bereziki Justizia ministro (1939-1943) eta Gorteetako presidente (1943-1965). Diktadura frankistak sortutako errepresio legediaren eta kodetze instituzionalaren arduradun nagusia izan zen. Karlista eta falangistek bat egitearen aldezle erabatekoa, F. Franco estatuburuaren konfiantza osoko gizona izan zen (Estornés Zubizarreta 1990; Agirreazkuenaga & al. 2007; Kintana Goiriena 2008; Urrutia Badiola 2013; Chacón Delgado 2015).[140]

J. Urquijok ahalegin horien guztien berri izan behar zuen nahitaez eta agian berak ere egin zuen saioren bat Euskaltzaindiaren auzia bideratzeko.[141] Ángel Irigaray Nafarroako abertzale eta EI-SEVeko idazkariorde ohiak ere hainbat aipamen egin zizkion Iruñetik arazoaz. Ideologia gorabehera, bion arteko harremana ona zen. Adibidez, Errepublikako giro liskartsuan, J. Urquijok, heraldikan oinarrituta, S. Aranaren «ikurriña» kritikatzeagatik Bilboko egunkari jeltzalean erasoak jaso zituenean, A. Irigarayk euskaltzain tradizionalista defendatu zuen.[142] J.

---

[139] ABA-RMA: E. Bilbaoren gutuna R. M. Azkueri, 1940-03-15.

[140] E. Bilbaoren artxibo pertsonala gaur egun Bilboko Sabino Arana Fundazioaren Abertzaletasunaren Agiritegian dago, baina pertsona esanguratsuekin (R. M. Azkue, J. Urquijo, N. Oleaga, J. M. Areilza, J. L. Goyoaga, etab.) izandako korrespondentzia aztertu ondoren, ez dut Euskaltzaindiaren 1941eko birfundazioarekin zuzenean lotutako dokumenturik aurkitu (SAF-AA).

[141] J. Urquijok ere Justizia ministroarengana jo zuen garai horretan, baina ez Akademiaz jarduteko, baizik eta, AEBko L. Spitzer-ek eskatuta, frankistek atxilotutako Alberto Assa (1909-1996) Turkiako brigadista aurkitzen saiatzeko edota M. Pino Chico Gipuzkoako magistratuaren alde egiteko, E. Bilbaok abegi onez hartu zuena (KMK-JU/SAF-AA: L. Spitzer-en gutunak J. Urquijori, 1939-02-25 & 1940-01-23, eta J. Urquijo eta E. Bilbaoren arteko gutunak, 1940-03-13, 1940-03-16, 1940-03-29, 1940-04-08, 1941-05-12 & 1941-05-15, DP-1720-02).

[142] *Euzkadi* 1935-03-10; KMK-JU: A. Irigarayren gutuna J. Urquijori, 1935-03-12.

IKER-35.indd 59 2/9/19 10:55

Urquijo adiskideak babes politikoa eskaini zezakeen diktadura frankistan. Nolanahi den, 1940ko martxorako zer edo zer bazekien Akademia edota *RIEV* berpizteko egiten ari ziren gestioez, J. Urquijori adierazi zionez: «Estuve hace algún tiempo con Piarres Garmendia y le recordamos, añorando la oportunidad de conseguir iniciar la labor de la Academia, como filial de la Española, ó la Revista, aunque para esto último le vi la última vez poco animado».[143]

IdeE eta RAEren itzalpean Akademia abiatzea ez zegoen baztertuta, eta Iruñean gertutik jarraitu zuten gaia: «Aquí varios me preguntan con el mismo interés sobre proyectos de la Academia; es una pena que no se vea más horizonte».[144] Handik urtebetera, Euskaltzaindia gerraondoko lehen batzarra egitear zegoela bazekien Nafarroako urgazleak. Hura gertatu baino sei egun lehenago, xehetasunak eskatu zizkion J. Urquijori. Baina ez hori bakarrik. Abagune politikoa oportunismoz erabili nahi zuen 1920ko arau ortografikoak aldatzeko:

> Le agradeceré me tenga al corriente de las posibles actividades en la Academia; el interés es natural tratándose de un correspondiente.
>
> Pero, divagando un poco, es que además se me antoja una ocasión para iniciar una ortografía ecléctica que satisfaría a sus correligionarios y a no pocos de los demás y lectores en general.
>
> Incluso, sus efectos como aproximación espiritual, no me parecen despreciables para el mismo Régimen.
>
> No digo se haga un decreto de la Academia; al contrario, no imponer nuevas ortografías, ni empezar en discusiones; simplemente aprobar que se escriba de esa forma.[145]

Bestetik, Donostian omen zegoen Enrique Zubiri (1867-1943) Iruñeko Escuela de Artes y Oficios-eko irakasle ohia proposatu zuen Nafarroako ordezkaritzaren bat betetzeko:

> Hablando de vacantes de la Academia, se me ocurre recordarle a D. Enrique Zubiri, que ha escrito cuentos muy bien, con el seudónimo de «Manezaundi»; es desde el 1er día afecto al Movimiento nacional; en ortografía es un poco rebelde pues sigue a la Baja Navarra; tiene un hermano en esa, y él creo q. también está ahí.[146]

---

[143] KMK-JU: A. Irigarayren gutuna J. Urquijori, 1940-03-26.
[144] KMK-JU: A. Irigarayren gutuna J. Urquijori, 1940-04-03.
[145] KMK-JU: A. Irigarayren gutuna J. Urquijori, 1941-04-22.
[146] KMK-JU: A. Irigarayren gutuna J. Urquijori, 1941-04-22.

IKER-35.indd 60 2/9/19 10:55

Amaitzeko, J. Urquijori idatzitako gutunean, EI-SEVek 1920an Bilbon antolatutako hitzaldietan R. Menéndez Pidal antiabertzaleak euskara literarioaren auziaz esandakoak goraipatu zituen: «La opinión del antes citado, en esa conferencia, sobre la unificación literaria, es lo más racional que he leído en todo estos años que se discute».[147] Hitzaldi hura nabarmena izan zen, euskara literarioa lantzearen alde eginagatik, A. Campión eta P. Broussainen 1920ko dosierrak iradokitzen zuen Akademiaren jarrera proaktiboa, euskara estandarra eta neologismoak sortzearekiko, ukatzen zuelako:

> Fomentar con energía la producción de los dialectos es cosa que está perfectamente en las manos de una Academia. También a ella es fácil guiar el gusto y favorecer con preferencias al dialecto que muestre más iniciativas y más espíritu expansivo; éste será el que tenga más genio literario, y por tenerlo, podrá sacar de sí mismo y de la comunicación con los demás dialectos el máximum de recursos de que es capaz la lengua vasca, en su natural evolución, y no en las solitarias lucubraciones de sus gramáticos. La producción literaria será también la que espontáneamente engendre los neologismos necesarios, y esos vivirán y no los que elaboren los doctos. La producción del dialecto preponderante será la que, atrayéndose por su mérito la adhesión de todos, apoque la vida de los otros dialectos, sin ser verdugo que los ajusticie. Dejad que la vida y la muerte se fragüen providencialmente en el arcano operar de la naturaleza (Menéndez Pidal 1921: 32-33).[148]

Hala ere, euskara literariorako R. Menéndez Pidalek gipuzkerari aitortzen zion nagusitasunaren ordez, A. Irigarayk beti nafar-lapurteraren alde egin zuen, eta bide horretatik zihoan, halaber, Nafarroako Luzaiden sortutako «Manezaundi»ren hautagaitza. Esanak esan, Iruñeko abertzale ezaguna zen E. Zubiri, Errepublikan *La Voz de Navarra*ko lankide eta, A. Irigarayrekin batera, Euzkel-Idazle-Batzan («Federación de Escritores Vascos») Nafarroako ordezkari (Chueca Intxusta 1999: 435; Altzibar 2005: 569). Medikuak hura proposatzean, Errepublikako ahaleginei eusten zien berriz nolabait. E. Zubirik Frantziako euskalkian idazten zuen, «puritanismos modernos» gabe, «es decir, siguiendo la prudente norma de *Eskualduna*, de Bayona».[149] *RIEV*en «Piarrechen izialdura (Benabarreko eskuaraz)» idazlana argitaratu zuten, zeharka A. Irigaray eta J. Urquijoren estandarrerako joera ere erakusten zuena (Zubiri 1934).

---

[147] KMK-JU: A. Irigarayren gutuna J. Urquijori, 1941-04-22.

[148] cf. Cid 1991; Granja Pascual 1991; García Isasti 2004: 380-389.

[149] KMK-JU: E. Zubiriren gutuna J. Urquijori, 1934-03-24.

IKER-35.indd 61 2/9/19 10:55

2. EUSKALTZAINDIA 1941-1949: NAHI ETA EZIN

2.1. BIZKAIKO PROBINTZIA DIPUTAZIOAREN «JUNTA DE CULTURA DE VIZCAYA»

Gerraondoko BPD frankistan plutokrata monarkiko erradikalizatuak berriz ere nagusi ziren, presidentetik hasita. José Luis Goyoaga (1883-1968) industrialari eta politikari ezaguna zen, Liga de Acción Monárquica antiabertzalearen buruzagietako bat izan zelako. Gainera, Bilboko abokatu ospetsuenetakoa zen. EJ-GEk preso izan zuen eta 1939ko apirilean izendatu zuten BPDko presidente, L. Llaguno karlistaren ordez. Gerraondoko egoera ekonomiko larriak, kontzertu ekonomikoaren ezabatzeak eta administrazioaren depurazio politikoak asko murriztu zuten BPDren ahalmena (Agirreazkuenaga & al. 2007: 1297-1304; Alonso Olea 2014: 529-531). Hala ere, BPD frankistak kulturaren arloan zenbait ekimen sustatu zituen. 1940ko apirilaren 11n «Junta de Cultura de Vizcaya» delakoa sortu zuen, José Luis Gaytán de Ayala diputatu tradizionalistaren ekimenez.[150] Mozioaren atarikoak, 1917ko urrian sortutako «Junta de Cultura Vasca» (BPDn jeltzaleak nagusi zirela) izenetik beretik politikoki depuratu eta ordezkatzeko nahia adierazi zuen:

> El Movimiento Nacional acaudillado por el invicto Caudillo Franco, cristalizado en la Gloriosa Cruzada Española, cuyo recuerdo ha de quedar perenne en todos los corazones que sienten la Patria, lleva consigo una transformación política y social en el Estado, creando en torno a su constitución interna modalidades hasta ahora desconocidas que sirven de directrices a la vida cultural de la España renaciente.

[150] J. L. Gaytán de Ayala Costa (1907-1993) Bizkaiko hautagai kontrairaultzailea izan zen 1936ko hauteskunde orokorretan. Berak jarri zion, adibidez, Gernikako Batzar Etxeko artxibozainaren *Ensayo bibliográfico de las obras y folletos publicados con motivo del Movimiento Nacional* libururari hitzaurrea.

IKER-35.indd 63 2/9/19 10:55

Irudia 4. **«Junta de Cultura de Vizcaya»ren ikurra**

Iturria: *Monografía de las cavernas y simas de la Provincia de Vizcaya* por Antonio Ferrer. Bilbao: El Pueblo Vasco, 1943.

En esta obra de reconstrucción patriótica, que abarca elementos tan complejos, es necesario coadyuvar todos los organismos que integran la actividad pública, sea cual fuere el cometido que desempeñen dentro de la vida nacional.

La Diputación de Vizcaya que por tradición nunca interrumpida vino preocupándose de cuantos problemas afectaron a la vida provincial, hoy más que nunca está obligada a atender las nuevas orientaciones culturales surgidas con el Movimiento Salvador, encauzando en este orden las actividades científicas y literarias de los vizcaínos que poseídos de este espíritu renovador, se sientan con entusiasmo para colaborar en la difícil tarea que en los momentos actuales se emprende.

Para nadie son desconocidas las actividades culturales, que mediante las Instituciones y Juntas patronales, llevó a efecto la Diputación de Vizcaya, sobresaliendo en ellas un espíritu de recta administración, que constituye ejemplo digno de imitación para todos los españoles.

En su aspecto político, sin embargo, hemos de confesar con tristeza, que no siempre respondió a un sentido altamente patriótico el trabajo realizado por sus componentes.

Ello no es razón para sus supresión como organismos públicos, antes al contrario, para que de ellos se extraiga y recoja lo bueno lo bueno [sic] que tuvieran y previa una rigurosa depuración, se modifiquen y encaucen por sanos derroteros las actuaciones de los que hayan de sustituirles.

A recoger, pues, todo el elemento cultural de Vizcaya, a encauzarlo dentro de las directrices del nuevo Estado, a obtener el máximo rendimiento del estudio constante de los problemas nacientes y con particular preferencia de cuantos afecten a la vida económica, histórica, científica y literaria de nuestra provincia, ha de

IKER-35.indd 64 2/9/19 10:55

tender la creación de la Junta de Cultura de Vizcaya, cuyo cometido esencial ha de ser velar por la conservación, aumento y difusión de la cultura en todos sus aspectos y cuya sede ha de establecerse de momento en la Biblioteca provincial.

Para el mejor desenvolvimiento en el ejercicio de sus funciones, además de las representaciones oficiales designadas por la Excma. Diputación de Vizcaya entrarán a formar parte de la referida Junta el Sr. Alcalde de Bilbao y treinta vecinos designados por la Diputación, quedando facultada para dotarse de un Reglamento que rija su vida interna.[151]

JCV talde handi batek osatu zuen, ohorezko izendapenak zituzten E. Bilbao, J. F. Lequerica, A. Iturmendi edo F. Castiella goi kargu frankistek barne. Hala ere, erabakiak betearazteko batzorde iraunkorra herritar eta diputatu hauek osatu zuten hasieran: J. M. Areilza, J. L. Gaytán de Ayala, Jaime Jáuregui, Francisco Ygartua, Javier Olazábal, J. B. Marco Gardoqui, Joaquín Zuazagoitia, J. B. Merino, F. Echegaray, J. Irigoyen, J. Zayas Lafarga, J. M. Urrutia Llano eta L. Hurtado de Saracho. CSICen probintziako ordezkaria izan zen JCV 1944tik aurrera. Errepublikan eskuin muturrerantz abiatutako monarkikoak ziren, dinastikoak gehienak (Plata Parga 1991). Dena dela, JCV osatu zutenen artean, beste kide bat nabarmendu behar dugu, Euskaltzaindiarekin zuen harremanagatik: G. Maidagan. J. L. Goyoaga presidenteari maiatzaren 3an zuzendutako gutunean onartu zuen izendapena:

Honrado inmerecidamente con el nombramiento de vocal para la Junta de Cultura, creada, con acierto, por esa Excma. Diputación de su muy digna presidencia, me es grato ponerme a sus órdenes para aportar mi insignificante cooperación a tan altos fines que trata de crear o encauzar.

Al mismo tiempo hago constar mi sincero agradecimiento por tan alto honor.

Dios salve a España y guarde a V. E. muchos años.[152]

Gregorio Maidagan Múgica (1891-1961) Gipuzkoako Aretxabaletan jaio zen. Apaiztu ondoren, R. M. Azkuek Bilbora deitu zuen 1916an idazkari pribatu gisa. 1919an Euskaltzaindia eratu zenean, besteak beste, R. M. Azkue buru eta G. Maidagan idazkariorde izendatu zituzten. Akademiaren

[151] BFAH-EC: «Moción del diputado D. José Luis Gaytán de Ayala proponiendo la Creación de la Junta de Cultura de Vizcaya», [1940ko apirila], Educación, Deportes y Turismo 152, C-1006 BIS. 67 -EXP-12.

[152] BFAH-EC: G. Maidaganen gutuna BPDko presidenteari, 1940-05-03, Educación, Deportes y Turismo 152, C-1006 BIS. 67 -EXP-12.

IKER-35.indd 65 2/9/19 10:55

eguneroko administrazioaren ardura isila eramateaz gain, euskaltzainburuaren eskuineko eskua eta ia familiakoa izan zen hura hil arte.[153] JCVko kide izendatu zutenean, Bilboko Santiago basilikari atxikita jarraitzen zuen. R. M. Azkueren itzalean bizi zen elizgizon ezezaguna zen. Haren izendapena euskaltzainburuaren ordezkotza besterik ez zen, nire ustez. R. M. Azkuek tokiko agintari frankistekin eta bereziki J. M. Areilzarekin hitz egin ondoren, uko egin ziokeen izendapenari, RAEn eta berehala Euskaltzaindian izan zituen arduren aitzakian, eta bere idazkari pribatua eskaini zuen «testaferro» gisa, agian G. Maidagan filojeltzalea politikoki babesteko maniobra ere bazena.

Faxismora lerratutako beste monarkiko batek, J. M. Areilza proteikoak, esku hartu zuen Euskaltzaindiaren inguruko erabaki horretan.[154] J. M. Areilzarekiko tratuak ahozkoak izan zirenez, ez dute utzi testigantza idatzirik.[155] José M.ª Areilzak (1909-1998), Renovación Española-ko eskuindar monarkikoen Bizkaiko buru gisa, Errepublikaren aurkako konspirazioetan parte hartu zuen. Falange eta Juntas de Ofensiva Nacional-Sindicalista (JONS) alderdi faxistak bateratzen lagundu zuen. 1936ko estatu kolpe saioan, E. Mola jeneralaren artekaria izan zen Bilbon. Gerra zibilean, Bilbotik ihes egin eta FET-JONS alderdi bateratuaren sortzean parte hartu zuen. Kolpistek ekainaren 19an Bilbo okupatu ondoko lehen alkate izendatu zuten. P. Sainz Rodríguezen garaian Hezkuntza Nazionaleko ministerioan ardurak izateko aukera izan arren, Bilbon zegoen Industria ministerioa hautatu zuen. Memorietan

---

[153] 1920ko hamarkadan Akademiak antolatutako galdeketan (*Erizkizundi irukoitza = Triple cuestionario*) parte hartu zuen. R. M. Azkueri, halaber, *Euskalerriaren yakintza = Literatura popular del País Vasco* (1935-1947) folklore bildumako euskal testuak gaztelaniara itzultzen lagundu zion. M. Fenollera Valentziako apaizak Bilbon sortutako Colegio El Ave María-ko mojen eta Jesusen Mirabeen kapilau izan zen (Maidagan 1957; Euskaltzaindia 1961a; Aguirregabiria 1978).

[154] F. Krutwigen arabera, J. M. Areilza eta R. M. Azkueren arteko harremanak Euskaltzaindiarekiko 1939an hasi ziren (Iztueta & Iztueta 2006: 875) Oso deigarri da F. Krutwigek JCVko kideez hitz egitean J. M. Areilzaz egin zuen epai barkabera: «Erregimenaren gizonak ziren batzuk zein besteak, faxistak eta oso eskuindarrak. Hala ere, ez nuke errango Areilza izpirituz faxista zenik» (Murua Uria 1997: 68). F. Krutwigen ustez, J. M. Areilzak ez zuen komisariorik Akademian sartu nahi, agian barnealdeko euskaltzainen ideologiaz zalantzarik ez zuelako.

[155] Bestalde, J. Urquijori garai hartan Getxotik, Madrildik edota Buenos Airestik idatzi zizkion gutun urrietan, halaber, ez zuen inoiz Akademia aipatu, nahiz eta kultura arazoez jardun (KMK-JU: J. M. Areilzaren gutunak J. Urquijori, 1940-01-17, 1947-02-02 & 1948-11-23).

IKER-35.indd 66 2/9/19 10:55

Euskaltzaindiaren gaia zeharo baztertu zuen eta ez dugu haren ikuspegirik (cf. Areilza 1974; 1992; Yanke 1986).[156]

Nolanahi den, J. L. Gaytán de Ayala diputatua buru zuen Cultura e Instrucción-eko batzorde dosiergileak JCVren araudia aurkeztu zion BPDko presidenteari 1940ko maiatzaren 15ean. Atariko azalpenak euskaltasunaren depurazio kulturalean indar gehiago egiten zuen:

> Es propósito de la Junta de Cultura de Vizcaya recoger y difundir todas las actividades científicas, históricas, literarias y artísticas en nuestra Provincia.
>
> En tiempos anteriores, existió creada por la Excma. Diputación, una Junta «de Cultura Vasca» disuelta a raíz de la liberación de la capital vizcaína por el Ejército Nacional.
>
> La Junta de Cultura creada en el momento actual por la Diputación, se denominará «Junta de Cultura Vizcaya» en oposición a la de «Cultura Vasca» anterior, porque no acepta ni siquiera en hipótesis, la existencia de una cultura vasca, procedente de un hecho diferencial y menos aún en abierta oposición con la cultura nacional, sino que por el contrario, parte del principio incontrovertible de reflejar en los momentos culturales vizcaínos y vascongados el espíritu de la cultura española, de signo universal y ecuménico, afirmando la necesidad de exaltar los valores espirituales de esta tierra, enlazados siempre con el pasado glorioso español, como una muestra viviente del brillante renacimiento cultural del nuevo Estado, producto del esfuerzo y de la sangre de una juventud valerosa y ardiente dirigida por la victoriosa espada del Invicto Caudillo.[157]

JCVren egitekoa, beraz, Bizkaiko kultura jaso, landu eta zabaltzea zen, baina soilik espainolismoaren isla zen neurrian. Horretarako, instituzio koordinatzailetzat jotzen zuen bere burua:

---

[156] 1937-1941 artean, diktaduraren erakunde garrantzitsuetako kide izan zen: Consejo Nacional de FET-JONS, Jefe del Servicio Nacional de Enseñanza Profesional y Técnica, Jefe del Servicio Nacional de Industria, Junta Política de FET-JONS, Comisión Permanente del Consejo Nacional de Economía edota Consejo de la Hispanidad. Dena dela, J. M. Areilza Bilboaldetik urruti ibili zen eta haren eragina ez zen iraunkorra izan Akademiaren gorabeheretan. Esaterako, 1944-1947 artean Madrilgo Unibertsitateko Zientzia Ekonomiko eta Politikoen Fakultatean eskolak eman zituen. Mundu Gerrak eragindako porroten ondorioz, Falange-tik aldendu eta Juan Borbónen ingurura hurbildu zen. Seguru asko horregatik, Espainiako botere lehiatik urruntzearren, Argentinako enbaxadore izendatu zuten 1947an (Agirreazkuenaga & al. 2008: 110-118).

[157] BFAH-EC: «Bases de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1940-05-15, Educación, Deportes y Turismo 152, C-1006 BIS. 67 -EXP-12.

IKER-35.indd 67 2/9/19 10:55

> La misión fundamental de la Junta de Cultura de Vizcaya es la de coordinar las diversas actividades culturales, logrando la máxima compenetración y armonía entre las Juntas de Patronato e Instituciones culturales de Vizcaya, a las que sugerirá iniciativas en los ramos de su cometido propio, fomentará sus actividades y procurará la mayor conexión de las mismas en una obra cultural conjunta, sin intromisión en las funciones de régimen interno de las Juntas de Patronato que las rijan.[158]

Dena dela, araudi handigurak ezartzen zuen JCVren egitura konplexua ez zen guztiz bete. Hogeita hamar herritarrez eta sei diputatuz osatutako JCVren osoko batzarra ez zen hilero bildu. Hamabi kide inguruz osatutako batzorde iraunkorrak zeraman pisu guztia. Nominalki JCVren burua BPDko presidentea zen eta buruordea Bilboko alkatea, baina hasierako urteetan Bilboko Udalak ez zuen parte hartu. Araudiak ezarritako JCVren hiru batzordeek (historiko-literarioa, artistikoa eta ikerketa sozioekonomikoena) ere ez ziren operatiboak izan. Nolanahi den, zeregin nagusia Estatu totalitarioren «gurutzada» egitasmoekin Bizkaitik bat egitea zen. Horretarako batez ere ikastaroak, hitzaldiak, lehiaketak, argitalpenak edota ikerketak sustatu ziren.

2.2. «JUNTA DE CULTURA DE VIZCAYA»REN INPOSIZIOA EUSKALTZAINDIARI

Euskaltzaindiarekiko erabaki ofiziala, JCVk 1941eko otsailaren 10ean hartu zuen. Francisco Ygartua idazkariaren bidez, 1941eko otsailaren 21ean eman zioten baimen ofiziala eta diru laguntzaren bermea euskaltzainburuari, Akademia berriz abiatzeko:

> La Junta de Cultura de Vizcaya, en reunión celebrada el día 10 de los corrientes, manifestó su deseo unánime de que el estudio y mantenimiento del Vascuence continúe con toda intensidad, y para llevar a cabo esa idea, ha estimado de gran interés que dentro de estas iniciativas quede integrada la Organización de esa Academia de Lengua Vasca, con la que quiere mantener una estrecha relación y espera conseguirlo.
>
> Para poner en práctica con rapidez los deseos de la Junta se han tomado varios acuerdos que me honro transmitir a Vd. y son los siguientes:
>
> 1º. Designar para formar parte de esa Academia al miembro de esta Junta D. Juan Irigoyen.

[158] BFAH-EC: «Bases de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1940-05-15, Educación, Deportes y Turismo 152, C-1006 BIS. 67 -EXP-12.

IKER-35.indd 68 2/9/19 10:55

2º. Que a partir del 1º. de este año se subvencione a esa Academia con Cinco Mil Pesetas (5.000) al año pagaderas por trimestres naturales.

3º. Significar a la Academia que estima conveniente la continuación de los trabajos que tiene emprendidos, tales como la publicación de su Revista, la preparación del Diccionario Castellano Vasco, y las demás publicaciones que sean de interés para el Vascuence y cuando se vayan a editar, estudiará las subvenciones que proceda.

4º. Que esa Academia se sirva dar cuenta de su nueva constitución y de los trabajos que vaya emprendiendo (apud Torrealdai & Murua Uria 2009: 54).[159]

Estatu frankistaren egitura hierarkikoan, Euskaltzaindiari JCVk emandako bermeak nahitaez zuen eduki politikoa. Hezkuntza Nazionaleko ministroa jadanik J. Ibáñez Martín zen, CSIC sortu eta goi mailako hezkuntza Opus Dei-ko kideen eskuetan utzi zuena. «Orban» jeltzalez depuratutako Akademia beste tresna bat gehiago izan zitekeen, Euskal Herria espainolismoaren bidetik zuzentzeko. Baina aldi berean, Bizkaiko egitura frankista berrian agintzen zuen elite monarkikoak nolabaiteko autonomia fiskala aldarrikatzen zuen Gobernu zentralarekiko, hots, kontzertu ekonomikoaren berrezarpena. Historikoki oso emankorra zen euskararen apologia eta nolabaiteko autonomia politikoa edo administratiboa uztartzen zituen ideologia foruzalea. Are gerraondo frankistan ere, euskara ezaugarri sinbolikoa izan zitekeen Bizkaiko zenbait agintariren diskurtsoan, kontzertu ekonomikoaren berreskurapena historikoki legitimatzeko (cf. Madariaga Orbea 2006).

Dena dela, JCVren otsailaren 21eko ofizioa, idatzizko jakinarazpen ofiziala zen. Euskaltzainburuak 1941eko otsailaren 6rako adostuta zituen JCVren ordezkariekin ahozko berme guztiak. Donostiako J. Urquijori, pozez beterik idatzi zizkion prozesuaren xehetasunak egun horretan:

Tengo el placer de darte una noticia que sin duda es muy de tu agrado. Dos veces han estado en esta oficina tres miembros de la Junta de Cultura de esta Diputación: los señores Areilza, Merino Urrutia e Ygartua.

Me expusieron su proyecto de dar nueva vida a esta Academia. Y últimamente me visitó el segundo para decirme que ponían a nuestra disposición cinco mil pesetas anuales;

[159] ABA-EUS: JCVren ofizioa Euskaltzaindiari, 1941-02-21. Zoritxarrez, JCVren akta liburua 1941eko ekainaren 3ko batzarrarekin hasten da, eta ez dago otsaileko erabakiaren informaziorik. BPDren eta horren batzorde iraunkorraren 1941eko aktek ere ez dute aipatzen Akademiarekikorik (BFAH).

IKER-35.indd 69 2/9/19 10:55

No podrías tú conseguir que tome igual acuerdo la Junta de Cultura de esa Diputación?

Ahora voy a exponerte (a Inzagaray podrías darle cuenta de esto por teléfono) el plan que se me ocurre.

1.º Reunirnos cada dos meses, un mes aquí y otro ahí, exceptuando los de verano.

2.° Elegir como sucesor de Campión al P. Iraizoz, residente en Lecaroz; y a Nazario Oleaga, residente en Bilbao, como sucesor de Eguzkiza.

3.º Elegir como sustituto de Altube a Zamarripa de Bermeo.

4.º ¿Quiénes podrían ser nombrados como sustitutos de Olabide, Intza y Echegaray?

5.º Dedicarnos a terminar el Diccionario en preparación y a publicar nuestra Revista

A los señores de que antes hablo les pregunté si podrían como antes formar parte en nuestras reuniones los tres académicos vasco franceses. Y me dijeron que por lo menos por ahora no (apud Arana Martija 1990: 23).[160]

Beraz, JCVren batzorde iraunkorreko hiru kide (J. M. Areilza, F. Ygartua, J. B. Merino) Euskaltzaindiaren Ribera kaleko egoitzan egon ziren 1941eko hasieran, R. M. Azkueri Akademia berriz abiatzeko baimen eta baldintzak jakinarazteko. J. M. Areilza zen batzorde iraunkorreko burua eta kargu frankista nagusia. J. B. Merino eta F. Ygartua (Juventud Monárquica-ren buruorde ohia) JCVren behin-behineko diruzaina eta idazkaria ziren, hurrenez hurren. Diruzainak hirugarren bisita bat egin zion, diru laguntzaren kopuru zehatza jakinarazteko.[161]

1920ko araudiaren arabera, Euskaltzaindia EI-SEVen filiala zen, baina instituzio hori gerra zibilean desagertu zen. 1941eko ofizioaren arabera, bazirudien Akademia JCVren filial antzekoa bilakatu zela, baina Euskaltzaindiaren nortasun juridikoak argitu gabe jarraitu zuen diktadura osoan.[162] Agintari frankisten erabakietan gertatu ohi zenez, baldintza politiko gogorrenak ahoz

[160] KMK-JU: R. M. Azkueren gutuna J. Urquijori, 1941-02-06.

[161] Juan Bautista Merino Urrutia (1886-1982) Logroñoko probintzian jaio arren, Bizkaian hazi eta Errepublikan Getxoko zinegotzi monarkikoa izan zen, J. A. Aguirre jeltzalea alkate zela. Kultura arloan, Errioxa eta Burgosko euskal onomastika izan zuen ikergai nagusia. Hain zuzen, Akademiaren 1935eko martxoko batzarrean, beraren toponimia lan bat aurkeztu zen. Getxoko alkate frankista eta JCVko kide izateaz gain, RSVAPen ere aritu zen (ABA-EUS: Euskaltzaindiaren akta ez onartua, 1935-03-07/08; cf. Arana Martija 1982).

[162] Cf. «Decreto de 25 de enero de 1941 sobre sobre regulación del ejercicio del derecho de asociación», *BOE*, 1941-02-06.

IKER-35.indd 70 2/9/19 10:55

baino ez zizkioten jakinarazi euskaltzainburuari. JCVren otsaileko ofizioak idatziz aipatzen zuen baldintza politiko bakarra zera zen: Juan Irigoyen nahitaez euskaltzain izendatzea.[163] JCVren arautegiak ezartzen zuen Bizkaiko kultura erakundeen kontrolerako, Euskaltzaindian komisario politiko bat izendatu zen, alegia. JCVren ofizioa idatzi zen egun berean, euskaltzainburuak Bilboko CAMaren zuzendaritzara jo zuen diru eske. Gutunean, JCVk Euskaltzaindiari ahoz ezarri zizkion baldintzen berri gordina eman zuen. Frantziako eta erbesteko euskaltzainak ordeztu egin behar ziren kide espainolistekin. Hau dateke Akademiaren menpekotasun politikoa argien adierazten duen idatzia:

> Por iniciativa de la Junta de Cultura de Vizcaya y muy particularmente por la de su dignísimo Presidente, ilustre miembro del Consejo Político Nacional, D. José María de Areilza, se trata de que surja nuevamente a la vida pública esta Academia de la Lengua Vasca.
>
> Compenetrada esta Academia con el espíritu que informa a la Junta de Cultura con cuyos miembros está en íntima relación ha merecido su entusiasta aprobación respecto a su nueva orientación.
>
> En la nueva etapa de actuación se prescindirá en absoluto de los miembros que representaban a la región vasco-francesa y también de los que con ocasión de nuestra Santa Cruzada huyeron de nuestra Patria. Los nuevos miembros que sustituyan a unos y otros, al igual que aquellos que han de ocupar las vacantes producidas por fallecimientos, serán de la región vasco-española y de raigambre españolista.[164]

Bestalde, diktaduraren politika linguistikoaren aurkako salaketak indargabetu nahi ziren operazio kosmetiko batekin. Euskaltzaindiaren jarduera baimentzen zuen erregimenak herri hizkuntzen babesle gisa aurkeztu nahi zuen bere burua, maila publikoan eta ofizialean bestelako erabakirik hartu behar gabe. Akademiaren berpiztea baimentzeaz den bezainbatean, argi dago J. M. Areilza JCVren batzorde iraunkorreko burua izan zela sustatzaile nagusia. R. M. Azkuek 1941eko otsailaren 23an Julián Elorzari idatzitako gutunak ere hori nabarmendu zuen:

> Aprovecho esta ocasión para darle la grata noticia de que pronto empezará a funcionar esta corporación académica por iniciativa de un Consejero Nacional, José María Areilza, que es también presidente de la Junta de Cultura de esta Diputación.

---

[163] F. Krutwigen 1951ko hitzetan: «Asimismo le nombraron un mie[m]bro *responsable*» (Iztueta & Iztueta 2006: 460).

[164] ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna Bilboko CAMeko zuzendaritzari, 1941-02-21.

IKER-35.indd 71 2/9/19 10:55

> Para la plaza que dejó vacante Campión espero diri[g]irme hoy mismo (de acuerdo con mis dos colegas Urquijo e Inzagaray) a nuestro amigo D. Juan Carlos el mondragonés.[165]

Hain zuzen, 1941eko martxoaren 17an Serapio Múgica historialariaren Donostiako hileta jendetsuan bildutakoek (J. Urquijo, J. C. Guerra, J. Elorza) Euskaltzaindia ere izan zuten hizpide (*El Diario Vasco* 1941-03-18; *La Voz de España* 1941-03-18).[166] Nabari da R. M. Azkueren asmo nagusia Akademia kosta ahala kosta berriz abiatzea zela, horretarako diktaduraren baldintza politikoak onartu zituen arren. Joko arriskutsu horretan, hartzailearen araberako mezuak prestatu zituen. Agintari frankisten aurrean, lotsa barik onetsi zuen espainolismo harroa. Euskaltzainei zuzentzean, ordea, Akademiaren jarduna ahal zen neurrian normalizatzeaz arduratu zen nagusiki, norabide politikoak alde batera utzita. R. M. Azkuek J. Urquijori idatzitako gaztelaniazko gutunean bereizi egin zituen euskaltzain hilen ondokoak («sucesor») eta erbesteratuko euskaltzainen ordezkoak («sustituto») (Arana Martija 1990: 23). Lehenengoak korporazioaren zaharberritze naturalaren ondorio ziren, baina bigarrenak diktadurak ezarritako salbuespen egoeragatik sartu ziren Euskaltzaindian. Horrek ziurtasunik eza, zalantzak eta susmoak eragin zituen Akademiaren osaeraz den bezainbatean. Gutunetan agertzen denez, A. Campiónen hutsunea P. de Iraizozek (OFMCap) edo J. C. Guerra zaharrak bete zezatela nahi zuen R. M. Azkuek.[167] Euskaltzainburuak, Lekarozko «Colegio de Ntra. Sra. del Buen Consejo»ko irakasleari idatzi zion, egoera zehatzaren berri emateko 1941eko apirilaren 14an:

> Tengo mucho gusto en participarle la agradable noticia de que esta Academia empieza ya a revivir por iniciativa de la Junta de Cultura de esta nuestra Diputación.

---

[165] ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna J. Elorzari, 1941-02-28. Julián Elorzak (1879-1964) GPDko presidente eta EI-SEVeko buru gisa, oso gertutik jarraitu zuen Akademiaren sorrera eta garapena. Ideologiaz karlista izan arren, J. F. Lequericak «el más peligroso de los vascongados actuales» deitu zuen diktadura primorriveristan. Hain zuzen, Errepublikan autonomia estatuaren eragile garrantzitsua izan zen. 1937an atxilotu egin zuten, FET-JONSen alderdi bateratzea onartu ez zuten beste buruzagi karlista batzuk bezala. Gerraostean, isildutako ahotsa izan zen (Estornés Zubizarreta 1983; 1990; Martorell 2010: 174-175; Chacón Delgado 2015).

[166] ABA-RMA: J. Elorzaren gutuna R. M. Azkueri, 1941-03-23.

[167] Policarpo de Iraizoz (1897-1980) kaputxinoa urgazle zen 1930etik. Euskaltzaindiaren diru laguntzarekin, 1920ko hamarkadan filologia erromanikoa ikasten aritu zen Zuricheko Unibertsitatean eta ondoren Akademiaren lankide izan zen (Ondarra 1997).

IKER-35.indd 72 2/9/19 10:55

> Como no quedamos aquí mas que tres miembros de ella (dos, residentes en San Sebastián, Urquijo e Inzagaray, y este servidor) fui allá hace algunos días con objeto de preparar la reconstitución de esta nuestra Corporación.
>
> Por ahora, según indicación de la Junta de Cultura, no figuraran entre nosotros los vasco-franceses; y los nueve, que a esta nuestra región corresponden, serán en adelante, ademas de los tres citados, D. Juan Carlos de Guerra, D. Nazario Oleaga, D. Juan Irigoyen, usted, y Pablo Zamarripa y otro que todavía no está elegido.
>
> Si, como es de suponer, acepta V. este nombramiento, hagámelo saber prontito (apud Ondarra 1997: 74).[168]

R. M. Azkueren ausardia, ordea, zeharo arduragabetzat jo zezakeen errepresio frankistaren jomugan egondako edozein pertsonak nahiz kolektibok. Nafarroako ikastetxea euskaltzaletasunaren gune ospetsu bilakatu zen XX. mendean eta kaputxino ugari urgazle izendatuta saritu zituen Euskaltzaindiak. Baina abertzaletasunak tirabira gogorrak eragin zituen kaputxinoen probintzian, eta gerra zibilak politikoki susmopean utzi zituen horietako asko (Echeverría 2007). P. de Iraizozek zuhurtzia handiz ezezkoarekin erantzun zion Bilbora apirilaren 19an:

> Su carta del 14 me ha sorprendido con la grata noticia de que la Academia de la Lengua Vasca, que usted preside, comienza a revivir y va a reanudar sus actividades, interrumpidas estos últimos años. Conociendo mi grande amor a nuestra pobre lengua, comprenderá usted lo mucho que me ha alegrado esa noticia. Debo agradecerle también el honor que me ha hecho al nombrarme para formar parte de la Academia; no creo haber adquirido tantos méritos como para aspirar a esa distinción; quedo pues muy agradecido.
>
> En cuanto a aceptar ese cargo que me ofrecen, eso ya es otra cuestión; no me parece prudente aceptar el nombramiento. Ante todo, como no soy independiente sino que soy hijo de obediencia, no podría dar ese paso sin contar con el permiso de mis Superiores. Ahora bien, aunque no he tenido tiempo para consultarles sobre el particular, creo interpretar su voluntad al no aceptar su ofrecimiento. Pertenezco a una Orden Religiosa, que ha tenido que sufrir mucho, porque algunos de sus miembros se han dedicado al estudio de nuestra lengua, historia, folklore etc. Recuerde usted, por no citar más, el caso de su antiguo colega nuestro buenísimo P. Inza... Con una experiencia tan reciente y tan desagradable comprenderá usted que no haya ganas de repetirla; y por lo mismo comprenderá usted también que nuestros Superiores no sean partidarios de que sus Religiosos tomen parte en esas actividades

[168] ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna P. de Iraizozi, 1941-04-14.

IKER-35.indd 73 2/9/19 10:55

que en sí, claro está, no tienen nada que sea impropio de un Religioso. Y tampoco le extrañará que yo personalmente tenga pocos ánimos para trabajar en ese sentido.

Espero pues que se dará usted cuenta de nuestra situación y que no llevará a mal mi negativa a aceptar el nombramiento que han hecho en mi favor.

[..]

Y nada más, sino felicitarle a usted de todo corazón porque a pesar de sus años aún sigue usted con tantos arrestos para trabajar por nuestras cosas. Yo le admiro a usted. Que Dios le conserve aun muchos años la vida y esas energías de joven (apud Ondarra 1997: 74-75).[169]

Muga politikoak begien bistakoak ziren. Egun berean, apirilaren 14an, bidalitako gutunari, P. Zamarripa Bizkaiko elizgizon karlistak pozez beterik erantzun zion Bermeotik. Esanguratsuki, Euskaltzaindiari ordez, JCVri eman zizkion eskerrak izendapenagatik. Halaber, R. M. Azkuek euskaltzainburu izaten jarraitzen ote zuen galdetzen zion bere buruari. Azkenik, gerraondoko lehen batzarra apirilaren 30ean ez izatea eskatu zuen, «por tratarse de fecha aniversaria de la liberación de este pueblo por los soldados del Generalísimo Franco».[170]

2.3. GERRAONDOKO EUSKALTZAINDIAREN LEHEN BATZARRA (BILBO, 1941-04-28)

Azkenean, 1941eko apirilaren 28an, gerraosteko lehen batzarrean, Bilboko egoitzara bildu ziren lagun hauek: R. M. Azkue, J. Urquijo, P. Zamarripa, J. Irigoyen, J. C. Guerra eta N. Oleaga. Bost urte igaroak ziren 1936ko ekainean azken batzarra Lekeition egin zenetik. R. Inzagarayk, gerra zibilean falangistekin arazoak izan ondoren, ez zuen Donostiako segurtasuna utzi, eta soilik jaioterriko batzarretara agertu zen, inolako ekarpenik egin gabe. Frantziako hiru euskaltzainak (P. Lhande, G. Lacombe, J. Elissalde) inkomunikatuta zeuden. Erbesteratuta, beste lau: R. Olabide, S. Altube, D. de Inza eta B. Echegaray. Hilak ziren A. Campión eta J. B. Egusquiza, eta bien aldeko otoitza egin zuten batzarrean.

[169] ABA-EUS: P. de Iraizozen gutuna R. M. Azkueri, 1941-04-19.
[170] ABA-EUS: P. Zamarriparen gutuna R. M. Azkueri, 1941-04-17.

IKER-35.indd 74 2/9/19 10:55

Bizirik zeuden hamar euskaltzainetatik, bi besterik ez ziren Akademia berrabiatzeko batzar garrantzitsura agertu, beraz.[171]

> Azkue jaunak, batzaŕ onen zioa ta elburua adierazoten ditu. Diño, igaroko jazoerak, euskaltzain biren eriotzeak eta beste batzuren eŕbestetzeak izan dirala-ta, Euskaltzaindiaren batzaŕak eta lanak eragotzita egon direala ia bost uŕte oneitan, noiz ta zelan baŕiz biŕasi zitekeazan ikusten etzala. Baina «Junta de Cultura de la Excelentísima Diputación de Vizcaya»-k adierazo dautsala egoki litekeala Euskaltzaindia baŕiztu ta bere lanetan ekitea, oŕetarako berak be diruz, urtean bost mila peseta emonaz, lagunduko leukeala-ta. Oŕegaitik eta oŕetarako deitu dautsie bizi direan ta berton dagozan lenagoko euskaltzainai eta beste batzar onetara etoŕi direan jaunai, eurokaz ta izentau leikezan beste batzukaz Euskaltzaindia baŕiztu leitekela uste izanik.
>
> Batuta dagozanok, aintzakotzat artzen dabez Azkue jaunaren esanak eta pozik agertzen dabe gertu dagozala bakoitzari dagokonean betetako.
>
> Beraz, erabagiten dabe, bein-beineko ta oraingoz, Euskaltzaindia jaun oneikaz eratua izan dedila: lengoak, Azkue, Urkijo ta Intzagarai jaunak; barriak Geŕa, Zamaŕipa, Irigoyen eta Oleaga jaunak; beste euskaltzainen izentatzea geroagorako utzirik (apud Torrealdai & Murua Uria 2009: 52).[172]

R. M. Azkueren ekimenez, batzar horretan Eladio Esparza ere euskaltzain izendatu zuten aho batez, eta berari Nafarroako beste hautagai bat aukeratzeko eskatzea erabaki zuten. Bost euskaltzain berri izendatu zituzten, eta barnealdeko hirukoari gehituta, zortzi euskaltzainez osatuta zegoen gerraondoko Euskaltzaindi berritua. Urgentziazko berrantolatzean, Akademiako kide berriak aukeratzeko 1920ko prozedurak ez ziren jarraitu, eta, esaterako, horietako inork ere ez zuen sarrera hitzaldirik egin. Bestalde, urgazle izatearen ohiko baldintza ez zuten guztiek betetzen: N. Oleaga eta P. Zamarripa Bizkaiko karlistak 1919ko sorreratik ziren urgazle, eta J. C. Guerra Gipuzkoako heraldista zaharra, 1925az geroztik. E. Esparza eta J. Irigoyenek, aldiz, diktadurak sortutako salbuespeneko egoeraren etsenplu garbienak, ez zuten baldintza hori betetzen.

Nolanahi den, zuzendaritzako karguak bozkatu ondoren, R. M. Azkuek euskaltzainburu izaten jarraitu zuen, baina N. Oleagak ordeztu zuen R. Inzagaray Akademiaren idazkaritzan. G. Maidagan, halaber, urgazle eta behin-behi-

---

[171] Horrek 1920an onartutako *Euskaltzaindiaren barneko araudia = Reglamento interior de la Academia de la Lengua Vasca* hausten zuen. Barne erregelen arabera, gutxienez sei euskaltzain bildu behar ziren batzar ofiziala osatzeko, eta gutxienez sei euskaltzainek aldeko botoa eman behar zuten erabaki bat loteslea izateko (Euskaltzaindia 1920b: 6).

[172] ABA-EUS: Euskaltzaindiaren aktaren kopia mekanografiatu ofiziala, 1941-04-28.

IKER-35.indd 75 2/9/19 10:55

neko diruzain izendatu zuten. Diruzaintzan, erbesteko S. Altube ordeztu zuen, nahiz eta izendapena behin-behinekoa izan. Gerraondoko baldintzetan, Akademiaren egitura eta eginkizunak kamustuta ageri ziren. JCVren ofizioak horrelakorik aipatzen ez zuenez, 1941eko berriztatzean desagertu egin ziren «ikerleen» eta «yagoleen» sailak, baita liburuzainaren postua ere. 1932ko urriko azken bozketaren arabera, A. Campión zen «ikerleen» sailburu, D. de Inza «yagoleen» sailburu eta G. Lacombe bibliotekari. Lehenengoa 1937an hila, bigarrena kaputxinoek Txilera destinatua eta hirugarrena Frantzian inkomunikatuta; gerraondoko Euskaltzaindiaren egoera ahula irudikatzen zuten. Euskaltzaindiaren ahalmena oso mugatuta agertzen zen ikerketa instituzio nahiz gizarte sustatzaile gisa.

Salbuespen egoerako baldintzengatik, gerra zibil aurreko Akademiako hamabi ordezkarien segida ez da batere garbia, baina, adibidez, P. de Iraizozek ezezkoa eman ondoren, A. Campiónen tokia J. C. Guerrari eskaini zion R. M. Azkuek.[173] Dena dela, izendapen berrien zilegitasun akademikoa ez zuen aulkien ustezko genealogiak ematen, baizik eta Akademiaren batzarretan hartu eta aktetan jasoak geratzen ziren erabakiek, nahiz eta erabaki horiek 1920ko estatutu-erregelak ez bete. Gerra zibilak eta errepresioak sortutako egoera tamalgarrian, Euskaltzaindia bere kideak gutxieneko normaltasunez hautatzeko aukerarik gabe geratu zen. Euskaltzaleak izanagatik, lehendabizi frankismoaren galbahe geopolitiko-ideologikoa igaro behar zuten: «de la región vasco-española y de raigambre españolista», euskaltzainburuaren beraren hitzetan.[174]

Eskuindar, tradizionalista edota elizgizonek bete zituzten lehendabiziko aulki hutsak edo hustuak. Frankismoak ezarritako baldintzek sortu zuten distortsio maila nolabait kuantifikatzeko, artean bizirik zirauten urgazleen kasua ikusiko dugu, euskaltzain bilakatzeko hautagai naturalak, alegia. Akademiak, 1941eko apirilean jarduna berriz abiatu zuenean, automatikoki euskaltzain izateko aukerarik gabe uzten zituen urgazleen kopurua oso handia zen:

– Frantziako herritarrak zirelako, hamar urgazle ezin ziren aukeratu, haien ideologia gorabehera: J. Moulier, A. Constantin, J. Larrasquet, J.

[173] ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna J. C. Guerrari, 1941-02-28. Gerora «aulkien» segida berregiteko ahalegina egin da, diktadura frankistan Akademiaren egiturak jasandako arbitrariotasunak nolabait «konpondu» nahian. 1940ko hamarkadatik aurrera sartu ziren euskaltzainak egitura berri batean sartu ziren, ordea; diktadura frankistak ezarritako baldintzek behartuta, eta ez Akademiaren arauzko prozeduraren arabera (cf. Krutwig 1991: 127-139).

[174] ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna Bilboko CAMeko zuzendaritzari, 1941-02-21.

IKER-35.indd 76 2/9/19 10:55

Saint-Pierre, P. Lafitte, L. Dassance, J. B. Daranatz, P. Eyheramendy, D. Irigoyen eta Ch. Orabe.[175]

– Abertzaleak zirelako, deserrian, zigortuta edo politikoki ezgaituta zeuden urgazle hauek: O. Apraiz, F. Belausteguigoitia, A. Urriolabeitia, T. Alzaga, I. López Mendizábal, J. Cincunegui, N. Ormaechea, Irigaray aita-semeak, J. Aguerre, J. M. Errazti, L. González de Echávarri eta C. Elguezabal.[176]

– Diktaduraren izaera nazionalkatolikoa kontuan hartuta, Espainiako herritarrak ziren elizgizon urgazleen kasua, gehienak abertzaleak izanik, are lazgarriagoa zen: J. C. Ibarguchi, G. Manterola, M. Lecuona, T. Arburua, J. M. Barandiaran, M. Inchaurrondo, J. Gorostiaga, M. Arriandiaga klaretarra eta bost fraide kaputxino: B. de Oyeregui, P. de Iraizoz, P. Soloeta-Dima, J. A. de Donostia eta E. de Echalar.[177]

Urgazleen artean, euskaltzain izateko hautagai bakarrak ziren N. Oleaga, P. Zamarripa eta J. C. Guerra. Hau da, 1941eko galbahe politiko estua iragan zezaketenak urgazleen %8 besterik ez ziren. Beste era batera esanda, diktadurak urgazleen %92ri betoa ezarri zion zuzenean edo zeharka.[178] E. Esparzaren izendapena Nafarroako agintari frankistak gogobetetzeko erabaki hutsa zen, NFDko diru laguntzak bideratzeko erraztasunak eman zitzakeena, Conde de Rodezno presidente karlistaren sokako ultraeskuindarra zen neurrian; besteak beste, Justizia ministro zela 1938an santu izendegi jeltzalea debekatu zuenaren sokakoa, alegia (cf. Mendiola 2010).[179] E. Esparza ez zen apirileko batzarrean egon, eta biharamunean gutunez jakinarazi zion euskaltzainburuak: «Nos hacen falta dos académicos navarros. A propuesta

[175] Euskaltzaindiaren Frantziako urgazleen zerrenda historikoan akatsak egon ohi dira. Alde batetik, J. Saint-Pierre eta J. Moulier sartu ditut. Bestetik, D. Irigoyenen izendapen data aurreratu dut.

[176] Egia esan, Akademiatik aspaldi aldenduak zeuden A. Urriolabeitia, J. M. Errazti, L. González de Echávarri edota C. Elguezabal, gogor eutsi zietelako aurreritzi linguistiko jeltzaleei. Gauza bera gertatzen zen M. Arriandiaga edota P. Soloeta-Dima elizgizonekin (cf. Kintana Goiriena 2008).

[177] Frankismoak errepresaliatutako euskal elizgizonen zerrenda zehatzerako: Euzko Apaiz Talde 1981.

[178] Ez ditut zenbatu atzerrikotzat jo zitezkeen urgazleak, hots, estatutuen arabera euskaltzain ezin izan zitezkeenak: R. Menéndez Pidal, Américo Castro, Albert Léon, H. Gavel, R. Lafon, Rudolf J. Slaby, William Rollo, Jakob Jud eta G. Bähr (cf. Torrealdai & Murua Uria 2009: 161-165). Ikusiko dugunez, estatutuek ezarritako baldintza hori hautsi egin zuten R. Lafonekin 1949an.

[179] NFD une horretan zazpi diputatu hauek osatzen zuten: Conde de Rodezno, A. Marco, J. Martínez de Morentin, J. Pozueta, S. Ferrer (A. Campion zenaren iloba), C. Sanz Orrio eta E. Uranga (García-Sanz Marcotegui & al. 1998: 47-49).

IKER-35.indd 77 2/9/19 10:55

mía fue elegido por unanimidad y gran satisfacción como uno de ellos. Y acordamos además pedir a V. el nombre del segundo».[180]

Nafarroako bigarren euskaltzain hori Ángel Irigaray izan zen. Ikusi dugunez, A. Irigaray, J. Urquijorekin zuen adiskidetasunaz baliatuta, gerraondoko Akademian eragiten saiatzen ari zen. Dena dela, A. Irigaray bera hautatu nahi izan zutenean, oso uzkur agertu zen izendapenarekiko, ez zuelako bere espediente politikoa gehiago korapilatu nahi, eta nahiago zuelako itzaletik eragin. Aitzitik, bera zen, Nafarroako agintarien bidez, bermerik erakuts zezakeen abertzale gutxienetako bat. P. de Iraizozen izendapen saioak huts egin ondoren, R. M. Azkuek euskaltzain izendatu nahi zuen, baina hasieran uko egin zion, beldurragatik. 1941eko maiatzean R. M. Azkuek gutuna idatzi zion izendapena onar zezan, bertan ongi islatzen delarik zegoen arazo politikoa:

> Como nos hacían falta dos navarros en nuestra Corporación me fijé yo en Vd. y Eladio Esparza. Y al citar sus nombres delante de un compañero me dijo este que V. está tildado de nacionalista vasco. Hasta que hoy hablando por teléfono con Esparza al exponerle lo que de V. me dijeron me ha respondido él que nada hay de cierto en esa afirmación.[181]

Gutunean zioenez, E. Esparzak euskaltzainburuari agindu zion A. Irigarayrekin batera agertuko zela Akademiaren hurrengo batzarrera, baina medikuak ezezkoarekin erantzun zion berehala: «en vista de que hay alguien que insinúa esa especie respecto de mí, he de declinar con sentimiento mi aceptación».[182] 1941eko maiatzean Donostiako San Telmo museoan egin zen batzarrera ez agertu arren, Nafarroako bi kideen izendapena izan zen gai nagusia:

> Azkue jaunak adierazoten dau, lenago erabagi zanez, Eladio Esparza jaunari jakin erazo dautsola euskaltzaintzarako aukeratua izan dala, ta bere erantzuna, kisa ori beregain pozik artzen dabela, izan dala, bide batez, bere eritziz, bigarren naparro euskaltzaina Angel Irigarai jauna izan daitekela, esanaz. Ganera, Azkue jaunak dino jaun oneri kisa ori eskini dautsola, baña, bere eskarrak agertuaz,

[180] ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna E. Esparzari, 1941-04-29. 1941ean Iruñera deserritu zuten L. Aquesolo Bizkaiko karmeldar abertzaleak ere Nafarroako agintarien babesa lortzeko pausotzat jo zuen E. Esparzaren izendapena. *Diario de Navarra*ko kazetariak ez omen zion aitortzen bere buruari euskaltzain izateko meritu berezirik (Akesolo 1989: 672).

[181] ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna A. Irigarayri, 1941-05-12.

[182] ABA-EUS: A. Irigarayren gutuna R. M. Azkueri, 1941-05-17.

IKER-35.indd 78 2/9/19 10:55

oraingoz eztabela artzen erantzun dabela. Aitzaki barik artu dagiala eskatuz, barriro eskini dakiola erabagi da (Euskaltzaindia 1956: 318).[183]

Egoera nahasia hainbat hilabetez luzatu zen, A. Irigarayk 1941eko urrian berriz ere J. Urquijorengana jo behar izan baitzuen argitasun bila: «El día pasado me dijo Eladio Esparza que le tenía q. acompañar a una sesión de la Academia; me extrañó pues no he tenido ninguna noticia de ésta directamente».[184] Azkenean, 1941eko urriaren 30ean Bilbon egin zen batzarrera A. Irigaray bera agertu zen izendapena onartzera. Aktak, ordea, ez du E. Esparzarik aipatzen. Nafarroako mediku gazteagoari (42 urte) pozik entzun zioten batzartutakoek: R. M. Azkue, P. Zamarripa, J. Irigoyen eta N. Oleagak (Euskaltzaindia 1956: 319).

JCVren ahozko aginduz, erbesteratuak eta Frantziako euskaltzainak Akademiatik kanpo geratzearen ondorioz, 1920ko araudiak ezarritako hamabi euskaltzaineko kopurua bederatzira mugatuta geratu zen une horretan. Guztiak ziren gizonezkoak eta batez besteko adina 62,66koa zen 1941ean, bost urte lehenagokoaren antzekoa. Euskaltzainak hautatzeko irizpide politikoagoen erakusgarri, elizgizonen presentzia 1936ko %58,33tik %33,33ra igaro zen: R. M. Azkue, P. Zamarripa eta R. Inzagaray diozesiar apaizak. Jeltzale bakarra, izendapena kostata onartu zuen A. Irigaray izan zen. Lurraldetasunari begiratuta, guztiak Espainiakoak izateaz gain, Bizkaiak indar gehiago hartu zuen, probintziako agintariek Akademia berrituan zuten eragin politiko-ekonomikoaren ondorioz. 1936an bezala, Gipuzkoak hiru kide zituen (J. C. Guerra, R. Inzagaray, J. Irigoyen) eta Nafarroak bi (E. Esparza, A. Irigaray); baina Bizkaikoak hirutik laura igaro ziren (R. M. Azkue, J. Urquijo, P. Zamarripa, N. Oleaga) eta Araba ordezkaririk gabe geratu zen. Hau zen bederatzi euskaltzainen zerrenda 1941ean:

1. Resurrección M.ª Azkue
2. Julio Urquijo
3. Juan Carlos Guerra
4. Pablo Zamarripa

[183] N. Oleaga idazkariaren gaztelaniazko akta mekanografiatuak honela dio: «El Sr. Azcue da cuenta de que, conforme a lo acordado anteriormente comunicó al Sr. D. Eladio Esparza su elección para académico de número y que ha contestado expresando que con satisfacción acepta dicho cargo, al propio tiempo que manifestando que a su juicio podría ser don Ángel Irigaray el segundo navarro para igual cargo. Añade el Sr. Azcue que se le ha ofrecido a est[e] último señor pero que ha contestado agradeciendo su designación y manifestando que por ahora no la acepta. Se acuerda que se le reitere el ofrecimiento rogándole que lo acepte sin reparos» (ABA-EUS: Euskaltzaindiaren aktaren kopia mekanografiatu ofiziala, 1941-05-29).

[184] KMK-JU: A. Irigarayren gutuna J. Urquijori, 1941-10-25.

IKER-35.indd 79 2/9/19 10:55

5. Ramón Inzagaray
6. Eladio Esparza
7. Nazario Oleaga
8. Ángel Irigaray
9. Juan Irigoyen[185]

Are J. Urquijo bezalako karlista, etsita agertu zen Euskaltzaindiak, kultura instituzio gisa, egin zezakeenarekiko Mundu Gerrak areagotutako giro itogarrian. Miretsita zegoen R. M. Azkuek erakusten zuen adoreaz, Donostiatik 1941eko maiatzean idatzi zionez:

> Querido D. R[esurrección]: mucho celebro se halle V. en buena salud, trabajando impertérrito, en medio de estos tiempos apocalípticos. Yo confieso que, a pesar de mi aparente tranquilidad, siento mis nervios bastante destemplados. De que servirán nuestras investigaciones ante un caos como el que presenta actualmente el mundo? Admiro la flema (que yo creía más británica que alemana) con la que tanto [Gerhard] Bähr como [Karl] Bouda siguen sus habituales estudios. Y eso, ¡en Berlín![186]

2.4. **GERRAONDOKO EUSKALTZAIN BERRIAK**

Juan Irigoyen

Juan Irigoyen Guerricabeitia (1884-1964) Gipuzkoako Bergaran jaio zen. Espainiako Artxibozain, Bibliotekari eta Arkeologoen profesional taldeko kide zen. Bilbora etorrita, Bizkaiko Probintzia Artxibo Historikoaren zuzendaria izan zen. Kazetaritzaz den bezainbatean, *Excelsior* (1924-1931) kirol egunkariko erredaktoreburu izan zen. 1932tik aurrera, EAJ-PNVrekiko urruntasunaren erakusgarri, *La Gaceta del Norte* egunkari neokatolikoan aritu zen hil arte. EI-SEVen hainbat egitasmotan parte hartu zuen, bereziki euskal artearekin lotutakoak. EJ-GEk, besteak beste, 1937ko Parisko Erakusketa Internazionalean parte hartzeko ordezkari izendatu zuen, baina Bizkaitik ihes eginda, 1937ko apirilaren 29an Gipuzkoako gobernu zibilean aurkeztu zuen bere burua. F. Dávila jeneralaren tropek Bilbo okupatu ondoren, Burgosko Gobernu kolpistarentzat

[185] Euskaltzaindiko artxibo eta bibliotekaren zuzendari zenaren arabera, erbesteko eta Frantziako euskaltzainek une horretan Akademiako kide izaten jarraitzen zuten, baina nire ustez Euskaltzaindiaren historia politikoki leuntzeko nahiak eraman zuen ondorio horretara (cf. Arana Martija 1990: 24-25).

[186] ABA-RMA: J. Urquijoren gutuna R. M. Azkueri, 1941-05-14.

IKER-35.indd 80 2/9/19 10:55

egin zuen lan, ondare artistiko eta bibliografikoa berreskuratzeko zerbitzuan. Berak idatzi zuen, esate baterako, gerra zibilean Bizkaiko artxibo-liburutegietan gertatutakoaren dosierra Hezkuntza Nazionaleko ministerioarentzat 1938ko apirilaren 12an. Frankismoari zion atxikimenduagatik, besteak beste, bere *El Cho de Carmengo Ama* (1929) itsas nobela berrargitaratzea lortu zuen 1940ko hamarkadan. Gerraondoan, Bizkaiko Artxibo Historikoaren eta Ogasun Ordezkaritzako Artxiboaren zuzendaria izan zen, 1954an erretiroa hartu zuen arte.[187] JCVko kide oso aktiboa izan zen, batez ere artearen eta arkeologiaren arloan (*La Gaceta del Norte* 1964-05-14; Estornés Zubizarreta 1983; Alted Vigil 1984; Sebastián García 1994; Charritton 1997a; Torrealdai 1999).[188]

Nazario Oleaga

Nazario Oleaga Muguruza (1884-1961) Bilbon jaio zen. Hiriburuan lan egin zuen abokatu prestigiotsu gisa Esteban Bilbao buruzagi tradizionalistarekin. Akademiaz den bezainbatean, urgazle, toponimia batzordeko kide edota *Euskera* agerkariaren arduradun izan zen. Bizkaiera garbizalea erabiltzen zuen, neologismoak barne, adibidez, haurrei zuzendutako G. Mújicaren *El espíritu de economía* itzuli zuenean: *Zuŕtasun-gogoa* (1923). Euskara administrazioan eta hezkuntzan bultzatzeko hainbat elkarte eta egitasmotan parte hartu zuen, jeltzaleekin elkarlanean. Diktadura primorriveristan, euskaltzainburuarekin batera, euskal testuak baimentzea eskatu zion Bizkaiko gobernadore zibilari. Politikagintzan euskal autonomismo eskuindarraren alde egin zuen Errepublikan, Bizkaiko karlismoaren izenean. 1918an EI-SEVen sortzaileetakoa eta zuzenbide saileko kide izan zen. Hain zuzen, EI-SEVen Estatutuaren justizia atalaz arduratu zen. Mallabiako Udalaren ordezkari gisa, Lizarrako Estatutua onartu zuen euskal udalen batzarrean parte hartu zuen. 1936ko udan, Bizkaiko agintari errepublikanoek baimena eman zioten Burgosen bi preso ospetsuren arteko trukea burutzeko: E. Bilbao eskuindar kolpista eta E. Ercoreca Bilboko alkate errepublikanoa (Estornés Zubizarreta 1983; 1990; Oleaga 2002; Urrutia 2004; Kintana Goiriena 2008).

Euskaltzaindiko idazkari gisa, R. M. Azkue 1951n hil zen arte, euskaltzainburuaren lankide gertukoena izan zen hamar urtez. Akademiaren ekintza guz-

[187] «Orden de 15 de mayo de 1954 por la que se jubila al funcionario del Cuerpo Facultativo de Archiveros, Bibliotecarios y Arqueólogos don Juan Irigoyen Guerricabeitia», *BOE,* 1954-06-13.

[188] Lerchundi Sirotich anaiek, R. M. Azkue eta J. Urquijori bezala, erretratua egin zioten 1950 inguruan «Galería de celebridades vizcaínas» sailerako eta Bilboko Euskal Museoan gordetzen da (Álvarez & Garay Urresti 2013: 15).

IKER-35.indd 81 2/9/19 10:55

Irudia 5. **Emilia Echeverría emaztea eta Nazario Oleaga (1940ko hamarkada)**

Iturria: Euskaltzaindia.

tien koordinazioaz arduratu zen eta gerraondoan garrantzi handiko kidea izan zen. N. Oleaga autonomista euskaltzalea zen, J. Elorzaren edota J. Urquijoren karlismoaren ildokoa. L. Michelenak, adibidez, N. Oleaga hil ondoren, frankista zitekeenik ukatu egin zuen: «Don Nazario karlista zen beharbada, baina frankista? Frankista, bisitari-gelako hormak Gernika deseginaren airetikako argazkiz blei zeuzkana?» (Michelena 2011f: 272). F. Krutwigek zioenez, klandestinitateko jeltzaleekin harremana izan zuen Euskaltzaindiaren egoitzan bertan. Akademiaren autonomia ziurtatzeko egin zuen ahalegin pertsonalaren aitortza dago esaldi honetan: «Oleaga no sólo era el Secretario de Euskalzaindia, sino que actuaba también como secretario del grupo» (Krutwig 1991: 85).

Pablo Zamarripa

Pablo Zamarripa Uraga (1877-1950) Santander probintziako Laredon jaio zen, baina haurtzaroan eraman zuten gurasoen Bizkaiko Sondikara. Gasteizko elizbarrutiaren seminarioan ikasi ondoren, 1906an apaiztu egin zen. Arabako

IKER-35.indd 82 2/9/19 10:55

eta Bizkaiko hainbat herritan egin zuen lan 1906-1926 artean. Bermeoko zoroetxean jardun zuen 1926-1940 artean, eta 1940tik aurrera, egoitza horretaz arduratzen ziren Hijas de la Caridad de San Vicente de Paúl-en kapilau izan zen. Ideologiaz karlista, J. M. Urquijok sortutako *La Gaceta del Norte* egunkari neokatolikoren euskal atalaz arduratu zen. Prentsan idatzitako poesia eta narrazio komikoekin hainbat bilduma argitaratu zituen, kalitate literario eskasekoak.[189]

R. M. Azkue eta P. Zamarripa artean ika-mika bat egon zela dirudi, seguru asko 1920an D. Aguirre euskaltzain tradizionalistaren heriotzak utzitako postua lortu ez izanaren frustrazioak eraginda.[190] P. Zamarripak *Zaparradak eta* bildumako ipuin batean, R. M. Azkueren hiztegi ospetsua aipatu zuen. Txorierri haraneko hitz gehienak berarengandik jasotakoak izanik, euskaltzainburuak nolabait esker txarreko jokatu omen zuen, bera euskaltzain ez izendatuta (Zamarripa 1926: 12). N. Ormaecheak euskaltzainburuari egindako erasoa salatu egin zuen *RIEV*en, eta P. Zamarripak, zurikeria dirudienaz, J. Urquijori idatzi behar izan zion hori ukatzeko.[191]

Esperantoa, latina, gaztelania eta batez ere euskara omen zekizkien, baina ez zen gauza ikerketa filologiko sakonetan murgiltzeko.[192] Hala ere, ikasliburu interesgarriak idatzi zituen, hala nola *Manual del vascófilo* (1913). Edizioa L. Lezama-Leguizamón karlista aberatsak ordaindu zuen eta hari eskaini zion liburua. Ideologikoki diktadura frankistarekin ez zuen arazorik izan, eta 1947an *Gramática vasca* (seigarren edizioa) eta *Vocabulario vasco-castellano* (hirugarren edizioa) berrargitaratu ahal izan zituen. P. Zamarriparen gramatika-hiztegiak jatorrizko edizioan bezalaxe agertu ziren; Euskaltzaindiak araututako euskal ortografiarekin («ŕ», «tx»), eta «gotzain» bezalako neologismo jeltzaleekin (Zamarripa y Uraga 1947a; 1947b; 2011: 5-16; cf. Arejita 2012).[193]

---

[189] F. Krutwigen arabera, P. Zamarripa gaitasun intelektual urrikoa zen eta euskaltzainburuak ez zuen asko estimatzen (Krutwig 1991: 82-83; Murua Uria 1997: 69-70; cf. Agirre 2008: 81).

[190] D. Aguirrek honela idatzi zion 1907an R. M. Azkueri, azken horrek jeltzaleen kritikak jaso zituenean, *Diccionario vasco-español-francés* zela-eta: «Siento que tú no tengas toda la protección que te mereces. No me cabe duda qe. la posteridad te hará justicia, pero es posible que, por ahora, tengas que pasar aún por algunas amarguras. ¡Hay tanto envidioso! Sábete, querido, que no hay un solo carlista que no te ensalce, pero en cambio, los *bizkaitarras*... Mucho ¡Gora Euzkadi! y luego a reventar a los que más hacen en favor del País. El grito ¡gora Euzkadi!, en último término, no es otra cosa que un ¡viva yo! en boca de todos los que lo profieren» (Agirre 2008: 101).

[191] KMK-JU: P. Zamarriparen gutuna J. Urquijori, 1927-06-10.

[192] Euskaltzaindiaren Artxiboa, Antonio Tovar funtsa: P. Zamarriparen gutuna A. Tovarri, 1948-04-30.

[193] Euskaltzaindiaren Artxiboa, Antonio Tovar funtsa: P. Zamarriparen gutuna A. Tovarri, 1948-02-10. Badirudi E. Erquiagak zuzendu zituela edizio berrietako inprenta probak

IKER-35.indd 83 2/9/19 10:55

Juan Carlos Guerra

Juan Carlos Guerra Barrena (1860-1941) Donostian jaio eta abokatu gisa jardun zuen Gipuzkoako Arrasaten. Bere garaiko euskal heraldista eta genealogista garrantzitsuena izan zen, eta Real Academia de la Historia-ko kide laguntzaile izendatu zuten 1887an. Eskualzaleen Biltzarrean edota EI-SEVen ere parte hartu zuen. Berari zor zaio, adibidez, EI-SEVen «asmoz ta jakitez» goiburua berreskuratzea. Literatura lanak argitaratu zituen, baita *Los cantares antiguos del euskera* (1924) bilduma ezaguna ere. Urte horretan Unión Pátriotica alderdi primorriveristako kide izendatu zuten, baina berak uko egin zion 60 urte beteak zituelako.[194] Hain zuzen, Akademiak diktaduran (1925) izendatu zuen urgazle. Historia lanetan agertzen zuenez, monarkismo ultrakatoliko eta foruzaleari lotuta zegoen (Estornés Zubizarreta 1983; Esparza Leibar 2005: 312-313).[195]

Jaime Borbón errege-nahi karlista 1931n hil zenean, Arrasateko Círculo Tradicionalista-k haren arimaren aldeko mezara gonbidatu zuen.[196] Gerra zibilean militar kolpisten aldeko taldean zegoen. Bere artxiboan, besteak beste, Arrasateko FET-JONSek edota Arrasateko Udalak egin zizkioten eskaera ekonomikoak gordetzen dira.[197] GPDren batzorde kudeatzaile frankistak 1937ko abenduan «Junta Provincial de Archivos y Bibliotecas»eko kide izendatu zuen, J. Urquijorekin batera. 1939ko maiatzean «Junta Provincial de Cultura y Estudios Históricos» izena hartu zuen delako juntak.[198] Gainera, José M.ª Guerra semea tokiko administrazioaren sailburua zen, Ogasun ministerioaren

(Mielgo Merino 1995: 148-149).

[194] Euskaltzaindiaren Artxiboa, Juan Carlos Guerra funtsa: Unión Patriótica eta J. C. Guerraren arteko gutunak, 1924-10-14 & 1924-10-18.

[195] Bera arduratu zen, adibidez, Arantzazuko Ama Birjina Gipuzkoako zaindari izendatu zezaten Oñatiko Udalak 1912an GPDri egindako eskaria idazteaz, izendapena 1918an gertatu zelarik (Intxausti 2001: 39, 233, 283, 387).

[196] Euskaltzaindiaren Artxiboa, Juan Carlos Guerra funtsa: Arrasateko Círculo Tradicionalista-ren gutuna J. C. Guerrari, 1931-10-04.

[197] Euskaltzaindiaren Artxiboa, Juan Carlos Guerra funtsa: Arrasateko alkatearen eta Arrasateko FET-JONS milizien gutunak J. C. Guerrari, 1937-07-23 & 1938-07-27.

[198] Conde de las Quemadas presidente zuen GPDk probintziako artxibo-bibliotekak Donostian zentralizatu eta berrantolatzeko asmoa zuen. Gipuzkoako Artxibo Orokorra sortzeko proiektu betegabe hori aurrera eramateko batzordea izendatu zuen historialari monarkiko eta eskuindarrekin: A. Gaytán de Ayala, J. Rújula, C. Domínguez Lafuente, J. C. Guerra, J. M. Huarte, S. Múgica, J. Urquijo, F. Valle Lersundi eta J. Yrizar (GPD 1937b: 34-37, 42, 62-65; 1940: 87).

IKER-35.indd 84 2/9/19 10:55

Gipuzkoako delegazioan.[199] Aitaren heriotzagatik dolumin ofizialak eman zizkion GPDk, Azpeitiko I. Echeverría diputatu kudeatzailearen ekimenez. Gipuzkoako heraldista zaharra Donostiako alkate tradizionalistarekin (A. Paguaga) ere harreman onetan zegoen, eta uste izatekoa da Gipuzkoako agintarien diru laguntza bideratzeko izendatu zutela euskaltzain, agian J. Urquijok iradokita.[200] Baina ordurako 80 urte beteak zituen, eta hiru batzarretara baino ez zen agertu, 1941eko urriaren 2an hil baitzen (*El Diario Vasco* 1941-10-03; GPD 1942: 249; 1943: 59).

Hil horretako Akademiaren batzarrean heriotzaren berri eman eta otoitz egin zuten. A. Irigarayk J. Urquijori idatzitako gutunean hilberri akademikoaren antzekoa idatzi zuen, aldi berean Mundu Gerrako giroak areagotutako ezinegona erakusten zuten interpolazioekin:

> Con gran sentimiento oigo decir q. ha muerto D. Juan Carlos Guerra y no quiero dejar de comunicarlo a la Academia del vascuence por mediación de U. No merece menos y sin duda no faltará su adecuado panegirista, que recuerda el infatigable recopilador de las viejas leyendas vascongadas de Mondragón, con su labor tan fuerte, no exento de encanto para el aficionado a la Historia de aquellos años un tanto sangrientos (y otro tanto parecidos a los actuales en que nuevamente se exaltan los valores individuales y el arrojo y el desprecio de la vida, demasiado oscurecidos hasta hoy por otros sentimiento de vida muelle y confortable)... y nos desviamos del llorado folk-lorista mondragonés; sin olvidar al ameno comentarista de antiguos documentos de la Historia de nuestro País, y vulgarizador de las bellas leyendas suletinas del siglo XV, amén del consagrado heraldista q. todos consultan.[201]

---

[199] J. M. Guerra Palacios GPDko udal aurrekontuen sailburua zen oposizio bidez 1922ko ekainetik. Eskuindar kolpistekin guztiz identifikatuta, 1936ko urriaren 26an lanpostuan berriz onartua izateaz gainera, 1936ko irailaren 19tik GPDren batzorde kudeatzailearen idazkaria izan zen, J. M. Leizaolak utzitako postua betez. Bizkai-Gipuzkoetako kontzertu ekonomikoak ezabatzen zituen lege-dekretuaren ondorioz, Ogasun ministerioaren probintzia delegazioaren tokiko administrazioaren bulegoburu izendatu zuten 1937ko irailaren 16an, Conde de Vastameroli diputatu kudeatzaileak proposatuta (GPD 1937a: 12-13, 26; 1937b: 16-17; Bruces & Querejeta 2016: 102, 336).

[200] Euskaltzaindiaren Artxiboa, Juan Carlos Guerra funtsa: A. Paguagaren gonbita J. C. Guerrari, 1939-10-09.

[201] KMK-JU: A. Irigarayren gutuna J. Urquijori, 1941-10-25.

IKER-35.indd 85 2/9/19 10:55

Eladio Esparza (eta **Príncipe de Viana** *aldizkaria)*

Eladio Esparza Aguinaga (1888-1961) Lesakan jaio zen, Nafarroako eremu euskaldunean. Iruñeko *La Voz de Navarra* egunkari jeltzaleko zuzendari izan zen 1923-1925 artean, Lesakako Udalaren idazkari izendatu zuten arte. Ondoren, jeltzaleengandik aldenduta, *Diario de Navarra* eskuindarreko zuzendariorde lanetan aritu zen. Nafarroako politikagintza antiabertzalearen eta Autonomia Estatutuaren aurkako ideologo nagusietakoa bilakatu zen. Errepublikaren aurkako konspirazio lanetan aritu zen egunkariko zuzendaritzarekin. Gerra zibilean Nafarroako karlisten prentsa eta propaganda arduradun izan zen eta, diskurtso oso gogorra (besteak beste, EI-SEVen aurka) erabiliz, falangistekin bateratzearen alde egin zuen. Zerbaitegatik barojatarrek «Elodio Esparce» ezizen paronimoa jarri zioten (Mikelarena Peña 2017: 331).

Hain zuzen, F. Yzurdiaga apaizaren bidez, Falange-ren probintziako prentsa arduradun izatera iritsi zen 1936an eta talde horretako idazleekin harremana izan zuen. Are Iruñean unibertsitate bat sortzeko egitasmo betegabean ere parte hartu zuen beste eskuindar nabarmen batzuekin batera. Hurrengo urteko irailetik 1938ko abuztura arte Arabako gobernadore zibil izan zen. Errepresio eta depurazio lanetan buru-belarri aritu zen, probintziako tradizionalismoari FET-JONSen «politika berria» erantsiz. Nafarroako foruzaletasuna V. Praderaren eta *Acción Española* aldizkariaren bide autoritario kontrairaultzailetik ulertu zuen. Hala ere, euskararen aldeko nolabaiteko jarrera izan zuen, frankismoari zion leialtasuna erabatekoa izanagatik (Berruezo Albéniz 1988; Azcona Pastor & Gortari Unanua 2001; Cantabrana 2009; Mikelarena Peña 2013; Berriochoa Azcárate 2018).[202]

Conde de Rodezno presidente zuen NFDk 1940ko abuztuaren 21ean sortu zuen Institución Príncipe de Viana. CSICen Nafarroako ordezkaria izan zen, eta probintziako kultura gaiak ikuspegi frankistatik landu zituen gaztelaniaz. Erresuma zaharreko ondare artistikoa zaintzea, ikerketa sustatzea eta kultura dibulgatzea ziren Institución Príncipe de Viana-ren proiektuak. Estatutuetan, Nafarroak estatu kolpean izandako zeregina goraipatzen zen. E. Esparza *Príncipe de Viana* aldizkariko arduradun gisa, erakundearen zuzenda-

[202] Iruñeko egunkari primorriveristan idatzi zituen hitz hauek monarkiaren azken aldian: «El vascuence requiere ser hablado. Eso es todo. La Diputación de Barcelona celebrará sus sesiones en catalán. La ley le autoriza. Los diputados saben su lengua. Y la hablan. Cuando nosotros lleguemos a eso, podremos compararnos, en ese punto, con Cataluña» (apud *El Día* 1930-06-15). Zenbaiten arabera, Arabako gobernadore zibil kargutik kendu zuten Aramaion euskarazko hitzaldia emateagatik (García-Sanz, Iriarte & Mikelarena 2002: 80).

IKER-35.indd 86 2/9/19 10:55

ritzako kide zen. Aldizkaria, San Francisco de Javier (SI) egunean argitaratu zen lehen aldiz, 1940ko abenduaren 3an. CSICek *Hispania* aldizkariarekin ezarritako norabidea jarraitzen zuen tokiko lehen aldizkaria izan zen. E. Esparzak berak *Pequeña historia del Reino de Navarra* (1940) liburuan egin zuen bezala, aldizkariak Estatu totalitarioko herritarrari espainiar kontzientziaren oinarri zientifikoa eskaintzea zen helburu nagusia (Institución Príncipe de Viana 1940; Donézar Díez de Ulzurrun 1993: 622).

E. Esparza 1950eko hamarkadara arte izan zen aldizkariaren zuzendaria.[203] Euskaraz den bezainbatean, 1943ko «El vascuence en el Libro del Buen Amor» iruzkinean, R. Menéndez Pidal eta R. Lapesaren lanetan oinarritu zen, euskarak gaztelanian izandako eragin lexikoa azaltzeko. Urte bereko «Nuevas investigaciones sobre Lengua Vasca» berri laburrean, CSICen *Emerita* aldizkariko gehigarrian argitaratutako «A propos de l'origine du Basque» artikuluaren ondorioak azaldu zituen (Fouché 1943). Euskarak, historiaurreko hizkuntza autoktonoarekin nahastutako hiru osagai zituen: kaukasiarra, kamitikoa eta altaikoa. Euskal etnia berezkorik ez zegoen, historiaurretik izan ziren nahastuak eta garaituak. Tesiaren presentismo politiko antiseparatista nekez igaro zitekeen oharkabean: «Los Iberos debieron absorber gran cantidad de elementos magdalenienses y altaicos que no los poseía su lengua, en su contacto con los grupos pirinaicos que sometieron» (Esparza 1943: 234).

---

[203] Nafarroako A. Irigarayk edota J. Aguerre urgazleak ez zuten *Príncipe de Viana*n artikulurik argitaratu E. Esparzak zuzendaritza utzi arte. Erbesteko D. de Inza euskaltzainak, inoiz ez. A. Irigarayri artikuluak argitaratzea eskaini ziotenean, uko egin omen zion euskaraz ezin zuelako egin (Akesolo 1989: 673). E. Esparza zuzendariak historia eta literaturako gai laburrak landu zituen aldizkarian: «Elige Ignacio a Francisco para la India», «La fruta del cercado ajeno» (1940); «Notas sobre el antecedente histórico de la ley de 1841» (1941); «El príncipe de los poetas hebraico-españoles era navarro», «Sobre el espíritu clásico del Greco» (1942); «San Juan de la Cruz (1542-1591)», «Un Códice Sanjuanista en Pamplona», «Juan Osés Mayanz», «El vascuence en el Libro del Buen Amor», «Nuevas investigaciones sobre Lengua Vasca», «A fuerza y remo» (1943); «Tres noticias curiosas», «El Tratado de la Virginidad de María, de San Ildefonso, en Navarra», «La familia de Fray Diego de Estella» (1944); «Sobre la representación, en Lesaca, en 1566, de la *Pasión Trovada* de Diego de San Pedro», «Doña Juana Enriquez, madre del Rey Católico» (1945); «El Concilio de Trento y los arciprestazgos de la Diócesis de Bayona», «Una ilustre figura navarra sale del injusto olvido» (1946); «Lo que dijo Tiers de la toma de la Ciudadela de Pamplona, en 1808», «Notas sobre la Guerra de la Independencia en Navarra» (1947); «Breves noticias históricas», «Galantería y obsequiosidades municipales del siglo XVIII» (1948); «Los sistemas electorales en Navarra y un caso curioso de *natural del Reino*», «El P. Moret y la toma de Toledo por Alfonso VI» (1949) edota «Sobre el soneto, *no me mueve, mi Dios*» (1950) (cf. Mariezkurrena Iturmendi 2009).

IKER-35.indd 87 2/9/19 10:55

Ángel Irigaray

Ángel Irigaray Irigaray (1899-1983) Nafarroako Beran jaio zen. Fermín Irigaray «Larreko»ren (1869-1949) semea zen, Iruñeko probintzia ospitaleko burua. Aita urgazle zen Akademiaren sorreratik eta semea 1929an izendatu zuten urgazle. «Larreko» mende hasieran Nafarroako integrismoaren buruetako bat izan arren, 1913an EAJ-PNVren hautagaia izan zen probintzia hauteskundeetan, baina ez zuen diputatu izatea lortu. Aita-semeak Iruñeko jeltzaleen elkarte eta prentsan elkarrekin aritu ziren, bereziki Errepublikan (Chueca Intxusta 1999: 428). Atzegoardiako errepresio bortitza hasi zenean, Ángel semearen izena agertu zen salaketen zerrendan. Ikaratuta, Frantziako Sarara ihes egin zuen, Mª Rosa Imaz emazte ezkonberria Iruñean utzita. Orduan, Nafarroako Probintzia Diputazioko presidente eskuindarrak, Juan Pedro Arraizak (1877-1966), EI-SEVen zuzendaritzan probintzia ordezkari ere bazenak, aitari deitu zion adierazteko semeak arrisku gehiago zuela iheslari gisa agertuz gero. Aitari pasaporte berezia eman zioten 1936ko abuztuaren 2an semearen bila joan zedin. A. Irigaray ez zen fidatzen, baina I. Gomá primatuaren gertukoa zen J. P. Arraizaren bermea zutenez, itzuli egin zen Iruñera. «Larreko»ren alde, bestalde, M. Olaechea Iruñeko apezpikua mintzatu zen. Gerra zibilean erretiroa hartzea egokitzen zitzaion arren, Iruñeko ospitaleko buru izaten jarrai zezala eskatu zioten, eta hala egin zuen 1943 arte. Aitak egutegi bat idatzi zuen 1936-1940 artean, Iruñeko izu giroa eta abertzale kontserbadore baten ezinegona islatzen zituena. Adibidez, «Larreko»k beldurrarekin nahasten zen errespetuz jarraitzen zituen E. Esparza «euskaltzaleak» *Diario de Navarra*n esaten zituenak (Estornés Zubizarreta 1983; Irigaray 1993; García-Sanz Marcotegui & al. 1998; Bidador 2003).

Formazioz medikua izanagatik, A. Irigaray euskararen geografia historikoan eta literaturan aditua zen eta liburu bilduma aberatsa osatu zuen aitaren edota J. Urquijoren laguntzarekin. Hain zuzen, euskaltzain karlistak gonbidatuta, *RIEV*en idazteaz gain, Hagako «Congrès International de Linguistes» delakoan parte hartu zuen eta hurrengo urtean izendatu zuten urgazle (*Euzkadi* 1928-04-20). Esan bezala, Errepublikan A. Irigarayren etorkizunak oparoa zirudien Nafarroako abertzaletasunean. EI-SEVen idazkariorde izendatu zuten, ELA-STV sindikatuan izena eman, eta jeltzaleek Irlandara egindako bidaian parte hartu zuen. Dena dela, Bizkaiko EAJ-PNVren aurrean, ikuspegi liberalago eta kulturalista zuen, besteak beste, euskararen eredu literarioan ere isla zuena. Lanpostua utzi egin zuelako, 1937ko maiatzaren 18an Iruñeko Udalak mediku karguaz gabetu zuen. Mediku lanpostu berria ez zuen 1942 arte aurkitu, Hondarribian, eta hurrengo urtean Gipuzkoan ezarri zuen bizitokia familiarekin (Irigaray 1985; Agirreazkuenaga & al. 1998). Dena dela, gogoz kontra

IKER-35.indd 88 2/9/19 10:55

onartu zuen euskaltzain izendapena, eta A. Irigarayren susmo txarrak ez ziren uxatu. 1942ko apirilean, Iruñetik gutun hau idatzi zion Bilboko idazkariari:

> La última vez que me escribió Vd. citándome a la reunión de la Academia, estuvo detenida la carta, por equivocación del cartero, varios días en casa de mi vecino. Mucho le agradeceré que cuando me escriba, téngame la atención de hacerlo en sobre sin membrete de la Academia, así como también al dar a la Prensa la nota de los reunidos en las sesiones, silencie mi nombre.[204]

Ignacio M.ª Echaide

Euskaltzaindiak zailtasun asko zituen frankismoak ezarritako baldintza pertsonalak betetzeko, euskaltzale sutsuenak abertzaleak zirelako, erbesteratuak edota zigortuak. 1942ko martxoaren 26an, Donostian batzartu ziren R. M. Azkue, J. Urquijo, A. Irigaray eta N. Oleaga. Hildako J. C. Guerraren ordezko, I. M. Echaide hautatu zuten, lehenago urgazle izan ez zen beste salbuespen politiko bat (Euskaltzaindia 1956: 320).[205]

Ignacio M.ª Echaide Lizasoáin (1884-1962) industria ingeniaria Donostian jaio zen. Gipuzkoako goi burgesiako kide zen, eta 1907an hasi zen lanean GPDn. Probintziako telefono sarearen zuzendari izendatu zuten eta Donostialdeko telefonia automatizatzean aitzindari izan zen 1926an. Besteak beste, euskararen ezagutza meritu gisa sustatu zuen zenbait lanpostutarako. 1949 arte izan zen Gipuzkoako telefoniaren arduraduna, probintziak eskumen hori behin betiko galdu zuen arte. Euskaraz ez zen erosotasunez moldatzen, baina gaztelaniaz ederki idazten zuen, korrespondentzian ageri duenez. Ideologiaz den bezainbatean, muturreko integrista zen.

Besteak beste, *Programa integrista explicado* (1925) liburuan, R. Nocedal, Félix Sardá eta M. Menéndez Pelayoren ideiak sutsuki aldeztu zituen, nazionalismo espainola eta ortodoxia katolikoa uztartuz. Euskalaritzan batez ere aditzaren azterketan nabarmendu zen, baina ez litzateke *Telefonoa'ren sortze ta aurrerapena* (1929) hitzaldiko saio terminologikoa ahaztu behar.[206] Gipuzkoako integristen artean euskarazko eskolak eta teatro lanak antolatzen aritu

---

[204] ABA-EUS: A. Irigarayren gutuna N. Oleagari, 1942-04-18. Susmoak gorabehera, ez dirudi Akademiak artean batzarren prentsa oharrak egiten zituenik.

[205] ABA-RMA: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari eta R. M. Azkueri, 1942-04-24.

[206] *Diccionario general vasco = Orotariko euskal hiztegia* delakoan jaso gabe dagoena (cf. Montejo Garai 2003).

IKER-35.indd 89 2/9/19 10:55

zen, R. Inzagaray eta M. Lecuona apaizen laguntzarekin. Errepublikan Lizarrako Estatutuaren alde egin zuen, gainerako eskuindarrek begi onez ikusi ez zutena. Dena dela, politikagintza ez zuen lehentasun izan, eta 1928 inguruan alderdi integristatik kanporatu zuten bere moral katoliko hertsiak alderdien posibilismoari lekurik uzten ez ziolako.

GPDko telefonia zerbitzuak zuen garrantziagatik eta lankideen artean zuen ospeagatik, gerra zibilean Gipuzkoako errepublikazaleek, Jesús Larrañaga gerra komisario komunistak barne, ez zuten beraren aurka egin. Berak ere hainbat lagun babestu zituen gerraondoko errepresiotik. Eskuindar kolpistek Donostia okupatu baino egun batzuk lehenagotik gordeta egon ondoren, GPDko lanpostuan onartu zuten berriz ere 1936ko urriaren 26an. Lehenago diktadura primorriveristarekin gertatu bezala, «somaten»eko kide izan baitzen, erregimen frankista behar-beharrezko ikusi zuen. Halaber, Gipuzkoako hainbat finantza eta industria erakundeko (Alfa, CAM, Banco de San Sebastián, etab.) administrazio kontseiluetan parte hartu zuen.

Probintziako agintari frankistekiko zubi lana egin zezakeen, eta oso kontuan hartu zuten hori euskaltzain izendatu zutenean. Are Akademiaren batzarrak ere I. M. Echaideren probintzia jauregiko bulegoan egiten hasi ziren une batetik aurrera. R. M. Azkue hil ondoren, berak hartu zuen Euskaltzaindiaren zuzendaritza. 1947ko udan M.ª Dolores Itarte emaztea galdu eta bere kargu geratu ziren bederatzi seme-alabak. Gizon ikaragarri zorrotza zen, itxura fisikoan islatzen zena, eta harreman zaila izan zuen Jon Echaide seme eta idazle abertzalearekin (GPD 1937a: 26; Etxaide-Itharte 1985; 1986; Ibisate Elícegui 1998).

2.5. EUSKALTZAINDIAREN EGOERA EKONOMIKOA ETA LAGUNTZA OFIZIALAK

Euskaltzaindia berrabiatzeko baimen politikoa lortuta, berehalako arazo nagusia aurrekontuarena zen. Akademiak hasieratik izan zituen baliabide estutasunak, baina gerraondoko depresio ekonomikoan bizirauteko gutxieneko jarduera zalantzakoa zen. JCVk urtero 5.000 pezetako diru laguntza agindu bezain laster, Gipuzkoako F. Castañedari, gerra zibilean diputatu kudeatzaile izandakoari, idatzi zion R. M. Azkuek laguntza eske:

> La Junta de Cultura de la Diputación vizcaína se empeña en que esta Academia de la Lengua Vasca siga funcionando como antes y al efecto pondrá en sus manos la cantidad de cinco mil pesetas anuales. ¿No podrían Ustedes conseguir que hiciera otro tanto la Junta de Cultura de esa Ex[c]ma Diputación? Haga V.

IKER-35.indd 90 2/9/19 10:55

un esfuerzo, y procure V. conseguir que la Caja de ahorros municipal de San Sebastián dé, como dan las dos cajas de ahorros de aquí, mil pesetas anuales con idéntico objeto.[207]

Bestalde, gestio horien konnotazio politikoak begi bistakoak ziren. Euskaltzainburuak 1941eko irailean I. Lasquibar Donostiako artzapez karlistari idatzi zion, GPDren diru laguntza ziurtatzeko:

> Creo haberte dicho alguna vez que esta Academia funciona de nuevo, aunque modestamente. El jueves próximo, como último del mes, nos reuniremos ahí de once a trece, en San Telmo. Otra reunión (esta será de una entidad especial, formada de la Junta de Cultura de esta Diputación y algunos otros elementos) tendrá lugar de tres a cinco de la tarde, probablemente en la Diputación. Entre otras cosas se tratará de acercarnos a algunos señores Diputados para conseguir que esa Corporación contribuya como esta de aquí, al sostenimiento de la Academia.
>
> Seguramente gozarás tú de no poca influencia cerca de varios Diputados. Y te ruego que hagas uso de ella, ya desde ahora o bien después de nuestra junta del jueves, como te parezca. Antes de salir de ahí te daré noticias de lo acordado y tú me darás, espero, noticias, que aquí no tenemos, de traslados y nombramientos de Monseñores.[208]

1941eko irailaren 25eko batzarrean, hain zuzen, ohi baino euskaltzain gehiago bildu ziren Donostian, gutunean adierazitako gaiak eztabaidatzeko: R. M. Azkue, J. Urquijo, R. Inzagaray, P. Zamarripa, J. Irigoyen, J. C. Guerra eta N. Oleaga (Euskaltzaindia 1956: 318-319).[209] 1942ko martxoan, Bilboko

---

[207] ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna F. Castañedari, 1941-02-06. Fernando Castañeda, orobat, Donostiako alkateorde eta San Telmo museoko batzordekide izan zen. Museoko batzordea, 1938ko abenduan kexu zen IdeE-k ez zituelako inoiz gonbidatu, ekitaldi publikoak museoan egin arren (San Telmo Museoaren Artxiboa: San Telmo museoko batzordearen akta, 1938-12-02).

[208] ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna I. Lasquibarri, 1941-09-22. Donostian jaiotako Ignacio Lasquibar Olaciregui (1866-1952) teologia sakratuan eta zuzenbide kanonikoan doktorea zen. R. M. Azkue adiskideak bezala, Gasteiz eta Salamancan ikasi zuen. 1923tik aurrera izan zen Buen Pastor elizako erretore eta gerra zibiletik Donostiako artzapeza. 1952ko otsailean Donostiako katedraleko dean izendatu zuten eta 1953ko martxoan hil zen (Jose Angel Garro Donostiako Elizbarrutiko Artxibo eta Bibliotekako zuzendariaren komunikazio pertsonala, 2016-01-14; Antía Munduate 1999: 275-276; Urkia Etxabe 2006: 297).

[209] Une horretan E. Querejeta tradizionalista zen GPDko presidentea eta gainerako diputatu kudeatzaileak hauek ziren: A. Caravaca, M. Sagardía, I. Echeverría, J. R. Aguirreche, S. Altuna, A. Ubarrechena eta D. Tellería. Bestalde, M. Ciriquiain zen koporazioko idazkari berria (cf. GPD 1942: 233).

IKER-35.indd 91 2/9/19 10:55

CAMek 1.000 pezetako diru laguntza eman zuela adierazi zuen Akademiaren batzarrak. 1943ko otsailean, berriz, A. Brunet katoliko independentea presidente zuen GPDk urtero 3.000 pta. ematea erabaki zuela jakinarazi zuen euskaltzainburuak. J. Yrizar GPDko presidenteordeak eta I. M. Echaide euskaltzain berriak egin zuten bitartekari lana. [210] Bilbon batzartuta zeuden akademikoek pozik entzuten zuten berri hura (Euskaltzaindia 1956: 321-322). Euskaltzaindiak gerra zibilera arte 26.000 inguru pta. jaso zituen urtero Euskal Herriko instituzio ofizialetatik, baina Bizkai-Gipuzkoetako diputazioen 8.000 pta. horiek osatu zuten Akademiaren urteroko aurrekontua 1940ko hamarkadan, gastuak berdintzeko aski ez zena.[211] Diru laguntza pribaturik ez zen inoiz jaso. Horrek Kataluniako gizarte eredutik erabat aldentzen zuen. Ezagutza ofizialik ez zuen Institut d'Estudis Catalans-ek, esaterako, 170.000 pta. jaso zituen urtero 1940ko hamarkadan, mezenas eskuindarrez osatutako «Benéfica Minerva» elkartetik (Balcells, Izquierdo & Pujol 2007: 22-35).

8.000 pezetako aurrekontuarekin ezinezkoa zen JCVk Akademiari agindutako proiektuak betetzea, batez ere argitalpenen arloan. 1942ko urrian R. M. Azkueren eskuetara iritsi zen Real Academia Gallega-k gerraondoan argitaratutako agerkariaren lehen zenbakia, urte horretako urtarrilekoa. Asaldatuta geratu zen han irakurritakoarekin: «En la actualidad el Ministerio concede a la Academia 4.500 pesetas anuales y ha satisfecho un año de atrasos el de 1939 confiándose en percibir los restantes» (Barreiro Noya 1942: 316). Berehala, A. Tovar Salamancako Unibertsitateko katedradun berriari antzeko diru laguntza bideratzea eskatu zion.[212] Institución Príncipe de Viana-k Nafarroan, RSVAPek Gipuzkoan edota JCVk Bizkaian bideratu ahal izan zuten argitalpen plangintzarekin erkatuta, Akademiaren ekintzak mugatzeko asmoa igartzen da tokiko instituzio frankisten diru laguntzen politikan.

Erkatu ditzagun JCV eta Akademiaren garai bereko aurrekontuak. Euskaltzaindiaren 1947ko diru sarrerak 8.387,47 pezetakoak izan ziren eta gastuak, ordea, 10.192,30 pezetakoak. Diru iturriak hauek ziren: JCV (5.000 pta.), GPD (2.994,75 pta.) eta aurrezki kutxetako etekinak gehi liburuen salmentak (391,72 pta.). Gastuak, aldiz, honela banatu ziren: egoitzaren alokai-

[210] ABA-RMA: I. M. Echaide eta R. M. Azkueren arteko gutunak, 1942-12-30 & 1943-01-19.

[211] 1920-1930eko hamarkadetan, Akademiaren aurrekontua 26.000 pta. ingurukoa izan zen urtero. JCVk ematen zituen 5.000 pezetak, diktadura primorriveristan BPDn nagusi ziren monarkiko antiabertzaleek ezarritako gutxieneko kopuru bera zen (Kintana Goiriena 2008: 593-596).

[212] ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna A. Tovarri, 1942-10-07.

IKER-35.indd 92 2/9/19 10:55

rua eta mantentzea (2.560,10 pta.), langileen soldatak (3.220 pta.), lexikografia batzordea (3.040 pta.) eta batzarretako dietak (1.372,20 pta.). Urteko defizita, 1.804,83 pezetakoa, aurreko urteetan metatutako 6.953,85 pezetako superabitari esker kitatu ahal izan zuten. 1948ko saldo positiboa 5.149,02 pezetakoa izan zen, beraz.[213]

Kontuan hartu behar da BPD eta GPDek gutxieneko autonomia fiskala eta gastu ahalmena galdu zituztela kontzertu ekonomikoen ezabatzearekin. Hala ere, JCVren 1946ko diru sarrerak 85.471,40 pezetakoak izan ziren eta gastuak, aldiz, 84.524,60 pezetakoak. 1947ko saldo positiboa 946,80 pezetakoa izan zen, beraz.[214] J. B. Merino JCVren diruzain eta behin-behineko idazkariak 1947rako 102.500 pezetako aurrekontua aurreikusi zuen, honela banatuta: indusketak (5.000 pta.), hitzaldiak (15.000 pta.), argitalpenak (35.000 pta.), idazkaritza eta gastu orokorrak (20.000 pta.), Euskaltzaindiari diru laguntza (5.000 pta.), monumentu artistikoen zaharberritzea (18.000 pta.) eta ustekabeko gastuak (4.500 pta.).[215] Ikusi berri dugun Euskaltzaindiaren urte bereko gastuak baino hamar aldiz gehiago, alegia. JCVk bere urteko gastuen %4,87 eskaintzen zion Euskaltzaindiari. 1940ko hamarkadan JCVk BPDtik jasotzen zuen urteko 50.000 pezetako aurrekontu nagusia, baina argitalpen eta bestelako proiektu zehatzetarako aparteko diru laguntzak ematen zizkion. 1947ko urtean, esaterako, JCVk guztira 167.178,11 pta. mobilizatu zituen, baina hala ere 1.010,08 pezetako soberakina izan zuen.[216]

Gainera, CSICen «Patronato *José M.ª Quadrado* de Estudios e Investigacionaes Locales» sortu berritik urtero diru laguntzak jasotzen hasi zen: 1947an 5.000 pta., 1948an 10.000 pta. eta 1949an 15.000 pta.[217] JCVren aurrekontuak bultzada handi bat jaso zuen 1951tik aurrera, Bilboko Udala bere egituran integratu eta udalak beste 50.000 pta. ekarri zizkionean.[218] Bestalde,

---

[213] ABA-EUS: G. Maidagan diruzainaren 1947 urteko kontu errendapena. Errendapen hori Akademiaren 1948ko apirilaren 2ko batzarrean aurkeztu zuten, R. M. Azkue, J. Urquijo eta N. Oleaga besterik ez zeudela (Euskaltzaindia 1956: 329).

[214] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1947-01-23, Junta de Cultura C-62.

[215] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1946-09-13, Junta de Cultura C-62.

[216] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1947-12-30, Junta de Cultura C-62.

[217] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1947-10-02, 1948-10-07 & 1949-10-13, Junta de Cultura C-62.

[218] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1951-05-09, Junta de Cultura C-62.

IKER-35.indd 93 2/9/19 10:55

1947tik aurrera, Euskaltzaindiari eskainitako kopuru finkoaz gain, Asociación de Artistas Vizcaínos delakoari ere 2.000 pta. hasi zen ematen.[219]

Donostian 1947ko martxoko batzarrean, I. M. Echaideren ekimenez, aurrezki kutxei diru laguntzak eskatzea erabaki zuen Akademiak. Berariaz prestatutako idazki luzean, euskararen espainiartasuna, Alfonso XIII.aren herri hizkuntzaren aldeko hitzak, R. M. Azkue eta J. Urquijoren RAEko izendapen primorriveristak, edota euskal erakundearen izaera zientifiko eta apolitikoa argi utzi zituen euskaltzainburuak. Diru laguntza gehiago behar zituzten batzarrak sarriago egiteko, biblioteka osatzeko eta argitalpenetarako.[220]

Arrazoibide bera oinarri hartuta, 1949ko urtarrilean euskaltzainburuak JCVri diru laguntza handitzea eskatu zion.[221] E. Calle Iturrino JCVko idazkariak 1949ko otsaileko batzarrean eman zuen eskariaren berri, baina geroratu egin zuten erabakia: «Se dio cuenta de una comunicación de la Academia de la Lengua Vasca, solicitando aumento de la subvención y se acordó esperar a conocer el resultado de las actividades editoriales para decidir lo precedente».[222] Euskaltzainburuak ez zuen etsi eta apirilean berriz jo zuen J. Ybarra BPDko presidentearengana:

> Como dije a V. días pasados; la ayuda que recibimos de esa Diputación (que tan dignamente preside Vsted) de cinco mil pesetas anuales, es insuficiente para que pueda decorosamente vivir esta Academia.
>
> Antes tenía dos sesiones en cada mes, ahora una sola cada dos meses. Y la comisión, que diariamente trabaja en elaborar la traducción del Diccionario español al vascuence, no ha percibido ni un céntimo siquiera desde hace más de un año.
>
> Por lo cual le ruego encarecidamente que de cinco suba a Diez mil pesetas anuales la cantidad que recibimos de la Diputación.
>
> Con esta ayuda podremos tener en adelante el mismo número de sesiones que antes teníamos.[223]

---

[219] FAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1947-12-30, Junta de Cultura C-62.

[220] ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna aurrezki kutxetako zuzendaritzei, 1947-04-17.

[221] BFAH-EC: R. M Azkueren gutuna JCVri, 1949-01-27, Junta de Cultura C-40 -01-.

[222] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1949-02-28, Junta de Cultura C-62.

[223] BFAH-EC: R. M Azkueren gutuna J. Ybarrari, 1949-04-06, Junta de Cultura C-40 -01.

IKER-35.indd 94 2/9/19 10:55

Erantzun positiborik izan ez zuenez, Euskaltzaindiak berriz erabaki zuen diru laguntza ofizial gehiagoren bila joatea, 1949ko iraileko batzarrean (Euskaltzaindia 1982: 7). Euskaltzaindiak ekonomikoki hondoa jo zuen eta ez zen gerraurreko mailara hurbilduko 1950eko hamarkadaren erdialdea pasa arte. 1940ko hamarkadan urtero 10.000 pta. inguruko gastuak zituen eta, aipatu berri dugun 1947ko kasuan bezala, diru sarrera ofizialekin ez zen iristen kontuak berdintzera, ezta aurrezkirik metatzera (Euskaltzaindia 1956: 329). 1950eko martxoan R. M. Azkuek NFDri diru laguntza eskatu zion. Maiatzean, urtero Akademiari 5.000 pezetaz laguntzea erabaki zuen NFDk (Jimeno Jurío 1996: 514-515). Urte horretan, gainera, Gipuzkoako CAPek 2.000 pta. eman zituen eta Bilboko Udalak, 1.000 pta. Urte horretako diru laguntzak guztira 16.000 pezetakoak izan ziren. Bazirudien Akademia ekonomikoki lasaiago egongo zela, baina, ikusiko dugunez, berehala arazoak sortu ziren diru laguntzak ematen zituzten erakundeekin.[224]

Diru laguntzen eskasak, zeharkako zentsura azken finean, geldiarazi egin zituen Akademiaren argitalpenak 1940ko hamarkadan. 1942ko martxoan, Víctor Gaubeca (1894-1979) editoreak aurkeztutako idazkiaren berri eman zen. *Euskera* agerkariaren 1936-1937ko azken bi zenbaki monografikoak zor zizkioten.[225] Akademiak ez zuen erabakirik hartu, alde batetik, dirurik ez zuelako zorra ordaintzeko eta, bestetik, ez zelako garai egokia argitalpenei berriz ekiteko (Euskaltzaindia 1956: 320). Bi urte igaro ondoren, haserre, Bermeoko editore jeltzaleak eskaria berritu zuen.[226] 1944ko apirilean horren berri eman zuen Akademiaren batzarrak, eta azkenean 2.108 pezetako zorra urrian ordaindu zioten.[227] Garai hobeen zain, 1936-1937ko *Euskera*ren azken bi zenbaki monografikoek (S. Altube eta J. A. Moguelen lanekin) banatu gabe jarraitu zuten.[228] 1949an, orobat, Société de Linguistique de Paris ospetsuak 1945-1949 arteko kotizazioak erreklamatu zizkion Akademiari: 2.300 franko guztira.[229] Bestalde, Akademiaren bibliotekarako egindako erosketa apurren artean, Gasteizko *Vida Vasca* aldizkariaren zenbaki batzuk agertzen dira.[230] Horregatik, Euskaltzaindia batzarrak egin eta dosierrak irakurtzera mugatu zen, agerkari berriemailerik ezean, erudituen bilera pribatuak zirelarik.

---

[224] ABA-EUS: G. Maidaganen kontabilitate liburua, 1941-1950.

[225] ABA-RMA: V. Gaubecaren gutuna Euskaltzaindiari, 1942-03-10.

[226] ABA-RMA: V. Gaubecaren gutuna Euskaltzaindiari, 1944-03-04.

[227] ABA-EUS: V. Gaubecaren ordainagiria, 1944-10-11.

[228] ABA-RMA: V. Gaubecaren gutuna Euskaltzaindiari, 1944-06-20.

[229] ABA-EUS: Société de Linguistique de Paris-en txartela R. M. Azkueri, 1949-10-18. Akademia Société de Linguistique de Paris-eko kide zen 1921etik aurrera.

[230] ABA-EUS: *Vida Vasca* aldizkariaren ordainagiria, 1945.

IKER-35.indd 95 2/9/19 10:55

2.6. EUSKALTZAINDIAREN «DICCIONARIO ESPAÑOL-VASCO» EGITASMOA

JCVren 1941eko aginduaren arabera, Euskaltzaindiaren argitalpen nagusia *Diccionario español-vasco* delakoak izan behar zuen, aspalditik zetorren egitasmoak. Euskara estandarra arauturik gabe zegoen neurrian, garrantzi handiko urratsa zitekeen Euskaltzaindiak gaztelania-euskara hiztegi normatibo bat argitaratzea, artean 1920ko ortografia baitzen Akademiak zehaztutako arau bakarra. Euskaltzainburua bera hasi zen *Diccionario vasco-español-francés* (1905-1906) alderantzikatzen Akademia sortu aurretik. *Diccionario español y vasco* (1916a) delakoaren bost liburuki (320 orrialde) argitaratu zituen Bilbon «a-borceguinería» arteko hitzekin. 1905-1906koan ez bezala, neologismoak eta glosak onartu zituen, literatura hiztegi normatibo bat sortzeko nahia erakusten zuena. Baina urte berean R. de Bera (OFMCap) eta I. López Mendizábalen *Diccionario castellano-euzkera = Euzkel-eŕdel-iztegia* argitaratu zuten arrakasta handiarekin (1930eko hamarkadan bigarren edizioa izan zuen), R. M. Azkueren proiektua neurri handian zapuztuta. Euskaltzainburuak Tolosako editore jeltzaleari ez zion inoiz barkatu *Diccionario vasco-español-francés*i ustez egileak berak baino etekin handiagoa atera izana (Sarasola 2006: 897-901).[231]

Euskaltzaindia sortu ondoren, EI-SEVen 1922ko biltzarrean Akademiaren gaztelania-euskara hiztegi handiari ekitea erabaki zuten. Diktadura primorriveristak sortutako ezinegona baretu zenean, sendoago heldu zioten egitasmoari. Euskal lexikoa ortografikoki eguneratuta, RAEren hiztegi arruntaren (1925ekoa zen azken edizioa) sarrera guztiei euskal ordainak eman nahi zizkieten, esan bezala, neologismoak partez behintzat onartuz. Zeinahi alorretako euskal idazleek horrelako hiztegi normatiboa erabiliz gero, hizkuntza literario baturako bidean oso urrats garrantzitsua izan zitekeen, bide batez Akademiaren autoritatea indartuta, F. Belausteguigoitia urgazle jeltzaleak Errepublikaren urteetan onartzen zuenez:

> Ahí acudirán forzosamente nuestros literatos e irá imponiéndose a todos la importancia de tal obra [Diccionario Español-Vasco] y de otras que serán su complemento, la convicción de que sólo pueden lograrse mediante una excepcional competencia de los que las realizan y mediante el concurso organizado de las fuerzas que en apoyo del euskera militan (Belauste 1936: 116).

[231] R. M. Azkuek institutu ikasleei zuzendutako 370 orrialdeko *Diccionario de bolsillo* (1918) elebiduna argitaratu zuen Bilbon.

IKER-35.indd 96 2/9/19 10:55

Zoritxarrez, estandar arauturik ez izateak eta Espainiako euskal purismo lexikal ia unibertsalak, lan amaigabea bilakatu zuten lexikografia akademikoa. S. Altubek, Akademiaren sorrera garaitik izan zituen ideiak jarraituta, 1932ko urtarrilaren batzarrean, erdal jatorriko mailegu erabilienak, arruntak nahiz teknikoak, hiztegian sartzeko proposamen zentzuzkoena egin zuenean, euskaltzainburuak baztertu egin zuen. Euskarazko ordainik ez zuten milaka hitzendako, alemanaren edota hungarieraren eredu neologista jarraitu nahi zuen R. M. Azkuek, mailegu erromaniko ia guztiak baztertuz, Autonomia Estatutuaren bidez lortzear omen zegoen hezkuntza eskumenak neologismo horiek guztiak euskal gizartean arazorik gabe hedatu eta onartzea ekarriko zuelakoan (Sarasola 2004: 617-627; Kintana Goiriena 2008: 249-265; Alvarez 2011: 11-19).

Bestalde, Akademian ez zegoen talde lanerako dinamikarik, R. M. Azkuek 1932ko otsailean S. Altuberen proposamenei emandako erantzun minduan ageri zenez: «el Diccionario proyectado no lo podríamos terminar en diez o quince años» (Azkue 1935b: 149). Errepublikan, Autonomia Estatutuak eta nolabaiteko elebitasun ofizialak eskuragarri ziruditenean, P. Fabraren *Diccionari general de la llengua catalana* (1932) begien bistako eredu atzemanezina bilakatu zen. Adieradun hiztegi elebakar eta normatiboa, alegia. P. Fabrak garai berean abiatu zuen lana, baina Euskaltzaindiarena ez bezalako azpiegituraz baliatuta. Alde batetik, Lliga Regionalista-ko F. Cambók diruz lagundu zuen proiektua, eta, bestetik, Institut d'Estudis Catalans-en bulego lexikografikoak 1912az geroztik ari ziren lanean katalanaren hiztegi historikoan. Azkenik, Akademiak ez bezala, P. Fabrak irizpide garbia izan zuen hizkuntza literarioa kodetzeko orduan. Filologikoki interesgarriak izan zitezkeen hitz arkaiko eta dialektalak baztertu egin zituen, eta nazioarteko termino tekniko itxuraz greko-latinoak, ordea, sartu. Helburua, idazleei lexiko katalan estandarra eskaintzea zen (Fabra 1983).

Maila xumeagoan, Euskaltzaindiak ezohiko baliabideak bideratu zituen gerra zibil aurreko proiektu nagusira. R. M. Azkuek, J. B. Egusquizak edota R. Olabidek lexikografia batzordean parte hartu zuten. Osoko batzarretan hiztegiaz eztabaidatu, neologismoak sortu eta iturri askotariko materialak (Nafarroako D. de Inzarenak, adibidez) biltzeaz gain, N. Ormaechea eta J. Gorostiaga urgazleak aritu ziren kontratupeko lexikografian. 1935erako hiztegiak aurreratuta zirudien, eta Donostiako «Librería Internacional» argitaletxeko M. Conde Lópezekin negoziatzen ari ziren 2.000 aleko *Diccionario español-vasco* delakoaren edizioa. Bi orrialdeko proba ere inprimatu zuten

IKER-35.indd 97 2/9/19 10:55

«a-abadejo» arteko hitzekin.[232] Baina Akademia eta M. Conde Lópezen arteko kontratua zehazten hasi zirenean, argitaratzaileak hiztegiaren jatorrizko kopia mekanografiatu osoa eskatu zuen baldintza gisa. Orduan euskaltzainburuak aitortu zion behin betiko bertsiorik ez zutela, ezta amaiera epe zehatzik ere.[233] Gordetzen diren Akademiaren 1936ko akta zirriborroen arabera (urtarril-otsailetako batzarrak), lexikografian buru-belarri zebiltzan artean. S. Altubek, adibidez, gaztelaniazko «de» preposizioaren euskarazko itzulpenez dosier luzea aurkeztu zuen hiztegirako.[234]

G. Lacomberen ustez, ordea, Akademiaren hiztegia amaituta zegoen 1936an, eta gerra zibila piztu izan ez balitz, bi urteren buruan argitaratuta egon zitekeen.[235] Bestalde, N. Ormaecheak 1932ko azaroan hitzaurre bat aurkeztu zuen hiztegiaren argitalpenerako, A. M. Labayenen bidez, hura hil ondoren ezagutzera eman zena. Horren arabera, R. M. Azkue, R. Olabide eta N. Ormaecheak osatutako batzordea zen hiztegiaren arduraduna, ez korporazioa bere osoan, bi euskaltzainek egitasmoaren aurka bozkatu zutelako (J. Urquijo eta G. Lacombek?). Eredu nagusi gisa, gaztelaniazko hiztegi bi (RAE-rena eta Espasa-Calpe entziklopedia) eta gaztelania-aleman hiztegi bi (Th. Stromer eta R. J. Slaby) erabili zituzten.[236] Hitzak euskalkien arabera sailkatu eta bi neologismo mota bereizi zituzten: izartxo batekin idazle onek erabiliak, eta bi izartxorekin, gutxien erabiliak. Hiztegia ez argitaratzeko arrazoi nagusietako bat kritikari zioten beldurra zatekeen (Euskaltzaindia 1933: 285; Ormaechea 1966).[237]

Dena dela, gerraondoan berriz ekin zioten 1936an bukatu samar omen zegoena aztertzeari, letraz letra eta hitzez hitz. Azterketa filologiko sakonagoa beharko litzateke ondo kokatzeko Euskaltzaindiaren artxiboan dauden askotariko material lexikografikoak, baina hiru corpus nagusi bereiz daitezke. Horietako bik gerra zibil artekoak dirudite, batak «a-z» arteko hitzak hartzen ditu eta besteak «ch-z» artekoak. Letrarik falta ez duen lehen corpusak 930 orri inguru ditu eta bigarrenak 765 orri. Bigarrena, eskuzko ohar edota

[232] ABA-EUS: M. López Conderen gutuna G. Maidagani, hiztegiaren inprenta proba eta azalaren zirriborroa, 1935-01-09.

[233] ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna M. López Conderi, 1935-03-12.

[234] ABA-EUS: R. Inzagarayren akta zirriborroa, 1936-01-28.

[235] ABA-LAC: G. Lacomberen gutuna P. Lafitteri, 1943-06-29.

[236] Th. Stromer-en *Nuevo diccionario español-alemán* (1897-1900) & R. J. Slaby eta R. Grossman-en *Diccionario de las lenguas española y alemana* (1932).

[237] Hitzaurre hori ez dago jasota N. Ormaechearen idazlan guztien edizioan (cf. Iztueta 1991).

IKER-35.indd 98 2/9/19 10:55

zuzenketak izan arren, argitaratzaileak eskatzen zuen behin betiko kopia mekanografiatuaren hurbilekotzat jo daiteke.[238] Bestalde R. M. Azkuek erabilitako RAEren eta N. Fernández Cuestaren hiztegien aleak gordetzen dira, oharrez josita.[239]

Hirugarren corpus nagusia 1941-1951 arteko zerrenda da, baina soilik «a-h» arteko hitzak hartzen dituena. Tamaina aldetik, 1.401 orri ditu, baina orriko ia hiru aldiz hitz gutxiago sartzen ditu batez besteko (28/11).[240] Gaingiroki erkatuta, gerraurreko eta ondoko materialak oso antzekoak dira. Euskalkiak ezberdindu eta neologismoak erabiltzen dira hiru corpusetan. Adibidez, «diputación = aldundi» agertzen da hiruretan. Gerraondoan kontuzkoagoa izan zitekeen terminologia politikoan aurkitu ditut aldeak. Gerra zibil aurrekoan «dictadura» hitzak, adibidez, bi adiera besterik ez ditu: «cargo = nagusitzargo» eta «época = nagositzar-aldi». 1941etik aurrerakoan, ordea, hirugarren adiera bat agertzen da: «gobierno ilegal = legez atzetiko agintaritza».[241] Badirudi lehenengo bi adieren konnotazio negatiboa ezabatu eta legezko diktadura bati leku egiten zitzaiola Espainia frankistan argitaratu nahi zen Akademiaren hiztegian. Dena dela, gerraondoko lexikografiaren moteltasuna eta azken porrota ezin du lexikoaren depurazio politiko soilak azaldu.

R. M. Azkueren hasierako ardura J. Gorostiagak erbestera eramandako lexikografiako zenbait dokumentu berreskuratzea izan zen. Hala ere, bien arteko harremana konfiantzazkoa zen. 1940an bertan, Euskaltzaindia berrabiatzeke, J. Gorostiagak *Diccionario vasco-español-francés*en ale bat erosi zion Angeluko (Pirinio Behereak) erbestetik.[242] EJ-GEren funtzionario ohiak, Mundu Gerraren eraginez, Kubara alde egin behar izan zuen, baina R. M. Azkuek Akademiaren berrabiatzea eta jarduera xeheki azaldu zizkion gutunez. Gaztelania-euskara hiztegiko dokumentuen truke, orobat, deduzko izendatuko zutela agindu zion euskaltzainburuak: «Con que, Juanito tercero, colabora conmigo y dejaremos para otros lo de *urgazle* o *murgazle* (que dijo aquel

[238] ABA-RMA: Euskaltzaindiaren *Diccionario español-vasco* osatzeko corpusak, [192-?/1936]. Eskerrik asko Josune Olabarria artxibozainari corpusak identifikatzeko emandako laguntzagatik.

[239] ABA-EUS: N. Fernández Cuestaren *Diccionario de las lenguas española y francesa comparadas* (1885-1886) eta RAEren *Diccionario de la lengua castellana* (1899).

[240] ABA-RMA: Euskaltzaindiaren *Diccionario español-vasco* osatzeko corpusa, [1941/1951].

[241] ABA-RMA: Euskaltzaindiaren *Diccionario español-vasco* osatzeko corpusak, [192-?/1936 & 1941/1951].

[242] ABA-RMA: J. Gorostiagaren gutuna R. M. Azkueri, 1940-02-26.

IKER-35.indd 99 2/9/19 10:55

Eleissalde [sic] de Azkain) y te haremos con Schuchardt y Uhlenbeck académico de honor».[243]

Hiztegiak gaztelaniari ematen zion lehentasuna, diktadura primorriveristan bezala, agintari frankisten aurrean errazago baitzen zuritzen Akademiaren eginkizun nagusi gisa, JCVk berak 1941eko baimen ofizialean ageri zuenez. Lexikografia batzorderako R. M. Azkue, N. Oleaga eta J. Irigoyen izendatu zituzten 1941eko lehen batzarrean bertan. J. Irigoyenek, ordea, 1943ko otsailetik aurrera Akademiaren batzarretara joateari utzi zion. Bergarako artxibozaina Bizkaiko ondare arkitektonikoaz, pinturaz edota musikaz arduratu zen, JCVko aktek erakusten dutenez, baina Euskaltzaindiaren zeregin filologikoetarako ez zegoen prestatua eta ahal bezain laster utzi zituen.[244] Hain zuzen, euskaltzainburuaren ustez lexikografiaren lan erritmoa motelegia zen, J. Gorostiagari adierazi zionez: «Aquí nos reunimos tres veces por semana Oleaga y Eketa [R. M. Azkue] para la formación del futuro Diccionario Español-Vasco; pues tu homónimo, aunque fue nombrado miembro de esta comisión, solo ha venido cuatro o cinco veces por sus muchas ocupaciones».[245]

Esku artean zituzten baliabide eskasen erakusgarri, 1941eko urriko batzarrean JCVri P. Lhanderen *Dictionnaire basque-français*en (1926-1938) ale oso bat lortzeko eskatzea erabaki zuten, azken faszikulua gerra zibilean argitaratu baitzen Frantzian (Lacombe 1938b; Euskaltzaindia 1956: 319). A. Irigarayk bere ohiko diskrezioari jarraituta, itzalpetik eragin nahi izan zuen. Neologismoen aurkako bere iritzia kontu handiarekin adierazi zion lexikografia batzordeko N. Oleagari:

> Supongo seguirán «ekin eta ekin» en la versión del magnífico dic. de Azcue; me voy a permitir un ruego: como hay muchísimas personas cuyo único guía y consejero es el diccionario de nuestro querido presidente por tener él absoluta garantía en cuanto a la búsqueda de vocablos, se me ocurre que sería muy agradecido por los euskarófilos, que la tan necesaria versión cast. vasc. íntegra y literal del Azcue fuera aparte, de las adiciones y complementos que vds. crean oportuno hacer a él; sin que por eso dejen de hacerlas éstas si vds. creen oportuno.[246]

---

[243] ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna J. Gorostiagari, 1941-07-07. J. Gorostiagari «Juanito tercero» eta J. Irigoyeni «Juanito segundo» deitzen zien euskaltzainburuak gutunean, agian Borbón etxeari egindako erreferentzia humoristikoa.

[244] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1941/1958, Junta de Cultura C-62.

[245] ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna J. Gorostiagari, 1941-07-07.

[246] ABA-EUS: A. Irigarayren gutuna N. Oleagari, 1942-04-18.

IKER-35.indd 100 2/9/19 10:55

Lexikografia batzordeak bere lanen berri ematen zuen batzarretan. 1945ko irailean, «a» letra amaitua zutela adierazi zuten, baina euskal ordainik ez zuten zenbait hitzen arazoa eztabaidatu zen. Batzordeko kideek eta I. M. Echaidek (gogoan hartu haren 1929ko *Telefonoa'ren sortze ta aurrerapena*) hiztegi normatiboa egin nahi zuten, behar adina neologismo sortuz. A. Irigaray eta J. Urquijok, ordea, hiztegi deskribatzaile hutsaren alde egin zuten, besteak beste, neologismoek Frantziako euskal idazleen artean izan zezaketen harrera txarraren beldur zirelako. Eztabaida hauek gerra aurrekoak berritu baino ez zituzten egin, J. Urquijoren hilberrian gogoratu zutenez:

> Il fit decider, avec l'appui de Lacombe et non sans quelque peine, paraît-il, que dans le dictionnaire en préparation les néologismes seraient marqués d'un astérisque, au lieu d'être confondus purement et simplement, comme d'autres l'auraient voulu, avec les véritables vocables basques. Personellement il était, comme on peut le supposer, hostile aux néologismes, et de parti-pris il s'abstenait de prendre part aux discussions et aux votes les concernant (Gavel 1950: 259).[247]

R. M. Azkue, halaber, gerra zibil aurreko lexikografiako zenbait lankiderekin harremana berreskuratzen saiatu zen, hala nola Gipuzkoako M. M. Zubiagarekin (SI).[248] Mundu Gerra amaituta, nazioarteko harremanetarako aukera ikusi zenean, A. Irigarayk, orobat, Euskaltzaindia Frantziako kidez osotu arte itxarotea beharrezko ikusten zuen. Gero ikusiko dugunez, A. Irigarayk posta harremana berreskuratu zuenean 1947an P. Lafitterekin, lexikografiako koordinazioa izan zuen kezka nagusietakoa.[249] Bestalde, R. M. Azkueren *Diccionario vasco-español-francés* berrargitaratzeko asmoa agertu zuten A. Tovarrek, RSVAPen bidez, eta Euskaltzaindiak berak 1948ko maiatzean, baina ez zuten oihartzun publikorik izan (Tovar 1947; Euskaltzaindia 1956: 329; Andiazabal & al. 2005).

Dena dela, puristez osatutako lexikografia batzordeak (R. M. Azkue eta N. Oleaga) lanean jarraitu zuen 1940ko hamarkadan. Bilboko idazkariaren gerraondoko aktetan, esaterako, «zadorlari» (idazkari), «ekauta» (diputazio) edota «ijeki» (ale) bezalako neologismoak erabiltzen ziren. Hura izan zen gerraondoko zeregin akademiko nagusia, hala denbora nola gastu aldetik. Dena dela, 1949ko iraila iri-

[247] Antza denez, Akademiaren sorreran J. Urquijori euskaltzainburu izatea eskaini zioten, baina ez zuen onartu (Gavel 1950: 259).

[248] ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna M. M. Zubiagari, 1943-06-02.

[249] G. Lacombek ardura hori bera erakutsi zuen Errepublikan, P. Lafitte *Dictionnaire français-basque* eta Euskaltzaindia *Diccionario español-vasco* lantzen ari zirenean (ABA-LAF: G. Lacomberen gutuna P. Lafitteri, 1935-12-26).

IKER-35.indd 101 2/9/19 10:55

tsi zenerako, «f» letraraino baino ez zuten osatu zerrenda (Euskaltzaindia 1956: 325).[250] 1949ko iraileko batzar horretan lexikografia behin-behinean gelditzea erabaki zuten, diru laguntza gehiago ziurtatu arte. G. Maidagan diruzainaren kontabilitateak adierazten duenez, 1951ko urtarrilaren 25ean, Akademiak bere egoera ekonomikoa hobetu ondoren kobratu zituzten R. M. Azkue eta N. Oleagak 1948-1949ko lexikografia bileretako dieta atzeratuak.[251]

Badirudi lanean jarraitu zutela, «g» letra ere osatu arte, baina euskaltzainburuaren heriotzak, 1951n, ezinezko bilakatu zuen proiektua amaitzea. Akademiaren artxiboan gordetzen den lexikografia corpuseko azken sarrerak «halógeno = gatz-soŕarazle» eta «haloideo = gatz-antzeko» izan ziren.[252] Dena dela, Euskaltzaindiaren hiztegi handiaren bideragarritasun komertziala zalantzan jarrita zegoen ordurako.

1948an, R. de Bera eta I. López de Mendizábalen hiztegi arrakastatsuaren hirugarren edizioa argitaratzeko baimena lortu zuen Zarauzko Itxaropena argitaletxeak (gaztelaniazko edizioetan «Icharopena» gisa agertzen da), baina hainbat aldaketarekin. Seguru asko zentsuraren erruz, gaztelania-euskara atala argitaratu zuten soilik; euskara-gaztelania atala ez zuten 1954 arte plazaratu.[253] Era berean, izena aldatu zioten: *Diccionario castellano-euzkera = Euzkel-eŕdeliztegia* (1916, 1932) zena *Diccionario castellano-vasco* (1948) izatera igaro zen. Hiztegia laburtzeaz gain, edukian ere hainbat aldaketa egin zituzten. Zenbait neologismo ezabatu eta tradizio jeltzaleko «z» edota «ŕ» grafemak desagertu egin ziren: «vasco = euskaldun, euskotar», baina ez «vasco = euzkotaŕ» jatorrizkoan bezala. J. Artechek Donostiako egunkarian adierazi zuenez, edizio berriaren arduraduna, I. López de Mendizábalen baimenarekin, A. M. Labayen izan zen (*La Voz de España* 1948-11-17).

Nolanahi den, R. M. Azkuek zion amorrua kontuan hartuta, kolpe latza izan behar zuen edizio berria kalean ikusteak. Gainera, Buenos Airesko Ekinen argitaratutako I. López Mendizábalen *La lengua vasca* (1943) ikasbideak 3.000 ale saldu zituen 1947rako.[254] Bestalde, P. Zamarripa euskaltzainak berak *Vocabulario vasco-castellano*ren hirugarren edizioa argitaratu zuen 1947an Bilboko

[250] F. Krutwigek ere lagundu zuen lexikografian, baina ez zegoen ados euskaltzainburuaren irizpidearekin (Krutwig 1991: 127-128).

[251] ABA-EUS: R. M. Azkue eta N. Oleagaren lexikografiako esleipenak & G. Maidaganen kontabilitate liburua, 1951-01-25.

[252] ABA-RMA: Euskaltzaindiaren *Diccionario español-vasco* osatzeko corpusa, [1941-1951].

[253] KMK: I. López Mendizábalen gutuna F. Arocenari, 1955-06-22.

[254] KMK-JU: J. Garateren gutuna J. Urquijori, 1947-11-19.

IKER-35.indd 102 2/9/19 10:55

Irudia 6. ***Diccionario español-vasco*** **delakoaren inprenta proba (1935)**



A A

A, a, *primera letra del alfabeto,* A, a. ‖ *Modismo:* a *por* a *y be por be* = zeatz eta meatz.

A. *Preposición.* ‖ **1,** *directiva. Desinencia indeterminada,* -e)tara: a *tal sitio* = *ain tokitara. Determinada singular,* -e)ra: al *monte* = *mendira; a los nombres propios de lugar terminados en consonante, en algunos pueblos de* G *aplican la desinencia simple* -a: a *París* = *Parisa, en vez de Parisera. Plural,* -etara: a los *montes* = *mendietara. De seres animados, desinencia genitiva* -r)en *más* gana: a (donde) *Jabier* = *Jabier* -engana; *en* B, S *sin desinencia genitiva, Jabier-gana. Indeterminado abundancial,* -tzara: *caer* a la (sobre la) *arena* = *aretzara erori.* ‖ **2,** *de lugar, de tiempo y de cantidad. Con estas significaciones la preposición castellana* A *se emplea, a veces, como sinónima de* **En**; *en tales casos se traduce al euskera por* -e)tan, -e)an: *le cogieron* a la *puerta* = *atean eldu zioten; (expuesto)* al *sol,* a la *luz,* al *viento,* a la *lluvia...* = *eguzkitan, argitan, aizetan, euritan...*; a la *mañana* = *goizean*; a las *cinco* = *bostetan*; a *cuatro reales* = *lau erealean*; ¿a *cuánto,* a *un real?* = *¿zenbatean, ereal batean?, en* B *se dice ¿zenbaten, ereal baten? (también ¿zegan, ereal baten?) (Véanse más abajo, en la acepción* **9,** *más ejemplos de esta clase de equivalencias).* ‖ **3** *Delante de los adjetivos* verbales *da las equivalencias como las que siguen:* al *ver eso* = *ori ikustean, ori ikuskeran* (B); *con el verbo «ir» o equivalentes se emplean los modismos siguientes:* al ir *a casa* = *etxerakoan*; al subir *al cielo* = *zerurakoan*; al *llegar a casa: etxeratzean. Colocada la preposición entre dos adjetivos verbales, ofrece las siguientes traducciones: Ir a cenar* = *apaltzera joan, en* B *apaltzen joan; enseñar* a *leer* = *irakurten irakatsi* (c). ‖ **4,** *dativa. Sin artículo,* -r)i: *dar* a *uno* = *bati eman; es más clara y quizás también más usual la forma reforzada* -e)ri: *bateri eman; con artículo singular,* -ari: *dar* al *hombre* = *gizonari eman; con artículo plural,* -ai: *dar* a los *hombres* = *gizonai eman.* ‖ **5,** *acusativa, no se traduce: ver* a *Jabier* = *Jabier ikusi.* ‖ **6,** *modal o instrumental,* -e)z: a *pie y* a *caballo* = *oiñez eta zaldiz. Los plurales se traducen generalmente por* -ka: a *pedradas y* a *patadas* = *arika ta ostikoka*; a *tiros* = *tiroka (en* B-g *tiro-tiroka.)* ‖ **7,** *distributiva,* -na: a (cada uno) *cuatro pesetas* = *launa peseta; a medias (repartir)* = *erdibana* (c), *erdizana* (B), *erdizka* (AN G, B, G, L.) ‖ **8** *equivale al supositivo* ba- *en frases como:* a *saber yo eso* = *ori jakin izan banu.* ‖ **9,** *en los modismos y frases, adverbiales, comunmente se traduce por* -e)an: a *ciegas (con fe ciega)* = *itxu-itxuan* (B); a *buenas o* a *malas* = *onean edo txarean, onean edo gogorean*; a *más no poder* = *eguiñalean*; a *cada palabra* = *itz bakoitzean*; a *porfía* = *alkaren leian* (B); a *jornal* = *alogerean* (B), *jornalean*; al *fin como antes* = *azkenean (ere) len bezela;* a *sabiendas* = *jakiñean, dakidala, dakizula,* etc.; *a la (en la) derecha* = *eskuma aldean*; a *buena hora* = *ordu onean. Son también muchos los que se traducen con el sufijo* -e)z, *aunque le disputa el terreno la fórmula anterior:* a *duras penas nekez-nekez, ozta-ozta* (B, G), *ozta(z) ozta*z (B); a la *fuerza* = *indarez, indarean, ezin bestez* a *mi juicio* = *nere iritziz, nere iritzian; nere ustez*; a lo *más* = *gehenez (ere);* a lo *sumo veinte* = *ogei geinez* (B), *ogei burutik* (AN, G); *llegar* a *tiempo* = *garaiz eldu;* a *ruego suyo* = *bere ereguz, bere otoiez. En las denominaciones de los juegos la preposición* **A** *se traduce por* -e)an *(o su plural* -etan) y *también por* -ka: al *juego de naipes* = *karta jokoan*; al *mus y* al *tute* = *musean eta tutean*; a los *naipes* = *Katetan*; a la *pelota* = *pelotan, pelotaka* (B); a los *bolos* = *boletan*, (B), *bolan* (B), *bolaka* (BB); a *lanzar la pelota (unos chicos contra otros)* = *pelota jaurtika* (B mond...), a *patadas con la boina* = *txapel ostikoka* (B-g...); *dos* a *dos (contra dos)* = *bik-biri* (B, G), *birazka* (BN, L, S); *biñazka* (L-zib); *mano* a *mano* = *eskuz-esku* (B...), *eskurik-esku* (B-mond), *buruz-buru* (ka) (BN, L, S). *Véanse otras equivalencias:* a la *vizcaína* = *bizkaieraz*; a *decir verdad* = *egia esateko, egia esanda*, egia esan (AN), *egia eran* (L, S); a *gusto mío* = *nere gogara, nere gustora*; (dar) a *manos llenas* = *eman* a la, *ahurtaraka* (BN, L); a *sangre y fuego* = *su ta gar* a *propósito (de intento)* = berariz; a *favor de Jabier* = *Jabier-en alde; dar* al *padre (en el genio, en las facciones...)* = *aitatara izan, aitatara emon* (B-g-erigoi...); a *medias (incompletamente)* = *erdiz-erdiz* (B), *erdiz-erdika* (l) (BN, L, S), *erdizka ta mordizka* (B-ond-ix b-aya-bid); a *fuer de* (por ser) *barato* = *merke zurian* (G-an, L-ain); a por *vino* = *ardaotan, amozun* (Ax.); *etcétera.*

Abacá, abaka. ‖ **2** *(materia textil),* kenika (B-l).

Abacería, abaketegi *(hazkuri* = *alimento en* BN, Sc, Sal.), jaki-edaritegi.

Abacero azkuridun-, jaki—edaridun, azkuri — saltzaile, jaki — edari — saltzaile.

Abacial, abataren, abat—: *casa* abacial = abat—*etxe.*

Abaco, abaku.

Abad, abat, lekaipuru.*

Abadejo, abalu (G), abalaio (B-l), abario (B-ond).

Abadesa, abadesa, lekaimeburu.*

Abajar, (V. **Bajar**).

Abajo, be(e): *es de* abajo *y viene de* abajo = be(e)*koa da ta* be(e)*tik dator.* ‖ **2,** be(i)an: *estar* abajo = be(i)an *egon.* ‖ **3,** be(e)ra: *ir* abajo = be(e)ra *joan;* ¡abajo *esos!* = ¡be(e)ra *oiek!,* ¡kuku *oiek!* (BN).

Abalanzarse, (j)aurtiki (G, AN, BN, L), jaustu (R), oldartu (BN, L, S).

Abalorio, txirtxilu (AN-lar).

Abanderado, banderadun, ikurindun*

Abanderarse, banderapetu.

Abandonar, utzi (V. *Dejar),* ustu: abandonar *el lecho* = *o(g)ea* ustu; *dejar* abandonado = bertanbera *utzi* (G, B). ‖ **2** *(abandonarse),* buruari utzi.

Abandonado, *(participio pasado de* abandonar) utzi(a. ‖ **2** *(persona abandonada),* utzi- (a (c...), baldan (B, G), bandil (B, G), ardurabako (B), bardin eutsi(a (B), dandar (B), eraz (AN-lar, G-goi), potz (AN-iturn), zurul (BN), bertanbeerako (B-i), enas (AN-lar, b c), muy abandonado = enats (G seg-orm). ‖ **3** *(mujer abandonada),* basi (AN-oy).

Abandono *(dejación),* uzte, utziera. ‖ **2** *(dejadez),* baldankeri, erazkeri, itxitasun (B).

Abanicar, aize-eman.

Abanico, abaniku, aizekin*, artzeño*. *koka* (B-g...); *dos* a *dos (contra dos)* = *bik-biri* (B, G), *birazka* (BN, L, S); *biñazka* (L-zib); *mano* a *mano* = *eskuz-esku* (B...), *eskurik-esku* (B-mond), *buruz-buru* (ka) (BN, L, S). *Véanse otras equivalencias:* a la *vizcaína* = *bizkaieraz*; a *decir verdad* = *egia esateko, egia esanda*, egia esan (AN), *egia eran* (L, S); a *gusto mío* = *nere gogara, nere gustora*; (dar) a *manos llenas* = *eman* a la, *ahurtaraka* (BN, L); a *sangre y fuego* = *su ta gar* a *propósito (de intento)* = berariz; a *favor de Jabier* = *Jabier-en alde; dar* al *padre (en el genio, en las facciones...)* = *aitatara izan, aitatara emon* (B-g-erigoi...); a *medias (incompletamente)* = *erdiz-erdiz* (B), *erdiz-erdika* (l) (BN, L, S), *erdizka ta mordizka* (B-ond-ix b-aya-bid); a *fuer de* (por ser) *barato* = *merke zurian* (G-an, L-ain); a por *vino* = *ardaotan, amozun* (Ax.); *etcétera.*

Abacá, abaka. ‖ **2** *(materia textil),* kenika (B-l).

Abacería, azkuritegi *(hazkuri* = *alimento en* BN, Sc, Sal.), jaki-edaritegi.

Abacero, azkuridun-, jaki—edaridun, azkuri — saltzaile, jaki — edari — saltzaile.

Abacial, abataren, abat—: *casa* abacial = abat—*etxe.*

Abad, abat, lekaipuru.*

Abadejo, abalu (G), abalaio (B-l),

A, a, *primera letra del alfabeto,* A, a. ‖ *Modismo:* a *por* a *y be por be* = zeatz eta meatz.

A. *Preposición.* ‖ **1,** *directiva. Desinencia indeterminada,* -e)tara: a *tal sitio* = *ain tokitara. Determinada singular,* -e)ra: al *monte* = *mendira; a los nombres propios de lugar terminados en*

Iturria: Euskaltzaindia (Azkue Biblioteka eta Artxiboa).

IKER-35.indd 103 2/9/19 10:55

Casa Dochao-n. Hala ere, Akademiaren *Diccionario español-vasco*k Ameriketan arrakasta izan zezakeela ziurtatu zion J. Urquijori IAEVeko idazkari nagusi I. Gurruchagak:

> Un libro de éxito en la venta sería el diccionario que hace años estaban Vds. preparando. Como aquí, como en todas partes, pero en América más que en otras partes, hay que cuidar mucho del renombre y de la propaganda y de los títulos, tendría que aparecer como obra de la Academia de la Lengua y como el primer diccionario vasco hecho por dicha entidad. ¿Por qué no se animan a terminarlo y publicarlo? No haría falta que tuviera los neologismos, que más tarde podrían publicarse como apéndice.[255]

Gero ikusiko dugunez, gaztelania-euskara hiztegiarekin jarraitzeko asmoa egon zen, baina 1954-1955etik aurrera Euskaltzaindiaren lexikografiak beste bide bat hartu zuen, L. Michelenaren zuzendaritzapean. Nolanahi den, azterketa lexikologiko baten zain daude R. M. Azkuek hil arte zuzendu zituen Akademiaren gaztelania-euskara corpus horiek, gero beste bi hiztegitan berrerabili zirenak: P. Múgicaren *Diccionario castellano-vasco* (1965) eta B. Estornések zuzendutako *Diccionario Auñamendi español-vasco = Auñamendi erdal-euskal iztegia* (1965-1982), zazpi liburukitan «a-corr» atala baino hartu ez zuena (Sarasola 2004: 625; 2006: 906-911).

2.7. EUSKALTZAINDIAREN BATZARREN EGITURA 1940KO HAMARKADAN

Akademiaren jardueraren berri emateko, Euskaltzaindiak agerkari ofiziala izan zuen 1920-1936 artean. Gerra zibilak, ordea, eten egin zuen *Euskera* agerkariaren agerpena, eta Akademiak ez zuen lortuko normaltasunez plazaratzea 1956 arte. Tartean, zenbaki bakarra agertu zen, 1953ko urrikoa, baina edukiz oso mugatuta. Aztertzen ari naizen urteetako akten argitalpena, beraz, ez zen bere garaian egin. *Euskera* agerkarian, bi zatitan (1956an eta 1982an) argitaratu ziren. Horregatik, kontuan hartu behar da 1940ko hamarkadako batzarren eduki eta erabakiak ez zirela publikora zabaldu eta oso eragin mugatua izan zutela korporazioko zirkulu txikitik kanpo. Zenbait euskaltzalerekin

[255] KMK-JU: I. Gurruchagaren gutuna J. Urquijori, 1947-01-08. Ildefonso Gurruchaga (1902-1974) historialari jeltzalea, Argentinara erbesteratu baino lehenago, Euzkadiko Salatari Nagusi («Fiscal Superior») ez ezik, Akademiaren hiztegigintzan kolaboratzaile ere izan zen (ABA-EUS: I. Gurruchagaren gutuna R. Olabideri, 1931-10-31).

IKER-35.indd 104 2/9/19 10:55

eta instituzio ofizialekin harreman puntualak bideratu ziren, baina artxiboan ia ez dago kanpo harremanen dokumentaziorik, eta barne gutuneria hamarkada horretan ere oso urria da.

R. M. Azkue eta N. Oleagak sinatutako 1941-1951 arteko akten kopia mekanografiatu ofizialak gordetzen dira, gehienak elebidunak, euskaraz eta gaztelaniaz. Euskarazko bertsioak, *Euskera*ren aipatutako 1956 eta 1982ko zenbakietan argitaratuta daude, ortografia apur bat moldatuta («ŕ» = «rr», etab.) eta aipatuko ditudan zenbait akatsekin. Akta elebidunen gaztelaniazko bertsioak argitaragabeak dira, askotan argigarriak izan arren, euskarazko esanahiak finkatzeko. Kopia mekanografiatuez gain, N. Oleagaren zenbait eskuzko zirriborro ere badaude Euskaltzaindiaren artxiboan, erakundearen historia berregiteko ezinbestekoak direnak. Azkenik, G. Maidagan behin-behineko diruzainaren kontabilitate liburuak ere urtero egindako batzar dieten berri ematen du. Hor ageri denez, Akademiak hainbat batzar egin zituen akta mekanografiatu ofizialik ez dutenak.[256] Idazkariaren zirriborroetan nahiz diruzainaren liburuan ezberdintasun nabarmenik aurkitu dudanean, berariaz aztertu dut arazoa ondoko orrialdeetan.[257]

1941-1948 arteko euskarazko aktak dira 1956ko *Euskera*n argitaratu zirenak, artean N. Oleaga bizi zela. Alde horretatik, bere onarpena duten neurrian, nahiko fidagarriak direlakoan nago. 1949-1964 arteko aktak, ordea, ez ziren 1982 arte argitaratu, N. Oleaga hil ondoren, eta ezin izan zuen bere ardurapean 1961 arte idatzitako akten argitalpenean parte hartu. Hala ere, Euskaltzaindiaren artxiboan bigarren epealdi horretako kopia mekanografiatuak ere gordetzen dira, oro har euskaraz, eta batzuk gaztelaniaz ere bai.[258] R. M. Azkue 1951n hil ondoren, I. M. Echaide buruordeak sinatu behar zituen kopia mekanografiatuak, N. Oleaga idazkariarekin batera, baina ez zuen beti egin. Batzuetan A. Irigarayk egin zuen mahaiburu eta sinatzaile lana. Esan bezala, Bilboko idazkariaren eskuzko zirriborro batzuk ere gordetzen dira, akta ofizialetan islarik ez dutenak. Aitzitik, idazkariak artxiboan gordeta utzi izanak, nire ustez lekukotasunezko balio oso garrantzitsua ematen die.

1940ko hamarkada, Akademiaren jarduera ofizialaz den bezainbatean, estutasunez jositako ilunaldia izan zen. Batzar bikoitzak desagertu egin ziren. 1941eko apirilaren 28tik 1949ko azaroaren 25era arte, biak barne, 49 batzar

[256] ABA-EUS: G. Maidaganen kontabilitate liburua, 1941-1949.

[257] Komeniko litzateke euskarazko eta gaztelaniazko akta historiko guztien edizio berria egitea, onartu gabeko akten eta zirriborroen informazioa ere behar bezala emanda.

[258] ABA-EUS: Euskaltzaindiaren akten kopia mekanografiatu ofizialak, 1941-1964.

IKER-35.indd 105 2/9/19 10:55

egin ziren, urteko 5,44 batzar, alegia. Lehen bi urteetan gogotsu ekin zioten, zazpina batzar egin zituzten 1941-1942etan, baina 1943an, Mundu Gerra aliatuek irabaziko zutela begien bistakoa zenean, diktadurapeko Akademiak bost batzar egin zituen. Hamarkada horretan lauzpabost euskaltzain baino ez ziren biltzen batzarretan. Ohiko partaideak R. M. Azkue eta N. Oleaga nekaezinak eta beste bizpahiru kide izaten ziren: J. Urquijo, P. Zamarripa edota I. M. Echaide. 1948tik aurrera F. Krutwig eta A. Irigaray ere gehiago agertu ziren. 1941-1949 artean soilik bederatzi aldiz lortu zuten 1920ko barne erregelek ezartzen zuten gutxieneko seikotea biltzea. Hamarkada horretako batzarren %18,36tan baino ez zuten 1920ko estatutuek eskatutako gutxieneko kopurua bete, beraz.

Euskaltzainburuak eta idazkari berriak ez zuten inoiz batzarretara huts egin. J. Urquijok soilik hamar aldiz, osasun txarraren ondorioz, korrespondentzia ugarian behin eta berriz agertzen denez. Adibidez, 1948ko irailean eroriko larri bat egin zuen eta horregatik huts egin zuen hurrengo bi batzarretara.[259] 1949ko udaberrian kalean erori eta hanka hautsi zuen, eta horregatik ez zen ekainean Bilboko batzarrera joan.[260] P. Zamarripa, orobat, 24 aldiz agertu zen, Bilboko bileretara huts egin gabe. Donostiako nukleoa ez zen hain egonkorra, J. Urquijo karlista ospetsua zen babes politikoa ematen zuena, eta itzal horren ingurura noizbehinka biltzen ziren R. Inzagaray (sei aldiz baino ez, 1947an hil arte) edota A. Irigaray (11 aldiz), errepresioak sortutako izuaren menpeago zeudenez. A. Irigarayk kargua onartu ondoren, 1942an Donostian egindako batzarretara etorri zen Iruñetik, baina gero utzi egin zion, seguru asko Mundu Gerraren amaierak sortutako ezinegonagatik. 1944ko urrian, Donostiako Ategorrietan bizi zela, idazkariari adierazi zion ezin zuela batzarretara joan mediku lanagatik.[261] 1945-1947 artean batzar banatara agertu ondoren, 1948tik aurrera baino ez zen hasi sarriago agertzen. I. M. Echaide GPDko ingeniari integrista, ordea, susmopean egoteko arrisku gutxiagorekin, bi aldiz gehiago (22) agertu zen tarte horretan.[262]

---

[259] KMK-JU: P. Yrizarren eta R. M. Azkueren gutunak J. Urquijori, 1948-09-20 & 1948-10-04.

[260] KMK-JU: J. Urquijoren gutuna J. Garateri, 1949-04-06.

[261] ABA-EUS: A. Irigarayren gutuna N. Oleagari, 1944-10-01.

[262] Honela banatzen dira zehazki 1941-1949 arteko partaidetzak: R. M. Azkue (48), N. Oleaga (48), J. Urquijo (38), P. Zamarripa (24), I. M. Echaide (22), A. Irigaray (11), F. Krutwig (9), J. Irigoyen (8), R. Inzagaray (6), J. C. Guerra (3), J. M. Seminario (2), J. Elissalde (2), B. Echegaray (1), P. Lhande (1), P. Lafitte (1), L. Dassance (1), F. Belausteguigoitia (1) eta A. Tovar (1).

IKER-35.indd 106 2/9/19 10:55

1940ko hamarkadan N. Oleagaren akta zirriborro bakarra dago, akta mekanografiatu ofizialetan islarik ez duena. Horren arabera, Donostian 1943ko irailaren 24an bildu ziren R. M. Azkue, J. Urquijo, R. Inzagaray, I. M. Echaide eta N. Oleaga. I. M. Echaidek F. Krutwig urgazle berriaren «Unificación literaria de los dialectos vascos» lana irakurri zuen. Euskaltzainburuak, aldiz, 1925eko *Euskera*n agertutakorekin lotutako bat: «Curiosos documentos copiados en la Biblioteca Imperial de Berlín, de los manuscritos de Guillermo Humboldt». Azkenik, A. Tovar Salamancako katedradunaren idazki bat irakurri zuten, *Euskera* agerkariari berriz ekiteko aukeraz. Seguru asko porrot egin zuen proiektu arantzatsu hori da aktari ofizialtasunik ez ematearen arrazoi nagusia.[263] Bestalde, G. Maidagan diruzainaren batzar dieten ordainketek erakusten dutenez, beste hiru batzar izan ziren ez akta mekanografiaturik ez akta zirriborrorik ez dutenak: 1941eko azaroan, 1943ko apirilean eta 1947ko maiatzean.[264] Batzar horien partaideak eta tokia baino ez ditugu ezagutzen. Azkenik, diruzainaren liburu nagusiak beste batzar ezezagun bat adierazten du 1948ko irailean, baina ez dago inolako dietaren likidaziorik, eta ondorioz ez ditugu ez partaideak ez tokia ezagutzen. Aipatu dudanez, J. Urquijok eroriko handi bat egin zuen 1948ko irailean eta agian horrekin lotuta dago gabezia hori.[265]

Euskaltzaindiaren hiru hankako mahaia, beraz, R. M. Azkue, N. Oleaga eta J. Urquijok osatu zuten gerraondoko lehen hamarkadan. Akademiaren jardun eskasa ikusita, 1947ko irailean Donostian bildutakoek (R. M. Azkue, J. Urquijo, I. M. Echaide, A. Irigaray eta N. Oleaga) ondoko oharra egin behar izan zuten: «Batzarretara uts barik etorri daitezala euskaltzainai eskatutea erabagi da gero» (Euskaltzaindia 1956: 328).[266]

1940ko hamarkadan, batzarrak salomonikoki erdibana egin zituzten Bilbon eta Donostian, txandaka oro har. Bilbon, Ribera kaleko egoitza zaharkituan izan ziren ia beti. Salbuespen gisa, probintzia jauregiko JCVren aretoan bildu ziren 1942ko otsailean, eta J. M. Seminarioren 1949ko sarrera ekitaldia ere bertan izan zen. Donostian ezin ziren EI-SEV desagertuaren probintzia jauregiko egoitzan batzartu, gerraurrean bezala. Ondorioz, GPDra jo zuten laguntza bila. Hasieran, F. Valle Lersundik zuzentzen zuen San Telmo museoan bildu ziren, J. C. Guerrak baimena eskatuta. Honen heriotzaren

[263] ABA-EUS: N. Oleagaren akta zirriborroa, 1943-09-24.
[264] ABA-EUS: Euskaltzaindiaren batzarretako dieta eta osteren likidazioa, 1941/1949.
[265] ABA-EUS: G. Maidaganen kontabilitate liburua, 1941/1949.
[266] ABA-EUS: Euskaltzaindiaren aktaren kopia mekanografiatu ofiziala, 1947-09-26.

IKER-35.indd 107 2/9/19 10:55

ondoren, Donostiako batzarrak probintzia jauregian egin ziren. R. M. Azkuek baimena eskatu zion GPDko presidenteari 1942ko urtarrilean:

> Reanudado por sugerencia de la Junta de Cultura de la Excma. Diputación de Vizcaya y bajo su patrocinio el funcionamiento de esta entidad Academia de la Lengua Vasca, ruego a V. E. como Director y en nombre de la misma que se digne autorizar que sus sesiones periódicas acostumbradas, una vez cada dos meses en esa Ciudad de San Sebastián, se celebren en alguno de los locales de esa Excma. Corporación de su digna Presidencia, al igual que en años anteriores solían celebrarse, permitiéndome insinuar como local adecuado al efecto alguna de las dependencias de la Biblioteca Provincial si para ello no hay inconveniente u obstáculo.[267]

I. Lasquibar Buen Pastor elizako erretorearen bitartekaritzari esker, Fernando Aramburu presidente karlistak Akademiari baimena eman zion GPDko bibliotekan batzarrak egiteko.[268] Argitaratutako aktetan ez da zehazten jauregiko gela zehatzik, baina 1942ko gaztelaniazko akta batean, R. M. Azkuek eskarian iradoki bezala, bibliotekan izan zela adierazten da.[269] Une zehaztugabe batetik aurrera, agian 1950 inguruan, Donostiako batzarrak I. M. Echaide probintzia funtzionarioaren bulegoan egin ziren, solemnitaterik gabe, ahal zen diskrezio handienarekin. Aro berri bati ateak zabaldu nahiz, Baionan eta Iruñean batzar bana egin zuten 1950eko udan, euskaltzain berrien sarrera ekitaldiak ospatzeko, baina horrek ez zuen iraun, ikusiko dugunez.

1920ko barne erregeletan ezarrita zegoenez, euskaltzainburuak otoitzarekin hasten zituen batzarrak: «Aita ta Seme ta Gogo guren Jainkoaren izenean, bere Ama Andre Mariaren magalpean eta Euskaleŕiaren onerako as dezagun esertaldi hau = En nombre de Dios Padre, Hijo y Espíritu Santo; bajo el amparo de su Madre María Santísima y en servicio de Euskaleŕia, queda abierta la sesión» (Euskaltzaindia 1920b: 6). Azkenik, euskaltzainburuak batzarrari amaiera ematen zion «Gloria Patri» otoitzarekin, eta gainerako kideek erantzuna ematen zioten zutik. Akademiaren konfesionaltasunaren erakusgarri, instituzio gisa dohaintza egin zuen V. Berrio-Ochoa kanonizatzearen alde 1949an.[270] Euskaltzain hil berrien alde ere (A. Campión, J. B. Egusquiza, J. C. Guerra edota R. Inzagaray) otoitz egin zuten. Fededun zintzoez osatutako

[267] ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna F. Arambururi, 1942-01-09.

[268] ABA-RMA: F. Arambururen gutuna I. Lasquibarri, 1942-01-24.

[269] ABA-EUS: Euskaltzaindiaren aktaren gaztelaniazko kopia, 1942-02-27.

[270] ABA-EUS: «Secretariado de Propaganda Pro Canonización del Bto. Valentín de Berrio-Ochoa» delakoaren ordainagiria, 1949-01-07.

IKER-35.indd 108 2/9/19 10:55

batzarrean, salbuespenak F. Krutwig eta lehenago G. Lacombe izan ziren. G. Lacombe agnostikoaren heriotzaren berri eman zenean 1947an, batzarrak ez bide zuen otoitzik egin (Euskaltzaindia 1956: 328; cf. Murua Uria 1997: 73).

Aurreko akta irakurri eta onartu ondoren, nagusiki dosierrak irakurtzen ziren. Euskaltzainburu nekaezinak ia hutsik egin gabe aurkeztu zuen dosier laburren bat batzar guztietan, berez gerra zibil aurreko batzarretatik zetozen gaiekin. Alde batetik, *Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas* (1949) liburua bilakatu ziren zatiak aurkeztu eta eztabaidatu zituen. Bestetik, bere *Morfología vasca* (1925) liburuari egindako gehigarri edo ohar modukoak. Akten arabera, hauek izan ziren euskaltzainburuak aurkeztutako dosierrak: «Diferencias más notables entre el vascuence y las lenguas cultas» (1941-04-28, 1941-05-29, 1941-06-26, 1941-09-25, 1941-10-30, 1941-12-20, 1942-01-30, 1942-02-27, 1942-10-29, 1942-12-18, 1943-02-26);[271] G. Bähr-en «Das Baskische» artikuluaren itzulpena (1942-03-26); dosierra haur hizkuntzaz (1942-04-24); I. M. Echaideren sarrera hitzaldiari erantzuna (1942-07-24); W. Schmidt-en *Die Sprachfamilien und Sprachenkreise der Erde* liburuaren iruzkina (1943-06-25, 1944-03-31, 1944-09-29); «Cuestiones de semántica» (1943-11-26); «Sufijos vascos que equivalen a los de otras lenguas» (1944-01-28); «Cuestiones gramaticales ausentes casi todas del Tratado de Morfología Vasca» (1944-05-26, 1945-01-26, 1945-05-25, 1945-09-28, 1945-11-30, 1946-01-25, 1946-03-29, 1946-05-31, 1946-09-27, 1947-11-29);[272] «Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas» (1946-11-28, 1947-01-31, 1947-03-28, 1947-09-26, 1948-04-02);[273] eta «Curiosos documentos copiados en la Biblioteca de Berlin de los manuscritos de Guillermo Humboldt a 5 de agosto de 1922» (1943-09-24, 1949-01-28). Azken hori 1925ean *Euskera* agerkarian argitaratutako idazlana izan arren, R. M. Azkue zaharraren lanerako gaitasuna gerraondoan harrigarria zen, batzarretatik kanpo *Euskaleŕiaren yakintza = Literatura popular del País Vasco*ren liburuki berriak (1942-1947) prestatu eta *Latsibi* bizkaierazko nobela berridazten jarraitzen baitzuen (Kintana Goiriena 2008: 305).

---

[271] ABA-RMA: R. M. Azkueren «Estudio de las diferencias más notables y curiosas coincidencias entre el vascuence y algunas otras lenguas», [1941/1943].

[272] ABA-RMA: R. M. Azkueren «Cuestiones gramaticales ausentes casi todas del tratado de Morfología Vasca», [1944-05-26]; «Dos casos de excepción raros y curiosos. Grupos articulados», [1945-05-25]; «Algunas curiosidades lingüísticas», [1945-09-28]; «Un caso curioso de epéntesis en nuestra numeración. Algunas geminaciones que antes no se expusieron», [1945-11-30], «Curiosidades lingüísticas», [1946-01-25]; «Nuevas curiosidades lingüísticas», [1946-03-29].

[273] ABA-RMA: R. M. Azkueren «Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas», [1941/1948].

IKER-35.indd 109 2/9/19 10:55

P. Zamarripak ere hainbat dosier aurkeztu zituen, oro har morfologiaz, euskaltzainburuari jarraituta, baina baita bertsoren batzuk ere. «Conjugación familiar masculina y femenina» (1943-06-25); «La conjugación familiar o dialogada» (1943-11-26); «Los vocablos *urte, aste, ile, ordu,* etc. en dos distintos casos», «El participio en *iko* o *tako*» eta «El sufijo distributivo *na*» (1945-05-25); «Pro-preposiciones» eta «Bertso-berriak» (1945-11-30); «Conjunción *ta* con significación causal» eta «Conjunción *ta* significando y compañía» (1946-03-29); «El artículo determinado sin valor traductivo», «Particularidades de *beste*» eta «Jesus on-ona» izeneko bertsoak (1946-09-27); «*Bete* reemplazando a *bat*» (1947-01-31) eta «Vocablos monosílabos vizcaínos» (1949-01-28). 1946ko irailean irakurritako biak, garrantzi gutxiko gramatika oharrak izan arren, *BRSVAP*en argitaratu ziren (Zamarripa y Uraga 1947c; 1948).

I. M. Echaidek, halaber, hasieran gogotsu ekin zion lanak aurkezteari, baina gero utzi egin zion: «Ensayo sobre el primitivo Euskera» sarrera hitzaldia (1942-07-24) eta «Elementos de las flexiones verbales con significación propia» (1943-02-26). Azken dosier horren jatorria 1942ko abenduaren 18ko batzarrean izandako eztabaida izan zen. Lehenengo gutunez bidali zien R. M. Azkue eta J. Urquijori, aditz flexioek berezko esanahia zutenaren aurkako iritziarekin.[274] Gero, sarrera hitzaldiarekin batera, bere *Desarrollo de las conjugaciones euskaras* liburuari erantsi zion, gerraondoko Akademiaren lehen emaitza argitaratutzat jo daitekeenari (Echaide 1944: 507-518). Bestalde, I. M. Echaidek F. Krutwigen «Unificación de los dialectos vascos» dosierraren azterketa egin zuen (1943-09-24, 1943-11-26, 1944-01-28). Idazlana aintzat hartu arren, I.M. Echaideren ondorioa ezkorra izan zen: «falta en la Academia la representación de la parte de Euskalerria de allende el Pirineo; y precisamente esta falta es tanto más de sentir, cuanto que en el trabajo del Sr. Krutwig se propone el labortano antiguo como base de la unificación».[275] A. Irigarayk, ordea, ez zuen dosierrik aurkeztu, soilik euskarazko ikasliburu bat prestatzen ari zela adierazi zuen batzar batean (1948-11-26). Handik bost urtera, A. Ibinagabeitia *Euskera irudi-bidez = Nuevo método de euskera básico* (1953) argitaratzear zegoenean, Nafarroako medikuak azaldu zizkion bere ikasliburuaz zenbait xehetasun: «Badakit euskara metodo bat egiten ari zareala; nik aspaldi ene aurrekin erabilitako bat

[274] ABA-RMA/KMK-JU: I. M. Echaideren gutunak R. M. Azkueri eta J. Urquijori, 1942-12-22.

[275] KMK-JV: [I.M. Echaideren] «Informe sobre el proyecto de verificación literaria del euskera de don Federiko Krutwig [sic], miembro correspondiente de esta Academia» 1943-12-25.

IKER-35.indd 110 2/9/19 10:55

asmatu nuen; baiñan ez nintzan ausartu argitara ematea; oraindik yendea minberaegi da, erdaratikako hitzekin...».[276]

J. Urquijok dosier bakarra aurkeztu zuen, iberiar idazkunez (1945-03-23). Hala ere, Espainia-Frantzietan egiten zen linguistika eta filologia lanen berri ematen saiatu zen. Ikerlan hauek izan zituen hizpide batzarretan: F. Castro Guisasolaren *El enigma del vascuence ante las lenguas indoeuropeas* eta *Léxico etimológico del euskera* zalantzazkoak (1944-05-26, 1944-11-24, 1946-03-29); R. Lafonen *Le système du verbe basque au XVIe siècle* tesi bikaina (1946-03-29, 1946-05-31); R. Lafon eta G. Lacomberen «Indo-européen, basque et ibère» artikulua eta G. Lacomberen «Structure de la langue basque» hitzaldia (1946-05-31).[277] Lan horiek bere harreman sareari esker lortu zituen, egileek bidalita edota, A. Tovarren bidez, Madrilgo Biblioteca Nacional-eko alearen fotokopiak eskuratuta.[278] Dena dela, gerraondoko Euskaltzaindia ez zuen gauza ikusten ikerketa lerroan aurrera egiteko, A. Tovarri aitortu zionez: «En reserva, diré a V. que, durante mi estancia en Bilbao, Azkue me declaró que la verdad era que él no entendía mi artículo sobre la inscripción de Liria».[279] Gauza bera gertatu zitzaion H. Schuchardt-en «Sobre la formación de las flexiones de relación del verbo vasco» idazlana (G. Bähr-ek gaztelaniara itzulita) irakurtzen hasi zenean: «Yo empecé a leerlo en una sesión de nuestra pequeña Academia, pero sus miembros me declararon que no lo entendían».[280]

Akademiaren agerkari ofizialik ezean, dosier horietako gutxi batzuk, egokituta eta Euskaltzaindian irakurritakoak zirenik aipatu gabe, *BRSVAP*en agertu ziren. J. Urquijorenak, «La famosa inscripción ibero-vasca de un vaso de Liria» (1945) eta «Una tesis doctoral de lingüística vasca del Dr. René Lafon, publicada por la Universidad de Burdeos» (1946). J. Urquijok, R. Lafonen tesiaren iruzkina baliatu zuen, halaber, euskal aditzaren pasibotasuna eztabaidatzeko,

[276] ABA-AIB: A. Irigarayren gutuna A. Ibinagabeitiari, 1953-05-08.

[277] Hermann Hirt indoeuropeistaren omenezko lanean, Kaukasoko zenbait herriren eta euskaldunen arteko lotura linguistiko-antropologikoa proposatu zuten, P. Bosch Gimperaren aurka (Lafon & Lacombe 1936). Bestalde, Parisko Unibertsitateko Linguistika Institutuan emandako hitzaldian, euskararen fragmentazio dialektala Eskandinaviar hizkuntzen edota galorromanikoen pare jarri zuen euskaltzainak (Lacombe 1938a).

[278] Euskaltzaindiaren Artxiboa, Antonio Tovar funtsa: J. Urquijoren gutunak A. Tovarri, 1945-02-11, 1945-10-07 & 1946-03-07.

[279] Euskaltzaindiaren Artxiboa, Antonio Tovar funtsa: J. Urquijoren gutuna A. Tovarri, 1945-11-16.

[280] Euskaltzaindiaren Artxiboa, Antonio Tovar funtsa: J. Urquijoren gutuna A. Tovarri, 1945-12-30.

IKER-35.indd 111 2/9/19 10:55

artean hizkuntzen balioaz konnotazio psikologizistak zituen kontua. Bestalde, Valentzian agertutako iberiar idazkunari P. Beltránek emandako euskarazko interpretazioa (berak «gudua deitzdea» [sic] irakurri zuen, baita L. Pericotek ere) ukatu eta J. Caroren ikerlana goraipatu zuen, J. Urquijok funtsean maite zuen «eusko-iberismoa» barojatarrak zalantzan jarri arren.[281] Hizkuntza paleohispanikoen auzian eztabaidan ari ziren M. Gómez Moreno, J. Vallejo, J. Casares, J. Caro edota A. Tovar.[282] Izan ere, tesi separatistak nahiz antiseparatistak bultzatzeko linguistika erabiltzea guztiz errotuta zegoen euskal historia politikoan. C. C. Uhlenbeck-en autoritatearen itzalpean, J. Arteche agertu zen Donostiako egunkarian «eusko-iberismoa»ren aurka: «los antepasados de los actuales vascos habitaban el país, cuando los iberos, viniendo como conquistadores, probablemente del África del Norte, inundaron la Península Ibérica» (*La Voz de España* 1948-02-26). Egunkariko aipamen hutsak ezinegona eragin zion J. Urquijori, irakurketa politikoak begien bistakoak zirelako diputatu tradizionalista ohiarentzat. «Eusko-iberisten» artean, R. Menéndez Pidal RAEko zuzendari antiabertzalea nabarmendu behar da. Filologo ospetsuek eztabaida politikoan parte hartu zuten, bereziki Espainiako erreibindikazio autonomistei aurre egiteko, baina diktadura frankistan ere jarrera berari eutsi zioten (cf. Cid 1991; Yrizar 2001: 44-45; García Isasti 2004).

F. Krutwig ikasle gaztea 1948 arte bi aldiz baino ez zen agertu batzarretara akten arabera: 1943ko otsailean eta 1944ko martxoan. Ordura arte urgazle soil izateak, merkataritza ikasketek eta soldadutzak eragotzi zioten parte gehiago hartzea. Dena dela, dosier ugari bidali zituen batzarretan irakurriak izan zitezen: «Retroceso del vascuence y remedios» (1943-02-26), «Unificación de los dialectos vascos» (1943-09-24, 1943-11-26), «Afinidades lingüísticas entre el vascuence y las lenguas japonesa y coreana» (1944-01-28), «Introducción a una heráldica vasca. Del léxico. Primera parte» (1944-11-24) eta «Para una vascología científica» (1945-03-23). «Unificación de los dialectos vascos» idazlana garrantzitsua izan zen, fonetika, ortografía, aditza (J. Leiçarraga) eta lexikoa aztertuz, lapurtera literarioa proposatu zuelako, arabiera edota grezieraren bidetik, «hizkuntza klasikoaren funtzioa bete eta gizarteko goi klaseak euskarara erakartzeko. I. M. Echaidek dosierra aztertu eta J. Urquijok eraman egin zuen, astiroago irakurtzeko, eta horregatik bere artxiboan gordetzen da.[283] Lau urte ondoren, 1947ko azaroan euskaltzain izendatu zuten eta hurrengo batzarrean ez zen egon, baina beste kide batek irakurri zuen haren «De la índole estática y

[281] KMK-JU: J. Caroren gutuna J. Urquijori, 1945-04-03.

[282] KMK-JU: M. Gómez Morenoren gutuna J. Urquijori, 1945-06-23.

[283] KMK-JU: [F. Krutwig «Unificación literaria de los dialectos vascos», 1943-09-24].

IKER-35.indd 112 2/9/19 10:55

dinámica de los conceptos y de la forma interna de las lenguas» (1948-01-30) dosierra. Ordutik aurrera, ordea, batzar guztietara agertu eta Euskaltzaindiaren motor bilakatu zen. Aktek diotenez, dosier hauek irakurri zituen: «Del parentesco de la lengua vasca con otras lenguas asiáticas» (1948-05-28), dosier luze izengabea (1948-11-26), «Mística, magia y lingüística» (1949-01-28), «Estudios vascos de filología comparada» (1949-03-25), J. M. Seminariori erantzun hitzaldia (1949-06-25), Akademiaren erreforma dosierra (1949-09-30) eta «Antzundu philologia» (1949-11-25).

Komisario politikoez den bezainbatean, garrantzi gutxikotzat jo zituzten Euskaltzaindiko eginkizunak. J. Irigoyen JCVren gizonari Espainiako Gobernuak babes osoa erakutsi zion 1941eko urriaren 4an, «Gran Cruz de Alfonso X el Sabio» delakoa emanda.[284] R. M. Azkue eta N. Oleagarekin batera, lexikografia batzordeko kide izendatu zuten 1941eko lehen batzarrean, seguru asko JCV inplikatzeko asmoarekin. Hala ere, zortzi batzarretan baino ez zuen parte hartu. 1941-1942etan JCVk antolatutako ikastaroen eta CSICen asmoen berri eman zuen. 1942an bi aldiz eta 1943an behin bakarrik agertu zen, eta gero utzi egin zion joateari. 1949ko ekainean jakinarazi zuten J. Irigoyenek kargua utzi zuela eta, ondorioz, Euskaltzaindiak JCVko beste ordezkari bat izendatu behar zuela. J. M. Seminario frankista amorratua izan zen lagun hori (Euskaltzaindia 1982: 5). E. Esparza, bestalde, ez zen inoiz ere agertu batzarretara. Esanguratsuki, ez zuen Akademiaren berri eman *Príncipe de Viana* aldizkarian idazten zuen «Los trabajos y los días» izeneko kultura kronikan. Aitzitik, ez zuen erraztasunik izan, 1940ko hamarkadan Iruñean batzarrik egin ez zutelako. Soilik M. Lecuonaren Iruñeko sarrera ekitaldira agertu zen 1950ean, baina ordurako uko egina zion euskaltzain izateari. Gorabehera horien ondorioz, Akademia berehala «impasse» batean sartu zen, agintari frankisten kontrolaz den bezainbatean.[285]

---

[284] «Ordenes de 15 de septiembre y 3 y 4 de octubre de 1941 por las que se concede a los señores que se mencionan el ingreso en la Orden civil de Alfonso X el Sabio, con la categoría de Gran Cruz», *BOE*, 1941-10-13.

[285] E. Esparzak Akademian parte ez hartzeko arrazoien artean, J. Urquijorekiko etsaitasuna sumatu uste dut. RAEko sarrera hitzaldia egin zuenean, E. Esparzak euskaltzain karlistari eraso egiteko baliatu zuen aukera: «De lingüística vasca no saben más que aquellos para quienes el euskera es un cuento chino» (*Diario de Navarra* 1929-11-29; cf. 1930-03-15; 1932-07-03). Eskuindarren arteko tirabiretan, agian jaimismoaren jeltzaleekiko hurbiltasuna leporatu zion E. Esparza sektarioak. Ezinikusia berriz askatu zuen J. Urquijok 1932an *RIEV*en argitaratutako idazlan bat ere barregarri utzi nahi izan zuenean *Príncipe de Viana*n. J. Urquijoren gisakoentzat, antza, «todo hallazgo ha de participar, para ser interesante, del sensacionalismo del de la bomba atómica» (Esparza 1945: 487). Gerraondoan, agian Conde de Rodezno-k irudikatzen zuen

IKER-35.indd 113 2/9/19 10:55

Batzarretan, liburu berriak iruzkindu edo JCVk antolatutako ekitaldien berri eman zuten. JCVren 1941eko jakinarazpen ofizialak aipatzen zuen zeregin akademikoetako bat, *Euskera* agerkaria berriz argitaratzea, 1953 arte izoztuta geratu zen. Akademiaren egoera ez normalizatuaren erakusgarri, euskaltzain berriek oro har ez zuten sarrera hitzaldirik egin. Salbuespen bakarra I. M. Echaide izan zen, euskaltzainburuaren erantzuna jaso zuen «Ensayo sobre el primitivo Euskera» izeneko hitzaldiarekin.[286] Batzarrera, 1942ko ekainaren 24an, barne erregelek ezartzen zuten gutxieneko seikotea bildu zen: R. M. Azkue, J. Urquijo, R. Inzagaray, A. Irigaray, I. M. Echaide eta N. Oleaga. Hala ere, GPDko jauregikoa barne ekitaldia izan zen, publikorik gabea. I. M. Echaidek *Desarrollo de las conjugaciones euskaras* (1944) liburuan erantsi zuen sarrera hitzaldia, Akademiaren agerkari ofiziala etenda baitzegoen. Oker ez banago, hori da gerraondoko Euskaltzaindia instituzio bizitzat jotzen duen lehen aipamen inprimatua. Hala ere, liburuko gehigarri hutsa zen, sarrera hitzaldia noiz eta non egin zen zehazten ez zuena, testuari 1942ko ekaineko data emanagatik: «Discurso de ingreso del autor en la Academia de la Lengua Vasca» (Echaide 1944: 507). Sarrera hitzaldian protoeuskararen aditza berreraikitzen saiatu zen, Bibliaren monogenismoa eta linguistika historikoa uztartu nahian:

> Profésase, como la más abonada, la opinión de que todas las lenguas que pueblan el Universo proceden de un cierto número de troncos, entre sí irreductibles, ¿Porqué han de ser irreductibles y porqué han de tener, a su vez, un origen común como la especie humana? En este problema, como en todos los fundamentales para la Humanidad, la Santa Biblia (Gen. Cap. XI) aporta la explicación que no ha podido ser rebatida por ninguna investigación científica fundada (Echaide 1944: 507).

Hurrengo batzarrean, 1942ko urrian, F. Krutwig gaztea izendatu zuten urgazle, Bizkaiko gizarte frankistako beste kide bat (Euskaltzaindia 1956: 321). Hori da Akademiaren jarduera eskasa gerraondoko lehen urteetan. Biziera estu horren erakusgarri da 1944ko martxoan euskaltzainburuaren irakurraldia poliziak eten egin zuela Ribera kaleko egoitzan: «Onetan daragoiola, Ertzain bi agertzen dira, Euskaltzaindia'ren zertzeladak jakin gurean. Egin dabezan itaunari egoki erantzunik, eskaturiko agerbideak emon jakoz» (Eus-

---

tradizionalismo frankistarekin publikoki bat ez egitea zen barkatzen ez ziona. E. Esparzak, halaber, huts egin zuen RSVAPen Azkoitiko omenaldian eta ez zion aipurik eskaini bere «Mi Gacetilla» atalean (cf. *Diario de Navarra* 1949-06-24).

[286] ABA-RMA: R. M. Azkueren «Contestación al escrito de entrada en la Academia de la Lengua Vasca, de D. Ignacio Maria Echaide», 1942-06-19.

IKER-35.indd 114 2/9/19 10:55

kaltzaindia 1956: 323).[287] Badirudi poliziak uste zuela Akademiaren batzarrak legez kanpoko euskara eskolekin zerikusia zuela. Batzartutakoak R. M. Azkue, J. Urquijo, N. Oleaga eta F. Krutwig ziren.

Euskaltzaindiaren batzarretako salbuespen politiko begien bistakoa F. Belausteguigoitia urgazlearena izan zen, 1942ko urrian. Frankismoak adineko erbesteratuei eskainitako amnistiarekin, bere familiak nekez lortu zuen baimena, baina azkenean 1941eko uztailean itzuli zen Getxora Tanger-etik. Alabak zioenez, bere aita ez ezik, M. Arruza eta J. Solaun jeltzaleak ere bildu ziren garai horretan Ribera kaleko egoitzara. Baina 1943tik aurrera F. Belausteguigoitia makaldu eta 1947ko uztailean hil egin zen (Akesolo & al. 1989: 38-41).

Euskaltzainez den bezainbatean, 1947ko uztailean hil zen G. Lacombe, eta 1947ko azaroan R. Inzagaray. Akademiak bien heriotzaren berri eman eta familiei doluminak ematea erabaki zuen. Euskaltzaindiak agerkaririk argitaratzen ez zuenez, ordea, beste instituzio batzuen esku geratu zen haiei gorazarre egitea. Erbesteko *Eusko-Jakintza*n G. Lacomberen hilberria eta euskal bibliografia argitaratu zituzten. Gipuzkoako *BRSVAP*, ordea, mutu geratu zen, EJ-GEren *Euzko Deya*k artikuluak eskaintzen zizkion bitartean (Gavel 1947; Bilbao 1947; Larronde 1997: 223). R. Inzagarayren heriotzaren berri, bestalde, Donostiako prentsak eman zuen. F. Arocenak ez zuen nekrologiaren aukera galdu purismo inplizituki abertzalearen aurka egiteko: «su prosa, huidora de neologismos que han sido lepra de nuestro idioma» (*El Diario Vasco* 1947-11-30).[288]

2.8. **MUNDU GERRA ONDOKO IZENDAPEN BERRIAK**

1947-1948 artean Akademiaren bigarren giza berritzeari ekin zioten, 1941-1942etan jarduera barnealdean berreskuratu zenetik. Mundu Gerra bukatuta eta Falange-ren eragina gutxituta, Euskaltzaindia aktiboago agertzeko aukerak sumatzen ziren. Hala ere, zorrozki bete ziren diktaduraren baldintza politikoak. Horren froga da R. M. Azkuek aholku bila jotzea goi kargu frankistekin harremanetan zegoen I. Lasquibar Donostiako Buen Pastor-eko erretorearengana 1947ko abuztuan:

---

[287] «En tal estado se personan dos policías en investigación de las circunstancias de esta Academia. Se contesta adecuadamente a las preguntas que formulan, facilitando todos los datos pedidos» (ABA-EUS: Euskaltzaindiaren aktaren gaztelaniazko kopia mekanografiatu ofiziala, 1944-03-31).

[288] cf. *La Voz de España* 1947-11-30.

IKER-35.indd 115 2/9/19 10:55

El viernes próximo tendré ocasión de saludarte y de oír de tus labios curiosas noticias del palacio de Ayete y de los ilustres personajes que se han hospedado en él.

Como tratamos de dar más vida a nuestra Academia, quisiera que tú me dieras a conocer un par de competentes euskerálogos guipuzcoanos y a algún navarro.[289]

«Orban» jeltzalerik gabeko bost urgazle berri izendatu zituzten. Alde batetik, Madrilen bizi ziren bi funtzionario: J. Caro Baroja eta P. Yrizar. Bestetik, hiru unibertsitate irakasle: A. Tovar, J. Vallejo eta A. Bausani. Bost urgazleen izendapenak koiunturazkoak izan ziren, inor ez baitzen euskaltzain izatera iritsi, nahiz eta batzuk ekarpen garrantzitsuak egin ikerketaren arloan. Hain zuzen, J. Urquijo oso pozik zegoen horien guztien lanek euskal ikasketak lehen planora ekarriko zituztelakoan. Bitxia da, baina P. Yrizar eta J. Caro urgazle 1947ko martxoan izendatu zituzten arren, ez zuten horren berri jakingo urtebete igaro arte, beste hirurak ere 1948ko urtarrilean urgazle izendatu zituzten arte, alegia (Euskaltzaindia 1956: 327-329).[290]

Atzerapen horren zergatia nire ustez J. M. Barandiaranen 1947ko gutuna eta J. Bilbaoren bisita izan ziren, J. Urquijori erbesteko kulturgintzaren berri zuzena eman zizkiotenak.[291] Frantziako sare intelektualarekiko bakartuta geratzeko arriskuaren aurrean, Akademiak urgazleak izendatu zituen Madrilen, Salamancan eta Erroman. J. Urquijok ahal zuen neurrian isilpean gorde zuen Euskaltzaindiaren gerraondoko jarduna, abertzaleengandik jaso zitzakeen erasoen beldurrez. 1948ko otsailean J. Bilbaok Saratik (Pirinio Behereak) gutunez jakinarazi zion J. Urquijori, Eusko-Ikaskuntzen Lagunartea = Société Internationale d'Études Basques (EIL-SIEB) sortu zutela ezagun zahar eta abertzalez osatutako zuzendaritzarekin.[292] Azkenean, 1948ko apirilean bidali zituzten jakinarazpen ofizialak Bilboko egoitzatik.[293] Akademiaren artxiboan urgazle guztien esker oneko erantzun adeitsuak gordetzen dira, Italiako A.

[289] ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna I. Lasquibarri, 1947-08-23. Urte horretako uztailean ospatu zituzten Buen Pastor elizaren urrezko ezteiak eta bazkari ofizialeko gonbidatuen artean R. M. Azkue egon zen, G. Cicognani nuntzioarekin edota J. Zaragüetarekin batera (Antía Munduate 1999: 136-137).

[290] ABA-EUS: Euskaltzaindiaren akten kopia mekanografiatu ofizialak, 1947-03-28 & 1948-01-30.

[291] KMK-JU: J. M. Barandiaranen gutuna J. Urquijori, 1947-07-01.

[292] KMK-JU: J. Bilbaoren gutuna J. Urquijori, 1948-02-13.

[293] ABA-EUS: Euskaltzaindiaren zuzendaritzaren gutunak J. Vallejo, J. Caro, A. Tovar, P. Yrizar eta A. Bausaniri, 1948-04-02.

IKER-35.indd 116 2/9/19 10:55

Bausanirena izan ezik.[294] Euskaltzaindiak, izendapen horiekin, nolabaiteko babesa edo laguntza bilatzen zuen instituzio zientifikoetan. Baina alde horretatik ez zuen ondoriorik izan, eta Akademiak Bizkai-Gipuzkoetara mugatutako bere jardun motelarekin jarraitu zuen.

Julio Caro Baroja, Pedro Yrizar eta euskal atlas linguistikoa

Madrilen jaiotako Julio Caro Barojak (1914-1995) hogei urte zituenetik ezagutzen zuen J. Urquijo, honek *RIEV*en iruzkin positiboa egin ziolako etnografo gazteari. Besteak beste, J. Carok *Tres estudios etnográficos relativos al País Vasco* (1934) liburua bidali zion Donostiara, J. M. Barandiaranen hitzaurrearekin, nahiz eta egileak edizioaren zati handiena suntsitu zuen, inprenta arazoengatik.[295] J. Urquijo entzuleen artean zegoela, 1936ko uztailaren 17an J. Carok sorgintzaz eman zuen hitzaldia EI-SEVen Donostiako udako ikastaroetan. Errepulikaren aurkako estatu kolpea abiatu zen egunean, Beran babestu zen familiarekin. Osasun txarrekoa zenez, ez zuten mobilizatu, baina Nafarroa erreakzionarioan liberal ospeko barojatarrak arriskuan egon ziren. Gainera, Madrilgo bonbardaketa frankistek «Editorial Caro Raggio» eta barojatarren etxea suntsitu zituzten, artean J. Caroren aita hiriburuan zela (Urquijo 1934b; EI-SEV 1936b; García de Juan 2001; Fuster 2017).

Nafarroako erreketeek fusilatzeko zorian egon ondoren, Pío Baroja (1872-1956) osaba 1936ko uztailean Frantziara erbesteratu zen, baina 1937ko irailean itzuli zen, besteak beste, IdeE frankistaren sorreran parte hartzera. J. Carok 1938ko martxoan J. Urquijorekiko harremana berreskuratu zuen, euskaltzain karlistaren itzalak babesa ematen zuelako. Besteak beste, EI-SEVen egoitzan zeuden Serafín Baroja aitonaren paperak euskaltzainari eskaini zizkion. Korrespondentzia trukeaz beste, Bidasoaldetik Donostiara joan ohi zen berarekin egotera. Osabaren goraintziak eman eta J. Caroren ikerketak eztabaidatzen zituzten, baita RAEko edo ministerioetako gorabehera politikoak ere. Bizkaiko J. J. Mugártegui tertuliakide karlistak, adibidez, kontzertu ekonomikoen ezabatzea aldi baterako zigorra zela uste zuen (Caro Baroja 1972b: 333, 337, 346-347).[296]

---

[294] ABA-EUS: J. Caro (1948-04-07), A. Tovar (1948-04-07), P. Yrizar (1948-04-15) eta J. Vallejoren (1948-05-14) gutunak Euskaltzaindiari.

[295] KMK-JU: J. Caroren gutunak J. Urquijori, 1935-03-28 & 1935-04-15.

[296] KMK-JU: J. Caroren gutunak J. Urquijori, 1938-03-03/[1939]-10-06.

IKER-35.indd 117 2/9/19 10:55

J. Carok Bilboko euskaltzainburuari ere 1938ko udan idatzi zion, euskal hiztegiaren eta herri literatura bildumaren ale bana erosi nahi zizkiolako.[297] R. M. Azkuek adeitsuki erantzun zion, Pío osabak, iraganeko haserreak baztertuta, berari buruz hitz egin ziola IdeE-ren Salamancako ekitaldian. Badaezpada, J. Carok ez bezala, R. M. Azkuek gutuna baliatu zuen, militar kolpisten aldeko adierazpena egiteko: «Del Diccionario V-E-F quedan aún algunos ejemplares en las oficinas de Ribera, 5 en Bilbao. Había también varios del libro de literatura popular; pero ya no queda ni uno, pues todos desaparecieron antes de la entrada de los nuestros en la villa».[298]

P. Sainz Rodríguezen agintaldiaren amaieran, 1939ko martxoan, ministroak baimena lortu zion J. Carori atzerrira joateko ikasketekin jarraitzera, baina azkenean Espainian geratu zen (Escribano Hernández 2011: 207, 220-221). Izan ere, frankistek Madril errepublikanoa okupatu ondoren, J. Caro hiriburura itzuli zen 1939ko udazkenean, unibertsitate lizentzia amaitzera. Katoliko integristek barojatarrak gaitzesten zituztenez, J. Carok zirkulu falangistara hurbildu behar izan zuen. Baldintza zail horietan argitaratu zen, adibidez, P. Barojaren *Comunistas, judíos y demás ralea* (1938) antologia, E. Giménez Caballeroren hitzaurrearekin (García de Juan 2016). Kontuan hartu behar da Mundu Gerrako urte horietan Espainiako arkeologiaren burua Julio Martínez Santa-Olalla (1905-1972) filonazia zela. Berari esker, J. Caro «Sociedad Española de Antropología, Etnografía y Prehistoria»ko (SEAEP) idazkariorde izendatu zuten 1940an, eta hurrengo urtean J. Urquijo bera izendatu zuten elkarteko kide.[299] Barojatarra hizkuntza paleohispanikoak ikertzen ari zen, baina ez zetorren bat inperialismo arrazalogiko falangistarekin, Iberia zeltiko elebakarra kosta ahala kosta irudikatu nahi zuena. Era berean, erbesteko J. M. Barandiaranengan difusionismoak (L. Frobenius) izandako eragina kritikatzen zuen.[300]

J. Caroren arabera, J. Martínez Santa-Olallak ere *RIEV* berpizteko asmoa izan zuen. Hain zuzen, euskal gaiak Medrilen agerrarazteko J. Martínez Santa-Olallak zuzentzen zuen CSICen *Atlantis* aldizkari eraberrituan «El tocado antiguo de las mujeres vascas» (1936-1940) eta «Retroceso del vascuence» (1941a) artikuluk argitaratu zituen. Bigarrenak euskararen muga historiko suprapolitikoak zehazten zituen mapa eta guzti. «Eusko-iberismoa»ren aurka egin arren, inposatutako muga ideologikoei men egin zien: «*Euzkadi* es una

[297] ABA-RMA: J. Caroren gutuna R. M. Azkueri, 1938-08-20.

[298] ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna J. Carori, [1938]-08-26.

[299] KMK-JU: J. Caroren gutunak J. Urquijori, 1940-02-02, 1940-02-22, 1940-12-14 & 1941-03-29.

[300] KMK-JU: J. Caroren gutunak J. Urquijori, 1942-01-09, 1942-01-30 & 1942-03-14.

IKER-35.indd 118 2/9/19 10:55

estúpida invención» (Caro Baroja 1941a: 35). *Algunos mitos españoles* (1941b) liburua ere, J. Martínez Santa-Olallaren hitzaurre antiseparatistarekin agertu zen. Madrilgo Unibertsitate Zentralean 1941eko maiatzean Antzinaroko historiako doktoregoa eskuratuta, CSICen itzalpean *RIEV* berpiztu eta euskara irakurlego bat betetzeko ahaleginean parte hartu zuen alferrik.[301] Izan ere, CSICeko zuzendaritza ultrakatolikoak, Mundu Gerrako porrot faxistaren ondorioz, A. Tovar edota J. Martínez Santa-Olallaren gisako falangistak baztertu egin zituen (Sánchez Gómez 1990).[302]

Politikoki oso baldintzatuta zegoen unibertsitatean aurrera egiteko biderik ezin aurkituta; alde batetik, W. Starkie-k zuzentzen zuen British Institute-rako itzulpenak egin eta, bestetik, erudizio handiko produkzioan jardun zuen Antzinaroko historian nahiz linguistikan: *Los pueblos del norte de la Península Ibérica* (1943), etab. Mundu Gerrako testuinguruan, A. Tovarren bidez jakin zuenez, «vendido a las potencia extranjeras» zegoelako zurrumurrua zabaldu zen. Horrek eta familiaren heterodoxia ospeak oztopatu zioten unibertsitatean postu esanguratsurik lortzea.[303] 1944ko martxoan, JCVk antolatutako hitzaldia eman zuen Bilbon eta J. Urquijo euskaltzainak Ribera kaleko egoitzako batzarrera gonbidatu zuen. Kexu zen egoera ekonomikoaz eta Madrilgo giroaz, baina urte horretan, J. Ferrandis epigrafia katedradunaren eta Marqués de Lozoya-ren (Bellas Artes-ko zuzendari nagusia) bidez, «Museo del Pueblo Español»eko zuzendari izendatu zuten (Euskaltzaindia 1956: 323; Caro Baroja 1972a: 170).[304]

Ikerketak J. Urquijorekin eztabaidatu, batez ere «eusko-iberismoa»ren gaiaz, eta idazlan guztien aleak bidaltzen zizkion eskaintza autografoekin. Minduta zegoen Bartzelonan bisitatutako Telesforo Aranzadi (1860-1945) antropologoaren heriotza oharkabean igaro zelako Espainian. Bere burua eskaini zuen *BRSVAP*en maisu zaharraren hilberria idazteko, baina azkenean beste batek sinatuta agertu zen (Garmendia 1945). Frankistek J. Caroren ezkutuko bizkaitarrismoa salatzen omen zuten eta abertzaleek, ordea, kriptofalangismoa.[305]

---

[301] *RIEV* etenda zegoenez, CSICen *Emerita*n agertu zen, adibidez, «Observaciones sobre la hipótesis del vascoiberismo considerada desde el punto de vista histórico» (Caro Baroja 1942-1943).

[302] KMK-JU: J. Caroren gutunak J. Urquijori, 1943-01-20, 1943-02-04, 1943-03-04, 1943-07-15 & 1943-09-20.

[303] Euskaltzaindiaren Artxiboa, Antonio Tovar funtsa: J. Caroren gutuna A. Tovarri, 1944-08-20.

[304] KMK-JU: J. Caroren gutunak J. Urquijori, 1944-02-26, 1944-11-07 & 1944-12-23.

[305] KMK-JU: J. Caroren gutunak J. Urquijori, 1945-01-28, 1945-04-03, 1945-05-04, 1945eko urria, 1945eko azaroa eta 1945-12-04.

IKER-35.indd 119 2/9/19 10:55

Hain zuzen, euskararen historia sozialean edota genetikoan («eusko-akitanismoa») mugarriak jartzen ari zela, lan horiek zituzten ondorio politikoez jabetzen zen.[306] J. Urquijori, *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina* (1946) liburuaz zera adierazi zion: «No sé qué producirá, pero me temo que a los nacionalistas no les gustará mucho porque se insiste demasiado en influencias latinas, y a los españolistas tampoco, porque se habla de relaciones con las Galias, así es que tendré dos clases de gentes hostiles».[307]

Estatus zientifikoan gora egin ahala, eztabaida pertsonalak izan zituen M. Gómez Moreno edota J. Vallejo Madrilgo irakasleekin ez ezik, baita A. Irigaray adiskidearekin ere. Hain zuzen, Nafarroako euskaltzainak *BRSVAP*en argitaratutako iruzkinak asko mindu zuen, J. Caroren liburuko euskararen muga historikoak eta toponimoen etimologiak zuzendu zizkiolako (cf. Yrigaray 1947b). Oso haserre idatzi zion J. Urquijori 1947ko neguan, erantzuteko eskubidea gauzatuko zuela adierazteko.[308] Ez zen horrelakorik gertatu, ordea, eta 1948ko udaberriko hurrengo gutunean eskerrak eman zizkion Akademiako izendapenagatik.[309] J. Caro harrituta zegoen Euskaltzaindiaren jakinarazpenak zituen neologismo ulergaitzengatik. Euskal Herritik kanpo jaiotakoa zenez, urgazle baino ezin zela izan ulertu zuen. Gutun berean adierazi zion J. M. Barandiaran eta R. Lafonekin harremana berreskuratu zuela. RSVAPen omenaldiko liburuan epigrafiaz «Cuestiones ibéricas» (1949a) laburra argitaratu arren, badirudi J. Urquijorekiko tratua hoztu egin zela, erbesteko ikertzaileekin harremana berreskuratzearekin bat.[310] Hain zuzen, RSVAPen argitaletxe berrian *Los vascos* (1949b) etnologia liburu mugarria argitaratzen zuen aldi berean, J. M. Barandiarani RSVAP eta Akademiaren mendekotasun politikoa salatu zion pribatuki 1949ko irailean:

> Caro Baroja'k dionez, Donostia'n «Sociedad Vascongada de los Amigos del Pais» zuzentzen edo darabiltenek eta Bilbao'n «Euskaltzaindia» edo «Academia de la Lengua Vasca» eraentzen dutenak ez dute ez euskaldunik ez euskerarik maite; beren nausitza eta politika baiño. Orregaitik ez da arritzeko, oraingo euskaltzaindiko [sic] diren batzuek euskeraz ez jakitea, ez eta «Sociedad V. de los A. del Pais» darabillenak ere (Ciriquiain-Gaiztarro'k, alegia) (Barandiaran 2009: 761).

---

306 J. Caroren beste hipotesi batzuk, hala nola euskalkien eta Antzinaroko tribuen arteko korrelazioa, zalantzan jarri zituzten (cf. Michelena 2011a).

307 KMK-JU: J. Caroren gutuna J. Urquijori, 1947-02-17.

308 KMK-JU: J. Caroren gutuna J. Urquijori, [1947-11-13].

309 Badirudi gorabehera horiek ere atzeratu egin zutela Akademiak 1947ko martxoko batzarrean egindako izendapenaren jakinarazpena (Euskaltzaindia 1956: 328).

310 KMK-JU: J. Caro eta J. Urquijoren arteko gutunak, [1948ko apirila], 1949-05-07 & 1949-06-15.

IKER-35.indd 120 2/9/19 10:55

Pedro Yrizar Barnoya (1910-2004) Gipuzkoako Azkoitian jaio zen, familia eskuindar batean, eta karlistekin egin zuen gerra zibila.[311] Instituto Geográfico Nacional-eko ingeniaria zen eta dialektologo autodidakta. Euskaltzainburuarekiko harremana 1944an hasi zuen, hainbat liburu eta aldizkari erosi zizkionean, eta Madrilen familia arteko zenbait arazo ekonomiko ere bideratu zizkion R. M. Azkueri.[312] Beste askok bezala, bere burua J. Urquijoren dizipulutzat izan zuen. Euskaltzain zaharrak paternalismoz deskribatu zuen: «Es muchacho listo y bastante preparado».[313] P. Yrizarrek 1948ko otsailean ahoz izan zuen urgazle izendapenaren berri, Joaquín Yrizar anaiaren bidez. Horren arabera, ez zuten 1947an izendatu, baizik eta 1948ko lehen batzarrean, J. Urquijoren ekimenez.[314] Donostiako euskaltzainari eskerrak emateaz gain, 1948ko urtarrilean sortutako «Patronato *José M.ª Quadrado* de Estudios e Investigaciones Locales»en (CSIC) J. Urquijo ohorezko aholkulari izendatu zutela jakinarazi zion, Madrilgo *Ya* egunkarian irakurritakoaren arabera.[315]

P. Yrizarren ustez, J. Urquijoren ospea eta *BRSVAP* aldizkaria izan ziren euskalarientzat babes eta aterpe nagusia diktadura frankistan. 1949tik aurrera P. Yrizar RSVAPen Madrilgo ordezkari ofiziala izan zen, bereziki CSICekiko harremanetan.[316] Bera izan zen Euskal Herriko atlas linguistikoa abiatzeko egitasmoaren sustatzaile nagusia, nahiz eta bere kasa hasi behar izan zuen L. L. Bonaparteren lana eguneratzen. Hamarkada horretan, «Formación y desarrollo del verbo auxiliar vasco» (1947-1948) edota «Los dialectos y variedades del vascuence» (1949) argitaratu zituen. P. Yrizarren memorietan J. Urquijoren inguruan berregin zen nazioarteko sarea aldarrikatzen da. Adibidez, berak jarri zuen C. C. Uhlenbeck-ekin harremanetan, eta, Herbehereetako linguista ospetsua 1951ko abuztuan hil zenean, P. Yrizarrek idatzi zuen hilberria *BRSVAP*en, K. Boudak erbesteko *Eusko-Jakintza*n egin zuen bitartean (Uhlenbeck 1949; Bouda 1951; Yrizar 1981; 2001).

---

[311] Joaquín Yrizar (1893-1979) anaia nagusi eta arkitektoa, J. Urquijoren hurbileko lankide zen RSVAPen. Errepublikan CEDAren ildoko «Derecha Autónoma Vasca»ko kide izan ondoren, 1942ko azarotik 1945eko uztailera Gipuzkoako diputatu izan zen. GPDko Fomento y Cultura sailburu ez ezik, presidenteorde ere izatera iritsi zen, Barón de Benasque gobernadore zibilak kargugabetu zuen arte. J. Los Santos Garayalde falangistak ordeztu zuen (KMK: P. Garmendiaren gutuna J. Yrizarri, 1942-11-14; GPD 1943: 341; 1946: 143; Rodríguez Ranz 1994: 76-78).

[312] ABA-RMA: R. M. Azkue eta P. Yrizarren arteko gutunak, 1944-08-18/1945-04-15.

[313] KMK-JU: J. Urquijoren gutuna J. Garateri, 1949-06-09.

[314] KMK-JU: P. Yrizarren gutuna J. Urquijori, 1948-02-14.

[315] KMK-JU: P. Yrizarren gutuna J. Urquijori, 1948-05-21.

[316] KMK-JU: P. Yrizarren gutuna J. Urquijori, 1949-05-17.

IKER-35.indd 121 2/9/19 10:55

1951ko abenduaren 17-18an, P. Yrizar Madrilgo CSICen egoitzan izan zen Euskal Herriko atlas linguistikoaren egitasmoaz eztabaidatzeko. Bertan izan ziren R. Balbín, M. Agud, J. Gorostiaga, L. Michelena, A. Tovar edota J. Vallejo.[317] Rafael Balbín (1910-1978) CSICeko idazkariorde eta Opus Dei-ko kideak euskal atala «Atlas Lingüístico de la Península Ibérica»ren (ALPI) barruan kokatu nahi zuen, 1930eko hamarkadan JAEko T. Navarro Tomásen zuzendaritzapean abiatutako egitasmoan, alegia.[318] Madrilen, Manuel Agud Donostiako institutu katedraduna eta Luis Michelena J. M. Albararedarekin bildu ziren, baina azkenean ez zuten CSICen laguntza ofizialik eskuratu. P. Yrizarrek hartu zuen galdeketa zehaztu eta herriak hautatzeko ardura. Hasieran, J. Gorostiaga euskaltzaina izendatu zuten Bizkaiko atalaren arduradun, baina aldendu egin zen proiektutik. 1952ko udaberrian bilerak egin zituzten Bilbon eta Donostian eta L. Michelena galdeketa fonetikoa prestatzen hasi zen, baina udarako hilda ageri zen proiektua.[319]

EIL-SIEBen 1948ko eta 1954ko biltzarretan ere euskal atlas linguistikoaren beharra plazaratu zen. J. M. Barandiaranek A. Tovarri laguntza eskatu zion proiekturako, eta horrek 1954ko urtarrilean L. Michelenarengana zuzendu zuen.[320] Hain zuzen, Salamancako Unibertsitateak antolatutako ICOS biltzarrean (1955eko udaberria) A. Tovar errektoreak adierazi zuenez, proiektua berrabiatzen saiatu ziren, baina elkarlan horrek ere ez zuen aurrera egin. Euskararen berezitasun genetikoak ezinezko egiten zuen alboko atlas erromanikoen eredua besterik gabe aplikatzea. Aitzitik, P. Yrizarren proposamenak *BRSVAP*en argitaratu ziren 1955-1956 artean. R. Lafon, A. Irigaray eta H. Gavelek hainbat ohar egin zizkioten, baina funtsean proiektu ofizialak huts egin zuen, P. Yrizarren bizi osoko ikerlan bilakatuta. Esan bezala, P. Yrizarren galdeketa aditz morfologiara mugatu zuen, XIX. mendeko L. L. Bonaparte protodialektologoa hartzen zuelako eredutzat. Gainera, L. Michelenak zirriborratutako arlo fonetikoa alboratuta geratu zen (Cortés, García Blanco & Tovar 1958: 49-50; Yrizar 1981; 2001; Etxebarria 1986a; Barandiaran Irizar 1995: 13; Michelena 2011a: 461-504, 571-610).[321]

---

[317] L. Michelenak beste izen hauek ere eman zituen bildutakoen artean: M. Alvar, F. Ynduráin eta M. Sanchis Guarner, azken hori proiektuaren zuzendari gisa (CCG-RP: L. Michelenaren gutuna R. Piñeirori, 1951-12-22).

[318] Orduan ere egon zen euskara «Atlas Lingüístico de la Península Ibérica»n sartzeko asmoa, baina azkenean eremu erromaniko zabalaz baino ez ziren arduratu (KMK-JU: R. Menéndez Pidalen eta T. Navarro Tomásen gutunak J. Urquijori, 1932-12-06 & 1932-12-07).

[319] CCG-RP: L. Michelenaren gutunak R. Piñeirori, 1951-12-22 & 1952-08-02.

[320] Koldo Mitxelena Kulturunea, Koldo Mitxelena funtsa: J. M. Barandiaranen gutunak L. Michelenari, 1952-04-01 & 1954-03-06.

[321] Atlasgintzak eskatzen dituen baliabide teknikoak, pertsonalak eta ekonomikoak hain handiak ziren, Euskaltzaindiak 1980ko hamarkadan baino ezin izan ziola ekin egitasmoari.

IKER-35.indd 122 2/9/19 10:55

Antonio Tovar, José Vallejo eta Alessandro Bausani

Antonio Tovar Llorente (1911-1985), Valladoliden jaioa, gerra zibila hasi zenean Berlinen zegoen JAEren beka batekin. Falangista bilakatu zen, eta konbertituaren fedearekin eutsi zion ideologia faxistari, Eliza katolikoaren eragina ere mugatu nahiz. Radio Nacional de España-ko buru izan zen Burgosen. P. Sainz Rodríguez ministroak, 1938an hezkuntzako erreforman lankidetza eskatu zion latinaren irakaskuntzan. Gerraondoan, Enseñanza Técnica y Profesional-eko zuzendari, Prensa y Propaganda-ko idazkariorde edota Consejo de la Hispanidad-eko zuzendaritzako kide izan zen (Saz 2003; Ramos Ruiz 2009; Escribano Hernández 2011; Alvaro Ocáriz 2012).

R. Serrano ministro falangistaren itzala apaltzearekin batera, politikagintza aktiboa baztertzen joan zen. 1942tik aurrera Salamancako Unibertsitateko latin katedraduna izan zen. Donostiako Círculo Cultural Guipuzcoano ateneoan 1947ko irailean emandako hitzaldian bere euskal ikasketen programa azaldu zuen, aldi berean jeltzaleekiko muga politikoak adierazita:

> Quería terminar indicando algunas de las tareas más urgentes y prometedoras en el campo de los estudios vascos, que siquiera de una manera tímida y con carácter voluntario, han entrado por primera vez en España en los planes universitarios.
>
> No se trata, desde un punto de vista científico, de hacer del vascuence una lengua moderna como las demás, ni de rompernos la cabeza para discurrir como diremos en vascuence billete de banco o parlamento sin acudir a erderismos. Otras y más científicas son las tareas que deben interesarnos (Tovar 1948: 29).

Hain zuzen, *RIEV* berpizteko saioek huts egin ondoren, Salamancako Unibertsitatean argitaratu zituen J. Caroren *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina* (1946) eta H. Schuchardt-en *Primitiae Linguae Vasconum* (1947), A. Irigarayk itzulita, J. Urquijoren hitzaurrearekin; Donostiako prentsa frankistak txalotu zituen liburuak (*La Voz de España* 1947-06-04).[322] Baina A. Tovar ez zegoen eroso Eliza katolikoaren eta Opus Dei-ren eskuetan zegoen Espainiako hezkuntza sisteman. 1947ko irailean

---

Xarles Videgain eta Gotzon Aurrekoetxea unibertsitate irakasleak arduradun izan dituen taldeak, *Euskararen herri hizkeren atlasa* erraldoiaren bederatzi liburuki (2008-2018) argitaratu ditu orain arte, hamabi izatera iristeko helburuarekin (cf. Aurrekoetxea 1987; Videgain 1987).

[322] KMK-JU: A. Tovarren gutuna J. Urquijori, 1946-02-10. GPDk, adibidez, lehenengoaren hogei ale eta bigarrenaren hamabost erosi zituen (guztira 1.680 pta.) 1947ko udaberrian (GPD 1947: 60-61).

IKER-35.indd 123 2/9/19 10:55

Buenos Airesko Unibertsitatean hizkuntza paleohispanikoez hitzaldiak eman zituen. Aldi berean, erbesteko abertzaleekin adeitasunezko harremanetan egon zen: I. López Mendizábal, J. Garate eta I. Gurruchagarekin. Euskal hiztegi etimologiko bat egiteko asmoa agertu zuen, J. Urquijoren bidez osatu nahi zuen *RIEV* bildumatik abiatuta. Izan ere, ikasturte horretan euskal filologiako eskolak ematen hasi zen Salamancan, bi *Primitiae Linguae Vasconum*ak (B. Dechepare eta H. Schuchardt) ikasliburu gisa hartuta.[323]

1948ko urtarrilean urgazle izendatu zuten eta otsailean eskerrak eman zizkion J. Urquijori izendapenagatik.[324] J. Urquijoren ustez A. Tovar latin katedraduna zen, linguistikan zuen heziketagatik, euskal ikasketak Espainian zuzentzeko pertsona egokiena.[325] Euskaltzaindiaren Donostiako batzarrean parte hartu zuen 1948ko maiatzean, R. M. Azkue, J. Urquijo, F. Krutwig eta N. Oleagarekin batera: «Azkenez Tovar euskal-urgazle jaunak dino Salamanka'ko Irakastegi Nagosian aurtengo neguan euskal-gaizko irakaskuntzea erabilli dabela» (Euskaltzaindia 1956: 329).[326] Izan ere, 1947-1948 ikasturtetik A. Tovarrek Espainia osoan ematen ziren euskal filologiako eskola bakarrak eman zituen Salamancan, legez filologia erromanikoko espezialitatea zuten unibertsitate guztiek 1944-1945 ikasturtetik aurrera horretarako aukera izanagatik (Ramos Ruiz 2007: 218)[327]. 1948ko maiatzean, halaber, Gorteetako prokuradore kargua hartu eta ekainean F. Franco estatuburuak audientzian hartu zuen, baina uztailean Buenos Airesko Unibertsitatera alde egin zuen 1949ko abendura arte, zeukan ezinegonaren adierazgarri. A. Tovarrek, falangismoari uko egin gabe, gerraondoan euskararekiko estimua agertu zuen, are euskara literario baten beharra ikusteraino ere (Tovar 1950; Alvaro Ocáriz 2012: 83, 99-100).

Sevillan jaiotako José Vallejo Sánchez (1896-1959) Madrilgo Unibertsitate Zentraleko latin katedraduna zen. Donostiako Felisa Martín Bravo (1898-1979) fisikan doktorearekin ezkonduta zegoen. A. Tovar bezala, dizipulu menendezpidalista eta Centro de Estudios Históricos-en jarraipen haria zen. Biak batera izendatu zituzten urgazle; biak izan ziren L. Michelenaren mesedegile, nahiz eta elkarrekin ongi ez konpondu. J. Vallejok L. Michelena-

[323] KMK-JU: A. Tovarren gutunak J. Urquijori, 1947-11-14 & 1947-12-20.

[324] KMK-JU: A. Tovar eta J. Urquijoren arteko gutunak, 1948-02-12 & 1948-04-03.

[325] Euskaltzaindiaren Artxiboa, Antonio Tovar funtsa: J. Urquijoren gutuna A. Tovarri, 1945-02-11.

[326] ABA-EUS: Euskaltzaindiaren aktaren kopia mekanografiatu ofiziala & A. Tovarren euskarazko agurra, [1948-05-18].

[327] «Decreto de 7 de julio de 1944 sobre la Ordenación de la Facultad de Filosofía y Letras», *BOE*, 1944-08-04.

IKER-35.indd 124 2/9/19 10:55

ren tesia zuzendu zuen eta berak ireki zizkion CSICek bereganatutako *Emerita* aldizkariaren ateak (Puig-Samper Mulero 2007; Michelena 2011c: 301, 568, 2011f: 10; Echenique Elizondo 2016).[328] J. Vallejok, esaterako, N. Esandi IAEVeko buruaren *Vascuence y etrusco* (1946) liburu fantasiosoa oparitu zion J. Urquijori: «Ahí estará mejor entre sus congéneres, y aunque el repertorio de V. de estas obras jocosas es notabilísimo, yo espero que ese Esandi hará un brillante papel».[329] Sevillako katedradunak zenbait ekarpen egin zituen iberieraren inguruan, ildo beretik zebilen J. Carok garrazki kritikatu zituenak: «Ahora Vallejo ha publicado unas notitas sobre ibérico con algunas alusiones a mis trabajos que no revelan demasiada buena intención en casos y en otros que se entera a medias de las cosas. Esto es muy corriente entre profesores» (cf. Vallejo 1946).[330]

Alessandro Bausani (1921-1988) Erroman jaio eta bertako unibertsitateko persiera irakurlea zen. Oso gaztea izan arren, poliglota eta erlijioen historian aditua zen. Alejandro Esteban Lator (SI) islamistaren bidez ikasi zuen euskara eta honek Bilbotik bidalitako gutunean aurkeztu zion J. Urquijori 1947ko apirilean. Halaber, A. Bausanik egindako F. Castroren liburuaren kritika ere bidali zion *BRSVAP*en argitaratzeko asmoarekin (Bausani 1947).[331] Italiako irakasleak, orobat, «Note sul purismo basco» idazlana bidali zion, Donostiako aldizkarian argitaratuko ez zutena, seguru asko abertzaleak mindu zitzakeen tonu polemikoagatik. Bere ustez euskal purismoak ondorio negatiboak baino ez zituen: «da una parte l'inaridirai progressivo di una lingua artificiale, dall'altra il tradimento della lingua materna e il suo abbandono da parte di uomini geniali como Unamuno».[332] J. Urquijok urgazletarako proposatu zuen eta esker onez erantzun zion Erromatik. A. Bausani euskaraz oso ongi idazteko gauza zen eta 1948ko irailean EIL-SIEBen biltzarrean parte hartu zuen Biarritzen.[333] Gero J. M. Barandiaranekin harremanetan jarraitu zuen eta IAEVeko kide ere izendatu zuten (Barandiaran Irizar 1995: 16; Beramendi 2012: 111-112).

---

328 CCG-RP: L. Michelenaren gutunak R. Piñeirori, 1949-12-06 & 1950-05-13.
329 KMK-JU: J. Vallejoren gutuna J. Urquijori, 1947-12-23.
330 KMK-JU: J. Caroren gutuna J. Urquijori, 1947-09-30.
331 KMK-JU: A. E. Latorren gutunak J. Urquijori, 1947-04-20/1947-06-25.
332 KMK-JU: A. Bausaniren «Note sul purismo basco», [1947].
333 KMK-JU: A. Bausaniren gutunak J. Urquijori, 1947-06-30/1948-10-03.

IKER-35.indd 125 2/9/19 10:55

Federico Krutwig

Federico Krutwig Sagredo (1921-1998) Bizkaiko Getxon jaio zen. Friedrich Krutwig (1892-1970) aita, Lehen Mundu Gerran Bilbora etorritako Alemaniako industrialaria zen.[334] Isidra Sagredo Mateo (1893-1966) ama, Getxon jaiotako Burgosko etorkinen alaba zen, baita Prudencio Melo (1860-1945) Valentziako artzapezpikuaren iloba ere.[335] Batxilergoa Bilboko «Deutsche Schule»n ikasi zuen eta gerra zibilak iraun artean Alemaniara eta Portugalera erbesteratu zen militar kolpisten aldeko familiarekin. Bilbora itzulita, Deustuko Unibertsitatean abiatu zituen ekonomia ikasketak, baina bertan behera utzi, eta Escuela de Comercio-ko ikasketak burutu zituen 1942-1949 artean. Aitak markatutako industrialari bidea baztertu, eta euskaran murgildu zen. Familiaren estatus ekonomikoari esker, lanik egiten ez zuen jauntxo gaztea bilakatu zen euskal kulturaren mundu txikian. Poliglota, bere kasa ikasi zuen euskara, eta alemanezko poesia lanak itzuli zituen, Euzkeltzale-Bazkunaren eta P. Zamarriparen metodoez lagunduta. Soldadutzan abantailak lortzeko asmoarekin hizkuntza gaitasun titulu bila zebilela, aitak N. Oleaga abokatuarekin harremanetan jarri zuen. Uste izatekoa da R. M. Azkue germanofiloak, Bilboko goi burgesia tradizioz erdaltzale eta espainolistan eragiteko aukera ikusi zuela F. Krutwigengan. Itxura germanikoa zuen: handia, ilegorria eta begi argiduna. Jatorri eta formazio ezohikoa erabili zituen «tabula rasa» egin eta euskararen hizkuntza eta gizarte arazoei irtenbide berriak proposatzeko (Murua Uria 1997; Ugarte Muñoz 2010-2011).

R. M. Azkuek, euskaltzainburu gisa, saritu egin zuen Bizkaiko burgesia frankistan hazitako gazte haren euskaltzaletasuna, 1942ko urriaren 29an urgazle izendatu zutenean. Handik bost urtera, 1947ko azaroaren 29an, R. M. Azkue, J. Urquijo, P. Zamarripa eta N. Oleagak, Bilbon batzartuta, F. Krutwig euskaltzain hautatu zuten (Euskaltzaindia 1956: 321, 328). JCVk ezarritako baldintza ideologikoak betetzen zituzten kideak aurkitzeko zailtasunekin jarraitzen zuen Euskaltzaindiak. Horren froga da hogeita sei urteko euskaltzain berriaren ezohiko gaztetasuna, egoera normalean desegokitzat jo zitekeena.[336] R. M. Azkue eta F. Krutwigen arteko harremana estua izan zen,

---

[334] Ministerio de Justicia, Registro Civil de Portugalete, tomo 38, folio 277, Sección 3ª.

[335] Nire 2010-2011ko artikuluan F. Krutwigen aitona-amonak Bureba eskualdekoak zirela oker jaso nuen. Amaren jaiotza agiriak dioenez, Montes de Oca-koak ziren (Ministerio de Justicia, Registro Civil de Getxo, tomo 9, página 406, sección 1ª).

[336] Euskaltzaindiaren lehen 90 urteetan, izendatu zituzten unean, euskaltzainen batez besteko adina 50,5 urtekoa izan zen (Torrealdai & Murua Uria 2009: 141).

IKER-35.indd 126 2/9/19 10:55

50 urtetik gorako adin tartea eduki arren. F. Krutwigek aitortu egin zuen euskaltzainburu zaharraren eragina. Orduan ezagutu zituztenek bien arteko harreman bitxia nabarmendu zuten. R. M. Azkuek hainbat dokumentu baliotsu oparitu zizkion F. Krutwigi: adibidez, J. A. Moguelen *El Doctor Peru Abarca* liburuaren 1899ko edizioa egiteko erabili zuen jatorrizko eskuizkribua. Bestalde, F. Krutwigen bidez lortu zuen Ciriaco Párraga pintoreak R. M. Azkueri erretratua egitea hil baino lehenago, 1950eko maiatzean (Krutwig 1991: 79, 109; Alvarez Enparantza 1995: 129; Yrizar 2001: 69; Michelena 2011d: 562).[337]

Irudia 7. **Federico Krutwig**

Iturria: *Aránzazu* (1950eko azaroa).

[337] R. M. Azkueren garai bereko beste erretratu bat Lerchundi Sirotich anaiek egin zuten «Galería de celebridades vizcaínas» sailerako eta Bilboko Euskal Museoan gordetzen da (Álvarez & Garay Urresti 2013: 64).

IKER-35.indd 127 2/9/19 10:55

3. EUSKALTZAINDIAREN ERREFORMA

3.1. ELADIO ESPARZAREN DIMISIOA ETA BONIFACIO ECHEGARAYREN BERRARTZEA

1949ko urtarrilean euskaltzainburuak gutun luze bat zuzendu zion JCVri. Zortzi urte igaroak ziren Euskaltzaindia berriz abiatu zenetik instituzio horren baimenarekin. Emaitza eskasak ikusita, argi zegoen diru laguntzak areagotu ezean, Akademiak ez zuela gutxieneko jarduerarik burutu ahal izango. R. M. Azkuerena ez zen eskari hutsa, tonu patetikoan egindako erregua baizik:

> Una feliz sugerencia de esa dignísima Junta de Cultura, avalorada con el ofrecimiento de generoso auxilio económico dio pie para que esta Academia de la Lengua Vasca reanudara en el año 1.941 su actividad en torno al idioma vascongado que desde su creación el [año] 1.918 había venido desarrollando hasta que la anormalidad creada por la todavía reciente guerra civil impuso forzada interrupción.
>
> El muy reducido fondo propio de esta Academia, unido a la aludida generosa subvención de esa Junta, y a otras muy [modestas] ayudas análogas de la Excma. Diputación de Guipúzcoa y del Ayuntamiento de Bilbao, han permitido que en esta su segunda etapa de vida, pudiera proseguir siquiera fuese en muy estrechos límites y con grandes dificultades en el cumplimiento de sus científicos y culturales fines.
>
> [E]l total agotamiento de aquel fondo y lo reducido de las subvenciones aludidas, sin haber logrado hasta ahora, no obstante haberlas solicitado, nuevas asistencias, han creado a esta Academia dificilísima y angustiosísima situación económica, con la que no le es posible intentar la reanudación del Boletín o Revista en que anteriormente venían publicándose sus interesantes trabajos, siempre buscados con afán y gratamente acogidos por los Centros científicos

IKER-35.indd 129 2/9/19 10:55

nacionales y extranjeros, como tampoco la edición de obras de algunos de sus miembros y ni aun la adquisición de obras filológicas y literarias apropiadas a su misión, habiéndose visto precisada ante los gastos cada día crecientes que originan los desplazamientos de sus miembros, a disminuir considerablemente el número de sesiones académicas, con la perspectiva de tener que suspenderlas casi en absoluto, con práctica anulación en tal supuesto de la eficacia de la labor que le corresponde por su naturaleza y constitución.

En atención a estas circunstancias y consideraciones, el suscrito en nombre y representación de esta Academia [ha] de dirigirse a esa respetable Junta con la encarecida suplica de que se digne aumentar en el máximo posible la subvención que le viene concediendo.[338]

E. Calle idazkariak euskaltzainburuaren erreguaren berri eman zuen JCVren otsaileko batzarrean, baina geroratu egin zuten erabakia, urte horretako argitalpen gastuak zeintzuk izango ziren ikusi arte.[339] 1949ko martxoaren 25ean Donostian batzartu zen ohi baino euskaltzain talde handiagoa: R. M. Azkue, J. Urquijo, I. M. Echaide, A. Irigaray, F. Krutwig eta N. Oleaga. 1920ko barne erregelek ezartzen zuten gutxieneko seikotea osatu zuten. Probintzia jauregian egindako batzar hori garrantzitsua izan zen, F. Krutwigek «Estudios vascos de filología comparada» lana irakurtzeaz harago, Euskaltzaindiaren osaerari eragiten zioten erabakiak hartu zituztelako (Euskaltzaindia 1982: 4).

Alde batetik, E. Esparzaren dimisioaren berri eman zuen A. Irigarayk, hura lanpetuegi zegoela azalduz Akademiaren zereginetarako. 1941ean euskaltzain izendatu zutenetik, frankista amorratua ez zen inoiz batzarretara agertu. Batzarrak dimisioa onartu eta handik aurrera hura urgazle izatea erabaki zuen. Era berean, Gipuzkoako Bergaran jaiotako Pedro Zabala (1889-1956) eta Nafarroako Leitzan jaiotako Vicente Saralegui (1907-1966) urgazle izendatu zituzten, nahiz eta ez zuten eraginik izan bizitza akademikoan.[340] V. Saralegui arkitektoak 1946-1947 artean zenbait hitz zerrenda bidali zizkion Doneztebetik R. M. Azkueri, eta uste izatekoa da lexikografiarako lankide posible gisa izendatu zutela (Etxebarria 1986b).[341] P. Zabala abokatuak Gasteiztik hainbat toponimia zerrenda bidali zizkion L. Michelenari, gero *BRSVAP*en argitaratzen joan zirenak. Akademiarekiko elkarlana, ordea, ezerezean

[338] BFAH-EC: R. M. Azkueren gutuna JCVri, 1949-01-27, Junta de Cultura C-40 -01-.

[339] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1949-02-28, Junta de Cultura C-62. Kide hauek bildu ziren: J. Ybarra, N. Zorrilla, J. L. Gaytán de Ayala, F. Ygartua, F. Crooke, I. Urquijo eta E. Calle.

[340] ABA-EUS: P. Zabalaren esker oneko gutuna Euskaltzaindiari, 1949-07-30.

[341] ABA-RMA: V. Saralegui eta R. M. Azkueren arteko gutunak, 1946-09-07/1947-02-18.

IKER-35.indd 130 2/9/19 10:55

geratu zen: «Soy, como sabe Vd., *urgazle* de la Academia de la Lengua Vasca. Pero para que un *urgazle* pueda *ayudar*, es preciso que se le pida ayuda. Pasan los años y todavía no he escuchado ningún S.O.S. de petición de socorro».[342]

E. Esparzaren hutsunea betetzeko, aldiz, J. M. Seminario Nafarroako kazetari erreakzionarioa izendatu zuten euskaltzain. Euskaltzain berriaren izendapenak, berriz ere, ez zituen 1920ko araudiak ezarritako baldintzak jarraitu, eta Akademiaren artxiboan ez dago J. M. Seminarioren hautagaitzaren aurkezpen agiririk, ustez hiru euskaltzainek sinatu behar zuten horrenik (cf. Euskaltzaindia 1920b: 8-9). F. Krutwigek, bere burua politikoki zuritzearren, gero adierazi zuen J. M. Seminario A. Irigarayk proposatu zuela, baina ondoren ikusiko dugun gutunaren arabera, proposamena Bilbotik zetorren eta F. Krutwig izan zen Euskaltzaindiaren ordezkaria J. M. Seminariorekin harremanetan jartzeko (cf. Iztueta & Iztueta 2006: 460; Krutwig 1986: 15-16).

Izan ere, A. Irigarayk 1949ko urtarrilean eman zion E. Esparzaren dimisio asmoaren berri zuzendaritzari. Akademiaren aginduz, E. Esparzarekin jarri zen harremanetan egoera argitzeko, Donostiako *El Diario Vasco* egunkariko zuzendari J. Berruezoren bidez. Esan bezala, Lesakako kazetariak uko egin zion euskaltzain izaten jarraitzeari, baina Akademia Nafarroan babesik gabe gera ez zedin, prest zegoen Iruñean Euskaltzaindiaren ordezkaritza bat antolatzeko. Ordezkaritza hori osatzeko, A. Irigarayk kide batzuk iradoki zizkion. Asmoa, E. Esparzaren bidez, NFDtik diru laguntza lortzea zen ordezkaritzarako. Zerrendan, gune euskaltzale egonkorra sortzeko asmoarekin, 1925ean sortutako Euskeraren Adiskideak talde apolitikoan ibilitakoak, elizgizonak, frankista dirudunak eta jeltzaleak nahasten ziren.[343]A. Irigaray, orobat, ados agertzen zen V. Saralegui urgazle eta, E. Esparzaren ordezko, J. M. Seminario euskaltzain izendatzearekin.[344] Ordezkaritzarik ez zen zabaldu, baina NFDk laster eman zituen hainbat erraztasun, ikusiko dugunez.

1949ko martxoko batzarrean, bestetik, B. Echegaray legelariak euskaltzain postua berreskura zezala ebatzi zuten. B. Echegaray Frantzian erbesteratuta egon zen 1937ko uztailetik 1943ko maiatzaren 20ra arte. EJ-GEren «Zuzentza eta Gogo-lantze» («Justicia y Cultura») sailetako aholkularia izateaz gain, Errepubli-

[342] KMK: P. Zabalaren gutuna L. Michelenari, [195-?].

[343] B. Fagoaga, M. P. Ciganda, F. Astiz, M. Esparza, J. Aguerre eta J. Ezquieta aipatu zituen Nafarroako medikuak. Era berean, aurrekari garbia zuen EI-SEVek Iruñean 1935ko maiatzean sortutako ordezkaritzan, A. Irigarayk, J. Aguerrek edota E. Esparzak berak osatu zutena (Estornés Zubizarreta 1983: 43).

[344] ABA-EUS: A. Irigarayren gutuna N. Oleagari, 1949-01-10.

IKER-35.indd 131 2/9/19 10:55

karen Auzitegi Goreneko idazkari gisa epaiketa militarra egin zioten, Burgosko Kapitaintza Jeneralak 1943ko abenduaren 12an zigorrik gabe utzi zuena. 1930eko hamarkadan izandako jarduera publikoa baztertuta, Madrilen bizi zen, E. Bilbao Gorte frankistetako presidentearen babesarekin.[345] Abailduta zegoen, Errepublikaren alde gerra egindako José M.ª Echegaray semea hil zitzaiolako auto istripuan, alarguna eta hiru seme-alaba utzita. 1944ko irailean R. M. Azkueri idatzi zion bere burua zuritu eta egoeraren berri emateko:

> Se alegrará mucho V. de saber que mi situación está perfectamente arreglada con una resolución de la Autoridad militar que proclama mi inculpabilidad mediante el reconocimiento de que actué por mi condición de funcionario público y de que lejos de causar daño a nadie, procuré hacer todo el bien que pude a los enemigos del bando en que yo hube de prestar mis servicios.[346]

Hala ere, agian bekaizkeria profesionalagatik, 1945ean berriz ere separatistatzat salatu zuten eta Madrilgo Instrukzioko Epaitegiaren aurrean bere burua defendatu ahal izateko, besteak beste, E. Bilbaoren aldeko lekukotasuna izan zuen.[347] Hurrengo urteetan, R. Fernández Cuesta falangista buru zuen Justizia ministerioak Auzitegi Goreneko idazkaritzan konfirmatu zuen, lehenengo sail kriminalean eta ondoren zibilean.[348] Lau urte igarota, Akademiak 1949ko ekainean bidali zion erabakiaren berri Madrilera: «Euskaltzaindiak erabagi dau zuri eskatutea euskaltzaintzeari eragon dakiozula, kisa oŕeri dagokiozan lanetan beŕasirik eta batzaŕetara eldurik».[349] Baina semeak erantzun behar izan zuen, B. Echegaray lur jota zegoelako egun berean hil zitzaizkiolako Ricarda Irabien emaztea eta M.ª Dolores Echegaray alaba. Zorigaitz horien ondorioz, B. Echegarayren garaiko korrespondentzia guztia dolu paperean idatzita dago. Akademiaren hiru batzarretara baino ez zen agertu: 1949ko

[345] SAF-AA: B. Echegaray eta E. Bilbaoren arteko gutunak, 1944-01-16, 1944-01-17, 1944-02-22 & 1944-02-29, DP-1603-02.

[346] ABA-RMA: B. Echegarayren gutuna R. M. Azkueri, 1944-09-01.

[347] SAF-AA: L. Vacas Andino, E. Bilbao eta B. Echegarayren arteko gutunak, 1945-06-23, 1945-07-21 & 1945-08-03, DP-1603-02.

[348] «Decreto de 7 de diciembre de 1945 por el que se nombra para la plaza de Secretario de la Sala segunda de lo Criminal, del Tribunal Supremo, a don Bonifacio Echegaray Corta», *BOE*, 1945-12-28; «Orden de 31 de enero de 1946 por la que se dispone que el Secretario de la Sala Segunda del Tribunal Supremo, don Bonifacio Echegaray Corta, pase a prestar sus servicios, con igual cargo, a la Sala Tercera del propio Tribunal», *BOE*, 1946-02-08 & «Decreto de 13 de diciembre de 1946 por el que se nombra a don Bonifacio Echegaray Corta Secretario de la Sala Primera de lo Civil del Tribunal Supremo», *BOE*, 1947-01-02.

[349] ABA-RMA: R. M. Azkueren gutuna B. Echegarayri, 1949-06-20.

IKER-35.indd 132 2/9/19 10:55

irailean Donostiara eta 1951ko apirilaren 28-29etan Bilbora (Arana Martija 2004: 9, 14-15).[350] Aitzitik, 1941ean agintari frankistek Euskaltzaindiari ahoz ezarritako baldintzak lasaitzen hasi ziren. Erbestean egondako kide batek euskaltzain postua berreskuratzen zuen. Atzerrian jarraitzen zuten, ordea, S. Altube eta D. de Inzak. Ikusi dugunez, ez ziren kide arruntak, zuzendaritzako kideak baizik. Gerra zibila hasi zenean diruzain eta «yagoleen» sailburu ziren, hurrenez hurren. «Ikerleen» sailburua 1937an hildako A. Campión zen.

Lexikografiaz den bezainbatean, 1949ko martxoaren batzar horretan adierazi zuten gaztelania-euskara hiztegiko «f» letraraino iritsi zirela. Gainera, erakundeak bizi zuen bakartasunaren eta oihartzun eskasaren erakusgarri, batzar horretan uko egin zioten ordezkari bat bidaltzeari Bruselan antolatutako ICOS biltzarrera, nahiz eta atxikimendua bidali zieten J. Herbillon eta H. J. de Wijer zuzendariei.[351]

3.2. JUAN MIGUEL SEMINARIOREN SARRERA EKITALDIA (BILBO, 1949-06-25)

E. Esparza ordezkatzeko hautagaia zen J. M. Seminarioz A. Irigarayri iritzia galdetu zioten arren, proposamena Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzatik atera zen. Nire ustez, hautagaitzak harreman zuzena zuen Akademiaren aurrekontu arazoak konpontzeko BPDko agintariengandik espero zen laguntzarekin. Izan ere, J. M. Seminario, Nafarroan jaiotakoa izan arren, Bilboko *El Correo Español-El Pueblo Vasco* egunkariaren zuzendariordea eta Javier Ybarra Bergé (1913-1977) egunkariko kontseiluburuaren adiskidea zen. Uste izatekoa da 1947ko maiatzetik BPDko presidente zen J. Ybarraren iradokizunez edota hari atsegin emateko izendatu zutela J. M. Seminario euskaltzain Akademiaren martxoko batzarrean. Bestalde, J. Urquijoren iloba ere bazen J. Ybarrari R. M. Azkuek apirilean idatzitako gutunean ageri denez, berarekin bildu zen egun batzuk lehenago berriz ere Euskaltzaindiaren egoera ekonomiko larriaz hitz egiteko.[352]

---

[350] ABA-EUS: Ricardo Echegarayren gutuna N. Oleagari, 1949-09-19.

[351] J. M. Barandiaran eta J. Carok, ordea, komunikazio bana irakurri zuten Bruselako biltzarrean. J. Carok, CSICen ordezkari gisa, euskal toponimiaren geruzak eta hizkuntzen arteko harremanak izan zituen hizpide. Hura zen Mundu Gerra aurreko nazioarteko biltzar zientifikoen tradizioa berreskuratzen zuen lehendabizikoa. Bertan topo egin zuten, adibidez, A. Griera frankistak eta P. Bosch Gimpera errepublikazaleak istilu larririk sortu gabe. A. Grierak euskararen jatorria latinean zegoela frogatzeko ahaleginetan jarraitzen zuen (Eusko-Jakintza 1950; Griera 1963: 316-317; Barandiaran 2009: 754-756).

[352] BFAH-EC: R. M. Azkueren gutuna J. Ybarrari, 1949-04-06.

IKER-35.indd 133 2/9/19 10:55

Irudia 8. **Juan Miguel Seminarioren sarrera ekitaldia (Bilbo, 1949-06-25)**

POLITICA DE PAZ

Se halla el orbe ante una triste conclusión: la guerra, a plazo más o menos corto, es ya insoslayable

En la Academia de la Lengua Vasca

Ayer ingresó en la Corporación el señor Seminario de Rojas

BATAVELAS

DUROS ATAQUES A AC CONSECUENCIA DE LA DE ESTADO HA

Por la cristianización de las costumbres veraniegas

Iturria: *El Correo Español-El Pueblo Vasco* (1949-06-26).

IKER-35.indd 134 2/9/19 10:55

Juan Miguel Seminario Rojas (1904-1968) Nafarroako Beran jaio zen. Esteribarren jaiotako Pedro Seminario Artola aita, Berako siderurgia fabrikaren zuzendaria zen. Amelia Rojas ama, teniente koronel baten alaba, Kuban hazitakoa zen. Zuzenbidean lizentziatu arren Madrilgo Unibertsitatean, Raimundo García *Diario de Navarra*ko zuzendariak bultzatuta, kazetaritza ere ikasi zuen. Errepublikan, CEDAren ildoko *El Debate* egunkarian, informazio politikoaz arduratu zen. 1936ko udan, Falange-ren *¡Arriba España!* egunkaria Iruñean sortu zutenen taldekoa izan zen, F. Yzurdiagaren zuzendaritzapean. Bilbo 1937ko udan okupatu ostean, Movimiento Nacional-aren *El Correo Español* egunkari berrian aritu zen erredaktoreburu. Gero, 1939-1940 artean, Badajozko *Hoy* egunkaria zuzendu zuen. *CE-PV* baterarazi ondoren, zuzendariorde eta erredaktoreburu izan zen 1940-1951 artean, J. Zuazagoitia Bilboko alkatea egunkariaren zuzendari zela. Zuzendariorde izan ahal izateko, FET-JONSeko txartela aurkeztu behar izan zuen: 83.558 zenbakiduna.[353]

J. M. Seminariok Euskaltzaindian beste komisario politikoek baino eginkizun sonatuagoak bete zituen arren, nabari da ez ziola Akademiari garrantzirik eman. 1949ko ekainean sarrera hitzaldi publikoa egin zuen, eta 1950ean M. Lecuonari erantzuna emateaz arduratu zen. Dena dela, bi ekitaldi horietara joateaz gain, soilik beste bi batzarrera agertu zen: 1949ko irailean, F. Krutwigen dosier aurkezpenera, eta 1952ko ekainean, L. Villasanteren sarrera ekitaldiak sortutako istiluaren harira. Buruko gaitzak jota zegoen eta ohitura xelebre samarrekoa omen zen. 1943tik aurrera «Eutrapelicus» izengoitia erabiltzen zuen egunkariko azken orrialdean, ustezko etimologiez-eta idazteko. J. Zuazagoitiarekin eta E. Callerekin batera, egunkariaren lerro editorialaz arduratu zen, Mundu Gerratik aurrera falangismo zurruna leuntzen joan zenaz. J. M. Seminario euskaltzain izendatzeak, Bilboko botere frankistarekin elkarlanean aritzeko asmo garbia erakusten zuen. JCVn, Bilboko Udalean edota prentsa monarkiko ohian, falangismo ofizialarekiko autonomia gehiagorekin jarduteko aukera ikusten zuten agian Euskaltzaindian. Dena dela, 1951n Iruñeko txokolate fabrika jarauntsi eta Bilboko egunkariko kargua utzi egin zuen. Ordurako buruko gaitzak agerikoak ziren eta irabazitako dirua xahutu egin omen zuen (Euskaltzaindia 1982: 4-11; Ybarra 1985: 79-80; Sánchez-Tabernero 1989: 208-214; Krutwig 1991: 95, 100, 132).

---

[353] *Diario de Navarra* 1949-01-19; 1968-04-14; *CE-PV* 1968-04-14; *ABC* 1968-04-16.

IKER-35.indd 135 2/9/19 10:55

Euskaltzainburuak batzar egunean bertan gutunez jakinarazi zion izendapena J. M. Seminariori.[354] *CE-PV*k, jakina, azalean eman zuen berria. Euskalaritzan inolako eskarmenturik ezean, zuzendariordeak euskal gaiak dibulgatzeko egindako ahalegina goraipatu zuten, frankismoaren politika linguistikoa zuritu nahian (*CE-PV* 1949-03-27). Akademiaren gaineko kontrol politikoaren eragin urria partez euskaltzainburuaren irmotasunari zor zitzaion arren, agintari frankisten ordezkari ofiziosoak gaitasun eskaseko akademikoak izan ziren. Militantzia frankista eta euskararekiko gutxieneko ardura gaizki ezkontzen ziren. Hala ere, F. Krutwig gazteak J. M. Seminario erabiltzen saiatzeko aukera ikusi zuen N. Ormaecheari 1951n adierazi zionez:

> Con el nombramiento de Seminario de Rojas (hecho a propuesta de Irigaray), decidí pues yo, que venía combatiendo las condiciones impuestas, valerme justamente de este nombramiento de ese Sr., quien, al estar convencido de que ha entrado con el pie izquierdo, quiso buscar apoyo moral en alguien dentro de la Academia (Iztueta & Iztueta 2006: 460).

Euskal kultura eta hizkuntza bereziak, historikoki, diskurtso foruzalearen osagai oso garrantzitsuak izan ziren. Gerra zibilak eragindako traumen ondoren ere, Bizkaiko zenbait monarkiko frankistek ez zioten uko egiten, maila erretorikoan izanagatik, euskal kultura eta hizkuntzari, kontzertu ekonomikoari uko egiten ez zioten bezalaxe. Euskal kultura eta hizkuntza espainolismorako berreskuratzea, J. Urquijo eta R. M. Azkueren itzalean, tokiko zenbait agintari frankisten gogoan zegoen. Proiektu horretan, Frantzia-Nafarroetako euskalkiek jeltzaleen bizkaitarrismoak «kutsatu» gabeko eremuak ziruditen. J. M. Seminario euskaltzain izendatzeak, J. Ybarrak ez ezik, E. Esparzak edota Bizkaiko gobernadore zibilak ere begi onez ikus zezaketen.[355] Izendapenari eman nahi zitzaion oihartzunaren erakusgarri, J. M. Seminariorena izan zen gerraondoko lehen sarrera ekitaldi publikoa. 1949ko maiatzean euskaltzainburuari idatzi zion, sarrera hitzaldiaren gaia aurkezteko:

> Hablar sin erderismos —ni sintáctico ni léxicos— de temas de lo que un poco pedantescamente pudiéramos llamar «alta cultura», y al mismo tiempo hacerlo con un léxico perfectamente inteligible por todos. No solamente por los académicos sino por cualquier euskeldun de cepa. Claro es que como represen-

[354] ABA-EUS: R. M. Azkueren jakinarazpena J. M. Seminariori, 1949-03-25.

[355] F. Krutwig euskaltzain gaztearengan ere, Bizkaiko oligarkiaren elitismo kulturalaren oihartzuna sumatzen zen: «¡Cuando Bilbao era Atenas!» errepikatzen zuen J. Ybarrak behin eta berriz *Política nacional en Vizcaya* (1947) liburuan, eskuin muturreko intelektualak goratzeko.

IKER-35.indd 136 2/9/19 10:55

tante del Alto Navarro, mi discurso será en ese dialecto y, que, naturalmente, de propio intento, he empleado algunos modismos característicos.[356]

Gutunean adierazi zuenez, bizimodu desordenatua zeraman Nafarroako kazetariak. Eguerdiko ordu bietan esnatu eta goizeko bostetan oheratzen zen, egunkariko lanak azken unera arte atzeratuta. Halaber, Ph. Veyrinen *Les basques de Labourd, de Soule et de Basse Navarre* (1942) itzultzen eta euskal literaturaren historia bat idazten ari omen zen. Badirudi euskaltzainak arduratuta zeudela J. M. Seminarioren luzamenduekin. Nolanahi den, pozik onartu zuen F. Krutwigek erantzuna ematea, baina bi hizlarien deitura erdaldunak izan zezakeen efektu negatiboak kezkatzen zuen:

> Me parece muy bien la confirmación del encargo de contestarme en la persona del señor Krutwing [sic]. Nadie más adecuado que él, pues quien estableció contacto conmigo desde el primer momento. Una sola duda tenía —duda que le expuse al interesado desde el primer momento— y era la del contraste de los ap[e]llidos de ambos con el nombre y la finalidad de la Institución. No me negará usted que se presta al humorismo... Pero, desechado esto —creo que era un deber mío el hacer esta observación— desde todos los restantes puntos de vista, me parece perfecto.[357]

J. M. Seminarioren sarrera ekitaldiarekin, beraz, hamarkada osoan izandako soslai ia pribatuari amaiera eman nahi zitzaion, Euskaltzaindiari agerikotasuna emanez. Horrek, noski, aginte politikoaren kontrola ere modu nabarmenagoan erakustea zekarren. Euskaltzainburuak maiatzaren 31n baimena eskatu zion JCVri, sarrera ekitaldia probintzia jauregian egin ahal izateko.[358] JCVk bideratu zuen ekitaldia egin ahal izateko baimenaren eskea. Hezkuntza Nazionaleko ministerioaren «Subsecretaría de Educación Popular» delakoaren Bizkaiko delegatuak (B. Bureba) ekainaren 23an baimenaren berri jakinarazi zion JCVko idazkariari.[359] Idazkaria Esteban Calle idazle espainolista zen, gobernadore zibilaren gertukoa, eta Euskaltzaindia kontrolatzeko saioak gogortu zituena. P. Garmendia hil ondoren, JCVko idazkari izendatu zuten 1947ko maiatzaren 13an.[360]

---

[356] ABA-RMA: J. M. Seminarioren gutuna R. M. Azkueri, 1949-05-17.

[357] ABA-RMA: J. M. Seminarioren gutuna R. M. Azkueri, 1949-05-17. Kontuan hartu behar da adinagatik J. M. Seminario zela F. Krutwigi gehien hurbiltzen zitzaion euskaltzaina. Beste guztiak XIX. mendean jaiotakoak ziren.

[358] BFAH-EC: R. M. Azkueren gutuna JCVri, 1949-05-31, Junta de Cultura C-40 -01-.

[359] ABA-EUS/BFAH-EC: Espainiako Hezkuntzako Nazionaleko ministerioaren ofizioa JCVri, 1949-06-23, Junta de Cultura C-40 -01-.

[360] BFAH-EC: BPDko presidentearen ofizioa JCVri, 1947-05-19, Educación, Deportes y Turismo 152, C-1006 BIS. 67 -EXP-12. Esteban Calle Iturrino (1892-1977) Bizkaiko Partido

IKER-35.indd 137 2/9/19 10:55

Ekainaren 20an E. Callek ekitaldian parte hartzeko gonbita bidali zien J. Ybarra BPDko presidenteari eta beste hamabost agintariri.[361] Ezin etorria adierazi zutenen artean zeuden Delegado Provincial de Trabajo de Vizcaya zena, edota Bizkaiko gobernadore militarra.[362] Bilboko prentsak ere ekitaldia iragarri zuen (*Hierro* 1949-06-22; *CE-PV* 1949-06-25). N. Oleaga idazkariak euskaltzainei bidali zien batzar deian, halaber, ekitaldiaren garrantzia nabarmendu zuen: «Batzar oŕetan aundikiro ospatuko da Joan Migel Seminario de Rojas euskaltzain baŕi jaunaren saŕera, ta beste ardura aundiko arazo batzuk bere erabiliko dira. Etoŕi, bada, ¡otoi!, uts gabe».[363] Probintzia jauregian JCVk zuen gelan J. M. Seminarioren ageriko sarrera ekitaldia egin zuten 1949ko ekainaren 25ean. Jendaurreko hitzaldien aurretik Bizkaiko euskaltzainak baino ez ziren bildu: R. M. Azkue, P. Zamarripa, F. Krutwig, N. Oleaga eta J. M. Seminario.[364] Aktak dioenez, F. Krutwigek Akademiaren jardun motela gaitzetsi zuen:

> Krutwig jaunak dino bere eritziz Euskaltzaindia zelanbaiten barriztu bear litakela, orain dagoan ta dabilen lez jarraitu ezkero, euskerearentzat onura gitxi datorrela-ta. Onezaz adierazoten dauz zertzelada batzuk. Aintzakotzat artu da Krutwig[en] asmo ori ta urrengo batzaŕerako gai onezaz dosier bat ekarri dagiala erabagi da (Euskaltzaindia 1982: 5).[365]

F. Krutwigek N. Ormaecheari 1951n gutunez adierazi zion batzar horretan euskaltzain guztiek bi puntu onartzea lortu zuela, nahiz eta aktan ez zen islatu. Alde batetik, erbesteratutako euskaltzainek aulkiak berreskuratu zituz-

---

Comunista de España-ren sortzaileetakoa izan arren, diktadura primorriveristan Unión Patrióticara igaro eta Bilboko Udaleko zinegotzi kontraiaultzailea izan zen Errepublikan eta gerra zibilean (Krutwig 1991: 131-132, 134; Amézaga 1993; Agirreazkuenaga & al. 2008: 119, 149-151).

[361] BFAH-EC: E. Calleren gutunaren kopia, 1949-06-20, Junta de Cultura C-40 -01-.

[362] BFAH-EC: L. Nozal Lópezen eta R. Rodríguez Llamasen gutunak JCVri, 1949-06-25 & 1949-06-22, Junta de Cultura C-40 -01-.

[363] ABA-EUS: N. Oleaga idazkariaren batzar deia, 1949-06-22.

[364] RSVAPek J. Urquijori Gipuzkoan egindako omenaldia bi egun lehenago izan zen. Gainera, Bilboraino joatea kostatzen zitzaion, hanka hautsiaren ondorioak jasaten zituelako (KMK-JU: J. Urquijoren gutuna J. Carori, 1949-06-15).

[365] N. Oleaga idazkariaren gaztelaniazko akta mekanografiatuak honela dio: «El Sr. Krutwig manifiesta que a su juicio debería renovarse en algún modo esta Academia de la Lengua Vasca, pues que en el estado en que se encuentra y en que funciona resulta que favorece poco al idioma. En este sentido aduce diversas circunstancias. Se toma en consideración esta idea del Sr. Krutwig y se acuerda que el propio señor prepare sobre este particular para la próxima sesión el informe que considere adecuado» (ABA-EUS: Euskaltzaindiaren aktaren kopia mekanografiatu ofiziala, 1949-06-25).

IKER-35.indd 138 2/9/19 10:55

ten eta, bestetik, berriz deituko zituzten batzarretara bai erbesteko abertzaleak bai frantses herritarrak (Iztueta & Iztueta 2006: 461). Aktak jasotzen duenez, JCVren Akademiako ordezkaritza ordutik aurrera J. M. Seminariok eraman zuen, J. Irigoyenen ordez.[366]

Osoko batzarraren ondoren, ekitaldi irekiari hasiera eman eta gelako ateak zabaldu zizkieten tokiko agintari frankistei: G. Riestra gobernadore zibilari, J. Ybarra BPDko presidenteari eta J. Zuazagoitia Bilboko alkateari. N. Oleaga idazkariak, ezin etorriak jakinarazi zituen: A. Irigaray, I. M. Echaide eta B. Echegaray euskaltzainak, J. M. Arellano NFDko presidente berria, Berako alkatea, Bilboko frantses eskolen zuzendaria edota Erresuma Batuko kontsula.[367] J. M. Seminariok «Itz-barri sortea izkuntzetan eta batezbere euskerean» izan zuen hizpide hitzaldian, eta erantzuna F. Krutwigek eman zion.

Hurrengo egunetan prentsa frankistak Akademiaren ekitaldiaren berri eman zuen.[368] *CE-PV* egunkariak, noski, azalean eman zuen berria, bi fotografiarekin. Entzuleen artean, orain arte aipatutakoez eta JCVko kideez gain, Berako alkateordea, Joaquín Caruncho Bizkaiko poliziaburua, itsas komandantziaren ordezkariak eta beste agintari frankista batzuk zeuden. Ekitaldiak soslai politiko argia izan zuen, are gehiago Nafarroako J. M. Seminariok ematen zion «laurac-bat»iar kutsuarekin. Euskaltasuna eta espainolismoa uztartzeko propaganda saio garbia zen egunkariko berria bera:

> Seminario es un vasco perfecto. Toda su persona rezuma vascongadismo. Cuando para este chapelaundi del Bidasoa, parece una realidad y un símbolo. Si lo encontráramos en Calcuta y no le conociéramos, no tendríamos inconveniente en dirigirnos a él en vascuence, seguros de no equivocarnos. Su esqueleto, su manera de andar, de meter las manos en los bolsillos, de recoger el mentón contra el pecho, de mirar tímidamente… todo delata al vasco de cepa. Sus reacciones vitales son también ejemplares. Su manera de comer, de hablar, de dar la mano, todo en él es vasco. Y como lo es de verdad, sin falsedades, sin pseudosentimentalismos, ni telarañas mentales. Seminario es un español cabal. Con qué justo y

[366] Ikusi dugunez, 1943tik aurrera J. Irigoyenek ez zuen batzarretan parte hartu, eta Akademiak aurrerantzean ez zuen euskaltzaintzat hartu. 1950eko hamarkadan argitaratu ziren euskaltzainen zerrendetan, adibidez, J. M. Seminario euskaltzaina eta E. Esparza urgazlea agertu ziren, baina ez J. Irigoyen (cf. Euskaltzaindia 1953; 1958).

[367] ABA-EUS: A. Irigaray (1949-06-25) eta I. M. Echaideren (1949-06-24) telegramak R. M. Azkueri, J. M. Arellanoren idazkariaren telegrama J. Ybarrari (1949-06-25) & Berako alkatea (1949-06-24), J. Hazera (1949-06-20) eta H. McErlean-en (1949-06-21) gutunak R. M. Azkueri.

[368] *La Gaceta del Norte* 1949-06-26; *La Voz de España* 1949-06-26; *Hierro* 1949-06-27.

IKER-35.indd 139 2/9/19 10:55

humano equilibrio conjugó ayer lo vasco, lo español y lo universal. Con qué sencillez elegante se movió en el resbaladizo campo de la filología. Con qué seguridad utilizó las ideas generales. Ayer, en la paz española, pudimos sentirnos orgullosos de nuestra raza y nuestra lengua, sin equívocos, sin torcidas y mezquinas interpretaciones. Y por ello nos sentimos seguros españoles. Españoles plenos que no renuncian a ningún valor de nuestro suelo ni de nuestra historia. De ahí que amemos el vascuence en la integridad de nuestro sentido español. ¡Qué bien sonó en nuestros oídos el vascuence vizcaíno de don Nazario Oleaga, el alto navarro de Seminario y el laburdano del señor Krutwing [sic]! ¡Con qué gozo sin reservas y sin resentimientos se nos inundó el alma del soplo ancestral de nuestro milenario idioma. Y todo porque un vasco cabal ingresó en la Academia del vascuence, con la misma naturalidad que en una casa de Vera (*CE-PV* 1949-06-26).

J. M. Seminariok sarrera hitzaldia lehenengo euskaraz eta ondoren gaztelaniaz eman zuen, hizkuntza bakoitzari salomonikoki ordu erdi bana eskainita. Izenik aipatu gabe, sabindar neologismo garbizaleen aurka egin zuen: «Por ese camino se puede llegar a extremos verdaderamente demenciales, con grave daño, por diversos conceptos, para el vascuence» (*CE-PV* 1949-06-26). Euskaraz hitz egin eta herri literatura idatzi behar zen, hizkuntza hil ez zedin, baina kultura jasoa, erlijioa eta zientzia, ordea, erdararen eremu esklusiboak ziren:

La literatura científica requiere los grandes idiomas. Los idiomas hablados por muchos millones de personas, como el español, nuestro gran idioma nacional, representante y vehículo de una de la media docena de más grandes culturas de la Historia Universal. No es que en vascuence sea imposible tratar acerca de estas materias, es que sería un trabajo inútil. Inútil y hasta perjudicial, porque sería tanto como oponer obstáculos a la difusión de la cultura. Inútil, ya que con sólo un núcleo de medio millón de poseedores del idioma no se cuenta ni con las minorías cultas de la densidad necesaria para acometer dicha empresa e inútil en fin porque como consecuencia de todo lo dicho, desde el punto de vista económico, no serían posibles las ediciones de obras de alta ciencia y de alta cultura escritas en vascuence (*CE-PV* 1949-06-26).

Euskararen «purgatorio» diglosikoari gorazarre mediatikoa egiteko Euskaltzaindiaren plataforma erabiltzea ordura arte inoiz erabili gabeko jarraibidea zen, eta begien bistan utzi zuen Akademiaren dependentzia politikoa. Hala ere, F. Krutwigek oso argi omen zuen *CE-PV*ren zuzendariordeak erregimenaren aitzinean bete zezakeen eginkizuna, euskararen presentzia publikoari zegokionez.[369]

[369] «[L]ogré abrir brecha en el frente de los enemigos del euskara. No fui acaso yo quien organizó la primera recepción en la Diputación con la entrada de Seminario. Cuando jamás se

IKER-35.indd 140 2/9/19 10:55

1944ko martxotik Bizkaiko gobernadore zibila zen Genaro Riestra (1905-1957) falangistarekiko ezagutza egiteko balio izan zion ekitaldiak F. Krutwigi: «Posterior a la recepción me saludaba por la calle con Riestra, pero el que actuaba de enlace con el gobernador era Rojas» (Ibarzabal 1979: 54). Aginte frankistaren erakundetzean gobernadore zibilek bete zuten funtsezko eginkizuna kontuan hartuta, G. Riestra aurka ez izatea berebizikoa izan zitekeen Akademiarentzat. Izan ere, FET-JONSen probintzia buruzagitzatik, zentsuraz, prentsaz, propagandaz edota herri ordenaz arduratzen ziren. G. Riestrak tirabirak izan zituen BPDko presidenteekin, Estatu totalitarioaren tokiko agintari nagusi gisa betiere (Alonso Olea 2014: 532).[370]

Erregimen barneko Euskaltzaindiaren eta bereziki F. Krutwigen jarrera posibilista kritikatu zuten erbesteko abertzaleek eta kolaborazionismo faxistatzat jo zuten. Frantziako erbestetik, N. Ormaecheak artikulua idatzi zuen *Gernika* aldizkarian F. Krutwig eta J. M. Seminarioren aurka: «Cabe preguntarse por qué hay tantos académicos de estirpe germánica y falangista, dejando de lado a distinguidos hijos del País más merecedores de esa elección» (Ormaetxea 1991b: 860).

J. M. Seminariori, esan bezala, erantzuna F. Krutwigek eman zion, baina Euskaltzaindiak agerkaririk ez zuenez, hitzaldiaren edukia ezezaguna izan zen 1952ko zenbakian Guatemalako *Euzko-Gogoa*k argitaratu zuen arte. F. Krutwigek era dramatikoan eman zion agurra, gustuko zuen sinbologia erabiliz, Akademia ia ezkutuko elkarte bat balitz bezala. Euskararen etsai izengabeak lausoki aipatu zituen; berdin balio zezakeen abertzaleentzat edo frankistentzat. Jarraian F. Krutwigek agintarien aurrean, baina gutxik ulertu zuketen «lapurtera klasiko»an, euskarak zituen arazo larrienak izendatu zituen: «Lehenbizikoa: Litteratur-hizkuntza eztugu. Bigarrena: Euskaldun guztiontzako literatur hizkuntza haur irakatsi beharr zuten eskolak' euskararentzat hersirik dagoz» (Krutwig 1952d: 29).[371]

Hitzaldian, ez zuen euskararen arazo horien irakurketa politikoa egin, baizik eta mende hasierako Frantziako protosoziolinguistikan oinarritu zen, Ch.

---

había celebrado en la Diputación una reunión de Sociedad del euskara» (Eusko Ikaskuntzaren Artxiboa, Manuel Irujo funtsa: F. Krutwigen gutuna M. Irujori, 1961-02-20/21).

[370] «Decreto de 30 de septiembre de 1949 por el que se concede la Gran Cruz de la Orden de Cisneros a don Genaro Riestra Díaz», *BOE*, 1949-10-06.

[371] Jatorrizko testu mekanografiatuaren kopia bat, L. Villasanterena, Euskaltzaindiaren artxiboan gordetzen da. *Euzko-Gogoa*k argitaratu zuen bertsioan, zenbait zuzenketa ortografiko eta morfologiko egin zituzten, baina edukia bera da. ABA-EUS: F. Krutwigen erantzun hitzaldia J. M. Seminariori, [1949-06-25].

IKER-35.indd 141 2/9/19 10:55

Bally-ren *Le langage et la vie* (1913) edota A. Dauzat-en *La vie du langage* (1910) lanetan:

> Hunexegatik latinari buruz Dauzat Albertek dio; «Supprimez par hypothèse l'unité régulatrice de l'école, et, au bout d'un siècle ou deux les dialectes se seront formés dans le sein du français; on aura peine à se comprendre d'une province à l'autre. Dès que le maître d'école eut disparu dans la Gaule romaine avec les invasions des Barbares, le latin livré à lui même, provigna à l'infini et donna naissance à la multiplicité des patois actuels» (Krutwig 1952d: 30).[372]

F. Krutwigen diskurtsoan oihartzuna izan zuten A. Dauzaten beste argudio batzuk, adibidez, terminologia internazionalari, hizkuntza literarioari edota hizkuntza aldaketari buruzkoak. Alemaniako «Kultursprache» kontzeptua hezkuntzaz naturala baldin bazitzaion, Espainia-Frantzietako testuinguruan operatiboagoa zen «langue de civilisation» delakoa. Izan ere, Lehen Mundu Gerrako euskaltzaleen adierazpenak kontraesanezko testuinguruan kokatzen ziren. Frantziako eskola soziolinguistikoa antiwilsoniano eta antigermanikoa zen erabat. Zibilizazio adiera hori Alemaniako linguistikaren ikuspegiari kontrajarri nahi izan zioten. «Zibilizazio hizkuntza» nazio politikoki beregainarekin oso lotutako hizkuntza zen, beraz. Eta zibilizazioa, berriz, modernitatearen egitasmoa: eurozentrismoa, nazio-estatua, kapitalismoa, industrializazioa (cf. Cohen 1978: 121).

Eragin germanikoa, bestalde, W. Schmidt-en *Die Sprachfamilien und Sprachenkreise der Erde* (1926) gisako liburuetan dagoke.[373] F. Krutwigek Vienako Eskola historiko-kulturalaren difusionismoa jaso eta nolabait teleologia katolikoaz gabetu zuen hitzaldian: «Gathalanarak eta latin berriek eztitute latin zaharr eta gerkaratik hitzak harrtzen hoien semeak diralatakotz [sic], ez, Okzidenteko kultur sphairan bizi direlakotz baizik» (1952d: 31). Difusionis-

[372] Josu Lavinen artxibo pertsonala, Federico Krutwigen biblioteka: BALLY, Charles (1926): *Le langage et la vie: linguistique générale et stylistique, mécanisme de l'expressivité linguistique, langage transmis et langage acquis: l'enseignement de la langue maternelle et la formation de l'esprit*. Paris: Payot. Egile horiek, seguru asko euskaltzainburuaren bidez eskuratu zituen (cf. Kintana Goiriena 2008: 267-269). F. Krutwigen liburutegi pertsonalean, oraindik R. M. Azkueren zigilua daramaten liburuak aurkitu ditut. Josu Lavinen artxibo pertsonala, Federico Krutwigen biblioteka: FINCK, Franz Nikolaus (1910): *Die Haupttypen des Sprachbaus*. Leipzig: B. G.; LOEWE, Richard (1918): *Germanische Sprachwissenschaft*. Berlin: de Gruyter.

[373] Josu Lavinen artxibo pertsonala, Federico Krutwigen biblioteka: SCHMIDT, Wilhelm (1926): *Die Sprachfamilien und Sprachenkreise der Erde*. Hamburg: Buske. R. M. Azkuek 1943-1944 arteko batzarretan luze aztertutako liburu horretan, Austriako apaizak garatutako kultura eremuen («Kulturkreislehre») teoria difusionista azaltzen zen (Euskaltzaindia 1956: 322-323).

IKER-35.indd 142 2/9/19 10:55

moak F. Krutwigen eurozentrismoa justifikatzen zuen: «Europan bizi baikara, ezpaikara Aequator-Apriketan bizi izaiten» (1952d: 30).[374]

3.3. ERREFORMA PRESTATZEKO EUSKALTZAINEN KORRESPONDENTZIA

Ikusi dugunez, J. M. Seminarioren sarrera ekitaldiko batzarrean, F. Krutwigen ekimenez, Euskaltzaindiak 1941ean JCVko arduradunek ahoz ezarritako bi baldintzei jaramon ez egitea erabaki omen zuten. Alde batetik, erbesteko euskaltzainek euren aulkiak berreskuratu zituzten, inolako ordezkapenik gabe. Bestetik, aurrerantzean Frantziako eta erbesteko euskaltzainak batzarretara deituko zituzten.

Horren ondorioz, 1920ko estatutuek ezarritako 12 euskaltzainen ordez, 13 zeuden. Espainian: R. M. Azkue, J. Urquijo, N. Oleaga, P. Zamarripa, A. Irigaray, I. M. Echaide, F. Krutwig, J. M. Seminario eta B. Echegaray. Frantzian: P. Lhande, J. Elissalde eta S. Altube. Eta Txilen zegoen D. de Inza. Azkenik, G. Lacomberen heriotzak utzitako hutsunea bete gabe zegoen. Barnealdean bizi ez ziren euskaltzainei eragiten zieten erabaki horiek, ordea, ez ziren aktan jaso; F. Krutwigek prestatu beharreko dosierrari egin zitzaion erreferentzia soilik (Euskaltzaindia 1982: 5-6; cf. Iztueta & Iztueta 2006: 461).

A. Irigarayren bidez jarri zen F. Krutwig harremanetan P. Lafitterekin, Nafarroako Auritzen jaiotako Fermín Irigaray aitak bezala, Pirinio Behereetako euskaltzaleen ezagutza ohi baino handiagoa baitzuen. Adin bertsukoak ziren A. Irigaray eta P. Lafittek, 1928-1929etan urgazle izendatuak, Errepublikako urteetan estutu zuten ezagutza. Lehenago H. Gavelek bezala, Akademiaren ortografia normatiboa eta Baionaldeko euskal prentsaren eredua bateratzen saiatu ziren (Zuazo Zelaieta 1988: 377-381). A. Irigarayk *Eskualduna* eta horrek zerabilen neolapurtera Gipuzkoa-Nafarroetan zabaltzea nahi zuen, baina horretarako D. Soubeletek zuzentzen zuen astekariak lerro politikoa leundu behar zukeen, *Eskualduna* elizkoi, eskuindar eta frantses nazionalista baitzen. Aldi berean, kexu zen EAJ-PNVren politikagintzak ez ziolako

[374] Difusionismoak, halaber, eragin handia izan zuen J. M. Barandiaran eta J. Carorengan. Barojatarra gainditzen hasia zen ikuspegi zurrunegia, bereziki funtzionalismoaren bidez. F. Krutwigek, orobat, R. Thurnwald edota O. Spengler-en *Der Untergang des Abendlandes* (1918-1923) aztertu zituen garai horretan. Alemaniako filosofoak zuen historiaren ikusmolde morfologistak, Vienako Eskolarekin lotutakoak, zortzi kultura garai seinalatzen zituen, azkena mendebaldarra, noski (Krutwig 1979a: 109, 113; Azurmendi 2007: 283-287).

IKER-35.indd 143 2/9/19 10:55

euskararen erabilerari behar adinako tokirik ematen. Amets zuen Espainia eta Frantzia arteko euskal naziogintza biguna, ustez eraginkorragoa zatekeena. Hona 1936ko urte hiperpolitizatuaren hasieran idatzi ziona P. Lafitteri:

> Berdin bozkario eta atsegin aundirekin segitzen dugu emen zuen *Aintzina* zuhurra; gauza funtsezkoak errateko eta egiteko ezta bear arrabotsa eta arroitu. Emen ainitzek ez dugu ontsa ikusten gure P.'ko agintariek deramaten bidea; naiago, eskualdungoaren azkartzea, axolatu gabe geyegi España ko koloreaz estalia dagonez; berdin Frantziaz. Mintzairan ere arras akort gaude zuekin, emengo asko, eta emengo zenbeitek derabilaten eskuara irriegingarri zaigu, ezpalitz nigarregingarri. Segi ol-ola: bide zuzenean zoazte, ezta dudarik (Andiazabal & al. 2004: 981).[375]

Gerraondoan, Nafarroako medikuak, Ainhoako Martin Elso aduana agenteari esker (zenbat informazio garraiatu zuen frankismoan?), P. Lafittek zuzendutako *Herria* astekaria jasotzen zuen eta 1947ko hasieran berreskuratu zuen Donostia eta Uztaritzeren arteko harremana, Frantziako Gobernuak artean Espainia frankistarekiko muga itxita zuela. Hala ere, A. Irigaray zuhurrak gutunetan ez zion hasieran Euskaltzaindiaren berririk eman, nahiz eta lexikografian mugaz bestaldekoekin elkarlanean aritu beharraz mintzo, hori baitzen, artean, Akademiaren gerraondoko zeregin nagusia.[376] Baina gutunean isildutakoa, bestela jakin zuen, Baionako *Eusko-Jakintza*ren lehen zenbakiko «La langue basque de 1939 à 1947» artikulua argitaratu zuenean, Akademia politikoki baldintzatuaz ere jardun baitzuen: «On nous a signalé que M. de Azkue a pu faire paraître les tomes II y III de son *Euskalerriaren Yakintza* (Literatura popular del Pais Vasco). On lui a même proposé de reouvrir l'Académie Basque pourvu qu'on n'y admette pas les basques continentaux» (Lafitte 1947: 11).

Nolanahi den, P. Lafitteren lana bereziki goraipatzen zuen Nafarroako medikuak: «Jarraik ola aitzina ere; emen ezin dugu alakorik; tinkiegi atxikitzetik eskuara ta politika kalte bertzerik ez dugu bildu emen; ezginake gaizki oraico politica aldecoak eskualzale balire» (Andiazabal & al. 2005: 218).[377] A. Irigarayk, horrela, Pirinio Behereetan argitaratzen ziren *Herria*, *Eusko-Jakintza* edota *Ikuska* jarraitzen zituen, baita lankideek (adibidez, J. Elissalde euskaltzainak) bertan esaten zituztenak ere eta zeintzuk ziren euskaraz idazten

[375] ABA-LAF: A. Irigarayren gutuna P. Lafitteri, 1936-01-02.

[376] ABA-LAF: A. Irigarayren gutunak P. Lafitteri, [1947] & 1947-07-25. Fermín Irigaray aitak ere 1947ko martxoan bidali zion gutuna Iruñetik (Andiazabal & al. 2005: 217, 267, 271).

[377] ABA-LAF: A. Irigarayren gutuna P. Lafitteri, 1948-06-09.

IKER-35.indd 144 2/9/19 10:55

zutenen hizkuntza hautuak. Barnealde/erbeste lehian, halere, kritikatu egin zuen *Eusko-Jakintza* soilik erdaraz agertzea. Hiru ereduren arteko bidegurutzean harrapatuta bezala agertzen zen A. Irigaray: isilpean gordetzen zuen Akademiaren jarduna, miraz jarraitzen zuen Baionaldeko euskal prentsa, eta jeltzaleen euskara garbizalea:

> Idazteco maneran eracusten duzun zuhurtzia nai ta naiezcoa da; emen egin dira ainbertze bidegabekeri, ezen orai icusten dugu, hainitz jende eskaldun garbiek uzten dutela bazterrerat euskarazco dotrina edo catishima eta Elizaraco liburua, erdarazcoak usatuz, erraiten dutela: «eztugu comprenitzen batere euskera zerratu ori». Behaztopa arri handiena neologismoak eta graphia hertsi ori; gure lagun batzuek ezdute au ikusi nai, naiz iguzkia bezain argi den. Orai erran dezakegu emen euskaldunek erdara bakarrik irakurtzen dutela salbu bakar, agitz bakar batzuk (Andiazabal & al. 2005: 219).[378]

Frantziako Gobernuak 1948ko otsailean Espainia frankistarekiko muga ireki ondoren, J. Artechek irailean «¿La base del vasco literario?» artikulua idatzi zuen Donostiako egunkarian, lau urte lehenago Baionan argitaratutako *Grammaire basque* (1944) liburuaz. N. Ormaechearen kritikak gorabehera, P. Lafittek proposatutako eredu linguistiko-ortografikoaren alde egiteaz gain, Akademiak Bilbon bizirik jarraitzen zuena nabarmendu zuen. Era berean, hainbat egileren euskal liburuak iragarri zituen: I. M. Mancisidor (SI), G. Mújica zena edota S. Michelena (OFM). M. Aranzabe «Araxes» elizgizon tradizionalistak, halaber, J. Artecheren artikuluaren alde egin zuen, lehenago beste filologo batzuek (R. M. Azkue, J. Urquijo, J. M. Mocoroa, S. Altube, A. Tovar) purismo neologistaren aurka esandakoekin bat zetorrelakoan. Bestalde, 1949ko urtarrilean, P. Lhande (SI) euskaltzainari Donostian J. Artechek egindako elkarrizketa argitaratu zuen. Ez dago argi zergatik zegoen jesuita zaharra Gipuzkoan, baina Frantziako Eliza katolikoaz eta literaturaz egindako galderak Conversaciones Católicas Internacionales-en ildokoak ziren. Akademiarik ez zuten aipatu, baina azken galdera *Dictionnaire basque-français* delakoa amaitzeaz izan zen. Uste izatekoa da Donostian, besteak beste, J. Urquijorekin biltzeko aukera izan zukeela edo gutxienez berri horiek Akademian oihartzuna izan zuketela (cf. *La Voz de España* 1948-02-06; 1948-09-22; 1948-09-28; 1949-01-15)

Horrela bada, F. Krutwigek P. Lafitte artean ezezagunaz galdetu zion A. Irigarayri 1949ko udaberrian eta erantzun hau jaso zuen: «Desde luego Pierre

[378] ABA-LAF: A. Irigarayren gutuna P. Lafitteri, 1948-06-09.

IKER-35.indd 145 2/9/19 10:55

Lafitte, capacidad extraordinaria; antes de decirle yo otros nombres, quiero pedir una indicación a Elissalde y Lafitte sin que eso nos comprometa; yo me encargo de hacerlo» (Iztueta & Iztueta 2006: 461). A. Irigarayk 1949ko maiatzean jadanik idatzi zion Uztaritzera Akademiaren berregituratze asmoaren berri zehatza emateko. Horren arabera, izendapen berri batzuen (P. Lafitte, H. Gavel) iradokizuna A. Irigarayri zor zitzaion:

> Emengo Akademia edo Euskaltzaindiakoek nahi ginuke zerbait egin, abia, pitz. Frantziako eskualdunek ere batzartu behar lirazke gurekin: utziko? Emen uste dute baietz.
>
> Nola Elissalde gure adiskide jauna da orko bakarra, nik eskatu dut 4 toki merezi dutela bederen Iparraldecoek; eta oyetan lehena zu, jauna; baietz ere erran didate.
>
> Gavel jaunarekin (erabakitzen badute izen au autatzea nik eskatu bezala) 4 dire, A. Lhande gai baldin badago. Orai zuk erran ontzat artzen duzun, eta berdin besteek; emengo batzarretara etortzeko. Beste izen bat edo bi erradazu othoi, egokiak euskal idazleen artecoak, gerta bai liteke, beste toki geyago bat ere bethetzea Iparraldecoekin; au dena oraiño belarrira erratea...
>
> Nahi litake or argitaraztea orri shume bat bizi erakusgarri, eta erabakiak jakinarazteko. Sosak gutti, shautzeak aunitz... trabak ez guti (Andiazabal & al. 2005: 223).[379]

Euskaltzaindiak 1949ko ekainaren 25ean Bilbon egin zuen batzar horretan ez zen egon J. Urquijo, seguru asko bi egun lehenago RSVAPek Gipuzkoako Azkoitian egin zion omenaldi jendetsuak eragindako nekeagatik. F. Krutwig gazteak, beraz, gutuna idatzi zion uztailaren 6an Bilbotik Donostiara, Euskaltzaindia eraberritzeko dosierra idazteko ardura hartu zuela azaltzeko:

> En la última reunión celebrada por la Academia de la Lengua Vasca en Bilbao, se me encargó presentase un informe para la reunión que ha de tener lugar a fines de Septiembre próximo sobre ciertos cambios para infundir nueva vida a nuestra Academia. A este efecto y para poder cometer tal encargo lo mejor posible, quisiera escribirles a los Srs. Altube, Elissalde y Lhande, cuyas señas desconozco y de las que si Vd. las supiese le rogaría tuviese la bondad de comunicármelas.
>
> Asimismo quisiera unir a dicha ponencia un párrafo en el que quisiera indicar los nombres de los vascólogos más destacados del País Vasco-francés, para las eventuales plazas que en dicho informe se piden. Como le creo a Vd. la persona mejor

[379] ABA-LAF: A. Irigarayren gutuna P. Lafitteri, 1949-05-29. A. Irigarayk 1933tik P. Lafitteri idatzi zizkion gutunetan lehen aldiz agertzen da «Iparralde» kontzeptu geopolitikoa.

IKER-35.indd 146 2/9/19 10:55

enterada en España sobre la valía de nuestros colegas al otro lado de la frontera, me tomo la libertad de rogarle tenga a bien darme noticia sobre los siguientes puntos:

– ¿Sabe Vd. si los Srs. Gavel y Lafon son vascos? pues que según los estatutos de Euskaltzaindi deben ser los miembros de ella «jajotzez ta izkuntzaz» [sic] vascos.
– Entre los miembros correspondientes de nuestra Academia figuraba el entonces presidente de la Societé des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne, Conde de Marien (¿?). ¿Podría Vd. darme alguna noticia sobre él?
– Entre los miembros correspondientes de Euskaltzaindia en 1936 figuraban los siguientes señores: Dr. Dourisboure, M. Louis Dassance, Dr. Constantin, M. l'Abbé Moulier, Dr. Souberville [sic], M. G. de St. Jayme y M. l'Abbé Urruztoy. Quisiera saber de éstos quién de ellos llena los requisitos de ser «jaiotzez ta izkuntzaz» [sic] vasco y en caso afirmativo quiénes cree Vd. los más capacitados y si sabe Vd. algo sobre su obra [380]

Akademiak 1949ko udan, Europako gerraondo latzean, etenda zuen harremana erbesteratuekiko nahiz Frantziako euskaltzainekiko. Mundu Gerra bukatuta, Espainia frankistak arazo diplomatiko larriak izan zituen, nahiz eta Gerra Hotzak lekukotasunezko keinu hutsean utzi zituen. NBEk Espainiako Gobernu faxista formalki gaitzetsi, eta Frantziak muga itxi egin zuen 1946-1948 artean (Jiménez de Aberásturi Corta 1999). Euskaltzaindiaz den bezainbatean, informazio falta bi norabidekoa izan zen. F. Krutwigek zioenez: «Yo saqué a la Academia de la nada, pues ni Altube sabía que aun existía».[381] Gipuzkoako euskaltzainak *Eusko-Jakintza*n argitaratutako artikuluan, EI-SEV ez ezik, Akademia ere desagertutzat jo zuen: «si es que algún día resucitan» (Altube 1949: 204). Informazio ezaren eta egoera nahasiaren erakusgarri, F. Krutwigek gutunean aipatzen zituen zenbait urgazle hilak ziren aspaldi.[382] J. Urquijo eta A. Irigarayk baino ez zuten mugaz haraindiko informazio fidagarria. 1946ko otsailean, Frantziako muga ixtear zegoenean, J. Urquijo Donibane Lohizuneko (Pirinio Behereak) bere etxera itzuli ahal izan zen, eta Frantziako euskalariekin posta harremana berreskuratu zuen.[383] F.

[380] KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, 1949-07-06.

[381] Eusko Ikaskuntzaren Artxiboa, Manuel Irujo funtsa: F. Krutwigen gutuna M. Irujori, 1961-02-20/21.

[382] C.-M.-A. de Hoym de Marien (1855-1936), S. Urruztoy (1861-1936), F. de Saint-Jayme (1862-1938), A. Dourisboure (1863-1931), M. Souberbielle (1872-1939), A. Constantin (1873-1957), J. Moulier «Oxobi» (1888-1958) eta L. Dassance (1888-1976) (cf. San Martín & Xarritton 1983). Bestalde, Frantziako armadako komandantea zen C.-M.-A. de Hoym de Marien, F. Krutwigek kondetzat jo arren, «cmt.» laburdurak nahastuta (cf. Daranatz 1937).

[383] Euskaltzaindiaren Artxiboa, Antonio Tovar funtsa: J. Urquijoren gutuna A. Tovarri, 1946-03-07.

IKER-35.indd 147 2/9/19 10:55

Krutwigen bibliotekan oraindik gordetzen da Akademiaren *Euskera* agerkariaren 1931ko lehen zenbakiaren ale bat, non akademikoen zerrendari hainbat ikur erantsi baitzizkion, haien berri jakin ahala.[384] Honela azaldu zion prozesua N. Ormaechea urgazle erbesteratuari 1951ko apirilean:

> No tuve otros datos que los que pude reunir, y estos no fueron de los más copioso. Para la reorganización del equipo de correspondientes la última lista que editó el Euskalzaindi era de 1931. Posteriormente he tenido que leer todas las actas que la Academia publicó desde su fundación hasta 1936. Buscar las no publicadas en los archivos, preguntar y escribir. Enterarme si estaban vivos o muertos todos los correspondientes (Iztueta & Iztueta 2006: 463).

Euskaltzaindiak ez baitzuen agerkaririk argitaratzen, eta ondorioz ez baitzegoen Akademiako kideen zerrenda edo aurkitegi eguneraturik. Gerra zibil aurreko zerrenda ofizial horretaz baliatuta, korporazioaren berregituratze bat diseinatu zuen, berak faboratzen zuen «lapurtera klasiko»tik hurbilen zeuden Frantziako kidez osatua. Era berean, artean urgazleen gehiengoa ziren Espainiako abertzaleek agintari frankisten aurrean sor zezaketen arazoa saihesten zuen modu aski traketsean. Hala ere, Pirinio Behereetako idazleez zuen ezagutza oso eskasa zen, eta informatzaile bila hasi behar izan zuen berehala.

J. Urquijok, hain zuzen, oso uzkur erantzun zion Bilbotik iritsitako gutunari, F. Krutwigen ustez, «con un miedo que no venía al caso» (Iztueta & Iztueta 2006: 461). Akademiaren eraberritzeak izan zezakeen ondorio politikoak eragindako beldurra, noski. Urtetan isilpean gordetako gerraondoko Akademiaren jarduna euskaltzain gazteak lau haizetara zabaldu nahi zuen, baina J. Urquijo zuhurrak ez zuen begi onez ikusi:

> Su carta no deja de sorprenderme, pues no tenía noticia de que las cosas estuvieran lo suficientemente adelantadas para reorganizar la Academia. ¿Ha habido alguna decisión publicada por la autoridad permitiendo que se nombren académicos franceses, porque, por lo menos hasta ahora esa disposición no existía. ¿El señor Altube está ya en España o se propone venir a ella? [...] Por lo demás, el señor Gavel no es vasco, como tampoco lo es el S. Lafon, aunque ambos sean muy competentes (Iztueta & Iztueta 2006: 461).[385]

---

[384] Josu Lavinen artxibo pertsonala, Federico Krutwigen biblioteka: *Euskera*.- XII, 1, 1931, ilbeltza-epailla, 84-86.

[385] J. Urquijoren aipu hori, F. Krutwigek N. Ormaecheari 1951n bidalitako gutun batetik jaso da.

IKER-35.indd 148 2/9/19 10:55

Kontuan hartu behar da XIX. mendearen azken herenean jaiotako belaunaldi garrantzitsua desagertzen ari zela. Haiek izan ziren euskal kulturaren maila jaso zutenak XX. mendearen lehen herenean hainbat elkarteren bidez. Galera natural hori, gerra zibilaren eta Mundu Gerraren traumak areagotu egin zuen. Artean J. Urquijok (1871-1950) eta R. M. Azkuek (1864-1951) aktiboan jarraitzen bazuten ere, adinaren ajeak larriak ziren ordurako, J. Urquijok berak J. Garateri aitortu zionez: «Veo que no pierde Vd. la memoria lo cual no ocurre a D. Resurrección (tiene ya 84 años) y está completamente desmemoriado. Confieso que si estuviera yo en su estado no sería capaz de escribir un libro».[386] Adibidez, 1949ko apirilean euskaltzainburuak eroriko bat egin zuen eta F. Krutwigek, idazkariorde zeregina bereganatuta, J. Urquijori eman zion horren berri:

> Le escribo esta carta para darle cuenta de un accidente que le ha ocurrido al Sr. Azkue. Esta tarde a las 5 h. se ha caído por la escalera de la Academia desde una altura de 6 peldaños, habiéndose fracturado una o dos costillas. Dio con la cabeza contra el suelo y quedó sin conocimiento. El muchacho de la Academia ayudado por otro joven lo subieron y llamaron a un médico quien apreció dicha fractura. A continuación me llamaron a mí, y con ayuda del Sr. Maidagán lo trasladamos a su domicilio, donde el Sr. Dr. Salaberri lo vendó y apreció asimismo la fractura. Me dijo que si bien esta ruptura no significaba nada en un joven en un Sr. de la avanzada edad de Don Resurrección era sumamente grave, habiéndose de temer se le pueda complicar muy fácilmente con una pulmonía. Ha ordenado se le administre penicilina para precaver una infección (Charritton 1997a: 417-418).[387]

Handik bi egunera berriz idatzi zion R. M. Azkueren osasunak onera egin zuela adierazteko, baina euskaltzainburuak ez omen zuen gogoratzen istripua.[388] F. Krutwigek gutun luzeagoa idatzi zion J. Urquijori, data gabea baina 1949ko uztailekoa dirudiena, ekain-irailetako batzarren artekoa betiere. Bertan adierazi zion R. M. Azkuek urtebete lehenago agindu ziola «dar nueva vida a Euskaltzaindi», pribatuan lehenengo eta ofizialki ondoren. Horretarako hainbat auzi argitu behar izan zituela, eta hau zela Akademiaren egoera une horretan:

1. Que la Academia se reorganizó a propuesta de la Junta de Cultura de Vizcaya y que una vez hecho así se lo comunicó a dicha Junta en carta del 14 de VI de 1941 [sic].

---

386 KMK-JU: J. Urquijoren gutuna J. Garateri, 1949-04-06.
387 KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, 1949-05-19.
388 KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, 1949-05-21.

IKER-35.indd 149 2/9/19 10:55

2. Que las condiciones que la Junta de Cultura puso a Euskaltzaindi en su reorganizacion nunca fueron dadas por escrito sino meramente de palabra.
3. La principal de dichas condiciones era la de tener dicha Junta un representante en Euskaltzaindi a cuyo efecto nombraron al Sr. Irigoyen. Existían otras como las de no convocar a los vasco-franceses y de preveer las vacantes de los exiliados.

Desde dicha fecha algunas cuantas condiciones han cambiado un tanto. El Sr. Echegaray volvió a España y fue restituido en su puesto, hubiera sido un gran absurdo que Euskaltzaindi hubiese sido mas papista que el papa; y de aquí que recuperase su puesto en Euskaltzaindi (Charritton 1997a: 419).[389]

Argudio guztiak J. Urquijoren zalantzak deuseztatzera zuzendu zituen F. Krutwigek. EJ-GEko aholkulari izandako B. Echegarayk postua berreskuratzea, ez ote zen ezarritako baldintza politikoak lasaitzen ari zirenaren seinale? Gainera, BPDko presidenteak eta JCVk baimen ez-ofiziala eman omen zieten gerraondoko marra gorriak zeharkatzeko:

Cuando el Sr. Seminario fue nombrado miembro de la Academia, fueron los Srs. Azkue y Oleaga a hablar con su sobrino el Sr. Ybarra y con los Srs. de la Junta de Cultura, para tratar de la cesión de la Sala de Actos de la Junta de Cultura al mismo tiempo les dijeron que en adelante se pensaba convocar a los académicos vasco-franceses y dichos srs. no tuvieron nada que objetar. Una decisión escrita o publicada no existe que autorice la convocatoria de dichos señores, pero según me dijeron los Srs. Azkue y Oleaga, tampoco existe ninguna orden escrita ni publicada que prohíba dicha convocatoria y toda la reorganización se hizo por indicaciones de palabra en su tiempo (Charritton 1997a: 420).[390]

F. Krutwig handiguraren ustez, JCVk ordurako ez omen zuen inolako kontrolik Akademiaren gainean:

Cuando el Sr. Seminario fue nombrado académico, la Junta de Cultura acordó en un principio que la representación que ella había de ostentar en Euskaltzaindi la tuviera en adelante el Sr. Seminario en lugar del Sr. Irigoyen, quien

[389] KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, [1949ko uztaila?]. Lehen puntuan F. Krutwigek aipatzen zuen 1941eko ekaineko data akatsa da, Akademiaren gerraondoko lehen batzarra 1941eko apirilean («IV») izan baitzen. Bestalde, JCVtik euskaltzainburuak 1941eko otsailean jaso zuen idatzizko baimenak J. Irigoyenen izendapena agindu egiten zuen. Beste bi baldintzak, ordea, ikusi dugunez agintariek ahoz markatutako marra gorriak ziren, baina debekuaren idatzizko frogarik utzi gabe.

[390] KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, [1949ko uztaila?].

IKER-35.indd 150 2/9/19 10:55

así dejaba de ser miembro de nuestra Academia, según convinieron dichos Srs. de la Junta de Cultura con los Srs. Azkue y Oleaga. Ahora bien posteriormente y según me parece a mí por trabajo personal del Sr. Seminario, se llegó al siguiente acuerdo con la Junta de Cultura de la Diputación de Vizcaya: Que en adelante en vez de nombrar la Junta de Cultura un representante suyo en Euskaltzaindi, fuese la Academia de la Lengua Vasca la que nombrase un representante suyo en dicha Junta de Cultura, con lo cual la Academia ha quedado libre de la tutela o intervención que en algún tiempo pudiera haber habido (Charritton 1997a: 420).[391]

1941ean izendatutako J. Irigoyenek euskaltzain izateari utzi zion, beraz, eta J. M. Seminario komisario politikoa ados omen zegoen F. Krutwigen asmo guztiekin. JCVren aktetara joez gero, ordea, ez dago erabaki garrantzitsu horien inolako aipamenik. 1949. urteari dagokionez, soilik R. M. Azkuek Akademiaren izenean egindako diru laguntza eskaeraren berri eman zen otsailean.[392] Euskaltzain gaztea ausarkeriaz ari zen Akademiari bultzada berria eman nahian, R. M. Azkueren adinak eragindako botere hutsunea eta J. M. Seminarioren babes politikoa erabiliz. J. Urquijok, ordea, Argentinako J. Garateri adierazi zionez, ez zuen auzia F. Krutwigek bezain erraz ikusten: «Por aquí se habla de que los académicos franceses vuelvan a la Academia Vasca o sean nombrados otros nuevos. No sé si la cuestión de pase de Fronteras se arreglará tan fácilmente como algunos creen[,] de todas maneras tendré a Vd. al corriente de lo que pase».[393]

F. Krutwigen arabera, erbesteratuak ezin ordeztu zitezkeenez, ohiko hamabi akademikoak hemezortzi izatera igaro behar zuten. Kide berriek Frantziakoak izan behar zuten, linguistikan Espainiakoak baino jantziagoak zirelakoan. Azken puntuari dagokionez, A. Irigaray ere iritzi berekoa omen zen. Erbesteratuez den bezainbatean, B. Echegarayk postua berreskuratu zuen legez, S. Altube eta D. de Inzak, aurkako salaketa kriminalik ez zutenez, euskaltzain izaten jarraitzen zuten. Horrela erabaki omen zuen Akademiaren batzarrak 1949ko ekainean, J. Urquijo bertan ez zela.[394] Batzar horretan J. M. Seminariok berak Pauen erbesteratutako jeltzalearen alde egin omen zuen: «defendió muy en especial al Sr. Altube y se opuso a algunas objeciones (un tanto pueblerinas) que sobre actuaciones políticas del Sr. Altube dijera el Sr.

[391] KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, [1949ko uztaila?].

[392] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1949-02-28, Junta de Cultura C-62.

[393] KMK-JU: J. Urquijoren gutuna J. Garateri, 1949-07-26.

[394] Euskaltzaindiak 1997an argitaratutako transkripzioetan akatsak daude, eta komenigarri da jatorrizko gutunera jotzea (KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, [1949ko uztaila?]).

IKER-35.indd 151 2/9/19 10:55

Zamarripa» (Charritton 1997a: 421).[395] Gogoan hartu 1941eko R. M. Azkueren plangintzaren arabera, P. Zamarripak ordezkatu zuela S. Altube. Gainera, aulki horren lehenengo jabea D. Aguirre elizgizon karlista izan zen, eta P. Zamarripak bere garaian ere beretzat nahi izan zuen.

Dena dela, J. Urquijoren osasunak, euskaltzainburuarenak bezala, okerrera egin zuen garai horretan. 1949ko abuztuaren 13an gauza izan zen Ph. Veyrinen erakusketa bat ikustera joateko, J. Arteche, J. Yrizar eta A. M. Labayenekin batera. Baina GPDko artxibozain laguntzaileak 1949ko irailaren 17an berriz ikusi zuenean, erabat hondatuta aurkitu zuen: «Visita a la biblioteca de don Julio de Urquijo juntamente con los asistentes del cursillo de lenguas prerómanicas celebrado en la ciudad ¡Qué tristeza ver a don Julio, hecho una ruina física, incapaz de meter en los estantes libros, como él decía, adquiridos *con locura*!» (Urkia Etxabe 2006: 271).

Azkenik, J. Urquijori bidalitako gutunean, Akademiaren estatutuen arabera euskaltzain izateko bete behar zuten baldintzaz aritu zen: «La Sociedad consta de doce socios numerarios y ocho correspondientes, todos vascos de naturaleza e idioma, y de un número variable de socios honorarios y correspondientes, aun extraños al País» (Euskaltzaindia 1920a: 4).[396]

> Es para mí evidente que quiere decir que hable vascuence y haya nacido en el País Vasco. De aquí que el Sr. Lacombe cumpliese todos los requisitos. El Sr. Campión también los cumplía aun cuando su apellido fuese italiano. El que escribe estas líneas es natural de Guecho pero por parte paterna es de origen polaco, alemán y francés y aun cuando mi madre naciese en el mismo Guecho remontando ascendencias es de origen italiano. A pesar de ellos cumplo con el «jaiotzez ta hizkuntzaz», el Sr. Seminario que es natural de Vera, tiene dos apellidos como: Seminario y de Rojas, ambos no-vascos. Cuando le preguntaba por el «jaiotzez ta hizkuntzaz» de los señores Gavel y Lafon preguntaba si eran naturales de los Bajos Pirineos. Esto de las nacionalidades (no se refiere a ciudadanías) es un hecho bastante complicado y en centro Europa se procedía por el llamado sentido psicológico de las nacionalidades. Yo he conocido a un súbdito yugo-eslavo que se consideraba (y por lo tanto en su pasaporte yugo-eslavo figuraba) como de nacionalidad húngara, y luego supe que su apellido Krigár, era debido a que sus padres eran los dos alemanes de los que poblaban la región entre el lago Balatón

[395] KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, [1949ko uztaila?].

[396] Euskarazko bertsioa: «Amabi euskaltzain ta zortzi urgazle bederen, beti izan beaŕ dira, yayotzez ta izkuntzaz euskaldunak oro. Baña urgazle kopuruari beste lagun batzu ere, erdaldunak izan aŕen, geitu datzazkioke, dedurako ala lanerako egokiak izatekotan» (Euskaltzaindia 1920a: 4).

IKER-35.indd 152 2/9/19 10:55

> y Budapest, que son una[s] minorías germánicas en el mismo corazón de Hungría. Uno de los mejores escritores húngaros Hertzeg [sic] no supo hasta los veinte y tantos años hablar su idioma siendo asimismo miembro de una minoría nacional; por esto pregunté por el «hizkuntza» y «jaiotzez» de los mencionados señores bajo tal aspecto, si ellos se consideraban vascos, por ser tal vez de Baiona o del Bearne (Charritton 1997a: 422).[397]

Euskal Herritik kanpo jaioak ziren, H. Gavel (Saint-Pol-sur-Ternoise, Pas-de-Calais) eta R. Lafon (Merignac, Gironda) ez ezik, baita G. Lacombe (Ortheze, Pirinio Behereak) edota P. Zamarripa (Laredo, Santander) euskaltzainak ere. Akademiak ordurako malgutasunez aplikatua zuen jatorriaren irizpidea. F. Krutwigek nazionalitatearen irizpideaz gogoeta interesgarria egin zuen. Gutunean aipatzen zuen «sentido psicológico de las nacionalidades» hura, ez dirudi Alemaniako etnopsikologiaz (W. Wundt) ari zenik, Euskal Herrian jarraitzaile asko izan arren (cf. Azurmendi 2007: 199-207).

Nire ustez, austromarxistek garatutako kontzeptuari egindako erreferentzia, diktadura frankistako egoeraz den bezainbatean, politikoki desegokia zen, eta horregatik ez zuen argiago izendatu. XX. mendearen hasierako Austria-Hungariako Inperio plurinazionalean, O. Bauer, K. Renner edota M. Adler-ek langileriaren egoeraz ez ezik, herrien arteko bizikidetzaz ere gogoeta teorikoa landu zuten. Sozialdemokrata horien ustez, inperioko proletariotza batik bat gutxiengo nazionalek osatzen zuten, eta burges kapitalistak aleman hiztunak eta hungariarrak ziren. Klase borroka horiek saihesteko, inperioa komunitate nazionaletan bereiztea proposatu zuten, ogasun-hezkuntzak kudeatzeko autonomia kulturalarekin. Maila indibidualean, herritar bakoitzak bere komunitate nazionala aukeratzeko libertatea izango zuen. Inperioaren Parlamentua arduratuko zen kanpo arazoez, armadaz edota ekonomiaz, baita gutxiengo nazionalak babesteaz ere. Alemana ez zen izango estatuaren hizkuntza ofiziala, baizik eta «Vermittlungssprache» edo hizkuntza komuna. Federalismo kultural hori Austria-Hungarian gauzatu ez bazen, Espainia frankistari aplikatzea ameskeria hutsa zen. Dena dela, «pertsona *versus* lurraldea» printzipio austromarxista zatekeen F. Krutwigen «sentido psicológico de las nacionalidades»en iturria (cf. Recalde 1982: 282-294; Johnston 2009: 267-294).

Marxismoaren susmoa ezabatzeko, J. Urquijo tradizionalistari Hungariako Ferenc Herczeg (1863-1954) idazle eskuindar eta nazionalista aipatu

---

[397] KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, [1949ko uztaila?]. Kontuan hartuta amaren aldeko aitona-amonak Burgosko Montes de Oca eskualdean jaiotako jornalariak zirela, ez da oso sinesgarria F. Krutwigek bere Italiako jatorriaz dioena.

IKER-35.indd 153 2/9/19 10:55

zion. Gurasoak Danubioko suabiarrak ziren (hots, aleman hiztunak; bere jatorrizko izena «Franz Herzog» zen), baina berak, hezkuntzaren bidezko magiarizazioaren ondorioz, hungarieraz baino ez zuen idatzi adin batetik aurrera. István Tisza Hungariako lehen ministroaren jarraitzaile amorratua izan zen, eta austro-hungariar konpromisoaren aldekoa, beraz. Trianon-go bake ituna (1920) berrikustearen aldeko ligaren burua izan zen, baita Nobel Sarirako hautagaia ere. Miklós Horthy-ren erregeordealdian (1920-1944) faxismora lerratu zen. Hungariako idazle ezagunena izan ondoren, Mundu Gerraren osteko erregimen komunistan guztiz baztertuta zegoen (Peña Rodríguez 2014).

A. Irigarayren bidez helbidea lortuta, F. Krutwigek 1949ko uztailaren 28an P. Lafitteri idatzi zion Uztaritzera. Seminario txikiko irakaslea euskaltzain izatea nahi zuten, G. Lacomberen aulkia betetzeko; baina A. Irigarayri adierazi zionez, P. Lafittek ezin zuen batzarretara joan. Horregatik, F. Krutwigek beste bost hautagairen izenak eskatu zizkion. Halaber, lurraldetasunaren auzia izan zuen hizpide gutunean, H. Gavel eta R. Lafonen izendapena konpontzeko beste osagai bat:

> Si l'Académie peut recevoir dans son sein un alavais ou un navarrais de la Ribera erdaldun, par la simple raison qu'on puisse considérer les natifs de cette partie du Pays Basque comme des basques, je crois que de la même façon elle pour[r]ait recevoir dans son sein un natif de Béarn, Bigorre, Armagnac, Foix, Nebuzan ou de quelque autre part de l'ancien royaume de Navarre, qui ne sont ni plus ni moins basque qu'un originaire de Rioja, ou Ribera. Je voudrais connaitre votre opinion a ce propos.[398]

Gutunean, orobat, adierazi zion iraileko batzarrean aurkeztu behar zuen berregituratze proposameneko hainbat xehetasun. Dosierraren arabera, erbesteko nahiz Frantziako euskaltzain zaharrak berriz onartuak izateaz gain, lau euskaltzain berri izendatuko ziren, guztiak Frantziakoak, eta, erdibidean zegoelako, batzarrak aurrerantzean Donostian egingo ziren. Bestalde, Akademiaren hizkuntza arautuaz den bezainbatean, asmo berritzaileak adierazi zizkion:

– changer son othographe de façon qu'on change les ŕ, ť, ď, ľ et ň par rr, tt, dd, ll et nn dont l'usage est plus répandu et la facilité pour les imprimeries est plus grande.

[398] ABA-LAF: F. Krutwigen gutuna P. Lafitteri, 1949-07-28.

IKER-35.indd 154 2/9/19 10:55

– adopter l'ancien labourdin comme langue littéraire, avec les apportations lexicales des autres dialectes et l'expurgation de tous les erderismes, comme ezen, ezik, zeren etc.
– adopter les termes culturels de toutes les langues occidentales. Dans ce point vous, les basques de France, avez montré toujours une position plus logique et livre de tout chauvinisme ou extravagance que nous.[399]

Pozez beterik erantzun zion P. Lafittek, Baionako elizbarrutiko arduradunek batzarretara joatea eragozten ez ziotelako:

> Ez dautzut erraiten ahal zoin gogotik irakurtu ditudan uztailaren 28ko zure berri onak. Ikusten dugu bakea eta sentzu ona ere nausitzerat dotzila. Nola ez zautan atsegin eginen zure hitz maitagarriak. Eskerrik beraz eta zorionak ere bihotz-bihotzetik.
>
> Irigaray neure adichkideri erran bainion ez nintzela jarraikitzen ahalko zuen bilkureri, hunan non orai neure buruzagiek onhartzen duten neure lan-egunen antolatzea, zuen ganat ethortzeko gisa. Beraz huna ni zuen eskuko, Lacombe zenaren jargia nahi badautazue berri eskaini.[400]

P. Lafittek 1949ko abuztuaren 4an «Bonnes nouvelles de l'Académie Basque» artikulua argitaratu zuen *Herria*ren azalean, F. Krutwigen izenik aipatu gabe. Getxotarraren asmo pertsonalak eta Akademiaren erabaki ofizialak nahastu zituen arduragabeki:

> Depuis 1936 l'Académie Basque, dont le siège était à Bilbao, se tient absolument muette. Beaucoup la croyaient morte, et l'auteur de cet article a longtemps partagé cette opinion pessimiste.
>
> Nous venons d'apprendre que cette institution vit encore, mais des circonstances indépendantes de sa volonté l'ont jusqu'ici condamnée à une inactivité totale.
>
> L'heure a sonné pour elle d'un réveil, si non d'une résurrection glorieuse.
>
> Nous sommes hereux des circonstances qui entourent cet événement.
>
> D'abord, aucun des premiers académiciens n'est écarté, car les points de vue extra-linguistiques sont regardés comme étrangers à cette institution.
>
> Secondement, le nombre des sièges va être augmenté, et la place élargie en faveur des Basques continentaux. C'est à cause des Labourdins, Bas-Navarrais et Souletins que les séances se tiendront d'ordinaire à Saint-Sébastien.

---

399 ABA-LAF: F. Krutwigen gutuna P. Lafitteri, 1949-07-28.
400 apud KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, 1949-09-04.

IKER-35.indd 155 2/9/19 10:55

Troisièmement, une véritable révolution se produira dans l'orientation de l'Académie basque. Jusqu'ici elle avait centré sa langue littéraire sur le guipuzcoan, quitte à le compléter par des éléments empruntés aux autres dialectes. On se souvient du grand travail d'Azkue intitulé precisément : «Gipuzkera osatua».

Désormais c'est le navarro-labourdin littéraire qui servira de base à l'œuvre de l'unification : nous ne cacherons pas la joie que nous cause cette décision. Depuis fort longtemps nous défendions cette solution comme la plus sage dans l'état actuel des choses et notre grammaire basque voulait être un pas dans ce sens.

Quatrièmement: l'ortographe elle même va se rapprocher de la nôtre: il n'y a que la question de «ch»qui soit encore discutée. Les «l», «r», «t», et autres lettres tildées seront représentées par «ll», «rr», «tt», etc.

Cinquième point: on renonce au purisme destructeur, et l'on accepte les mots de civilisation actuelle tels que le labourdin littéraire les a pris sagement autour de lui: «treina», «telefona», «minichtroa», etc.

Ainsi l'Académie veut s'orienter vers une langue qui a trois siècles de tradition: elle y a grand mérite, car elle renonce de la sorte à des positions qui semblaient définitives.

Nous lui en sommes très reconnaissants.

Nous ignorons encore comment et avec qui va être remise sur pied l'œuvre des «Eskualzain». Le plus tôt sera le mieux.

Nous tiendrons nos lecteurs au courant de cette affaire si importante; le bon sens finit par prévaloir (*Herria* 1949-08-04).

F. Krutwigek 1949ko abuztuaren 21ean berriz idatzi zion P. Lafitteri. Azkenean Uztaritzeko seminarioko irakasleak onartu egin zuen izendapena, batzarrak Donostian egingo zirelakoan. Frantziako zenbait urgazlez galdetu zion, gehienak ordurako hilak (Andiazabal & al. 2006: 210).[401] Berriz idatzi zion abuztuaren 28an. S. Altube eta P. Lhande ere P. Lafitteren hautagaitzaren alde zeuden, beraz aldeko boto nahikoak zituen, eta sarrera hitzaldia prestatzen has zitekeen. Bestalde, P. Lafittek aurreko gutun batean proposatutako hautagaiez zenbait argibide eman zizkion. Seguru asko R. Lafon eta J. Saint-Pierre euskaltzain izendatuko zituzten, baina H. Gavel, jatorri euskaldunik ez zuelako, deduzko supernumerario, besterik ezean. Beste bi hautagai (L. Dassance, D. Dufau) zalantzazkoak ziren. Horregatik, informazio gehiago

[401] C.-M.-A. de Hoym de Marien (1855-1936), A. Dourisboure (1863-1931), F. Larrieu (1863-1941) eta A. Léon (1883-1953) (cf. San Martín & Xarritton 1983).

IKER-35.indd 156 2/9/19 10:55

eskatu zion D. Dufau notarioak egindako idazlanez.[402] Bistan denez, F. Krutwigek ia erabateko ezjakintasuna zuen Pirinio Behereetako idazleei buruz, nahiz eta gero izendapen berrien meritua bereganatu.

1949ko irailean J. Urquijori eta 1951n N. Ormaecheari bidali zizkien gutunei esker, Frantziako euskaltzainen abuztuko erantzunen berri ere jakin dezakegu, zati luzeen aipamenak egin baitzituen F. Krutwigek.[403] S. Altuberen helbidea J. M. Barandiaranen bidez eskuratu zuten, honi P. Lafittek eskatu baitzion.[404] S. Altubek mezu hau bidali zion abuztuaren 21ean Pauetik:

> Desde luego a mí me parecen bien las medidas que V. propone para que el Euskaltzaindi alcance cada vez mayor prestigio en nuestra tierra y fuera de ella.
>
> Sobre todo entiendo sería valiosísima la incorporación de los tres señores que especialmente cita V., o sea los Srs. P. Lafitte, H. Gavel y R. Lafon. Siempre he creído que los euskaltzales de esta parte de los Pirineos están, en general, mejor preparados en Lingüística, y claro está, para comprender bien los problemas del idioma vasco (como de cualquier otro) es preciso saber primero lo que es el idioma en sí, el idioma «tout court» como dirían aquí.
>
> En cuanto a los demás euskalzales continentales que indica el Sr. Lafitte, sé de la mayoría de ellos, que se expresan y escriben con soltura en euskera, pero creo que, en la apreciación de sus respectivos méritos, debe prevalecer la opinión del propio proponente Sr. Lafitte y de los viejos académicos P. Lhande y Elissalde.
>
> Queda así cumplimentado el ruego de Vd. de que exprese yo mi opinión acerca de todos los candidatos mencionados, y queda Vd. facultado para que, como también su deseo, dé a conocer tal opinión en la próxima reunión de Donostia.
>
> Lo que dice V., sobre la «nacionalidad vasca», es una verdad tan clara que «quema los ojos». Pero... V. mismo añade, algunos, por motivos un tanto mezquinos, no quieren ver juntas las palabras nacionalidad y vasca. Para terminar. Puede Vs. contar con mi modesto concurso, en servicio al euskera y del Euskalzaindi, siempre que éste, claro está, pueda, como V. lo cree, actuar en su propia esfera, sin ingerencias de elementos o poderes extraños (Iztueta & Iztueta 2006: 462-463).[405]

---

[402] ABA-LAF: F. Krutwigen gutuna P. Lafitteri, 1949-08-28.

[403] F. Krutwigi bidalitako jatorrizko gutunak seguru asko familiak desegin egin zituen, hura 1952an erbesteratu ondoren.

[404] ABA-LAF: J. M. Barandiaranen gutuna P. Lafitteri, 1949-08-08.

[405] J. Urquijori, ordea, S. Altuberen aipuaren lehendabiziko bi paragrafoak besterik ez zizkion jakinarazi, seguru asko euskaltzain zaharra urduri jarri zitekeelako (KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, 1949-09-04).

IKER-35.indd 157 2/9/19 10:55

S. Altuberen erantzuna bereziki garrantzitsua zen, erbesteko jeltzale zigortuen zilegitasuna ematen ziolako barnealdeko asmoari. Dena dela, irailaren 18ko gutunean S. Altubek M. Lecuona deserritua euskaltzain izendatzea proposatu zuen. Ikusiko dugunez, ordurako F. Krutwigek dosierra idatzia zuen, baina onartu egin zuen zuzenketa, batez ere S. Altuberi frogatzeko Akademiak bere autonomia gorde zezakeela (Iztueta & Iztueta 2006: 463).

P. Lhande zaharrak, halaber, abuztuaren 23an baiezkoarekin erantzun zuen, eta ziur zen Frantziako Gobernuak ez zuela oztoporik jarriko:

> Je me rejouis très vivement de votre tentative de reconstituer dans sa primitive ordonance notre vieille Euskaltzaindi et j'applaudis à vos effort pour améliorer sa composition.
>
> Voici les suggestions auxquelles je me rallie pleinement:
>
> – J'approuve que le nombre de ses membres soit porté de 12 à 18 inscrits: il faudra compter en effet sur un certain nombre de membres qui surtout dans le Pays Basque français, seront assez souvent empêches d'assister aux séances ordinaires.
> – J'approuve non moins hautement qu'on nomme M. l'abbé Pierre Lafitte comme successeur de M. Lacombe.
> – J'approuve également que l'on porte au chiffre de 4 les Basques du Pays Basque français appelés à siéger dans les nouveaux fauteuils à cause, precisément, comme vous le dites très bien, de la compréhension que ceux-ci ont toujours montrée
>
> [..] Quant a MM. Gavel et René Lafon, mariés à des Basques ou fils de basques n'ont ils pas, outre leur competence personelle un certain droit à entre[r] dans notre Euskaltzaindi? M. Gavel, en particulier est appelé à nous rendre d'immenses services pour sa compétence dans les langues romanes et ses attaches au basque.
>
> Quant aux obstacles qui pourraient nous venir de la part de notre Gouvernement, ils sont inexistentes.[406]

Azkenik, J. Elissaldek ere bat egiten zuen Akademiaren berregituratze asmoarekin, euskaraz idatzitako gutunean:

[406] apud KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, 1949-09-04. N. Ormaecheari 1951n idatzitakoan ageri da P. Lhanderen gutunaren data (Iztueta & Iztueta 2006: 462)

IKER-35.indd 158 2/9/19 10:55

Atsegin handiarekin irakurtu dut Agorrillaren hamaseiko zure eskuthitza eta hartan ikasi bethi bizi dela hila uste nuen Euskaltzaindia. Jainkoak nahi badu —eta nihundik ahal badut— Donostian hurrengo biltzarrean izanen naiz [...] Arras ongi zait Lafitte jaun apheza hartzea Euskaltzaindian Lacombe ze[n]aren ordain: ez dut uste gure eskualdean baden bertze hein hortako eskualzalerik ez eta jakintsunik [...] Lau Euskaltzain berri beharr gintuzke orduan. Mgr. Saint Pierre jaun Aphezpikua ez ditake bazterrerat utz: gure arteko jaunen jauna da gisa guztietarat [...] Gavel eta Lafon jaunak arras beren tokian litzaizket hamazazpigarren eta he[me]retzigarren bezela. Ez dut Lafon jauna omenez baizik ezagutzen, bainan bihotzez Eskualduna da: Gavel jauna ere ba[i] eta Eskualduna batekin ezkondua gainerat.[407]

3.4. ERREFORMA DOSIERRAREN AURKEZPENA (DONOSTIA, 1949-09-30)

1949ko irailaren 30ean Donostian batzartu ziren hamaika euskaltzain, gerra zibiletik izan zen quorum zabalena alde handiaz. Alde batetik, R. M. Azkue, J. Urquijo, P. Zamarripa, A. Irigaray, I. M. Echaide, F. Krutwig, J. M. Seminario eta N. Oleaga. Bestetik, gerraondotik lehen aldiz agertu ziren B. Echegaray, P. Lhande eta J. Elissalde (Euskaltzaindia 1982: 7).[408] Aktak jaso zuenez, F. Krutwigek bertan aurkeztu zuen agindu zitzaion dosierra Euskaltzaindiaren eraberritzeaz. Arretaz entzun ondoren, F. Krutwigen asmoak aztertu eta aho batez hiru erabaki hartu zituzten:

- Aurrerantzean, Euskaltzainak amazortzi izan daitezala.
- Kopuru au betetako euskaltzaintzat urrengo jaun onek artzea: Pierre Lafitte, René Lafon, Jean Saint Pierre, Louis Dassance ta Manuel Lekuona.
- Henri Gabel [sic] deduzko euskaltzaintzat artzea, ta beste euskaltzainak bezala batzarretara deitzea (Euskaltzaindia 1982: 7).[409]

---

[407] apud KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, 1949-09-04.

[408] Honela gogoratu zuen F. Krutwigek memorietan: «A la reunión asistieron algunos cuantos euskalzaines que desde hacía tiempo no se habían vuelto a ver, tales como Pierre Lhande, Jean Elissalt, Bonifacio Etxegaray, así como Pierre Lafitte, quien en aquellos momentos era tan sólo correspondiente. De estas personas en todo caso me causaron una excelente opinión Pierre Lhande, de quien me dijeran que estuviera enfermo, pero en aquella ocasión parecía rebosante de salud, luego ya no volví a verlo más. Tampoco recuerdo casi nada de Mgr. Jean Saint Pierre, ni de Jean Elissalt. La mayor parte de ellos pronto despareció. [...] Una óptima impresión me produjo Bonifacio Etxegarai» (Krutwig 1991: 102).

[409] Zoritxarrez, akta horren kopia mekanografiatua soilik euskaraz dago, eta ezin dugu gaztelaniazko bertsiorik erabili terminologia zehazteko, esaterako, H. Gavelen izendapenean (ABA-EUS: Euskaltzaindiaren aktaren kopia mekanografiatu ofiziala, 1949-09-30).

IKER-35.indd 159 2/9/19 10:55

Euskaltzain gazteari eskerrak eman zizkioten lanagatik, baina dosierreko beste asmo batzuk geroratu egin zituzten. Onartutako aldaketak handiak ziren, 1920ko estatutuak aldatzera eraman zezaketenak, euskaltzainen kopuruaz edota deduzkoen eskubideez den bezainbatean. Era berean erabaki zuten, alde batetik, diru laguntza gehiago eskatzea eta, bitartean, batzar saririk ez ordaintzea. Akademiaren diruzaintzak ezin zion aurre egin hemezortzi kideren dieta eta bidaiei, lehenago diru iturri gehiago ziurtatu gabe.[410] Bestetik, R. M. Azkue eta N. Oleagak osatzen zuten lexikografia batzordea geldiaraztea erabaki zuten. Horrek beste gastu bat aurreztea zekarren, baina aditzera ematen zuen ere eredu linguistikoaren gaia berriz eztabaidagai zena. Bestalde, P. Lafitte batzarrean egon ez arren, egunean bertan dosiergileak idatzi zion gertatukoaren berri emateko. H. Gavel deduzko supernumerario izendatzea amarru formal bat zen, euskal jatorririk ez izan arren, euskaltzainen eskubide berak izan zitzan.[411]

F. Krutwigen dosierrak irailaren 1eko data zeraman. J. Urquijori, adibidez, Bilbotik irailaren 4an bidali zion kopia bat. Donostiako I. M. Echaide eta A. Irigarayk ere xehetasun guztien berri omen zuten. Lekeitioko oporralditik itzulitako R. M. Azkueri ere irailaren 4an aurkeztu zion, eta J. M. Seminario bezalaxe, hura ere erabat ados omen zegoen edukiarekin.[412] Baina F. Krutwigen proposamenak zazpi puntu zituen, eta soilik lehenengoa onartu zuten batzarrean:

– Euskaltzainen kopurua 12tik 18ra gehitzea.
– Euskaltzain izateko, aintzat merituak besterik ez hartzea euskalkien gutxieneko ordezkaritza beteta zegoenean: bizkaiera (2), gipuzkera (2), lapurtera (2), goi nafarrera (1), behe nafarrera (1), zuberera (1).
– Batzarrak beti Donostian egitea, erdigune geografikoa zelako.
– *Euskera* agerkaria berriz argitaratzea, orri gisa baino ez bazen ere, eta prentsan batzarren berri ematea.

---

[410] Gipuzkoako CAPeko zuzendariak abenduan erantzun zuen 1.000 pezetako dohaintza egitea erabaki zuela (ABA-EUS: Gipuzkoako CAPeko zuzendariaren gutuna, 1949-12-26).

[411] ABA-LAF: F. Krutwigen gutuna P. Lafitteri, 1949-09-30.

[412] KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, 1949-09-04. S. Altube Akademian berriz onartua izan zedin J. M. Seminarioren aurrean honelako argudioak erabili omen ziren: «Y recuerdo muy bien cómo le alabé la persona del S. Altube, valiéndome para ello de un truco que hoy parecerá infantil, pero que en aquella época en que había una *ortografía* y una *vascología aranistas*, tenía su importancia. Es decir que el S. Altube no era un *purista*, lo que en aquellos momentos se hacía equivaler con *separatista*, puesto que Altube escribía con palabras populares, mayormente claro está, le recalcaba, tomadas del castellano» (Krutwig 1991: 134-135).

IKER-35.indd 160 2/9/19 10:55

– «Ikerleen» eta «yagoleen» sailak berriz abiatzea eta Akademiaren zuzendaritza berrosatzea.
– Egoitza berria eskatzea edota Bilbotik Donostiara aldatzea.
– Batzarrak gutxienez hilean behin egitea (Torrealdai & Murua Uria 2009: 56).[413]

Dosierrak zeraman eranskinean, bestalde, hautagaien izenak aurreratu zituen. Euskaltzaindiak dosierreko euskaltzain izateko postu guztiak onartu zituen bat izan ezik: M. Lecuonarena. F. Krutwigek, irailaren 1eko dosierrean, postu hori betetzeko Frantziako beste lau hautagai ipini zituen aukeran: D. Dufau notarioa eta J. Moulier, S. Arotçarena eta G. Eppherre elizgizonak. Baina, ikusi dugunez, irailaren 18an S. Altubek eskatu zuen M. Lecuona izendatzea, eta onartu egin zen zuzenketa. Buenos Airesko kultura aldizkari abertzaleak argitaratutako berriaren arabera, S. Altubek bere ordezkotzat hautatu zuen M. Lecuona (IAEV 1950a).

F. Krutwigek memorietan itxuragabetu edota ukatu egin zuen gainerako euskaltzainek emandako laguntza, kide berriak proposatzeko, informazioa osatzeko edota helbideak lortzeko garaian.[414] Nolanahi den, argi dago F. Krutwig zela erreformaren arduradun nagusia eta lanaren sinatzaile bakarra.[415] F. Krutwigek zeharo itzulipurdikatu nahi zuen Akademiaren oreka geolinguistikoa berak hobesten zuen euskara estandarretik hurbilago zeuden kideekin. Gero adierazi zuen euskaltzain izateko hautagaiak onartu zituztela lapurteraren aldeko joera artean Akademian nagusi zelako. Ez da sinesgarri dialektofiliarena, baina egia da batzarrak aho batez izendatutako bost kidetatik lau Frantziakoak zirena. Irizpide linguistikoak baino gehiago, zama politikoak eragina izan zuen. Halaxe aitortu zion F. Krutwigek N. Ormaecheari 1951ko apirileko gutunean:

> También creo le será fácil comprender que tenía que andar con cautela pues se trataba de hacer revivir el Euskalzaindi, salir adelante lo más posible, pero con

[413] ABA-EUS: F. Krutwigen erreforma dosierra, 1949-09-01.

[414] Eusko Ikaskuntzaren Artxiboa, Manuel Irujo funtsa: F. Krutwigen gutuna M. Irujori (1961-02-20/21, «No fui yo asimismo, que en mi plan para la defensa del euskara, propuse se nombrara Académico a Don Manuel de Lecuona, apenas había vuelto éste del exilio». Omisioak bereziki esanguratsuak dira A. Irigarayren eta begitan hartua zuen P. Lafitteren kasuan, biak ordurako hilak baitziren (cf. Krutwig 1991: 95, 100, 129, 133, 135).

[415] Hain zuzen, Euskaltzaindiak 1949ko urrian 44,50 pta. ordaindu zizkion posta gastuengatik. Besteak beste, Frantziara bidalitako sei gutunen eta agintari politikoei J. M. Seminarioren sarrera ekitaldira egindako gonbidapenen gastuak ziren (ABA-EUS: F. Krutwigen ordainagiria, 1949-10-03).

IKER-35.indd 161 2/9/19 10:55

cuidado de que un paso falso no acarrease una orden gubernamental que tirase por tierra todos nuestros planes. Bastante fue al principio abolir el control, declarar que los exiliados nunca dejaron de corresponder y confirmarles en sus sillas y no sólo convocar en adelante a los vasco-franceses, sino nombrar a varios más. Así, pues, tuve que andar con cautela de no nombrar a ninguno que siendo súbdito español estuviese exiliado. Pues al principio nuestra situación no estaba tan segura y todos, el mismo Irigaray estaba convencido que me estaba excediendo y que mis proposiciones no iban a tener fruto. Él mismo creía que ante todo deberíamos obtener permiso para que dejasen pasar por la frontera a Lhande y Elissalde (Iztueta & Iztueta 2006: 463-464).

Frantziako herritarrak izendatuta, frankismoak 1941ean ahoz ezarritako muga geopolitikoa gainditzen zen, antza denez BPDko presidentearen baimenarekin, baina muga ideologikoak, jeltzaleak ez izendatzearena, begien bistakoa izaten jarraitzen zuen. Salbuespen bakarra Calahorrako elizbarrutira deserritutako M. Lecuona izan zen; erbestetik S. Altubek eskatu zuelako. Ez da harritzekoa, beraz, izendapenak jakinarazi zirenean, M. Lecuonak, adeitasun hutsezko erantzunak alde batera utzita, Calahorratik zurikeriarik gabe euskararen egoera larria salatu baldin bazion euskaltzainburuari:

Egun txarretan bizi gera: Euskerarentzako egun txarretan. Euskera zaitzea Euskerari bizi izaten laguntzea da batez ere. Bizi izaten laguntzea. Eta egun oetan Euskera moteltxo bizi degu. Elizan oxta-oxta. Eliz askotan illik dago, len bizi zan Eliz askotan illik. Irarkolan ia ez da bat ere bizi. Ez liburu, ez eguneroko, ez asteroko, ez illeroko. Eskoletan itzik ere ez. Teatroan zer esanik ez. Dana olaxe. Eta ola ola gure izkuntza itotzen ari zaigu. Egun txarretan bizi degu benetan gure Euskera gaxoa.[416]

Muga politiko horri esker, F. Krutwigek libreago ikusi zuen bere euskara estandarra inposatzeko bidea. Ideologia gorabehera, izendapenekin normaltasun puntu bat berreskuratzen zen, hautatutako akademikoak urgazle zirelako aspalditik: J. Saint-Pierre (1919), M. Lecuona (1919), H. Gavel (1919, deduzko 1933an), P. Lafitte (1928), L. Dassance (1930) eta R. Lafon (1935). Estatutuen arabera, H. Gavel euskaltzain ezin izan zitekeenez, kategoria bitxi bat sortu zuten «ad hoc». Dena dela, EJ-GEk erbestean zeraman kulturgintzari zeharka egindako aitortza gisa ere ulertu behar ziren izendapenak. J. Saint-Pierre, P. Lafitte eta L. Dassance EIL-SIEBeko zuzendaritzako kideak ziren. R. Lafon eta H. Gavel linguistak ere, Akademiari prestigio zientifikoa emateaz gain, erbesteko sare horretan engaiatutako kideak ziren.

[416] ABA-EUS: M. Lecuonaren gutuna R. M. Azkueri, 1949-11-05.

IKER-35.indd 162 2/9/19 10:55

F. Krutwigek dosierrean, orobat, urgazletza eskatu zuen Pirinio Behereetako beste hamar lagunentzat. Baionako elizbarrutiko zortzi apaiz eta mediku bi ziren: S. Arotçarena, D. Soubelet, L. Léon, G. Eppherre, P. Narbaitz, P. Larzabal, P. Guilsou, P. Charritton, M. Labéguerie eta J. Jauréguiberry. Guztiak Frantziako nazionalismo kontserbadorean hazitakoak izanagatik, gehienek uko egin zioten *Eskualduna* astekariaren zuzendari izandako D. Soubelet eta S. Arotçarena bikotearen faxismoari.[417] Izan ere, Mundu Gerrako testuinguru alditsuan, ia heroikoa izan zen E. Vansteenberghe Baionako apezpikuaren gisako erresistentzia. Jarrera ustez kontraesanezkoak ageri ziren nonahi, adibidez, C. Mathieu Akizeko apezpikuak D. Soubeleten *Pétain Marechala* (1941) hagiografiaren hitzaurrea idatzi zuenean (cf. Goyhenetche Etxamendi 1997; Charritton 1997b; Hernández Mata 2007: 61-64, 246-27; Barandiaran 2009: 658-661).

P. Lafittek zuzendutako erregionalismo filojeltzaleak ere kontraesan horiek bizi izan zituen, Frantziako hauteskunde orokorretan hautagai eskuindarren aldeko botoa eskatu zuenean 1936ko udaberrian, Fronte Popularrari aurre egitearren. Gerra zibila piztu zenean, EAJ-PNVk ezkerrarekin bat egiten zuela ikusita, *Aintzina* aldizkariak irudikatzen zuen erregionalismoak jarrera anbiguoari eutsi zion, nahiz eta zalantzarik gabe errefuxiatuei laguntza eman. Mundu Gerra bukatuta, zauriak osatu samar, ia guztiek hartu zuten parte EIL-SIEBek 1948ko irailean Biarritzen antolatutako biltzar internazionalean edota *Herria* astekari filogaullistan. Hain zuzen, Uztaritzeko seminarioko irakasleari baino ezin zaio zor dosierreko urgazlegaien zerrenda. Hala uste zuen P. Charrittonek, adibidez. Izan ere, F. Krutwigen haserrerako, P. Lafittek *Herria*n (1949-10-20) adierazi zuen urgazle onartu zituztela horietako gehienak, formalki 1950eko urrira arte gertatzen hasiko ez zena (Larronde 1994; Iztueta & Iztueta 2006: 468; Hernández Mata 2007; Charritton 2009: 170).[418] A. Irigarayk 1949ko urrian ohar bat bidali behar izan zion P. Lafitteri, anonimo bezala *Herria*n argitaratu eta giroa bare zezan, baina ikusiko dugunez alferrik izan zen:

> Akademia orrekin adiskidantzan bai nago, badakit gauzak ez direla «Herria»-ren buruzagiak erraten duen bezalache gertatu.

---

[417] Alde ideologikoak gorabehera, gutxieneko adeitasuna gorde zuten P. Lafitterekiko azken bi gerretako urte latzetan (ABA-LAF: S. Arotçarenaren gutunak P. Lafitteri, 1937-05-29 & 1944-07-12). D. Soubeletek ere *Herria*n artikuluak idazten jarraitu zuen, adibidez, D. M. Bergey elizgizon, diputatu eta petainzale ohiari hil baino lehenago egin zion bisita polemikoaz (*Herria* 1951-01-11).

[418] Uneak zuen garrantziaren erakusgarri, 1950eko urtarrilaren 5etik aurrera, *Herria* astekaria itxura eta numerazio berriarekin argitaratu zen.

IKER-35.indd 163 2/9/19 10:55

Banago ere, on baiño kalte geyago ez duenez egin artikulu orrek zombeit buru minberetan. Berandu izanen dea orai gauza zaharren churitzen astea?

Dena den, irakurleak jakin dezan, errain dut Euskaltzaindian erreboluzionerik ez dela gertatuko «langue littéraire» orreri buruz; euskalari geyenek uste bai dute ez dela orai tenorea, Gipuzko-eskuara eta lapurtarra zimikoka as daizten. Ez orai ez nehoiz ere. Oraiko eskualzaleen nai gurea, eskuaraz mintzatzen (Andiazabal & al. 2005: 268).

3.5. «EUZKO-ALDERDI JELTZALIA»REN JARRERA

Euzkadiko Jaurlaritzaren Parisko *Euzko Deya*ren gehigarri informatibo gisa, *Oficina Prensa Euzkadi* (*OPE*) argitaratzen zen 1947az geroztik. *Oficina Prensa Euzkadi* zuzentzen zuen J. M. Lasartek Pauen bizi zen C. Jemeini galdetu behar izan zion Euskaltzaindiarekiko harremanaz. Ez zuen barnealdeko informaziorik, ezta S. Altuberena ere. S. Altubek F. Krutwigi idatzitako gutunaren berri eman zion C. Jemeinek.[419] 1949ko irailaren 8an, «Reanudación de actividades de la Academia Vasca» izeneko berria eman zuten, P. Lafitte «eminente euzkerálogo»ak *Herria*n abuztuan argitaratutakoa gaztelaniara itzultzen zuena besterik gabe (*Oficina Prensa Euzkadi* 1949-09-08).

Errespetuzko jarrera horrek sutu egin zuen Ceferino Jemein (1887-1965) jeltzale ortodoxoa. *Oficina Prensa Euzkadi*ren zuzendariari eta EBBko kideei protesta gutuna bidali zien Uztaritzetik. P. Lafitteren gaitasuna zalantzan jartzeaz gain, Akademiaren aginpidea ere ukatu zuen, erbesteko euskaltzainen ordez, J. M. Seminario («camarada responsable») eta F. Krutwig («un alemán a quien nadie conoce») frankismoak izendatu zituelako: «Había que hacer constar, sin entrar en la discusión de fondo, que esos acuerdos no son válidos mientras los verdaderos académicos están ausentes y la Academia Vasca no puede desenvolverse libremente, en su propio ambiente y sin ingerencias extrañas».[420]

C. Jemeinen idazkiaren puntu askorekin abertzaleak oro har ados egon arren, sabindar dogmatiko baten ikuspegi zorrotzetik idatzita zegoen. Euzko-Alderdi Jeltzaliaren («Partido Nacionalista Vasco») barneko joeratzat

[419] SAF-AA: J. M. Lasarte eta C. Jemeinen arteko gutunak, 1949-09-26 & 1949-09-29, PNV_NAC_EBB, K. 00159, C. 4.

[420] SAF-AA: C. Jemeinen gutuna *Oficina Prensa Euzkadi*ren zuzendariari, 1949-09-13, PNV_NAC_EBB, K.00010,C.27.

IKER-35.indd 164 2/9/19 10:55

onartu arren, alderdiak ez zuen lerro hori ofizial egin eta ez zioten C. Jemeinen idazkiari zabalpenik eman, ez *Oficina Prensa Euzkadi*n ez beste inon, elkarlan antifrankistarako jarrera pragmatikoagoak gailendu zirelako. Buruzagien jarrera itxarotea zen, Akademiari eta euskara estandarraren asmoari ez oposiziorik egitea, baina ezta garrantzirik ematea ere. Zer bide hartzen zuen ikusi nahi zuten, diktaduraren kontraesanak agerian jartzeko tresna bilakatu ote zitekeen ala haren politika linguistikoa estaltzeko apaingarri hutsa ote zen. Dena dela, arazo larriagoak zituzten, diktadura frankista lortzen ari zen egonkortasuna ikusita, Mundu Gerra ondoko itxaropen demokratikoak zapuzten ari baitziren (cf. Pablo, Mees & Rodríguez Ranz 2001). EBBko I. Uncetak idazkiaren kopia Baionatik bidali zionean, bere iritzia adierazi zion T. Monzon EGLZ-DCEko buru berriari:

> Mi opinión particular es, siendo partidario de la academia, que bajo un régimen como el franquista es casi imposible poder tomar un acuerdo de esta envergadura y que pudiera ser mantenido en una situación normal. Creo que aunque todos los que pertenecen a la Academia pudieran emitir libremente su opinión, hay muchos otros que por circunstancias del régimen no han podido incorporarse, siendo por sus méritos acreedores de ello. Por contra, hay seguramente otros elementos que pertenecen a la Academia por favoritismos del régimen.
>
> En estas condiciones no creo tendría autoridad el acuerdo que se tomase y no haría más que envenenar esta cuestión de por sí bastante vidriosa.
>
> Me gustaría un acuerdo sobre la materia, pero tomado con toda clase de garantías, cosa que no se puede dar mientras dure este régimen por muy buena voluntad que pusiéramos en ello.[421]

Euskaltzaindia berrituak erbesteko prentsan izan zuen oihartzunaren ondorioz, azken batzarra arreta handiz jarraitu zuten zenbait jeltzalek. Paueko C. Jemeinek, seguru asko M. Eguileorren bidez barnealdetik jasotzen zuen informazioan oinarrituta, «Academia fantasma» deitu zion, eta gerraondoko akademiko berriak (A. Irigaray izan ezik) abertzaleak ez izatea salatu zuen. Marka guztiak, ordea, J. M. Seminario komisario falangistaren izendapenak hausten zituen, euskalaritzan erabat ezjakina omen zelako. Dena dela, C. Jemeini esker, iraileko aktak jasotzen ez dituen zenbait xehetasun jakin ditzakegu. F. Krutwigek Akademiaren agerkaria Frantzian argitaratzea proposatu omen zuen, oztopoak ekonomikoak baino politikoagoak zirela argi erakusten duen proposamena. Era berean, Pirinio Behereetako kideak izendatzeko beste

[421] SAF-AA: I. Uncetaren gutuna T. Monzoni, 1949-09-19, PNV_NAC_EBB,K.00307,K.12

IKER-35.indd 165 2/9/19 10:55

arrazoi bat izan zitekeen. Baina frankismoaren errepresioaren menpeago zeuden euskaltzainek geldiarazi egin zuten:

> Al tratarse de la sugerencia del señor Krutwig de estudiar la posibilidad de reeditar la revista «Euskera», el señor Irigaray, vio dificultades para ello «pues aparte de otros problemas —dijo— no se autoriza aquí ni la impresión de cierto libro de oraciones en vascuence».
>
> En vista de esto, el señor Krutwig propuso se editase en Francia; pero el señor Echegaray «indicó la actual situación peninsular, con la condición de ciertas personas a quienes los dedos se les hacen huéspedes». No se tomó, como es natural, ningún acuerdo.[422]

EAJ-PNVren EBBk bildutako dosier izengabean (agian J. Bilbaok prestatuta) Euskaltzaindiaren une horretako egoera deskribatzen zen haren ezintasuna nabarmenduta:

> La Academia de la Lengua Vasca, resucitada en 1949, no pasa de ser una entelequia, ya que no sólo carece de órgano propio de publicidad, que poseía antes de 1936, sino que ni siquiera sus reuniones mensuales son anunciadas ni los asuntos tratados publicados por la prensa, en cumplimiento de las severas órdenes restrictivas a que repetidamente nos hemos referido. Sus trabajos carecen, por tanto, de toda clase de difusión y efectividad. Permitida su reconstitución por razones de prestigio exterior del régimen, éste no ha permitido que pase de ser una reunión meramente privada. Tanto es así que, tras la reunión celebrada en S. Sebastián el último viernes de Noviembre de 1949, y a la que asistieron los Sres. Azkue, Dassance, Lhande, Elissalde, Lafitte, Echaide, Lekuona, Krutwig, Oleaga e Yrigaray, éste hubo de manifestar repetidamente a sus compañeros que no existía posibilidad alguna de labor efectiva mientras no se suavizara la actitud de régimen respecto del euskera.[423]

Agerkari ofiziala ez zen berehalakoan argitaratu, baina F. Krutwigek dosierrean idatzitako nahiari jarraituta, batzarren berri prentsara zabaltzen hasi ziren. P. Lafittek *Herria*n (1949-10-13) informazioa eman zuen, noski, baina prentsa frankistara ere zabaldu zen aktaren edukia: izendapen berriak eta F. Krutwigen ekarpena. EJ-GEren berripaperak Donostiako prentsa zatia bere horretan jaso eta, P. Lafitteren artikulua berrargitaratu zuenean ez bezala, Akademiari zilegitasuna kendu egin zion ohar baten bidez:

---

[422] SAF-AA: C. Jemeinen gutuna L. Zarrabeitiari, 1949-10-08,PNV_NAC_EBB,K.00306,C.8.

[423] SAF-AA: [J. Bilbaoren?] dosier izengabea, 1950, PNV_NAC_EBB,K.00227,C.4. Dosierrak 1949ko azaroko data aipatu arren, badirudi iraileko batzarraz ari zela.

IKER-35.indd 166 2/9/19 10:55

> Como ya hemos indicado anteriormente las autoridades franquistas han comenzado a «tolerar» durante estos últimos tiempos las actividades y reuniones de la Academia de la Lengua Vasca que prácticamente hicieron desaparecer, por «separatista» al ocupar Euzkadi las tropas de Franco, hace doce años.
>
> Estas actividades, claro está, están sujetas al control riguroso de las autoridades del régimen y dentro del marco del mismo, es decir sin la independencia con que la Academia se desenvolvió en tiempos anteriores a la guerra civil. Hemos de señalar que varios euskérologos eminentes, miembros de la Academia, viven hoy en el exilio (*Oficina Prensa Euzkadi* 1949-10-07).

Izan ere, burua altxatzen ari zen Euskaltzaindiak erreakzio bortitzak eragin zituen erbestean. C. Jemein odolberoak «Los acuerdos de una Academia fantasma» (Paue, 1949ko urria) idazki beligerantea prestatu zuen eta, besteak beste, EBBko kideei bidali. EAJ-PNVri eskatzen zion Euskaltzaindiari eraso egitea:

> Como patriotas y como euzkeltzales no podemos reconocer [l]a autoridad intrusa de una academia formada a espaldas del pueblo vasco y sin su consentimiento, y regentada por el franquismo invasor. La rechazamos de plano como entidad nacional vasca, tanto si sus acuerdos son buenos, como si son malos. Negamos a esa Academia todo derecho sobre nuestra lengua nacional, y no reconoceremos ninguna otra que no sea representativa de nuestro pueblo, libre, y sin ingerencias de extraño poder. Porque esa academia es intrusa y su designio hacer desaparecer el euzkera como lengua nacional de los vascos.[424]

J. Gortázar edota A. Irala bezalako jeltzale ortodoxoak idazkiaren alde agertu ziren.[425] EBBk, C. Jemeinek eskatuta, idazkia H. Gavel, R. Lafon eta Italiako bi linguistari (C. Tagliavani eta A. Bausani?) bidali zien.[426] C. Jemeinek eskuratutako informazioarekin *Oficina Prensa Euzkadi*k artikulu berri bat argitaratu zuen, sabindarraren tonu erasokorra apur bat arinduta. Akademiaren egoeraren berri ez oso zehatza ematen zen. Agintari frankistek Euskaltzaindia «separatista» debekatu egin zutela zioten, eta J. M. Seminario falangistaren izendapenarekin Espainia frankistan berpiztu zutela. Hain zuzen, gerraondoan izendatuko euskaltzain guztien zilegitasuna zalantzan jartzen zuten. Akademiak ezin zuen frankismopean bere zeregina bete, hizkun-

---

[424] SAF-AA: C. Jemeinen «Los acuerdos de una Academia fantasma», 1949, PNV_NAC_EBB, K.00306,C.8

[425] SAF-AA: C. Jemeinen gutuna J. M. Lasarteri, 1949-10-09,PNV_NAC_EBB,K.00306,C.8.

[426] SAF-AA: EBBaren gutun izengabea C. Jemeini, 1949-10-19,PNV_NAC_EBB,K.00306,C.8.

IKER-35.indd 167 2/9/19 10:55

tzaz kanpoko baldintzek mugatu egiten zutelako nahitaez behar zuen libertatea. *Sud-Ouest* egunkari berriak ere artikulu bat argitaratu zuen urrian Euskaltzaindiaz. Akademia berpizteko egon zitezkeen baldintza politiko nahasiak alde batera utzita, horrenbeste euskaltzain berri izendatzeko bi arrazoi nagusi eta bateragarri zeuden Bordeleko egunkariaren arabera: alde batetik, Akademiaren eragina Pirinio Behereetan hedatzea eta, bestetik, euskara estandarrerako neolapurterarantz jotzea (*Oficina Prensa Euzkadi* 1949-10-14; 1949-10-20).

P. Lafitte euskaltzainaren artxiboan gutun bat gordetzen da, data gabea eta nori zuzenduta dagoen zehazten ez duena. Hala ere, edukiagatik, EAJ-PNVko kide bati 1949an bidalitakoa dela ematen du. Oso ongi azaltzen du zein zen P. Lafitteren eta berak lideratzen zuen taldearen jarrera Akademiarekiko:

> Utz nazazu erran diezazudan xedetzat amesten duzularik, nahi dutela eskuara ezeztatu edo suntsitu. Laido handi hori, Azkue eta bertze langile zintzo guzientzat.
>
> Frankotarrek ez dute Euskalzaindia maitez utzi pizterat, bainan politikaz: hortan zure aburuko naiz. Frantzian berdintsu da: gobernuek ez gaituzte laguntzen: doi-doia bizitzerat uzten gure eskuara-lanetan. Bainan «oro ala deus»-ka artzeak ez dut uste atherako duen eskuara lerra-bidetik. Ahal den neurrian zerbaiten egitea, guti bada guti, nola diokezu hain gaizki dela? Agirre berriz Bilbon jarririk ikusi artean, zertako uts eskuara urtzerat eta hiltzerat, nehork deus ere egin gabetarik? Erhokeria hutsa laiteke.
>
> [...]
>
> Eskualzaindiak bertzela erran baleza ere, ez da eskuara menduko haren legeri: harek beharko eskuararen araueri jarraiki. Horra egia. Sabintiarrek ez dukete guk baino indar gehiago aldamen hoietan, ikastetcheak eskutan ez dituzteno Eskual-herri guzian.[427]

Dena dela, EAJ-PNVren buruzagitzak ez zuen C. Jemeinen estrategiarekin bat egin. Urriaren 13an EBBko I. Uncetak jakinarazi zion S. Altubek Euzko-Gaztediren biltzarrean (Baiona, 1946) irakurritako idazlana argitaratu nahi zuela EIL-SIEBek. S. Altubek berak kopiarik ez zuenez, C. Jemeini berari eskatu zioten, berehala bidal zezan.[428] Erabakiak asko mindu zuen C. Jemein, berak eta A. Urrutiak hizkuntza estandar bakarra ezartzearen aurka prestatu-

[427] ABA-LAF: P. Lafitteren gutuna [C. Jemeini?], [1949?].

[428] SAF-AA: I. Uncetaren gutuna C. Jemeini, 1949-10-13, PNV_NAC_EBB,K.00306,C.8.

IKER-35.indd 168 2/9/19 10:55

tako dosierrak ez zituztelako aintzat hartu.[429] Euzkeltzale-Bazkuna sabindar esentziaren zaindaritzat jo, eta gogoratzen zuen Euskaltzaindia ez zela gauza izan estandar bat aurrera ateratzeko. P. Lafitte eta F. Krutwig «pseudo académico y pseudo vasco» baino ez ziren, eta euskaltzainburua bera «antisabiniano desde la uñas de los pies hasta las puntas de los dedos». I. Uncetari bidalitako gutunean mehatxu egin zien: «Si el artículo de Altube se publica y no se publican los demás, me obligarán a armar un *lío*».[430]

I. Uncetak, C. Jemein lasaitzeko asmoarekin, lehenago T. Monzoni emandako iritzia berretsi zion. Diktadurapeko Akademia ez zela nor euskara estandarraz erabakiak bere aldetik hartzeko, alegia. S. Altuberena, bestalde, linguista jeltzale baten iritzi pertsonala zen, ez besterik.[431] Izan ere, C. Jemein eskola zaharreko «sabinolatra» zen, alderdiak ikur historikotzat zuena, baina eragin praktikorik gabea zuzendaritzaren erabakietan. EAJ-PNVren *Alderdi* agerkarian artikulu doktrinarioak idaztera eta S. Aranaren ondarea zaintzera bideratu zituzten haren indarrak. Eztabaidaren harira, EBBko buru D. Ciaurrizek barnealdeko J. Ajuriaguerrari informazioa eskatu zion Akademiaren gorabeherez.[432] Erresistentzia klandestinoaren arrisku etengabean murgilduta zegoen J. Ajuriaguerra «Ochoa»k emandako erantzunak argi erakusten du buruzagi politikoek Akademiari ematen zioten arreta eskasa: «No hemos dado importancia a las actividades de esta entidad mientras las designaciones no sean libres, los acuerdos y discusiones sean publicados y, sobre todo, el cultivo literario del euzkera esté prácticamente prohibido es de nulo valor todo lo que hagan».[433]

J. Ajuriaguerrak zuzenean Frantziako euskaltzainei galdetzea gomendatu zion erbesteko EBBri.[434] Jeltzaleen jarrera Akademiari aitorpenik ez egitearena zen, eta barnealdearen eta erbestearen arteko korrespondentzia irakurrita,

---

[429] Ángel Urrutia (1890-1975) klaretar jeltzale hiperpurista Londresen erbesteratuta zegoen. Besteak beste, EJ-GEren Radio Euzkadi-n aritzen zen euskaraz (Urkiri 1979).

[430] SAF-AA: C. Jemeinen gutuna I. Uncetari, 1949-10-15, PNV_NAC_EBB,K.00306,C.8

[431] SAF-AA: I. Uncetaren gutuna C. Jemeini, 1949-10-20, PNV_NAC_EBB,K.00306,C.8.

[432] SAF-AA: D. Ciaurrizen gutuna J. Ajuriaguerrari, 1949-10-08, PNV_NAC_EBB,K.00300,C.09. Eskerrik asko Abertzaletasunaren Agiritegiko Eduardo Jauregi eta Iñaki Goioganari komunikazioen egile anonimoak identifikatzen emandako laguntzagatik.

[433] SAF-AA: J. Ajuriaguerraren gutuna D. Ciaurrizi, 1949-10-16, PNV_NAC_EBB, K.00300, C.09. J. Ajuriaguerra bera 1949ko otsailean Baionan bildu zenean T. Monzon, M. de la Sota eta J. M. Barandiaranekin, EIL-SIEB eta bereziki *Eusko-Jakintza* indartu beharra aipatu zuen, barnealdean ezin zelako ezer egin euskararen alde (Barandiaran 2009: 745-746).

[434] SAF-AA: J. Ajuriaguerraren gutuna D. Ciaurrizi, 1949-10-16, PNV_NAC_EBB,K.00300,C.09.

IKER-35.indd 169 2/9/19 10:55

nabari da, F. Krutwigek sumatu bezala, EAJ-PNVk Euskaltzaindia ez zuela aintzat hartzen, ezin zuelako bertan eragin, erbesteko EIL-SIEBen egiten zuen bezala. EAJ-PNVren ikuspegitik, N. Ormaechearen *Euskaldunak* edota *Urte guziko meza-bezperak* argitaratzea, NBEren Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala euskaratzea, edo are Gasteizko elizbarrutiaren kristau ikasbidea euskaraz agertzea ere, askoz garrantzitsuagoa zen, barnealdeko Akademiak har zezakeen edozein erabaki baino.[435]

Alderdiaren posizio ofiziala ez izan arren, bistan dago S. Altuberen 1946ko hitzaldia argitaratzeko egin zuten ahalegina EBBtik. C. Jemeinek protesta egiten jarraitu zuen eta J. M. Barandiaranen aurkako gutunak ere idatzi zituen. Beste artikulu batekin erantzuteko eskubidea emango ziotela ziurtatu arren, S. Altuberen «La unificación del euskera literario» izan zen gai horretaz *Eusko-Jakintza*n agertu zen artikulu bakarra. Nominalki udako zenbakian agertu arren, C. Jemein eta EBBren arteko eztabaidaren hariari jarraituta ikus dezakegu urtearen amaieran agertu zela. Euskaltzain jeltzale baten iritzi autorizatua zen inondik inora, C. Jemeinek ez bezalako begirunea lortu zuena.[436]

S. Altubek 1946ko hitzaldian euskara literario baturik ez izateak Euskal Herriari erakarri zion zoritxarra salatu zuen. J. Vendryes irakaslearen *Le langage* (1921) liburuari jarraituta, hizkuntza literarioa Estatuaren hiriburuko dialektoan oinarritu behar zela uste zuen. Kexu zen, orobat, Espainiako linguistikaren maila apalaz, eta horrek euskalgintzan zuen ondorio negatiboaz. Baina Euskal Herriko egoera soziopolitikoari erreparatuta, gipuzkera proposatu zuen estandar gisa, geografikoki erdigunean dagoelako, italierarekin gertatutakoaren bidetik. Hala ere, P. Lafittek 1944ko gramatikan proposatutako hainbat irizpidetara gerturatzea komeni zela uste zuen, adibidez, ortografia konbentzionalagoaz edota lexiko ez hain garbizaleaz den bezainbatean.

---

[435] SAF-AA: Barnealdeko eta erbesteko EBBen arteko komunikazioak, 1949/1950, PNV_NAC_EBB, K.00300,C.09 eta PNV_NAC_EBB, K.00300, C.10. EBBk zuen jarrera ikusita, hobeto ulertzen da Akademiak eta barnealdeko jeltzaleek izan zuten harremanen izaera. F. Krutwigek memorietan kontatzen zuenez, J. Solaunek eman zion N. Ormaechearen lehen berria, *Euskaldunak* argitaratzear zegoelako, egile hura F. Mistral eta Homeroren pare jarrita. Ohi zuen harrokeriaz gaitzetsi zuen J. Solaunen maila intelektuala, baina uste dut klandestinitateko EAJ-PNVrekin izandako harreman hauek, F. Krutwig bultzatu egin zutela Euskaltzaindia eta bera nor zirela frogatzera. Nobela autobiografikoan, R. M. Azkueren babesaz eta M. Arruzak lagunduta, Bilboko egoitzan jeltzaleekin izandako bilera aipatzen zuen, tartean M. Eguileor eta J. Solaun («Sorguren») zebiltzala (Krutwig 1979a: 95-101; 1991: 89-90).

[436] SAF-AA: I. Unceta eta C. Jemeinen arteko gutunak, 1949-11-17 & 1949-11-28, PNV_NAC_EBB, K.00306,C.8.

IKER-35.indd 170 2/9/19 10:55

Euskararen aldeko administraziorik eta hezkuntza publikorik ezean, Eliza katolikoari esleitu zion euskara literarioa zabaltzea, ahoz zein idatziz, bereziki gerraosteko egoera politiko larrian. Xede hori erdiesteko lau apaiz izendatu zituen, irakasle gisa izan zituzten ardurengatik: Pirinio Behereetako P. Lafitte, Gipuzkoako M. Lecuona, Nafarroako D. de Inza (OFMCap) eta Bizkaiko Jaungoiko-Zale Bazkunako kideren bat. Eliza katolikoak, jakina, EI-SEVen, Akademiaren eta Eskualzaleen Biltzarraren laguntza izan beharko zukeen, lehen biak inoiz suspertuz gero. Programa hori ez zen batere errealista, kontuan hartuta euskal elizgizon asko atzerriratu egin zirela, hain zuzen, euskaltzaletasunak erakarri zien errepresio politikoagatik. Akademiaren menpekotasun frankistari zeharka egindako salaketatzat uler daiteke, beraz (Altube 1949).

3.6. PIERRE LAFITTEREN SARRERA EKITALDIA (DONOSTIA, 1949-11-25)

1949ko azaroaren 25ean Donostian batzartu ziren bederatzi euskaltzain: R. M. Azkue, I. M. Echaide, J. Elissalde, P. Zamarripa, A. Irigaray, F. Krutwig, P. Lafitte, L. Dassance eta N. Oleaga (Euskaltzaindia 1982: 8). R. Lafon ezin zen etorri, Bordeleko Unibertsitatean eskolak ematen zituelako.[437] P. Lafitteren sarrera barne ekitaldia izan zen, J. M. Seminarioren sarrera publikoa ez bezala. Hitzaldia bere aurreko euskaltzainaz egin zuen, G. Lacomberen bizitzaz eta lanaz, *Herria*n argitaratu zena 1949ko abenduan hiru zatitan, baita separata gisa ere. Bertan, 1944ko gramatikan Euskaltzaindia hiltzat jo zuelako damua agertu zuen, baina estali egin zuen 1947ko *Eusko-Jakintza*n politikoki baldintzatutako Akademia hizpide izan zuela. Aldi berean, bere autonomia gordeko zuenaz ohartarazi zituen gainerako euskaltzainak: «orai artio ez nitzaizue biziki urrundik baizik jarraiki, eta orok badakite ez omen naizela aise-aise jartzen deusen ez nehoren meneko» (Lafitte 1949: 02).

Pertsonalki ezagutu zuen G. Lacombez adeitasunezko hitzak izan zituen. Agnostiko liberalaren eta apaiz katolikoaren arteko arrazoien distantzia nabari zen arren, interes komunak izan zituzten nola filosofian hala linguistikan. Ikuspegi ezberdinetatik, biek nahi izan zuten euskara literario autonomoagoa, erdaren ez horren menpekoa. Zera esaten omen zion G. Lacombek: «Othoi ez izan ez paria, ez zimino!» (Lafitte 1949: 10). Euskarari buruz zuten jarrera

[437] ABA-EUS: R. Lafonen gutuna N. Oleagari, 1949-11-21.

IKER-35.indd 171 2/9/19 10:55

ezberdina zen, ordea. G. Lacombe hizkuntza kanpotik begiratzen zuen ikertzailea zen, eta P. Lafitte gizartean txertatutako ekintzailea:

> Lacombe-k sineste handia zuen mintzaira-ikertzaletan, eta maiz erraiten zuen : «Eskuara jakintsun-faltan ari da hondatzen!» : ene iduriko, mintzatzale eta izkiriatzaile faltan galduko da, galtzekotz, eta horra zertako atsegabe handi batekin behar dudan hemen ezarri Lacombe-k ez duela biziki guti baizik erabili eskuara. Hortan segurik ez gitzaizko jarraikitzen ahal (Lafitte 1949: 10).

Nolanahi den, sarrera hitzaldia baino garrantzitsuagoa izan zen S. Altuberen eskaria. Gutun bidez, Gernikako hilarrietatik euskarazko idazkunak kentzeko erregimenaren aginduaren aurrean Euskaltzaindiak zer edo zer egin zezala eskatu zuen. N. Oleaga eta J. M. Seminario arduratuko zirela erabaki zuen batzarrak. Hain zuzen, 1949ko urriaren 27ko ofizioz Bizkaiko gobernadore zibilak agindu zuen ken zitzatela probintziako hilarrietako euskarazko idazkunak eta horien ordez gaztelaniazkoak jartzeko. Gernika-Lumoko alkateak azaroaren 2an jakinarazi zien herritarrei G. Riestraren agindua. Besteak beste, S. Altuberen emazte Gregoria Gangoitiren ahizpak jaso zuen:

> Obra en poder de esta Alcaldía, atta. comunicación, Nº 2486, del negociado 4º, del Excmo. Gobierno Civil de esta Provincia, fecha 27 del mes de Octubre p.pdo y una de cuyas partes, copiada literalmente, dice: «....se requiera a los familiares y propietarios de las tumbas o panteones donde figuran inscripciones en vascuence, para que sean retiradas las losas y sustituidas las citadas inscripciones por otras en castellano.» Y siendo V. uno de los propietarios de panteón, en el cual aparece inscriptos con nombres en vascuence, requiero a V. para que con la debida urgencia sea retirada dicha placa y sustituida por otra en castellano.[438]

G. Riestraren agindua Justizia ministerio frankistak gerra zibilean izendegi jeltzaleari jarritako debekuaren atzeraeraginezko ondorio ankerra zirudien[439]. Seguru asko arazo horrekin lotuta, irailaren 22ko datarekin, Euskaltzaindiko idazkariak hartzaile jakinik gabeko agiri bat ere prestatu zuen, santu izendegi jeltzaleko «Eli», «Bingen» eta «Joseba» euskal izen arruntak

[438] SAF-AA: Vicente Rojoren ofizioa Rufina Gangoitiri, 1949-11-02, PNV_NAC_EBB, K.00285,C.2.

[439] «Orden señalando normas para la inscripción de nombres en el Registro Civil», *BOE,* 1938-05-21.

IKER-35.indd 172 2/9/19 10:55

zirela ziurtatzeko, nahiz eta Akademiak izendegi ofizialik ez izan.[440] Azaroko batzarrerako deialdia zabaldu zenean, Pauetik ezin etorria adierazi zuen S. Altubek, baina Akademiaren zilegitasuna frogan jarri zuen, Bizkai frankistan euskararen aurka hartutako neurria salatuz:

> Idatzagindu onek, nere pamiliyaren eskubideen kontra lukeanagaitik enuke, laguntasun bila, Euskaltzaindiarengana jotzerik; baiña euskaldun eta euskaltzain naizelako ematen didan atsekabea, ezin ixildu nezake.
>
> Nik eztakit, ortaz, Euskaltzaindiak, zer erabaki artu nai edo aal dezakean, baiña dezakeana-dezakeala, nik, neroren aldez, nere atsekabea, gertakari-liburuan ezaŕirik agertu dedila nai nuke.[441]

Gutunaren kopia EBBko kideei edota C. Jemeini ere bidali zien.[442] Erbesteko EJ-GEk gorabehera horien guztien berri bazuen. 1949ko abenduan, Parisko *Euzko Deya*k bere posizioaren berri eman zuen artikulu baten bidez. Ez zen Euskaltzaindia berrituaren aurka agertu, baina argi utzi nahi zuen euskararekiko tolerantzia zenbait eremutan ez zela frankismoaren liberalizazio zantzua, baizik eta euskal gizarteak, erbestekoak barne, eragindako presioaren garaipen mugatua. Gerraosteko jazarpen faxistaren eta hamar urte ondoko euskararen egoera, funtsean ezberdinak ote ziren galdetzen zion bere buruari artikulugileak:

> La misma, dirán muchos, la misma; porque las escuelas siguen clausuradas y el gobernador de Vizcaya ha ordenado bien recientemente que se retiren de los cementerios todas las inscripciones en euzkera. La misma; porque las autoridades franquistas han prohibido el uso del euzkera en ocho publicaciones religiosas editadas por diversas Comunidades y organizaciones eclesiásticas. La misma; porque hasta en unas inocentes evocaciones donostiarras de don Vicente Machimbarrena, la censura tachó recientemente... la letra del «Iriyarena».
>
> Pero esta información no es completa, alegarán algunos. La situación es hoy algo distinta, porque ya se reeditan diccionarios, gramáticas y diversos libros en euzkera, mientras en la prensa diaria y en las publicaciones de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País aparecen frecuentes trabajos en euzkera, si bien, acompañados generalmente de su traducción castellana. La situación es ya dis-

---

[440] ABA-EUS: N. Oleaga idazkariaren ziurtagiria, 1949-09-22. Errepublikako arautze saioak, R. M. Azkue eta S. Altuberen eskutik, huts egin zuen, Bizkaiko EAJ-PNVren presioagatik (Kintana Goiriena 2008: 599-607).

[441] ABA-EUS: S. Altuberen gutuna N. Oleagari, 1949-11-19.

[442] SAF-AA: S. Altuberen gutuna C. Jemeini, [1949], PNV_NAC_EBB,K.00285,C.3.

IKER-35.indd 173 2/9/19 10:55

tinta, porque, de algún tiempo a esta parte, los certámenes de bertsolaris han logrado tolerancia y difusión; es distinta, porque incluso la Academia de la Lengua Vasca ha reanudado sus actividades y completado su cuadro con académicos cispirenaicos. Y nada de esto hubiera sido posible hace doce años sin peligro de cárcel y aun de fusilamiento.

Conforme, replicarán otros. Pero se trata de actividades suscitadas o toleradas por el régimen con propósito de propaganda política y, por lo tanto, estrechamente controladas. El Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País y su suplemento «Egan» no son publicaciones libres, desde el momento en que dicha entidad es delegada del Consejo Superior de Investigaciones Científicas. En cuanto a la Academia de la Lengua Vasca, su hipoteca es manifiesta, ya que acaba de dar entrada en su seno al falangista Seminario de Rojas.

Muy bien, insistirán los demás: pero a pesar de todo, a pesar de las conocidas intenciones del franquismo, parece indudable que hoy empieza a haber en el país, mayores posibilidades de una acción a favor del euzkera (*Euzko Deya* 1949-12-15).

Bestalde, F. Krutwigek, Akademiaren 1949ko azaroko batzarrean, euskaraz idatzitako «Antzundu philologia» (linguistika konparatiboa) izeneko lana irakurri zuen.[443] Bertan, euskaltzainburuak eskatutako bidetik, euskara hainbat hizkuntzekin erkatu zuen, ahaidetasunak aurkitu nahian: indoeuropar, semitiko edota uraliar-altaitarrekin.[444] Gramatika iruzkin batzuk ere gehitu zituen euskal aditzaz, ohiko eredu greko-latinoen eragin ustez nahasgarritik askatu nahian. Esan beharra dago Nikolai I. Marr (1863-1934) linguista aipatu zuela. N. I. Marr izan zen teoria jafetikoaren sortzailea: Kaukasoko hizkuntzak, etruskoa eta euskara lotzen zituena, alegia. Sobietar Batasuneko linguistika ofizialaren buruzagia zen eta euskalari nagusien jakin-mina piztu zuen. N. I. Marr-ek zituzkeen asmo politikoen beldur, J. Urquijoren beraren bermearekin baino ez zioten Espainiara sartzen utzi 1923an. Nolanahi den, *RIEV*eko zuzendariak gaitzetsi egin zuen haren teoria, A. Meilleten lanean oinarrituta. F. Krutwigek, ordea, teoria jafetikoa 1950ean R. Lafoni emandako erantzun hitzaldian berriz aipatu zuen. F. Krutwigen diletantismoaren beste froga bat da ez zuela inoiz artikulurik argitaratu *BRSVAP*en, eta horrek ematen du aditzera J. Urquijok haren gaitasunaz izan zezakeen iritzia (Urquijo 1934a; Krutwig 1952c: 52; cf. Hurch & Kerejeta 1997; Lakarra 2011: 239).

[443] ABA-EUS: F. Krutwigen «Lehen zathia. Antzundu philologia [1949-11-25]. Bigarren zathia. Euskararen idatzi hizkuntza [1950-01-27]».

[444] Josu Lavinen artxibo pertsonala, Federico Krutwigen biblioteka: «Institut jafetidologičeskih izyskanij Rossijskoj akademii nauk» delakoak argitaratutako *Recueil japhétique* aldizkariaren lehen liburukia dago (1922).

IKER-35.indd 174 2/9/19 10:55

3.7. **IZENDAPEN BERRIAK**

N. Ormaecheak bere kalkuluetan garai ezberdinetako euskaltzainak nahastu arren, funtsean zuzen zegoen Akademia berrituaren desoreka geolinguistikoa salatu zuenean *Gernika* aldizkarian (Ormaetxea 1991b: 860). Ikusi dugunez, 1936an honela banatzen ziren hamabi euskaltzainak: hiruna Bizkai-Gipuzkoa-Frantzietakoak, bi Nafarroakoak eta bakarra Arabakoa. 1949ko erreformaren ondoren, hauek ziren hemezortzi euskaltzainak:

1. Resurrección M.ª Azkue
2. Bonifacio Echegaray
3. Julio Urquijo
4. Ignacio M.ª Echaide
5. Severo Altube
6. Pablo Zamarripa
7. Pierre Lafitte
8. Jean Elissalde
9. Manuel Lecuona
10. Dámaso de Inza (OFMCap)
11. Juan Miguel Seminario
12. Nazario Oleaga
13. Ángel Irigaray
14. Pierre Lhande (SI)
15. Federico Krutwig
16. René Lafon
17. Jean Saint-Pierre
18. Louis Dassance (Arana Martija 1990: 26).

Guztiak ziren gizonezkoak eta batez besteko adina 61,61 urtekoa zen 1949an, hots, 1936ko edo 1941eko batezbestekoaren oso antzekoa. Lurraldetasunari dagokionez, hamabi Espainiakoak eta sei Frantziakoak ziren: P. Lafitte, J. Elissalde, P. Lhande, R. Lafon, J. Saint-Pierre eta L. Dassance. Bizkaiko bost (R. M. Azkue, J. Urquijo, P. Zamarripa, N. Oleaga eta F. Krutwig), Gipuzkoako lau (B. Echegaray, I. M. Echaide, S. Altube eta M. Lecuona), eta Nafarroako hiru (D. de Inza, J. M. Seminario, A. Irigaray). Ondorioz, 1936an %25 bana izatetik, Bizkai-Gipuzkoa-Frantzietako ordezkariak, hurrenez hurren, %27,77, %22,22 eta %33,33 izatera igaro ziren. Frantziako euskaltzainen ordezkaritza laurdenetik herenera handitu zen, alegia. R. Olabide (SI) 1942an hil zenetik, Arabako ordezkaririk ez

IKER-35.indd 175 2/9/19 10:55

zegoen, eta Nafarroako ordezkariak Akademia handituaren %16,66 ziren, 1936an bezalaxe. 1949ko diru laguntza ofiziala JCVren 5.000 pezetak eta GPDren 3.000 pezetak osatzen zutela kontuan hartuta, desoreka geolinguistikoa oso nabarmena zen. Frantziako eta Nafarroako erakundeek ez zuten ezer ematen.[445]

Bestalde, elizgizonak zortzi ziren: R. M. Azkue, P. Zamarripa, M. Lecuona, D. de Inza, P. Lafitte, J. Elissalde, P. Lhande eta J. Saint-Pierre. 1936an %58,33 izatetik 1949an %44,44 izatera igaro ziren, beraz. Hala ere, batezbesteko altua zen, Eliza katolikoaren presentzia horrekin bestelako borroka ideologikoak saihestu nahi zirela nabari baitzen. Izan ere, jeltzaleak, 1936an bezalaxe, hiru besterik ez ziren, nire ustez: S. Altube, M. Lecuona, A. Irigaray. Hots, %25 izatetik %16,66 izatera igaro ziren. Dena dela, Frantziako zenbait euskaltzain, Mundu Gerra ondoko testuinguruan, filojeltzaletzat jo zitezkeen. Bestalde, Akademiaren historian lehen aldiz euskaltzain komunista bat (R. Lafon) onartu zuten oharkabean.

Pierre Lafitte

Pierre Lafitte (1901-1985) Luhuson (Pirinio Behereak) jaio zen. Baionako elizbarrutiko seminarioan ikasi eta 1923an apaiztu zen. J. Saint-Pierre seminarioko irakasleak bultzatuta, ahaztutako euskara lantzeari ekin zion. Jesuiten Tolosako Institutu Katolikoan letrak ikasi zituen eta bertan P. Lhande euskaltzainarekin harremanetan egon zen. Honek *Dictionnaire basque-française* (1926-1938) amaitzea agindu zion, eta horren ondorioz 1928an urgazle izendatu zuten. 1926an hasita, hainbat ikasgairen irakasle izan zen Uztaritzeko seminarioan, filosofia eta erlijioa nagusiki, baina baita euskal hizkuntza-literaturak ere. Pentsalari katoliko pertsonalisten jarraitzailea izan zen, eta ikuspegi sozial eta federalista batetik bere ikasleen artean zabaldu zuen ideologia hau. Espainiako abertzaletasunaren eraginpeko mugimendu erregionalista sustatzen saiatu zen 1930eko hamarkadan (Monier 1992; Larronde 1994; Lafitte 2002; Altonaga 2006). Mundu Gerran, erregionalismoaren aitzakian, petainzaleekiko hurbil egon zen, baina gero alemaniarren aurkako erresistentzian parte hartu zuen. Horrela, *Eskualduna* astekari kolaborazionista debekatu zutenean, gauza izan zen bi orrialdeko astekari filogaullista bat sortu eta zuzentzeko 1944tik aurrera, *Herria* izenekoa. Hain zuzen, erbesteko EAJ-PNV izan

[445] ABA-EUS: G. Maidaganen kontabilitate liburua, 1949.

IKER-35.indd 176 2/9/19 10:55

zen astekariaren laguntzaile ekonomiko nagusia. 1947ko abenduan T. Monzon buru zuen batzarrak urtean 200.000 frankorekin laguntzea erabaki zuen, ordutik aurrera lau orrialde izan zitzan (Barandiaran 2009: 711). Alderdi politikoen eta Baionako apezpikuaren eragina gorabehera, *Herria* aldizkari autonomoa izan zen (Hernández Mata 2007).

Hizkuntza estandarizatzeko P. Lafittek zuen plangintza *Grammaire basque* (1944) delakoan formulatu zuen zehazki. Euskaltzaindia hiltzat jotzeaz gain, Akademiaren eragin eskasa salatu eta R. M. Azkueren *Gipuzkera osotua* (1935b) funtsean desegokitzat jo zuen. Baionako elizbarrutiko prentsaren inguruan, XX. mendean sortutako neolapurtera literarioa proposatu zuen horren ordez:

> Il existe chez nous un mouvement naturel vers un basque meilleur que le basque dialectal : il se révèle surtout dans la langue écrite et la prédication. L'idéal, dans les arrondissements de Bayonne et de Mauléon, exception faite de la Soule, c'est d'avoir une morphologie d'allure labourdine et non contracte, des constructions claires, concises, qui ne sentent pas le français; c'est d'être assez maître du verbe pour s'en passer, quand c'est possible, ou n'en mettre en oeuvre que les formes nominales, quitte à ne pas escamoter, si elle est utile, une forme personnelle même très complexe : pour ce qui est du vocabulaire, le bon styliste est abondant, mais évite avec autant de soin les néologismes vulgaires empruntés aux langues romanes que les néologismes compliqués de certains puristes immodérés.
>
> […]
>
> Mais d'une façon plus ou moins inconsciente, les nouveaux écrivains ont, depuis soixante ans, dans le cadre d'une morphologie à peu près labourdine, introduit de nombreux éléments navarrais et même des vestiges de souletin. Aussi la lecture du journal *Eskualduna,* de la revue *Gure Herria,* ou des oeuvres de Abbadie, Barbier, Etchepare, Apestéguy, etc., révèle-t-elle la naissance d'une langue littéraire commune à presque tout le Pays Basque continental et que l'on pourrait appeler «néo-labourdine», ou plus précisément «navarro-labourdine» (Lafitte 1944: 6-7).

Jean Saint-Pierre

Jean Saint-Pierre (1884-1951) Milanfrangan (Pirinio Behereak) jaiotakoa eta teologian doktorea zen. Frantses nazionalismoa areagotu zuen Lehen Mundu Gerra egindakoa zen, germanofobo erabatekoa, baina euskaltasunarekin uztartu nahi izan zuen identitate hori. Garai horretatik zegoen harremanetan Espainiako abertzaletasunarekin. Euskal idazle gisa, J. Hiriart-Urrutyren

IKER-35.indd 177 2/9/19 10:55

kazetaritza eskolakoa zen. 1920ko hamarkadan *Gure Herria*ren zuzendari eta *Eskualduna*ren erredaktoreburu izan zen, Frantziako Gobernu ezkertiarraren neurri laizistei aurre egiteko.

Jatorri xumekoa zenez, Eliza katolikoari begiratu zion beti, hari esker baino ezin izango zuelakoan gora egin. 1930ean A. Lemaître Kartagoko artzapezpikuaren laguntzaile izendatu zuten. Gordus-ko elizbarruti birtualeko buru izanagatik, inoiz ez zuen elizbarruti fisikorik eskuratu. Hierarkiarekin izandako arazoek betirako markatu zuten. 1937an, Tunisiako mugimendu nazionalistaren indarkeria areagotzen ari zenean, Euskal Herrira erretiratu eta baldintza ekonomiko eskasetan bizi izan zen. Mundu Gerra ondoren EJ-GEk antolatutako kulturgintzan parte hartu zuen. Besteak beste, EIL-SIEBen 1948ko biltzarreko itxiera hitzaldian totalitarismoak salatu zituen, diktadura frankistari zuzendutako gezia zena:

> Et maintenant, un dernier vœu, un dernier souhait: c'est que nous nous accrochions de plus en plus à notre culture si originale; il faut la garder à tout prix au milieu de tous ces efforts totalitaires qui veulent modeler le monde d'une seule manière. La Providence, le Bon Dieu, nos ancêtres, nous ont fait ce que nous sommes; ils nous ont donné un héritage spirituel magnifique, un capital moral splendide, ne le gaspillons pas: au contraire, gardons-le, cherchons dans ce capital, nos raisons de vivre; nourrissons-nous de ce capital et donnons toujours au monde l'exemple d'un peuple qui veut vivre ce qu'il est et qui veut donner au monde l'exemple, le spectacle de la permanence. Je sais bien, c'est précisément cette permanence du tempérament basque, cette permanence du droit coutumier des Basques, qui fait que d'autres nous regardent avec étonnement, avec stupeur, pourquoi ne pas le dire: quelques-uns avec peur (apud Larronde 2004a: 32-33).

L. Mariès (SI) Paris-eko Institutu Katolikoko irakasleak bultzatu zuen linguistika konparatibora nahiz etimologiara.[446] Tunisiako protektoratu frantsesean egon zenetik, euskarak eta Mediterraneoko hizkuntza zaharrek harreman genetikoak zituztela uste zuen, N. Lahovaryren *Les peuples européens* (1946) liburuaren bidetik. Azken finean, ikuspegi katoliko batetik, hizkuntzen monogenesian sinesten zuen. K. Bouda linguistak oso gogor kritikatu zituen euskararen jatorriaz 1948ko biltzarrean aurkeztu edota *Eusko-Jakintza*n argitaratu zituen lanak (Lafitte 1952a; Monier 1992: 488-491; Charritton 2003a; Altonaga 2006; Hernández Mata 2007; Bidegain 2013).

[446] KMK-JU: J. B. Daranatzen gutuna J. Urquijori, 1936-06-25.

IKER-35.indd 178 2/9/19 10:55

Manuel Lecuona

Manuel Lecuona Echabeguren (1894-1987) Gipuzkoako Oiartzunen jaio zen. Gasteizko elizbarrutiko seminarioko euskara katedra berria eskuratu zuen 1915-1916 ikasturtean eta urgazle izendatu zuten 1919an. Gipuzkerazko kristau doktrina lehen aldiz 1921ean moldatu zuen, L. Eijo apezpikuak aginduta eta Akademiaren onarpenarekin. 1936 arte edizio ugari izan zituen, bizkaierazko bertsioaz arduratu zen J. B. Egusquizarenak bezala. Besteak beste, Gasteizko seminarioko Kardaberaz literatura taldearen zuzendaritza (1924) eta apezpikuen pastoralak euskarara itzultzeko ardura ere izan zuen. Errepublikan *Literatura oral euskérica* (1936) aitzindaria argitaratzeaz gain, EI-SEVen ez ezik, «Euskaltzaindiaren Laguntzaľeak» taldearekin ere aritu zen euskararen gizarte sustapenean. Euskal Herriko mapa soziolinguistikoa egiteaz arduratu behar zuen, eta EI-SEVen 1936ko ikastaroetan aurkeztu, baina badirudi proiektuaren arrastoa galdu egin dela (Onaindia 1974; Lekuona Berasategi 1995; Torrealdai 2000; Ibáñez Arana 2005; Andiazabal & al. 2006; Kintana Goiriena 2008).[447]

Gerra zibila hastean, bere bi anaia (Martín eta Julián Lecuona) fusilatu egin zituzten eskuindar kolpistek okupatutako Gipuzkoan (Aizpuru & al. 2007: 303). Elizgizon filojeltzale gisa bizi zuen arriskuaz jabetuta, Gasteizko seminariotik ihes egin eta lau urte egon zen Lasarteko brigidatarren kapilauaren etxean ezkutatuta, komentuko artxiboan tokiko historia eklesiastikoa ikertzen. 1941ean Gipuzkoako ezkutalekutik atera eta F. García Martínez apezpiku zuen Calahorrako elizbarrutira destinatu zuten. 1944an, C. Ballester Gasteizko apezpikuak deserriko zenbait apaizentzat itzultzeko baimena eskatu zion Barne Arazoetako ministerioari. Ministerioak informazio hau bildu zuen M. Lecuonaz:

> Respecto a si procede o no su regreso a los destinos que desempeñaba anteriormente, se ha podido informar por dignísimos sacerdotes, españoles ejemplares, que aun cuando el informado era bastante nacionalista, dada su elevada cultura y ejemplaridad de su sacerdocio, creen que no existe inconveniente por estar convencidos de que no se mezclará en ninguna actividad política (apud Ferreiro Currás 2013: 465).

[447] J. Artechek Bilboko egunkari jeltzaleko «¿Quiénes son los mayores enemigos del euzkera?» artikuluan adierazi zuenez, Kardaberaz taldea 1936ko udaberrian Bizkai-Gipuzkoetako herri euskaldun batzuetan (Azpeitia, Amasa-Villabona, Ea, Arrieta) inkestak egiten hasi zen, euskararen egoera aztertzeko. Gazteek eta bereziki emakumeek gaztelaniarako joera omen zuten, batez ere eskola erlijiosoaren ondorioz (*Euzkadi* 1936-05-12).

IKER-35.indd 179 2/9/19 10:55

Besteak beste J. C. Ibarguchi urgazleari gertatu bezala, ukatu egin zioten baimena; 1955 arte jarraitu behar izan zuen Calahorran. Bertako artxibo historikoa ikertzeaz gain, euskarazko zenbait poema eta kanta argitaratu zituen, baita *Gazteiz-ko Eliz-barrutirako kristau-ikasbidea* berriz moldatu ere. 1920-1930eko hamarkadetako edizio ugariekin erkatuta, «notin» (pertsona) bezalako sabindar neologismoa bere horretan ageri zen, baina ez ordea zeinu ortografiko bereziak («ŕ», «ĺ»), ezta Euskaltzaindiaren onarpena ere (Lekuona 1949).[448] Nolanahi den, euskaltzain izendatzea urrats garrantzitsua izan zen bere errehabilitazio politikoan. M. Lecuonak, hain zuzen, 1949ko irailaren 15ean Txingudiko badian isilpean egindako elkarrizketan, salatu egin zion J. M. Barandiaran lankide ohiari Espainiako Eliza katolikoaren egoera larria:

> Lekuona ez nuen ikusi amairu urte oetan. Galde diet ongi al diren Españia'ko nausien mende; ezetz erantzun diate: alde guzietan gosea, autamenaren bideak itxirik, elizgizonak (goienekoak beintzat) nausiakin bat egiñik, Eleiza gaizki ikusia, denak erlijioagandik aldentzen; ala ere Españia'ko elizgizon asko edo geienak indarrez erria bereganatzeko itxaropenean (Barandiaran 2009: 762-763).

Louis Dassance (eta **Gure Herria** *aldizkaria)*

Louis Dassance (1888-1976) Uztaritzen (Pirinio Behereak) jaiotako ingeniari agronomoa zen. Eskuin muturreko ikuspegi batetik, nekazarien aldeko elkarteetan parte hartu zuen. Uztaritzeko auzapezorde (1919-1939) eta auzapez (1939-1959) izan zen. 1926az geroztik Eskualzaleen Biltzarreko buru izan zen, eta urgazle izendatu zuten 1930ean. Eskualzaleen Biltzarraren elitismo nostalgikoa ezin izan zuen behar adina eguneratu, bereziki azken bi gerrek agerian jarritako ezintasunen aurrean. 1950ean Eskualzaleen Biltzarreko zuzendaritza kide hauek osatzen zuten: L. Dassance buru, J. Elissalde idazkari eta A. Constantin diruzain (*Alderdi* 1950-10).[449] Elkartearen lorpen nagusia, urte-

[448] ABA-EUS: M. Lecuonaren gutuna R. M. Azkueri, 1949-11-05. Gerraondoko giroaren erakusgarri, kristau doktrina lehen aldiz 1940 inguruan berrargitaratu zutenean, gaztelaniazko grafiaz ezarri, eta ikur abertzaletzat jo zitezkeen euskal toponimo eta neologismoak kendu egin zituzten: *Vitoria'co Eliz-barrutiraco cristau-dotriña* (Gasteizko elizbarrutia 1940).

[449] Hurrengo urtean D. Dufau notarioak hartu zuen diruzaintza (*Herria* 1951-09-27). Espainiako gerra zibilaren eta Mundu Gerraren ondorioz, 1936ko eta 1939-1945 arteko biltzarrak bertan behera geratu ziren. Herri hauetan antolatu zituzten gainerakoak: Hazparne (1937), Domintxaine (1938), Barkoxe (1946), Arrangoitze (1947), Baigorri (1948), Garrüze (1949), Santa Grazi (1950), Hendaia (1951), Aldude (1952), Donazaharre (1953) eta Eskiula (1954) (Abeberry 1965).

IKER-35.indd 180 2/9/19 10:55

roko biltzarraz gain, haurren eta seminaristen artean euskal literatura lehiaketak antolatu eta sariak banatzea izan zen. EJ-GEk babestutako EIL-SIEBeko zuzendaritzako kide gisa, 1948ko nazioarteko biltzarrean «La Forêt au Pays Basque français» hitzaldia eman zuen (Monier 1992: 329; Murua Uria 1997; Charritton 2003b; Hernández Mata 2007; Itzaina 2008; Barandiaran 2009).

Irudia 9. **Louis Dassance eta Jean Saint-Pierre apezpikua**



Iturria: *Gure Herria* (1952ko urtarril-otsailak).

1921ean sortutako *Gure Herria* aldizkariaren diruzain eta arduradun nagusia zen gerra zibila piztu zenean. Aldizkariak jarrera bakegilea izan zuen, eta euskal apezpikuen alde egiteaz gain, bi alderdien arteko negoziazioan konprometitu zen. Kontuan hartu behar da Baionaldeko prentsa ia guztia profrankista zela, S. Arotçarenak zuzentzen zuen *Eskualduna* kasu mingarriena barne. Espainiako 90 harpidedunak gerraren ondorioz galduta, *Gure Herria*ren 1936ko azken zenbakia bertan behera uztea erabaki zuten. Hala ere, erredaktoreek argi zuten, Frantzia mailako erregionalismoaren muga gainditu gabe, Euskal Herriko kultura aldizkari nagusia zirela une horretan. C. Mathieu apezpikua (buru), E. Souberbielle eta J. Jauréguiberry (buruordeak), P. Lafitte (idazkari) eta L. Dassance diruzainaren zuzendaritzapean, *RIEV*en hutsunea partez bete zuten, maila apalagoan, 1937-1939 artean. Oinarrizko jarrera katoliko eskuindarretik, aldizkariko arduradunak «euskal oasia»ren aldera lerratu eta gerra zibileko erbesteratuak

IKER-35.indd 181 2/9/19 10:55

laguntzen aritu ziren. *Gure Herria*ko orrialdeetatik ukatu egin behar izan zuten autonomista edo separatistak zirenik. Biratze hau ez zen erraza izan, soziologikoki J. Ybarnegaray diputatuak irudikatzen zuen eskuin muturreko frantses nazionalismoan hazitakoak zirelako arduradun gehienak (Gure Herria 1936a; 1936b; 1937a; 1938; 1939; cf. Haritschelhar Duhalde 2009).

Mundu Gerrak eten egin zuen Baionaldeko aldizkaria eta 1950 arte ezin izan zuten berpiztu; aldi berean, diktadura frankistapeko Akademiak agerkaririk gabe jarraitzen zuen. L. Dassancek hartu zuen kultura aldizkariaren administrazio kontseilua osatzeko ardura: J. Saint-Pierre (buru), A. Constantin eta L. Léon (buruordeak), P. Lafitte (idazkari nagusi), P. Charritton (idazkariorde) eta L. Dassance (diruzain). Aholkulariak ere izendatu zituzten: J. Elissalde, J. Moulier, D. Dufau, J. Jauréguiberry, G. Eppherre, T. Monzon, M. de la Sota edota M. Inchauspe. Zalantzazkoen artean zegoen J. Etcheverry-Ainchart diputatu ohia.[450] *Gure Herria*k nagusiki frantsesez landu zituen kultura gaiak, baina Pirinio Behereetan euskal kulturaren aldeko ekintzek zuten bizitasunaren beste ezaugarri bat zen, euskal diputatuek Parisen lortutako emaitza politikoak bezala. «Loi Deixonne» izan zenari esker, diru laguntza ofizialak lortu ziren, euskara, modu prekarioan izan arren, hezkuntza publikoan sartzeko. Aldizkari erregionalistaren zuzendariak, bestalde, lehen zenbakiaren hitzaurrean, ez zuen aukera galdu diktadura frankistaren zentsura salatzeko: «La carence actuelle des manifestations de la pensée basque chez nos voisins des Provinces, nous oblige a un nouvel effort» (Saint-Pierre 1950a: 2).

Akademiarekiko harreman hotzaren erakusgarri, *Gure Herria*k Euskaltzaindiaren batzarren berri labur eta motz eman zuen beti. Besteak beste, *Gure Herria*k EIL-SIEBen biltzarreko hainbat komunikazio argitaratu zituen 1950-1951n: S. Arotçarenaren «Le problème de la traduction», Th. Uthurryren «Monsieur le chanoine Emmanuel Inchauspe», C. Tagliavaniren «Alfredo Trombetti et ses études sur l'origine du basque» edota Ph. Oihanburuen «Sur le néologisme». Azken artikulu horrek Euskaltzaindiaren erreformaren alde egin zuen, euskararen estandarizazioaren arazoari heltzeko. Begi onez ikusten zuen Frantziako euskaltzainen eta, batez ere, P. Lafitteren eragina auzi horretan. Baionaldeko aldizkariak, urrutira gabe, *Euzko-Gogoa*ren lehen zenbakia jaso zuenean hizkuntza «hermetiko» ulergaitza zerabilela adierazi zuen (cf. Gure Herria 1950a; 1950b; 1950c).[451]

---

[450] ABA-LAF: L. Dassanceren gutuna P. Lafitteri, 1950-02-17.

[451] Ph. Oihanburuk neologismo jeltzaleen gehiegikeriak gogor kritikatu zituen eta hizkuntzaren atzerakada eragozteko neurri kaltegarriak hartu izana leporatu zien: «Et actuelle-

IKER-35.indd 182 2/9/19 10:55

René Lafon

René Lafon (1899-1974) Mérignac-en (Gironda) jaio zen. Euskal jatorririk ez zuenez, 1920ko estatutuen arabera ezin zitekeen euskaltzain izan.[452] Lizeoko filosofia irakasle izan zen, baina A. Meillet eta F. Saussureren lanak irakurri zituenetik, linguistikara jo zuen. 1920ko hamarkadan Parisko hizkuntzalariek euskararen eta Kaukasoko hizkuntzen arteko lotura ikertzera bideratu zuten, N. I. Marr-en teoria jafetikoa aztertzeko. Euskara ongi ikasita, *RIEV*en inguruko euskalariekin harremanetan hasi eta urgazle izendatu zuten 1935ean (Haritschelhar 1975; Lafon 1999: 7-10).

G. Lacomberekin izandako korrespondentzian ageri dira euskal ikasketak egonkortzeko zeuden zailtasunak, gerra zibilak areagotu zituenak. Besteak beste, R. M. Azkue eta J. Urquijoz galdetzen zion euskaltzainari. Bordeleko lizeoko irakasle zela, zalantzan zegoen tesiaren gaitzat euskara hartu ala ez. Euskara katedrarik edota ikerketa-gunerik ezean, uste zuen bere ibilbide profesionalaren kalterako izan zitekeela.[453] 1936an bertan, Bordeleko Unibertsitatean euskal filologiako katedra bat sor zitekeenaren zurrumurrua zabaldu zen, eta hautagai nagusiak H. Gavel eta R. Lafon zirela. Fronte Popularra Frantziako Gobernuan zegoenez, eragin politikoak salatu zituzten unibertsitatean, R. Lafon komunista zelako.[454] Bestalde, J. Vendryesek tesiaren gaitzat euskal aditza hartzera animatu zuen.[455]

---

ment, on voit une débasquisation des provinces péninsulaires que la persécution officielle seule ne suffit pas à expliquer» (Oihanburu 1950: 243). Ondoren, A. Tournier-ek beste artikulu bat idatzi zuen ildo beretik, S. Arana ezjakintzat utzita. Bi orrialdeko protesta zuzendu zioten hainbat jeltzale nabarmenek aldizkariaren zuzendariari: S. Altube, J. M. Leizaola, C. Jemein, T. Monzon eta D. Ciaurriz. A. Tournier-ek, azkenik, jeltzaleen ortodoxia eta abertzaletasun inposatzailea kritikatu zituen, Pirinio Behereetako hizkuntza egoera eta tradizioa begiratzen ez zutelako (Tournier 1951).

[452] F. Krutwigek oker adierazi zuenez, *RIEV*eko artikulu batean ama Nafarroa Beherekoa zuela idatzi zuen, baina aipu hori G. Lacomberi zegokion (cf. Lafon 1936: 68; KMK-JU: F. Krutwigen gutuna J. Urquijori, 1949-07-04).

[453] Olaso Dorrea Sorrerakundea, Georges Lacombe funtsa: R. Lafonen gutunak G. Lacomberi, 1936-09-21 & 1936-10-04.

[454] Olaso Dorrea Sorrerakundea, Georges Lacombe funtsa: R. Lafonen gutuna G. Lacomberi, 1936-10-31. Militantzia politiko komunista hori estali behar izan zuten diktadura frankistako Akademian, noski (Krutwig 1991: 136).

[455] Olaso Dorrea Sorrerakundea, Georges Lacombe funtsa: R. Lafonen gutuna G. Lacomberi, 1937-01-10.

IKER-35.indd 183 2/9/19 10:55

Tesia 1939an amaitzear zegoen, baina Mundu Gerra piztu ondoren, alemanek preso hartu zuten 1941eko abuztura arte. 1942tik aurrera korrespondentzia berreskuratu zuen G. Lacombe, H. Gavel edota K. Boudarekin. Azken horrek Kaukasora eraman nahi izan zuen espedizio zientifiko batera.[456] Tesiaren defentsa 1944 arte atzeratu zen, baina orduan Bordeleko Unibertsitatean euskara ikastaroa abiatu eta R. Lafoni eman zioten ardura hori. Gramatika eta euskal testuak (A. Oihenart, J. B. Elissamburu) irakasten zizkien hogei inguru ikasleri. Aldi berean, Arcachongo (Gironda) lizeoan ematen zituen eskolak.[457] Tesia Parisen defendatu zuen maiatzean eta bi liburukiko argitalpena euskalarien artean banatzen hasi zen, baita Espainian ere, G. Lacomberen bidez: *Le système du verbe basque au XVIe siècle* (1943).[458]

Besteak beste, 1947-1950 artean artikulu ugari argitaratu zituen *Eusko-Jakintza*n euskararen jatorriaz, Kaukasoko hizkuntzekiko harremanez, etimologiaz, fonologiaz edota gramatikaz. Bordeleko katedraduna une horretan euskaltzainen arteko linguista puntakoena zen. 1950etik aurrera R. Lafon filologia lanak argitaratzen hasi zen *BRSVAP*en. Arcachonen bizi eta Bordelen eskolak ematen zituenez, ez zuen Akademiaren garaiko batzarretan parte hartu, sarrera ekitaldiaz landa. H. Gavel baino hogei urte gazteagoa zen, baina Akademiaren gerraondoko bizitzari egindako ekarpena harena bezain mugatua izan zen. Hala ere, Frantziako hizkuntzalariek euskararekiko erakusten zuten erdeinuarekin ez zetorren bat, haiek literatura estatusera iristen ez zen bigarren mailako hizkuntzatzat baitzuten (cf. Lafon 1953a).

Henri Gavel

Akademiaren artxiboan gordetzen da euskaltzain berriei R. M. Azkuek, izendapena jakinaraziz, 1949ko urriaren 8an bidali zien gutuna, baita guztien esker oneko erantzunak ere.[459] H. Gaveli bidalitako jakinarazpenik, ordea, ez

[456] Olaso Dorrea Sorrerakundea, Georges Lacombe funtsa: R. Lafonen gutuna G. Lacomberi, 1943-01-28.

[457] Olaso Dorrea Sorrerakundea, Georges Lacombe funtsa: R. Lafonen gutuna G. Lacomberi, 1944-01-01.

[458] Olaso Dorrea Sorrerakundea, Georges Lacombe funtsa: R. Lafonen gutuna G. Lacomberi, 1944-05-22.

[459] ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna (1949-10-08) & beste kide hauek erantzunak: P. Lafitte (1949-10-14), R. Lafon (1949-10-16), L. Dassance (1949-10-16), J. Saint-Pierre

IKER-35.indd 184 2/9/19 10:55

dago, ezta Tolosako Unibertsitateko irakasle izandakoaren erantzunik ere. H. Gavelen deduzko supernumerario izendapen bitxia Akademiaren historiako bakarra izan zen. R. Lafon, Akitaniako eskualdean jaioa zelako, etnikoki euskalduntzat onartu zuten, baina Frantzia-Belgiketako mugan jaiotako H. Gavel, ordea, ez. Euskaltzainen eskubide berak emateko asmoarekin sortu zen deduzko kategoria berri hura, baina H. Gavelek ez zuen Akademiaren zereginetan parte hartu.

Henri Gavel (1880-1959) erromanista Saint-Pol-sur-Ternoise-n (Nord-Pas-de-Calais) jaio zen. Baionako lizeoan gaztelania irakasle zela, Atharratzeko M. A. Charorekin ezkondu zen 1916an eta Angelun (Pirinio Behereak) ezarri zuten bizitokia. J. Urquijok *Éléments de phonétique basque* «tesi osagarria» (besteak beste, R. Menéndez Pidal izan zuen epaile) argitaratu zion *RIEV*en zenbaki monografikoan (1921), garaiko lanik aurreratuenetakoa zelako. Okzitaniera ere menderatzen zuen, eta 1926an Baionako Académie Gascoune-ren kide sortzaile izan zen. 1930etik Tolosako Unibertsitatean filologia erromanikoko katedraduna izan zen, 1948an erretiroa hartu zuen arte. Gerra zibilaren urteetan, halaber, euskara eskolak eman zituen Bordeleko Unibertsitatean. Bi unibertsitateok Donibane Garazin (Pirinio Behereak) ezarritako «Centre d'Etudes Basques» delakoaren zuzendaritza eman zioten, baina Mundu Gerraren ondorioz ez zen operatiboa izan. Izan ere, Vichyko Frantziaren menpe geratu zen Tolosatik ezin zuen alde egin H. Gavelek (Gure Herria 1937b; Apraiz Buesa 1938; Boussagol 1960).[460]

Akademiarekin harremanak izan zituen sorreratik: 1919an urgazle eta 1933an deduzko izendatu zuten. Hain zuzen, Frantziako euskal aldizkarien izenean, Akademiari 1930ean eskatu zion ortografia arautuan egokitzapenak egiteko, baina euskaltzainburuak baztertu egin behar izan zuen egitasmoa, erromanistaren argudioekin ados egon arren, jeltzale ortodoxoen erasoen beldur zirelako. Bi urte geroago, berriz ere piztu zen eztabaida *Gure Herria* aldizkarian, eta uste izatekoa da kontsolazioz izendatu zutela deduzko. Izan ere, Frantziako euskal prentsak ez zituen Akademiaren arauak jarraitzen, ezta Mundu Gerraren ondoren ere. *Gernika* aldizkarian, H. Gavel ortografia normatiboa aldatu eta erabilera arruntera hurbildu beharraz aritu zen berriz ere, N. Ormaechea eta A. M. Labayenekin eztabaidan. Angelun

(1949-10-16) eta M. Lecuona (1949-11-05).

[460] KMK-JU: H. Gavelen gutunak J. Urquijori, 1942-10-11, 1942-11-14 & 1946-02-23. Bigarren gutun hori *BRSVAP*en argitaratu zuten (Urquijo 1945: 131-132).

IKER-35.indd 185 2/9/19 10:55

bizi zen erretiroa hartu zuenetik, baina adinak eraginda, ikusmena galtzen hasi zen, eta horrek oso motel lan egitera behartzen zuen.[461] Hala ere, J. Urquijorekin postazko harremanetan jarraitu zuen, EIL-SIEBen, Ikuskaren nahiz Baionako Musée Basque-ren ekintzetan parte hartzen, edota artikuluak idazten *Eusko-Jakintza*n (Lacombe 1933; Zuazo Zelaieta 1988; Kintana Goiriena 2008; Barandiaran 2009).[462]

[461] Koldo Mitxelena Kulturunea, Koldo Mitxelena funtsa: P. Yrizarren gutuna L. Michelenari, 1951-08-10.

[462] KMK-JU: H. Gavelen gutunak J. Urquijori, 1948-02-10/1950-01-07.

IKER-35.indd 186 2/9/19 10:55

4. EUSKALTZAINDI ZAHARRAREN GAINBEHERA: 1950-1951

4.1. ESPAINIA FRANKISTAN EUSKARAZ ARGITARATZEKO ZAILTASUNAK

1950eko urtarrilaren 27an batzartu ziren Donostian bederatzi euskaltzain: R. M. Azkue, I. M. Echaide, J. Elissalde, A. Irigaray, F. Krutwig, P. Lafitte, L. Dassance, M. Lecuona eta N. Oleaga. M. Lecuonak sarrera hitzaldi antzekoa egin zuen, zeharka Akademiaren posizionamendua eskatzen zuena. Erbestean zegoen N. Ormaechea «Orixe» idazle ospetsuaren *Euskaldunak* poema epikoa argitaratzeko baimena lortzeko laguntza eskatu zion batzarrari (Euskaltzaindia 1982: 9). Testua 1949ko abenduaren 12an bidali zion euskaltzainburuari Calahorratik: «Euskaltzaindia, bere izenak berak dionez, Euskera zaitzeko sortua degu. Euskera zaitu. Etsairen batengandik babestu, alegia. Zaitzeak beti etsairen bat nai du. Ez litzake artzai bearrik, otsorik ez balego».[463] Diktadura frankistak eragozten zituen idatzizko ekoizpen jasoez gabetuta, euskarak ez zuen etorkizunik: «Eta ala berean esan dezakegu, baita, Literaturarik gabe gelditzera dijoan Izkuntza, zuzen-zuzen ez izatera, iltzera dijoala ere».[464]

R. M. Azkue aitzindariaren *Euskaleŕiaren yakintza = Literatura popular del País Vasco* (1942-1947) bildumari jarraituta, euskarazko argitalpen gutxi batzuk, diktaduraren lehen urteetan baino gehiago, argia ikusten ari ziren, batez ere erlijioaren alorrean. Frantziskotarrek, esaterako, euskaraz argitaratzea lortu zuten *El Maestro de los Terciarios* (1944) aldizkaria, *Arantzazuco*

[463] ABA-EUS: M. Lecuonaren gutuna R. M. Azkueri, 1949-12-12.
[464] ABA-EUS: M. Lecuonaren gutuna R. M. Azkueri, 1949-12-12.

IKER-35.indd 187 2/9/19 10:55

Andre Mariaren Egutegia (1947) edota S. Michelenaren *Arantzazu* (1949) poema liburua. Zatitzear zegoen Gasteizko elizbarrutiak, orobat, doktrina kristaua gipuzkeraz eta bizkaieraz argitaratu berri zuen. J. Beñarán integristak zuzentzen zuen Gipuzkoako CAP ere, berriak euskaraz ematen hasia zen, baserritarrei zuzendutako mezuetan. M. Lecuonak euskal erakunde kulturalen gerraurreko sustapen lana berreskuratu nahi zuen.[465] Gerra zibilak etendako babes lanari berriz ekitea eskatzen zion euskaltzainburuari gutunean:

> Bañan, —ez orain-orain egiña— or daukagu argitara-zai, lan bat, ain xuxen nik orain dakarkidana zuen artera nere egun onetako «besoetako» bezela. Nikolas Ormaetxea Jaunaren Poema «Euskaldunak». Oraintxe argitara nai luke —ba'da ordu ere ta—. Eta ez digu diruzko laguntzarik eskatzen. Ba'du, bere gain artu nai duan Argitaldari. Argitaratzeko baimena, ez du besterik nai gugandik. Gure baimena. Eta guk Madrid'etik ekarri dezaiokegun eta ekarri bear diogun baimena...[466]

Aho batez onartu zuen batzarrak eskaria, eta M. Lecuonaren gain utzi zuen prozedura bideratzea. Bide beretik, Tomás Aguirre «Baŕensoro»k *Uztaro* (1937) bere nobela berrargitaratzeko laguntza eskatu zuela adierazi zuen N. Oleaga idazkariak. Idazle jeltzaleak Sevillatik idatzi zion euskaltzainburuari 1949ko abenduaren 17an: «ruego a Vd encarecidamente tengan a bien decirme si se encargaría esa Academia de su dirección de efectuar las gestiones oportunas para conseguir el permiso correspondiente de la Jefatura de Prensa y Propaganda».[467] Ez da kasualitate hutsa abertzaleek eskari hauek batera egitea, Akademia publikoki nabarmentzen hasi orduko. Nolanahi den, batzarrak aho batez erabaki zuen eskari hori ere bideratzea (Euskaltzaindia 1982: 9). T. Aguirre Euzkadiko Gogo-lantze Batzordeko kide ohiaren *Uztaro*, lehen aldiz gerra zibil betean agertutakoa, hurrengo urtean berrargitaratu zen, jatorrizko sabindar ortografia normatiboarekin, Bilboko «Editorial Vasca-Irarkolan» (Agirre 1950). Martxoan, euskaltzainburuak aldeko dosierra idatzi zuen. Nobelaren gipuzkera literario eta ortografia arautua onesteaz gain, edukiaren izaera katoliko bezain apolitikoa nabarmendu zuen:

---

[465] M. Lecuonak, EI-SEVen izenean, eta R. M. Azkuek, Akademiarenean, sinatuta zuten N. Ormaechearen idazlanaren aldeko dosierra Errepublikan, diputazioen laguntza eskatzeko (EI-SEV & Euskaltzaindia 1935).

[466] ABA-EUS: M. Lecuonaren gutuna R. M. Azkueri, 1949-12-12.

[467] ABA-EUS: T. Aguirreren gutuna R. M. Azkueri, 1949-12-17.

IKER-35.indd 188 2/9/19 10:55

> El contenido de la obra, cuyo título significa en castellano «Época de la Mies-Novela», es, cual lo indica dicho título, una novela de costumbre del País, en torno al desarrollo de los amores de dos muchachos, culminados en su matrimonio. Dado su carácter folklórico y como puede apreciarse con su detenida y atenta lectura, la obra no contiene el menor asomo de sentimiento ni idea política en ningún sentido, ni por tanto puede inspirar recelo ni motivar rechazo en tal aspecto dentro del sentimiento patriótico español y del régimen actual.[468]

Euskarazko liburuak argitaratzea benetako sufrikarioa zen argitaletxeentzat. Itxaropenak, adibidez, Gregorio Mújicaren *Peŕnando Amezketaŕa* (1927) umorezko liburuaren datarik gabeko hirugarren edizioa egin zuen, gerraurrekotzat saltzeko asmoarekin. Baina A. M. Labayenen *Escenas papeleras* (1947) baimenik gabe argitaratzeagatik, edizioa erretiratu, eta 25.000 pta. galdu zituen Itxaropenak. Seguru asko, bahiketaren benetako arrazoia I. López Mendizábal editore erbesteratuaren egoerari egindako aipamen luzeak izan ziren. Horregatik, ediziorako baimena eskatzea erabaki zuen F. Unzurrunzaga editoreak. 1947ko apirilean ezezko borobila jaso zuten Madrilgo «Dirección General de Propaganda»tik.

Urtebete igarota, 1948ko martxoan, editoreak A. Paguagarengana jo zuen, Donostiako alkate tradizionalista ohia eta Gorte frankistetako lehen idazkaria. Honek arazoa P. Rocamora Propaganda-ko zuzendari nagusiaren eskuetan utzi eta 1948ko ekainean sinatu zuten ediziorako baimena. Hala ere, hilabeteak igaro eta baimenik ez zen heltzen Itxaropenara. Azkenean J. Artechek jo behar izan zuen Luis Dotres Aurrecoechearengana, Hezkuntza Nazionaleko ministerioaren Gipuzkoako delegatua zenarengana. P. Rocamora eta L. Dotresen adostasunarekin, abuztuan iritsi zitzaion *Pernando Amezketarra* (1948) argitaratzeko baimena. Argibide ofizialaren arabera, lehendabiziko baimena Zaragozara bidali zuten, Zarautzera ordez. Euskarazko argitalpenak oztopatzeko fede txarra nabarmena zen. Dena dela, liburua oso ondo saldu zen, 800 ale hamabost egunetan, eta beste edizio bat prestatu zuten.[469]

EAJ-PNVren EBBk bildutako 1950eko dosier anonimoak jaso zuenez, EIL-SIEBen 1948ko biltzar internazionalak eragin handia izan zuen barnealdeko zentsuraren biguntzean. EJ-GEren diru laguntzarekin Biarritzen antolatutako biltzar jendetsuak oihartzun handia izan zuen, eta bertan euskara, ikergai ez ezik, diktadura frankistak jazarritako hizkuntza bizia zela ere adierazi zen (Bil-

---

[468] ABA-EUS: R. M. Azkueren dosierra *Uztaro* nobelaz, 1950-03-15.

[469] SAF-AA: EAJ-PNVren EBBk bildutako «Datos sobre la edición de Pernando Amezketarra», 1948, PNV_NAC_EBB, K. 00084, C. 4.

IKER-35.indd 189 2/9/19 10:55

bao 2004).[470] 1947ko irailean, J. Arteche eta Itxaropenako F. Unzurrunzaga bildu ziren P. Rocamorarekin Zarautzen. EJ-GEren Radio Euzkadi-k salatu egin zuen bilera, baina horrela eskuratu omen zen hiru euskal liburu argitaratzeko baimena: N. Ormaechearen *Euskaldunak* epopeia folklorikoa, R. de Bera eta I. López Mendizábalen hiztegia eta S. Michelenaren poesia liburua (Urkia Etxabe 2006: 265-266). N. Ormaecheak 12.000 bertsetez osatutako poema bukatuta zuen 1935ean, baina gerra zibilak eragotzi egin zuen argitalpena. 1949ko datarekin ezarri zion oharrean, ezintasun horien zeharkako aipamena egin zuen erbestetik: «Poema au neregatik galdua ziteken. Amabi urte ontan gure jendeak zenbat ibillera egin ditun onen atzetik, aditzera eman didate» (Ormaetxea 1991a: 31).[471] Hain zuzen, J. Arteche euskarazko kulturaren kronikagile ofiziosoak, liburu berriei artikuluak eskaini zizkien Donostiako egunkarian, edizioek izandako arrakasta nabarmenduta (*La Voz de España* 1948-10-27; 1948-11-17; 1949-01-19; 1949-05-21; 1950-11-30).

J. Ibáñez Martínen ministerioak zenbait idazlani bidea zabaldu zien, gaiak politikoki kaltegabekotzat jo eta gaztelaniaren nagusitasuna ezbaian jartzen ez zen heinean. Esaterako, gaztelaniazko idazlanak euskarara ezin ziren itzuli, erdararen ezinbestekotasuna zalantzan jartzea litzatekeelako. Mundu Gerra bukatu ondoren, informazio eta zentsuraren eskumena Vicesecretaría de Educación Popular falangistatik Hezkuntza Nazionaleko ministerioko katolikoengana igaro zen. Gerra Hotzaren testuinguruan, diktadura frankistari itxura liberalagoa eman nahi ziotelako, euskaraz argitaratzeko aukerak erlatiboki areagotu ziren, baina prozesu arriskutsu eta neketsua izaten jarraitu zuen (Cal 1999). Pedro Rocamora Valls (1912-1994) legegizona, hain zuzen, sektore horretako kide nabarmena zen. Opus Dei-ko kide goiztiarra, Hezkuntza Nazionaleko ministerioan lan egin zuen 1940tik aurrera. Propaganda-ko zuzendari nagusi gisa, Madrilgo Ateneoaren burua zen, eta Gipuzkoan igarotzen zituen udak. Donostiako egunkarian egin zioten elkarrizketan azaldu zuen baimenaren irizpidea:

---

[470] SAF-AA: «Copia del informe presentado por X al Congreso de Estudios Vascos celebrado en Bayona [sic] el año 1948», PNV_NAC_EBB,K.00227,C.4

[471] Zentsura zibilaren oztopoak nekez gaindituta, euskarazko zenbait liburu argitaratu ziren, gehienak Zarauzko Itxaropenan. Badirudi gerraondoko lehenengoa, P. Balzolaren *Argi Donea* (1924), otoitz liburuaren edizio berri bat izan zela. Ondoren etorri ziren J. J. Macazagaren *Euskal Erriko kanta zarrak* bilduma (1947-1950), G. Mújicaren *Pernando Amezketarra* (1948), R. de Bera (OFMCap) eta I. López Mendizábalen *Diccionario castellano-vasco* (1948), I. M. Mancisidorren (SI) *Otoitz-bidea* (1948), S. Michelenaren (OFM) *Arantzazu* (1949) edota I. Eizmendi «Basarri»ren *Atano III* (1949). 1950etik aurrera A. Zugasti, J. Echaide, N. Echániz, A. Sorarrain (OFM), N. Ormaechea, I. Munita, P. Múgica (SI) edota E. Arreseren lanak gehitu zitzaizkien (cf. Torrealdai 1999; 2000).

IKER-35.indd 190 2/9/19 10:55

> Obro en esto, como en todo, según criterios que recibo de la Superioridad. Y es que no puede desconocerse la existencia de las lenguas vernáculas, en orden a la creación artística por lo que a mí compete. Comencé por autorizar la publicación en vasco de algunos libros religiosos, considerando que habría más de una anciana que no podría rezar su novena si no la hacía en la lengua nativa. Luego vinieron la lírica y la creación, y fueron autorizadas todas aquellas manifestaciones del espíritu que no hay razón alguna para que no sean conocidas o aparezcan en castellano. Se trata, sencillamente de no deformar la vida. ¿Qué razón podría haber para que el poema «Euskaldunak» no se publicase en euskaros [sic]? Ninguna. En cambio, sería deformar la vida autorizar una edición del «Quijote» en vasco (*La Voz de España* 1950-08-01).[472]

Zarauzko argitaletxeak 1949ko abenduaren 27an zuzendu zion gutuna Akademiako idazkariari. M. Lecuonaren bitartez, Euskaltzaindiari *Euskaldunak* liburuaren aldeko dosierra eta baimen eskaeraren kudeaketa eskatu zizkion.[473] Gutunean oinarrituta, M. Lecuonak 1950eko martxoan testuaren edukia zirriborratu zuen euskaltzainburuak bere egin zezan. Funtsean testu bera zen:

> Como puede desprenderse de este su carácter folklórico y como lo hemos podido apreciar en una detenida y atenta lectura, la obra no contiene el menor asomo de sentimiento ni idea política en ningún sentido. Y para mayor garantía de ello cabe destacar que las escenas del Poema ocurren en la zona del País más alejada de las luchas políticas, como es ordinariamente la montaña en contraposición a las zonas urbanas más permeables a las corrientes de agitación política.[474]

1950eko urtarrileko Akademiaren batzarrak, orobat, NBEk euskaraz argitaratutako «Gizonaren Eskubidegai Guzietaz Aitorkizuna» delakoaren berri eman zuen, besterik gehitu gabe. NBEk, artean Espainia frankista aitortzen ez zuenak, 1948ko abenduan onartu zuen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala. Akordioak, halaber, adierazpena hizkuntza ofizialetan ez ezik, ahalik eta hizkuntza gehienetan ere zabaltzea agindu zuen. Erabaki horretaz baliatuta, EAJ-PNVk, batez ere J. Galíndez eta F. J. Landábururen bidez, NBEren idazkaritzari eskatu zion euskarazko bertsioa emateko.[475] EAJ-PNVk bere aldetik

---

[472] Hain zuzen, M. Cervantesen jaiotzaren laugarren mendeurrenaren harira, Nafarroako euskaltzainak *BRSVAP*en (berr)argitaratu zuen *El Quijotere*n kapitulu baten itzulpena (Yrigaray 1947a).

[473] ABA-EUS: Itxaropena argitaletxearen gutuna N. Oleagari, 1949-12-27.

[474] ABA-EUS: M. Lecuonaren gutuna N. Oleagari, 1950-03-10.

[475] SAF-AA: D. Ciaurriz eta J. Jáureguiren gutunak F. J. Landábururi, 1949-01-11 & 1949-06-02, PNV_NAC_EBB,K.00307,K.8

IKER-35.indd 191 2/9/19 10:55

N. Ormaecheari eman zion testua itzultzeko eginkizuna, eta EIL-SIEBek itzulpenaren zuzentasuna egiaztatu zuen. NBEk itzulpena onartu, argitaratu eta Espainiako administrazioetara bidali zituen aleak. EAJ-PNVk ere ale ugari bildu eta banatu zituen. Diktadura frankista salatzeko oso tresna egokia zen, edukiaren garrantziaz beste, NBEk argitaratzen zuelako euskarazko testu ofizial bat, Espainian ezinezkoa zena (*Alderdi* 1949-12).

EAJ-PNVk, itzultzailearen izenik aitortu gabe, bere agerkarian informazioa emateaz gain, kontu handiz aukeratu zituen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren barnealdeko hartzaileak: apezpikuak, diputazioak, udalak, egunkariak, eta baita euskaltzainak ere.[476] Euskaltzaindiaz den bezainbatean, helburua argia zen: Akademiaren aurkako kanpainarik ez abiatu, baina haren kontraesanak horrelako ekintzen bidez agerian utzi. EBBko buru D. Ciaurrizek, hain zuzen, barnealdeko J. Ajuriaguerrari eskatu zizkion euskaltzainen helbideak. Helbide zerrenda Jon Echaidek eskuratu behar zuen, euskaltzain integristaren seme abertzaleak.[477] Horrela iritsi zen gaia Akademiaren 1950eko lehen batzarrera, eta hau jaso izanaren adierazpena egitera mugatu zen: «Azkenez adierazo da *United Nations*-en zabalkunde zaingoak euskeraz argitaratu dabela *Gizona'ren eskubidegai guziet*[*a*]*z aitorkizuna*, 1948'garrengo Gabonila'ren 10'garrenean, Erri Batzartuen Batzarre osoak ontzat artu zun eta zabaldu zun bezela» (Euskaltzaindia 1982: 9).[478]

Banatutako aleak argitalpen mekanografiatu xumeak izan arren (*Alderdi*n edota *Euzko-Gogoa*n ere argitaratu zuten), horrelako testu garrantzitsua, juridiko-teknikoki zehatza, euskarara itzultzeak eta nazioartean ofizialki zabaltzeak, barnealdeko Akademiaren aginpide linguistikoa zalantzan jartzen zuen (Erri Batzartuen Batzarre Osoa 1949). Erbesteko EIL-SIEB izan zen, ez Euskaltzaindia, itzulpenaren egiazkotasun eta zuzentasunaz fede eman zuena. Itzulpenari oniritzia, besteak beste, A. Irala eta A. Arzelusek ere eman zioten.[479] N. Ormaecheak berak, P. Lafitterekin eztabaida sutsuan hasi zenean, itzulpena goratu zuen, berea zela onartu gabe (Ormaetxea 1991b: 865). EAJ-PNVren agerkariak nabarmendu zuenez, jeltzaleek Giza Eskubideen

[476] SAF-AA: D. Ciaurrizen gutuna J. Ajuriaguerrari, 1949-10-18, DP_0933_03.

[477] SAF-AA: D. Ciaurrizen gutuna J. Ajuriaguerrari, 1949-12-23, DP_0933_03.

[478] «Finalmente se da cuenta de que la Comisión de Propaganda de la U.N. ha publicado en vascuence la declaración de todos los derechos humanos que la Asamblea General de dicha entidad aprobó y publicó en diez de Diciembre de 1.948» (ABA-EUS: Euskaltzaindiaren gaztelaniazko akta mekanografiatu ofiziala, 1950-01-27).

[479] SAF-AA: D. Ciaurrizen gutuna J. Ajuriaguerrari, 1949-10-21, PNV_NAC_EBB,K.00300,C.9.

IKER-35.indd 192 2/9/19 10:55

Adierazpen Unibertsala euskaraz ematea lortzen zuten bitartean, Bizkaiko gobernadore zibilak hilarrietako euskal izenak ezabatzea agintzen zuen (*Alderdi* 1949-12). Euskaltzaindiak ezin zion ez ikusiarena egin, gutxieneko zilegitasuna gorde nahi bazuen abertzaleen aurrean.

4.2. **EUSKARAREN IDATZI (ETA KLASE) HIZKUNTZA**

1950eko urtarrileko batzarrean, beste hiru dosier aurkeztu ziren: I. M. Echaidek irakurritako P. Zabala urgazle berriaren lana euskal toponimiaz, P. Zamarriparen «El acento prosódico en las palabras vascas» eta F. Krutwigen «Euskararen idatzi hizkuntza».[480] F. Krutwigen dosierrari dagokionez, garaiko testuetan bezala, euskara estandarrarekiko hiru ildo nagusi landu zituen, nolabaiteko aitzindaritza aitortzen diotenak:

– Aro Modernoko literatura tradizioarekiko lotura.
– Kultura funtzioetarako hizkuntza.
– Euskal Herri osorako estandarra (Zuazo Zelaieta 1988: 360).[481]

Dosierrean, Akademiak 1919an sortu zenetik hizkuntza literario bat sortzeko zuen nahitaezko ardura gogorarazten zuen, bereziki P. Broussain zenaren hitzak aipatzen zituela.[482] Jarraitu beharreko eredutzat «lapurtera zaharra» proposatzen zuen, J. Ithurryk bere *Grammaire basque*n (1895-1920) ustez deskribatutakoa. Aro Modernoko idazleetatik gramatika garaikideetara igaro zen.[483] J.

[480] Gaiak eragin zezakeen susmoen beldurrez-edo, batzarraren edukiaren berri prentsara zabaldu zenean, F. Krutwigek beste dosier bat irakurri zuela adierazi zen: «La importancia de la investigación de las lenguas antiguas para comprensión del totemismo, la mística y la magia» (*CE-PV* 1950-01-30). Beste idazlan hori nire ustez 1949ko urtarrileko batzarrean irakurritakoa zen (Euskaltzaindia 1982: 3).

[481] ABA-EUS: F. Krutwigen «Lehen zathia. Antzundu philologia [1949-11-25]. Bigarren zathia. Euskararen idatzi hizkuntza [1950-01-27]».

[482] Pierre Broussain (1859-1920) euskaltzainaren arabera, euskarak etorkizunean bi aukera zituen: arrantzale eta nekazarien «patois» eta atzerriko hizkuntzalarien ikergai izaten jarraitu, hainbat menderen buruan erdarek ordezkatu arte, ala Akademiak sortutako eta eskolak irakatsitako euskara estandarra nazio hizkuntza bilakatu, azkenean dialektoak desagertu arte. F. Krutwig zeharo bat zetorren (Charritton 1997a; 2007).

[483] Jean Ithurry (1845-1896) elizgizonaren gramatikak bereziki aditza azaltzen zuen, eta zatika argitaratu zuten *Eskualduna* astekarian. Hain zuzen, 10.000 ale banatzera iritsi zen aldizkariarekin, Baionako elizbarrutiaren inguruan literatura eskola antzeko bat sortu zen, jeltzaleen hizkuntza eraginik gabea. Politikoki eskuindarra eta frantses nazionalista izanagatik, nafar-lapurterazko literatura eredu bat sortu zuen, euskara idatziaren garapena eta irakurleen arteko nolabaiteko prestigioa ziurtatu zituena (Díaz Noci 1995; Charritton 2007).

IKER-35.indd 193 2/9/19 10:55

Ithurryren idazlan klasikoa ez ezik, H. Gavelen *Grammaire basque* (1929-1937) bukatugabea edota P. Lafitteren *Grammaire basque* (1944) normatiboagoa ere bazeuden.[484] Bestalde, argitaratzear zegoen S. Arotçarenaren *Grammaire basque* (1951) ikasliburua.[485] Modu horretara, bere proposamenak ez zuen hain arkaikoa ematen, baina aldi berean bazterrean utzi zuen P. Lafitteren gramatika berria. Bistan dago F. Krutwigen ezaxolakeria, batzarrean entzule zituelako P. Lafitte, J. Elissalde eta L. Dassance.[486] 1944ko gramatika horrek arrakasta izan zuen, 1.200 harpidedun eta 2.000 aleko argitaraldia izan zituelako. Erbestean eztabaida sortu arren, bere eraginean ez zuen lortu Espainiako muga politiko-kulturala guztiz zeharkatzea (Monier 1992: 454-456).

*Herria*ren zuzendaria euskaltzain hautatu zutenean, aldizkariak hedabide gisa zuen garrantziaz jabetuta zeuden Akademian. 1944an *Eskualduna* itxita zegoen, Mundu Gerran Alemaniako okupatzaileekin kolaboratzeagatik, eta *Herria*k hartu zuen haren lekukoa, milaka ale banatzen zituela astekariak erbesteko EJ-GEren laguntzarekin.[487] Hala ere, F. Krutwigek ez zuen amore emateko eta indarrak biltzeko inolako gaitasunik, P. Lafitteren neolapurtera bizia erabat gaitzetsi baitzuen.[488] Dosierrean, J. M. Seminariori egindako erantzun hitzaldian aipatutako Ch. Ballyren liburuko iritzia zekarren berriz:

> La langue littéraire est une forme d'expression devenue traditionelle; c'est un résidue, une résultante de tout les styles accumulés a travers les générations succesives, c'est l'ensemble des éléments littéraires digérés par la communauté linguistique, et qui font partie du fond commun tout en restant distinct de la langue spontanée… vivant dans le passé, elle est naturellement archaissante. Elle ne peut donc se confondre avec la langue usuelle.[489]

---

[484] F. Krutwigek «Unificación de los dialectos vascos» (1943-09-24) dossierrean A. Campión, J. Ithurry eta R.M. Azkue jarraitu zituen aditzaren azterketan, baita S. Arana ere fonetika eta ortografiarenean (KMK-JU).

[485] Saio hauen balorazio pertsonal baterako, ikus J. Ithurryren berrargitalpenari egin zion hitzaurrea: Krutwig 1979b.

[486] J. Elissaldek ez omen zuen maite P. Lafitteren gramatika, baina seguru asko edozein gramatika ustez normatiboren aurkakoa zen (Krutwig 1991: 106).

[487] Bi astekarion arteko jarraitutasunaren erakusgarri, F. Krutwigen erreforma dosierrean hautazko euskaltzain gisa proposatu zen *Eskualduna*ren azken zuzendaria, S. Arotçarena, Baionako elizbarrutiko artxibozaina, vichyzale izateagatik preso egondakoa.

[488] Adibidez, 1951an N. Ormaecheari idatzitako gutunean: «Pero el kabilismo de Lafitte y su círculo nos viene a destruir o querer destruir el dialecto que teníamos como base para la creación de una lengua literaria para ambos lados de la frontera» (Iztueta & Iztueta 2006: 455).

[489] ABA-EUS: F. Krutwigen «Lehen zathia. Antzundu philologia [1949-11-25]. Bigarren zathia. Euskararen idatzi hizkuntza [1950-01-27]».

IKER-35.indd 194 2/9/19 10:55

P. Broussain eta A. Campiónek Akademiaren 1920ko apirileko batzarrean aurkeztutako dosierrean J. Leiçarragaren XVI. mendeko *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria*ren eredua linguistikoki gailentzat jo zuten, aditzaren joritasunagatik bereziki. Baina estandar gisa bazter batean utzi beharrekoa zela uste zuten, lexikoaren erdal eraginagatik eta, batez ere, XX. mendeko euskaldunek nekez ulertzen zutelako. F. Krutwigentzat, ordea, Ch. Ballyren bidetik, Aro Modernoko euskararen arkaismoa mesedegarri zitzaion batasunari, goi klaseek euskara arruntari zioten erdeinua saihesteko modua izan zitekeelakoan.

Gerra zibil aurreko Euskaltzaindian, N. Ormaecheak gogorarazten zuenez, euskara literario gisa lapurtera erabiltzearen aldekoak baziren: «dentro de la Academia [...] nos hallábamos don Julio Urquijo y yo para defender la posición labortanista (D. Julio por convicción y yo por tendencia natural)» (Ormaetxea 1991b: 860-861). Akademiak euskara estandarra ezartzearen aurka agertu zen J. Urquijo, zeregin hori idazleen eta diputazioen esku utzita, eta ikerketa filologikoan jarraitu zuen (Villasante 1971). Ohartzeko da, era berean, garaiko testuetan F. Krutwigek ez zuela inoiz J. Urquijo aipatu bere irizpidea indartzeko. J. Urquijo 1950ean hil ondoren hasi zen bion arteko kidetasuna nabarmentzen (Krutwig 1991: 111-113).

Aro Modernoko literaturak nahiz Erdi Aroko Nafarroako Erresumak, jakina, Euskal Herria soziolinguistikoki osatuago, erdal interferentziatik libreago, zegoen «urrezko aro» bat irudikatzeko balio zuten. Aldi berean, XX. mendeko errealitate agonikoa eta abertzaletasunak egoera horri emandako erantzun utopiko-purista baztertzen ziren. Dena dela, ezin da ahaztu F. Krutwig filologian autodidakta zela, eta azken mendeetako literaturaren bazterketak ezjakintasunetik asko zuela.

Euskararen irautean burgesiak eta intelektualek zuten eredu funtzioa, P. Broussainen idatzietan zuen gogaidetasuna, behin eta berriz aipatu zuen F. Krutwigek 1950eko dosierrean. Baina arazo hau begien bistakoa zen XX. mendearen hasieratik euskararen atzerakadaz kezkatu ziren euskaltzale eta, bereziki, abertzale guztientzat. Eragin erabakigarriagoa izan zukeen beste eredu bat, L. Eleizalde buruzagi jeltzalearena, gutxiago aipatu zuen garai horretan F. Krutwigek, bistako arrazoi politikoengatik (cf. Zalbide 1988; Antxustegi 1998).[490] Dena dela, agian Karl Renner (1870-1950) austromar-

[490] Besteak beste, oso aipatua ez den etsenplu bat jartzearren, A. Irigarayren aitak ere antzeko gogoetak plazaratu zituen. F. Irigaray «Larreko» hil zenean hori bera gogoratu zuen EAJ-PNVren agerkariko berriemaileak: «*Letradunak* —ola esaten baitzuen berak— nola bildu

IKER-35.indd 195 2/9/19 10:55

xista moderatuak, Mundu Gerra ondotik Austriako presidente zenak, adierazi zuen argien F. Krutwigek jarraitutako bide kulturalista: «Sólo las clases cultas pueden poseer una conciencia de cultura nacional comunitaria, cuya expresión encuentran en los cultos, en la lengua literaria de su nación» (apud Recalde 1982: 288). Gerra zibilak eta diktadura frankistak sortutako eten soziokulturalak, eta F. Krutwigen harrokeriak, ikuspegi hori zena baino berriagotzat jotzera eraman zuten. P. Lafitterekin hitz egitean, euskal burgesiaren arazoa Frantzian nola konpondu zuten galdetu omen zion:

> Creo que Lafitte hasta me miró con compasión, diciéndome que ellos no tenían tal problema, puesto que ellos eran un pueblo unido... y que la burguesía era francesa. Mi espanto fue enorme, puesto que me di cuenta que su situación era mucho peor que la nuestra, ya que los vasco-franceses se hallaban como una casta social y culturalmente inferior (Krutwig 1991: 107).

Merezi du nabarmentzea E. Prat de la Ribaren *La nacionalitat catalana*ri (1906) egindako erreferentzia, gutxiagotutako hizkuntzen bizitzan goi klaseen lidergoa nabarmentzeko: «El que avança i trionfa és el que domina en els cims, en els centres d'impulsió, en els cercles propulsors de la vida nacional [sic]».[491] Erreformaren osteko Euskaltzaindiaren lehen batzarrean Lliga Regionalista-ren buruzagi zena hizpidera ekarri zuen, beraz. Akademiaren gehiengo ziren tradizionalista eta elizgizonek onar zezaketen euskaltzaletasun posibilistaren mugak marrazten zituen, frankismoaren begiradapean. Katalanista eskuindarrek Errepublikako urteetan zuten politika linguistikoa ageri da, adibidez, F. Cambók J. Urquijori idatzi zion gutunean, garaiko euskaltzaleentzat ameskeria hutsa zena: «El estudio de la lengua vasca y el restablecimiento de su empleo para todos los usos, desde los más modestos a los más excelsos, será la obra más solida y eficaz que puedan realizar Vdes.».[492] Baina Lliga-ren buruzagiek, EAJ-PNVk ez bezala, Burgosko Gobernu kolpistaren alde egin zuten gerra zibilean (Borja de Riquer 1997).[493]

---

elearen maitatzera zen aren ametsa. Etzuen ulertzen nola egon ditezken alde. Zenbat eta zenbat aldiz entzunda gitzayo auxen eta ez bertzerik zela euzkeraren suntsitzeko aria» (*Alderdi* 1949-10).

[491] F. Krutwigen aipuak akats ugari ditu jatorrizkoarekiko eta esaldi bat falta zaio hasieran: «La que arriba a la massa és la corrent que mor» (Prat de la Riba 2007: 15-16).

[492] KMK-JU: F. Cambóren gutuna J. Urquijori, 1934-04-03.

[493] F. Krutwigek, jeltzaletasunarekiko alternatiba bat sortzeko teman, Kataluniako eredua jarri zuen aurrean, baina ispilu hori hipotesi idealizatua zen (Krutwig 1951: 10).

IKER-35.indd 196 2/9/19 10:55

Azkenik, 1950eko dosierrean euskara estandarrerako ortografia berria proposatu zuen. Irakurgai zuen Frantziako linguistika soziologikoan aski nabarmenduta zegoen ortografia finkatzearen ezinbestea. Izan ere, ikur diakritikoek zaildu egiten zuten euskal testuen argitalpena, sarri tipografia berezi hori ez zegoelako inprimategietan. Gainera, Frantziako euskal idazleek ez zuten sabindar ortografia erabiltzen eta bitasun hori oztopo zen batasunerako.[494] F. Krutwigek bi ortografia onartzea proposatu zuen, 1920koa eta ikur diakritikorik gabea:

– Azken molde horretan ikur diakritikoak zituzten letrak bikoiztu egingo ziren («ŕ» = «rr»).
– Pirinio Behereetako idazleek, berriz, «ch» eta «tch» ordez, «x» eta «tx» idatzi beharko zuten, batasuna helburu.[495]
– Era berean, Espainiako euskaldunek ahoskatzen ez duten «h» grafema idatzi beharko zuten beti, lapurterazko ohituran.[496]
– Palatalizaziok («tt», etab.), orobat, beti idatzi behar ziren.[497]
– Ortografia ez ezik, fonetika ere arautu nahi zuen: «h» eta «j» grafemen ahoskera, esaterako.
– Purismoaren aurka, kultura termino greko-latinoak behar adina mailegatzea (Zuazo Zelaieta 1988: 351-352, 384-385, 394-395).

Modernizazio proposamen horrek, S. Aranaren jarraitzaileei ez ezik, Espainiako XX. mendeko euskal tradizio literario osoari ere egiten zion kritika. Jeltzaleen neologismoen aurka egin arren, purismoa ia unibertsala zen artean. Nazioarteko kultura terminologia euskararen ondare lexikoarekin nahastea, munstrokeria besterik ez zen haientzat.[498] Salbuespen deigarria, F. Krutwig ohartu zenez, S. Altube izan zen, baina N. Ormaecheak maltzurki salatu bezala, ekarpen teorikoegia zen, idazlanetan praktikara eraman gabea.

---

[494] H. Gavelek 1930ean Euskaltzaindiaren eta Baionako euskal aldizkarien ortografia adosteko saioa egin zuen, J. M. Mocoroak *Genio y lengua*n berreskuratu zuen ideia, baina jeltzaleen aurkako jarrerak uzkurtu egin zuen Akademia (Mocoroa 1935: 246-248; Kintana Goiriena 2008: 598).

[495] Frantziako euskal tradizioan «x» gaur egungo «ts»ren ordez erabiltzen zen. Adibidez, «Axular» edo «Oxobi» forma ihartuen ordez, «Atsular» (nahiz eta kasu hau ez dagoen guztiz argi) eta «Otsobi» izan beharko lirateke forma arautuak, eta horrela idazten zituen F. Krutwigek (cf. Andiazabal & al. 2006: 213).

[496] F. Krutwigek ordurako ezohiko ahoskera hori erabiltzen zuen euskarazko hizketan (Alvarez Enparantza 1994: 129).

[497] Dena dela, alde batera utzi zituen palatalizazioak gero (Ibarzabal 1979: 56).

[498] F. Krutwigi sinetsi behar badiogu, euskaltzainburua bat zetorren kultura termino greko-latinoetan jatorrizko ortografia gordetzean (Krutwig 1991: 113-114).

IKER-35.indd 197 2/9/19 10:55

Hain zuzen, N. Ormaecheak itzulitako NBEko «Gizonaren Eskubidegai Guzietaz Aitorkizuna» testuan jarraitutako ereduaren aurkako lana zen hura (*Alderdi* 1949-12). Horretan A. Irigaray bat zetorren euskaltzain gaztearekin, J. Urquijoren omenaldirako idatzitako artikuluan adierazi zuenez:

> A este respecto queremos citar un trabajo reciente sobre «El euskera y la cultura» de Federico Carlos Krutwig, que defiende la aceptación de vocablos de origen greco-latino en el vasc. (técnicos, científicos, etc.), lo mismo que ocurre en las lenguas y en alemán y en húngaro (que se tiene por idioma super-purista), calificando de defecto capital el hecho de que el vasc. carezca de extranjerismos, técnicos y culturales. Este tema que el señor Krutwig desarrolla con amplitud tiene interés aunque ya antes trató de él el señor Altube, con su habitual acierto (Yrigaray 1949: 122).

Ikusiko dugunez, ikur diakritikoen ordez letra bikoiztuak erabiltzeko aukera ez ezik, terminologia internazionalean nahiz exonomastikan jatorrizko ortografia erabiltzea ere onartu zuen Akademiak 1951ko apirileko batzarrean. Horretarako, F. Krutwigek hitz arrotzak transkribatzeko zenbait lege proposatu zituen. Nolanahi den, kultura hitzok ez ziren herri xeheak erabiltzeko, baizik eta F. Krutwigek beti xede zituen goi klaseak kulturgintzan euskaraz jardun zitezen.

Federico Krutwigen «Sobre ortografía vasca y el vascuence escrito»

1950eko martxoaren 31n zortzi kide batzartu ziren GPDko jauregian: R. M. Azkue, J. Urquijo, J. Elissalde, I. M. Echaide, A. Irigaray, F. Krutwig, M. Lecuona eta N. Oleaga. J. M. Seminarioren sarrerarekin hasitako bidetik, hiru euskaltzain berriren sarrera ekitaldi solemneak egitea erabaki zuten. «Katakonbatan» zegoen Akademiak publikora agertzeko asmo sendoa agertu zuen. Gerraondotik Bilbo eta Donostiara mugatutako batzarren ordez, kultura lurraldetasun zabalago bat irudikatzera ausartu ziren. Badirudi euskaltzain berrien jatorria aitortzeaz gain, Akademiaren menpekotasun politikoa salatzen zutenei egindako erakustaldia ere izan nahi zuela:

- Lekuona jaunarena, Iruñan Garagarril edo Errearoaren ogeita zortzian. Seminario yaunak erantzun dekio.
- Dassance jaunarena, Donostian, Uztailaren amalauan, Elissalde jaunak erantzunik.

IKER-35.indd 198 2/9/19 10:55

– Lafon jaunarena, Baionan, Uztailaren amabostean, Krutwig jaunaren erantzumenaz (Euskaltzaindia 1982: 10).[499]

Hala ere, deigarria da J. Saint-Pierre apezpikuaren sarrera ekitaldiaz ez zutela ezer erabaki. EIL-SIEBeko ohorezko buru gisa EJ-GEren diru laguntzarekin erbestean antolatuko kulturgintzan oso aktibo agertzen zen, adibidez, 1949ko abenduko «Euzkeraren Eguna»n. Bere burua nabarmendua zuen Biarritzeko biltzarrean 1948an, eta Espainiako kontsulak salatu egin zuen haren hitzaldi ustez separatista. F. Krutwigen arabera, J. M. Seminariok ez zion M. Lecuonari eman nahi erantzuna, baizik eta J. Saint-Pierreri (Krutwig 1991: 99-100). Apezpikuaren sarrera ekitaldia frankismoaren, abertzaletasunaren eta Eliza katolikoaren arteko gatazka publiko bilakatu zitekeen oso erraz. Ordurako hila egon ez bazen, uste izatekoa da Jean Baptiste Daranatz (1870-1945) elizgizona, urgazle eta «Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne»ko burua, lehenago izendatu zuketela euskaltzain, ideologikoki gertuago zegoelako, eta 1936ko udan Akademiarekin harremana sendotzeko asmotan zebilelako.[500] Dena dela, erantzun hitzaldien ardura zutela ikusita, nabari da J. M. Seminario eta F. Krutwig bikoteak hartu zuen garrantzia. J. M. Seminario baimenak lortzeko edo errazteko tresna politikoa zen, eta haren gaitasun eskasa behin eta berriz utzi zuen agerian erbesteko prentsak.

Euskaltzain gaztea, aldiz, batzarretako teorialari nagusi agertzen zen: «Krutwig jaunak irakurten dau *Comentarios sobre la ortografía del Euskera* deritxon lan bat. Beronezaz oarrak eta eztabaidak sortu dira» (Euskaltzaindia 1982: 10).[501] Nire ustez lan hori «Sobre ortografía vasca y el vascuence escrito» izenekoa da, besteak beste, J. Urquijoren artxiboan gordetzen dena. Bertan, ortografiari dagokionez, jadanik aipatu ditudan puntuak garatu eta erabakiak hartzea proposatu zion Akademiari. Dena dela, harago joan zen, eta horrek piztu zuen eztabaida batzarrean. Izan ere, euskara literario estandarrerako, «lapurtera klasiko»a (artean «labortano arcaico» deitzen zuen) onartzea proposatu zuen: «La Acade-

[499] N. Oleaga idazkariaren gaztelaniazko aktaren arabera:«El del Sr. Lecuona en Pamplona, el día 24 de Junio. Le contestará el Sr. Seminario», «El del Sr. Dasance [sic] en San Sebastián el día 14 de Julio, contestándole el Sr. Elizalde [sic]» eta «El del Sr. Lafon en Bayona el 15 de Julio, con contestación del Sr. Krutwig» (ABA-EUS: Euskaltzaindiaren aktaren kopia mekanografiatu ofiziala, 1950-03-31)

[500] KMK-JU: J. B. Daranatzen gutunak J. Urquijori, 1936-06-25, 1938-01-06 & 1939-05-06.

[501] ABA-EUS: Euskaltzaindiaren aktaren kopia mekanografiatu ofiziala, 1950-03-31.

IKER-35.indd 199 2/9/19 10:55

mia acepta como canon del bien escribir en euskara, y recomienda como modelo literario al vascuence de los escritores Leizarraga, Atsular y Etcheverry».[502]

Dosierrean, euskalkien erabilera literarioa eta baserritarrei zuzendutako literatura gaitzetsi zituen. Izenik aipatu gabe, argi dago P. Lafitteren ereduaren aurka zegoela eta ez ziola tokirik eman nahi *Herria*ko nafar-lapurterari ordurako nahiko bereganatuta zuen Akademiako plataforman. Sabindar ortografiari eta neologismoei biek zieten aurkaritzan bat egin ordez, F. Krutwig abilezia gutxirekin saiatu zen P. Lafitte konbentzitzen *Gure Herria*k edota *Eusko-Jakintza*k euskarazko artikuluetan bere eredu ortografiko eta literarioa «in toto» erabil zezaten. Aro Modernoko lapurtera zaharraren kanonari S. Pouvreau eta E. Materre (OFM) erantsi zizkion. Bestalde, pozik agertu zen Akademiak onartu egin zuelako, agerkari ofizialik ezean, batzarren erresonantzia kaxa gisa prentsa oharrak erabiltzea.[503]

Ortografiaz den bezainbatean, F. Krutwigek grafia etimologikoa sustatu zuen kultura terminologian, J. Leiçarragaren *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria*n (1571) bezala. Adibidez, euskaraz «orthographia» idazten zuen beti. Hala ere, grafia tradizionala gorde zuen ondarezko lexikoan: «berba, eliza, bakhe, borondate...».[504] Euskararen corpuserako, jeltzale ortodoxoen purismoa baztertu zuen, baina ez erabilera naturalago baten izenean, baizik eta euskara idatziak mendebaldeko hizkuntza nagusien joera har zezan: frantsesa, ingelesa eta alemana aipatzen zituen ia beti. Euskara, genetikoki hizkuntza bakartua izanda, ezin zitekeen inolaz ere «dialekto erromaniko» batekin nahastu, eta, beraz, arriskurik gabe gerturatu zitekeen mendebaldeko hizkuntzen lexikora. Hala ere, literatura tradizioari eutsi nahi izan zion beti, berak klasikotzat jotzen zuen literaturan oinarrituz.

F. Krutwigek, beraz, azken 200 urteko literatura baztertuz, Aro Modernoko lapurtera erabili nahi izan zuen estandar gisa. J. Leiçarragaren «langue savante»k eta P. Axularren prosa landuak F. Krutwigengan oihartzun handia izan zuten, maila jasoa eta prestigiotsua ezar zezaketelakoan. Hala ere, F. Krutwigen proiektuak bazituen zenbait berritasun. Espainia eta Frantzia arteko muga politikoa gainditzen zuen, diktadura frankistak ezarritako marra gorria zeharkatuz. Euskalkien arteko eztabaidetan sakondu beharrean, maila formalean erdararen funtzioak ordezkatu nahi zituen:

---

[502] ABA-EUS/KMK-JU: F. Krutwigen «Sobre ortografía vasca y el vascuence escrito», [1950-03-31].

[503] ABA-LAF: F. Krutwigen gutuna P. Lafitteri, 1950-06-28.

[504] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1950-06-28.

IKER-35.indd 200 2/9/19 10:55

> Pero para que el día de mañana pueda aspirar a ser la lengua oficial común de todo este pueblo vasco deberemos tener el vascuence de Atsular, Leizarraga y Etcheverry. Esta lengua deberá ser aprendida en las escuelas, al igual que han de ser aprendidas la castellana y la francesa hoy en día. Este vascuence será el que han de emplear nuestros universitarios y este vascuence será el que se ha de enseñar a esos buenos vascos que hoy hacen el noble esfuerzo de aprender su idioma nacional, vascos estos que corresponden casi siempre a las clases acomodadas de la población.[505]

Bestalde, purismoak erakutsitako ezintasunak, neologismoak sortzen etengabe ibili beharrak, terminologia internazionalarekin bete zituen. Euskal literaturen historia balioetsi zuen, adanismoaren gurpil zoroari uko eginda. Eta bereziki, euskara hiritar eta kulturaduna aldarrikatu zuen, abarkadun konplexurik gabe. Horrek guztiak bereizten zuen F. Krutwigen lapurtera klasikoa oinarri dialektal bertsua zuen P. Lafitteren nafar-lapurteratik. Hau XX. mendeko Pirinio Behereetako dialektoetan oinarritzen zen, sozioekonomikoki indar gutxiko eskualdea zena Bizkai-Gipuzkoen aldean. *Grammaire basque* (1944) bezalako jaiotza agiria izan arren, nafar-lapurtera baserritar eredua zen, geolektoen fragmentazioa eta frantsesarekiko diglosia islatzen zituena (Zuazo Zelaieta 1988: 343-345).

A. Irigarayk, ordea, elkarlanerako tartea ikusi zuen. Batzarrean egon ez zen P. Lafitteri gutuna idatzi zion apirilaren 4an. F. Krutwigen dosierra oso interesgarritzat jo zuen, batez ere mahai gainean jartzen zuelako eredu batuarena. A. Irigarayk euskal ortografia eta oinarrizko onomastika isilpean hitzartu nahi zituen *Herria*ko zuzendariarekin, kazetaritzan, literatura lanetan edota egutegi erlijiosoetan erabiltzeko. Erbesteko prentsan eta N. Ormaechearekin sortutako istiluen ondoren, Euskaltzaindiak erabaki ofizial bat hartuz gero, aurka egingo ziotela uste zuen. Akademiak egin behar zuen lehenengo gauza, A. Irigarayren ustez, lehen hezkuntza mailako erdara-euskara hiztegi txiki bat sortzea zen, «de mots sur la vie urbaine, et techniques» (Andiazabal & al. 2005: 224).[506] R. M. Azkue eta N. Oleagak gerraondoan landutako *Diccionario español-vasco* handiari ez zion bideragarritasunik ikusten.[507]

---

[505] ABA-EUS/KMK-JU: F. Krutwigen «Sobre ortografía vasca y el vascuence escrito», [1950-03-31].

[506] ABA-LAF: A. Irigarayren gutuna P. Lafitteri, 1950-04-04.

[507] P. Lafitte izan zen, Ph. Aranartekin batera, P. Lhanderen *Dictionnaire basque-français* (1926-1936) amaitu zuena. Ondoren 72 orrialdeko *Vocabulaire français-basque* (1941) laburra argitaratu zuten, baina Mundu Gerratik aurrera, P. Lhanderen hiztegiaren frantses-euskara bertsioaren lanekin hasi ziren.

IKER-35.indd 201 2/9/19 10:55

Uztaritzeko seminarioan ematen zituen euskara eskolez ere galdetu zion A. Irigarayk. Izan ere, Frantziako Parlamentuan herri hizkuntzen hezkuntzarako estatutu berria eztabaidatzen ari ziren, 1951ko urtarrilean «Loi Deixonne» bilakatu zena. P. Lafittek berak *Le Courrier de Bayonne* egunkarian azaldu zuenez, J. Errecart «Mouvement républicain populaire» (MRP) alderdi kristau-demokratako diputatuak parte hartze garrantzitsua izan zuen eztabaidan, nahiz eta zentralismo jakobinoak proiektu erregionalista ahuldu egin zuen (*Oficina Prensa Euzkadi* 1950-01-10).[508] Besteak beste, lege proiektuaren aurka agertu ziren Académie Française bera edota A. Dauzat bezalako linguistak. P. Lafitte pertsonalki inplikatu zen eztabaidan eta M. Deixonne diputatu sozialistari gutuna idatzi zion, *Herria*ko zuzendari gisa, Senatuak murriztutako lege proiektua puntuz puntu aztertzeko: «nos Senateurs traitent les Provinces comme des Pays dont il faut se méfier et qui auraient juré l'anéantissement du français. C'est inadmissible».[509]

Erbesteko *Gernika*n Akademia berriaren aurka N. Ormaecheak egindako erasoaren ondoren, F. Krutwigek berak «Sobre la reorganización de la Academia de la Lengua Vasca» izeneko gutun irekia zuzendu zion aldizkariaren zuzendariari, Bilbon apirilean sinatuta. Bertan euskaltzaleen arteko adiskidetze eta elkarlanerako deia egin zuen:

> Le envío este escrito, señor director de «Gernika», con ánimo de quitar posibles causas de discordia y rencillas que puedan crear enemistad entre vascófilos, enemistad esta que en una época como la que atravesamos sería fatal para los intereses del euskera, máxime si tenemos presente que los enemigos de nuestra lengua nacional tienen a su alcance todos los medios y los amantes apenas alguno para defenderla (Krutwig 1950a: 44).

Donibane Lohizuneko *Gernika* aldizkariak humanismo ez-nazionalista baten ordezkari izan nahi zuen, EAJ-PNVrekiko independentea ez ezik, alderdiarekiko kritikoa ere bai, J. Thalamásen kasuan. Akademiaren agerkaririk ezean, plataforma egokiena zen F. Krutwigen ideiak plazaratzeko. 29 urteko euskaltzainak Akademian hartua zuen garrantziaren beste froga bat da. Aldi berean, bere burua agerian uzten ari zen diktaduraren errepresioak ekarri zeza-

[508] Jean Errecart (1909-1971) diputatuak euskal laborari katoliko eskuindarren interesak ordezkatzen zituen, Mundu Gerraren testuinguru alditsuan, arazo ideologiko handirik gabe igaro zirenak petainzale izatetik gaullista izatera (cf. Charritton 1997b: 210-211).

[509] ABA-LAF: P. Lafitteri gutuna [M. Deixonne] diputatuari, [1950].

IKER-35.indd 202 2/9/19 10:55

keen zigorraren aurrean. Izenorderik erabili gabe, euskarari «nuestra lengua nacional» deitu zion.[510]

Gainera, N. Ormaechearen kritika gogorrenak artean P. Lafitteri zuzenduta zeuden, eta F. Krutwigek artekari agertzeko aukera baliatu zuen gutun irekian. Euskaltzain gaztearen jarrera bakegilea pozez ikusi zuen aldizkaria Donibane Lohizunetik zuzentzen zuen Isidoro Fagoaga (1893-1976) erbesteratuak. Nafarroako tenore ohiak N. Ormaechea idazlea miretsi egiten zuen eta F. Krutwigek gutun irekian hark euskaltzain izan beharko lukeela aditzera eman zuen. Horren guztiaren berri eman zion I. Fagoagak jadanik Guatemalan zegoen N. Ormaecheari maiatzean. F. Krutwig Akademiaren zilegitasuna zuritu nahian ari zen erbesteko kritiken aurrean. *Gernika*ko arduradunei «Sobre ortografía vasca y el vascuence escrito» lana bidaltzeaz gain, R. Lafonen Baionako sarrera ekitaldia baliatu nahi zuen beraiekin biltzeko. Akademiak, halaber, J. Saint-Pierreren sarrera ekitaldia 1950eko irailean egiteko asmoa omen zuen Donibane Lohizunen (Iztueta & Iztueta 2006: 427).

Martxoko batzarrean, bestalde, Euskaltzaindiari ohi ez bezalako hizkuntza aginpidea aitortu zitzaion instituzio publikoen aldetik. Bilboko Udal Epaitegiak, Gipuzkoako Tolosatik omen zetorren auzi bati jarraituta, «ondazilegui» [sic] («suelo comunal») hitzaren esanahiaz eta zentzu juridikoaz galdetu zion Akademiari.[511] R. M. Azkueren *Diccionario vasco-español-francés*en hitz hori jaso ez arren (bai, ordea, «zilegi», «montes comunales» adierarekin) euskaltzainburuak idazki bat prestatu zuen hitzaren esanahia zehazki azaltzearekin batera ondorio juridikoak saihesteko:

> El compuesto «onda-zilegi» formado con la unión de ambas voces, se usa en algunas comarcas de habla vasca, especialmente en la Alta Navarra y Guipuzcoa con el significado de «terreno comunal en el que existe arbolado perteneciente al vecino plantador» y también el propio arbolado plantado por un particular y para su propio beneficio o aprovechamiento en terreno comunal.
>
> El sentido jurídico de dicho concepto es materia extraña a los fines y función, exclusivamente lingüísticos de esta Academia y escapa a la competencia del suscrito Director informante.[512]

---

[510] Eskuindar familia bateko kide zelako, lañoki uste zuen agintari frankistek ez zutela salatuko. «A ese le importa la lingüística. Ese, como es hijo de Krutwig, no puede ser separatista» uste zuen esango zutela (Murua Uria 1997: 76).

[511] ABA-EUS: Bilboko Udal Epaitegiaren gutuna R. M. Azkueri, 1950-03-27.

[512] ABA-EUS: R. M. Azkueren ofizioa Bilboko Udal Epaitegiari, 1950-03-27.

IKER-35.indd 203 2/9/19 10:55

Akademiaren agerikotasun berrituak erreakzioak sortu zituen, baita instituzio frankisten artean ere. Horrela, Sindicato Provincial de Actividades Diversas-etik informazio eskaera jaso zuen Euskaltzaindiak, enpresa eta produktoreen hautesle errolda osatzeko. Datu hauek eskatu zituzten: enpresaren izen soziala, jabearen eta kudeatzailearen izenak, enpresaren jarduera eta egoitza, eta langileen identifikazioa. Akademiaren erantzunik gorde ez den arren, argi dago Bizkaiko agintari falangistek zalantzan jartzen zutela erakundearen izaera akademikoa eta ez zutela JCVrekiko harremana ezagutzen.[513] Euskararen erabilerak diktadura frankistan sortzen zituen susmoen eta izuen beste etsenplu oso argia da «Academia *José M.ª Larrea*»tik jaso zuten baimen eskaria, euskara eskolak eman ahal izateko:

> Funcionando esta Academia con las necesarias autorizaciones docentes del Rectorado de Valladolid e Inspección de Primera Enseñanza Provincial, al tener oportunidad de dar cabida en ella a unas clases de vascuence se ha suscitado la duda de si para esta enseñanza es precisa la autorización especial de ese organismo o algún otro, duda que desearía fuese aclarada para verificar en su caso los trámites precisos a saber si la continuidad es legal y no pudiera dar lugar, extremando la suspicacia, a que tuvieran cierto carácter subrepticias e irregulares en su funcionamiento.[514]

4.3. MANUEL LECUONAREN SARRERA EKITALDIA (IRUÑEA, 1950-06-24)

Garai horretan J. M. Arellano presidente zuen Nafarroako Foru Diputazioa euskararen aldeko neurri batzuk hartzen hasi zen, L. Valero gobernadore zibilaren iritziaren aurka. J. A. Zubiaur kultura diputatu berriaren ekimenez, NFDk euskara eskolak abiatzea onartu zuen 1949ko abenduaren 12an:

> Teniendo en cuenta lo que es y ha significado en Navarra la lengua vasca, dentro de la más fervorosa concepción españolista, se acordó:
>
> Primero. Establecer la enseñanza de lengua vasca para todas las personas que voluntariamente deseen asistir, reservándose esta Diputación el momento de la implantación de la enseñanza citada, lugar, condicionado y nombramiento de profesor.

[513] ABA-EUS: Sindicato Provincial de Actividades Diversas-en ofizioa Euskaltzaindiari, 1950-04-14.

[514] ABA-EUS: J. Charterinaren ofizioa Euskaltzaindiari, 1951-11-21.

IKER-35.indd 204 2/9/19 10:55

Segundo. El profesor de la enseñanza mencionada percibirá la gratificación anual de 6.000 pesetas, sin derecho a pagas extraordinarias, con cargo a los fondos de Navarra, consignándose la cantidad referida en el Cap. 7º, Art. 7º, Partida 52, párr. 4º del presupuesto de gastos para el año 1950 (apud Jimeno Jurío 1996: 511).

NFDk eskatuta, J. A. Zubiaurrek Francisco Tirapu (1914-1991) hautatu zuen irakasle, Bernardino Tirapu mediku ezagunaren semea. Hala ere, erabakia geldi egon zen urtebetez, eta Iruñeko Cámara de Comptos-eko eskolak ez ziren hasi 1951ko urtarrilera arte, Institución Príncipe de Viana-ri atxikita. Nafarroako gobernadore zibilak erabakia eragotzi nahi izan zuen, baina diputatu karlistak ez zuen atzera egin. José Ángel Zubiaur (1918-2012) abokatua Nafarroako karlismo falcondista berrantolatzeko saioetan parte hartzen ari zen. Besteak beste, gobernadore zibil falangista kritikatzeko, *El fuerista* aldizkari satirikoa argitaratu zuen isilpean (García-Sanz Marcotegui & al. 1998: 265-271; cf. Martorell 2009).[515]

Irudia 10. **Manuel Lecuona, Nazario Oleaga, Federico Krutwig, Juan Miguel Seminario, Resurrección M.ª Azkue, Jose M.ª Arellano eta José Ángel Zubiaur (Iruñea, 1950-06-24)**



Iturria: *Diario de Navarra* (1950-06-25).

[515] NFD une horretan zazpi diputatu hauek osatzen zuten: J. M. Arellano, A. Marco, J. Larráinzar, J. Fortún, G. Plaza, J. A. Zubiaur eta C. del Villar (García-Sanz Marcotegui & al. 1998: 47-49).

IKER-35.indd 205 2/9/19 10:55

1950eko martxoaren 20an R. M. Azkuek gutuna idatzi zion NFDri, Akademiaren jardun apolitikoa («enteramente al margen de la política») diruz lagundu zezan eskatzeko. Idazkian, Nafarroako akademikoen artean, A. Irigaray, E. Esparza eta J. M. Seminario ez ezik, Txilera destinatutako D. de Inza (OFMCap) ere zerrendatu zuen. Institución Príncipe de Viana-ko idazkari J. E. Urangak eskaeraren aldeko dosierra sinatu zuen martxoaren 22an:

> No se le ocultará a V. E. la importancia grande que en la actualidad tienen los estudios lingüísticos, destacándose en España como los de más transcendencia los relativos al estudio del Vascuence, vieja reliquia de lengua antiquísima, que aún se conserva en España como un vestigio remoto de pasadas civilizaciones.
>
> El Vascuence ha atraído y atrae actualmente el interés de investigadores y eruditos, y podrá dar cuenta de su importancia el que, según los modernos estudios, tal vez esté en él la clave para descifrar el idioma de los iberos, con lo que se daría un paso gigantesco en el conocimiento de la historia antigua de nuestro pueblo.
>
> Por otra parte, urge su estudio y conservación, pues no cabe duda que la vida moderna, con su nivel unificador, va contribuyendo a la desaparición de esta vieja reliquia que es necesario conservemos y cuidemos como un tesoro, puesto que representa uno de los idiomas más antiguos que se habló en España (apud Jimeno Jurío 1996: 514-515).

Urtero Akademiari 5.000 ptaz laguntzea erabaki zuen korporazioak maiatzaren 27an. Ekainaren 10ean, halaber, NFDk baiezkoa eman zion M. Lecuonaren sarrera ekitaldia babesteko euskaltzainburuak egindako eskaerari. Eskaerak Institución Príncipe de Viana-ren aldeko dosierra izan zuen berriz, eta uste izatekoa da E. Esparza urgazlearen laguntza ere baietz.[516] Hain zuzen, Iruñeko egunkariak ekitaldi publikoaren iragarkia («La *Academia de la lengua vasca* en Pamplona») lehen orrian argitaratu eta ongietorri egin zion Euskaltzaindiari:

> La sesión, patrocinada por nuestra Diputación Foral y la Institución «Príncipe de Viana», su instrumento de cultura, tendrá caracteres de solemnidad y es ciertamente loable que la Diputación haya acogido tan efectiva y afectivamente la realización de los vivos deseos de la Academia. Navarra, al fin, es el territorio donde más se habla el vascuence (*Diario de Navarra* 1950-06-23).[517]

---

[516] ABA-EUS: NFDko idazkariaren ofizioa R. M. Azkueri, 1949-06-17.

[517] Egunkariko idazlearen (seguru asko E. Esparzaren) arinkeria euskararen demografiaz harrigarria da. Inkestarik ezean, Euskaltzaleak taldearen arabera, 1931 inguruan Nafarroakoak ziren Espainiako euskaldunen %16,85 (75.000). EAJ-PNVren agerkariak 1936rako emandako

IKER-35.indd 206 2/9/19 10:55

Gerraondoan Iruñean egin zen lehenengo batzarrean R. M. Azkue, F. Krutwig, J. M. Seminario, M. Lecuona eta N. Oleaga euskaltzainak bildu ziren. I. M. Echaide eta B. Echegarayk zorion mezuak bidali zituzten, baita R. de Vidania (OFMCap) Lekarozko «Colegio de Ntra. Sra. del Buen Consejo»ko buruak ere. Ekitaldi irekian Nafarroako agintari frankistak egon ziren: J. M. Arellano presidentea, J. A. Zubiaur diputatua, J. E. Uranga Institución Príncipe de Viana-ren idazkaria, M. Gortari Iruñeko alkatea eta E. Esparza *Príncipe de Viana*ren zuzendaria (Euskaltzaindia 1982: 11).[518] Hutsegiteen artean, A. Irigaray Nafarroako euskaltzainarena aipatu behar da, seguru asko ekitaldiaren oihartzun mediatikoak eragin zitzakeen kritiken beldur zelako. J. Urquijok ere ekitaldiaren berri izan bazuen, baina gaixoegi zegoen Iruñeraino joateko, eta ez zen gehiago Akademiaren batzarretara agertu.[519]

Izan ere, biharamunean *Diario de Navarra*k lehen orrian eman zuen ekitaldiaren berri, fotografia eta guzti. E. Esparzak kronika berbera egin zuen *Príncipe de Viana* aldizkarian. M. Lecuonak «Gorozika'tik gurutzeaga'ra edo gurutzearen izena gure toki-izendegian» sarrera hitzaldia egin zuen euskaraz, gaztelaniazko laburpenarekin. Diktadurak begi onez ikus zezakeen gai kaltegabea zen, euskal toponimia eta historia erlijiosoa nahasten zituena. Akademiaren urtarrileko batzarrean egindako hitzaldiak zuen kritizismoa baztertu egin behar izan zuen, noski. Adeitasunezko aitzinsolasean, Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko kultura harremanak nabarmendu zituen. J. M. Seminario, bestalde, Lesaka eta Bera arteko «Eskolamendi» toponimoaren etimologiaz aritu zen erantzun hitzaldian. Euskaltzaindiak agerkari ofizialik ez zuenez, *BRSVAP*en agertu zen sarrera hitzaldia bi urteren eta gorabehera askoren ondoren (Lekuona 1984: 147-176). Dena dela, ekitaldiko ezaugarri deigarriena NFDren babesa

datuen arabera, Nafarroakoak ziren euskaldunen %11,5 (60.000). Gainerako iturriek ere antzeko batezbestekoak eman zituzten. J. M. Azaolaren gerraondoko datuen arabera, Nafarroakoak ziren Espainiako euskaldunen %10 (50.000). Datu horiek bat datoz ondoren egin diren estimazioekin (Aitzol 1931; *Alderdi* 1950-02; Azaola 1951; Erize Etxegarai 1997).

[518] F. Krutwigek ekitaldiaren meritua bereganatu nahi izan zuen gero: «No fui yo acaso quien organizó en Navarra la recepción de Lekuona con Seminario por contestante [...] justamente para hacer revivir el euskara en Navarra. De aquella recepción que organicé en Navarra, salió la primera subvención a la Academia... y el que en Navarra se tomase interés por el euskara, como en un discurso que después de Lekuona y Seminario, echara Gortari. Y si propuse a Lekuona, fue porque éste es de dialecto navarro y porque Seminario era persona grata al régimen» (Eusko Ikaskuntzaren Artxiboa, Manuel Irujo funtsa: F. Krutwigen gutuna M. Irujori, 1961-02-20/21).

[519] KMK-JU: N. Oleagaren ofizio eta gonbidapena & M. Lecuonaren gutuna J. Urquijori, 1950-06-09 & 1950-06-21.

IKER-35.indd 207 2/9/19 10:55

zen. Mahaiburu J. M. Arellano legegizon monarkikoa zegoen, gerra zibilean euskararen aurkako neurri politikoak hartutakoa.[520] Kronika egileak NFDko presidentearen amaierako hitzak jaso zituen:

> Este acto tiene una honda significación, que es la de deshacer cualquier equívoco. En Navarra cuando se habla de vascuence se habla de algo que es nuestro, porque el primer rey español que hizo la unidad, que fue Sancho IV, se apoyó en los Pirineos. Y tal vez no por motivos raciales ni por motivos políticos, sino por designios religiosos hizo la unidad española auténtica, aun cuando la malbarató más tarde con su testamento. Y es característica de Navarra el sentir todo lo que puedan sentir todos los vascongados y armonizarlo con todo lo que puedan sentir los demás españoles, porque formamos una unidad predestinada por Dios y fundada en muchas cruzadas, entre ellas en la última, en la que nació el 18 de Julio de 1936. Si no hubiera otros motivos de fusión con las demás regiones españolas, bastaría esa fecha para que nosotros, inspirados en unos principios que nos son comunes, permaneciésemos leales a nuestra ideología, a nuestros sentimientos, a nuestro españolismo y a nuestro espíritu vascongado y navarro (*Diario de Navarra* 1950-06-25; Príncipe de Viana 1950a: 182-183).[521]

Nolanahi den, NFDk Euskaltzaindiari emandako laguntza garrantzitsuena ekonomikoa izan zen, JCVrena berdindu eta GPDrena gainditzen zuena. Hain zuzen, Akademiaren urriko batzarrean (sarrera ekitaldietan emandako laguntzagatik, Baionako Musée Basque-ri eta NFDri eskerrak ematea erabakitzeaz gain) NFDk urtero 5.000 pezetako diru laguntza emango zuela adierazi zuten, baita Bilboko Udalak ere 1.000 pezetakoa urte horretarako (Euskaltzaindia 1982: 14).

---

[520] José M.ª Arellano (1885-1963) filofalangistarengandik ezin zen Akademiarekiko hurbiltasun handirik espero. Errepublikan uko egin zion Huelvako gobernadore zibil karguari eta Falange-ko buruzagien defentsaz arduratu zen auzitegietan. Bizkai eta Gipuzkoako gobernadore zibila izan zen, purga eta errepresio gogorrena izan zen unean. Hizkuntzari dagokionez, 1936ko abenduan, euskarazko idazkun publikoak ezabatzea agintzeaz gain, euskal lexiko modernoan «k», «tx» edota «b» grafemak erabiltzea debekatu zuen, gaztelania iraintzen zutelakoan. NFDko presidente izan zen 1949-1952 artean, gobernadore zibilaren eta Barne Arazoetako ministerioaren hautagai gisa, eta probintziako karlista-falangisten arteko istiluetan nahastu zen (García-Sanz Marcotegui & al. 1998: 42, 310-314; Aizpuru & al. 2007: 111-115).

[521] F. Krutwigek J. M. Arellanoren hitzak lotsagabe itxuragabetu zituen memorietan: «Si alguien se atreviere a atacar al vascuence en Navarra, que a nadie le quepa duda, que Navarra entera se levantará, una vez más, en armas, para defender a su lengua» (apud Krutwig 1991: 99-100).

IKER-35.indd 208 2/9/19 10:55

4.4. LOUIS DASSANCEREN ETA RENÉ LAFONEN SARRERA EKITALDIAK (BAIONA, 1950-07-15)

Donostiako udaletxean batzartu ziren 1950eko uztailaren 14an honako zazpi euskaltzain hauek: R. M. Azkue, J. Elissalde, I. M. Echaide, F. Krutwig, L. Dassance, P. Lafitte eta N. Oleaga. Ikusi dugunez, L. Dassanceren sarrera ekitaldia ospatzea zen asmoa: «Ezin baña, batzarra egiteko bear dan baimena lortu eztalako» (Euskaltzaindia 1982: 12).[522] Berriz ere, hutsegiteen artean A. Irigaray eta J. Urquijo Donostiako euskaltzainena nabarmendu behar da, lehenengoak, publikoan agertzeari zion beldurragatik, eta bigarrenak, gaixotasun larriagatik.[523]

Donostiako Udalak uztailaren 5ean onartu zuen behin-behineko alkate tradizionalistaren proposamena. J. Saldaña eta J. Aizpurua zinegotzi falangistek huts egin zutelako udal batzarrera, tradizionalistak (J. J. Castañeda, A. Mugabure, A. Murga) gehiengo ziren.[524] Horrek seguru asko eragina izan zuen Donostiako euskaltzain integristaren eskaria onartzeko orduan:

> El Sr. Presidente (Sr. Castañeda) manifiesta que el conocido Ingeniero Industrial de la localidad D. Ignacio M. Echaide le ha comunicado que en las Diputaciones de Pamplona y Bilbao, al efecto cedidas, ha celebrado sus reuniones la Academia de Estudios de la lengua vasca [sic], entre cuyos actos figuraban los relativos a la toma de posesión de nuevos Académicos. Le hizo presente el Sr. Echaide que se encuentran en la necesidad de hacer los mismos en San Sebastián, pero como el Palacio Provincial está ocupado, se dirigen al Municipio solicitando les ceda el Salón de Sesiones para celebrar las reuniones proyectadas. Añade el Sr. Castañeda que por su parte no ve inconveniente en que se acceda ya que estos actos no son como otros con recepciones que terminan en vinos de honor y agasajos que producen gasto. Termina proponiendo que la Comisión Permanente, si no viese inconveniente, se limita a la cesión gratuita del local el día 14 a las siete de la tarde.[525]

Baina Akademia egiten ari zen ekitaldi publikoak ez ziren oharkabean igaro, eta agintari frankistak oztopoak jartzen hasi ziren. 1943ko abendutik

[522] ABA-EUS: Euskaltzaindiaren aktaren kopia mekanografiatu ofiziala, 1950-07-14.

[523] KMK-JU: N. Oleagaren ofizio eta gonbidapenak J. Urquijori, 1950-07-10.

[524] Batzartutako gainerako zinegotziak M. A. Caravaca alkateorde falangista eta adskripziorik gabeko M. Augusti eta F. Valdivielso izan ziren (Luengo 2000: 424).

[525] Donostiako Udal Agiritegia: Donostiako Udal Batzorde Iraunkorraren akta liburua, 1950-07-05.

IKER-35.indd 209 2/9/19 10:55

Irudia 11. **Louis Dassanceren sarrera ekitaldirako gonbidapena**



EUSKALTZAINDI

Louis Dassance, Euskaltzain berri jaunaren sarrera 1950'gko Uztaila'ren 14'an, aratsaldeko 7'etan, Donostia'ko Udal-etxea'ren jauregian, egingo da.

Euskaltzainburuak dei dagitzu bertara.

ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

El día 14 de Julio de 1950, a las 7 de la tarde, en el Palacio del Excelentísimo Ayuntamiento de San Sebastián, se celebrará el ingreso del nuevo Académico D. Louis Dassance.

El Director de la Academia de la Lengua Vasca invita a Vd. a dicho acto.

Iturria: Koldo Mitxelena Kulturunea (Julio Urquijo funtsa).

1951ko ekainera arte Gipuzkoako gobernadore zibila izan zen Francisco Sáenz de Tejada «Barón de Benasque»k (1895-1966) ekitaldia debekatu ez ezik, J. Saint-Pierreri Espainiarako bisa ere ukatu egin zioten. Seguru asko beldur ziren ez ote zen ekitaldia euskararen errepresioaren salaketarako bozgorailu bihurtuko, EIL-SIEBeko biltzarrean gertatu zen bezala.[526] Gobernadore zibilaren debekua azken unekoa izan zen. Euskaltzaindiak, M. Lecuonaren ekitaldiarekin egin bezala, gonbidapen txartel dotoreak bidali zituen. 1949ko otsailetik J. Saldaña falangista alkate zuen Donostiako Udala, noski, gonbidatuta zegoen. Besteak beste, Iruñeko alkateak edota M. Lecuonak ezin etorria adierazi zuten telegramaz.[527] F. Krutwigen asmoari jarraituta, prentsa batzarren berri ematen hasi zen, barnealdean nahiz erbestean. Horregatik, ekital-

[526] Hain zuzen, EIL-SIEBen zuzendaritzak batzarra egin zuen Baionan uztailaren 8an, «Euzkeraren Eguna» prestatzeko: L. Dassance, M. de la Sota, P. Lafitte, T. Monzon, A. Constantin, J. M. Lasarte, M. Inchausti, P. Narbaitz edota J. M. Barandiaran bildu ziren (Barandiaran 2009: 733, 774).

[527] ABA-EUS: L. Dassanceren sarrera ekitaldirako Akademiaren gonbita eta M. Gortariren nahiz M. Lecuonaren telegramak Euskaltzaindiari, [1950-07-14].

IKER-35.indd 210 2/9/19 10:55

diaren debekua ere berehala jaso zen EJ-GEren berripaperean, agerian jartzen zuelako diktaduraren errepresioa:

> La Academia que es «tolerada» por las autoridades franquistas con las limitaciones a que ya nos hemos referido anteriormente había solicitado de la Diputación de Guipuzcoa, que dicho acto tuviera lugar en el Palacio de la Diputación, a lo que los gestores franquistas se negaron alegando el torpe pretexto de que se estaban realizando algunas obras. A causa de esta negativa, la Academia solicitó y obtuvo del Municipio donostiarra la autorización correspondiente para que el acto de recepción del señor Dassance tuviera lugar en la Casa Consistorial y la reunión fue anunciada en la prensa local para el viernes a las siete de la tarde. Pero no pudo celebrarse por nuevos obstáculos de las autoridades franquistas, dispuestas a impedirlo a todo trance.
>
> El segundo incidente se produjo en Irún cuando la Policía franquista impidió al Obispo Monseñor Saint Pierre, Presidente de la Sociedad Internacional de Estudios Vascos «Gernika» la autorización necesaria para presentarse en San Sebastián, autorización que fue acordada a los académicos señores Dassance, Elissalde y Laffite, pero tanto el viaje de estos, como el de otros que se presentaron en la capital donostiarra para tomar parte o presenciar la reunión de la Academia, resultó completamente inútil, porque el Gobernandor Civil de Guipuzcoa, Barón de Benasque prohibió el acto. En vista de ello, la recepción del Académico Sr. Dassance, así como la de otro académico, el profesor de la Universidad de Burdeos, el Sr. René Lafon, se celebró en Bayona el pasado sábado. Todavía la policía franquista hizo lo que pudo para dificultar esta reunión, dando órdenes a la censura para retener todas las invitaciones enviadas desde San Sebastián a las personalidades residentes en el Estado francés, para que asistieran a la reunión de Bayona (*Oficina Prensa Euzkadi* 1950-07-18; cf. *Alderdi* 1950-08-01).

Erbestean berri horiek bozkarioz hartu ziren, euskal frankisten kontraesanak agerian jartzen zituztelako. I. Fagoagak Frantziatik honela idatzi zion N. Ormaecheari Guatemalara 1950eko uztailean: «Puede usted imaginarse de qué humor están estos jerifaltes vascos que hasta ahora juraban por Franco y sus compinches. Así aprenderán...» (Iztueta & Iztueta 2006: 430). Donostiatik J. M. Azaolak A. Tovar urgazleari ere eman zion egunkariek isildutakoaren berri: «Se enteraría usted del patinazo de este majadero de gobernador, que padecemos en Guipúzcoa, al no autorizar la sesión solemne de la Academia de la Lengua Vasca que debió haberse reunido el 14 aquí».[528] Salamancako kate-

[528] Sancho el Sabio Fundazioa, José Miguel Azaola funtsa: J. M. Azaolaren gutuna A. Tovarri, 1950-07-17.

IKER-35.indd 211 2/9/19 10:55

dradun falangistak zuhurtziaz erantzun zuen: «Mucho lamento el disgusto de la Academia. Nada sabía de ello».[529]

Hori zela eta, hurrengo egunean, uztailaren 15ean, Baionako Musée Basque-n L. Dassance eta R. Lafonen sarrera ekitaldiak batera ospatzea erabaki zuen Euskaltzaindiak. Zortzi kide hauek bildu ziren: I. M. Echaide, J. Elissalde, F. Krutwig, P. Lafitte, J. Saint-Pierre, L. Dassance, R. Lafon eta N. Oleaga. Gerraondoan lehen aldiz huts egin zuen R. M. Azkuek batzarrera, argitu gabeko arrazoiengatik. Agian J. M. Barandiaran bezalako elizgizon erbesteratuekin topo egitea saihestu nahi zuen kosta ahala kosta, beraren jarrera politikoa aurpegiratu ziezaioketelakoan. Izan ere, entzuleen artean erbesteko kide esanguratsuak egon ziren, hala nola Ikuskaren burua (Barandiaran 2009: 775).[530] Nolanahi den, I. M. Echaidek lehen aldiz hartu zuen mahaiburu izateko ardura. Eskuinean J. Saint-Pierre eta ezkerrean N. Oleaga idazkaria izan zituen. Egoerak nahitaez deserosoa izan behar zuen (*Herria* 1950-07-20).

M. Lecuona, M. Gortari eta S. Altubek, bestalde, ezin etorria adierazi zuten (Euskaltzaindia 1982: 13). S. Altubek telefonoz jakinarazi zuen ez zela Pauetik Baionara joango. Deialdia berandu jaso omen zuen, baina Gernikako hilarrien istiluaz geroztik berriz ere aldenduta agertzen zen Akademiarekiko.[531] Hura izan zen J. Saint-Pierre apezpikua kide izan zuen batzar bakarra. Baionan egindako ekitaldi publiko hura sinbolikoa izan zen, lehen aldiz erbesteratuak gerturatu ahal izan zirelako Akademiaren batzarrera. Baina hotz hartu zuten, eta abertzaleen boikot antzekoa nabari zen, I. Fagoagaren testigantzaren arabera: «Como concurrencia fue un fracaso. En total éramos 18 personas» (Iztueta & Iztueta 2006: 430).

Akademiak ezin zuen agerkaririk argitaratu, baina batzarraren berri erbesteko kultura aldizkarietan agertu zen, bereziki P. Lafitteren ahaleginari esker: *Herria*, *Gernika, Eusko-Jakintza, Ikuska* edota *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos* (Lafitte 1950b). J. Saint-Pierrerekin gorabeheraren bat ger-

---

[529] Sancho el Sabio Fundazioa, José Miguel Azaola funtsa: A. Tovarren gutuna J. M. Azaolari, 1950-07-23.

[530] Bi elizgizonen arteko aldea politikoa ez ezik, zientifikoa ere bazen, J. M. Barandiaranek 1926an adierazi zuen bezala: «Me entero de que D. Resurrección Mª de Azkue y D. Juan Eguskiza no se hallan conformes con mi método de publicar los datos folklóricos sin ningún retoque literario. ¡Cómo pensarán que los datos retocados por el investigador con su criterio subjetivo pueden ofrecer garantías para un estudio científico!» (Barandiaran 2005: 576).

[531] ABA-EUS: R. Lafonen sarrera ekitaldirako Akademiaren gonbita, M. Gortariren telegrama & S. Altuberen oharra Euskaltzaindiari, [1950-07-15].

IKER-35.indd 212 2/9/19 10:55

tatu zatekeen, berak zuzentzen zuen *Gure Herria*k ez baitzion lerro bat ere eskaini ekitaldiari. Aitzitik, nazioarteko oihartzun horren aurrean, badirudi Donostiako *BRSVAP* Euskaltzaindiaren jardueraren berri ematera ausartu zela lehen aldiz, Gipuzkoako gobernadore zibilaren debekurik aipatu gabe, jakina (RSVAP 1950). F. Krutwigek I. Fagoagaren Donibane Lohizuneko etxera joateko baliatu zuen ekitaldia, eta euskaltzainburuaren heriotzak sor zezakeen hutsunea N. Ormaechearekin betetzen saiatzea hitzartu zuten (Iztueta & Iztueta 2006: 430, 466).

Izan ere, Euskaltzaindia gerraondoko plaza publikora atera zenetik, haren zilegitasuna zalantzaz beterik zegoen. Guatemalan J. Zaiteguik 1950eko urtarrilean sortutako *Euzko-Gogoa* euskara hutsezko kultura aldizkari berriaren ondoan, esaterako, lotsagarri agertzen zen Akademiaren jardun motela. J. Jáureguik Baionan zuzentzen zuen EAJ-PNVren agerkarian hainbat kronika eta artikulu agertu ziren gaiaz.[532] J. M. Seminariok Bilboko egunkarian argitaratzen zituen idazlanen maila barregarri uzteaz gain, haren ordezkaritza politikoa agerian uzten zuten. «El *Vascuence* de falange española» [sic] deitzen zioten hark euskal lexikoaz egindako proposamenei (*Alderdi* 1950-02). Gainera, Euskaltzaindiak J. M. Seminarioren bidez G. Riestrarekin zuen harremana iraingarria zen. Bizkaiko hilarrietatik euskarazko idazkunak ezabatzeko gobernadore zibilak emandako agindua eskandalu internazionala bilakatu zen EAJ-PNVren lanari esker.

Sam Pope Brewer *The New York Times* egunkariaren Espainiako berriemaile ezerosoak, otsailaren 28an, artikulu bat argitaratu zuen horren berri ematen, eta EJ-GEren berripaperak itzuli egin zuen: «La mencionada orden del Gobernador de Vizcaya, en sí misma, tiene poca importancia pero demuestra que continúa[n] los esfuerzos para hacer desaparecer las características diferenciales de los vascos» (*Oficina Prensa Euzkadi* 1950-03-03). Frankismoaren izaera antidemokratiko eta krudela agerian zegoen. Diktadura nazioartean legitimatzea helburu nagusi zuen A. Martín Artajoren Kanpo Arazoetako ministerioak presaka ohar bat argitaratu behar izan zuen New Yorkeko prentsa informazioa gezurtatzeko. EAJ-PNVren agerkariak «La persecución contra la lengua vasca» artikulua eta euskararen erabileraren aurkako hainbat debeku frankista argitaratu zituen. Hala ere, jeltzaleek euskararekiko estrategia bateratu bat adosteko zituzten ezintasunak ere begi bistakoak ziren. Agerkariaren zenbaki horietan C. Jemein eta S. Altubek publikoki eztabaidatzen jarraitu

[532] Kontuan har bedi *Alderdi*k hilero 1.300 ale banatzen zituela, Ameriketan barne (SAFAA: [D. Ciaurrizen?] gutuna E. Echeverríari, 1951-08-18, PNV_NAC_EBB,K.00300,C.11).

IKER-35.indd 213 2/9/19 10:55

zuten sabindar ereduaren ukiezintasunaz edo eguneratu beharraz (*Alderdi* 1950-04; 1950-06; 1950-08; 1950-09; 1950-11; 1950-12).[533]

Nolanahi den, L. Dassancek Eskualzaleen Biltzarraren historiaz jardun zuen sarrera ekitaldian. J. Elissaldek eman zion protokolozko erantzuna. I. Fagoaga entzulearen arabera, hitzaldi hutsalak izan ziren: «Los discursos de Dassance y Elissalde fueron dos perfectas nulidades» (Iztueta & Iztueta 2006: 430).[534] 1951ko irailean Hendaian egin zen Eskualzaleen Biltzarraren urteroko jaialdian ere, Uztaritzeko alkateak elkartea 1901-1902 artean nola eratu zen azaldu zuen oso laburki. *Gure Herria* berpiztuan argitaratutako idazlanaren oinarria izan ziren ikerketa xume horiek: «Eskualzaleen Biltzarraren sortze eta hastapenak» (*Herria* 1951-09-27; Dassance 1952).

Frantziako euskaltzainei bertaratzea erraztea zen batzarrak Donostian egiteko arrazoi nagusietakoa, F. Krutwigen dosierraren arabera. Frantziako kideekin harremanak berreskuratu eta izendapen berriak egin ondoren, Akademiak hamahiru batzar egin zituen 1950-1951 artean. 1950ean, bere kasa zebilen J. Elissalde sei aldiz agertu zen, Uztaritzeko tandema (P. Lafitte eta L. Dassance) eta J. Saint-Pierre, behin besterik ez. P. Lhande zaharra, Pauen gaixorik bizi zenez, ez zen gehiago batzarretara agertu.[535] Ezta H. Gavel deduzko supernumerario zaharra ere, Angelun (Pirinio Behereak) bizitokia izan arren. 1951n, ez zen Frantziako ordezkari bat ere agertu batzarretara. Espainia-Frantzietako muga zeharkatzea nekeza zen, baimenak garaiz eskatu behar zirelako eta garraioa motela zelako. F. Krutwigen asmoak gorabehera, garai hartan haiek Akademiari egindako ekarpena ez zen esanguratsua izan.[536] P. Lafittek,

---

[533] Azkenean, S. Altubek uko egin zion *Alderdi* aldizkarian euskalaritzaz idazteari, jeltzaleen arteko eztabaida ez betikotzearren (SAF-AA: S. Altuberen gutuna D. Ciaurrizi, 1951-04-28, PNV_NAC_EBB, K.00144, C.5). Lehenago C. Jemein eta S. Altubek bat egin zuten M. Mendiolaren «El euskera debe vivir su vida propia» artikuluari *Alderdi*n betoa jarri ziotenean, preskribatutako neurriak nahasgarriak zirelakoan (SAF-AA: «Expediente informativo formado por el EBB del PNV sobre un trabajo filológico de Manuel Mendiola, generado en base a las opiniones aportadas por Ceferino de Jemein y otros filólogos a petición del Consejo Nacional», 1949/1950, PNV_NAC_EBB, K.00159, C.4). Jeltzale guztiek bat egiten zuten euskararen gizarte egoera deitoratzean, baina askotan hizkuntza bera zuten arreta nagusi, mota bateko edo besteko purismoaren bidez «lehengoratu» nahi zutena. Gainera, gaian interes gehien zutenak, ez ziren bat etortzen jarraitu beharreko metodologian.

[534] F. Krutwigentzat ere, euskaltzain berria euskal idazle txarra zen: «Dassance Eskualtzaleen Biltzarreko presidentearekin tronpatu nintzen, ez baitzuen ongi izkiriatzen» (Murua Uria 1997: 76).

[535] ABA-EUS: P. Lhanderen gutuna N. Oleagari, 1951-07-17.

[536] ABA-EUS: L. Dassanceren gutunak N. Oleagari, 1950-01-25 & 1950-05-27.

IKER-35.indd 214 2/9/19 10:55

N. Ormaechearekin sortutako istiluaren ondorioz, ez zuen bere euskara literarioa Espainian hedatzeko tresna gisa Akademia erabiltzeko asmorik erakutsi. Arcachonen (Gironda) bizi zen R. Lafon irakaslea soilik bere sarrera ekitaldira agertu zen.[537]

Frantziako euskaltzainek, izan ere, egoitza Espainia frankistan zuen Akademia baino plataforma egokiagoak (eta erbesteko EJ-GEren diru laguntza) zituzten eskura euskararen alde gutxienez zigortuak izan gabe aritzeko. Mundu Gerra ondoko eztabaida politikoaren ondorioz, 1951ko urtarrilaren 11ko «Loi Deixonne» delakoak bretoia, katalana, okzitaniera eta euskara sartu zituen Frantziako hezkuntza sisteman.[538] Ez zen lehenengo aldia. Vichyko Gobernu faxistak, J. Carcopino ministroaren 1941eko abenduaren 27ko aginduz, astean ordubete eta erdiko tokia, betiere curriculumez kanpo, eskaini zien «langue dialectale»i lehen hezkuntzan. Aintzina taldeko gazteek txalotu egin zuten erabakia, baina Mundu Gerraren norabideak ezerezean utzi zuen. 1951ko legearen arabera, herri hizkuntzen irakaskuntza hautazkoa zen, astean ordubete edo bikoa, eta frantsesa hobeto ikastera bideratuta, bereziki lehen hezkuntzan. Dena dela, euskararen irakaskuntza bigarren hezkuntzara eta unibertsitate mailako irakasle eskoletara iritsi zela kontuan hartuta, diktadura frankistan ez bezalako aukerak sortu zituen (Lafitte 1947: 10; Itçaina 2007; Irujo & Urrutia 2009: 239-242). 1951ko otsailean Pirinio Behereetako hamabi eskolatan beste horrenbeste irakasle ari ziren 500 haurri astean bi aldiz euskara eskolak ematen. EJ-GEk proiektu horiek lagundu zituen eta S. Arotçarenaren *Grammaire basque* 1951ko urte amaieran argitaratzea ere horren ondorio izan zen.[539]

Akademiaren agerkari ofizialik ezean, R. Lafonen sarrera hitzaldia, halaber, erbesteko aldizkari batean argitaratu zen 1950ean bertan: Donibane Lohizuneko *Gernika*n. R. Lafonek Akitaniaren euskaltasun historikoa nabarmendu nahi izan zuen, 1920ko araudiak agintzen zuten euskal jatorria agerian utzi nahian. Berak Akademiari egin ziezaiokeen ekarpen nagusia linguistarena zela adierazi zuen, batez ere euskararen harreman genetikoak aztertzearena.

---

[537] ABA-EUS: R. Lafonen gutunak N. Oleagari, 1950-06-17 & 1950-10-20. Oporrak baliatzen zituen Espainian egonaldiak egin eta RSVAPeko kideekin edota A. Tovarrekin biltzeko. Akademiak, ordea, ez zion bere ikerketa lanei ia ezer eskaintzen. 1951ko irailean Donostia, Santander eta Madrilen egindako egonaldiaren emaitza izan zen, esaterako, *Études basques et caucasiques* liburua (Lafon 1952: 6).

[538] «Loi n°51-46 du 11 janvier 1951 relative à l'enseignement des langues et dialectes locaux», *Journal officiel de la République française*, 1951-01-13.

[539] ABA-AIB: T. Monzonen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1951-02-20.

IKER-35.indd 215 2/9/19 10:55

Alderdi soziologikoari lotu zitzaionean, J. Vendryesen *Le langage* (1921) izan zuen gidari bakarra:

> Bere liburu onen azkenean, gai au aztertzen du: «le progrés du langage» mintzaeraren aurrerapena. Utzi nazazute lerroren bat aitatzera: «Il y a entre l'évolution linguistique et les conditions sociales où évolue la langue un rapport évident. Le dévoloppement de la société entraine le langage dans une voie déterminée» «La portée d'une langue tient au nombre et au degré d'education de ceux qui la pratiquent» (Lafon 1950: 3).

Nolanahi den, sarrera hitzaldian berak ez zuen alor horretan sakontzeko asmorik agertu, baizik eta Euskal Herriko atlas linguistikoa eta literatura «klasikoa»ren edizio filologikoak abiatzeko nahia. Kaukasoko hizkuntzen eta euskararen arteko lotura genetikoaren hipotesiarekin lanean ari ziren garaiko linguista nagusiak: R. Lafon bera, K. Bouda, A. Tovar, N. M. Holmer, G. Dumézil edota C. C. Uhlenbeck. Dena dela, harreman genetikoaren froga positiborik ez da inoiz finkatu.[540] I. Fagoaga entzulearentzat, sarrera hitzaldia oso ona izan zen, baina erantzuna ez: «Muy bueno y admirablemente dicho el de Lafon. Excesivamente erudito y leído con sobrada precipitación el de Krutwig» (Iztueta & Iztueta 2006: 430).

F. Krutwigek, Frantziako linguistika soziologikoari jarraituta, hizkuntzen hierarkia bat egin zuen, goitik behera: zibilizazio hizkuntza, kultura hizkuntza eta hizkuntza literarioa. Horren azpitik zalantzazkoa zen hizkuntzaren izaera: «patois», «parler» edo «dialecte» soilak ziren. Bere betiko leloari jarraituta, Akademiaren zeregin nagusia hizkuntzaren prestigio soziala areagotzea zela adierazi zuen (Krutwig 1952c: 53).[541] Antifrankismoarentzat, ordea, Espainiako euskararen egoera agonikoaren aurrean, ekintza politikoa zen konponbide berehalako bakarra. Barnealdeko instituzio sasiofizialetik, aldiz, gizarte ikuspegiaren naziogintza bigunari eusten zitzaion.[542]

---

[540] F. Krutwigek memorietan R. Lafon bezalako linguistak kritikatu zituen, euskara laborategiko objektu huts bezala hartzen zutelako, Akademiaren gizarte zeregina baztertuta (Krutwig 1991: 102-103).

[541] Erantzun hitzaldia Guatemalako *Euzko-Gogoa*ren 1952ko zenbakian argitaratu zen, ikusiko dugunez.

[542] Horregatik, F. Krutwigek bere burua irizpide horren eragile nagusi gisa ikusi zuen beti: «A este respecto he de contarle que no es nueva en mí la idea de que hay que conquistar la cabeza cultural, económica, industrial etc del País Vasco para el vascuence y que el día que lo logremos habremos ganado la batalla definitiva en favor de la lengua vasca. Hace 15 años que vengo predicándolo, hace 12 años que ya lo dije en el Museo de Bayona, cuando entró Lafon

IKER-35.indd 216 2/9/19 10:55

4.5. *EUZKO-GOGOA*REN ERRONKA ETA URGAZLE BERRIAK

Hurrengo batzarrean, 1950eko urriaren 27an, bost kide bildu ziren GPDko jauregian: R. M. Azkue, I. M. Echaide, J. Elissalde, F. Krutwig eta N. Oleaga. L. Dassance eta P. Lhanderen ezin etorriaz gain, P. Zamarripa abuztuaren 17an hil zela adierazi zuten. Bizkaiko apaizaren anai-arrebei doluminak ematea erabaki zuten (Euskaltzaindia 1982: 14-15). 1949ko abendutik ez zen Euskaltzaindiaren batzarretara agertzen. 1950ean bertan argitaratu zen P. Zamarriparen *Gramática vasca*ren zazpigarren edizioa. Hala ere, Akademiako eztabaidetatik kanpo zegoen, gramatika baino areago, bizkaiera ikasteko metodoa zelako. Akademiaren berri prentsan emateko erabakiaren ondorioz, egoera bitxiak sortu ziren. Baionako *Gure Herria*k edota Buenos Airesko *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*ek kortesiazko hilberriak argitaratu zituzten, baina Espainiako egunkariek ez zioten jaramonik egin Bermeoko sendategiko kapilauaren heriotzari (Lafitte 1950a; IAEV 1950b).

Aitzitik, 1950eko martxotik batzarretara agertzen ez zen J. Urquijoren egoera kezka gehiagoz aipatu zuten batzartuek. Sevillako prentsaraino iritsi zen RAEko kidearen gaixoaldi luze eta larriaren berri. 1950eko udan kalean azken aldiz ikusi zuen J. Artecheren arabera, kosta egiten zen adinak eragindako hizketa totela ulertzea. Antza denez, ezin zuen irentsi M. Menéndez Pelayoren *Historia de los Heterodoxos españoles* (1880-1881) delakoaren edizio berrietan (azkena 1946-48koa, CSICen eskutik) bere ekarpen historiografikoaz ezertxo ere ez esatea (*ABC* 1950-09-27; *La Voz de España* 1950-10-29; cf López Antón 1996).[543]

Hildako euskaltzainaren hutsunea betetzeko, N. Ormaechearen hautagaitza aurkeztu zuten R. M. Azkue, M. Lecuona eta F. Krutwigek, baina batzarrak arazo hori geroratzea erabaki zuen. Lapurtera klasikoz idatzitako aurkezpena irakurriz gero, argi dago F. Krutwig izan zela egitasmoaren arduraduna. N. Ormaecheak egindako poesiak, itzulpenak eta gramatika lanak goraipatu zituzten, baita Akademiako lankide gisa egindako dialektologia galdeketak ere (*Erizkizundi irukoitza* = *Triple cuestionario*).[544] 1950eko uztailean

---

en la Academia» (Eusko Ikaskuntzaren Artxiboa, Manuel Irujo funtsa: F. Krutwigen gutuna M. Irujori, 1961-02-20/21).

[543] Agian haserre horregatik, F. Oliván (1896-1973) Donostiako diplomazialari monarkikoak J. Urquijoren *Menéndez Pelayo y los Caballeritos de Azcoitia* (1925) liburuaren aitortza egin zuen Madrilgo egunkarian (*ABC* 1948-01-20; *El Diario Vasco* 1948-01-22).

[544] ABA-EUS: R. M. Azkue, M. Lecuona eta F. Krutwigen idazkia Euskaltzaindiari, 1950-09-12.

IKER-35.indd 217 2/9/19 10:55

F. Krutwigek gutuna bidali zion I. Fagoagari Donibane Lohizunera, artekari lana egin zezan N. Ormaechea urgazleak P. Zamarripa zenaren aulkia onartzeko (Iztueta & Iztueta 2006: 430).

Nicolás Ormaechea «Orixe» (1888-1961) urgazlearekin sortutako gatazka leuntzeko bide ziurrena zirudien hura euskaltzain izendatzea, baina hasieran ez zuen onartu Nafarroako tenore ohiaren bidez iritsitako proposamena. Donibane Lohizunetik Guatemalarako abuztuko gutunean berriz eskatu zion, eta euskaltzainek egingo zioten abegi onaren erakusgarri, M. Lecuonak Calahorratik F. Krutwigi bidalitako gutunaren aipua egin zion:

> Biziro nere gustokoa ta gogokoa izango da Orixe gure Euskalzainkidetarako. Asko daki, ta lan asko egin du, ta baita egingo ere, burua lengo lepotik ba-dauka. Euskalzain izan naiko duan... orran dago dana. Beraz besteren batzuek bultzatu bearko diote ortara. Eta oietako zenbaiti guk esan bearko, mesede ori egin daigute (Iztueta & Iztueta 2006: 433).

F. Krutwig eta I. Fagoaga artean prestatu zuten hautagaitza, A. M. Labayen ere tartean zela. Uztailaren 8tik urriaren 2ra bost gutun bidali zizkion Bilbotik Donibane Lohizunera. Akademiaren batzarraren ondoren, urriaren 29an, beste gutun bat bidali zion jakinarazteko N. Ormaechea «Orixe»ren hautagaitza geldi zegoela, estatutuek agintzen zuten epea bete arte. Arauei jaramon gutxi egiten zion gerraondoko Akademiaren jardunari erreparatuta, aitzakia hutsa dirudi. P. Lafitte euskaltzain berriarekin izandako eztabaida garratzak oztopo handiagoa izan behar zuen. Hain zuzen, hautagaitzak hartu zuen bide okerraren ondorioz, F. Krutwigek gordinago azaldu zuen urriko batzarrean gertatutakoa. Aktak halakorik ez adierazi arren, F. Krutwigen arabera, A. Irigaray Donostiako batzar horretan egon zen eta berak jarri zion betoa izendapenari:

> Se presentó la petición que hacíamos Azkue, Lekuona y yo. El Sr Oleaga estaba bien dispuesto. Además se hallaban presentes, Elissalde, Echaide e Irigaray. (Lekuona apoyaba en pleno por carta). Elissalde no dijo nada. El Sr. Irigaray hizo saber que Orixe se encontraba en América (lo que también sabía yo) y que no volvería por ahora ni por un rato, que por lo tanto su nombramiento no contribuiría a levantar la Academia, y que además, y esto me lo dijo dirigiéndose particularmente (en voz baja) que después de los jaleos levantados por éste, si la Academia aceptaba la candidatura de Orixe, esto parecería como una claudicación de esta corporación, que no ha de hacerlo, pues de fuerza tiene prestigio para aguantar las injurias que pueda proferir cualquier malhumorado. En vista de tal actitud y de que no había presente nadie que podría haber secun-

IKER-35.indd 218 2/9/19 10:55

dado en aquel momento la propuesta mía, el Sr. Oleaga propuso, para salvar la candidatura de Orixe, que ésta quedase sobre la mesa de la secretaría (Iztueta & Iztueta 2006: 446-447).[545]

Nafarroako medikuak (ala I. M. Echaidek?) zuzen zioenez, ordurako N. Ormaechea Ameriketan zegoen, *Euzko-Gogoa* zuzentzen zuen J. Zaiteguik erakarrita. Handik eraso bortitzak zuzendu zizkion Euskaltzaindiari. F. Krutwigek *Gernika*n agertutako «Sobre la reorganización de la Academia de la Lengua Vasca» bakegileari oso gogor erantzun zion Guatemalako aldizkarian. F. Krutwig bezalako euskaltzain gazte ezezaguna Akademia defendatzera irten beharra, eskarmentu gehiagoko euskaltzainak isilik zirautenean, lotsagarria iruditzen zitzaion. Akademia berrituaren osaera eta erabakiez gain, ustezko neutraltasun politikoa ere ukatu zuen argi eta garbi: «Zu etzaude zere esku, Krutwig yauna, bear bezain garbi itzegiteko, ta zure euskalzain lagunak ezago. Euskotarrak ez dira ezer E. Z. berri ontan oraiñaldi beltzean» (Ormaetxea 1991b: 907). Euskaltzaindiarekiko jarreraz, T. Monzon EGLZ-DCEko buruari idatzi zion 1950eko urriaren 10ean: «Ez gera yaŕiko Ikaskuntza sail oŕen buruzki, ez ta Buru ere: bañan elkaŕi laguntzen ez ba'diogu, neke alper asko egiteko gaude, ta, bear bada, lanerako gogoetatik aterako gera» (Iztueta & Iztueta 2006: 203).

Euzko-Gogoa kultura aldizkari jasoa zen, euskara hutsez, gutxiengo eskolatuari zuzendutakoa. Izenak berak Euzko Irakastola Nagusia sortzeko J. M. Leizaolaren 1936ko dekretua jarraitzen zuen: «euzko-gogo = carácter cultural vasco» (cf. HAEE-IVAP 1997: 124).[546] T. Monzonen populismotik oso aldenduta zegoen beraz, jeltzaletasun ortodoxoa lerro editorial bakarra izanagatik: «Gu Euzkadi'rentzat eta Euzkadi Yaungoikoarentzat» (Euzko-Gogoa 1950). J. Zaiteguik berak finantzatu zuen eta EAJ-PNVren aparatuarekiko autonomoa izan zen, alderdiari leiala izan arren. Joaquín Zaitegui (1906-1979) EJ-GEren zubi gizona izan zen Guatemalako gobernu liberalekiko. Era berean, harreman ona izan zuen M. Rosell artzapezpiku antikomunistarekin. Bertako gizartean ongi kokatuta zegoen, eta unibertsitate nahiz institutu katedradun izateaz gain, «Liceo Landibar» ikastetxe pribatua sortu zuen. Horrela, baliabide ekonomikoak bideratu ahal izan zituen euskarazko aldizkariaren egi-

[545] F. Krutwigen manipulaziorako joera kontuan hartuta, zalantzagarria da A. Irigarayk batzar horretan parte hartu zuenik. Hala ere, agian Nafarroako medikuak bere izena aktatik kentzea eskatu zuen, N. Ormaechearekin istilurik ez izateko.

[546] «Decreto creando la Universidad Vasca = Oroagindua.- Euzko Irakastola Nagusia sortu-eraziaz», *Diario Oficial del País Vasco = Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa*, 1936-11-18.

IKER-35.indd 219 2/9/19 10:55

tasmora, N. Ormaechea idazle gisa liberatzera edota A. Ibinagabeitia Amerikatara erakartzera (Diaz Egurbide 2013).

Hala ere, *Euzko-Gogoa*ko triunbiratu jesuitikoa kritikoa izan zen EJ-GEren politika kulturalarekiko. EIL-SIEBi edota P. Lafitteren *Herria*ri lehentasuna ematea ez zuten begi onez ikusi, eta *Gure Herria* nagusiki frantsesez argitaratzea barkaezina iruditzen zitzaien. J. A. Aguirre lehendakariak berak T. Monzon sailburuari agindu omen zionez, Guatemalako aldizkariaren aleak erostera mugatu zen EJ-GEren laguntza. EGLZ-DCEren lehentasunak beste batzuk ziren: «Loi Deixonne»k Frantziako hezkuntzan zabaldutako aukerak baliatu eta euskal folklorea sustatzea.[547]

Euzko-Gogoa euskal idazleentzat sona handiko plataforma izan arren, proiektu kixoteskoa izan zen abertzaletasunaren politikagintzan eragiteko orduan, J. Zaiteguik 1951ko uztailean idatzitako gutunean ageri denez: «Zenbat gera, ordea, asmo ortan? Iru edo lau zoro, besterik ez, ta gure erri osoari txertatu bear diogu zoro-aldi ori, oñarritzat euskera artuta» (Iztueta & Diez 2007: 148). N. Ormaechea, gainera, izaera zaileko gizona zen, mistikoa eta zakarra aldi berean, bere ego erraldoiari ezin eutsita, arerio politikoekin ez ezik, abertzaleekin ere istiluak izateko joera zuena.[548] Akademia berria publikoki auzitan jartzeaz gain, S. Altuberen irizpide linguistikoak behin eta berriz eraso zituen, adibidez (Iztueta & Iztueta 2006: 203).

Euskaltzain berririk hautatu ez arren, hogeita bi urgazleko zerrenda luzea onartu zen urriko Donostiako batzarrean.[549] Argitaratutako aktan agertu ez arren, kopia mekanografiatuan P. Larzabal elizgizona ere badago zerrendan.[550] Zuzendaritzak abenduaren 30ean bidali zizkien jakinarazpenak, batzarretara etorri edo gutxienez lanak bidaltzeko eskatuta. Erantzunen artean P. Larzabalena agertzen da.[551] Kopuru aldetik, Akademiaren 1919ko sorreratik ez zen

[547] ABA-AIB: T. Monzonen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1951-02-20.

[548] 1943an idatzitako testu autobiografikoan, esaterako, hitz bihozgabe hauekin amaitu zuen J. Ariztimuño «Aitzol»ekin izandako tirabira pertsonalen azalpena: «Esas y otras pequeñeces humanas las pagó bien al fin de su vida» (Iztueta & Iztueta 2006: 525).

[549] M. Arruza, B. M. Garro, A. M. Labayen, J. Zaitegui, B. Fagoaga, J. Thalamás, I. Larramendi, D. Dufau, P. Guilsou, S. Arotçarena, P. Narbaitz, D. Soubelet, L. Léon, P. Charritton, J. Jauréguiberry, G. Eppherre, J. Chabagno, J. Ithurriague, K. Bouda, L. Michelena eta J. Azcárate (Euskaltzaindia 1982: 14; Charritton 2013: 415-417).

[550] ABA-EUS: Euskaltzaindiaren aktaren kopia, 1950-10-27.

[551] ABA-EUS: Euskaltzaindiaren jakinarazpena urgazleei eta P. Larzabalen erantzuna, 1950-12-29 & 1951-01-30.

IKER-35.indd 220 2/9/19 10:55

halakorik gertatzen. F. Krutwigen 1949ko iraileko dosierrari jarraituta, erdiak Frantziakoak ziren, eta hori oreka demolinguistikoaren ikuspegitik gehiegikeria zen. Izendapen horietan, bereziki P. Lafitteren eskua ikusten da. Eskuindarrak, kristau-demokratak eta abertzaleak barne hartzen zituen Baionako elizbarrutiko gizonen ordezkaritza zabalak. Buenos Airesko *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*ek gutxieneko informazioa bildu zuen urgazle berrien ibilbide literarioaz:

> El señor Arotzarena es autor de una reciente Gramática vasca. Miguel de Arrutza es bizkaino. Publicó en Bilbao, año 1923, una Gramática euskérica, según el método Massé-Dixon, vertió «El Judas de la casa», de Antonio de Trueba, con el nombre de Etxe-kalte, y colaboraba en «La Gaceta del Norte» con artículos euskéricos. Seudónimo, Arrugain. José de Azkarate, persuasivo orador euskeldun, baztanés. El Padre Charriton, autor de un jugoso compendio de «Historia Eclesiástica Vasca». El Padre Chabagno es catedrático, residente en París, y colaborador del mensuario «Elgar». Domingo Dufau, de Sempere, Laburdi, redactor euskérico y erdérico de revistas vascas, como «Eusko-Yakintza», «Gernika». Eppherre es un joven presbítero suletino. El Padre Blas Fagoaga, catedrático de idioma vasco en el Seminario de Iruña (Pamplona). Bernardo Garro, bizkaino, traductor euskérico del Bertoldo ya antes de 1935 con el seudónimo de Otxolua. Presbítero Gilsou, residente no lejos de Bayona. El Dr. Jaureguiberry, médico zuberoano, autor de «Le basque moyen», en 1929, y de «Considerations sur la race basque» en 1947. Irat[zed]er, seudónimo del benedictino Padre Diharce, donibandarra, residente en el monasterio de Belloc, insigne poeta y dramaturgo euskérico. Ithurriague, profesor residente en París, cooperador en publicaciones vascas. Antonio de Labayen, comediógrafo euskérico desde antes de 1930, usó alguna vez el seudónimo Ayanbe, conferencista en lengua vasca, Ignacio de Larramendi, navarro, delicado poeta en el idioma de su apellido, El canónigo Narbaitz, de la catedral de Bayona, autor de un devocionario vasco para la Misa. El también canónigo Soubelet, antiguo director de «Eskualduna», y que desde 1942 al 46 ha sacado a luz tres buenos volúmenes sobre la Virgen de Lourdes, de Fátima y el Sagrado Corazón de Jesús. El Padre Juan Thalamás Labandibar, autor de diversos libros erdéricos, anteriores a 1938 y director de la revista trimestral «Gernika». El Pro. Jokin de Zaitegi y Plazaola, insigne poeta vasco, traductor de tragedias de Sófocles y obras de eminentes vates modernos, director de la gran revista paneuskérica bimestral, de Guatemala, «Euzko Gogoa» (IAEV 1951b).

Dena dela, erbesteko aldizkariak zenbait izendapen ez zituen aipatu, hala nola Alemaniako Karl Boudarena (1901-1979), agian arrazoi politikoengatik (cf. Gernika 1951a: 55-56). Oso ongi idazten zuen euskaraz eta aspaldiko harremana zuen R. M. Azkue eta J. Urquijorekin. Mundu Gerran Euskal

IKER-35.indd 221 2/9/19 10:55

Herrira mobilizatu zuten 1941eko udan hiru hilabetez, eta hainbat ikerlerekin bildu zen: H. Gavel, G. Lacombe, R. Lafon, J. B. Daranatz, J. A. de Donostia edota J. M. Barandiaran. 1941eko abenduan Berlinetik AEBen administraziopean geratu zen Erlangen-era aldatu, eta bertako unibertsitatean linguistika konparatiboko katedraduna izan zen.[552] Mundu Gerraren ondoren baldintza material eskasetan bizi zen eta J. Garatek Argentinara erakarri nahi izan zuen alferrik, G. Bähr lokalizatzen saiatu ziren aldi berean.[553] 1949ko martxoan J. Urquijorekiko korrespondentzia berreskuratu eta hortik etorri zen urgazle izendapena.[554] K. Boudak uste zuen euskara eta Kaukasoko hizkuntzen arteko lotura genetikoa frogatu egin zuela. Ildo horretako artikuluak argitaratu zituen *Eusko-Jakintza*n. Frantziako komunistek protesta egin zuten K. Boudaren izena aldizkarian agertu zenean.[555]

Erbestetik egindako kritiken eraginez, abertzale ugari izendatu ziren, Akademiaren osaera politiko baldintzatua nolabait orekatu nahian. M. Arruza eta B. M. Garro, adibidez, F. Krutwigen Bilboko literatura taldearen ingurura bildutako idazle jeltzaleak ziren (Iztueta & Iztueta 2006: 456-457). F. Krutwigek bere eragina Akademian areagotzeko asmoa nabarmena zen urgazle horien sarrerarekin. Hain zuzen, M. Arruzak izendapenari emandako erantzunean, lapurtera klasikoz idatzi zituen «igoŕiren derauzkitzuet» bezalako aditz formak.[556] Abertzaleak ziren, orobat, Gipuzkoako L. Michelena eta Nafarroako J. Azcárate.[557] L. Michelenaren izendapena, eta baita agian J. Azcárateren ere, A. Irigarayri zor zitzaion (Satrustegi 1997: 328). Bestalde, Gipuzkoako A. M. Labayen eta J. Zaitegui jeltzaleak, eta seguru asko baita J. Thalamás, B. Fagoaga eta I. Larramendi ere, I. Fagoagak proposatutako hautagaiak ziren. *Gernika*ren zuzendariak, hain zuzen, N. Ormaecheari azaldu zion izendapenen atzean zegoen asmoa abuztuko gutunean:

---

[552] KMK-JU: K. Boudaren gutunak J. Urquijori, 1941-08-18 & 1941-11-18.

[553] KMK-JU: J. Garateren gutunak J. Urquijori, 1947-09-11 & 1947-12-27.

[554] KMK-JU: K. Boudaren gutunak J. Urquijori, 1949-03-13.

[555] SAF-AA: F. J. Landábururen gutuna J. M. Barandiarani, 1947-08-02, LIAV-0003-01.

[556] ABA-EUS: M. Arruzaren gutuna Euskaltzaindiari, 1951-01-20. Dena dela, urgazle gehienen ekarpena urria izan zen. M. Arruzak, eskarmentu handiko euskara itzultzaile eta irakasleak, dosier bat bidali zuen Akademiara. Pertsona izenordain berriak sortu nahi zituen, gaztelaniazko parekideak izateko, baina aktei erreparatuta, Akademiak ez zuen aintzat hartu: «Ene eritxi haur on hartzen baldin baduzue *xu* erdarazko *tu* eta *xuik* erdarazko *vosotros* izanen lirake» (ABA-EUS: M. Arruzaren dosier izengabea, 1951-10-09).

[557] José Azcárate (1878-1957) EAJ-PNVren Napar-Buru-Batzarreko kide eta Baztango zinegotzi izan zen Errepublikan (Chueca Intxusta 1999: 402).

IKER-35.indd 222 2/9/19 10:55

> Con su ingreso en el Euskalzaindi y con el nombramiento de la media docena de miembros correspondientes no solo equilibraremos la influencia nefasta que actualmente domina en aquella institución, sino que se logrará que la Academia vuelva a su recto camino, imprimiéndole el prestigio y la autoridad que nunca debió perder (Iztueta & Iztueta 2006: 34).

Euskaltzaindiaren jakinarazpenari emandako erantzun mamitsuena, hain zuzen, J. Zaiteguirena izan zen. Guatemalatik idatzitako gutunean, izendapena onartu eta R. M. Azkuek euskararen alde egindako lana goratzeaz gain, erbesteko euskal idazleak euskaltzain jeltzaleen ondorengoak zirela adierazi zuen: «Beraz, zuk, Eguzkitzak, Olabidek eta abar uŕatutako bideak barna ibilli gabiltz».[558] Preso egondako edota erbestean hildako kideak aipatzean, euskaltzainburuak erraz uler zezakeen posizio politikoa markatu zuen.[559]

Guatemalako aldizkariaren lehen zenbakian, hain zuzen, frankistek fusilatutako «Aitzol'en gizaldia» goraipatu zuen (Zaitegi 1950). Bestalde, S. Altubek erbesteratuei baino ez zien onartu zilegitasun morala; barnealdeko Euskaltzaindiari zeharka zuzendutako beste abisu bat zen: «Gure Aberria, Euskalerri maitea, etsaiaren erpe zorrotz peian, oiñazez intzirika agertzen zaigun garai goibel ontan, aren semeak, ludiaren lau bazterretan, Ama estualdi ortatik atera naiezko lanetan, gogor, zintzo ta pijo ari zaizkigu» (Altube 1950). Nolanahi den, J. Zaiteguik *Euzko-Gogoa* aldizkariaren zenbakiak postaz bidali zituen Bilboko egoitzara eta artikuluren bat idaztea eskatu zien R. M. Azkue eta N. Oleagari. Auzi politikoak alde batera utziko zituztela agindu zuen: «Euskera irauneraztea besterik ez dugu gogo; beraz, ez gera ari alderdikeritan».[560]

4.6. GIPUZKOAKO ORDEZKARITZA: JULIO URQUIJOREN HERIOTZA

Euskaltzaindiak azkartutako jardunaren erakusgarri, 1950. urtea zazpigarren batzar batekin itxi zuten. GPDko jauregian, abenduaren 29an, zazpi kide

---

[558] ABA-EUS: J. Zaiteguiren gutuna R. M. Azkueri, 1951-04-03.

[559] Gipuzkoan bazegoen euskal idazleen nukleo bat (M. Lecuona, A. M. Labayen, N. Echániz, J. Echaide edota J. M. Mocoroa) Ameriketako *Euzko-Gogoa*rekin koordinatuta lan egiten saiatzen zena, eta gertutik behatu zuena izendapen berrien prozesua (Iztueta & Iztueta 2006: 436, 439).

[560] ABA-EUS: J. Zaiteguiren gutuna N. Oleagari, 1951-04-03. Aitzitik, Akademiaren zuzendaritzako kideek ez zuten Guatemalako kultura aldizkarian ezer argitaratu. Barnealdeko jarrera epelari presio egiteko tresna izan zen *Euzko-Gogoa*.

IKER-35.indd 223 2/9/19 10:55

batzartu ziren: J. Elissalde mahaiburu, A. Irigaray, I. M. Echaide, F. Krutwig, P. Lafitte, L. Dassance eta N. Oleaga. Betiko otoitza egin ondoren, aurreko lau batzarren aktak onartu zituzten, gorabeherak pilatzen ari zirenaren erakusgarri. B. Echegarayk ezin etorria adierazi zuen gutun baten bidez, eta esku artean zuen lanaren berri eman zuen: Espainiako harginen jargoian zeuden euskal jatorriko hitzen azterketa (Euskaltzaindia 1982: 16). B. Echegarayk Madrilen jarraitzen zuen Auzitegi Goreneko idazkaritza lanetan. Urruntasun geografikoak, familian izandako heriotzek, gaixotasunek eta iragan politikoa estali beharrak zeharo deuseztatu zuten hark Akademiari egindako ekarpena. Postaz jaso zituen idazkariaren deialdiak eta interesarekin irakurri zituen F. Krutwigen dosierrak, baina 1951n egin zen batzar bikoitzera baino ez zen agertu.[561]

J. Urquijo bihotzeko gaixoaldi luzearen ondoren urriaren 28an hil zela jakinarazi eta alargunari doluminak ematea erabaki zuten. P. Zamarriparen Sondikako anai-arrebei, atzerapen handiz, eta Vicenta Olazábali ere egun berean bidali zizkieten doluminak.[562] Akademiaren zutabe eta gerraondoko berpizkundearen eragile izandakoak desagertzen ari ziren. R. M. Azkue bera ez zen batzarrera agertu, eta mahaiburua J. Elissalde izan zen. Euskaltzainburu zaharraren heriotza ere laster gerta zitekeela begi-bistakoa zen eta, ondorioz, batzarrean I. M. Echaide integrista buruorde izendatu zuten. Hain zuzen, abenduko aktaren kopia mekanografiatua lehen aldiz agertzen da R. M. Azkueren sinadura barik. Horren ordez, «Euskaltzainburu-ordea» agertzen da N. Oleagak eskuz idatzita, baina sinadura gabe. Aktaren kopia hori, 1951ko hurrengo bost batzarren akta mekanografiatuak bezala, euskaraz baino ez dago.[563] Badirudi aldaketa hori J. Urquijoren heriotzarekin eta hizkuntza gaitasunarekin lotuta dagoela.[564]J. Urquijoren heriotzak, —Donostiako Plaza del Centenario-ko etxean zendu zen hirurogeita hemeretzi urterekin—, agerian utzi zuen adin nagusiko kidez osaturiko Akademiaren egoera hauskorra. Lau-

[561] ABA-EUS: B. Echegarayren gutunak N. Oleagari, 1950-06-17 & 1950-12-26.

[562] ABA-RMA: R. M. Azkueren dolumin gutunak Zamarripa anai-arrebei eta V. Olázabali, 1950-12-30.

[563] ABA-EUS: Euskaltzaindiaren akten kopiak, 1950-12-29, 1951-02-23, 1951-04-28, 1951-04-29, 1951-09-25 & 1951-10-30.

[564] Osoko batzarrak gaztelaniaz egin ohi ziren, eta F. Krutwigen ekimena izan omen zen hori aldatzea: «Urkijo hil zenean proposatu nuen. Urkijok ez zekien euskaraz mintzatzen eta bizi zelarik ez nuen proposatu» (Murua Uria 1997: 70).

IKER-35.indd 224 2/9/19 10:55

rogeita sei urteko R. M. Azkue burua galtzen hasia zen eta jokabide nahasgarriak zituen.[565]

Urriaren 27ko batzarraren ondoren, elkarrekin bazkaldu zuten R. M. Azkue, J. Elissalde, N. Oleaga eta F. Krutwigek. Ondoren, euskaltzainburua I. Lasquibar artzapeza eta J. Urquijo bisitatzera joan bide zen. N. Oleaga eta F. Krutwig elkarrekin joan ziren J. Urquijoren etxera, eta beraren ilobak esan zien osaba oso larri zegoela. Hirurak trenean Bilbora itzultzeko asmoa izan arren, R. M. Azkue aurreratu egin zitzaien. Biharamun eguerdian, J. Urquijoren familiaren telegrama jaso zuen euskaltzainburuak, heriotzaren berriarekin, baina R. M. Azkuek ez zien gainerako euskaltzainei ezer esan. N. Oleagak prentsan irakurri behar izan zuen, urriaren 29an. Hiletarako berandu zebilenez, R. M. Azkue eta I. M. Echaiderekin harremanetan jartzen saiatu zen, baina ez zuen lortu. Besterik ezean, alargunari telegrama bat bidali zion zuzendaritzaren izenean.[566] I. M. Echaide ere aztoratuta zegoen, Akademiak duintasunez jokatu ez zuelakoan. Urriaren 29an alargunaren anaiari (Ramón Olazábal) doluminak eman zizkion, baina hurrengo eguerdian Buen Pastor-eko elizkizunera abiatu zenean, R. M. Azkuerekin gurutzatu zen. Euskaltzainburua geltokira zihoan, Bilboko trena hartzera. I. M. Echaide zur eta lur geratu zen. A. Irigarayren arrastorik ere ez zuen izan egunotan.[567]

J. Urquijoren ospearen erakusgarri, haren heriotza tokiko prentsa frankistak azaleko orrian jaso zuen, fotografiekin. Urriaren 29ko eguerdian hilotza Buen Pastor-eko kriptara eraman zutenean, R. M. Azkue segizioko buruan zihoan, prentsa guztiak jaso ez arren, J. Urquijoren iloba Ildefonso de Bilbaorekin (OFMCap) eta M. M. Zubiaga (SI) zuzendari espiritualarekin batera.[568] Hobiratzean ordezkari politiko eta kultural ugari egon ziren: J. R. Aguirreche GPDko presidenteordea, H. Bilbao BPDko presidenteordea, J. J. Castañeda Donostiako alkateordea, J. Garnica itsas komandantea, Conde de Peñaflor-

[565] Euskaltzainburuari aguretasunak sortzen zizkion oroimen galeraz eta ezintasun fisikoez, zenbait pasadizo tamalgarri kontatu zituen F. Krutwigek enpatia gutxirekin (Krutwig 1991: 83, 109-111).

[566] ABA-EUS: N. Oleagaren gutuna I. M. Echaideri, 1950-11-04.

[567] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1950-11-02.

[568] Gipuzkoako Seguran jaiotako Miguel M.ª Zubiaga Imaz (1903-1992) jesuiten eskola euskaltzaleko kide izateaz gain, gerra zibilean frankistek probintzian fusilatutakoei emandako zerbitzu erlijiosoagatik nabarmendu zen. Sermoi baten ondorioz, 1946an Kanarietara deserritu zuten. Frankismoaren aurkako jarrera erresistenteari eutsi zion gero ere. Besteak beste, I. M. Echaidek ere Euskaltzaindiari laguntzeko eskatu zion uneren batean (Etxaide-Itharte 1986: 222; Iztueta 1991: 490-494; Aizpuru & al. 2007: 131-132).

IKER-35.indd 225 2/9/19 10:55

ida, Marqués de Aycinena, M. Ciriquiain, G. Manso de Zúñiga, A. Delaunet, J. Elorza, C. Barcáiztegui, A. Loyarte, R. Mendiola, F. Arocena, A. Arrue, etab. *Hoja del Lunes*ek berrehun pertsona inguru bildu zirela zioen biharamunean, baina urtebete ondoren J. Artechek esandakoaren arabera, hiletan ehun pertsonak «besterik ez» zuten parte hartu, «para vergüenza del país» (*La Voz de España* 1951-11-11).[569]

Urriaren 30eko hiletan Gipuzkoako pertsonalitate ugarik hartu zuen parte berriz ere. Haien artean, hildakoaren biblioteka erosteko asmoa zuen BPDren ordezkaritza zabala bertaratu zen, Erroman zegoen J. Ybarra presidentea izan ezik: H. Bilbao, B. Bureba, W. Bernaola, M. Laita eta D. Areitio. GPDk ere, probintziako ohorezko semearen alargunari dolumin ofizialak ematea erabaki zuen azaroaren 6an (GPD 1951: 177). Euskaltzaindia, ordea, bigarren mailako elkarte absentea izan zen prentsari dagokionez. Gainera, badirudi gaixoaldi luzeak eta tirabira akademikoek aldendu egin zutela hildakoa Akademiatik. V. Olazábal alargunak ez zion Euskaltzaindiaren telegramari erantzun 1951ko martxora arte, R. Olazábal anaiaren heriotzagatik Portugalen zegoela.[570]

J. Urquijo zen Akademiako kide ospetsuena. 1949an, RSVAPek egindako omenaldi handiaz gain, diputazioek «Hijo adoptivo de la Provincia de Guipúzcoa» eta «Hijo Benemérito de Vizcaya» izendatu zuten eta azkenik, Espainiako Gobernuak «Gran Cruz de Alfonso X el Sabio» delakoa eman zion (Ciriquiain-Gaiztarro 1949b; Lacarra 1949). Hil zenean, besteak beste, RAEko kide, RSVAPeko eta Comisión de Monumentos de Guipúzcoa-ko buru edota Conversaciones Católicas Internacionales-en batzorde babesleko kide zen.[571] Hain zuzen, Comisión de Monumentos de Guipúzcoa-k, 1950eko azaroaren 12an, Orfeón Donostiarra-k kantatutako meza antolatu zuen Santa María elizan, eta berriz bildu ziren hiriko indar biziak: A. Elorriaga GPDko presidentea, J. Saldaña alkate falangista, etab. RSVAPek antolatuta, azaroaren 26an, J. Font Donostiako apezpikuak gidatu eta Orfeón Donostiarra-k kantatutako errespontsu meza jendetsua egin zuten Santa

[569] Lehen Mundu Gerrara arte bizitoki izan zuen Donibane Lohizuneko (Pirinio Behereak) hiletan, J. M. Barandiaran eta beste dozena bat lagun bildu ziren, gehienak EAJ-PNV-koak, 1950eko azaroaren 21ean (Barandiaran 2009: 784).

[570] ABA-EUS: V. Olazábalen gutuna R. M. Azkueri, [1951ko martxoa].

[571] KMK-JU: C. Ballester, L. A. Lizasoain eta C. Santamaríaren gutunak J. Urquijori, 1947-07-12, 1947-07-21 & 1947-08-18.

IKER-35.indd 226 2/9/19 10:55

María elizan.[572] J. Urquijoren itzalak babesa eman zion Akademiaren jardunari eta agintari frankistek sari eta ohore ugari eskaini zizkioten hil baino lehenago. V. Olazábal alargunak jasotako doluminen artean, E. Bilbao Gorte frankistetako presidentearena nabarmendu behar da.[573] Real Academia de la Historia-k, halaber, Comisión de Monumentos de Guipúzcoa-ren bidez, atsekabea erakutsi zion familiari.[574] Alargunak eskerrak eman zizkion RAEri doluminengatik eta hildakoaren alde 50 meza agindu zituztelako.[575] RAEko liburuzainak idatzitako nekrologian J. Urquijoren neutraltasun zientifikoa goraipatu zuen, aldi berean abertzaleen autokonplazentziazko ezjakintasuna salatzeko. Ezinezkoa iruditu zitzaion hildakoak euskal filologiaren arloan utzitako hutsunea betetzea (García de Diego 1950).

Erbesteko prentsak ere aitortza egin zion, eta ez zuen kolaborazionismo salaketarik aireratu. Donibane Lohizuneko *Gernika* aldizkarian, A. M. Labayen jeltzalea, ezizenpean, euskal tradizionalismoaz balorazio hau egitera mugatu zen: «Alare esan bearrean gaude karlista izeneko geienak gutxi lagundu ziotela Urkijo'ri euskal jakintza, izate ta eskubideak zaintzen, orain besterik agertu nahi badute ere» (Labayen 1951a). Bestalde, H. Gavelek *Gure Herria*ko hilberrian, gerra zibilean berrogei ahaide galdu zituela adierazi zuenean, J. Garatek protesta egin zuen, kopuruaren gehiegikeriagatik. L. Michelena jeltzaleak hildakoaren leialtasuna nabarmendu zuen CSICen *Emerita*n. Are Bordeleko prentsan ere, Ph. Veyrinek omenezko hitzak izan zituen (*Sud-Ouest* 1950-11-04; 1950-11-11; Arocena 1950; Gavel 1950; Garate 1951; Michelena 2011c: 255-256).

1949ko iraileko dosierrean F. Krutwigek proposatu bezala, Akademiaren erdigunea ekialderantz higitzen ari zen, baina arazo askorekin. 1950. urteko zazpi batzarretatik, bost Donostian izan ziren, bana Baiona-Iruñetan, eta bat ere ez Bilbon. J. Urquijoren heriotzak hutsune handia utzi arren hiriko euskal-

---

572 *El Diario Vasco* 1950-10-29; 1950-10-31; 1950-11-28; *La Gaceta del Norte* 1950-10-29; 1950-10-31; *La Voz de España* 1950-10-29; 1950-10-31; 1950-11-04; 1950-11-28; *ABC* 1950-10-29; *Unidad* 1950-10-29; *Hoja del Lunes*, Donostia, 1950-10-30; 1950-11-13; 1950-11-27; *Herria* 1950-11-09; Príncipe de Viana 1950b: 369, *San Sebastián* 1951-01-20.

573 SAF-AA: E. Bilbao eta V. Olazábalen arteko gutunak, [1951-11-19], DP-1720-02.

574 KMK-JU: Comisión Provincial de Monumentos Históricos y Artísticos de Guipúzcoa-ko idazkariaren ofizioa V. Olazábali, 1950-11-17.

575 RAEren Artxiboa, Julio Urquijoren espediente pertsonala: V. Olazábalen gutuna J. Casaresi, 1950-11-24. CSICeko kide gisa ere, urte horretan hildako beste guztiekin batera, Madrilen meza egin zuten beraren alde 1951ko otsailaren 1ean (*ABC* 1951-01-30).

IKER-35.indd 227 2/9/19 10:55

tzainen artean, Donostiako I. M. Echaide aukeratu zuten buruorde.[576] GPDko agintari frankisten itzalean, I. M. Echaide eta A. Irigaray bikotearen inguruan, eta L. Michelena eta A. M. Labayen urgazleekin batera, indargune berri bat osatzen hasi zen Gipuzkoan. Hala ere, L. Dassanceren sarrera ekitaldia Donostiako udaletxean ospatzeko gobernadore zibilaren debekua uztailean jaso ondoren, guztia zalantzan geratu zen. I. M. Echaidek, urriko batzarrerako deialdia jaso bezain laster, bi telegrama bidali zizkion Bilboko idazkariari. Lehenengoan, izututa, GPDko jauregian batzarrik egitea ezinezko zela adierazi zion. Hurrengoan, baimena Madrilen eskatzea nahitaezkoa zelako, berriz ere ezinezkotzat jo zuen batzarra Donostian egitea.[577]

Uztaileko debekuaren ondoren, I. M. Echaidek gutun luze bat idatzi zion F. Krutwigi adierazteko Donostiako batzarrak handik aurrera beste nonbait egin beharko zirela. I. M. Echaidek aditzera ematen zuen ez zegoela konforme F. Krutwigen jokabidearekin. Izan ere, probintzia jauregiko batzarrak I. M. Echaideren bulegoan egiten ziren, ez berariaz utzitako gelaren batean. 1942an F. Aramburu presidente karlistak emandako baimena ez zen ofizialki berritu, eta Akademiaren Donostiako batzarrak bilera klandestinotzat jotzeko arriskua zegoen. Gobernadore zibilaren debekuaren ondoren, I. M. Echaidek bere burua arriskuan ikusi zuen bulegoaren erabilera ez-ofizialagatik. 1949ko apiriletik GPDko presidente zen Avelino Elorriagari zuzenean baimena eskatzera ere ez zen ausartu, erantzuna ezezkoa izango zelakoan. Kontuan hartu behar da A. Elorriagak kudeatzen zuen ur kontagailu enpresako kide kapitalista izan zela I. M. Echaide 1918-1934 artean, baina utzi egin zuela desadostasun etikoengatik. Gainera, euskaltzain foruzaleak zenbait gorabehera izan zituen GPDko agintariekin, 1949-1950 artean probintziak telefono sarearen eskuduntza behin betiko galdu zuenean (Etxaide-Itharte 1986: 58-59, 122). Batzartoki bat lortzeko, hiru aukera bururatzen zitzaizkion: F. Arocenari San Telmo museoan gela bat eskatzea, I. Lasquibar Buen Pastor-eko erretorearengana jotzea edo I. M. Echaideren Ategorrietako etxean batzarrak egitea. Etsita, batzarrak Hendaian (Pirinio Behereak) egin zitezkeela ere iradoki zion idazkariari.[578] N. Oleaga izutu egin zen I. M. Echaideren mezuekin, baina F. Arocena GPDko artxibozainarengana jo bezain laster, hark ziurtatu zion batzarrak probintzia jauregian egiteko ez zela arazorik egongo.[579]

---

[576] A. Irigaray, halaber, Mundu Gerra amaitu zenean, Hondarribitik Donostiara aldatu zen bizitzera (Irigaray 1985: 22).

[577] ABA-EUS: I. M. Echaideren telegramak N. Oleagari, [1950eko urria].

[578] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1950-10-18.

[579] ABA-EUS: N. Oleagaren gutuna I. M. Echaideri, 1950-10-25.

IKER-35.indd 228 2/9/19 10:55

Donostiako Akademiaren ordezkaritzak eta I. M. Echaide buruordeak har zezaketen erreleboa prestatzen ari ziren. Probintziako agintariekiko harremanean, I. M. Echaide integrista orbangabeak bidea erraz zezakeen: GPDko goi funtzionarioa eta zenbait enpresa kontseiluko kide zen. Abenduko batzarrean, Gipuzkoako CAPek emandako 1.000 pezetako diru laguntzaren berri eman zuten. Areago, A. Irigarayk adierazi zuen GPDri behar bezalako gela bat eskatu behar zitzaiola batzarrak egin eta Akademiaren ordezkaritza izateko (Euskaltzaindia 1982: 16). Bizkaikoak baino abegitsuagoak izan zitezkeen Gipuzkoako instituzio ofizialetara hurbiltzeko saioa ere bazen. Hala iradokitzen du N. Oleaga idazkariak eskuz jaso zuen aktaren zirriborroak. Zirriborroaren arabera, A. Irigarayk Akademiaren argitalpenak eta *BRSVAP* aipatu zituen. Akademiaren agerkari ofiziala argitaratzeko baimenik ezean, RSVAPen bidez egitea proposatu zuela uler dezakegu. Horixe izan zen, hain zuzen, onartutako akta ofizialak jaso ez zuen idazkariaren ohar bakarra.[580]

P. Zamarriparen hutsunea N. Ormaechearekin betetzeko ahaleginak porrot egin ondoren, urteko azken batzarrean beste idazki bat aurkeztu zuten R. M. Azkue, F. Krutwig, J. M. Seminario eta M. Lecuonak sinatuta, aulki hori J. Gorostiaga urgazleak bete zezan.[581] N. Ormaechearekin erabilitako 1920ko araudiko epeen aitzakiarik aipatu gabe, zazpi kidez osatutako batzarrak izendapena onartu egin zuen (Euskaltzaindia 1982: 16). Bata baztertzeko eta bestea onartzeko irizpide nagusia zein izan zen? Ikusi dugunez, J. Gorostiaga elizgizon abertzale engaiatua izan zen.[582] Lapurtera klasikoz F. Krutwigek prestatutako hautagaiaren aurkezpenak ez zuen, noski, gerra zibileko

[580] ABA-EUS: N. Oleagaren aktaren zirriborroa, 1950-12-29. Kontuan har bedi 1950ean *BRSVAP*en artikulu edo iruzkinak argitaratu zituzten akademikoen zerrenda: M. Lecuona, R. Lafon, I. M. Echaide, A. Tovar, L. Michelena, J. A. de Donostia, K. Bouda eta P. Yrizar (cf. Elósegui Irazusta 1970). Gainera, RSVAPen liburu sail berria abiatu zuten. Besteak beste, J. Caroren *Los vascos* (1949), A. Tovarren *La lengua vasca* (1950) edota B. Echegarayren *Derecho foral privado* (1950) argitaratu zituzten. Monografien egileen artean, F. Arocena, J. Arteche, I. M. Barriola, J. Ybarra, J. Orueta, A. Churruca, M. Ciriquian, L. Silván edota A. de Legarda (OFMCap) aurkituko ditugu.

[581] ABA-EUS: R. M. Azkue, M. Lecuona, J. M. Seminario eta F. Krutwigen idazkia Euskaltzaindiari, 1950-09-12.

[582] Euzkadiko «Euskera ta Euskal Elerti Saĺa»ren buru gisa, erbestera jo behar izan zuen 1937an. Hala ere, euskaltzainburuarekin postazko harremana izan zuen eta horrek deduzko izendatuko zutela agindu zion 1941ean. J. Gorostiaga 1943az geroztik Mexikon bizi zen eta erbesteko jeltzaleekin harremanetan jarraitu zuen. *Eusko-Jakintza*ko aholku batzordeko kide zen eta aldizkarian argitaratu zituen «*La semana vasca,* el sistema y los nombres de los días» (1947) edota «Los nombres vasco-ibéricos de metales» (1951) artikuluak (cf. Elósegui Irazusta 1978).

IKER-35.indd 229 2/9/19 10:55

konturik aipatu. Erromako Biblia Institutu Pontifikalean egindako ikasketak, Akademiako lexikografia edota Société de Linguistique de Paris-eko kidetza nabarmendu zituen. Baita ere Mexikoko unibertsitateetan ustez betetako historia, literatura eta linguistika katedrak.[583] Espainian egonaldiak egin zituen eta uste izatekoa da, B. Echegarayren kasuan bezala, bere iragana nolabait ukatuta baino ez zuela lortu Bizkaira itzuli eta euskaltzain izateko baimena. Ondoko urteetan, erbeste/barnealde bitasunari eutsita, *Gernika*n argitaratu zituen artikulu «eusko-iberistak» toponimiaz eta etimologiaz (Gorostiaga 1951a; 1951b; 1951c; etab.).

N. Ormaechearekiko antzekotasunak nabarmenak ziren, biak izan baitziren Errepublikako urgazle aktiboenak eta Euskaltzaindiko enplegatuak; baina J. Gorostiagak ez zituen bestearen izaera zaila eta polemikarako joera eutsiezina. N. Ormaechea, bestalde, literato gisa nabarmentzen zen, eta euskaltzain berria euskararen jatorriaren ikerketan murgilduta zegoen. Baina, batez ere, N. Ormaechea ez bezala, Espainiara berehala itzultzeko prest zegoen, eta Akademiaren zereginetan normaltasunez parte har zezakeen. Izendapenaren jakinarazpena Getxoko jaioterrira bidali zioten biharamunean.[584] F. Krutwigek I. Fagoagari idatzi zionez, izendapenarekin, N. Ormaecheak J. Urquijoren hutsunea betetzeko bidea erraztu nahi zuten (Iztueta & Iztueta 2006: 446).

Euskaltzainen postuak abertzalez betetzeko eta Akademiaren irudia erbesteko kritiken aurrean zuritzeko nahi horretan, F. Krutwigek proposatu zuen Txileko D. de Inzaren (OFMCap) aulkia J. Aguerre urgazleak hartzea.[585] Lehen ikusi dugunez, A. Irigarayk 1949an Iruñean Akademiaren

[583] Kontuan hartuta Mexikon jornalari indigenekin lanean ibili zela Queretaro estatuko nekazari eremu gaizki komunikatuetan, hiriburutik 200 km-ra, ez dirudi egia osoa zitekeenik (SAF-AA: J. Jáuregui-J. Gorostiagaren arteko gutunak, 1944, PNV_NAC_EBB,K.00050,C.2).

[584] ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna J. Gorostiagari, 1950-12-30.

[585] Nafarroako José Aguerreren (1889-1962) kasua berezia zen Akademiaren historian. 1919an hautatutako lehen hamabi euskaltzainetako bat izan zen, R. M. Azkuek itxaropen handia jarri zuelako 30 urteko kazetari abertzalearengan. 1920an bertan, ordea, kargua uztera behartu zuten, enpresak Sevillako ordezkaritzara lan egitera aldatu zuelako. Hain zuzen, D. de Inzak (OFMCap) hartu zuen haren aulkia. Sevillatik 1931n itzuli ondoren, 1934an urgazle izendatu zuten. Besteak beste, *La Voz de Navarra* egunkariaren zuzendari eta EAJ-PNVren Napar-Buru-Batzarreko buru izan zen 1935-1936 artean. Aparatuko gizona zen, eta horregatik izendatu zuten EAJ-PNVren zuzendaritza karguetarako. Publikoki euskal poesiak eta kazeta artikuluak idaztera mugatu arren, hainbat aldiz atxilotu zuten diktadura frankistan. J. Ajuriaguerraren konfiantzazko pertsona zen eta Nafarroako jeltzaleak antolatzen saiatu zen (Chueca 1989; Bidador 2000; Kintana Goiriena 2008).

IKER-35.indd 230 2/9/19 10:55

ordezkaritza bat antolatzeko E. Esparzari aipatu zizkion lagunen artean egon arren, proiektu hori hutsean geratu zen.[586] J. Aguerrerekiko harremana nolabait berreskuratuta, hurrengo urteko lehen batzarrera idazki bat bidali zuen Iruñeko euskarari buruz, baina gero berriz aldendu egin zen (Euskaltzaindia 1982: 17).[587]

4.7. «ORIXE»RI BETOA ETA ERBESTEKO EUSKAL AKADEMIAREN MEHATXUA

1951ko otsailaren 23an GPDko jauregian batzartu ziren zazpi euskaltzain hauek: R. M. Azkue, A. Irigaray, I. M. Echaide, F. Krutwig, M. Lecuona, J. Gorostiaga eta N. Oleaga. Ezin etorria jakinarazi zuen L. Dassancek eta hainbat urgazle berrik esker ona adierazi zuten, gutunez, izendapenagatik.[588] Batzarrean, orobat, A. H. Kelso de Montigny antropologoak AEBetatik bidalitako gutunaren berri eman zuten. Euskara eta protoindoeuroperaren arteko gramatika eta hiztegi konparatiboak gaztelaniaz eta ingelesez argitaratzeko laguntza eskatu zion Akademiari. Haren teoriaren arabera, «benetako» hizkuntza guztiak Europako arraza zuriek sortu zituzten eta Kristo aurreko 5000. urtetik aurrera hedatu ziren mundu guztira. Hori frogatzeko, besteak beste, euskal lexikoa erabiltzen zuen.[589] Euskaltzaindia, nazioarteko biltzar zientifikoetatik baztertuta, horrelako eskaera bitxiak jasotzera mugatzen zen.[590]

Era berean, beste bi urgazle berri izendatu zituzten: L. Villasante eta M. P. Ciganda. Hain zuzen, M.ª Paz Ciganda Ferrer (1890-1966) da Euskal-

---

[586] ABA-EUS: A. Irigarayren gutuna N. Oleagari, 1949-01-10.

[587] Barnealde eta erbesteko EBBren arteko korrespondentzian, J. Aguerre «Oyanbe» ezizenarekin agertzen da, eta M. Irujok, A. Campiónen oinordekotzat jota, 1953an galdetzen zion artean euskaltzain ote zen (SAF-AA: M. Irujoren gutuna J. Aguerreri, 1953-06-09, PNV_NAC_EBB,K.00377,C.1)

[588] K. Bouda, B. Fagoaga, J. Azcárate, A. M. Labayen, D. Dufau, P. Larzabal, P. Guilsou eta M. Arruza (Euskaltzaindia 1982: 17)

[589] Ezinbestean, *Word* aldizkari ospetsura artikulua bidali zuenean atzera bota zioten eta bere kasa argitaratu behar izan zuen, liburuxkan azaldu zuenez: *How did language originate?* (1949).

[590] Havanako Unibertsitatean irakasle zen A. H. Kelso de Montigny-k P. Lafitteren bidez lortu zuen Bilboko egoitzaren helbidea, eta R. M. Azkueren *Diccionario vasco-español-francés*en ale bat lortzeko interes handia zuen bere ikerketekin jarraitzeko (ABA-EUS: A. H. Kelso de Montignyren gutuna R. M. Azkueri, 1951-01-08).

IKER-35.indd 231 2/9/19 10:55

tzaindiak historian akademiko («correspondiente» baino ez) hautatu zuen lehendabiziko emakumea, Nafarroa frankistan izan zezakeen gizarte eraginagatik A. Irigarayk iradokia.[591] Luis Villasante (OFM) teologian doktorea eta Arantzazuko santutegiko irakaslea, F. Krutwigek bere eraginpeko kideak izendatzeko ahaleginaren beste kasu bat zen. Lapurtera klasikoz idatzitako hautagaitzaren aurkezpena, euskaltzain bati zegokion formalitatearekin, R. M. Azkue, F. Krutwig, J. Gorostiaga, M. Arruza eta B. M. Garrok sinatu zuten.[592] Euskaltzainburuak jakinarazpena martxoaren 6an bidali zion Oñatira.[593]

Aste Santua igarota, apirilaren 3an, erantzun zion L. Villasantek lapurtera klasikoz: «Beraz, Jainko lagun, gure hizkuntza maitearen alde ahal dudan lan guzia egiten saiaturen naizela aithortu ta agindu beharrean aurkhitzen naiz».[594] F. Krutwigek, «Eusko Philologia. Euskararen Gramatikako oría» izeneko lana irakurri ez ezik, Ameriketako N. Ormaechearen hautagaitzaren auzia ere eraman zuen batzarrera, baina geroratzeko erabakiari eutsi zitzaion: «Krutwig jaunak gogoratzen dau Nikolas Ormaetxea (Orixe), euskaltzaintzat eskiñita dagoala, ta itauntzen dau beronezaz ezer erabagiko dan. Jaun ori kanpotik dagoala ta arazo au bego bein» (Euskaltzaindia 1982: 17).[595]

Nicolás Ormaecheari (1888-1961) jarritako betoak *Euzko-Gogoa*ren erantzuna jaso zuen 1951ko lehen zenbakian, Euskaltzaindiaren aurka egindako eraso betearekin. Editorial moduko artikuluan, Guatemalako aldizkariak Akademia alternatibo bat sortzea proposatu zien erbesteko euskal idazleei, *Euzko-Gogoa* agerkari ofizialtzat hartuta. Egoitza Bilbon zuen Akademiaren menpekotasun politiko frankista salatu zuten, eta horrekin lotu, adibidez, arau ortografikoen auzia. Barnealdeko Akademiatik, soilik R. M. Azkue eta M. Lecuona elizgizonak onartzen zituzten: «Beste gaiñeroako oiek ba ba-doazke etorri diran bidetik» (Euzko-Gogoa 1951). Gerraondoan izendatutakoen ukazio erabatekoan, hainbat abertzale proposatu zituzten euskaltzain izateko, gehienak erbestekoak: J. C. Ibarguchi, G. Manterola, A.

[591] ABA-EUS: A. Irigarayren gutuna N. Oleagari, 1949-01-10. Garaiko erabakien ziurtasunik ezaren ondorioz, handik bost urtera M. P. Ciganda berriz izendatu zuten urgazle badaezpada (ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna M. P. Cigandari, 1954-07-08).

[592] ABA-EUS: F. Krutwigen aurkezpena Euskaltzaindiari, 1951-02-10.

[593] ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna L. Villasanteri, 1951-03-06.

[594] ABA-EUS: L. Villasanteren gutuna R. M. Azkueri, 1951-04-03.

[595] Ez dago akta horren gaztelaniazko bertsiorik (ABA-EUS: Euskaltzaindiaren akten kopia mekanografiatu ofiziala, 1951-02-23).

IKER-35.indd 232 2/9/19 10:55

Urrutia, I. López Mendizábal, D. de Inza, J. Aguerre eta J. Moulier. 1950eko urrian izendatutako urgazle zerrenda luzeari ez ikusiarena egin, eta beste urgazle batzuk ere proposatu zituzten, Akademiaren omisioak agerian utzi nahian.[596] Norgehiagoka horren aurrean, ulergarria da euskaltzainak oso minduta agertu eta N. Ormaechearen izendapena ez onartzea. F. Krutwigek I. Fagoagari idatzi zionaren arabera, A. Irigaray otsaileko batzarrean isilik egon zen, eta I. M. Echaide izan zen eragozpena berritu zuena (Iztueta & Iztueta 2006: 447).

Editorialean, Pauen erbesteratuta zegoen S. Altube euskaltzaina ez zuten aipatu ere egin, N. Ormaecheak J. M. Mocoroari 1951ko martxoan idatzi zionez, S. Altube Akademiatik «atera» egin zelako (Iztueta & Iztueta 2006: 225). Euskaltzainari, ordea, omisioak min handia eman eta eztabaidan parte hartzeari uko egin zion, J. Zaiteguiri iraileko gutunean adierazi zionez:

> ¿«Euzko-Gogoa»k ezterizkiola euskaltzainditzarako duin naizenik? Horren kontra ez naiz kejatzen: ola uste badu, ongi egin du jakin araztea.
>
> ¿Ordea, ni euskaltzain zaarra nintzala «aztu» egin zaiola? Ori neretzat mingarriago litzake. Eta «Euzko-Gogoa»rentzat lotsagarriago, zeren-eta Euskaltzaindiaz itz egiteko eskubide aundirik ezpailuke, baldin, mundu guziak (txarrerako edo onerako) edo-noiz ago-miñetan darabilen euskal-zain apal onen izena, orren errez eta iñoizkorik gutxien bear zukean garaian ola aztutzen balizaio.
>
> Guziorixe bururatu zitzaidan «Euzko-Gogoa»ren zer ori irakurtzean. Baiña zure karta maitagarria ikusita, autu orrezaz zuk zerorrek eztukezula erru aundirik iruditzen zait: idazleren batek igorri dizu, noski, idazlan ura, eta zuk, arreta geiegiko gabe, argitaratu dezu.
>
> Dana-dala, enuke nai, ez autu ortaz, ez eta Euskaltzaindi-aldatze orreri dagokion ezertzaz, nere izenik ezetarako ere «Euzko-Gogoa»n aitatzerik. Baldin idazleren batek bial dizaizun izenen artean, nere izen ori aurki badezazu ere borratu mesedez, onelako arazoetan gauzai iraiñago ta txarrago izan oi baita (Iztueta & Diaz 2007b: 261-262)

[596] M. Arruza, A. Ibinagabeitia, C. Jemein, A. Zatarain, J. Echaide, M. Gallastegui «Ereño», J. Diharce «Iratzeder», E. Argarate, T. Monzon, Txekoslovakiako N. Tauer eta Poloniako J. Z. Mish.

IKER-35.indd 233 2/9/19 10:55

Irudia 12. **Antonio Valverde, Manuel Lecuona, Nicolás Ormaechea, Antonio M.ª Labayen, José Arteche eta José Aguerre (Olaberria, 1955-05-03)**

© argazkiarena: Aranzadi Zientzia Elkartea (Jesús Elósegui Irazusta funtsa).

*Gernika*ko zuzendariaren bidez, F. Krutwigek N. Ormaecheari hautagaitzak izandako oztopoen berri eman eta ez etsitzeko eskatu zion. N. Ormaecheak 1951ko apirilaren 7an erantzun zion uko egiten ziola euskaltzain izateari, baina bere ordez J. Zaitegui proposatu zuen. Era horretan Akademia eta *Euzko-Gogoa*ren arteko istilua baretuko zuten: «Este nombramiento obligaría moralmente a nuestro Director a estar en buena armonía con ustedes, y ustedes evitarían a su vez el quedar posiblemente en un plano inferior al que les corresponde» (Iztueta & Iztueta 2006: 233). F. Krutwig egundoko ahaleginak egiten ari zen bere irudia zaindu eta erbestekoen aurrean etorkizun oparoko euskaltzain kementsu gisa agertzeko. I. Fagoagak honela deskribatu zion L. Villasanteri 1951ko otsailean: «En verdad, el amigo Krutwig es nuestro Ángel guardián. Cuánta abnegación, cuánta actividad y qué admirable espíritu proselitista!».[597] F. Krutwigen bidez, esaterako, Euskaltzaindiak 1951n abiatu zituen Baionako *Gure Herria* eta Donibane Lohizuneko *Gernika* aldizkarien

[597] ABA-EUS: I. Fagoagaren gutuna L. Villasanteri, 1951-02-13.

IKER-35.indd 234 2/9/19 10:55

harpidetzak.[598] I. Fagoagari 1950eko azaroan idatzitako gutunean, F. Krutwigek berak bere posizio politiko antitotalitario orbangabea deskribatu nahi izan zion, nazionalismoen gaineko ustezko talaiatik idatzia:

> Sigo creyendo que su revista sigue teniendo gran público aquí. Los politiqueros, sean del bando que sean son jentucilla intratable, y los politiqueros falangistas son estúpidamente fanáticos, y en este punto de cortedad y ceguedad no se diferencian nada de los comunistas; son comunistas azules, tan intolerantes y obcecados los unos como los otros. El chauvinismo castellanizante que inspira a los cabe[c]illas y jefecillos falangistas es de una ridiculez tan extrema como su hermana la caricatura comunista. Simplemente el hecho de llamarse su revista «Gernika», ciudad que como todo el mundo lo sabe fue destruida por la aviación nazi, les haría inadmisible el que publicasen aquí... No se paran a pensar si su revista tiende a apaciguar los ánimos y es un órgano de humanismo y convivencia (Iztueta & Iztueta 2006: 446).

N. Ormaecheak 1951ko otsailaren 24an idazlan oso gogorra idatzi zuen, *Gernika*n argitaratzeko asmoarekin. Bertan F. Krutwig eta haren sokakoei «ustedes los hermanitos fascistas» deitzen zien (Iztueta & Iztueta 2006: 539). Artikulua ez argitaratzea I. Fagoaga zuzendariari zor zaio, artean F. Krutwigen zintzotasunean guztiz sinisten zuelako. Nafarroako tenore ohiak N. Ormaecheari apirilean idatzi zion artikulua zentsuratzeko arrazoiak azaldu eta euskaltzain gaztearen defentsa egiteko:

> ¡Es tan joven, dinámico y confiado! Ya se le pasará este sarampión que no le deja resollar a medida que pase el tiempo y le caigan los estacazos. Y a propósito de juventud, ¿cómo pudo usted suponer que fuera falangista? Al estallido de la guerra civil no era más que un mozalbete y más tarde, que yo sepa, nunca se ha ocupado de política. Esa ha sido otra calumnia. Sabe usted que, nada más que en Bilbao, nos ha conseguido 100 suscriptores? ¿Y que va a la caza de los 200? Me refiero a nuestra revista (Iztueta & Iztueta 2006: 451).

I. Fagoaga bitartekari zela, Espainia eta El Salvador artean hainbat gutun gurutzatu zituzten 1951ko apiril-ekainetan F. Krutwig eta N. Ormaecheak, Akademiaren gerraondoko berrantolatzea xeheki azaldu eta euskaltzain izateko hautagaitza prestatzen saiatzeko. Baina N. Ormaechearen ezezkoa atzeraezinezkoa zen, eta F. Krutwigek onartu behar izan zuen hura kentzea. F. Krutwigek *Gernika*n 1951n argitaratu zituen artikuluak nazkagarriak iruditu

[598] ABA-EUS: I. Fagoagaren, F. Krutwigen eta M. Bernaolaren ordainagiriak, [1951], 1951-02-03 & 1951-11-20.

IKER-35.indd 235 2/9/19 10:55

zitzaizkion N. Ormaecheari. Alde batetik, erabiltzen zuen eredu linguistiko arrotz eta artifizialagatik, baina batez ere hedatzen zuen ideologia antinazionalista eta liberalismo ateoagatik. Abertzaleak modu iraingarrian erreakzionario ezjakinekin parekatu zituenean, A. M. Labayen edota N. Ormaechea sutu egin ziren (Ormaetxea 1991b: 917-920). Bestalde, erabatekoa zen N. Ormaecheak P. Lafitte eta A. Irigarayrekiko zuen ezinikusia, betoa jarri omen ziotelako:

> En cuanto a mi candidatura, no hace falta que me nombren de Número, pues mientras no me dé de baja como Correspondiente —y me tendré que dar si se funda otra [Academia], para ser neutral—, y si sigo colaborando cuando reviva el Boletín «Euskera»u otro similar, cumplo igualmente. Ni entraría yo nunca al salón de sesiones, porque sería un espantapájaros para esos pájaros. Además, como la Academia disidente aludida querrá fundarse alrededor de mi persona y siendo yo Presidente, puedo esgrimir como argumento fuerte para no serlo, el haber rechazado la entrada en esa. Yo fundaré mi Academia a la cual perteneceré yo solito (Iztueta & Iztueta 2006: 243).

Ez zuen inolaz ere horrelako kideak zituen korporazio bateko parte izan nahi. Lehenago J. Zaitegui bezala, Justo M.ª Mocoroa (1901-1990) apaiza («Orixe»ren mireslea) ere iruditzen zitzaion ordezko egokia, baina hori ere gerra zibilean egoera oso larrian egon zen, eta ez zuen ezer jakin nahi Euskaltzaindi berrituaz (cf. Gamboa & Larronde 2005: 98-115). N. Ormaecheak R. M. Azkue eta N. Oleagari soilik erakusten zien begirunea, azken horrek bere hautagaitza babestu omen zuelako. Are S. Altube ere barregarri uzten zuen, nagusiki gaztelaniaz idazten zuelako. Gainera, erbesteko idazleekin Akademia alternatibo bat sortzearekin mehatxu egiten zuten, *Euzko-Gogoa*ren inguruan, Frantzia eta Ameriketako euskal idazleekin. J. Zaiteguiri 1951ko maiatzean esaten zionez: «Gure Aldizkari au asko ari da irabazten, eta berelaxe, besterik egin gabe, itzaliaziko dugu Akademi berripurdi ori» (Iztueta & Diaz 2007b: 230). Destainaz eman zion amaiera F. Krutwigekiko harremanari 1951ko ekainean: «Si alguna vez advierte V. que el orbe terráqueo va a desquiciarse y cree que yo puedo evitarlo escríbame corriendo y haré lo que pueda» (Iztueta & Iztueta 2006: 251). F. Krutwig harroak ez zion inoiz erdeinua barkatu.[599]

[599] «Y respecto a Ormaetxea autor de *Euskaldunak*, he dicho una vez que este individuo es un mamarracho y cuanto más se me cuenta sobre él tan sólo sirve para afianzar mi opinión. Vayan pues hay unas pruebas del vasquismo de Orixe: El Sr. Ormaetxea que vivió en Bidarray donde solamente se habla vascuence, hablaba con los aldeanos de esta población… no en euskara, ni siquiera en francés, que nunca llegó a saber, sino en castellano […] Ahora bien lo que pasa, es que en ambientes vasquistas, se hizo tanta propaganda por el *Euskaldunak* que cuando

IKER-35.indd 236 2/9/19 10:55

A. M. Labayen urgazleak bakegile lanak egin behar izan zituen 1951ko abuztuan, *Euzko-Gogoa*ko zuzendariak konfrontazio asmoak bazter zitzan:

> Ontaz iritzia galdetzen dida[z]un ezkero, egi-egitan, zuen azken asmo ori gaizki derizkiotela esan bear dizut. Nere ustez garrantzi geiegi eman diozute Eusk, Z. dalako berritzeari. Zoritxarrez elkarte ori utsarren urrengo, ez du ez diru, ez kemen ez baimen ezer egiteko. Euskaltzein berriak ez dabiltz fede txarrez. Norbaitek Kr[utwig] J. esate baterako asmo okerren batzuek agertu ba'ditu on da erantzutea. Orixe'k egin dio —nik ere bai—; baiñan ortika[n] aurrera asarretzeak ez du balio. Bego bada Euskaltzaindi ta izan gaitean biotz zabal ez alperrik astintzeko. Emen euskaltasuna erdi ilik dagonean edo etsaiez eta zabarkeriz itota ez dago ondo gure artean eztabaida zitalez bazterrak nastutzea. Elkarri amore eman ta jarrai zagun lan egiñez bakoitzak al dugun giñoan. Iñoiz gauzak zuzentzen diranean, ezpairik gabe ez dizute iñork ukatuko garaipena. Au da biotz biotzez egiten dizudan aitormena. E. G. irukoa: alegia: Orixe, Andima ta Zu izango garaile nabarmenak (Iztueta & Diaz 2007b: 255).

EAJ-PNVko J. Rezolari ere Akademia alternatiboaz iritzia galdetu zion A. Ibinagabeitiak Paristik Ziburura (Pirinio Behereak).[600] Paperezko gerrak ziren horiek, *Euzko-Gogoa*, Guatemalatik, ez zen mundu mailako euskal idazleen Akademia alternatibo bat koordinatzeko gauza. N. Echániz apaizak ere, Euskaltzaindiari aurka ez egitea aholkatu zion J. Zaiteguiri 1951ko irailean, eta, Akademia paralelo baten ordez, idazle elkarte bat sortzea zitekeela egokiena, euskararen erabilerak berak ematen zuelako nagusitasun morala hizkuntzaren gizarte auzian. Hain zuzen, barnealdeko euskalgintzari egindako presio politikoarekin jarraituta, *Euzko-Gogoa*k 1951ko uztailean PEN Euskal Bilkura («Poets, Essayists, Novelists») delakoa Parisen sortu izanaren berri eman zuen.[601] Baina erbesteko beste proiektu batzuekin gertatu bezala, zuzendaritza nominala zen, propagandarako tresna. Elkartearen ardura osoa A. Ibinagabeitiak zeraman eta, PEN Euskal Bilkuraren bidez, euskal argitalpenen berri frantsesez ematera mugatu zen (Iztueta & Diaz 2007b: 253, 265-266, 279-280). Zenbaki

salió a luz hubo que seguir con el mito, y ahora nadie se atreve a decir la verdad, que es un tomo de versolarismo» (Eusko Ikaskuntzaren Artxiboa, Manuel Irujo funtsa: F. Krutwigen gutuna M. Irujori, 1961-02-20/21)

[600] ABA-AIB: A. Ibinagabeitiaren gutuna J. Rezolari, 1951-07-17.

[601] Taldeko kideen artean, besteak beste, hauek zeuden: S. Altube, H. Gavel, I. López Mendizábal, P. Lafitte, N. Ormaechea edota J. Zaitegui. EAJ-PNVrekin zuen identifikazioa argiago geratu zen PEN Euskal Bilkuraren 1951ko abenduko aktan kide hauek ere agertu zirenean: F. J. Landáburu, M. Irujo eta M. de la Sota (Ibinagabeitia 1951; 1952b).

IKER-35.indd 237 2/9/19 10:55

berean, gerra zibilean frantziskotarrek *Aránzazu* aldizkarian militar kolpisten alde idatzitako gehiegikeriak salatu zituzten (Ormaetxea 1991a: 736).[602]

Dena dela, F. Krutwigen asmoei oposizioa erbestetik ez ezik, barnealdetik ere egin zieten. A. M. Labayen urgazlea, ezizenpean, Donostiako *Egan* aldizkarian, gipuzkera osotuaren alde eta Bilboko euskaltzainaren aurka agertu zen: «Euskeraren batasuna aitzeki artuaz sasi-izkera mordollo, itsusi ta antzu bat kaska-ezurretik erdira digu. Eta ori ezin genezake iñolaz ontzat eman, ez aintzakotzat artu» (Labayen 1951b: 9-10). Hain zuzen, A. M. Labayen jeltzaleak, L. Michelenak literatura aldizkariko aurreko zenbakian agertutako «Euskal-literaturaren etorkizuna» artikulua goraipatu zuen, euskaltasuna kontzientzia modernoarekin sinkronizatzen zuelako, hizkera artifizial batera jo beharrik gabe:

> Eta euskera biziko baldin ba'da —ta gure aurrekoena ez-baña geure izaera benetan azalduko baldin ba'dugu—, gure errietako biziera naasia euskeraz jarri bear nai-ta-ez: gaurko eziñegona, bizi-bearra ta ezin-bizia, aundinaia, diru-gosea, maitasun-gorrotoak, gaurko gizonen ametsak, zuur edo zoro; ezerezaren gau beltzean —iltzeko sortua—, nondik datorren ta zertarako den ez dakienak daraman uskeriazko ibillera galdua ta bera baño goragoko zerbaiten alde gizona bere buruari uko egitera beartzen duen indar ezkutua (Michelena 1951: 20).[603]

Bi idazlanok berritasun handiak ziren RSVAPen *Egan*en ordura arteko historian, literatura hutsa alde batera utzi eta euskararen gizarte egoera hizpide zutelako. Zeharka, XX. mendean literatura abertzaleak izandako loraldia ukatzea leporatzen zioten F. Krutwigi. L. Michelenaren hitzetan ikus dezakegu, hain zuzen, nolako antza hartzen zioten abertzaleek orduko F. Krutwigi: «Procedía de un medio absolutamente extraño. No era nacionalista y era mirado como sospechoso, pero no de marxista-leninista, sino de franquista» (Ibarzabal 2001: 158). Errepublikako idazle abertzaleen oinordeko agertzen zen L. Michelena, baina aldi berean existentzialismo berritu baten iragarle gisa, ordura arte literaturan nagusi izandako moralismoa baztertuta. Gainera, erabiltzen zuen nafar kutsuko gipuzkera landua, etorkizunean gauzatuko zen estandarraren oinarri dialektala izan zen (cf. Zuazo Zelaieta 1988: 370-

[602] J. M. Barandiaranek zuzentzen zuen *Eusko-Jakintza*ren jarrera, adibidez, ez zen hain liskartsua izan, eta pozik onartu zituzten Arantzazutik bidaltzen zitzaizkien argitalpenak (ABA-EUS: J. M. Barandiaranen gutunak L. Villasanteri, 1951-09-17 & 1951-10-01).

[603] Kontuz ibili behar da, euskararen estandarizazioaren historia egitean, L. Michelenaren euskal idazlanak morfologiko-ortografikoki eguneratu egin direlako hurrengo edizioetan (cf. Michelena 2011f: 79).

IKER-35.indd 238 2/9/19 10:55

373).[604] Dena dela, badirudi *Egan*en zenbaki horiek ez zirela 1952ko udaberrira arte zabaldu, F. Krutwigen aurkako erasoak areagotu ez ezik, L. Michelena RSVAPen aldizkari literarioan nahiz Euskaltzaindian bertan ardura handiagoak hartzear zenean.[605] Hain zuzen, L. Michelenak garai horretan gipuzkera literarioaren gramatika bat egiteko asmoa izan zuen, bereziki sintaxia aztertuz.[606] Hizkuntza ereduaz beste, bi ikuspegi soziolinguistikok egiten zuten talka argi eta garbi. F. Krutwigi, bere maximoen programa idealistan, gizarte euskaldunaren egoera erreala eta abertzaletasunaren ekarpen historikoa aintzat ez hartzea leporatzen zioten. Posibilismoari esker, besterik ezean, azken bi urteetan Gipuzkoan hainbat egile abertzaleren euskal liburuak argitaratzea lortzen ari ziren Itxaropenaren edota frantziskotarren bidez.

4.8. JUAN GOROSTIAGAREN SARRERA EKITALDIA (BILBO, 1951-04-28)

Akademiaren jardunari gizartean agerikotasuna emateko saioekin jarraituta, J. Gorostiaga euskaltzain berriaren sarrera ekitaldia ospatzea zen hurrengo urratsa. L. Dassanceren sarrera Donostiako udaletxean egiteko azken unean jasotako debekuaren ondoren, kontu handiz ibili behar zuten. Apirilaren 14an N. Oleaga idazkariak baimena eskatu zion Hezkuntza Nazionaleko ministerioaren Bizkaiko delegazioari, ekitaldia Bilboko udaletxean egiteko. Bernardo Bureba ministerioaren ordezkari, diputatu eta *Hierro* egunkariko zuzendariak baiezkoa eman zuen.[607] Data berean, Bizkaiko poliziaburuari idatzi zion idazkariak, xehetasun guztiak eman, ekitaldirako baimena eskatu eta gonbita luzatzeko.[608] Joaquín Caruncho poliziaburuak ere baiezkoa eman zuen.[609]

Bilboko udaletxean, R. M. Azkue, B. Echegaray, A. Irigaray, I. M. Echaide, F. Krutwig, J. Gorostiaga eta N. Oleaga euskaltzainak batzartu ziren apirilaren 28an. Kostata, baina zazpi kideko kopuru duina biltzea lortu zuten ekitaldi publikorako, Frantziakorik gerturatu ez arren. I. M. Echaide buruordeak idazkariari telegramaz eta gutunez jakinarazi zizkion Donostiatik garaiz

[604] Hala ere, F. Krutwigek aldezten zuen lapurtera arkaistak, ortografia estandarrean izan zuen eraginik (Michelena 2011c: 16-18).

[605] ABA-AIB: A. M. Labayenen gutunak A. Ibinagabeitiari, 1952-03-06 & 1952-05-25.

[606] CCG-RP: L. Michelenaren gutuna R. Piñeirori, 1952-06-17.

[607] ABA-EUS: B. Burebaren ofizioa N. Oleagari, 1951-04-16.

[608] ABA-EUS: N. Oleagaren gutuna J. Carunchori, 1951-04-14.

[609] ABA-EUS: J. Carunchoren ofizioa N. Oleagari, 1951-04-18.

IKER-35.indd 239 2/9/19 10:55

iristeko zailtasunak, baina N. Oleagak Akademiaren irudia zaintzeko beharra gogorarazi zion:

> Me hago perfecto cargo de dichos motivos y sería muy de lamentar su ausencia, al igual que la de otros académicos de esa y aún más lejanas zonas, por cuanto que si, como es de temer, se va a celebrar dicha sesión con la sola presencia de los Srs. Azcue, Krutwig y yo, que somos los únicos hoy estantes en Bilbao, habrá de resultar muy deslucida y desairada, en primer lugar para el recipiendario y en último término incluso también para la misma Academia, que ante el público y representaciones que asistan aparecerá moribunda y sin preocupaciones por sus propios fines.[610]

Ahalegin handia eginda, Madrildik etorri zen B. Echegaray, EGLZ-DCEko goi karguetan lankide izandako euskaltzain berriari sostengua emateko. Harremana berreskuratuta, besteak beste, *BRSVAP*era artikuluak bidaltzen hasi zen.[611] Gainera, G. Manterola, M. Arruza, B. M. Garro eta L. Villasante urgazleak bertaratu ziren, lehenengo hirurak EGLZ-DCEn arritutakoak ere. Ezin etorria adierazi zuten M. Lecuona euskaltzainak, Suitzako J. Jud eta Paueko J. Larrasquet urgazleek eta M. Gortari Iruñeko alkateak (Euskaltzaindia 1982: 18). Aktak ez adierazi arren, Frantziako kontsulak ere ezin etorria adierazi zuen.[612]

J. Gorostiagak «Bizkaiko edestia toki-izenen bidez» izeneko sarrera hitzaldia irakurri zuen. Kasu honetan ere, sarrera hitzaldia ez zen Akademiaren agerkari ofizialean argitaratu, baizik eta Guatemalako *Euzko-Gogoa*n «Bizkai zaharreko izenak» izenburuarekin. J. Gorostiaga toponimiaren bidez Bizkaiko historia ikertzen ari zen. Euskarazko, zeltazko eta latinezko leku izenak sailkatu eta kronologikoki azaldu zituen.[613] Euskal Herriko toponimia ere beste gudu zelai politiko bat zen. J. Gorostiaga abertzaleen arteko salbuespena zen, indoeuropar arrastoari ematen zion garrantziagatik. J. Carok ere latinaren eragina nabarmendu zuen 1940ko hamarkadako lanetan. Nafarroako ikerlariaren ikuspegi orekatua, aldiz, muturrera eraman zuten gaitasun gutxiagoko beste ikertzaile batzuek, hala nola M.ª Luisa Guazak, Bilboko Udalak argita-

---

[610] ABA-EUS: N. Oleagaren gutuna I. M. Echaideri, 1951-04-24.

[611] KMK: B. Echegarayren gutuna L. Michelenari, 1951-12-30. Gutun horrekin euskarazko idazlan bat ere bidali zuen, baina badirudi ez zela argitaratu.

[612] ABA-EUS: R. Chaulet-en gutuna N. Oleagari, 1951-04-27.

[613] J. Urquijo zenak «Urtzi, Dios» (1934) artikulua argitaratu zion *RIEV*en eta, J. Garatek zioenez, honela deskribatu zuen haren hizkuntzalari gaitasuna: «tenía erudición romana, pero poca elaboración personal» (KMK-JU: J. Garateren gutuna J. Urquijori, 1948-10-23).

IKER-35.indd 240 2/9/19 10:55

ratutako *La toponimia Romana en Vizcaya* (1952) doktorego tesian. J. Gorostiagak hitzaldia bizkaieraz eman zuen, baina F. Krutwigen eraginpean, lapurtera klasikoz prestatu zuten argitaratzeko bertsioa (Gorostiaga 1952a).[614] Guatemalako aldizkariaren 1952ko maiatzeko zenbakian agertu arren, J. Zaitegui lanez gainezka zegoelako, zenbaki hori ez zen 1953 arte argitaratu.[615]

N. Oleagaren erantzun hitzaldia interesgarriagoa da, erreklamazio tonu nabarmena izan zuelako. Seguru asko horregatik ez zen inon argitaratu. Bi hizlariak Bizkaiko gune erdaldunduetan jaioak izan arren, euskaldun jantziak izatera iritsi ziren. Euskaltzaindiaren historia eta euskaltzain berriaren ezaugarriak aipatu zituen idazkariak, kasu bietan gerra zibileko gai ezerosoenak saihestuta. J. Gorostiagaren ikerketa filologikorako gaitasuna gorabehera, Akademiari dagokionez, gerra zibilaren ondorioz galdutako «yagoleen» saila berreskuratzeaz jardun zuen idazkariak. Bilbon ez ezik, Bizkaiko herri guztietan ere euskarak zeraman atzerakada nabarmenak kezkatzen zuen. Bide horretatik jarraituta, hizkuntzarik gabeko Akademia bihurtzeko arriskuan zegoen Euskaltzaindia:

> Oŕegaitik, geroago, Euskaltzaindia sortuta bear zanez atondu zanean, bere Araudian egoki-egoki igaŕi eban asmo au, bere elburua «izkeraketz eta gizarteketz, euskera ayolaz landu ta yagoten zain egotea», zala, lenengo arauan esanaz, eta bigaŕen arauan, oŕetarako sail bitan bereizturik euskaltzainak euren arloan iñardu bear ebela ebatzirik: bata, iker-saila, euskera yakituri bidez aztertzeko, euskal itzen aotz, ikur, ogutz, tankera ta alkar yokera ikusiz, eliztiaren arauak arakatuz, euskal itz oro bildu, soildu eta ikur aldegotz moltzoturik; bestea, yagole saila, euskerea edozelako bizipide ta gizartekoetan azkar ta garbi eutsi ta zabaltzean ta euskal idazkuntza agerbide orotan bizkortzearren arduraz ekiteko.
>
> Egia esatean, aitaturiko araudizko sail bi oŕetatik lenengoak bere arloari azkar eta ederto ekin dautso. Ezin esan lei, benetan, beste oŕenbeste bigaŕen sailari buruz.
>
> Eta baleiteke (obeto esan lei badala) bigaŕen sailaren ardurea, gaŕantzi aundiagokoa, premia estuagokoa dala, lenengoarena baño.
>
> Ederto dau, euskerea yakituri bidez aztertzea; euskerea non, noz, zelan sortu zan, bere yatorria beste berbakuntzaren baten eta baietzean zeinetan dagoan, zeintzuk direan eta zelakoak munduko beste berbakuntza guztiekaz ta bakoitzagaz euskereak daukazan antz edo bardintasun ala bardin getasunak, gizalditik gizaldira izan dabezan aldakuntzak, zeintzuk eta zergaitik izan direan, aldakuntza

[614] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-10-08.

[615] Gainera, Bizkaiko FET-JONSen *Zumárraga* urtekarian agertu zen sarrera hitzaldiaren gaztelaniazko adaptaziotzat jo daitekeen «Toponimia de Vizcaya» (1954) artikulua.

IKER-35.indd 241 2/9/19 10:55

oŕeik egokiak ala ganorabakoak ete direan, onetan, oŕetan ala aretan oker dagoela ta onelan oŕelan edo alan arteztu bear litekela ta abar ta abar, guzti oŕeik yakitea, benetan onuratsu ta obarigaŕizkoa da. Baña artean, euskerea geldi-geldika, arinarinka ezpada, ba-yoaku, ta bildur izan gaitekez geu konturatu orduko arean barik aurkituko ez ete-garean.

Deustuaŕa zara, Gorostiaga euskaltzainkide maite ori, ta zeure yayoteŕi oŕeri begiratuaz soil-soilik, ikusi zengike egi-egia dala au. Deustun, zure auŕetikoak euskeraz berba egiten eben. Zure aldikoak, zeulango banakoren bat izan ezik, iñok bere ez. Eta ori ez bakaŕik ibaŕean, goyeŕin bertan be beste oŕenbeste dakusgu-ta.

Eta Deustun lez, Algorta zure oraingo bizitokian eta Gaminizen, eta Mungian, eta Mundakan, eta Gernikan, eta Zoŕontzan, eta Durangon, eta Billaron eta Udaŕiagan eta Orozkon.

Eta Bizkaian lez, Gipuzkoan, eta Araban, eta Napaŕoan eta Bidasoz ta Auñamendiz arantzako eŕi asko ta askotan...

Aŕese-Beitia, Otxandioko bersolari azkaŕak, orain irurogeta amar urte dirala, euskerea galduaz yoiala ikusirik, Elizondoko euskalyaietan sortutako bertso edeŕetan, biotz-minduz, «Ama euskereari azken aguŕak!» itun-itun egiten baeutzazan ¿zeintzuk izango zirean bere negaŕak gaurko egun erostagaŕi oneetan?

¿Zertarako, ba izango yaku gure euskera yakituri guztia, Euskaleŕia euskera barik, au da, bere izen bage, geratuten ba-yaku? Euskerearen aztarna, arau, ta zertzeladak ezagutzea, arakatzea, erkatzea ta zeaztutea baño obea ¿ez ete litzakegu Euskaleŕi guztian ta guztiok euskeraz, euskera mordoloz baño ezpada be, ekitea?

Dakiogun bada, elburu oneri, euskera-yakintzea itxi barik bada be, baña dakiogun sutsu, bizkor, eta batez bere arin, leia andiko arazoa da-ta. ¿Zelan? Ezta eŕeza itaun oneri erantzutea. Ganera, eztira une ta toki onexek berau aztertu ta azaltzeko egokienak. Beioa ba, arazo ori, Euskaltzaindiaren lepora, berak, euskaltzaleen laguntasunagaz, dagokon ondorea emango dautso-ta.[616]

*La Gaceta del Norte*k egunean bertan iragarri zuen sarrera ekitaldia eta biharamunean Bilboko prentsak ekitaldiaren berri laburra eman zuen, edukietan sakondu gabe.[617] B. Bureba zuzendari zuen Movimiento Nacional-aren *Hierro*ko berria izan zen luzeena, J. Gorostiagaren fotografia eta guzti. J. M. Seminariok 1949ko ekainean Bilbon egindako sarrera ekitaldiarekin erkatuta, nabarmena zen tokiko agintari politiko eta militar nagusien

[616] ABA-EUS: N. Oleagaren erantzun hitzaldi izengabea, [1951-04-28]. Eskerrik asko Josune Olabarria artxibozainari testuaren transkripzioan emandako laguntzagatik.

[617] *La Gaceta del Norte* 1951-04-28; 1951-04-29; *CE-PV* 1951-04-29; *Hierro* 1951-04-29.

IKER-35.indd 242 2/9/19 10:55

absentzia.[618] Baina JCVko zenbait kide bertan izan ziren eta esandakoek ondorio negatiboak izan zituzten. Akademiaren agerikotasunak istiluak sortu eta Euskaltzaindia babes ofizialik gabe geratzen ari zen. Hain zuzen, agintari frankisten ordezkari lana egin behar zuen J. M. Seminario ezinduta zegoen, Akademiaren bizitzatik aldenduta. Idazkariak I. M. Echaideri adierazi zionez, 1951ko apirilean *CE-PV*ren zuzendariordea Donostiako klinika psikiatriko batean zegoen, haren osasunak okerrera egin zuenaren froga nabarmena.[619] Bestalde, JCVren maiatzeko batzarrean J. M. Ruiz Salas, F. Echegaray, J. B. Merino, F. Ygartua eta E. Calle bildu zirenean, gogor kritikatu zuten Euskaltzaindiaren funtzionamendua. Akademiaren azken ekitaldiak eta bereziki N. Oleagaren hitzaldiak izan zuen erreibindikazio kutsua gaitzetsi zuten:

> El Sr. Ygartua hace algunas observaciones sobre la forma en que funciona la Academia Vasca y pide que ya que la Junta subvenciona a dicha Entidad, se le conceda a ésta una mayor intervención en el funcionamiento de la Academia para evitar que se la lleve por derroteros que no pueden estimarse convenientes.
>
> El Sr. Merino dio cuenta de la forma en que se desarrolló la última reunión de la Academia en el Ayuntamiento de Bilbao para dar posesión a un nuevo académico y abunda en los mismos razonamientos del Sr. Ygartua.
>
> Se acordó realizar las gestiones necesarias a tal fin.[620]

Euskaltzaindiak, diktadurako ordezkarien presioa ez ezik, erbesteko prentsa abertzalearena ere jasotzen zuen. N. Oleagaren hitzaldia presio horri aurre egiteko saiotzat uler daiteke. Akademiari ez zioten barkatzen mendekotasun politikoa, J. M. Seminario kazetariaren izendapen arbitrarioak ongien irudikatzen zuena. EAJ-PNVren agerkarian Bizkaiko berriemaileak politika linguistiko frankistaren zurikeria salatu zuen:

> La persecución oficial tolera el f[u]ncionamiento de la Academia de la Lengua Vasca, la publicación de libros y tratados en euzkera o para aprenderlo, etc. Sabe bien que eso casi para nada sirve, mientras puedan ellos atacar en su raíz y en todos los sectores de la vida social. La prensa, por ejemplo. «El Correo español» publica

[618] F. Krutwigek N. Ormaecheari idatzi zionez, 150 inguru pertsonak bete zuten udaletxeko ekitaldia, baina prentsako berriak irakurrita ez dirudi horrenbeste jende bildu zenik (Iztueta & Iztueta 2006: 473).

[619] ABA-EUS: N. Oleagaren gutuna I. M. Echaideri, 1951-04-24.

[620] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1951-05-09, Junta de Cultura C-62.

IKER-35.indd 243 2/9/19 10:55

> una amplia y frecuente sección de corresponsalía de pueblos. De los pueblos más «euzkeldunes» de Bizkaya, aparecen continuamente crónicas escritas siempre en español. Aunque el subdirector de ese periódico es académico de la Lengua Vasca, es evidente que tal campaña —alevosamente premeditada— contribuye eficazmente a la deseuzkeldunización de la «Euzkalerria» bizkaina (*Alderdi* 1951-04).

Nolanahi den, sarrera ekitaldiaren biharamunean, Euskaltzaindiak batzar arrunta egin zuen, gerraurreko bilkura bikoitzen ohitura berreskuratuta. Ribera kaleko egoitzan bildu ziren R. M. Azkue, B. Echegaray, I. M. Echaide, A. Irigaray, F. Krutwig eta N. Oleaga. Ordukoan ere M. Arruza, B. M. Garro eta L. Villasante urgazleak bertaratu ziren. Ezin etorria adierazi zuten Calahorrako M. Lecuonak eta Uztaritzeko L. Dassancek.[621] Sarrera ekitaldia udaletxean egiteko emandako laguntzagatik, J. Zuazagoitia alkateari eskerrak ematea erabaki zuten.[622] Halaber, J. Urquijoren alargunak Euskaltzaindiaren dolumin telegramari Portugaletik emandako erantzunaren berri eman zen.[623] Dena dela, batzarreko erabaki garrantzitsuena, gerraondoan emandako lehen hizkuntza arauarena izan zen:

> Irigarai ta Krutwig jaunen asmoz, gaia ondo-ondo ta zeatz-zeatz azterturik eta eztabaida luze ta bizien ekinik, auxe ebatzi da: 1) Euskaltzaindiak, idazkerea dala-ta, orainarte artuta daukazan erabagiak oraingoz era berean bete daitezala. Baina irarkoletan izki-eredu berezirik eztagoanean D, L, R, ta T gangardunen ordez DD, LL, RR ta TT izki bikoitzak erabili leitekezala. 2) atzerrietako gizata erri izenetan eta jakituri-itzetan jatorri idazkerea erabili daitela (Euskaltzaindia 1982: 19).[624]

F. Krutwig batez ere 1950eko hasieratik dosier akademikoen bidez bultzatzen ari zen erreforma normatiboaren lehen onarpen mugatua zen. Aktak dioen legez, eztabaida bizi eta luzea sortu zuen auziak. Osoko batzarrak ez zuen onetsi 1920ko arau ortografikoak bertan behera uztea. Aitzitik, zenbait zeinu diakritiko berezik sortzen zituzten eragozpenak aintzat hartu ziren, eta

---

[621] Aipatu dudanez, Frantziako euskaltzainak Akademiaren zereginetara erakartzeko saioa huts egiten ari zen. Donostiara joateko bi estatuen arteko muga zeharkatzea nekeza bazen, are gehiago Bilboraino iristea.

[622] ABA-EUS: R. M. Azkueren gutuna J. Zuazagoitiari, 1951-05-10. Kontuan hartu behar da une horretan Bilboko Udala JCVren egituran integratzen ari zirela, araudi eta kide sorta berriarekin, eta, teorian, Akademiarekiko lotura estuagoa ere sortu zen (BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1951-05-09, Junta de Cultura C-62).

[623] ABA-EUS: V. Olázabalen gutuna R. M. Azkueri, [1951ko martxoa].

[624] Ez dago akta horren gaztelaniazko bertsiorik (ABA-EUS: Euskaltzaindiaren akten kopia mekanografiatu ofiziala, 1951-04-29).

IKER-35.indd 244 2/9/19 10:55

horien alternatiba digrafikoak ofizialki arautu zituzten. Dena dela, erabaki hori errealitatearen onarpena zen. Euskarazko testuak argitaratzen zituzten Europa eta Ameriketako aldizkari gehienek, EAJ-PNVrenak izan ezik, zeinu digrafikoak («dd», «ll», «rr», «tt») erabiltzen zituzten, tipografia arruntarekin lan egiten zutelako. Arrakasta gehiago izan zuen F. Krutwigek nazioarteko terminologia kultuaren grafia euskara literarioan onartua izatean. F. Krutwigekin batera, A. Irigaray agertu zen erabakiaren sustatzaile. Ikusi dugunez, Espainia eta Frantzia gaindiko hezkuntzarako lexikografia normatibo bateratua abiatu nahi zuen P. Lafitterekin, eta ortografia-terminologietan bidea erraztu zuen horrela. Dena dela, Akademiak Aro Modernoko lapurtera literarioa ofizialki euskara estandartzat hautatzea, F. Krutwigek nahi zuen bezala, eztabaida akademikotik kanpoko gehiegikeria zen. Arazo praktiko berehalakoa zen erabaki hauen berri agerkari ofizialaren bidez eman ezina. Hain zuzen, arau horrek, moldatuta eta zehaztuta, urteak beharko zituen *Euskera*n agertzeko (Zuazo Zelaieta 1988: 383-385).

4.9. SARRERA EKITALDI BATEN FIASKOA ETA «JUNTA DE CULTURA DE VIZCAYA»REN KONTROLA

1951ko batzarren arrastoei jarraitzeak zenbait arazo sortzen ditu. Ekainean eta irailean batzar bana egin ziren, baina ez dago akta mekanografiatu ofizialik, baizik eta N. Oleaga idazkariaren eskuzko zirriborro soilak. Euskaltzainburuak eta idazkariak sinatutako aktarik ez dagoenez, batzar horiek ez dira ofizialak. Dena dela, ezinbestekoa da zirriborro horien edukia aztertzea Euskaltzaindiaren historia egiteko. Batzar horietan hartutako erabakiek (izendapenak, adibidez) ondorio ofizialak izan zituzten, eta nabari da idazkariak zirriborro horiek Akademiaren artxiboan gordetzeko nahia izan zuela, badaezpada ere.

N. Oleagaren zirriborroaren arabera, ekainaren 28an lau kide batzartu ziren Donostian: R. M. Azkue, F. Krutwig, J. Gorostiaga eta N. Oleaga.[625] Estatutuek agindutako seikotera ez iristeaz gain, guztiak Bizkaikoak ziren, batzarra Gipuzkoako hiriburuan egin arren. Hain zuzen, A. Irigarayren ezin etorria jakinarazi zuten. Medikuak idazkariari idatzi zion egun horretan kontsulta izango zuela.[626] I. M. Echaidez ez omen zuten ezer aipatu, baina arazo larri bat zuen esku artean. Maiatzaren 18an Jon Echaide (1920-1998) seme

[625] ABA-EUS: N. Oleagaren akta zirriborroa, 1951-06-28.
[626] ABA-EUS: A. Irigarayren gutuna N. Oleagari, 1951-06-21.

IKER-35.indd 245 2/9/19 10:55

abertzale eta *Alos-tořea* (1950) narrazio epikoaren egilea espetxeratu egin zuten, hilabete eta erdiz, 5.000 pezetako isuna ezarrita. Poliziak etxean atzeman zizkion Gipuzkoan banatzen zituen *Gernika* eta *Euzko-Gogoa* erbesteko aldizkarien aleak. Aita zuen espainolista zorrotzarentzat kolpe gogorra izan behar zuen nahitaez (Iztueta & Diaz 2007b: 249-250, 354-355).[627]

Halaber, L. Dassanceren idazki bat irakurri zuten J. Saint-Pierreren sarrera ekitaldiaz. Eskualzaleen Biltzarreko buruak aurretik jakinarazi zuen ezin zuela Donostiako batzarrera joan eta J. Saint-Pierre itzuli berria zela Paristik. F. Krutwigi gutunez adierazi zionez, bere asmoa apezpikuarekin Baionako sarrera ekitaldiaren antolaketa adostea zen.[628] Bi urte igarota, 1949ko irailean izendatutako bost euskaltzain berrien artean, J. Saint-Pierre zen sarrera hitzaldirik irakurri ez zuen bakarra. J. Gorostiaga, halaber, A. Tovar Salamancatik bultzatzen ari zen euskal hiztegi etimologiko baten egitasmoaz aritu zen. Bilboko Nuevo Ateneo-z eta A. Irigarayz beste zerbait adierazi ondoren, F. Krutwigek ekaineko batzarrean dosier bat irakurri zuen ijito edo motxaileez.[629]

Idazkariaren zirriborroen arabera, hurrengo batzarra ere Donostian egin zuten, irailaren 28an, bost euskaltzainek: R. M. Azkue, F. Krutwig, M. Lecuona, J. Gorostiaga eta N. Oleagak.[630] Irailean batzarra egon zenaren froga ukaezina da prentsak ere jaso zuela eta berriaren edukia guztiz bat datorrela akta zirriborroarekin. Bilboko prentsari eta erbesteko aldizkariei esker dakigu A. M. Labayen urgazlea batzarrean egon zela.[631] F. Krutwigez den bezainbatean, Bilboko Nuevo Ateneo-n euskaltzainburu zaharrari omenaldia egiteko asmoa agertu zuen, berak zuzentzen zuen sailean (*La Gaceta del Norte* 1951-

[627] J. Echaideren *Puŕa! Puŕa!* ipuin barregarri bilduma argitaratzeko baimena 1951ko azaroan eskatu zuen Zarauzko Itxaropenak, baina, egilearen aurrekari politikoengatik, ez zuten 1953 arte baimenik lortuko (Torrealdai 2000: 90-92).

[628] ABA-EUS: L. Dassanceren gutuna N. Oleagari, 1951-06-24.

[629] Hain zuzen, F. Krutwigek 1952an, *Euzko-Gogoa*n argitaratzeko asmoarekin, aldizkariaren zuzendariari bidali zizkion idazlanen artean, «Euskalherriko motzaileak» izenekoa dago (Euskaltzaindiaren Artxiboa, Jokin Zaitegi funtsa: F. Krutwigen «Euskalherriko motzaileak», [1951-06-28?]).

[630] ABA-EUS: N. Oleagaren akta zirriborroa, 1951-09-28.

[631] Bitxia da, baina A. M. Labayenek zioenez, 1936ko ekainean Lekeition egin zioten omenaldian ikusi zuen azken aldiz euskaltzainburua. Agian adinak memorian eragindako hutsegitea zen. Izan ere, R. M. Azkue 1951n hil zenean erbestean jarraitzen zuela ere adierazi zuen, ordurako sei urte Gipuzkoan eginagatik (cf. Labayen 1984).

IKER-35.indd 246 2/9/19 10:55

09-29; Gernika 1951c: 63; IAEV 1951b: 240).[632] Idazkariaren zirriborroak I. M. Echaideren «aitzakia» eta L. Dassanceren idazkia aipatzen ditu. Hain zuzen, euskaltzainburuordeak idazkariari idatzi zion jakinarazteko familiako ezkontza izango zuela egun berean, baina lasai jo zezaketela probintzia jauregiko bulegora.[633]

L. Dassanceren idazkiari dagokionez, larriagoa zen aditzera ematen zuen egoera. Egun bat lehenago, irailaren 27an, idatzi zuen adierazteko Pirinio Behereetako euskaltzainak ezin zirela Donostiako batzarrera joan. Okerrago zena, irailaren 27 horretan Baionako Musée Basque-n J. Saint-Pierreren sarrera ekitaldia egitekoak ziren, baina bertan behera utzi behar izan zuten azken unean, Akademiaren zuzendaritzak horren berririk ez zuelako. Uztaritzeko alkateak birritan idatzi zion F. Krutwigi ekitaldiaren antolaketaz, eta uste zuen guztia konponduta zegoela.[634] Akademiaren egoera tamalgarria ematen zuen aditzera ekitaldiaren fiaskoak. P. Lafittek zuzentzen zuen aldizkariak astebete lehenago iragarri zuen J. Saint-Pierreren sarrera ekitaldia (*Herria* 1951-09-20). Badirudi zenbait euskaltzain beldur zirela Akademiaren ekitaldi publikoa ez ote zen erbesteko abertzaleen aldarri antifrankista bilakatuko. L. Dassancek gutunean adierazi zuenez, I. M. Echaide eta J. Saint-Pierreren arteko harremanak huts egin zuen ekitaldia antolatzeko orduan.[635] EJ-GEren berripaperak ere, ekitaldi geroratua EIL-SIEBen bilkuratzat jo zuen ia:

> La recepción del Obispo de Gordus, Monseñor Saint-Pierre en la Academia Vasca (Eskualzaindia) que había de tener lugar en la sala de conferencias del Museo Vasco, se ha aplazado. Oportunamente se señalará la fecha de celebración de tan importante acto al que asistirán todos los miembros de la Sociedad Internacional de Estudios Vascos y otros muchos euzkeltzales (*Oficina Prensa Euzkadi* 1951-10-01).

---

[632] Kontuak are gehiago nahasteko, akten kopia mekanografiatuak Euskaltzaindiak 1982an argitaratu zituenean, akta luze bat argitaratu zen gaztelaniaz 1951ko irailaren 25eko eta urriaren 30eko data bikoitz okerrarekin. Testuak aztertuz gero, argi dago bi urte geroagoko, 1953ko irailaren 25eko eta urriaren 30eko, akten edukia dela, prentsa ohar gisa moldatuta. Horren erruz, garai horretako izendapenen inguruko informazio nahasgarria zabaldu da (cf. Euskaltzaindia 1982: 20-21, 30-32).

[633] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1951-09-21. Beraren mendeko José Antonio Esnoz integristak egingo zien harrera. Industria ingeniariari esker, 1949ko ekainetik J. A. Esnoz probintza funtzionarioa zen (GPD 1950: 95-96; cf. Etxaide-Itharte 1985: 357; 1986: 168-169).

[634] F. Krutwigek, esaterako, L. Villasanteri uztailean adierazi zion sarrera ekitaldia Baionan egingo zutela irail bukaeran (ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-07-15).

[635] ABA-EUS: L. Dassanceren gutuna N. Oleagari, 1951-09-27.

IKER-35.indd 247 2/9/19 10:55

Antonio M.ª Labayen (1898-1994) azaroaren 3an Donostian elkartu zen euskaltzainburuordearekin, Frantziako apezpikuaren sarrera ekitaldia urtea amaitu baino lehenago antolatzen saiatzeko.[636] Errepublikan EAJ-PNVren Gipuzko-Buru-Batzarreko kide eta Tolosako alkate izan ondoren, A. M. Labayen 1945eko ekainean baino ezin izan zen itzuli Donibane Lohizuneko erbestetik Gipuzkoa frankistara.[637] Haren bidez ari ziren erbesteko egoeraren informazioa jasotzen. Baionan 1950eko uztailean egindako batzarrean adostu omen zuten J. Saint-Pierreren sarrera hitzaldiari erantzuna I. M. Echaidek emango ziola. Baina urte eta erdi igarota, apezpikuak ez zion sarrera hitzaldiko testurik bidali, zegokion erantzuna presta zezan. Euskaltzainburuordeak L. Dassanceri eskatu behar izan zion sarrera ekitaldiaren arazoa bideratzea.[638] Azaroaren 9an Uztaritzeko alkatea apezpikuarekin bildu zen eta honek esan zion oso makalduta zegoela, ez zuela sarrera hitzaldirik prestatu, eta nahiago zuela ekitaldia hurrengo urterako geroratu.[639] Ez da sinesgarria sarrera ekitaldia irailaren 27an egitear izan zirenean hitzaldiaren testua idatzi gabe egotea. Frantziako apezpikuaren eta Espainiako integristaren arteko ezinikusi ideologikoa nabarmena zen. Ikusi dugunez, EIL-SIEBeko buruari Donostiara igarotzeko bisa ukatua zioten 1950eko uztailean eta seguru asko beldur ziren agintari frankistek ez ote zituzten eragozpen gehiago sortuko. Gainera, apezpikuak bere burua ez zuen zentsuratu nahi izango.[640]

Donostiako iraileko batzarrean, Holandako Christianus Cornelius Uhlenbeck (1866-1951) deduzkoaren heriotzaren berri eman zen. 1928ko «Congrès International de Linguistes» delakoaren antolatzailea atzerriko euskalarien dekanoa zen, aspaldi hilak baitziren H. Schuchardt edota J. Vinson. Akademiari alargunak jakinarazi zion, Suitza italianofonotik abuztuan bidalitako

[636] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1951-11-05.

[637] SAF-AA: A. M. Labayenen gutuna F. J. Landábururi, 1945-06-07, LIAV-0005-01.

[638] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna L. Dassanceri, 1951-11-04.

[639] ABA-EUS: L. Dassanceren gutuna I. M. Echaideri, 1951-11-09.

[640] Esaterako, P. Charritton apaizgai abertzalearen *Petit histoire religieuse du Pays Basque* (1946) liburuxkari ezarri zion hitzaurrea ez zuten onartuko agintari frankistek: «L'histoire, en effet, fait corps avec les événements politiques. Or ces derniers ont écartelé le pays basque depuis des siècles, et condamné notre histoire à perdre son centre de gravité. La géographie, l'esprit d'indépendance, l'appétit des gros voisins ont entravé le rassemblement politique des Basques. Mais la flamme patriotique a supléé chez M. Charritton à la carence des soudures politiques : l'amour a retrouvé le lien sur le plan supérieur et indestructible de la Nation» (Charritton 2013: 22).

IKER-35.indd 248 2/9/19 10:55

txartel baten bidez.[641] Euskaran ez ezik, sanskritoan edota Ameriketako algonkin hizkuntzetan ere aditua zen. Adin handiko euskalari ospetsuak aspalditik osasun arazoak zituen eta, horregatik, 1936ko udaberrian Luganoko klima epelagora aldatu zen.[642] R. Ménendez Pidalen bidez («eusko-iberismoa»ren auzian talka egiten zuen Holandako linguistarekin) bazuen J. Urquijok Suitzako helbidea, baina badirudi nahiago izan zuela Mundu Gerran isilik geratu, seguru asko C. C. Uhlenbeck aliatufiloaren jarrera antifrankistaren beldur zelako (cf. Urquijo 1945: 143).[643] C. C. Uhlenbeck-ek ere bazuen J. Urquijoren berri G. Lacomberen bidez, baina lankide ohien arteko susmoak gailentzen ziren.[644] Dena dela, RSVAPek prestatutako omenaldiaren harira, 1948an korrespondentzia eta argitalpen trukea berreskuratu zuten. Besteak beste, horren ondorioz abiatu zuen J. Urquijok Holandako *Lingua* aldizkari berriaren harpidetza.[645] Ahalegin handia egin zuen *Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra* liburuan parte hartzeko. Azken urteetako argitalpenak iruzkindu, eta euskal purismoaren aurkako jarrera agertu zuen. J. Urquijo pozez beterik zegoen, nazioarteko autoritate zientifikoaren itzala eman ziolako liburuari, Espainiako gatazka ideologikoen gainetik, baita frankismoak etendako gerra zibil aurreko tradizioarekiko nolabaiteko jarraitutasuna ere (Uhlenbeck 1948; 1949; Urquijo 1951).[646]

Bestalde, Akademiaren batzarrean J. Gorostiaga Bizkaiko herri literatura zaharraz aritu zen, gero *Épica y lírica vizcaína antigua* (1952b) bilakatu zen azterketa. J. Gorostiagak, halaber, euskal gramatika historiko konparatiboa aipatu zuen. Nolanahi den, batzarreko erabaki garrantzitsuena L. Villasante euskaltzain izendatzea izan zen. Frantziskotarra izendatzeko prozesuak lastertasun marka guztiak hautsi zituen. Otsailean urgazle eta irailean euskaltzain izendatu zuten, baina ofizialki onartu gabeko batzar batean. N. Ormaechea euskaltzain izendatzeko saioak porrot erabatekoa egin ondoren, L. Villasante aurkeztu zuten J. Urquijoren hutsunea betetzeko. Hautagaitzarako uztaileko

[641] ABA-EUS: Wilhelmina Maria Uhlenbeck-en («née» Melchior) txartela Euskaltzaindiari, 1951-08-15; cf. *La Voz de España* 1951-09-19.

[642] Olaso Dorrea Sorrerakundea, Georges Lacombe funtsa, C. C. Uhlenbeck-en gutunak G. Lacomberi, 1936-01-07, 1936-03-31 & [1936ko apirila].

[643] KMK-JU: R. Menéndez Pidalen gutunak J. Urquijori, 1944-03-04 & 1944-03-12.

[644] Olaso Dorrea Sorrerakundea, Georges Lacombe funtsa, C. C. Uhlenbeck-en gutunak G. Lacomberi, 1945-10-11, 1946-08-28 & 1946-10-01.

[645] KMK-JU: E. G. del Pozoren gutunak J. Urquijori, 1948-02-04 & 1948-03-23.

[646] KMK-JU: C. C. Uhlenbeck-en gutunak J. Urquijori, 1948-05-14, 1948-05-15 & 1948-06-07. Peter Bakker unibertsitate irakasleak konfirmatutako datuak (2017-09-21; cf. Bakker 2008; Bakker & Hinrichs 2008).

IKER-35.indd 249 2/9/19 10:55

aurkezpena berriz ere F. Krutwigek idatzi zuen, J. Gorostiaga eta N. Oleagarekin sinatuta. Frantziskotarraren goi mailako formazioa nabarmentzeaz gain, esku artean zituen lanak aipatu zituen, eta gauzatu gabeko beste proiektu bat: «Euskaraz iratzirik hiztegi bat argitaratzeko du. Hiztegi huntan' artikulu eta azalben guztiak euskaraz izkiriaturik dagoz eta zein ere kultur hizkuntzatan egiten den araura' euskarari buruz euskaraz traktatzen da».[647] Batzarrean L. Villasanteren sarrera ekitaldiko erantzuna F. Krutwigek ematea ere erabaki zen.

Bestalde, Euskaltzaindiaren batzarrean JCVk bidalitako gutun baten berri eman zen, eta horretaz N. Oleaga arduratzea erabaki zuten. BPDk JCVren araudi berria onartu ondoren, bere egituran Bilboko Udala formalki integratu zuen. J. Zuazagoitia alkatearekin adostutako batzordearen osaera berria 1951ko uztailean dekretatu zuten. Bilboko Udalak, halaber, beste 50.000 pta. ekarri zizkion JCVren aurrekontuari.[648] Zuzendaritza honela geratu zen: BPDko presidentea eta Bilboko alkatea ziren buru eta buruorde nominalak, hurrenez hurren; baina Fernando Echegaray eta Ignacio Urquijo ziren buru eta buruorde efektiboak.[649] JCVren abuztuko batzarrean J. Zuazagoitia, F. Echegaray, I. Urquijo, F. Ygartua, J. Ybarra, R. Zumárraga, Conde de Superunda eta E. Calle bildu ziren. Batzorde iraunkorrak J. B. Merinok Euskaltzaindiaz egindako proposamena onartu, eta erabaki hau hartu zuen: «interesar de la Academia de la Lengua Vasca que se halle en ella representada la Junta de Cultura por uno o dos de los vocales de su Comisión Permanente, ya que recibe de la Junta una subvención anual que se procurará aumentar para ejercicios futuros».[650]

---

[647] ABA-EUS: F. Krutwig, J. Gorostiaga eta N. Oleagaren idazkia Euskaltzaindiari, 1951-07-28.

[648] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1951-05-09, Junta de Cultura C-62. BPDko presidente eta Bilboko alkateaz gain, diputatu, zinegotzi eta herritar hauek osatu zuten batzordea: H. Bilbao, B. Bureba, A. Gómez, A. Agustino, X. Domínguez eta J. M. Castiella. Bestalde, BPDk herritar hauek hautatu zituen: J. M. Areilza, J. B. Merino, J. Ybarra, J. Irigoyen, J. M. Urrutia, F. Ygartua, I. Urquijo, J. L. Gaytán de Ayala, A. Churruca, Conde de Superunda, N. Zorrilla, D. Areitio, J. Aznar, A. Menchaca, S. Sotomayor eta F. Amador. Bilboko Udalak, halaber, hauek hautatu zituen: F. Echegaray, L. Hurtado de Saracho, A. González, C. Lasterra, G. Ybarra, A. Bilbao, R. Zumárraga eta R. Basterrechea (BFAH-EC: BPDko presidentearen dekretua, 1951-07-04, Educación, Deportes y Turismo 152, C-1006 BIS. 67 -EXP-12).

[649] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1951-08-09, Junta de Cultura C-62.

[650] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1951-08-09, Junta de Cultura C-62.

IKER-35.indd 250 2/9/19 10:55

Hain zuzen, irailaren 24ko gutunean JCVko idazkari E. Calle Iturrinok euskaltzainburuari jakinarazi zion azken batzarrean erabakitakoa. Helburua, korporazioen arteko harreman iraunkor eta estuagoak izatea omen zen, eta Euskaltzaindiari erabakiren bat ahalik eta azkarren hartzea eskatu zion.[651] Akademiak bere autonomiaren aurkako erasotzat hartu, eta N. Oleaga idazkaria hautatu zuen arazoa JCVrekin bideratzeko.[652] Ikusi dugunez, Akademiaren kontrol politikoa ziurtatzeko ahaleginek huts egin zuten ordura arte. J. Irigoyen 1941ean izendatutako JCVren ordezkariak 1943an utzi egin zion Akademiaren batzarretara joateari, nahiz eta JCVko kide aktiboa izaten jarraitu. E. Esparzak 1949an euskaltzain izateari uko egin ondoren izendatutako J. M. Seminario ere, hiru batzarretara baino ez zen agertu 1949-1952 artean. Gainera, erbesteko prentsa abertzaleak barregarri utzi zuen izendapen politiko hori. Bestalde, BPDko presidentetzan ere aldaketak egon berri ziren, gobernadore zibilak J. Ybarra bat-batean kargugabetu zuenean 1950eko azaroaren 24an, ustez BPDren administrazio autonomiarekin tematzeagatik (*La Gaceta del Norte* 1950-11-28).

José M.ª Ruiz Salas (1908-1986) BPDko presidente berriak ez zuen J. Ybarra historialariaren pareko kezka kulturalik. J. Urquijoren iloba zena kargugabetu zutenean, Euskaltzaindia bera ere babesgabeago geratu zen JCVren eta G. Riestra gobernadore zibilaren aurrean. J. M. Ruiz Salas afiliaziorik gabeko eskuindarra zen, udal ogasuneko burua eta legegizona. J. Ybarra bezala gerra zibilean borroka egindakoa, baina Bilboaldeko goi burgesia aberatseko kide ez zenez, hierarkia frankistarekiko mendekoagoa zen nahitaez. 1958 arte iraun zuen karguan, arrazoi ekonomikoengatik legegizon lanetara itzultzeko, hain zuzen. Presidente gisa, besteak beste, Bizkaiko foru zuzenbidea bildu eta Espainiako kode zibilera egokitzeko prozesuan parte hartu zuen (Urrutia Badiola 2013: 83, 236; Alonso Olea 2014: 535). Kontrol politikoa estutzeko nahiaren froga gisa, 1951ko irailean, «Sociedad Internacional Francisco Suárez» delakoaren zuzenbide biltzarra Bilbon antolatu zuen batzordeko kide agertu zen Euskaltzaindia, JCV eta BPDrekin batera. Elkartearen Espainiako sailburua P. Rocamora zen, Propagandako zuzendari nagusi ohia. [653]

---

[651] ABA-EUS: E. Calleren ofizioa R. M. Azkueri, 1951-09-24.

[652] F. Krutwigen arabera, BPDtik baino areago Gobernu Zibiletik zetorren kontrol nahia, eta E. Calle Iturrinok berak, kazetari eta gaztelaniazko idazle emankorra, euskaltzain izatea nahi zuen (Krutwig 1991: 131-132).

[653] ABA-EUS: J. M. Ruiz Salasen ofizioa R. M. Azkueri & «Asamblea de la Sociedad Internacional Francisco Suárez»en programa, 1951-08-21.

IKER-35.indd 251 2/9/19 10:55

4.10. UMEZURTZ: RESURRECCIÓN M.ª AZKUEREN HERIOTZA

Ekain-irailetako batzar hauek onarpen ofizialik zergatik ez zuten izan azaltzeko, R. M. Azkuek izan zuen istripu larri eta berehalako heriotzara jo behar da, hain zuzen. Euskaltzainburua urriaren 22an, gauero bezala, Ribera kaleko egoitzatik Campo de Volantín pasealekuko etxera abiatu zen oinez. Arriaga teatroaren atzealdean behaztopa egin, eta Nerbioi ibaira erori zen. Fernando Voz Peña izeneko gizon batek ibaira salto egin, eta 87 urteko euskaltzainburua uretatik atera zuen. Bitartean, sorosleari diru zorroa ostu zioten 400 pezetarekin. *CE-PV*k azalean jaso zuen istripuaren berri. Bilboko prentsan herri harpidetza iragarri zen Firestone fabrikako langile zen «samariar ona»ren alde. G. Riestra gobernadore zibilak ere ekonomikoki saritu zuen. Hilario Bilbaok eta berorren anaia Esteban Bilbao Gorte frankistetako presidenteak galdetu zuten euskaltzainburu adinduaren osasunaz.[654] Hurrengo egunetan R. M. Azkuek sendatuta zirudien eta lanean hasi zen berriro, baina, Bilboalde industrialeko ibaiak oso kutsatuta egonagatik, medikuek ez zioten urdail garbiketarik egin, eta azaroaren 9an hil zen enteritisak jota (Arana Martija 1983: 29, 35-36; Yrizar 2001: 77-78).[655]

Hil zen unean F. Krutwig euskaltzaina eta bi apaiz (J. Villa Cobian eta E. Ocano) omen zeuden euskaltzainburuarekin.[656] Tokiko prentsak azalean eman zuen euskal ikasketen patriarkaren heriotzaren berri. R. M. Azkueren hileta azaroaren 10ean izan zen San Nicolás de Bari elizan, parrokia horretara adskribatuta baitzegoen. Segizioak, J. Urquijorenaren mailakoa ez izanagatik, bi buru izan zituen. Alde batetik, elizgizonen kongregazioarena, León M.ª Martínez Bilboko bikario jeneralarekin, C. Morcillo apezpikua Ameriketan zegoelako. Beste aldetik, zibila, N. Oleaga, F. Krutwig eta J. Gorostiaga euskaltzainak eta J. Zuazagoitia alkatearekin. Bilboko prentsak ez aipatu arren, elizbarrutiak prestatutako nekrologia bereziaren arabera, H. Bilbao BPDko presidenteordea ere hiletan egon zen. Lekeitioko Santa M.ª de la Ascensión

[654] SAF-AA: E. Bilbaoren telegrama R. M. Azkueri, 1951-10-24, DP-1734-02.

[655] Euskaltzainburuaren istripu eta heriotzaren ondorioz, Akademiak ez zuen astirik izan azken bi akten kopia mekanografiatuak prestatu eta R. M. Azkuek sinatzeko. Gainera, bi batzar horietan I. M. Echaide buruordea egon ez zenez, ezin zituen berak ordezko gisa sinatu. Zirriborroen edukiari erreparatuta, JCVrekiko tirabirek aktok baztertzeko beste arrazoi bat eman zioten Euskaltzaindiari.

[656] Jorge Villa Cobian, gero ikusiko dugunez, R. M. Azkueren testamentuaren oinordekoa izan zen G. Maidaganekin batera. Bilboko Santos Juanes elizako organista, Mexikon jaioa, Sorian deserrituta egon zen (Euzko Apaiz Taldea 1981: 207; Arana Martija 1983: 34; Gamboa & Larronde 2005: 325-326).

IKER-35.indd 252 2/9/19 10:55

basilikan, azaroaren 14an ospatu zen hileta, eta olatako mezak hurrengo egunetan Bilboko San Nicolás de Bari-n.[657]

Besteak beste, F. Krutwigek berehala telegrama bidali zion E. Bilbaori Madrilera R. M. Azkue sei eta erdietan hil zela jakinarazteko.[658] Hain zuzen, N. Oleaga eriondo zegoenez, F. Krutwig arduratu zen RAEri R. M. Azkueren erretratu bat eta akademiko domina bidaltzeaz.[659] Euskaltzainburu zenak RAEko zereginetan parte hartze txikia izanagatik, gutxi ziren hura baino izendapen zaharragoak zituztenak: R. Menéndez Pidal burua, G. Maura, J. Casares idazkaria, J. Martínez Ruiz «Azorín», V. García de Diego liburuzaina, L. Eijo apezpikua eta A. González de Amezúa diruzaina. Hain zuzen, *Diccionario etimológico español e hispánico* izan zena lantzen ari zen V. García de Diegok idatzi zuen hilberri akademikoan, R. M. Azkueren (ez zion deiturari «euskal» grafia aldatu) izaera erakargarria eta euskararen biziarekiko zuen kezka azaldu zituen. Hala ere, J. Urquijorekin egin ez bezala, euskaltzainburuaren euskararekiko maitasuna gehiegizkotzat jo zuen, eta hori zentsura politikoa ere bazen. RAEko erantzun hitzaldian adierazitakoaren bidetik, R. M. Azkueren purismo lexikala gaitzetsi eta haren hiztegia mailegu tradizionalekin osatzea eskatu zuen (García de Diego 1951).

Egunkarietan agertu ziren hilberri eta aldizkarietako omenaldien artean, L. Michelenak 1951ko *BRSVAP*en ohi baino hitz mingotsagoei bide eman zien. Agian RAEko liburuzainarena bezalako kritikei erantzun nahian, euskal kulturarekiko utzikeria ofiziala aditzera eman zuen, euskaltzainburu zaharraren irudi bakartia hizpide: «En una época y un ambiente apegados más bien a los bienes materiales, se dedicó a atesorar aquello que el orín y la polilla no consumen, pero que la desidia y el abandono humanos dejan disiparse irremediablemente: el patrimonio espiritual de un pueblo» (Michelena 2011c: 209). J. Artechek Donostiako egunkarian, halaber, Akademiaren azken batzarretako pasadizoa gogoratu zuen:

---

[657] *CE-PV* 1951-10-23; 1951-11-10; 1951-11-11; *La Gaceta del Norte* 1951-10-23; 1951-10-24; 1951-10-25; 1951-10-26; 1951-11-10; 1951-11-13; *ABC* 1951-10-24; 1951-10-26; 1951-11-10; *El Diario Vasco* 1951-11-10; *La Voz de España* 1951-11-10; 1951-11-11; *Diario de Navarra* 1951-11-13; *Boletín Oficial del Obispado de Bilbao* 1951-12; Príncipe de Viana 1951: 399-400; Arocena 1951.

[658] SAF-AA: F. Krutwigen telegrama E. Bilbaori, 1951-11-09, DP-1734-02.

[659] RAEren Artxiboa, R. M. Azkueren espediente pertsonala: F. Krutwigen gutunak J. Casaresi, 1951-11-21 & 1952-01-19.

IKER-35.indd 253 2/9/19 10:55

> Otra vez, hace de esto muy pocos meses, en la Biblioteca de la Diputación de Guipúzcoa, cuando en compañía de un grupo de académicos, aguardaba el momento de iniciar una sesión de la Academia de la Lengua Vasca. Alguien —no podría precisar quién fué ni a santo de qué— recordó la leyenda medieval de la casa solar de Ursúa. No lo olvidaré nunca. Don Resurrección, encorvado y empequeñecido por los años, se transfiguró al instante; sus puros ojos azules cobraron nueva y viva luz, irguió su figura desmedrada y comenzó a cantarnos, con voz temblorosa, pero firme, el trágico romance.[660]

J. Urquijorekin gertatu bezala, R. M. Azkuek gerra zibilaren ondoko urteetan izandako jarrera baloratzea saihestu egin zuten erbesteko prentsa abertzalean. EAJ-PNVren agerkariak heriotzaren berri eman zuenean, EJ-GEko J. M. Leizaolak «El abrazo de Sabino y de don Resurrección» izenburu esanguratsua jarri zion bere artikuluari, nolabait R. M. Azkueren aurkako eraso abertzaleak uxatzeko (*Alderdi* 1951-12). *Euzko-Gogoa*k errespetuz baina labur eman zuen heriotzaren berri, N. Ormaechearen bihotzeko hilberriarekin: «Atseden beza pakean gure Azkue aundiak. Gure eroimenetik ez da beiñere galduko aren izena euskera bizi daño. Ark atera du gaixoa bere zapilletatik eta soiñeko apaiñez iantzirik ikusi» (Ormaetxea 1991b: 938). Baionako *Gure Herria*k ere eskaini zion «Ascue» [sic] izeneko artikulua (Lafitte 1952c).

Gernika aldizkariak, ordea, omenezko sail oparoagoa eskaini zion egile hauen bidez: J. A. de Donostia, J. Garate, H. Gavel, J. Thalamás, I. Fagoaga eta S. Altube. Erbesteko euskaltzainak, gerraondoko Akademiak eragiten zion errezeloa bazter batean utzi eta hunkituta goratu zuen euskaltzainburu zena: «¡Jaungoikoak saritu beza, zeru altuetan, Euskalerriari ainbeste mezede egin dion, eta guk mezede ori bear bezela sekula eskertuko eztiogun Azkue jaun beneragarri ta maitea!» (Altube 1952: 21). Soilik EAE-ANVko kide ohiak egin zion kritika pertsonala, I. López Mendizábal jeltzaleari jarritako betoa gogorarazi zuenean: «Etzegoan ain ongi Azkue zana, zionean Bera eta López Mendizabal'ek egindago iztegi txiki polita, plagio edo lapurketa zala. Gutxik onestuko zuten iritzi mingor ori eta asko erabilli ditunak, dak[i] ongi ori. Au esateko ordua zan eta pozik esaten det» (Garate 1952a: 5).

---

[660] «Urtsuan zazpi leio / zazpiak lerro lerro / Lantainako alaba / Urtsuan defuntu dago» [La casa solar de Ursúa tiene siete ventanas – las siete perfectamente alineadas – La hija del solar de Lantaina – en la casa de Ursúa yace muerta] Todavía ayer, don Julián de Elorza, el presidente de la que fué «Sociedad de Estudios Vascos», que estaba presente en la escena, me recordaba con emoción aquel momento: –Pero, ¿tú viste que memoria de hombre para su edad? (*La Voz de España* 1951-11-11).

IKER-35.indd 254 2/9/19 10:55

1951. urteko azken batzarra azaroaren 30ean egin zuten GPDko jauregian euskaltzain hauek: I. M. Echaide mahaiburu, A. Irigaray, F. Krutwig, J. Gorostiaga eta N. Oleaga. J. A. de Donostia (OFMCap) urgazlea ere bertaratu zen. Mundu Gerran Frantziatik itzulita, CSICen Bartzelonako Instituto Español de Musicología-n lanean ari zen, eta *Música y músicos en el País Vasco* (1951) argitaratu berri zuen RSVAPen «Monografías vascongadas» bilduman. Ezin etorria adierazi zuten Uztaritzeko L. Dassancek eta Oñatiko L. Villasantek (Euskaltzaindia 1982: 23).

Euskaltzainburuaren heriotzak sortutako nahigabearen erakusgarri, instituzio eta pertsona ugarik bidalitako dolumin mezuen berri eman zuen batzarrak: J. Casares RAEko idazkaria, JCV, E. Bilbao Gorteetako presidentea, A. Elorriaga GPDko presidentea, Conde de Peñaflorida, RSVAP, euskaltzainak (B. Echegaray eta A. Irigaray), urgazleak (P. Yrizar, A. M. Labayen eta J. M. Barandiaran), J. Azpiazu enpresaria, C. Aguirresarobe baritonoa, N. Otaño (SI) konpositorea edota C. de Vera (OFMCap) Lekarozko «Colegio de Ntra. Sra. del Buen Consejo»ko zuzendaria.[661]

JCVren kasuan, Akademiarekin zuen gatazka nabarmena zen ordurako. Betiereko euskaltzainburu izandakoaren heriotza zela-eta, JCVren proposamenez, omenaldi bateratua antolatzea onartu zuen Euskaltzaindiaren batzarrak. Izan ere, JCVren azaroaren 22ko batzarrean, R. M. Azkueren heriotzagatik senideei eta Euskaltzaindiari doluminak emateaz gain, Akademiarekin omenaldi bat antolatzea erabaki zuten. Dena dela, baldintza gisa ekitaldia «filologo nazional» batek zuzentzea ezarri zutenez, Euskaltzaindiarekiko mesfidantza eta balio kentzea ageri zen erabakian.[662] Akademiari bidalitako ofizioak horren berri eman zuen:

> Al mismo tiempo se acordó también que expresasen este sentimiento, siendo portadores del acuerdo de la Junta, su Presidente efectivo Fernando de Echegaray y el Vocal, don Juan Bautista Merino, a quienes se encomendó la gestión cerca de la Academia de organizar conjuntamente ambas Entidades una velada necrológica en memo-

[661] ABA-EUS/RAEren Artxiboa, Resurrección M.ª Azkueren espediente pertsonala/SAF-AA: J. Azpiazu (1951-11-11) eta J. Casaresen (1951-11-16) gutunak N. Oleagari; A. Elorriaga, J. Yrizar [Pedro Yrizar anaia urgazlearekin nahastu zuten], B. Echegaray, A. Irigaray, A. M. Labayen, C. Aguirresarobe, N. Otaño, J. A. de Donostia eta E. Bilbaoren telegramak Euskaltzaindiari, 1951-11-09, DP-1734-02. Aktaren kopia mekanografiatuan, J. M. Barandiaran eta JCV zerrendan eskuz erantsita daude (ABA-EUS: Euskaltzaindiaren aktaren kopia mekanografiatu ofiziala, 1951-11-30).

[662] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1951-11-22, Junta de Cultura C-62. Kide hauek bildu ziren: J. M. Ruiz Salas, J. Zuazagoitia, F. Echegaray, J. B. Merino, C. Lasterra, J. M. Urrutia, I. Urquijo, R. Zumárraga, A. Bilbao eta E. Calle.

IKER-35.indd 255 2/9/19 10:55

ria del inolvidable don Resurrección María de Azkue, con la participación en ella de un filólogo nacional y según la organización que bajo sus auspicios se proyecte.[663]

J. Urquijoren euskal biblioteka baliotsua azkenean Gipuzkoak erosi zuenez, euskaltzainburu zenaren omenaldiak BPDren euskaltzain karlistarekiko porrota nolabait arintzeko balio zezakeen. Dena dela, J. Urquijok gerra zibilaren ondoren jasotako ohore eta omenaldi ofizial ugariekin erkatuta, diktadura frankistaren erakundeengandik R. M. Azkuek, bizi zela, jasotakoak hutsalak izan ziren. R. M. Azkue elizgizona Hizkuntza Akademia frustratu baten buru gisa agertzen zen. JCVk ez zion babes berezirik eskaini Akademiari, ekonomikoki oso baldintzatuta zegoen, eta ez zuen agerkari ofizialik edota bestelako argitalpenik plazaratzeko biderik izan. 1949ko irailean F. Krutwigek sustatutako erreformaren ondoren, bi korporazioen arteko harremanak okerrera egin zuen. Euskaltzaindiaren autonomia gordeta, zuzendaritzak erreforma horri eta ondoko jardun agerikoari emandako babesak Bizkaiko agintari frankistekiko harremana gaiztotu egin zuen.

B. Echegaray euskaltzainak (JCVko buru efektiboaren osabak) N. Oleaga idazkariari Madrildik idatzitako gutunean, egoera horren zantzuak ageri dira. Castro Urdialesen egindako erorikoagatik, ezin izan zuen R. M. Azkueren hiletara joan. Hegazkinez itzuli behar izan zuen Madrilera, eta ohean zegoen ezinduta. Euskal Herriko korporazio ofizialek ordaindutako (baina Euskaltzaindiak antolatutako) omenaldi baten beharra ezinbestekotzat jo zuen:

> No tengo en este momento la cabeza para pensar o mejor dicho para hacer algo que se pueda hacer en recuerdo del trabajador formidable e infatigable que fue Don Resurrección, quien durante largos años, y con tanta constancia y afán, trabajó por nuestro milenario idioma, sin que en su vida hubiera recibido ningún homenaje, sobre todo al llegar a su ancianidad, que mereció por su gigantesca labor. Justo es pues que lo que antes no se hizo se haga ahora y que sea la Academia, la que tome la iniciativa, en la forma que acordéis, que sea la más adecuada y mejor; bien una aportación de trabajos de diversos autores dedicados a las especialidades que cultivó el finado, consagrados a su memoria, o bien la publicación de materiales que él haya dejado incompletos. Eso lo veréis vosotros.[664]

Hain zuzen, R. M. Azkueren idazlan filologiko eta literario guztiak berrargitaratzeko asmoa adierazi zuten Akademiaren azaroko batzarrean. Berrargi-

[663] ABA-EUS: JCVren ofizioa Euskaltzaindiari, 1951-11-26.
[664] ABA-EUS: B. Echegarayren gutuna N. Oleagari, 1951-11-24.

IKER-35.indd 256 2/9/19 10:55

talpen nagusia *Diccionario vasco-español-francés* (1905-1906) izan behar zen.[665] Bilboko prentsak, Akademiaren azaroko batzarraren berri emateaz gain, tituluan nabarmendu zuen egitasmoa: «Serán reeditadas las obras de don Resurrección María de Azkue y su Diccionario Vasco-Español-Francés» (*La Gaceta del Norte* 1951-12-01).[666] Lehen ediziotik igarotako urte luzeetan, R. M. Azkue bere hiztegiari oharrak gehitzen aritu zen, eta eranskin hori ere argitaratzea zen asmoa. Bestalde, Akademiaren proiektu nagusi eta jarraituena izandako *Diccionario español-vasco* handia ezinezko bihurtu zuen euskaltzainburuaren heriotzak, nahiz eta, ikusiko dugunez, 1950eko hamarkadan horrekin jarraitzeko asmorik izan zen.[667]

F. Krutwigek, halaber, jakinarazi zuen Bilboko Nuevo Ateneo-n ere euskaltzainburu zenaren omenaldia prestatzen jarraitzen zutela. Nuevo Ateneo oso aktibo agertzen zen hitzaldiak antolatzeko orduan. Prentsan agertutako programaren arabera, hauek izango ziren ekitaldiko hitzaldiak: F. Krutwigen «Azkue in memoriam» eta J. Gorostiagaren «Azkue lingüista» (abenduak 10), J. A. de Donostiaren «Fauna y flora en la canción popular vasca» (abenduak 12) eta J. Domingo Begoñako Carmelo elizako organistaren «Azkue y el folklore musical vasco» (abenduak 13) (*La Gaceta del Norte* 1951-12-09). Euskaltzain gazteak bere burua euskaltzainburuaren oinordeko edo premu gisa ikusten zuen ordurako, gero lotsa gabe onartu zuenez:

> Cuando Azkue ya veía que estaba cerca su fin, no por su caí[d]a, sino porque él siendo como decía «muthil urthetsu» sabía que con sus 80 y pico años no podía vivir aún muchos más me llamó un día, y tomando la medalla que como Académico recibiera me entregó a mí la suya y me dijo «toma esta es mi medalla, ella tiene que ser para ti» y me entregó la que lleva el numero 2, que yo poseo. Como Vd. sabe en un principio la Academia de la lengua Vasca entregaba a sus miembros unas medallas, que a la muerte de los académicos pasaban de unos a otros.[668]

F. Krutwigen egozentrismo ia megalomaniakoa gorabehera, egia da bera zela euskaltzain kementsuena une horretan. Akademiako batzarretan etenik

---

[665] ABA-EUS: N. Oleagaren akta zirriborroa, 1951-11-30.

[666] Erbesteko kultura aldizkariek ere batzarraren edukiaren berri eman zuten (IAEV 1952a).

[667] Bestelako argitalpenei dagokienez, aktak horrelakorik ez aipatu arren, F. Krutwigek garai horretan adierazi zuen JCVk euskaltzainen sarrera hitzaldiak liburuki batean argitaratzeko asmoa izan zuela (ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-11-27).

[668] Eusko Ikaskuntzaren Artxiboa, Manuel Irujo funtsa: F. Krutwigen gutuna M. Irujori, 1961-02-20/21.

IKER-35.indd 257 2/9/19 10:55

gabe dosierrak irakurri eta hautagaitzak aurkezteaz gain, Nuevo Ateneo eta *Gernika*ren bidez, eragin sareak ehuntzen ziharduen. L. Michelenak, posizio ezberdinak markatuta, euskaltzain gazteak gerraondoko Akademian eta euskararen norabidean eragin zuen aldaketa aitortu zion gero:

> Este nuevo sesgo lo toma a partir, sobre todo, de la incorporación de Federico Krutwig, propiciada o al menos autorizada, cosa que ahora se quiere olvidar, por don Resurrección M.ª de Azkue, don Nazario de Oleaga, etc., etc. Puedo hablar de esto con toda libertad, ya que ni yo tenía entonces nada que ver con la Academia ni formé parte de la cohorte de los seguidores de Krutwig, algunos de cuyos miembros prefieren ahora el silencio a las declaraciones. Pero, por lo mismo que entonces tuve una actitud más bien crítica para con él así como también, y posiblemente sin razón, para con Zaitegui y Euzko-Gogoa, no veo que en conciencia pueda callar sin decir lo que pienso: que, en el terreno mismo de la lengua, el impulso decisivo, que representó un giro radical, al menos en apariencia, procede de Krutwig, más que de ningún otro (Michelena 2011c: 517).

Nolanahi den, prentsan Nuevo Ateneo-ko hitzaldiak iragarri zirenean, BPDko presidenteak berak kargu hartu zion N. Oleaga idazkariari. F. Krutwig agintari frankisten jomugan zegoen ordurako:

> Al ver en la prensa de ayer el anuncio de que el Instituto Julio de Urquijo ha organizado un ciclo de conferencias como homenaje póstumo a Dn. Resurrección Mª. de Azcue con actos que se inician hoy mismo y en los que intervienen los miembros de esa Academia Sres. Krutwig y Gorostiaga, hemos cambiado impresiones varios miembros de la Junta de Cultura de Vizcaya, creyéndonos obligados a participar a Vd. como Presidente en funciones de la lengua vasca, nuestra sorpresa y desagrado porque miembros de la Academia hayan organizado y colaborado en esos actos, cuando habíamos establecido previamente entre esa Academia y esta Junta que el homenaje a la figura de Dn. Resurrección se haría en acto organizado con la colaboración de ambas Entidades.[669]

JCVrekin batera antolatu beharreko omenaldiaz den bezainbatean, 1952ko urtarrilaren 4an egin zen San Vicente Mártir de Abando-ko parrokiak zuen zinema gelan.[670] BPDk gonbidatu zuen Espainiako filologoa ezin-

[669] ABA-EUS: J. M. Ruiz Salasen ofizioa N. Oleagari, 1951-12-10. «Instituto *Julio de Urquijo*» deitzen zen F. Krutwigek Nuevo Ateneo-n zuzentzen zuen saila.

[670] Bilboko Gran Vía-ko zinema areto dotoreagoa lortzen saiatu ziren lehenengo Bizkaiko CAPen bidez, baina saioak huts egin zuen (BFAH-EC: E. Calleren gutuna F. Greñori, 1951-12-07, Junta de Cultura C-7 -07-).

IKER-35.indd 258 2/9/19 10:55

bestean Antonio Tovar izan zen, euskalaritza frankista orbangabearen ordezkari ofiziala. Gainera, A. Tovar bere ibilbide akademikoaren une gorenean zegoen, Espainia frankistaren politika linguistikoa berrikusi eta partez errektifikatzeko erabili nahi zuelarik. Joaquín Ruiz Giménez (1913-2009) ministro berriak, Hezkuntza Nazionaletik abiatutako erreforma kulturalaren barruan, A. Tovar Salamancako Unibertsitateko errektore izendatu zuen 1951ko irailean (Muñoz Soro 2006).[671]

A. Tovarrek 1951ko abenduaren hasieran eman zion baiezkoa BPDko presidenteari, eta Bilborako bidaia baliatu nahi zuen 1940ko hamarkadan porrot egindako elkarlan zientifikoari berriz ekiteko: «Celebraré mucho hacer este viaje también para poder hablar a personas muy interesadas en los estudios vascos, con el fin de aunar en lo posible los esfuerzos y evitar nos dividamos en grupos y capillas, cada uno con su publicación, en detrimento de la eficacia».[672] Ekitaldiaren berri prentsan emateko, eta baita ezustekorik ez izateko ere, JCVk hitzaldiaren programa edo gidoia eskatu zion Salamancako Unibertsitateko errektoreari.[673] JCVren abenduko batzarrean bildutakoek ekitaldiari baiezkoa eman zioten.[674] Informazio eta Turismo ministerio sortu berriaren Bizkaiko delegazioak abenduaren amaieran eman zuen ekitaldirako baimena, eta berehala iragarri zuten prentsan (*La Gaceta del Norte* 1951-12-29; *CE-PV* 1952-01-01).[675]

Kanpotik Akademiari behartu nahi zitzaizkion erabakien artean, R. Lafuente Galindorena nabarmendu behar da. Espainiako Auzitegi Goreneko idazkaria zen eta, beraz, B. Echegarayren lankidea. Euskaltzainburua hil ondoren, bi gutun idatzi zituen Madrildik buru berriak urgazle izenda zezan, R. M. Azkuek berak agindu omen zion bezala.[676] N. Oleaga idazkaria ospitalizatuta zegoenez, F. Krutwigek erantzun behar izan zion, euskaraz, hartzaileak uler-

[671] «Decreto de 28 de septiembre de 1951 por el que se nombra para el cargo de Rector Magnífico de la Universidad de Salamanca a don Antonio Tovar Llorente», *BOE*, 1951-10-12.

[672] BFAH-EC: A. Tovarren gutuna J. M. Ruiz Salasi, 1951-12-04, Junta de Cultura C-7 -07-.

[673] BFAH-EC: A. Tovarren gutuna E. Calleri, 1951-12-14, Junta de Cultura C-7 -07-.

[674] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1951-12-27, Junta de Cultura C-62. J. M. Ruiz Salas, F. Echegaray, J. B. Merino, I. Urquijo, Conde de Superunda, C. Lasterra, J. M. Urrutia, A. Bilbao, R. Zumárraga, L. Hurtado de Saracho eta E. Calle bildu ziren.

[675] BFAH-EC: L. Segura Marcosen ofizioa E. Calleri, 1951-12-29, Junta de Cultura C-7 -07-.

[676] ABA-EUS: R. Lafuente Galindoren gutunak Euskaltzaindiari, 1951-12-06 & 1951-12-16.

IKER-35.indd 259 2/9/19 10:55

tzen ez zuen hizkuntzan. Euskarazko mezu ulertezinaren helburua R. Lafuenteri umiltasun lezioa ematea zen, baina Estatu funtzionarioa zela kontuan hartuta, F. Krutwigek garesti ordaindu zituen arduragabekerien etsenplutzat jo daiteke:

> Zure izentatzeari buruz neuk offizialki ezer ere ezdiezatzuket erran, bainan zure kandidaturaren aurkeztekotz nahiz buruzagi berriak nahiz bertze batek zure merezimenduak jakin beharr lituke. Euskalzaindian akademikoen izendatzeak' Biltzarr hunen bilkuretan egiten bai tira eta nehork ere, ez Euskalzainburuak ez berzte nehork ex officio nahiz khide titularerik nahiz urgaizlerik izenta ezpai litzake.[677]

Abenduan N. Oleagari idatzi zion A. Tovarrek, jakinarazteko parte hartuko zuela urtarrilaren 4ko omenaldian. A. Irigarayren bidez zekien agerkari ofiziala argitaratzeko asmoari eusten ziola Akademiak.[678] Salamancako Unibertsitateko errektoreak horretaz hitz egiteko baliatu nahi zuen Bilboko bisita. Gainera, Salamancan euskara katedra bat abiatzeko aukera ikusten zuen, eta horretaz ere jardun nahi zuen euskaltzainekin.[679] N. Oleagaren seme batek erantzun zion A. Tovarri. Aita aldi baterako ezinduta zegoen ebakuntza baten ondorioz, eta ezingo zuen urtarrileko omenaldian parte hartu, ezta A. Tovarrekin hitzordurik izan ere, baina aurrerago agerkariaren gaiari heltzeko nahia adierazi zion.[680] Hain zuzen, E. Erquiagak Bilbotik 1952ko Urteberrian L. Villasante euskaltzain berriari lapurtera klasikoz idatzitako gutunean ageri da babes ofizialaren beharra:

> Noiz izango dugu zure Aulki-hartze egun handia? Gauzak okhertu egin dira eta egunak ioan doaz. Eta gure Elkhargo ospetsuaren gorabeherak ere, eztira makalak. Agintari-usaineko edo oficial-kutsudun zerbait sortaraztea lortu-badagigu, orduan, gurenda arnasaz eta deduz betheko gara[.] Eta onura zerbait ihardesteko bide bakharra izanen dugu, nire aburuz. Hau diotzut, Krutwig iaunak erran berri derautanaren ondorio bezala. Mario Grandesek [sic] gurekin antola nahi duela, eta Tovar iaunaren esku duela emen zerbaiten egiten hasteko. Bai eder lizakigula Salamancako Maisu eder horren itzalpea![681]

---

677 ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna R. Lafuente Galindori, 1951-12-17.

678 Kontuan hartu behar da 1951n *BRSVAP* izan zela akademikoen lan gehien argiratu zuen aldizkaria: R. Lafon, M. Lecuona, A. Irigaray, J. A. de Donostia, P. de Iraizoz, A. M. Labayen, I. López Mendizábal, L. Michelena, A. Tovar, J. Vallejo, P. Yrizar eta P. Zabala (cf. Elósegui Irazusta 1970).

679 ABA-EUS: A. Tovarren gutuna N. Oleagari, 1951-12-14.

680 ABA-EUS: J. Oleagaren gutuna A. Tovarri, 1951-12-24.

681 ABA-EUS: E. Erquiagaren gutuna L. Villasanteri, 1952-01-01.

IKER-35.indd 260 2/9/19 10:55

4.11. JEAN SAINT-PIERRE APEZPIKUAREN HERIOTZA

J. Saint-Pierreren sarrera ekitaldi egingabeak eragindako arazoa ezerezean geratu zen apezpikua abenduaren 18an hil zenean. Euskaltzain izendatua izan arren, soilik L. Dassance eta R. Lafonen sarrera ekitaldietan parte hartu zuen Baionan 1950eko uztailean. Espainiako prentsak eta aldizkariek ez zuten ezer adierazi heriotzaz. Ameriketako aldizkari abertzaleek begirune gehiago erakutsi zioten EIL-SIEBeko buruari. 1950eko irailetik aurrera Argentina, Uruguai eta Txilen egon zen, euskaldun jatorriko etorkinak bisitatzen eta Baionako elizbarrutirako dirua biltzen. 1951ko irailaren 20ko Eskualzaleen Biltzarrean meza eman eta J. Hiriart-Urruty elizgizonaren nahiz J. Etchepare medikuaren idazle dohainak goraipatu zituen Hendaian. Hil ondoren, herri harpidetza abiatu zen Milafrangako jaioterrian, Ph. Veyrinek diseinatutako mausoleo bat egiteko, eta P. Lafittek haren idazlanen hautaketa hasi zuen. Hura hil ondoren, orobat, C. Mathieu Akizeko apezpikua izendatu zuten EIL-SIEBeko buru (IAEV 1950b; 1952a; 1952b; *Herria* 1951-09-27; 1951-12-20; Lafitte 1952b: 318).

Berpiztutako *Gure Herria* aldizkaria zuzentzeaz gain, *Le Courrier de Bayonne* egunkarian ere idatzi zuen 1947-1950 artean. *Gure Herria*n 1950-1951 artean frantsesez argitaratu zituen artikuluak ikusita, zalantzarik ez dago idazle gaitasunari eutsi ziola: «Ignace ou Inigo?», «L'antique ceinture des basques», «Chronique des Etudes Basques», «Le duel de Bayonne et du Labourd au XIVe siècle», «Trois mois avec les basques d'Amérique», «Le basque dans les actes publiques» edota «Chirmi-charma pues». Linguistikako artikuluetan, K. Boudarekin eztabaida etimologikoan jarraitu zuen, baina *BRSVAP*en agertutako artikulurik inoiz aipatu gabe. Tunisiako egonaldian aztertukoari eutsiz, Akitaniako protoeuskararen eta Mesopotamiako hurrieraren arteko lotura genetikoa frogatutzat jotzen zuen (Saint-Pierre 1950b).

Hain zuzen, hil eta berehala, *Gure Herria*k J. Saint-Pierreren «Le destin du Peuple Basque» artikulua argitaratu zuen, haren testamentu gisakoa zela adierazita. Baionako Musée Basque-n apezpikuak 1951ko bukaeran eman behar zuen hitzaldia omen zen, azkenean P. Narbaitzek irakurri zuena, bestearen eritasunagatik. Nire ustez Euskaltzaindiaren sarrera hitzaldirako prestatu behar zuen testutik oso gertu zegoen, edukiaz den bezainbatean. Nafarroako Erresuma eta foru erregimena politikoki goratu ondoren, interpretazio hau eman zuen gerra zibilaz: «La dernière guerre civile au pays basque se place dans la ligne des guer[r]es carlistes : c'est-à-dire dans la ligne historique de la lutte contre le courant centralisateur» (Saint-Pierre 1951: 331-332). Hen-

IKER-35.indd 261 2/9/19 10:55

daiako Eskualzaleen Biltzarraren hitzaldiaren ildotik, euskararen atzerakadak kezkatu arren, euskara literarioaren garapenak itxaropenez betetzen zuen, bereziki horrek izan zezakeen korrelatu moralagatik:

> La langue elle-même, si elle accuse un lent recul géographique qui lui a fait perdre la plaine de Navarre au sud de Pampelune, si la frange maritime est attaquée par la marée touristique, elle prend sa revanche par la perfection littéraire qu'elle a atteinte, et qui lui permet d'aborder tous les genres, en une gamme allant du populaire au raffiné. A aucune époque, elle n'a eté soumise par une pléiade d'écrivains à cette trituration qui en a fait un instrument tout à la fois souple et savoureux.
>
> C'est donc par un témoignage d'optimisme que je veux terminer cette causerie. Tel qu'il se présente, le petit Pays basque apporte au monde un message précieux, une leçon de vouloir vivre à une heure de pessimisme où règne le désarroi, un spectacle de stabilité dans une époque vouée au tourbillon, et le frais jaillissement d'une vie originale en plein siècle d'absorption par les totalitarismes niveleurs. Il ne s'agit pas seulement ici d'esthétique provinciale à sauvegarder pour les touristes ou amateurs de musée ; certes, nous n'avons pas reçu de la nature cette admirable mosaïque dont les pierres forment un tableau harmonieux, pour la laisser se perdre dans la grisaille terne de l'uniformité nationale (Saint-Pierre 1951: 343-344).

Baionako Sainte-Marie katedralean 1951ko abenduaren 20an egindako hileta jendetsuan agintari erlijioso eta politikoak bildu ziren. Alde batetik, J. Saliege kardinala eta hiru apezpiku: L. Terrier (Baiona), P. M. Theas (Tarbe) eta C. Mathieu (Akize). Hazparnen jaiotako Clément Mathieu (1882-1963) apezpikua azken bi gerrek eragindako euskal errefuxiatuak laguntzen aritu zen LIABeko arduradun gisa. Agian horregatik, hiletako otoitzean, J. Saint-Pierreren separatismoa ukatzera behartu zuen bere burua:

> D'où venait son enthousiasme pour tout ce qui touchait à notre langue et à notre pays? Aimait-il le Pays Basque contre la France? Non, nul ne peut soupçonner Mgr Saint-Pierre de n'avoir pas aimé la France. Il lui a donné le témoignage de son sang, le témoignage d'une captivité à laquelle, grâce au Saint-Siège, il a su donner un caractère apostolique. Il a eu en effet l'honneur et le bonheur de pouvoir dans un stalag de Séminaristes prisonniers donner des leçons de Théologie aux aspirants au sacerdoce.
>
> Mais l'amour de la grande patrie ne l'a pas empêché d'aimer passionnément la petite patrie, son cher Pays Basque dont le passé, le présent, l'avenir étaient l'intérêt suprême de la vie. J'ai dit: passionnément, mais sa passion n'était pas aveugle, elle était lucide. Son régionalisme était pur, sans nul mélange de separa-

IKER-35.indd 262 2/9/19 10:55

tisme. Il lui semblait simplement qu'un Basque doit être Français : non Français à la façon d'un Auvergnat ou d'un Breton, mais Français à la manière d'un Basque (Mathieu 1951: 323).

Ordezkari politikoei zegokienez, agintari ugari bildu ziren hiletara: G. Delaunay Pirinio Behereetako prefeta, M. Delay Baionako auzapeza, J. Ybarnegaray ministro faxista ohia edota L. Inchauspe Pirinio Behereetako Kontseilu Orokorreko presidentea. P. Lafittek zuzentzen zuen astekarian egindako kronikan, ordea, ez zuen Euskaltzaindia berariaz aipatu, nahiz eta bera edota L. Dassance bertan egon ziren. Baita J. M. Barandiaran urgazlea ere. Baionako *Gure Herria*k, bestalde, 1952ko lehen zenbaki monografikoa eskaini zion, hainbat fotografiarekin eta egile hauen idazlanekin: L. Terrier apezpikua, F. Aire «Chalbador» bertsolaria, G. Bernoville eskuindarra, T. Monzon EGLZ-DCEko burua, A. Constantin, J. Diharce, P. Lafitte edota J. Moulier (*Herria* 1951-12-27; Barandiaran 2009: 801-802).

4.12. **LUIS VILLASANTE (OFM)**

F. Krutwig eta L. Villasanteren arteko harremana bitxia izan zen, bi mundu aski ezberdinetako kide baitziren. Hala ere, adin berekoak ziren eta bion artean lotura bat gauzatu zen. Frantziskotarrak berak kontatu zuenez, *La sierva de Dios M. Ángeles Sorazu, concepcionista franciscana (1873-1921)* tesiaren argitalpena Bilbon prestatzen ari zela ezagutu zuten elkar. *La Gaceta del Norte* egunkarian irakurri omen zuen F. Krutwigen berri eta telefonoz deitu zion. Euskaltzain gazteak etxera gonbidatu zuen eta haren ideiek jakin-mina piztu zioten (Villasante 1997: 361-362).[682]

Luis Villasante Cortabitarte (1920-2000) Bizkaiko Gernikan jaio zen. Amaz umezurtza zen txikitatik eta aitaren aholkuz joan zen frantziskotarren Arantzazuko seminariora 1931n. Ikasle oso ona izan zen, gerra zibilean urtebetez Burgosen soldaduskan egindako aldiaz beste, fraidegaien ohiko komentuetan egin zituen ikasketak: Arantzazu (Oñati), Forua, Zarautz eta Erriberrin.

[682] L. Villasantek zioen 1947an izan zuela F. Krutwigen berri, orduan izendatu zutelako euskaltzain, baina ez dirudi oso probablea. Euskaltzaindia 1949ko ekainean hasi zen oihartzun publikoa izaten, J. M. Seminarioren sarrera ekitaldiarekin. Era berean, L. Villasanteren funts dokumentalean gordetzen den F. Krutwigen lehen gutuna 1950eko apirilekoa da. Nire ustez, 1950ekoa da bion arteko ezagutza, hots, L. Villasanteren tesiaren argitalpenaren (1950-1951) garaikoa.

IKER-35.indd 263 2/9/19 10:55

Jaiotzez euskalduna izan arren, ikaskideek erdaltzaletzat hartu eta baztertu egin zuten hasieran. Nafarroako gerraondoko urteetan, ordea, abertzale eta espainolisten arteko erdibidean kokatu nahi izan zuen bere burua.[683] Hala ere, L. Villasantek bertako bibliotekan irakurri ahal izan zituen S. Altube, R. M. Azkue edota P. Axular. Arantzazura itzulita profesioa egitera, giro politiko zatitua aurkitu zuen, eta «Bai» izeneko talde euskaltzalean integratu zen, S. Michelena abertzaleak gidatzen zuena.[684] Teologiako lizentzia eta doktorego ikasketak egin zituen 1944-1947 artean Comillasko Unibertsitatean, eta tarte horretan apaiztu zen. Besteak beste, R. M. Azkue euskaltzainburua 1946ko udako oporretan ezagutu omen zuen Lekeition (Villasante 1984: 14). Ondoren, sona handiko apaiz gazte gisa, Arantzazuko santutegira itzuli zen teologia irakastera eta tesia prestatzera. Teologiaz den bezainbatean, irakasle zurrunegi eta tradizionalistaren fama zuen, baina euskarazko eskolak ere ematen zituen (Zurutuza 2003: 490-494).

Irudia 13. **Luis Villasante (OFM)**



Iturria: *Aránzazu* (1951ko apirila).

[683] Nafarroako Erriberrin irakasleek giro euskaltzalea sortu zuten Errepublikan, baina horregatik salatu egin zituzten gerra zibilean (Clero Vasco 1966: 193-194; Gamboa & Larronde 2005: 341-342).

[684] Hain zuzen, ordukoa da L. Villasanteren lehen argitalpen izengabea, euskarazko «Artzai ta Santu», Tolosako *El maestro de los Terciarios* (1944) aldizkari zaharberrituan (Arana Martija 1992a: 37).

IKER-35.indd 264 2/9/19 10:55

1950eko apirilaren 20an F. Krutwigek idatzi zion lehen gutunean, gaztelaniaz eskerrak eman zizkion «Cantabria» probintziak argitaratzen zituen aldizkariak (*Aránzazu* eta *Anaitasuna*) eta *Arantzazuco Andre Mariaren Egutegia* bidali zizkiolako.[685] F. Krutwigek, frantziskotarren ahalegina txalotu arren, «baserritarrei» zuzenduta zegoen neurrian, bestelako gizarte jomugak zituen buruan. Euskara literariotzat jotzen zuena (J. Leiçarraga, P. Axular, J. Etcheberri) gomendatu zion L. Villasanteri, kultura jasoan, zientziaren dibulgazioan edota teologian erabiltzeko. Hori garaiko egoerari zegokionez: «El día de mañana que nuestra lengua nacional se enseñe en las escuelas y colegios, su empleo podrá ser mayor».[686]

Euskara literarioa hedatuko zukeen eskolarik ezean, frantziskotar aldizkariek egiten zuten euskalkien erabilera begi onez zekusan, baina soilik herri xeheari zuzenduta zegoen heinean. Horregatik, gaitzetsi egiten zuen erbesteko kultura aldizkarien jokabidea, lapurtera klasikoa erabiltzen ez zutelako. L. Villasanteren *Aránzazu* hilabetekariko euskarazko artikulu bat lapurteraz moldatu zuen eta gutunez bidali. F. Krutwigek, orobat, eskerrak eman zizkion S. Michelenaren *Arantzazu* (1949) poema liburuaren ale bat oparitu ziotelako. Biak bat zetozen S. Altubek (J. Urquijo eta R. M. Azkuerekin batera) euskalaritzan zuen maila apartekoarekin.[687] *Euskera* agerkaria berriz argitaratzeko zituzten arazo batez ere ekonomikoak aipatu zizkion, diru laguntza ofizialak aski ez zirelako.[688]

1950eko ekainean M. Lecuonaren Iruñeko sarrera ekitaldira gonbidatu zuen. Kubatik itzulitako Imanol Berriatua (OFM) ere egun batzuk lehenago ezagutu zuen Ribera kaleko egoitzan. S. Michelenaren poema liburuari egindako kritika bidali zion eta N. Ormaechearen *Euskaldunak*, argitaratu baino lehenago, irakurria zuela adierazi.[689] Ekainaren 28an euskaraz idatzi zion berriz Arantzazuko santutegira. Badirudi frantziskotarrak F. Krutwigen «Sobre ortografía vasca y el vascuence escrito» (1950-03-31) irakurri eta zen-

---

[685] Kontuan hartu behar da garai hartan euskarazko testu arruntak agertzen zituzten salbuespenezko kasuak zirela, Eliza katolikoaren babesari esker. *Arantzazuco Andre Mariaren Egutegia* 1947az geroztik argitaratzen zen eta 25.000 ale inguru banatzen zituen, Gipuzkoan bereziki (Intxausti 2014a: 188-190).

[686] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1950-04-20. Zoritxarrez F. Krutwigek idatzitakoak baino ez dira gordetzen, L. Villasantek idatzi zizkionak seguru asko desegin egin zituzten hura 1952an erbesteratu zenean.

[687] Josu Lavinen artxibo pertsonala, Federico Krutwigen biblioteka: MITXELENA'k, A. S. (1949): *Arantzazu: euskal-sinismenaren poema*. Oñate: Aranzazu.

[688] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1950-05-05.

[689] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1950-06-05.

IKER-35.indd 265 2/9/19 10:55

bait ohar egin zizkiola. Helburua, inoiz beteko ez zuena, gramatika normatibo bat idaztea zen.[690] 1950eko urrian beste gutun bat idatzi zion euskaraz. Postaz fotografia bat bidali zion, S. Michelenaren liburuaren iruzkin positiboarekin, *Aránzazu*ren azaroko zenbakian agertu zena, J. Urquijoren heriotzaren berriarekin batera.[691] L. Villasantek, apaltasunezko mirespenez, iruzkingilea eta haren asmoak aurkeztu zituen aldizkariko hitzaurretxoan (Krutwig 1950b).[692]

1951ko otsailaren 1ean beste gutun bat idatzi zion L. Villasanteri. Nuevo Ateneo-ren filologia saileko kideei bezala, Donibane Lohizuneko *Gernika* aldizkarian kolaboratzea eskatu zion. F. Krutwigen ustez aldizkariak ohiko akatsa zuen: interes gutxien zuten artikuluak euskarazkoak izatea.[693] Gutunean, halaber, nabarmendu zion Jon Mirande artean ezezagunak *Gernika*ren 1950eko azken zenbakian agertutako idazkia. Oso erasokorra zen eta aldizkariko zuzendaritzarekin eztabaida sortu zuen, baina F. Krutwig hunkituta zegoen haren ikuspegi apurtzailearekin: «En efecto, tiene razón que hay que escribir en vascuence algo más que cuentos de viejas o poesías o versos chabacanos».[694] J. Mirandek eraso egiten zien Europako demokraziei eta haien morroitzat zituen jeltzaleei. Aldizkariaren zuzendaritzak, ulertzekoa denez, gaitzetsi egin zuen jarrera hura, baina J. Miranderen gutuneko azken paragrafoak argitaratu zituen:

> Il aurait été également plus fécond de créer une véritable culture basque, et tout d'abord, de se forger une langue littéraire. Alors on n'assisterait pas à ce scandale d'une nation sans idiome propre, d'un président basque qui commence ses discours en euskera pour le poursuivre dans la langue de l'étranger (Gernika 1950: 55).

J. Miranderen alde Bilbotik gutuna bidali zuen 1951ko urtarrilaren 15ean, eta aldizkariaren urteko lehen zenbakian argitaratu zen «F. K. S.» siglapean. Politikagintza estatalista kritikatzen zuen, egiazko nazionalismoak kulturala eta apolitikoa izan behar zuela argudiatuz. Erbesteko baldintza zailak artean ezagutzen ez zituen burgeskume baten ikuspuntua zen. Era berean,

---

690 ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1950-06-28.

691 ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1950-10-25.

692 Hitzaurrea aldizkarian izengabea zen, baina F. Krutwigen 1950eko azaroaren 3ko gutunean agertzen da egilea L. Villasante zela. Jaiotzez Getxokoa, baina jatorriz aleman bezain frantsesa omen zela jakinarazi zion (ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1950-11-03).

693 ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-01.

694 ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-01.

IKER-35.indd 266 2/9/19 10:55

Akademiaren paraofizialtasun frankista zuritu nahi zuen, balizko estatu plurinazional baten izenean (Gernika 1951a: 56-57; cf. 1951b: 162). Gramatika normatiborik ezean, F. Krutwig lapurtera klasikoaren aditz forma erabilienak eta «h»z idatzitako lexikoa biltzen ari zen, L. Villasantek edota Nuevo Ateneo-koek erabil zitzaten.[695] F. Krutwigen kontrol nahiak ez zuen mugarik, eta artikuluak berari bidaltzea eskatu zion frantziskotarrari, *Gernika*n argitaratu baino lehenago zuzentzearren.[696]

Handik bi egunera, 1951ko otsailaren 3an, berriz idatzi zion gaztelaniaz, Akademiaren idazpurudun gutuna, «h» grafema daramaten hitz arrunten zerrendarekin eta aditz forma erabilienekin.[697] Gramatikaz den bezainbatean, Espainian egindako ahaleginak gutxietsi egiten zituen, baina lapurteraren arloan aurrekariak zeuden, bereziki Baionako elizbarrutitik sortutako lanei esker. P. Lafitteren 1944ko gramatikak ez omen zuen balio F. Krutwigen 1951ko helburua betetzeko: euskara literario estandar bat sortzeko, alegia. Aurreiritzi hori okerra eta bidegabea zen, Uztaritzeko seminarioko irakaslearen asmoa, hain zuzen, neolapurtera literarioa deskribatzea baitzen, bereziki oinarrituz Euskal Herrian parekorik ez zuen Baionako *Eskualduna* (1887-1944) astekariaren kazetaritza praktika luzean (Lafitte 1944: 6-7; cf. Díaz Noci 1995).

Nolanahi den, L. Villasante animatu zuen teologiako tesiaz Donibane Lohizuneko aldizkarian idaztera.[698] Hori dateke, hain zuzen, F. Krutwigen eraginaren ekarpen handiena, kultura gai jasoak euskaraz lantzera bultzatzea, horregatik testuaren maila beheratu gabe. Hala ere, maila formala lehenestea gabezia baten beste aurpegia zen, euskararen erabilera naturala ziurtatu gabe zegoen guneetatik baitzetorren. F. Krutwig jaiotzez erdalduna, hiriburu nagusiki gaztelaniadunean bizi zen, nahiz eta Akademiaren inguruan lor zezakeen euskaraz jardutea. L. Villasante, bestalde, Arantzazuko auzo euskaldun hutsean bizi arren, erdaraz funtzionatzen zuen instituzio erlijioso bateko kide zen. Nola erdietsi zitezkeen zientziaren, artearen, literaturaren edota unibertsitatearen gorengo mailak, eguneroko erabilera oinarrizkoan huts eginda?[699] Erabilera formalerako, prosa zen lehentasunez landu beharrekoa, euskara estandar bat finkatu nahi baldin bazen,

[695] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-01.

[696] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-01.

[697] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-03.

[698] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-03.

[699] F. Krutwigek begiz jota zuen beste idazle bat, Belokeko monasterioko J. Diharce «Iratzeder» beneditarra zen, bion belaunaldikoa, eta salatzen zuen euskal literaturaren maila apaletik gorako poesia idazten zuena (ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-03).

IKER-35.indd 267 2/9/19 10:56

eta hori behin eta berriz adierazi zion L. Villasanteri gutunetan, erretorikoki arrakasta izango zuen Grezia klasikoarekiko paralelismoa eginez.[700]

1951ko otsailaren 24an berriz idatzi zion gaztelaniaz. Eskerrak eman zizkion doktorego tesiaren lehen liburukia eta S. Michelenaren liburuko azalak jaso zituelako. F. Krutwigek, bere aldetik, kultismo lexikoaren lehen zatia erantsi zion gutunari, 20.000 hitz arte luzatu nahi zuena.[701] Ohi zuenaren aurka, egitasmoaren iturria aipatu zuen: Alemaniako *Duden* hiztegi ezaguna.[702] F. Krutwigek erantsitako zerrenda kasu honetan gorde da, folio tamainako bost orrialde dira, «a», «b» eta «d» letraz hasitako 500 hitzetik gora hartzen dituztenak, molde etimologista greko-latinoan: «abbreviazino», «adjunktu», «affirmativu», «adquiritu», «aktivu», etab. Zerrendak erakusten zuen ideologiaz den bezainbatean (batez ere teologo bati zuzenduta) euskal prosari eman nahi zion ikuspegi liberal modernoa nabari zen: «akatholiko», «bisexual», «bolxewik», «Dadaismu», «darwinismu», etab.[703]

F. Krutwigen ildoan egindako lehendabiziko lana, Pio XII.aren 1950eko azaroko «Munificentissimus Deus» konstituzio apostolikoaren itzulpena izan zen, *Aránzazu* aldizkarian (Villasante 1951a). Konstituzio apostolikoa aita santuaren dekretu goiena zen, Bilboko elizbarruti berriak euskarara itzultzen zituen apezpikuaren zirkularrak baino jasoagoa, beraz. Ondoren, F. Krutwigen proiektua frantziskotarrei aurkezteko, *Cantabria Franciscana* barne aldizkarian «En torno al problema del vascuence» argitaratu zuen. Pablo Lete probintzialak begi onez ikusi zuen lan hori.[704] Euskararen politizazioa, prestigiorik eza, eta goi klaseen (elizgizonak barne) kultura bizitza erdalduna salatu zituen.

---

[700] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-03.

[701] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-24.

[702] Josu Lavinen artxibo pertsonala, Federico Krutwigen biblioteka: *Duden* hiztegiaren zenbait liburuki daude. Alde batetik, irakasle nazionalsozialisten elkarteak argitaratutako hiztegi txiki garbizaleagoa, krutwigtarrek eskolan erabili zutena: BASLER, Otto & MÜHLNER, Waldemar (1934): *Der kleine Duden: Reichsschulwörterb. d. dt. Rechtschreibg; Für d. Volksschule*. Leipzig: Bibliogr. Inst. Bestetik, Alemaniako Errepublika Demokratikoa sortzear argitaratutako maileguzko hitzen hiztegia: KLIEN, Horst (1949): *Duden: Rechtschreibg d. dt. Sprache u. d. Fremdwörter*. Leipzig: Bibliographisches Inst.; Dresden: Buch u. Kunst. Konrad Duden-ek lehen aldiz 1880an argitaratutako hiztegiak edizio ugari izan ditu gaur arte eta hizkuntza estandarraren arlo guztiak deskribatzen ditu: ortografia, etimologia, maileguak edota ahoskera. Estatu germanofonoek geroztik *Duden* hiztegiko ortografia onartu zuten oro har.

[703] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-24.

[704] «He leído su trabajo para *Cantabria Franciscana*. Creo que no hay nada en el mismo que razonablemente pueda objetarse. Estimo que es muy útil tratar estas cuestiones en nuestra Revista interna» (ABA-EUS: P. Leteren gutuna L. Villasanteri, 1951-02-28).

IKER-35.indd 268 2/9/19 10:56

Arazo soziopolitikoetan sakondu gabe, kultura terminologiaren gaia landu zuen batez ere, purismorik gabeko estandar literario berri bat sortzeko bidean. Lexiko hori Mendebaldeko ondaretik mailegatzeko arauak eman zituen, ustez Bilboko Nuevo Ateneo-n ere erabiltzen zirenak. Bestalde, neologismo jeltzaleak gaitzesteaz gain, J. M. Mocoroak *Genio y lengua* saiakera katoliko integristan egiten zuen herri literaturaren defentsa gutxietsi zuen euskararen biziraupenerako: «aun dentro de lo vasco, la standardización sería una desgracia lamentable» (Mocoroa 1935: 240).[705]

Ignacio Omaechevarría (OFM) (1909-1995), historialaria izateaz gain, euskal filologian (bereziki onomastika historikoan) ordenako pertsona jantziena zen une horretan, eta barne aldizkariaren hurrengo zenbakian erantzun zion: «¿Esperanto o vascuence?». Funtsean, J. M. Mocoroa abertzalearen irizpideen alde egin zuen, nahiz eta korrespondentzia politikoa ez zen unibokoa, gerra zibilaren hasieran, *Aránzazu* aldizkariko «euskel atala»ren arduradun zela, errekete «txapelgorriak» ere goratu baitzituen. Gainera, 1952tik aurrera frantziskotar probintziako zuzendaritzan karguak bete zituen aholkulari gisa (Omaetxebarria 2001: 39-40, 435-439).

Euskararen bizitza herri mailan zegoen eta terminologia tekniko artifizialak ez zuen arazorik konpontzen. Hiztun naturalen eraginik gabe, euskara balio berezirik gabeko «esperanto» berria izan zitekeen. Baliorik gabe; ikuspegi pragmatiko hutsetik begiratuta, ingelesak, frantsesak edota esperantoak hobeto betetzen zutelako funtzio hori. Bestalde, termino greko-latinoak mailegatzeko arauen zuzentasuna zalantzan jarri zuen. Euskaltzain baten aginpidean idatzitako lana zenez, L. Villasanteren hizkuntza proposamenek izan zezaketen onarpen ofizialarekiko errezeloak nabarmenak ziren. P. Lafitte euskaltzainak berak *Eusko-Jakintza*n idazlana kritikatu zuen, herri literaturaren bidetik. Purismoaren aurkako jarrera txalotu arren, F. Krutwigekiko menpekotasuna eta kulturaren ikusmolde faltsua barregarri utzi zituen (Villasante 1951c; Lafitte 1951; Omaetxebarria 2016: 237-247).[706]

I. Berriatua Foruko irakaskideak zoriondu egin zuen *Cantabria Franciscana*ko artikuluagatik, baina berak ere gaitzetsi egin zuen F. Krutwigen bide diktatoriala, eta etsita ageri zen:

---

[705] Dena dela, *Genio y lengua* (1935) jeltzaleen ildotik aldentzen zen, N. Ormaechea «Orixe»z beste, P. Axular eta Baionako *Eskualduna* astekaria eredutzat hartzen zituelako.

[706] Desadostasunak berdinduta, I. Omaechevarría eta L. Villasantek elkarrekin prestatu zuten *Euskera* (1959) gramatika eta krestomatia liburua.

IKER-35.indd 269 2/9/19 10:56

> Padre Villasante, la cosa es muy difícil. Todo esto descorazona. A mí me parece que, en lo que se refiere a los valores naturales, nacionales, no hay en el mundo pueblo más desgraciado que el nuestro: incomprensión, desunión, desprecio, indiferencia. Pero no hay que echar[se] para atrás.
>
> Esta dificultad la encuentro también en las clases de euskera. Esto de los dialectos me tiene frito. Cuánto mejor no sería que todos aprendiesen el guipuzkera osotua hasta la teología, y entonces, después de conocer profundamente el euskera, todo el euskera, se dedicasen a conocer con más detalle los dialectos para predicar y escribir para el pueblo.[707]

1951ko maiatzean F. Krutwigek Nuevo Ateneo-ko gorabeherak azaldu zizkion eta teologia sailburu izatea eskaini zion L. Villasanteri.[708] Frantziskotarrak uko egin zion, Arantzazuko eskolekin lanpetuta zegoelako, baina bere doktorego tesiaren bigarren liburukia eta frantziskotar aldizkariak bidali zizkion.[709] L. Villasantek jasotako kritiken aurrean, F. Krutwigek argudioz josita gutun eta dosierrak bidali zizkion, Nuevo Ateneo-ko sailkideei ere aurkezten zizkienak. Gaztelaniaren antzeko ortografia fonetiko erraza baztergarria zen, kultura maila apalaren isla zelako, frantses, ingeles eta alemanarekin erkatuta. F. Krutwigen iturriak askotarikoak ziren: O. Weise, T. Uribe-Echevarría, P. Savj-López, K. Vossler, A. Dauzat, W. Fischer, J. Canedo, W. Milkowicz, Ch. Bally, E. Richter, J. Urquijo, J. Ithurry, A. Dirr edota A. Rovira.[710] *Informe de los señores académicos A. Campión y P. Broussain a la Academia de la Lengua Vasca sobre la unificación del euskera* (1920) ere baliogabetu zuen, J. Leiçarragaren euskara literarioari jarritako eragozpenak funsgabeak zirelakoan.[711] Kontuan hartu behar da, bestalde, euskal literatura klasiko hori ez zela erraz eskuratzen eta oso ezezaguna zela, baita euskaltzaleentzat ere.[712]

---

[707] ABA-EUS: I. Berriatuaren gutuna L. Villasanteri, 1951-06-28.

[708] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-05-28.

[709] F. Krutwigen gomendioz, L. Villasantek *Cantabria Franciscana*ko bere idazlanaren separatak bidali zituen garaiko kultura aldizkarietara: *Eusko-Jakintza, BRSVAP, Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos, Euzko-Gogoa* eta *Gure Herria*-ra. Uste izatekoa da *Gernika*ra F. Krutwigek berak bidali zuela. Era berean, akademiko hauei bidaltzea eskatu zion: S. Altube, R. Lafon, N. Ormaechea eta A. Irigarayri (ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-06-13).

[710] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri eta «Refutación a las objeciones puestas a la grafía culta de los términos cultos en euskara», [1951-07-04].

[711] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-07-10.

[712] J. Leiçarragaren *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria* (1571) lortzeko, adibidez, L. Villasantek, F. Krutwigen aholkuz, Begoñako Carmelo komentuko liburuzainarengana jo

IKER-35.indd 270 2/9/19 10:56

*Gernika*ren 1951ko uztaileko zenbakian argitaratu zen L. Villasanteren «Ángeles Sorazu edo emakume goitarr baten berri laburra» artikulua. Atzera begiratuta, F. Krutwigen lapurtera klasikoaren bertsio bigunago hau, euskara estandarraren urrats garrantzitsu gisa agertzen da, ortografia etimologista gorabehera, gipuzkera eta lapurteraren arteko erdibidea bilatu eta nazioarteko terminologia bereganatzeko saioa zen neurrian. Lapurtera klasikoa hedatzeko tresna gaituena izan zen L. Villasante. Bereziki 1970etik aurrera, euskaltzainburu gisa, frogatu zuen prosalari dohaina nabari zen ordurako. Hizkuntzaren corpusaz den bezainbatean, F. Krutwigen aukera onartzeaz gain, diskurtso mailan ere hitzez hitz euskaltzain gaztearen dizipulu gisa agertzen zen teologia irakaslea (Villasante 1951b; 1952d).

F. Krutwigek, frantziskotarraren leialtasunaz konbentzituta, J. Gorostiagaren laguntzarekin euskaltzain izateko aurkeztea eskaini zion uztailaren 15ean. N. Ormaechearekiko harremana gaiztotu eta haren hautagaitzak porrot egin ondoren, Bizkaikoek J. Urquijoren aulkirako beste norbait aurkeztea erabaki omen zuten Akademiaren ekainaren 28ko batzarrean. F. Krutwigen asmoa frantziskotarraren hautagaitza iraileko batzarrean aurkeztea zen, J. Saint-Pierre apezpikuaren Baionako sarrera ekitaldian, hain zuzen. Ikusi dugunez, F. Krutwig, J. Gorostiaga eta N. Oleagak sinatutako aurkezpenak uztailaren 28ko data zuen, baina Bilboko idazkariari abuztuaren 3an eman omen zion F. Krutwigek.[713] Esplizitatu gabeko arazoengatik J. Saint-Pierreren sarrera ekitaldirik ez zen egin, baina Donostian 1951ko irailaren 28an egindako batzarrean L. Villasante 31 urteko frantziskotar gaztea euskaltzain izendatu zuten, aurrekaririk gabeko azkartasunarekin. F. Krutwigek izendapenaren berri eman eta sarrera hitzaldia prestatzen joateko esan zion, bera aukeratu baitzuten erantzuna emateko.[714] Are P. Lete probintzialak ere prentsaren bidez jakin zuen, izendapenaren urgentziaren erakusgarri dena:

> Ayer por una nota del periódico local me enteré con gran alegría de que ha sido S. R. nombrado académico de nuestra lengua. Le felicito con toda efusión y me alegraré que, como espero, obtenga mucho éxitos en este campo de actividades. Es esta una gloria para la Provincia y estoy seguro de que le hará honor.[715]

---

zuen. L. Aquesolok kontatu zion Londresko «The Trinitarian Bible Society» protestanteak XX. mende hasieran egindako edizioak ere nekez eskuratu ahal zirela (ABA-EUS: L. Aquesoloren gutuna L. Villasanteri, 1951-07-31).

[713] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-08-03.

[714] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, [1951ko urria].

[715] ABA-EUS: P. Leteren gutuna L. Villasanteri, 1951-10-01.

IKER-35.indd 271 2/9/19 10:56

Ohiz kanpoko urgentziarekin, sarrera ekitaldia urtea amaitu baino lehenago egin nahi zuten. N. Oleaga idazkariaren iritziz, L. Villasanteren jaioterrian egin behar zen, eta horretarako Gernika-Lumoko alkatearekin hitz egiteko prest zegoen. Baina berriz ere F. Krutwigen asmoa gailendu zen, BPDko jauregian egitekoa, Bilbok komunikabide hobeak zituelako eta ekitaldi publikoari publizitate gehiago emateko.[716] Frantziskotarraren zalantzak uxatzearren, J. Urquijo hil ondoren Akademian zeuden iritzi ezberdinak azaldu zizkion, alderdikeriaz. R. M. Azkue eta S. Altube ziren gipuzkeraren alde argi eta garbi zeuden bakarrak. Frantziako kideez beste, A. Irigaray, I. M. Echaide eta B. Echegaray ez omen ziren lapurteraren aurkakoak. J. Gorostiaga euskaltzain berria ere lapurterazaleen taldera erakartzen ziharduen. Azkenik, ez omen zuen M. Lecuonaren iritziaren berri zehatzik. Gipuzkeraren hautua F. Krutwigek ez zuen inondik inora onartzen, Espainia-Frantzietan estandar bana sortzeko arriskua ikusten zuelako.[717] Beraz, sarrera eta erantzun hitzaldia bi-biak lapurtera klasikoz egitea nahi zuen, bere eragina Akademian sendotzeko.[718] Egia da garai horretan R. Lafonek gutunez estandarrerako lapurtera literarioaren alde egin ziola L. Villasanteri, sarrera hitzaldian autoritatezko iritzi gisa txertatu zuen aipuan. Baina Bordeleko Unibertsitateko irakaslearen lehentasuna filologia eta linguistika ziren, Euskaltzainditik kanpo egiten zuen ikerketa lana, eta ez euskararen gizarte sustapena:

> Parlons d'abord de la constitution d'une langue littéraire. Je crois comme vous que le labourdin littéraire est ce qui peut le mieux servir de base. Et vous avez raison de penser avant tout à Axular et à Etcheberri. Mais je pense qu'il ne faudrait pas négliger certains écrivains du XIXe siècle, comme Elissamburu.[719]

R. M. Azkue 1951ko azaroaren 9an hil ondoren, Akademian ziurtasunik eza areagotu egin zen. F. Krutwigek L. Villasante animatu zuen hilaren 30ean I. M. Echaideren Donostiako bulegoan egingo zen batzarrera joatera.[720] Hala ere, frantziskotarrari deialdia bidaltzea ahaztu omen zuen N. Oleaga idazkariak, eta ez zen bertaratu. F. Krutwigek abenduaren 21ean egin asmo zuten batzarrera deitu zuen. Euskaltzain berria bertan egotea oso garrantzitsua zen zuzendaritza berriko karguak bozkatuko zirelakoan. Inplizituki bere burua zuzendaritzakotzat aurkezten zuen F. Krutwigek: «Que se elija un presidente

716 ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-10-08.
717 ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri [1951ko urria].
718 ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-10-08.
719 ABA-EUS: R. Lafonen gutuna L. Villasanteri, 1952-01-30.
720 ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-11-27.

IKER-35.indd 272 2/9/19 10:56

activo con un buen secretario y el Euskalzaindi revivirá, pero si por cualquier motivo cayese la elección en alguna persona inadecuada, la vida del Euskalzaindi entrará en grave peligro».[721]

N. Ormaecheak, R. M. Azkueren heriotzaren berri jakin zuenean, haren lekua P. Lafittek edota F. Krutwigek hartuko zutela uste izan zuen etsipenez (Iztueta & Iztueta 2006: 265). Ondoren N. Oleaga izan zen ezinduta geratu zena, ebakuntza bategatik, eta abenduko batzarra bertan behera utzi behar izan zuten. L. Villasantek Gabonetako oporrak zituen sarrera hitzaldia prestatzeko, ekitaldia 1952ko urtarrilaren amaieran egingo zutelakoan.[722] Baina Euskaltzaindiaren hurrengo batzarra eta L. Villasanteren sarrera ekitaldia ez ziren 1952ko maiatzera arte egin.

[721] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-12-04.
[722] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-11-27.

IKER-35.indd 273 2/9/19 10:56

5. EUSKALTZAINDIA BURURIK GABE: 1952KO KRISIA

5.1. «QUE NOS SALVEN LA LENGUA AUNQUE SEAN LOS FASCISTAS»

1952. urtea, beraz, JCV eta Euskaltzaindiak R. M. Azkueren omenez antolatutako ekitaldi nekrologikoarekin hasi zen. Urtarrilaren 4an izan zen San Vicente Mártir de Abando-ko parrokiaren zinema aretoan. JCVk gonbidatutako hizlari nagusia Antonio Tovar linguista izan zen, Bilboko egunkariek iragarri bezala. Egun berean Salamancako Unibertsitateko errektoreari egindako elkarrizketa argitaratu zuten, fotografia eta guzti. A. Tovarrek R. M. Azkueren *Diccionario vasco-español-francés* bere horretan berrargitaratzea eskatu zuen, euskaltzainburuaren lana jarraitzerik ez zegoelako, dizipulurik ezagatik (*CE-PV* 1952-01-03; 1952-01-04; *La Gaceta del Norte* 1952-01-04). JCVren aldetik ordezkari ugari bildu ziren aurkezpen mahaira: BPDko presidentea, Bilboko alkatea, F. Echegaray, I. Urquijo, H. Bilbao, J. B. Merino, J. Irigoyen, F. Ygartua, Conde de Superunda, B. Bureba eta X. Domínguez Marroquín. Euskaltzaindiak, idazkaria eriondo zegoenez, soilik J. M. Seminario, F. Krutwig eta J. Gorostiagak osatutako ordezkaritza izan zuen mahaian. Ekitaldiari eman nahi izan zitzaion garrantziaren erakusgarri, C. Morcillo apezpikua eta G. Riestra gobernadore zibila ere bertaratu ziren.

BPDko presidenteak, N. Oleagaren ezin etorriaren oharra irakurtzeaz gain, Ignacio Urquijo Olano (1907-2002) eta A. Tovar hizlarien aurkezpena egin zuen.[723] I. Urquijo eskuindar monarkikoa zen, J. Urquijo zenaren iloba,

[723] ABA-EUS: N. Oleagaren oharra JCVri, 1952-01-04. Idazkariak ez zuen akta edo zirriborrorik sortu eta, ondorioz, ez dut Akademiaren ekitalditzat zenbatu. Diruzainaren kontabilitate liburuan ere ez da agertzen batzar gisa.

IKER-35.indd 275 2/9/19 10:56

gerra zibilean hildako J.M. Urquijoren semea eta JCVren buruorde efektibo berria. A. Tovar falangista, 1940ko hamarkadan izandako gorabeherak igarota, Espainiako intelektual handienetakoen artean agertzen zen, J. Ruiz Giménez Hezkuntza Nazionaleko ministro berriak bultzatu nahi zuen politika kulturaleko partaide gisa. Consejo Nacional del Movimiento-ko kide, Gorte frankistetako prokuradore eta Salamancako Unibertsitateko errektore berria zen (JCV 1952: 7-8).

Euskaltzainburuaren omenezko Nuevo Ateneo-ko hitzaldiek sortutako istiluen ondoren, Akademia lekuko mutu izatera mugatu zuten ekitaldian. Gainera, J. M. Seminario falangistaren presentzia politikoki esanguratsua berreskuratu zuten. I. Urquijok R. M. Azkueren hilberri xumea egin zuen, baina bizkaieraz, seguru asko BPDren instituzio organiko bateko kide batek ekitaldi publiko batean euskaraz egindako lehen saioa gerra zibilaren ondoren, J.M. Seminarioaren 1949ko sarrera Euskaltzaindiaren ekitaldi soiltzat jotzen baldin badugu (cf. *CE-PV* 1952-01-05; *La Gaceta del Norte* 1952-01-05). JCVk erabateko lehentasuna eman zion ekitaldiaren argitalpenari, urtarrilaren 24an batzartu zenean.[724] JCVk, halaber, laguntza eskatu zion N. Oleagari argitalpena biografia labur batez osatzeko. Liburuxka udarako prest egon zen, ohi ez bezalako azkartasunarekin, nahiz eta ordurako beste krisi batek egin zuen eztanda, gero ikusiko dugunez.[725]

A. Tovarrek Bilboko bisita baliatu nahi izan zuen N. Oleagarekin biltzeko, baina ez zuen astirik izan.[726] Arrazoi politikoengatik aukeratu bazuten hitzaldia emateko, apaltasunez eta errespetuz hitz egin zuen 32 urtez euskaltzainburu izan zenaz. Laburra izanagatik, seguru asko garai hartan egin zen azterketa onena da, gaur egun ere erabilgarria. R. M. Azkuek bere idazlan nagusietan folklorearekiko maitasuna eta akademizismo normatiboa nola uztartu zituen aztertu zuen (cf. Kintana Goiriena 2008: 166-167). N. Oleagaren erantzun hitzaldiaren bidetik, euskararen etorkizun beltza aitortu zuen hipokrisiarik gabe, eta N. Ormaechearen *Euskaldunak* poema goraipatu zuen, estandar literarioaren sortzaile izan zitekeelakoan. Dena dela, J. Urquijo eta R. M. Azkueren hutsune erraldoiak betetzeko jarraitzailerik ez zegoela adierazi zuen. Euskaltzainei, eta bereziki lapurtera klasikoa zarata handiarekin hedatu

[724] F. Echegaray, J. B. Merino, F. Ygartua, I. Urquijo, Conde de Superunda, H. Bilbao, J. Irigoyen, C. Lasterra eta E. Calle batzartu ziren (BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1952-01-24, Junta de Cultura C-62).

[725] ABA-EUS: E. Calleren gutuna N. Oleagari, 1952-01-21, eta JCVren ofizioa Euskaltzaindiari, 1952-08-14.

[726] ABA-EUS: A. Tovarren gutuna Jesús Oleagari, 1952-01-09.

IKER-35.indd 276 2/9/19 10:56

nahian zebilen F. Krutwigi, zuzendutako ohar zentzagarritzat har zitekeen. Abertzaleei, orobat, langa politikoa ezarri nahi izan zien:

> ¿Quiénes son sus continuadores y discípulos? Forzoso será si hacemos un detenido examen de conciencia que confesemos que nadie. Las generaciones siguientes, más débiles, más infortunadas, han sido devoradas por la política. El amor a la lengua, a la tradición, al pasado auténtico de estas montañas, se ha enredado en peligrosas aventuras, y ahí está la prueba bien visible de tal peligro. La lengua y la tradición vascas han perdido a sus dos mejores guardianes sin que se vea quien puede dignamente heredarlos. Podemos sentirnos, por lo que respecta a tales estudios en verdadera orfandad. Hasta su último día, D. Resurrección ha acudido a la Academia de la Lengua Vasca casi solo, sin estar rodeado, como merecía, de algunos discípulos celosos y modestos, capaces de aprender de él el amor al pasado y el respeto a la milenaria lengua.
>
> Ahora vemos cómo está comprometida la herencia de don Resurrección. Esta maravillosa reliquia que vive en los labios de los caseros del país, se halla por todas partes amenazada. Amenazada por el progreso y por la industrialización, amenazada por la política entre la incomprensión y la creación de neologismos, amenazada en su autenticidad por los intentos de unificación artificial... Sigamos, contra todas estas corrientes, la ruta iniciada por D. Resurrección: estudiemos la auténtica tradición y el que tenga por nativa la lengua euskérica, y la elija para en ella crear literatura, que en ella se inserte con el respeto que para el dialecto nativo tuvieron los más grandes escritores del pasado (apud JCV 1952: 38-39).

F. Krutwigi arazoak modu kezkagarrian pilatzen ari zitzaizkion. J. M. Ruiz Salasek kexua adierazi zion Akademiari 1951ko abenduan R. M. Azkueren omenez antolatutako hitzaldiengatik. Baina Nuevo Ateneo-ren barruan ere istilu larriak zituen, F. Krutwig separatistatzat salatzen ari baitziren zuzendaritzatik. Hori guztia gutxi balitz, *Gernika* aldizkariaren arduradunekin hautsi egin zuen oso modu txarrean. 1951ko abenduan gutun bortitza bidali zion I. Fagoagari (Iztueta & Iztueta 2006: 266). F. Krutwigen bertsioaren arabera, 1951ko maiatzetik Buenos Airesen zegoen I. Fagoagak aldizkariaren euskarazko atala murriztu nahi zuen, eta erabaki horregatik adierazi zion ez zuela *Gernika*n gehiago idatziko eta berak lortutako lankideei jakinaraziko ziela.[727] *Gernika*ko zuzendariak N. Ormaecheari kontatu zion bertsioak, ordea, euskaltzain gaztearen aurpegi ilun eta manipulatzailea erakusten zuen:

[727] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1952-02-24.

IKER-35.indd 277 2/9/19 10:56

> Le decía en mi precedente que Krutwig, por sus excesivas pretensiones y despotismos, me había creado un conflicto, pues se permitía, no sólo enmendar la plana a los Villasante Kortabitarte, Erkiaga, Arruza y demás, sino que pretendía que los Dufau, Mirande y demás escribiesen conforme a su ortografía, mandándole modelos sobre artículos ya publicados de cómo debían ser escritos. A tal punto llegó su despotismo que me conminó a enviarle el texto castellano del Editorial que anualmente consagro en euskera a la destrucción de Gernika, para que él lo vertiera al euskara. Ya usted ha visto cómo he reaccionado: escribiendo yo mismo y directamente en mi euskera bidasotarra el referido texto, por cuya aprobación le doy a usted las gracias. Todo esto lo soliviantó de tal modo que me escribió la carta más injusta y grosera que imaginarse puede, amenazándome con retirar su colaboración y la de cuantos él me presentó que son casi todos bilbainos colaboradores. Más aún: me amenazó con influir cerca de los suscriptores para que se dieran de baja. A este atropello contesté con los actos; es decir, retirando sus trabajos, ya compuestos, de *Gernika* y anunciándole por terceras personas (Thalamas y la Sta. Eguidazu) que le contestaría, poniendo las cosas en su punto, en una carta abierta en *Gernika.* Esto lo sacó, si cabe, más de sus casillas y enseñando su entraña teutónica, amenazó a la pobre Mertxe [Eguidazu] con que si se publicaba dicha carta denunciaría la entrada de la revista (clandestina) en España (Iztueta & Iztueta 2006: 476).

Artean F. Krutwigen zintzotasunaz konbentzituta, N. Ormaecheak 1951ko otsailean haren aurka idatzitako artikulua zentsuratu bazuen, oraingoan ez zen horrelakorik gertatu. Buenos Airesko *Gernika*ren 1952ko urtarrileko zenbakian, aipatutako R. M. Azkueren omenezko artikulu sailaz gain, N. Ormaechearen «Ciencia y práctica de nuestro idioma» artikulua agertu zen. H. Gavel eta S. Altuberekin linguistikaz polemizatu ondoren, F. Krutwig eta L. Villasante tandem berria iraindu zuen oso gogor:

> El señor Krutwig tiene un discípulo y seguidor. Veremos si hace escuela. El «tolle-tolle» que le han levantado, más en privado que en público, según cartas que recibo, es verdaderamente épico. Digamos ante todo que de lo que no se hace, no queda. Que nos salven la lengua aunque sean los fascistas (Ormaetxea 1991b: 452).

Artikulu horrek etsipen handia sortu zuen F. Krutwigen inguruan biltzen zirenen artean; bereziki *Gernika*ko zenbaki berean «Euskararen hel-oihua» artikulua lapurtera klasikoz idatzi zuen E. Erquiagarengan. Nuevo Ateneo-ko kide izandako J. E. Iranzok ere haren alde egin zuen zenbaki bereko «Unamuno y el vascuence»n. Are F. Krutwigen ekarpen labur bat ere agertu zen «Euskal-Erria» eta «Euzkadi» hitzen arteko ezberdintasun semantikoaz

IKER-35.indd 278 2/9/19 10:56

(Erkiaga 2001: 631-633; Iranzo 1952; Krutwig 1952a). Sarrera hitzaldia irakurtzear zegoen L. Villasanteri idatzitako gutunean, E. Erquiagak F. Krutwigen bidetik baztertzeko nahia agertu zuen. Euskaltzaindian bertan lapurtera klasikoak ez zuen harrerarik, eta erbesteko euskaltzaleak ez ezik, are GPDko artxibozain laguntzailea ere aurka agertzen zen:

> Zuri au esateko eskubiderik eztut, ziñez, egun auetan beintzat, baiña egia agertzea beti ere, zerbait egoki da. Gure laphurdiara zaletasun onek eztu batere giro egoki edo ambienterik. Bear ba da, nik baino leenagotik zenekian, baiña nik oraintxe ikusi dut argi argi. Euskaltzale eztirenei bost ardura zaie, iakiña ba! Eta euskaltzaleen artean, ioan dan urte bete inguru ontan, bat ez bat eztut aurkitu gure bide zaar-berri oien aldezkorik. Akademiku guztietatik asi, eta eztiran azkenetaraiño, batxu bat aurkitu ez...!
>
> Ni, Atsularrez gustaturik, pozik asi nintzan bide aratz, baiña orain zalantzaz bete naiz, eta etsi-agiñean naukazu. Ain zuzen ere, aste ontan berton, beste gauza bi iaso zaizkit: Altuberen La Vida del Euskera irakurten diardut, eta amaitu baiño leen, gure bide oiek egokiak eztirela izango ulertu dut, aintziña Euzkeltzale Bazkunakoenak izan etziran bezala; eta bestetik, Artetxetar Joxe-k, eskutitz baten, «basterrak nasten asiko ote garen ortografi berri» oitaz. Gizon au, zentzun aundikotzat daukat. Bion esanak, bada, barnean zirrara sakon egin didate. Zer egin bearko?
>
> Eta azkenez, azkenez gaurko, «Gernika»-ko oiekin ere eztakit nola gagozan, Krutwig iaunaren karta bat dela bide. Oso asarre dira, eta egun gutiren buruan azalpenen bat iaso ezpadezate, errebistaren orrietan asarre sumina agertuko omen dute aren aurka. Are geiago: Fagoagaren karta bat eta 18-garren zenbakia artu ditut. Emen, «Orixe», zure aurka ari da irriz eta isekaz, eta orobat Krutwigen aurka, berriz ere. Eta ori, ez unek ez zuk ere eztuzuela merezi uste dut, —iñoren irrigarri izaterik,— zintzo iokatu duzuela uste baitut gure euskera gaixoaren alde. Pentsa daigun bada ondo: euska[ra]ren alde ezer egokirik ez egitekotan, ez nuke nai, ene Aita xalo ori, rridikulu kutsurik artu dezazuen, ez ark ez zuk. Orra nire batbateko biozkadak.[728]

F. Krutwigek berehala L. Villasanteri idatzi behar izan zion, hura lasaitzeko. Oso baldarki, N. Ormaechea politikoki integristatzat jo zuen, eta M. Eguileor jeltzaleak ere hari jaramonik ez egiteko esan omen zien.[729] Barnealdean separatistatzat eta erbestean faxistatzat salatua, euskaltzain gaztea maniobrarako espaziorik gabe geratzen ari zen. N. Ormaechearen artikuluarekiko

[728] ABA-EUS: E. Erquiagaren gutuna L. Villasanteri, 1952-02-20.
[729] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1952-02-24.

IKER-35.indd 279 2/9/19 10:56

errepresalia modura, poliziara izen-abizenekin jotzeko mehatxua berritu zion *Gernika*ko J. Thalamási, bera politikoki erasotzen jarraitzen bazuten. Joko zikin horren bidez *Gernika*ko mehatxuak neutralizatu zituen (Iztueta & Iztueta 2006: 476-477). Esaterako, A. M. Labayen urgazleak F. Krutwigen artikuluen aurka idatzitako erantzuna ez zuen argitaratu nahi izan I. Fagoagak. Tolosako abertzaleak, dena dela, ezin zituen ahaztu J. Thalamás eta F. Krutwigek EAJ-PNVri *Gernika*n egindako kritikak, eta pozik jakin zuen bion arteko hausturaren berri.[730] *Gernika*ko arduradunek ez zituzten F. Krutwigen aurkako eraso zuzenak argitaratu, baina giroa zerbait baretu ondoren, A. Ibinagabeitiaren diplomazia handiko artikulu bat plazaratu zuten 1952ko urrian. Parisko erbesteratuak lapurterazaleen planteamenduen okerrak nabarmendu zituen, eta bide batez, gipuzkerazaleek *Egan*en agertutako idatzien alde agertu zen. Era berean, bera Bizkaikoa izateak ematen zion autoritate moralarekin, Gipuzkoako idazleei eskatu zien dialektalismoak ahal zen neurrian baztertzeko, euskaltzainburu zenak *Gipuzkera osotua* (1935b) egitasmoan adierazi zuen bezalaxe (Ibinagabeitia 1952c).

F. Krutwig, ondorioz, bere ideiak hedatzeko tresna izandako plataformarik gabe geratu zen. *BRSVAP*en artikuluak argitaratzeko aukera ere ez zen gauzatu.[731] RSVAPen aldizkarian ez ziren argitaratzen euskarazko saiakera soziolinguistikoak. Gainera, elkarte frankistatzat jotzen zen RSVAP. Paradoxikoki, Guatemalako *Euzko-Gogoa* zen geratzen zitzaion aukera bakarrenetakoa, gerraondoko Akademiarekiko oso kritikoa zena. Zuzendaria R. Olabide (SI) garbizalearen jarraitzaile zen, eta honela deskribatu zituen euskaltzain gaztearen saioak 1951ko uztailean: «Or datorkigu, ordea, Krutwig lengo auzi zarrak berritzen, urteotan batasunaren alde egin ezpaikenun: gaberdiko mozolo ederra, benetan» (Iztueta & Diaz 2007a: 148). Martxoan J. Zaiteguik gutun «aŕaitsu» bat idatzi zion aldizkarirako kolaborazioak eskatzeko.[732] Hain zuzen, F. Krutwigek martxoaren 15ean erantzun zion. N. Ormaechearekin izandako istiluak alde batera utzita, aurreko urtetik irakurtzen zuen Guatemalako aldizkaria goraipatu zion, kultura jasoa hedatzeko tresna zelako, baserritarrei zuzendutako Frantziako prentsa ez bezala. Izan ere, elitismo kulturalean bat egin

[730] ABA-AIB: A. M. Labayen eta A. Ibinagabeitiaren arteko gutunak, 1952-02-25, 1952-02-27, 1952-03-06 & 1952-05-22.

[731] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1952-02-24.

[732] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1952-03-18.

IKER-35.indd 280 2/9/19 10:56

zezakeen eskola jesuitikoarekin, A. M. Labayen eta abarrekin ez bezala.[733] Nolanahi den, *Euzko-Gogoa*rako hainbat idazlan bidaliko zizkiola agindu zion.[734]

N. Ormaechea eta I. Fagoagarekin izandako arazoek bideratuta edo gutxienez estalita ziruditen. Kontuan hartu behar da J. Zaiteguik gorabehera horien guztien berri bazuela, baina zurikeriaz jokatzea erabaki zuen, horrek aldizkarien arteko lehia iradokitzen duelarik (Iztueta & Diaz 2007b: 283, 295). Hain zuzen, martxoaren 30ean berriz idatzi zion F. Krutwigek, eta *Gernika*koen euskararekiko jarrera salatu zion. Guatemalako aldizkariarentzat harpidedunak bilatzeko prest agertzen zen.[735] Gutunarekin batera, J. M. Seminario eta R. Lafonen sarrera ekitaldietako erantzunak eta R. M. Azkueren omenezko hitzaldia bidali zizkion, *Euzko-Gogoa*ren 1952ko zenbakietan argitaratu zirenak, urtebeteko atzerapenarekin, J. Zaiteguik ezin ziolako aurre egin esku artean zituen eginkizun guztiei (Krutwig 1952b; 1952c; 1952d; cf. Ibiñagabeitia 2000).

J. M. Seminario, J. Gorostiaga eta N. Oleagaren hitzaldiak ere bidaltzen saiatuko zela agindu zion, modu horretara *Euzko-Gogoa* bilakatu nahi zuela Akademiaren agerkari ofiziosoa, *BRSVAP*ekin konkurrentzia arriskutsuan. J. Gorostiagaren «Bizkai zaharreko izenak» apirilean bidali zion F. Krutwigek eta 1952ko maiatzeko zenbakian agertu zen.[736] Ez ordea beste bienak, seguru asko arrazoi politikoengatik: «Seminario iauna guztiz faxista baita goganbehaŕtsua da, eta orain niri baietz erranagatik' beharr bada geroz ezetz eŕan diroke».[737] Dena dela, kontuan hartu behar da Guatemalako aldizkaria nekez argitaratu eta atzerapen handiarekin iristen zela Espainia frankistara. Era berean, F. Krutwigek «h» grafemadun hitzen zerrenda eta Akademian irakurritako «Sobre ortografía vasca y el vascuence escrito» lana bidali zizkion, bere estandarrerako proposamenak azaltzeko. Hain zuzen, L. Villasanteren sarrera

[733] Ildo horretan, J. Zaiteguik Sofokles itzultzeko egindako ahaleginen pare jartzen zituen Bilboko Nuevo Ateneo-ren inguruko kideak egiten ari omen ziren itzulpenak: E. Erquiaga (Platon), B. M. Garro (G. W. Leibniz), M. Arruza (R. Descartes) eta F. Krutwig bera (A. Schopenhauer). Itzulpen plangintza hori I. Berriatuarekin (OFM) asmatutakoa omen zen, idazleon sormen maila oso apala zelako (Krutwig 1986: 14-15).

[734] Euskaltzaindiaren Artxiboa, Jokin Zaitegi funtsa: F. Krutwigen gutuna J. Zaiteguiri, 1952-03-15. Gutunaren zati bat *Euzko-Gogoa*n argitaratu zen 1952ko azken zenbakian, urtebeteko atzerapenarekin (Euzko-Gogoa 1952b).

[735] Lehenago, *Gure Herria*rako eta *Gernika*rako 30 eta 70 harpidedun lortu omen zituen, hurrenez hurren.

[736] Euskaltzaindiaren Artxiboa, Jokin Zaitegi funtsa: F. Krutwigen gutuna J. Zaiteguiri, 1952-04-19.

[737] Euskaltzaindiaren Artxiboa, Jokin Zaitegi funtsa: F. Krutwigen gutuna J. Zaiteguiri, 1952-03-30.

IKER-35.indd 281 2/9/19 10:56

hitzaldiak gai hori landuko zuela aurreratu zion: «Lan handi ta sakona egin du (85 orrialde folio); problema haur sakonkiro traktatzen du eta lan haur' oraiarte egin diren ikherrpen errotikoena dela uste dut».[738]

L. Villasantek «En torno al problema del vascuence» artikuluarekin sortutako eztabaidak bizirik jarraitzen zuen. J. M. Mocoroak 1952ko apirilean Madrildik «Carta semi-abierta al R. P. Luis Villasante Kortabitarte» idazlan luzea bidali zion, eskolapioaren *Genio y lengua* (1935) saiakerari egindako kritikak puntuz puntu ukatzeko.[739] Frantziskotar gazteak ez zion zuzenean erantzun, baina *Cantabria Franciscana*n argitaratu berria zuen «Aclaraciones a *¿Esperanto o vascuence?*» bidali zion, F. Krutwigen gezurtatze aipu luzeekin zetorrena. Kontraesaleek ez omen zituzten ongi bereizten literatura eta teknika hizkerak. Terminologia internazionala, hain zuzen, «esperanto» modukoa izateko sortu zen, eta hala komeni zitzaion izatea euskara teknikoari ere (Villasante 1952a). Erabat sututa erantzun zion eskolapioak, frankismoak toleratutako erakundearen babesa erabiltzen zutelako zilegitasun politikorik gabe aberrazio zentzugabeak inposatzeko:

> Son tan garrafales los errores filológicos que en él se destacan, que aun mirando por el buen nombre de los estudios vascos —bastante acreditados entre nosotros hasta 1936, en que la fuerza bruta paralizó su desarrollo normal— sería recomendable que depusiesen Vds. todo aire de suficiencia y tono doctoral al discurrir y dar opinión sobre estos temas. Al decir Vds., me refiero a los dos coautores del escrito, que, además de arrogarse algo así como la representación cultural y el dominio de la Lingüística, dan la impresión de querer amenazarnos con la guillotina académico-convencional... de sus decretos leyes. No nos tuvieron acostumbrados a esas formas —tan a[j]enas a la ciencia como a la idiosincrasia de nuestro pueblo— aquellos tan modestos como eminentes varones que fundaron Euskaltzaindia y consiguieron ganar a la institución el respeto y la confianza de la generalidad de los vascos.[740]

Belaunaldi zaharreko euskaltzaleak oso minduta zeuden F. Krutwigen jarrerarekin. Azken bi urteetan Gipuzkoan neke askorekin argitaratutako A. Sorarrain (OFM), P. Múgica (SI), N. Echániz edota S. Michelena (OFM) elizgizonen liburuen ondoan, Bilboko Nuevo Ateneo-ren edo F. Krutwigen amets filosofikoak huskeriak ziren, euskal kultura publikoaz den bezainba-

[738] Euskaltzaindiaren Artxiboa, Jokin Zaitegi funtsa: F. Krutwigen gutuna J. Zaiteguiri, 1952-03-30.

[739] ABA-AIB: J. M. Mocoroaren gutuna L. Villasanteri eta J. M. Mocoroaren «Carta semi-abierta al R. P. Luis Villasante Kortabitarte», 1952-04-13 & 1952-04-17.

[740] ABA-AIB: J. M. Mocoroaren gutuna L. Villasanteri, 1952-05-21.

IKER-35.indd 282 2/9/19 10:56

tean. Uztailera arte Europan zabaldu ez zen *Euzko-Gogoa*ren 1952ko lehen zenbakian, F. Krutwigen «Nibbana» poema hinduista argitaratu zen, baina baita A. M. Labayenen «Euskera'ren batasuna» artikulua ere, ezizenpean, berriz ere gipuzkera osotuaren tradizioan eta euskaltzain gaztearekiko oposizio erabatekoan (Labayen 1952; cf. Iztueta & Diaz 2007: 303).[741] Hain zuzen, A. M. Labayen jeltzaleak ezin zuen ulertu nola izan zitekeen L. Villasante bezalako buruargi bat haren gogaide. Gutunez zuzendu zitzaion frantziskotarrari, horrek *Cantabria Franciscana*n idatzitako artikulua zela-eta:

> Oker bat bakarra arkitzen dut bertan: alegia euskera prantzesa ala españeraren malla berdiñean jarri nai izatea: gure izkera era berean neurtzea. Ortatik jakiña, ondorengo okerrak ateratzen zaizkigu.
>
> Zoritxarrez, oraingoz ezdaukagu gurea aiekin aldeatzerik. Aiek aundi ta altsu, gurea berriz, txiki ta urri bait dugu (jendez beintzat). Goi-kultura gaietan aiengana jo bear nai ta nai ez. Beraz ez dugu ene ustez Euskal Universitate bat izateko presa aundirik; ikaskizun oro euskeraz emango diran Ikastetxe Nagusia beinik bein. Geiegi eskatzea litzake. Gauden era apalean […] «programa minimo» batekin = Kristau-Ikasbide, Histori deuna, Literatura errikoia: ipui abesti, antzerkitxo eta abar. Sciencia Natural edo Izadiaren gauza jakingarriari buruz, lenengo mallako «hatsapenak». Bi izkera diran lekuan, indartsuenak aulena jaten duna ba dakit: aberatsak txiroa. Onen aurka, —euskaldunok «diruzalekeria» sartua bait dugu beste griña nagusiak bezala— ez dugu «abertzaletasun» birtutearen indarra baizik. Eiretar, flamendar, eslovakotar eta abarri geiago komeni zaie, ingles, prantzes ala alemanera mintzatzea, baña abertzaletasunez bereari eusten die. Ez al da orrela? Guretzat ere ori bera bedi eutsigarri. Geiegi eskatzea kaltegarri.
>
> Orregatik Bilbao'ko Ateneuan Plato, Descartes, Leibnitz eta Schopenhauer euskeratzen ari dirala entzutean nire baitan diot: kaskotik ondo al gaude? Ez ote da ori egiazko problematik iges egitea? Nire iritzi motzean bear ditugunak: *Goretti, Ama-Semeak Arantzazu-kondairan*, Etxaniz'en *Nola idatzi euskeraz-Kanta kantari, Noni eta Mani* eta antzeko idazlanak dira.
>
> Orain galdera bat konpiantza osoan: zuk ondotxo ezagutzen dezun Krutwig jaun ori burutik ondo dagona dala al derizkiotzu? aren lan batzuek irakurri ditut Gernika aldizkarian eta benetan ez dut sekulan irakurri ain sasi-euskera egoskaitzik… Ori ez da ez lapurtar ez ezer, ijito-izkera baizik. Bertsoetan berriz ez oin, ez mutur! ez neurri ta ez belarri. «Erlkoenig-Schicksalslied-Deo Ignoto» (Jainko ezjakiña!) baldarkeri utsak! Eta jaun orrek Schopenhauer itzuli nai al du? Nora goaz bide ortatik? Sortu duan «sistema» da gauza bat: ondo euskeraz egitea bestea.[742]

[741] ABA-AIB: A. Ibinagabeitiaren gutuna A. M. Labayeni, 1952-07-23.
[742] ABA-EUS: A. M. Labayenen gutuna L. Villasanteri, 1952-04-27.

IKER-35.indd 283 2/9/19 10:56

5.2. EUSKALTZAINDIAREN ZUZENDARITZA ETA SALAMANCAKO UNIBERTSITATEAREN KATEDRA

Izan ere, Euskaltzaindia inplikatzen zuten arazo hauek guztiak areagotu egin zituen J. Urquijo eta R. M. Azkuek utzitako autoritatearen hutsuneak. Euskaltzainburuaren heriotzaren, N. Oleaga idazkariaren eriondoaren eta Akademiak bizitza normala berreskuratzeko zituen arazoen ondorioz, Euskaltzaindiak ez zuen batzarrik egin bost hilabete luzez. 1951ko azaroaren 30ean egindakoaren hurrengoa 1952ko maiatzaren 9koa izan zen. Nire ustez, tarte horretan Euskaltzaindia desagertzeko arriskuan egon zen. Idazkariak batzarraren garrantzia gaztigatu zien euskaltzainei, honako gai hauek erabakitzeko asmoa baitzuten: «Euskaltzaindiaren beŕikuntzea, Euskaltzaingo utsak betetzea, Euskaltzainburugoa ornitzea ta abar».[743] Donostian batzartu ziren sei kide hauek: A. Irigaray, F. Krutwig, M. Lecuona, J. Gorostiaga, N. Oleaga eta L. Villasante. Euskaltzain horiei, Donibane Lohizuneko erbestetik 1948ko udaberrian itzulitako J. Cincunegui urgazlea gehitu zitzaien, jeltzale adindu eta zigortua zena, eta seguru asko EBBri batzarraz informazioa emateaz arduratu zena (Gurrutxaga Uranga 2017: 139-142).[744]

Batzar honen aktaren kopia mekanografiatu sinaturik ez dago, eta beraz ez zen ofizialki onartu. Gordetzen dena N. Oleaga idazkariak egindako akta zirriborroa da.[745]Azken batzarretik hilabete ugari igaro zirenez, gaiak pilatu egin zitzaizkien. A. Irigarayk, mahaiburu gisa, zenbait azalpen eman zituen. Seguru asko I. M. Echaide buruordearen ezin etorriaz aritu zen, euskaltzainburu berria izendatzeko asmoa zegoela ikusita, hutsune nabarmenegia baitzen. Erbesteko presioak bere horretan jarraitzen zuen, N. Ormaecheak, *Gernika*-ren 1952ko azken zenbakian, zuzendaritza I. López Mendizábal jeltzaleari zegokiola adierazi baitzuen: «Auzi ori dala bide, gure Ixaka zintzoa, lenbizitik barnean egon bear zukena, ez zan beiñere sartu Euskalzaindian. Gaur etxean ba'geunde, alkidun ez ezen, Buru egin bear genuke. Oinbeste lan eta ain ongi egin dulako, zor zaio, naski» (Ormaetxea 1991b: 950).

Nolanahi den, Gipuzkoa eta Bizkaiaren arteko harremanak ez ziren oso arinak. Donostian bi euskaltzain besterik ez egoteak mugatu egiten zuen bikotearen jarduna. A. Irigarayk 1951ko irailean M.ª Rosa Imaz emaztea galdu zuen eta bere kargu geratu ziren lau seme-alabak. Secundino Esnaola kaleko

[743] ABA-EUS: N. Oleagaren batzar deia, 1952-04-26.

[744] SAF-AA: E. Echeverríaren gutuna [D. Ciaurrizi?], 1951-08-27, PNV_NAC_EBB,K.00300,C.11.

[745] ABA-EUS: N. Oleagaren akta zirriborroa, 1952-05-09.

IKER-35.indd 284 2/9/19 10:56

kontsulta ondoko etxera aldatu zuen bizitokia, eta oso lanpetuta zebilen (Irigaray 1985: 22). I. M. Echaide F. Krutwigen bidez konpontzen saiatu zen, N. Oleaga eri egon bitartean, baina euskaltzain gaztea bere tirabiretan murgilduta zebilen. Buruordeak, 1952ko lehen hiruhilekoan, hiru aldiz galdetu zion gutunez idazkariaren egoeraz, baina F. Krutwigek ez zion erantzun. Gogaituta, J. Gorostiagarengana jo behar izan zuen Bilboko berrien eske.[746]

Euskaltzaindiaren egoera ahula diru laguntza ofizialen murrizketan ere ageri zen. I. M. Echaide, besteak beste, GPDren 1951ko 3.000 pezetak Bilbora bidaltzeaz (1952-01-09) arduratu zen eta 1952rako diru laguntzarik emango ez zutela jakinarazi zuen. Hain zuzen, GPD eta NFDren diru laguntzen berritzea argitu gabe zegoen.[747] 1950ean, aurreko urteetako aurrekontuaren halako bi (16.000 pta.) biltzeak sortutako itxaropenaren ondoren, 1951ko aurrekontua berriz ere itzuli zen ohiko 8.000 pta. ingurura, seguruenez Akademian sortzen ari ziren arazoak diputazioetako agintariengana iritsi zirelako. Gainera, 1951ko udaberriko greba orokorrak diktadura frankistaren jarrera sektarioa gogortu egin zuen. 1950eko aurrekontu bikoitzarekin, aurre egin ahal izan zitzaion hemezortzi euskaltzainez osatutako batzar dieten eta sarrera ekitaldien gastuei. Baina NFDk 1950ean 5.000 pta. eman ondoren, 1951-1952 artean ez zuen diru laguntzarik eman. GPDk ez zuela diru laguntzarik emango jakin bezain laster, EAJ-PNVren agerkariak ez zuen aukera galdu: «Ori egin baidu orain Gipuzkoar Aldundi zipotz onek: Euskaltzaindiari ematen zion limosna ori kendu» (*Alderdi* 1952-09).

Azkenik, Bizkaiko agintariekin izandako istiluen ondorioz, JCVk 1951ko azken hiruhilabetekotik ez zuen Euskaltzaindiaren kontuan dirurik sartzen. 1951ko aurrekontuan, Bilboko Udalaren laguntzak (1.000 pta.) berdindu zuen JCVren hutsegitea. Zorionez, R. M. Azkue zenaren liburu ugari salduta 2.515,45 pezetako diru sarrera izan zuen Akademiak 1951n. Hala ere, urteko gastuak (11.780 pta.) berriz ere izan ziren diru sarrerak baino handiagoak. Egoitzaren, langileen eta dieten ohiko gastuez gain, aldizkarien harpidetzak eta euskaltzain berrien sarrera ekitaldien prestaketak gastu gehiago sortu zituzten. 1952an Euskaltzaindia inolako diru laguntzarik gabe agertzen zen. Urte amaieran soilik Gipuzkoako CAPek eman zituen 1.000 pta., eta Euskaltzaindiak urriaren 29an R. M. Azkueren pianoa sal-

[746] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna J. Gorostiagari, 1952-03-25.
[747] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1952-04-02.

IKER-35.indd 285 2/9/19 10:56

duta baino ez zuen lortu 4.000 pta. eskuratzea, berriz ere urteko 8.500 pta. inguruko gastuen azpitik geratuta.[748]

Maiatzeko batzarraz den bezainbatean, L. Dassance eta B. Echegarayk ezin etorria adierazi zuten gutun bidez. Uztaritzeko alkateak egun horretan L. Terrier Baionako apezpikuaren bisita zuen haurren konfirmazio erlijiosorako. Era berean, idazkariari jakinarazi zion J. Elissalde, P. Lafitte eta hirurek J. Moulier «Oxobi» Arrangoitzeko erretorea lehenesten zutela J. Saint-Pierre apezpiku zenaren aulkia betetzeko.[749] B. Echegaray jakitun zen batzarrean hartu beharreko erabakien garrantziaz, baina gaixo jarraitzen zuen Madrilen, erorikoen eta biriketako kongestioen ondorioz.[750]

R. M. Azkue zenaren omenez JCVk eta Nuevo Ateneo-k egindako ekitaldien berri eman zen. Atzerapen handiarekin, J. M. Barandiaranek eta NFDk bidalitako dolumin mezuak jakinarazi zituzten. J. M. Arellano presidente zuen NFDk 1951ko azaroaren 30eko batzarrean erabaki zuen doluminak ematea eta abenduaren 7an jakinarazi zion Akademiari.[751] P. Lafitteren bidez, H. Gavelek ere doluminak eman zituen. J. M. Barandiaranek, Ikuskaren eta *Eusko-Jakintza* aldizkariaren izenean, abenduaren 15era arte ez zion I. M. Echaideri idatzi gutuna.[752] EIL-SIEBen aldizkarian eskaini zion hilberrian zuzen baina hotz goraipatu zuen euskaltzainburuaren lana: «*Magnum opus fecit* esan zidan London'en egun batez (1946ko Jorraillaren 16n) W. Schmidt jakintsuak, Azkue eta bere iztegia izentatuaz» (Barandiaran 1951).

Era berean, atzerapen handiarekin, J. Saint-Pierreren abenduko heriotzaren berri eman zuten batzarrean. Apezpikuaren idazlanak argitaratzeko asmoa zuen P. Lafittek: *Les meilleures pages de monseigneur Jean Saint-Pierre* (1952) bilduma izan zena. Akademiarekiko tirabiren frogagarri, P. Lafittek prestatutako bildumaren harpidedunen zerrenda amaigabean ere ez zen Akademia instituzio gisa edota Espainiako euskaltzainik agertu. Bai, ordea, Frantziako hemezortzi akademiko eta erbesteko jeltzale entzutetsuak.[753] A. Ibinagabeitiak ere berariazko ahalegina egin zuen *Euzko-Gogoa* zerrendan ager zedin. Sal-

[748] ABA-EUS: G. Maidaganen kontabilitate liburua, 1950-1952.
[749] ABA-EUS: L. Dassanceren gutuna N. Oleagari, 1952-05-02.
[750] ABA-EUS: B. Echegarayren gutuna N. Oleagari, 1952-05-06.
[751] ABA-EUS: NFDren ofizioa Euskaltzaindiari, 1951-12-07.
[752] ABA-EUS: J. M. Barandiaranen gutuna I. M. Echaideri, 1951-12-15.
[753] J. A. Aguirre, T. Monzon, M. Irujo, F. J. Landáburu, M. de la Sota, T. Hernandorena edota A. Zatarain.

IKER-35.indd 286 2/9/19 10:56

buespen gisa, J. Aguerre eta J. A. de Donostia urgazleak agertzen ziren Nafarroatik (Lafitte 1952b; Iztueta & Diaz 2007b: 295).

Maiatzaren 9ko batzarrean hainbat gai geroratu egin ziren, erabaki gabe. Alde batetik, E. Erquiaga urgazle izendatzeko proposamena zegoen, F. Krutwig, J. Gorostiaga eta N. Oleagak idatziz aspaldi aurkeztua, 1952ko urtarrilaren 1ean. L. Villasante (OFM) euskaltzain berriak urgazle gisa utzitako hutsunea betetzeko aurkezten zuten, izendapenari gehiegizko formalitatea emanda. Argi zegoen F. Krutwigek bere jarraitzaileekin betetzen jarraitu nahi zuela Akademia. Lapurtera klasikoz idatzitako agiri batean, E. Erquiagaren gerra zibil aurreko idazlanak nabarmentzeaz gain, une horretan Bilboko Nuevo Ateneo-ren filologia saileko idazkaria zela adierazten zen.[754]

Bestetik, Luis Michelena urgazlea soldatapeko idazkari izendatzea nahi zuten Donostiako ordezkaritzarako. GPDren esku zeuden J. F. Aizquivelen eta, bereziki, J. Urquijoren bildumetan oinarrituta, euskal filologiako mintegia sor zitekeen Donostian. Dena dela, Euskaltzaindiaren batzarrak Gipuzkoako ordezkaritzaren erabakia geroratzea erabaki zuen. Errenteriako linguistaren egoera ekonomikoa eskasa izanagatik, ospe intelektuala biltzen hasia zen. Are R. Lafon Frantziako euskaltzainak ere, Akademiarekin baino harreman gehiago zuen CSIC eta RSVAPekin, atlas linguistikoaren proiektua edota *BRSVAP*eko artikuluak zirela-eta.[755] Círculo Cultural Guipuzcoano-ko M. Agud eta J. M. Azaolak, CSICen laguntzarekin, bultzatu nahi zuten euskal filologiako mintegiaren proiektua, RSVAPen «Seminario de Lenguas Prerromanas» geldotuaren garapen gisa. Donostiako ateneoan euskara eskolak ematen zituen L. Michelenak xeheago azaldu zizkion Galiziako R. Piñeiro presondegi lagunari zeintzuk ziren joera eta erakunde ezberdinen arteko tentsioak:

> Hace tiempo que sentimos aquí algunos la necesidad de que en el Consejo haya una sección dedicada a lo relacionado con los estudios de lingüística o filología vasca, opinión decididamente apoyada por Caro —que ahora está en Estados Unidos— y que ha tropezado siempre con la más marcada oposición de los Amigos, que son aquí delegados del Consejo y vinculados a él por medio del Instituto Quadrado de Estudios Locales. Hemos aprovechado el viaje a Madrid para presentar un proyecto de una Sección de Filología Vasca en el Nebrija, que ha

[754] ABA-EUS: F. Krutwig, J. Gorostiaga eta N. Oleagaren idazkia Euskaltzaindiari, 1952-01-01.

[755] CCG-RP: L. Michelenaren gutuna R. Piñeirori, 1951-10-26. ABA-EUS: R. Lafonen gutuna L. Villasanteri, 1952-01-30.

IKER-35.indd 287 2/9/19 10:56

encontrado la mejor acogida por parte de Vallejo que en realidad se anticipó a nuestro proyecto, y creemos que la cosa va por buen camino.

Con esta iniciativa, que por el momento es completamente reservada y de la que no queremos se sepa nada aquí hasta que surta efectos en Madrid, se plantea aquí una vez más la eterna cuestión de la funesta influencia centralizadora de Madrid, tesis que no defienden precisamente los que tú te podrías imaginar. A mi modo de ver, el problema es que en el orden científico hay ciertas necesidades que, si no se pueden resolver aquí —y no hay posibilidad por ahora, al parecer, y ni siquiera deseo o comprensión de las realidades—, debe buscarse en el Consejo el medio de atender siquiera parcialmente a ellas.[756]

Gerraondoko Euskaltzaindia, beraz, erbesteko euskal ekoizpenaren eta kritiken aurrean ez ezik, barnealdeko proiektu ofizialekiko ere lotsagarri geratzeko arriskuan zegoen. Aipatu ditudan CSIC eta RSVAPen euskararekiko asmoei beste batzuk gehitu behar zitzaizkien, gainera falangismoaren itzal mehatxariaz jantzitakoak zirenak. Alde batetik, A. Tovar errektore berriak aspaldiko nahia bete zuen, euskal ikasketak Espainia frankistan erakundetzeaz den bezainbatean. 1947-1948ko ikasturtetik ematen zituen hautazko euskarazko eskolen garapen gisa, A. Tovarrek 1951ko azaroan 21ean euskara katedra sortzeko proposamena bidali zuen Enseñanza Universitaria-ko zuzendaritza nagusira (Ramos Ruiz 2007: 218; 2009: 351-352). Proposamena onartu eta J. Ruiz Giménez Hezkuntza Nazionaleko ministro berriaren 1952ko otsailaren 21eko aginduz, «Manuel de Larramendi» katedra sortu zen Salamancako Unibertsitatean:

Constituye la lengua vasca una de las más venerables antigüedades hispánicas que nos permite reconstruir lo que fue el antiguo Occidente prelatino y preindoeuropeo y es objeto de atención de sabios y estudiosos de los más cultos países, con cátedras especiales dedicadas a su estudio en diversas universidades. Es por ello deber inexcusable del Estado Español atender, en la medida más adecuada, al estudio, investigación y cuidado científico de este rico aspecto de nuestro común patrimonio cultural. Todo aconseja, pues, establecer la debida conexión de tales estudios con la Universidad y precisamente con las secciones de la Facultad de Filosofía y Letras dedicadas a la lingüística y filología. Fue en Salamanca donde, en 1729, se publicó la primera gramática de la lengua vasca, obra del P. Manuel de Larramendi, de la Compañía de Jesús, y recientemente aquella ilustre Universidad ha dado cabida en sus cuadros de enseñanza al estudio de la lengua vasca. Las anteriores razones debidamente estimadas, aconsejan y mueven

[756] CCG-RP: L. Michelenaren gutunak R. Piñeirori, 1951-12-22.

IKER-35.indd 288 2/9/19 10:56

> a dar carácter de estabilidad y mayor eficacia a estos estudios mediante la creación, con carácter extraordinario, de la Cátedra «Manuel de Larramendi», adscrita a la Facultad de Filosofía y Letras de la Universidad de Salamanca, confiando a dicha Cátedra la misión de orientar con carácter universitario los estudios de lenguas y antigüedades vascas en general aunando esfuerzos y trabajos e invitando a colaborar en la especialidad a quienes puedan aportar sus valiosos conocimientos. De este modo, el Ministro de Educación Nacional sirve a la Cultura suministrando tribuna y ambiente universitario adecuados a unos estudios capitales para la lingüística y para el conocimiento de las antigüedades de España y de todo el Occidente.[757]

1952ko martxoaren 3an A. Tovarrek katedra antolatzeko proposamen zehatzagoa egin zion Hezkuntza Nazionaleko ministroari. Katedraren patronatua Salamancako errektoreak, fakultateko dekanoak eta ikastaroen doktore arduradunak osatu behar zuten. Irakasle espezialista batek urtero hilabetez egon behar zuen Salamancan katedraren arduradun. J. M. Barandiaranek pasaporte arazoak zituelako, 1952ko udazkenean J. Gorostiaga euskaltzainak bi hilabetez euskarazko eskolak eta hitzaldi hauek eman zituen Salamancako katedran: «Las inscripciones ibéricas y el idioma ibérico» eta «Los latinismos de la lengua vasca y el fondo primitivo de la misma».[758] Entzule gehienak euskal jatorriko ikasleak ziren. J. M. Barandiaran, K. Bouda eta L. Michelena izan ziren hurrengo bi ikasturteetako hizlariak. Katedrak bereziki argitalpenez arduratu behar zuen eta horretarako guztirako aurrekontu egokia behar zuen. Hezkuntza Nazionaleko ministerioak diruz lagundu zuen katedra (30.000 pta. urtero), baina proiektu pertsonala izan zen batez ere, eta J. Ruiz Giménez ministroak ez zuen programa zehatzik garatu 1956ko otsailean kargugabetu zutelako (Tellechea Idígoras 1982: 35; Barandiaran Irizar 1995: 3-5; Ramos Ruiz 2007: 218-222; 2009: 351-353).[759]

Bestalde, RSVAPek (seguru asko M. Ciriquiainek idatzitako testuan) zuhurtziarekin txalotu zuen A. Tovar lankideak eskuratutako katedra. Aldi berean, Gipuzkoan euskararen ikergune bat sortu beharra aldarrikatu zuen, besteak beste, Akademiaren laguntzarekin:

---

[757] «Orden de 21 de febrero de 1952 por la que se crea en la Universidad de Salamanca la cátedra *Manuel de Larramendi*», *BOE*, 1952-03-14.

[758] Euskaltzaindiaren Artxiboa, Antonio Tovar funtsa: J. Gorostiagaren gutunak A. Tovari, 1952-02-04 & 1952-08-07.

[759] «Decreto de 15 de febrero de 1956 por el que cesa en el cargo de Ministro de Educación Nacional don Joaquín Ruíz-Giménez y Cortés» *BOE,* 1956-02-16.

IKER-35.indd 289 2/9/19 10:56

> Bien está, muy bien, que se estudie el vascuence en Salamanca, pero donde debe estudiarse principalmente es en el país en que es medio de expresión y lengua viva, donde las peñas, los montes, los arroyos y los caseríos están diciendo constantemente su lección con la fuerza expresiva de sus topónimos, donde la biblioteca de don Julio de Urquijo había de ser pieza viva, fundamental para cualquier estudio importante que quiera hacerse sobre la lengua; donde los oídos, habituados a la lengua desde niños, por haber sentido sus arrullos en la cuna, saben apreciar y distinguir los matices fonéticos más finos, y, donde los hombres tienen hecha la acción a las flexiones intrincadas de su verbo. Hacía largo tiempo que sentíamos muy honda esta preocupación y confiábamos, y confiamos esperanzados, que nuestras Diputaciones— mejor la guipuzcoana que la vizcaína por la mayor densidad lingüística en su jurisdicción —, consiguieran de la Universidad de Valladolid, a cuya demarcación territorial pertenecen, la creación de una cátedra de Vascuence en el País, de rango universitario, bajo la dependencia de un Patronato que presidiera el propio Rector o el Decano de la Facultad correspondiente, en su caso, con la cooperación ineludible, en esencia y potencia, de la Academia de la Lengua Vasca y dotada convenientemente por los presupuestos de las Diputaciones. Ahora que la «Manuel de Larramendi» ha abierto el camino —y es un motivo más de agradecimiento—, se nos hace llama viva y fulgurante esta preocupación de tan hondas raíces. Todos, Diputaciones, Academia, vascólogos, «Amigos», hemos de poner el mayor empeño en ver logrado el propósito, pues de otro modo, corremos el peligro de que la lengua vasca, único testimonio vivo de la España prerromana, como hemos dicho muchas veces, pase a ser, después de tantos siglos de existencia palpitante, una pieza muerta de dolorosa arqueología (RSVAP 1951).

Salamancako katedraren sorrerak oihartzun handia izan zuen prentsa frankistan, euskalaritza zientifiko eta politikoki orbangabearen gailurra izango zelakoan (cf. *Diario de Navarra* 1952-03-25; 1952-03-26). Kontuan hartu behar da Bizkaian, gerra zibilera arte, BPDk nahiz Bilboko Udalak antolatutako euskara katedrak egon zirela, baita euskaraz ematen zituzten baserri auzoetako eskolak ere. EAJ-PNVren agerkariak, esaterako, editorial oso gogorra argitaratu zuen diktaduraren euskararekiko asmoak salatzeko:

> Una vez que los Gobernadores civiles hispanos puedan cumplir la misión del franco-falangismo de matar la lengua vasca, cosa que jamás lo conseguirán porque no podrán matar a las familias vascas de donde brota y se renueva sin cesar el verbo nacional de Euzkadi, podrán ofrecer a la Universidad de Salamanca su cadáver, para que en las aulas de la Cátedra de la lengua vasca, lo disequen con sus bisturís manos enemigas, encargadas de antemano por el Estado español, de falsear los orígenes, la naturaleza, la estructura y las relaciones de esa «venerable antigüedad hispánica» (*Alderdi* 1952-04).[760]

[760] cf. *Euzko Deya* 1952-06-01; *Alderdi* 1953-02.

IKER-35.indd 290 2/9/19 10:56

Irudia 14. **Antonio Tovar (karikatura)**

Iturria: *La Voz de España* (1952-08-24).

JCVren batzarrak, orobat, J. Ruiz Giménez Hezkuntza Nazionaleko ministroa zoriontzea erabaki zuen.[761] J. M. Ruiz Salasek apirilaren 4an idatzi zion ministroari: «testimoniar a V. E. su profund[a] gratitud, por esta feliz iniciativa de tanta trascendencia cultural y filológica y que tan grata impresión ha causado en la región vascongada».[762] Katedrak euskararen ikergune bihurtu nahi zuen, irakasleak gonbidatuz, ikasle bekadunak erakarriz eta hiztegi etimologikoaren nahiz atlas linguistikoaren egitasmoetan parte hartuz (IAEV 1952b; Gernika 1952a). Baina Salamancaraino joan gabe, Bilbon bertan ere

[761] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1952-03-27, Junta de Cultura C-62. Hauek bildu ziren: J. M. Ruiz Salas, J. Zuazagoitia, I. Urquijo, J. B. Merino, F. Ygartua, J. Irigoyen, C. Lasterra, Conde de Superunda, R. Zumárraga eta E. Calle.

[762] BFAH-EC: JCVko presidentearen ofizioa Hezkuntza Nazionaleko ministroari, 1952-04-04, Junta de Cultura C-40 -01-.

IKER-35.indd 291 2/9/19 10:56

ildo bereko proiektu bat gauzatu zen 1952ko martxoaren 5ean, susmopean zegoen Akademiarekin lehiatzera etorri zitekeena, ortodoxia ideologiko falangistatik. Hain zuzen, JCVren maiatzaren 1eko batzarrean eman zitzaien horren berri bildutakoei: «Al darse cuenta de una comunicación de la Jefatura de FET y de las JONS sobre la creación del Centro de Estudios Vascos se acordó designar a don Fernando de Echegaray, para que represente a la Junta en la nueva organización, cuya actividad tanto interesa a esta Institución Cultural».[763] Instituzio berri hori, ondorioz, G. Riestra FET-JONSen Bizkaiko buruaren kontrolpean egon zen, baina zuzendaritza Mario Grande Ramosek (1917-1980) eraman zuen. Hau Bilboko irakaskuntza ertaineko frantses katedraduna zen, gobernadore zibilaren euskal kulturarekiko jarrera beligerantetik baino areago, A. Tovarren interes zientifikotik gertuago zegoena. Izan ere, RSVAPen «Seminario de Lenguas Prerromanas» delakoaren parekoa izan nahi zuen «Centro de Estudios Vascos de FET y de las JONS»ek, besteak beste, Salamancako Unibertsitatearen euskal hiztegi etimologikoaren edota CSICen atlas linguistikoaren proiektuetan Bizkaiko lankide gisa aritzeko (*La Gaceta del Norte* 1952-03-06; *CE-PV* 1952-03-06).[764]

«Euskal-Kulturaren Elkharrgoa»

Maiatzaren 9ko batzarrean, F. Krutwigen esku egon zen dosier nagusia, Euskaltzaindiaren egoera hauskorrari erantzun nahi ziona. Akademia berriztatzea proposatu zuen, 1949ko irailean aurkeztutakoaren bidetik. Baina oraingoan, «yagoleen» saila berpiztean egin zuen indar gehien. Kontuan hartu behar da JCVk 1941ean Euskaltzaindia berrabiatzeko baimena eman zuenean, «ikerleen» eta «yagoleen» sailak desagertu egin zirela. N. Oleagak ere J. Gorostiagaren sarrera ekitaldian adierazi zuenez, Akademiaren zeregin nagusia hizkuntza gizartean sustatzea zen. Ikerketa zientifikoaren arloa, bestelako erakundeen esku utz zitekeen.

R. M. Azkueren heriotza aitzakia hartuta, Akademia osatzen zuten kideen utzikeria salatu zuen saminki F. Krutwigek. Euskaltzaindia ez zela linguistika egiteko sortu eta euskararen bizia bera izan behar zutela ardura nagusi. Izenik aipatu gabe, zenbait euskaltzainen koldarkeria nabarmendu zuen, azken aldian paira-

[763] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1952-05-01, Junta de Cultura C-62.

[764] Sancho el Sabio Fundazioa, José Miguel Azaola funtsa: J. M. Azaolaren gutuna A. Tovarri, 1952-06-11.

IKER-35.indd 292 2/9/19 10:56

tzen ari zen presioaren eta istiluen adierazle. Halaber, arazo nagusia diru laguntzena zenik ukatu zuen. 1951ko hiru batzarretan, Gipuzkoako lantegi bateko zuzendariaren izenean, F. Krutwigek berak dirua eskaini omen zion Akademiari. Aktetan ez dago horren arrastorik, baina antza denez uko egin zioten eskaintzari. Nolanahi den, proposamen zehatzak aurkeztu zituen dosier mekanografiatuan:

1. 1920ko araudiak agintzen zuen «yagoleen» saila berrezartzea. Horri lotuta, «Euskaltzaindiaren Laguntzaileak» berpiztu eta «Euskal-Kulturaren Elkharrgoa» sortzea, Akademiaren babespean euskararen aldeko ekintzak abiatzeko.
2. *Euskera* agerkaria berriz argitaratua eta horretarako batzorde bat izendatzea Bilbon.
3. Batzarrak hilero egitea, abuztuan izan ezik, honela antolatuta, tokian tokiko akademikoak erakartzearren: Bilbon hiru (irailetik azarora), Donostian hiru (abendutik otsailera), Iruñean bi (martxotik apirilera) eta Baionan beste hiru (maiatzetik uztailera).
4. Ekitaldi irekiak antolatzea euskaltzainen sarrerak edota jaialdiak ospatzeko.
5. 1949ko iraileko dosierrari jarraituta, Lapurdi-Bizkai-Gipuzkoetako dialekto literarioek bina ordezkari izatea. J. Saint-Pierreren hutsunea betetzeko, J. Diharce Belokeko monasterioko beneditarra aurkeztu zuen.[765]
6. Urgazle berriak izendatzea: L. Aquesolo Begoñako Carmelo komentuko liburuzaina; E. Erquiaga Banco de Vizcaya-ko langilea; eta S. Michelena frantziskotarra.
7. Erbestean zeuden S. Altube eta D. de Inzaren (OFMCap) ordezko, hurrenez hurren, L. Michelena eta J. Aguerre urgazleak batzarretara deitzea. Behin-behineko ordezkaritzak ziren, ezin etorrien hutsuneak betetzeko.
8. «Euskal-Kulturaren Elkharrgoa»ren bidez haurrentzat literatura sariak banatzea, Eskualzaleen Biltzarrak Frantzian egiten zuen bezala.
9. R. M. Azkueren hutsunea betetzeko, Bizkaiko ordezkari gisa, P. Múgica (SI) izendatzea. Bederatzigarren puntu hori eskuz idatzita zegoen, hurrengoa bezala, baina ez zuen zentzurik. P. Múgica «giputza» zen jaiotzez eta euskalkiz (Urnieta).
10. Akademiaren zuzendaritzako karguak hautatzea.[766]

---

[765] *Gernika*n argitaratutako poemekin F. Krutwig liluratu zuena (ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1951-02-03).

[766] ABA-EUS: F. Krutwigen dosierra Akademia berriztatzeaz, [1952-05-09].

IKER-35.indd 293 2/9/19 10:56

Argi dago F. Krutwigek bere eragina indartu nahi zuela, «yagoleen» saila ezarri eta bere ildoko kideak izendatuz. «Euskal-Kulturaren Elkharrgoa»k, azken finean, Nuevo Ateneo-tik egotzitako F. Krutwigen saila zirudien, izen berriarekin. Dosierrean, L. Aquesolo eta E. Erquiaga «Euskal-Kulturaren Elkharrgoa»ren itzultzaile batzordeko buru eta idazkari gisa agertzen ziren, hurrenez hurren. F. Krutwigek bere burua Akademiaren zuzendaritzako kide ikusten zuen ordurako. R. M. Azkue hilez geroztik, I. M. Echaide zen buruorde, N. Oleaga idazkari eta G. Maidagan diruzain, baina azken horrek ez zuen parte hartzen jarduera akademikoan. F. Krutwigen dosierrak izan zitzakeen ondorioak ikusita, euskaltzain guztiei jakinarazi artean, proiektua gerarazi eta hurrengorako utzi zuen A. Irigaray mahaiburu zuen batzarrak.[767]

F. Krutwigek dosierrean aipatzen zituen eranskinen artean «Euskal kulturaren araudia» izenekoa gorde da, «Euskal-Kulturaren Elkharrgoa»ren estatutuen zirriborroa, alegia. F. Krutwigek berak aipatu bezala, elkargo berria Errepublikan aritutako «Euskaltzaindiaren Laguntzaľeak» taldearen bidetik zihoan. Hogeita bi puntuz osatutako F. Krutwigen araudiaren arabera, «Euskal-Kulturaren Elkharrgoa» izaera juridikorik gabe Bilbon ezarritako Akademiaren filiala zen, eta bost helburu nagusi zituen:

a. «Euskara kultur-hizkuntza bat bilhaka dadin ekhintzea»
b. «Euskaraz kultur baten kreatzea»
c. «Euskalherriaren buruzko kulturaren hedatzea»
d. «Euskararen kultur-prestijea goititzea»
e. «Euskalzaindiari edolako ekhintzetan laguntzea»[768]

Gainerako puntuetan, Euskaltzaindiaren beraren egitura jarraitzen zuen, gerraondoko Akademiaren egoera ahula kontuan hartuta, praktikan hura ordezkatzeko arriskua zuena. Elkargoak, orobat, EI-SEV antzeko bat izan nahi zuen, Bilboko Nuevo Ateneo-ren hainbat sail bereganatzen zituela: itzultzaileen saila, filosofia, historia, kulturaren jakintza eta ekonomia. Elkargoaren zuzendaritzaren eta sailen azpian, bost batzorde zeuden:

a. «Euskararen gizarteko prestijea zaintzeko kommissinoa»
b. «Euskararen erabiltze ta hedatzearen ekhintzeko kommissinoa»
c. «Euskararen eskubideak zaintzeko kommissinoa»
d. «Euskal-argitaraldiaren kommissinoa»

[767] ABA-EUS: N. Oleagaren akta zirriborroa, 1952-05-09.
[768] ABA-EUS: F. Krutwigen «Euskal kulturaren araudia», [1952-05-09].

IKER-35.indd 294 2/9/19 10:56

e. «Dirua ta Sorosbideen kommissinoa»[769]

Akademiaren artxiboan paper zati solte bat gordetzen da, nire ustez F. Krutwigen 1952ko maiatzeko dosierrari dagokiona. Bertan «kommissinoak» osatzeko Bizkaiko hainbat abertzale zerrendatzen dira: I. Berriatua, (OFM) eta Cirilo Arzubiaga elizgizonak edota Federico Zabala, Manuel Eguileor, J. M. Caballero Aldama eta Carlos Billalabeitia politikari jeltzaleak, besteak beste[770]. Argi dago F. Krutwigek EAJ-PNVrekin elkarlana abiatu nahi zuela euskara gizartean sustatzeko.

F. Krutwigek emana zion bere asmoaren berri P. Lafitteri apirilaren 21ean. Gutunean kexu zen Frantziako euskaltzainak batzarretara agertzen ez zirelako, nahiz eta 1951ko sei batzarretatik lau Donostian egin. Era berean, adierazi zion L. Dassancek ez zuela berak bidalitako gutunik erantzun. «Euskal-Kulturaren Elkharrgo»rako unibertsitate irakasle batzuekin ari omen zen hizketan.[771] EAJ-PNVk jasotako informazioaren arabera, jesuitek euskal kultura Deustuko Unibertsitatean nolabait lantzeko asmoa zuten, J. B. Janssens (SI) ordenako nagusiaren onespenarekin. Euskal Herriko historia landu eta ikasle euskaldunak alfabetatzea aipatzen zuen EBBren komunikazioak.[772] Erbesteko EJ-GErekiko elkarlana abiatu nahi zuen F. Krutwigek. Horretarako, M. Eguileor eta barnealdeko beste jeltzale batzuekin hizketan ari zen. F. Krutwigek, beraz, kolaborazionismo salaketa gainetik kendu nahi zuen behin betiko. P. Lafitteri eskatu zion T. Monzonekin bilera bat presta zezala, «Euskalherrian'albait-handien izan daiteken kultur-berphiztearen fomentatzekotz» (Andiazabal & al. 2006: 214).

Industrializazioak, migrazioak edota «mass media»ren hedatzeak arriskuaren kontzientzia areagotu zuen abertzaleen artean. 1952ko martxoaren 9an ospatu zuten «Euzkeraren Eguna» Biarritzen, mahaiburu Ph. Oihanburu, L. Dassance, M. de la Sota, P. Guilsou eta T. Monzon zirela. Donibane Lohizunen (Pirinio Behereak) bizi zen T. Monzon filomonarkikoa garrantzia galtzen ari zen Parisko EJ-GE errepublikazalean, eta 1951ko uztailean izandako bileran dimisioa aurkezteko asmoa agertu zuen, 1953an gauzatu zuena (cf. Martínez

[769] ABA-EUS: F. Krutwigen «Euskal kulturaren araudia», [1952-05-09].

[770] ABA-EUS: F. Krutwigen eranskin izengabea, [1952-05-09].

[771] Uste izatekoa da Bilboko Nuevo Ateneo-rekin harremana izandako Andrés E. Mañaricúa eta J. Ortega Galindo historialariek edota gero aipatuko dugun José Urrutia (SI) ikasketa prefektuak zerikusia zutela proiektu horrekin.

[772] SAF-AA: Barnealde eta erbesteko EBBen arteko komunikazioa, 1952-07-04, EBB-0377-1.

IKER-35.indd 295 2/9/19 10:56

Rueda 2016).[773] EGLZ-DCEko buru nominalak Biarritzen emandako hitzaldian euskararen egoera patetismo handiarekin azaldu zuen. Inoiz ez bezalako literatura garapenak ezin zuen hizkuntzaren odoluste demografikoa saihestu:

> Ez gabiltz beraz jokoan ez-eta denbora-pasan, Gure Erria bizirik iraun arazi naiean gabiltz : zaarra berritu naiean, leenaren indarrez geroa eraiki nahiz. Oiñak illerrietan baditugu ere, seaskan lo dagon aurrari so baititugu begiak. Gure lanerako ez dugu ez aulik ez motelik bear. Gazte kementsuenak betozkigutela jarrai.
>
> Sortzen ari zaigun Mundu ta Europa berri baten atari aurrean gaude guziok. Euskeldunek ere artu bearra dugu mundu berri ortan bizi-leku. Baña bizi-lekua nola ta nori ta zertako eskatuko, orduko ilak ba'gaude? Ilak aski dute, ustel lekutzat, lur-azpia (*Alderdi* 1952-03).

F. Krutwigen dosierreko hautagaien proposamenak ere (S. Michelena, L. Michelena, J. Aguerre, P. Múgica, J. Diharce) bereziki abertzaleak asetzeko egokiak zirudien. Izan ere, Euskaltzaindiak 1951ko azaroan azken batzarra egin zuenetik zenbait gertaera izan ziren Gipuzkoan. Sindikatu bertikaleko «Educación y Descanso» sailak euskal folklore eta literatura lehiaketa bat antolatu zuen 1951ko San Tomas egunerako. Horretarako, zenbait abertzalez osatutako epaimahaiaren eta «Txepetxa» teatro taldearen parte hartzea behar izan zuten. Jon Echaidek (euskaltzainburuordearen semeak) guztiaren berri eman zion T. Monzoni. Lehiaketa erbesteko prentsan ere iragarri zuten eta EGLZ-DCEko buruak baiezkoa eman zion parte hartzeari: «Hágase el milagro... [y hágalo el diablo]».[774] Bistan da frankismoak ere ordura arte baztertutako euskal kulturaren zenbait ikur bereganatu nahi zituela, alde batetik, barnealdean euskal gizartearen atxikimendua indartzeko eta, bestetik, erbesteko salaketei aurre egiteko.

A. Arrue karlista buru zuen literatura epaimahaia hauek osatu zuten: R. Mendiola diputatu integristak, M. Lecuona euskaltzainak, J. Carrasquedo teatrogileak, J. Echaide idazleak eta J. Arteche GPDko artxibozain laguntzaileak. Sarituen artean, besteak beste, M.ª Dolores Aguirre, Eusebio Erquiaga; Pierre Larrazabal eta J. M. Lecuona (euskaltzainaren iloba) edota Antonio Sorrarain (OFM) egon ziren.[775] E. Erquiagak idatzitako teatro lanaren zati bat, F. Krutwi-

---

[773] SAF-AA: EBBren «Reunión con los tres Consejeros Sres. Leizaola, Lasarte y Monzon en el Gobierno de Euzkadi» dosierra, 1951ko uztaila, PNV_NAC_EBB,K.00300,C.11.

[774] ABA-AIB: T. Monzonen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1951-11-16.

[775] E. Erquiagak aurkeztutako teatro lana, F. Krutwigen eraginez lapurtera klasikoz moldatuta, RSVAPen *Egan* aldizkarian argitaratu zen, baita, Pierre Larzabal urgazlearena ere, baina gipuzkeraz. Gipuzkoako frantziskotarrak egokitutako A. Campiónen 1917ko lana, aldiz, *Euzko Gogoa*n eta Zarauzko Itxaropenan agertu zen (Larzabal 1952; Kanpion 1954; Erkiaga 2001: 94-114).

IKER-35.indd 296 2/9/19 10:56

gen eraginez lapurtera klasikoz moldatuta, RSVAPen *Egan* aldizkarian argitaratu zuten (Erkiaga 2001: 94-114). Prentsa frankistak ez adierazi arren, sari banatzean tentsio uneak izan ziren. J. Echaide zatekeenak idatzitako dosierraren arabera, agintari frankistek Espainiako banderaz bete zuten teatroa eta A. Arrueri hitzaldia gaztelaniaz ematea agindu zioten. Buruzagi «falcondista»k, ordea, euskaraz hitz egin zuen, herri hizkuntza legez babestearen eta euskal unibertsitatearen alde, eta entzuleek asko txalotu zuten, poliziaren atsekaberako.[776] Dena dela, J. Echaidek Gipuzkoako buruzagi tradizionalistarekiko erakusten zuen begikotasuna ez zuen, seguru asko, EAJ-PNVko zuzendaritzak onesten. EBBko kideek mesfidantzaz ikusten zituzten euskaltzainburuordearen semearen «arinkeriak», baita horrek Gasteizen hilabete eta erdi preso eman ondoren ere.[777]

M. Lecuonak, bestalde, euskal kulturaren arloko hainbat berri eman zituen Akademiaren 1952ko lehen batzarrean, Donostiako elizbarrutian euskararen aldeko giroa pizten ari zenaren seinale. Alde batetik, F. I. Lardizábalen (1806-1855) heriotzaren mendeurrena prestatzeko asmotan ari zen Zaldibiako Udala. Besteak beste, haren *Testamentu Zarreco eta Berrico condaira* (1855) berrargitaratu nahi zuten, gipuzkera literarioaren eredu historikoa zena.[778] M. Lecuona elizgizonaren ustez, Euskaltzaindiak horrelako ekintzetan konprometitu behar zuen. Hizlari egokiak nahitaezkoak zituen publikoaren aurrean jarduteko. Horretarako, S. Michelena (OFM) sermolari eta idazlea proposatu zuen, euskaltzain izateko ez balitz, gutxienez urgazletarako. Bestalde, Zarauzko Itxaropenak abiatutako «Kulixka» [sic] liburu sortaren berri eman zuen. Lehen zenbakia Islandiako J. Svensson (SI) germanofonoaren *Noni eta Mani* (1952) haur liburua zen, P. Múgicak (SI) itzulia eta Donostiako elizbarrutiko bikario jeneralak 1951ko urrian baimendua.[779] Loiolako santutegiko irakaslea, halaber, R. M. Azkueren bidetik,

---

[776] SAF-AA: [J. Echaideren?] dosierra EBBri, [1951ko abendua?], PNV_NAC_EBB,K.00084,C.4. (cf. *La Voz de España* 1951-12-22; 1952-01-19; *Alderdi* 1951-11; 1952-01; Urkia Etxabe 2006: 287-288).

[777] SAF-AA: J. Ajuriaguerraren gutuna E. Echeverríari, 1951-08-18, PNV_NAC_EBB,K.00300,C.11.

[778] Euskaltzaindiaren ardurapean berrargitaratu zuten F. I. Lardizábalen *Testamentu Berriko kondaira edo historia* (1957), eguneratutako ortografiarekin eta A. Irigoyenen hitzaurrearekin.

[779] A. Ibinagabeitiak, P. Múgicaren liburua zela-eta, *Euzko-Gogoa*n oso gogor egin zuen agintari jesuiten gerra zibileko jokabidearen aurka: «Yakiña, euskera yesulagunen artean debekatua izan zan. Argitaratzen zuten aldizkari bakarra *Yesus'en Biotza'ren Deya* suntsitua, euskal idazle geienak erbestetuak. Euskera ez-ezik Euzkadi ere zatitu ta lauskitu dute, *oyal batez yantzitako lau aizpak* elkarrengandik bakandurik, *Castellana Orientalis, Castella Occidentalis* ezizen lotsagarripean laurak estalirik, gure erriaren izenik aipatu ere ez dedin; *nec nominetur inter vos* Paul bidaliak pekatu satsuaz zion bezela» (Ibinagabeitia 1952a: 29).

IKER-35.indd 297 2/9/19 10:56

gaztelania-euskara hiztegi handia prestatzen ari zela jakinarazi zuen M. Lecuonak.[780] Donostiako elizbarrutiaren baimenarekin argitaratzeko bidean zeuden beste bi libururen berri ere eman zuen Calahorrako elizbarrutiaren artxibozainak: N. Echániz elizgizonaren teatro lanak eta Th. Kempis-en *Imitatio Christi* berri bat. N. Echánizen *Izeko aberatsa/Irulearen negarra* liburua inprimatzeko baimena J. C. Sudupe bikario jeneralak 1952ko urrian eman zuen, baina *Kristo'ren antz-bidea*k 1953ko irailera arte itxaron behar izan zuen, seguru asko erbesteko E. Larrañaga apaizak anonimoki itzulia zelako (cf. Iztueta & Iztueta 2006: 319).[781]

Nolanahi den, maiatzaren 9ko batzarrean eztabaidatutako gaien artean beste batzuk ere egon ziren. 1952ko abuztuan Suediako Uppsalan egin zen ICOS biltzarrean parte hartzeko gonbita jaso zuen Euskaltzaindiak, baina beti bezala uko egin behar izan zion maila internazionalean jarduteari. Biltzarraren Frantziako ordezkaria A. Dauzat zen eta Espainiakoa A. Griera frankista, noski.[782]

5.3. LUIS VILLASANTEREN SARRERA EKITALDIA (BILBO, 1952-05-23)

F. Krutwig pozik egon zitekeen bere hizkuntza eskolara erakarritako frantziskotarrarekin. L. Villasante gaitasun handiko euskal prosalari eta literatura historialaria zela ageri zen, postaz bidaltzen zizkion sarrera hitzaldiaren zatietan. F. Krutwigek ere bere erantzun hitzaldiaren edukia aurreratu zion 1952ko urtarrilean. Eliza katolikoaren euskararekiko jarrera aztertu ez ezik, salatu ere egin nahi zuen. Ohi zuen bezala, baldintza historiko-politikoei behar adina erreparatu gabe, Euskal Herriko eta «Mitteleuropa»ko egoerak erkatu nahi zituen, euskal hierarkia erlijiosoaren utzikeria agerian uztearren. Aginte politiko frankistari zuzenean eraso egitea baino egingarriagoa iruditzen zitzaion Eliza katolikoa jomugan jartzea. Era berean, erbesteko abertzaletasunetik iristen ziren kolaborazionismo salaketak gezurtatzeko bidea izan zitekeen:

[780] Agian horregatik nahastu zen F. Krutwig eta dosierrean Bizkaiko hautagaitzarako proposatu zuen. Bestalde, M. Lecuonaren eragina nabarmendu behar da P. Múgica eta S. Michelenaren hautagaitzetan.

[781] ABA-EUS: M. Lecuonaren idazkia Euskaltzaindiari, [1952-05-09]. José Cruz Sudupe Larrañaga (1903-1971) Gipuzkoako Azkoitian jaio zen. Gasteizko seminarioan eliza ikasketak egin ondoren, zuzenbide kanonikoan graduatu zen Valentziako Unibertsitatean. 1928ko maiatzean apaiztu, 1952ko martxoan Donostiako Buen Pastor-eko artzapez kargua hartu, eta 1953ko azaroan katedraleko dean izendatu zuten (Antía Munduate 1999: 248, 252).

[782] ABA-EUS: J. Sahlgren-en gutuna Euskaltzaindiari, 1952-01-18.

IKER-35.indd 298 2/9/19 10:56

Irudia 15. **«Junta de Cultura de Vizcaya»k probintzia bibliotekan zuen gelan ospatu zen Luis Villasanteren sarrera ekitaldia**



Iturria: *Vizcaya* (1953ko lehen seihilekoa).

Respecto a su discurso, cada vez que lo leo de nuevo, cada vez que me gusta más. Es una obra magistral y monumental. Y para la literatura vasca será el ejemplo de una clara, correcta y brillante oratoria científica.

Yo pienso contestar a Vd. tomando como partida su discurso desarrollar el punto [sic] de «la legislación eclesiástica respecto a la enseñanza de las lenguas vernáculas» así pues de esta forma seguir el hilo de su discurso pidiendo a las órdenes que sean ellas quien[es] cumplan con las exhor[ta]ciones papales sobre la enseñanza en lengua vernácula y quienes sean también las salvatrices del euskara.

A este respecto quisiera preguntarle algún pormenor sobre la enseñanza del euskara entre Vds. los franciscanos, pues al darle a Vd. el saludo voy a decir que es al mismo tiempo un tributo que en su persona se quiere rendir a la orden franciscana. Quisiera que me dijese Vd. en qué consisten sus clases euskaras.

a) si solo se enseña al vascuence como un objeto a aprender o

b) si se emplea asimismo el vascuence como vehículo a través del cual se estudian las disciplinas

c) si alcanza a todos los frailes que toman parte en esa orden el estudio del euskara, o solamente a los euskaldunes.

IKER-35.indd 299 2/9/19 10:56

> Porque a este respecto me encuentro con que la legislación papal obliga a emplear no solo la lengua vernácula como objeto de estudio, sino como vehículo. Es decir que no se cumple[n] las prescripciones papales si solamente se enseña el euskara, sino que es necesario servirse del euskara para enseñar. De aquí que la política que siguió el Seminario de Vitoria es doblemente anatema, pues no cumple con el requisito de enseñar «a todos» los que van a ejercer su magisterio la lengua vasca entre vascos (sean o no vascos de origen) pues aparte de esto debía haber preparado al clero euskaldun «en euskara».
>
> Tengo un libro escrito en Alemania sobre esto que voy a comentarlo, en el que se traen las opiniones de l[o]s obispos, arzobispos y doctores de la iglesia [sic] sobre estos puntos, y en los que además se trae[n] los casos concretos como en Polonia y Alemania Oriental, en el antiguo imperio Austro-Húngaro etc. que que [sic] virilmente la Iglesia se opuso a las pretensiones del Estado.[783]

Sarrera ekitaldia ahalik eta arrakastatsuena izan zedin, Donostian antolatzeko aukera eztabaidatu zuen F. Krutwigek Bilboko idazkariarekin otsailean. Euskara estandarrerako gipuzkeraren alde zegoen iritzi zabalduari aurre egiteko tokirik egokiena izan zitekeen beraren ustez:

> Yo he estado hablando el otro día con Oleaga de la conveniencia de hacer, quizá su recepción en S. Sebastián, donde tendríamos más público euskaldun y además sería conveniente que los guipuzcoanos escuchasen las poderosas razones que recomiendan la aceptación del labortano clásico; pues que los guipuzcoanos prejuzgan el tema con la fácil razón: «o guipuzcoano o nada». No van en busca del euskara que más conviene al pueblo vasco, dan por sentado de antemano que es el de ellos y luego buscarán razones para apoyar lo que ya han prejuzgado. Quizá solamente los vizcaínos, quienes por no ser el dialecto de ellos el que se va a aceptar están en condiciones de decidir.[784]

Kontuan hartu behar da F. Krutwigek 1949ko irailean aurkeztu zuen dosierraren bidetik, Euskaltzaindiaren batzar gehienak Donostian egin zirela azken bi urteetan. 1950-1951 artean hamahiru batzar egin ziren: bederatzi Donostian, bi Bilbon, eta bana Iruñean eta Baionan. Horrek, ordea, ez zuen Frantziako euskaltzainen partaidetzan uste bezain beste eragin, nekeza baitzen muga zeharkazea. Bilboko euskaltzainek (R. M. Azkue, N. Oleaga, F. Krutwig) jarraitu zuten izaten hamarkada hasierako nukleoa, baina Donostia bil-

[783] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1952-01-30.
[784] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1952-02-24.

IKER-35.indd 300 2/9/19 10:56

gune nagusi bilakatuta lortu zuten I. M. Echaide eta A. Irigaray euskaltzain alargunek parte gehiago hartzea.

Dena dela, L. Villasantek sarrera hitzaldiaren azken zatiak bidaltzearekin batera, ekitaldia Bilbon egitea nahiago zuela adierazi zuen. Era berean, I. Berriatuaren bidez jakinarazi zuen ez zuela idatzitako testu luzea osorik irakurtzeko asmorik. Dena dela, F. Krutwig oso pozik zegoen frantziskotarraren testu erudituarekin, lapurtera klasikoaren aldeko argumentuz josita zegoelako. Gainera, R. Lafonek frantziskotarrari idatzitako gutunean, hura ere lapurtera literarioaren alde agertzen zen estandarrerako.[785] Euskaltzain berria, era berean, lapurtera klasikoaren bideak eragiten zuen erabateko oposizioaren jakitun zen. A. M. Labayenek oso argi adierazi zion F. Krutwigez uste zuena: «Orren eskuan Euskaltzaindia'ren etorkizuna uztea ondamena litzake».[786]

Euskaltzaindiko idazkariak JCVri maiatzaren 17an baimena eskatu zion, sarrera ekitaldia hilaren 23an ospatzeko probintzia jauregiko JCVren aretoan.[787] Bilboko prentsan berehala iragarri zen sarrera ekitaldia (*La Gaceta del Norte* 1952-05-18). Maiatzaren 20ko JCVren batzarrean F. Echegaray, J. B. Merino, H. Bilbao eta E. Calle baino ez ziren bildu. Pablo Pedro Astarloa (1752-1806) apologistaren bigarren mendeurrena Durangoko Udalarekin ospatzeko erabakiaz beste, Euskaltzaindia izan zuten hizpide. Kontuan hartu behar da aurreko urtetik harremanak erabat gaiztotuta zeudela, eta JCVk ez ziola diru laguntzarik ematen Akademiari. Hain zuzen, 1951n Bilbon egindako J. Gorostiagaren sarrera ekitaldian esandakoek JCVko kideen ezinegona eragin zuten. F. Echegaray eta J. B. Merinok N. Oleagari egindako bisita baten eta sarrera ekitaldiaren berri eman zuten batzarrean, gehiago zehaztu gabe.[788] Maiatzaren 20ko datarekin, E. Calle idazkariak N. Oleagaren eskaerari baiezkoa eman zion JCVren izenean.[789]

Eragozpenak eragozpen, baimen eskaerei baiezkoa eman zieten, halaber, Euskaltzaindiko istiluen berri bazuten Informazio eta Turismo ministerioaren

---

[785] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, 1952-03-18.

[786] ABA-EUS: A. M. Labayenen gutuna L. Villasanteri, 1952-05-14.

[787] BFAH-EC/ABA-EUS: N. Oleagaren ofizioa JCVri, 1952-05-17, Junta de Cultura C-40 -01-.

[788] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1952-05-20, Junta de Cultura C-62.

[789] BFAH-EC/ABA-EUS: E. Calleren ofizioa N. Oleagari, 1952-05-20, Junta de Cultura C-40 -01-.

IKER-35.indd 301 2/9/19 10:56

Bizkaiko delegatuak eta Bizkaiko poliziaburuak.[790] Horrela, ohiko gonbitak eta txartel elebidunak bidali zituen Akademiak, besteak beste, Gernika-Lumoko alkateari, L. Villasante bertan jaioa baitzen.[791] Ezin etorria adierazi zuten, ordea, J. Caruncho Bizkaiko poliziaburuak eta M. Gortari NFDko presidente berriak.[792] Deustuko Unibertsitateko A. E. Mañaricúak ere ezin etorria adierazi zion frantziskotarrari.[793] Zoritxarrez, sarrera ekitaldiak eragin zituen arazoen ondorioz, ez dago maiatzaren 23ko Akademiaren akta edo zirriborrorik. Biharamunean prentsak adierazi zuenez, bost euskaltzain hauek bildu ziren probintzia jauregian: M. Lecuona, N. Oleaga, F. Krutwig, J. Gorostiaga eta L. Villasante. Prentsaren arabera, JCVren aretoa bete egin zen eta ekitaldiko mahaiburuak izan ziren M. Lecuona apaiza, H. Bilbao BPDko presidenteordea eta F. Echegaray JCVko buru efektiboa (*CE-PV* 1952-05-24; Gernika 1952a: 225). Entzuleen artean hauek ere izan ziren: Ignacio Urquijo, Eusebio Erquiaga, Pablo Lete (OFM) probintziala, Pedro Aranguren (OFM) Arantzazuko komentuburua eta euskaltzain berriaren familiako Josefina Ibarrola. 1954an Euskaltzaindiko langile bilakatu zen Alfonso Irigoyen ere bertan egon zen (Arana Martija 1992a: 27-28; Sudupe 2011a: 234).

Sarrera hitzaldiak «Literatur-euskara laphurtarr klassikoaren gain eratua» zuen izena eta urtea amaitu baino lehenago argitaratu zen *BRSVAP*en. F. Krutwigen irizpidearen aldeko programa sendo eta jantziena aurkeztu zuen (Sudupe 2011a: 38-53). Eskolaren sortzailearen beraren hutsuneak bete nahiz, hitzaldian bat egin zuten, alde batetik, gerra zibil aurreko belaunaldiak (N. Ormaechea, H. Gavel, J. Urquijo, J. M. Mocoroa) eta euskal literaturaren historiak eta, beste aldetik, Frantziako linguistika soziologikoak. Hain zuzen, A. Dauzat hizpide hartuta, euskararen arrakala sozialagatik, estandarra arautzea hil ala biziko arazotzat jo zuen, hizkuntzen arteko norgehiagoka betean: «bi hizkuntza aitzinez-aitzin jartzen direnean, baldin bi hoietatik bat landua bada ta bere litteratur-batasuna sendo lorturik ba daduka, bertzea berriz dialektutan puskaturik eta basati itxuran agiri bada, berehala gerthatzen da denok

[790] ABA-EUS: B. Burebaren eta J. Carunchoren ofizioak N. Oleagari, 1952-05-19 & 1952-05-20. Garaiko giro politiko nahasiaren erakusgarri, probintziako poliziaburuak martxoaren 7an ofizio sekretu bat bidali zion Bizkaiko gobernadore zibilari, horrek E. Bilbao Gorte frankistetako presidenteari berbidali ziona, tradizionalista «carloctavisten» eta «falcondisten» arteko tirabirez, J. Borbón-Parmaren errege-nahi izendapena zela-eta (SAF-AA: J. Carunchoren ofizio sekretua G. Riestrari, 1952-03-07, DP-1733-01).

[791] ABA-EUS: N. Oleagaren ofizioa Gernika-Lumoko alkateari, 1952-05-17.

[792] ABA-EUS: J. Carunchoren gutuna eta M. Gortariren telegrama Euskaltzaindiari, [1952-05-28].

[793] ABA-EUS: A. E. Mañaricúaren gutuna L. Villasanteri, 1952-05-26.

IKER-35.indd 302 2/9/19 10:56

ikhusten dugun hau: litteratur-batasun hori eginik dadukana bertzeari nagositzea, alegia» (Villasante 1952b: 96).

Euskara estandarraren auzian, hiru bide nagusiren artean hautatu behar zela uste zuen. Lehendabizi, gipuzkerak Akademian izandako itzalaren pisua onartu zuen. Aldeak alde, A. Campión, R. Olabide (SI), R. M. Azkue edota S. Altube gipuzkeraren alde agertu ziren, bereziki dialekto horren zentraltasun geografikoagatik.[794] Bigarren bidea, Baionako elizbarrutian XX. mendean garatu eta P. Lafitteren 1944ko gramatikak deskribatutako neolapurtera zen. Espainia-Frantzietako muga estatalak onartuta, bi joera horiek inoiz, Akademiatik agindurik eman gabe, bat egiteko itxaropena agertzen zuten S. Altube eta P. Lafittek. Betirako luzatu zitekeen egoera horren aurrean, F. Krutwigen bide berri eta zaratatsua ageri zen. L. Villasante ongi ohartzen zenez, beste bi aukerak geolektoen ahozkotasun bizian oinarritzen ziren, eta F. Krutwigek, aldiz, literatura tradizio historikoa baino ez zuen onartzen estandarrerako. Beraz, euskararen muga soziopolitikoak ez ezik, literatura tradizioaren eten historikoa ere ustez gainditzen zuelako, aukera gailentzat zuten lapurtera klasikoarena (Villasante 1952b).

L. Villasanteren hitzaldiak aipatzen zituen gaiek ondorio politiko labainak izan arren, ezerezean geratu ziren F. Krutwigek erantzun hitzaldiarekin sortu zuen istiluaren ondorioz.[795] Hitzaldiak izan zuen oihartzunagatik, kopia ugari gorde dira, jatorrizko euskal bertsioan nahiz gaztelaniazko itzulpenean, hainbat instituzio eta pertsonaren artxiboetan: Euskaltzaindia, JCV, EAJ-PNV, E. Bilbao, M. Irujo, A. Ibinagabeitia edota J. Zaiteguirenetan, besteak beste. Bertsio guztiak ez dira berdinak, eta guk Euskaltzaindiaren artxibo administratiboan dagoen kopia bat erabili dugu, akats asko izanagatik, F. Krutwigek probintzia jauregiko ekitaldian erabili zuen bertsiotik zuzenean kopiatuta dagoelakoan. Esaterako, *Euzko-Gogoa*ren zuzendariari F. Krutwigek maiatzaren 20an, ekitaldia baino hiru egun lehenago, bidali zion erantzun hitzaldiaren kopia txukun bat, baina badirudi hitzaldirako zenbait adiera arriskutsu aldatu («desnazionalizazinoa/erdalduntzea») edo are ezabatu ere egin zitue-

[794] F. Krutwigen talde literararioan parte hartu zuen karmeldarraren hitzetan: «Krutwig jaunarentzat, gaiñera, Lapurdi dago, ez Gipuzkoa, Euskalerriaren erdian. Eta mapa buruz bera jarrita, alegiñak egiten zituen ori ala zala erakusten, egiztatzen» (Akesolo 1989: 159)

[795] Erantzun hitzaldiaren testua lehen aldiz egileak berak argitaratu zuen, gaztelaniara itzulita, 1963ko *Vasconia* liburuko gehigarrien artean, eta ondoren jatorrizko euskal bertsio zuzendua *Egan* aldizkarian (Krutwig 1963: 518-526; 1986).

IKER-35.indd 303 2/9/19 10:56

la.[796] Gutunean, orobat, «Nazionalitatearen psykhologia» izeneko testua bidali zion Guatemalako aldizkarian argitaratzeko asmoarekin. Abertzaletasun historikoaren determinismo arrazalogikoari, borondatean oinarritutako nazionalismo linguistikoa jartzen zion parez pare:

> Beraz nazinoen kontzeptu berrian eztago soilik hizkuntzaren faktorea, gure nazinoaren hizkuntza erabilten eztutenak' gure nazionalitatearen konszientza galdu dutenean eztira gure nazinoaren khideak.
>
> Berhain, herri baten hizkuntza maitatzen eztenetan edo bere erabiltzea gutitzen den guztietan' hunela egiten duen herriak' bere persuntarzunaren konszientza galtzen ari dela erran dezakegu. Hizkuntza' sentimendu nazionalearen thermometera da. Halakotz bere personalitatearen konszientza indarrtsua duten nazinoek' beren hizkuntza edonoiz erabilten dute eta hizkuntza huntaz kultur bat kreatzen dute.[797]

Ikuspegi horren ildotik, Europako hizkuntza gutxituen eskubideen alde elizgizon katolikoek argitaratutako testuak biltzen saiatu zen erantzun hitzaldian. Alemaniako Theodor Grentrup-en (1878-1967) *Religion und Muttersprache* (1932) liburuan oinarrituta, tokian tokiko herri hizkuntzak erabiltzeko Eliza katolikoaren betebeharra aldarrikatu zuen. Era berean, alemanaren inposizioaren aurrean polonieraren alde agertutako elizgizonak aipatu zituen: M. H. Ledóchowski (1822-1902), F. Stablewski (1841-1906), P. W. Nieborowski (1873-1948) edota «Makkabaeus» ezizenarekin sinatu zuten J. Czempiel (1883-1942) eta E. Szramek (1887-1942) bikotea. Hala ere, Mundu Gerra ondoko Polonia komunistan erlijio katolikoak bizi zuen egoerarekin konparatuta, F. Krutwigek hitzaldian egin zuen Eliza/Estatu arteko oposizioa zentzugabea bezain arriskutsua zen Espainia frankistan.[798]

---

[796] Euskaltzaindiaren Artxiboa, Jokin Zaitegi funtsa: F. Krutwigen gutuna J. Zaiteguiri, 1952-05-20.

[797] Euskaltzaindiaren Artxiboa, Jokin Zaitegi funtsa: F. Krutwigen «Nazionalitatearen psykhologia», 1952-05-05.

[798] Erreferentzia horiek hezkuntza germanikoari esker eskuratu bazituen ere, ez ziren guztiz ezezagunak garaiko elizgizon abertzaleen artean. Th. Grentrup-en lanak oihartzuna izan zuen, adibidez, Jaungoiko-Zale Bazkunako kideen Errepublikako lanetan (cf. Manterola 1934: 327). Era berean, jesuiten nagusi izandako W. Ledóchowski-k (1866-1943), M. H. Ledóchowski-ren iloba zenak, lehenengo diktadura primorriverista eta gero frankista babestuagatik, R. Olabide (SI) euskaltzainaren lanaren berri omen zuen: «Me han dicho que cultiva usted un vascuence académico. Siga por ahí, porque andando el tiempo eso se leerá y apreciará, como ha pasado en Polonia, mi pueblo» (Iztueta & Iztueta 2006: 206).

IKER-35.indd 304 2/9/19 10:56

Entzuleen arteko agintari politikoak asetzeko asmoarekin, M. Barrès bezalako eskuindar protofaxistaren «hizkuntza nazionala»ren aldeko aipua erabili nahi izan zuen euskararen alde, Bizkaiko frankistentzat hizkuntza nazional bakarra gaztelania ez balitz bezala. Bestalde, bi mundu gerren ondoko «Mitteleuropa» zinez multikulturalean gertatutako aldaketa politiko-linguistikoak Espainia frankistarako eredutzat jartzea, F. Krutwigen errealitatearekiko itsukeriaren froga baino ez zen (cf. Kamusella 2012).[799] Hain zuzen, M. Lecuona Gasteizko elizbarrutiaren seminarioko euskara katedradun ohia mahaiburu zuen ekitaldian, F. Krutwigek euskal hierarkia erlijiosoari egin zion eraso bortitzak harrituta utzi zituen entzule guztiak.[800] Izenez ez aipatu arren, Bilboko eta Donostiako apezpikuen autoritate morala nahiz erlijiosoa guztiz ukatu zituen. Euskaltzain ateoak euskararen aurkako politika linguistikoa eta Eliza katolikoaren Estatu totalitarioarekiko menpekotasuna gogor salatu zituen:

> Eta Euskalherriko gazteriaren desnazionalizatzea, erdalduntzea ez othe da gure seme-alhabak beren arbasoak gandik ebastea, eta hunela izan-ezkero, zergatik zuzen[tarzuna] eztagokie euskaldunei? Hunelako prozedura Aquinastarr Thomasek dioenez iura naturalearen kontra baldin ba da, zergatik hunelako gisak gure herrian monjattoek eta praideek eskoletan darabiltzate? Zergatik orain Euskalherriaren bihotzean, gaztediari erdaraz irakasten eta predikatzen zaiko? Ez othe deraue Vatikanuk debekatzen gure herriko etsaie[i]' iura naturalearen kontra ari izaitea, bertze thokietako gaizkilei bezala? Herriko etsairik handienak monjattoetan eta praideen eskoletan eduki ukhan ditugu, Elizaren altzoan. Ezta egokera berria, aspaldi danik dathorrku, euskara zaindu beharrean zer egin dute? Ahalkegarria[,] ahalkegarria!
>
> Eta Hierarkhia Euskalherrian zergatik XI Piusen sententzei iarraikitzen etzaie. Ez othe zuen Pappa hunek Estatuaren irakaskintza-monopolaren kontra ephaikatu? Ez othe zuen XI Piusek erran' Estatuaren bethebeharra handi-handia izana gatik' bethebeharr haur bethi gurasoen nahiaren araura egin beharr zenik? Zergatik etzaie euskaldunei euskaraz irakasten bertze lekhuetako legez, adibidez egun Gathaluñan egiten den araura? Ez othe ditu gure herriak zergak pagatzen?

[799] Euskal Eliza katolikoaren politika linguistikoari egindako erreferentzia historikoak, ordea, zaharkituta zeuden. Calahorrako elizbarrutiaren XVII. mendeko sinodo arauak aipatzen zituen, baina ez, ordea, Gasteizko eta Iruñeko elizbarrutien XIX. mendetik aurrerako araudi eta praktikak, frankismora arte iritsi zirenak, ezta, adibidez, M. Inchaurrondo urgazlearen *La Iglesia y el euskera* (1927) bezalako apologia itxuraz espainolistak ere (cf. Intxausti 2014b: 119-137).

[800] F. Krutwigen itsukeria garaiko egoera politikoarekiko harrigarria zen. 1951ko abuztuan lehenengo eta 1952ko martxoan berriz, Bilboko, Donostiako eta Gasteizko apezpikuek batera gaitzetsi zuten erbesteko euskal apaizen *Egiz* aldizkaria, hain zuzen, hierarkia erlijiosoaren frankismoa salatzen zuelako (*Alderdi* 1952-05; *Euzko Deya* 1952-11-01).

IKER-35.indd 305 2/9/19 10:56

Ahantzi othe du Zeruko Iainko Iaunak euskaraz? Ez othe dira euskaldunok zerurako deithuak? Nun dago euskara Donostiako dioikesian, haur huts-hutsik euskalduna izana gatik? Elizaren registruetan' zein hizkuntzaz egiten dira inskripzinoak? Zergatik eztira gure herriaren hizkuntza vernakulaz egiten, Kroatian, Bácskan [sic], Banaten eta Errumanian bezala? Zergatik gure herrian dagoen Hierarkhiak Erromako agintza generalei ez-entzun egiten deraue? Expressatuki authorizaturik dagoz-a? Orduan ahalkegarria lizateke Hierarkhiaren mundutiarr interessen aldeko ekhintza ~~kynikoa! Zer da Euskalherriko Hierarkhia, ama ala amaizuna?~~[801] Zergatik ezkagoz hemen bertze herrietan bezala? Adibidez lithuanaraz irakastekotz Koenigsbergen seminarioetan kathedrak zegozen, eta Ekhialdeko Prussian, herririk askotan lit[h]uanarren proporzinoa %5 baizik izan ezarren, lithuanaraz [ere] predikatzen zan. Bilbaon eta euskaldunik asko bizi diren hirietan ezta euskaraz predikatzen. Ez othe dute euskaldunek lithuanarren eskubideak? [E]do ta Elizak lehenbiziko, bigarreneko eta hirurgarreneko menpekoak al ditu, eta hauietan euskaldunak par[y]ak othe dira? Elizarentzat euskaldunok zein kastatakoak dira? Vatikanuk erran biezaku, erran beharr derauku ta. Zeintzuk eskubide zaindu beharr ditu Hierarkhiak? [I]azarritakoaren ostikatu eskubidea, ala iazarrten duenaren bortxaren eskubidea, indarrtsuenaren legea othe? Zergatik ezta orain euskaraz predikatzen orain hogei urthe duela predikatzen zen herri guztietan?[802] Nola dago Elizaren zuzentarzuna hizkuntzazko muga-herrietan, eta euskaldunik askoren minoriak dagozen lekhuetan, adibidez: Gorlitzen, Plentzian, Sopelanan, Berangon, Algortan, Derion, Sondikan, Erandion, Zaratamon, Basaurin eta a.? Ongi da euskaldunetan bizi diren erdaldunentzat, erdaraz predikatzea, bainan zergatik eztitute erdaldunen artean bizi diren euskaldunak eskubide berdinak? Baldin euskaldun herri hutsetan bortz karabiñeru ba dagoz, nahiz eta hauk mezatara ioan-ezik, hauiek ioan nahi luketelako hypothesisaz erdaraz predikatzen da, bainan Bilbaon bizi diren euskaldunentzat ezta euskaraz predikatzen nahiz eta hogei milaka egona-gatik.[803] Nondik eta zergatik iniquitate hauk?

[...]

Euskaldunok Elizaren paryak [o]the? Itali faxistan horrko gobernamenduak Hegoi-Tyroleko populazinoa bortxaz italianizatu nahi ukhan zuenean' Elizak orduan ere' hango seminarioetan alemanaraz irakatsi beharr zela erabaki zuen[,] [e]ta euskaldun dioikesisetan zergatik ezta euskara irakasteko bidea bilhakatzen?

---

[801] Badirudi testuan ezabatuta ageri diren hitzak gehiegizkotzat jo eta ez zituela ekitaldi publikoan irakurri (ABA-EUS: F. Krutwigen erantzun hitzaldia L. Villasanteri, 1952-05-23).

[802] *Euzko-Gogoa*ren zuzendariari 1952ko maiatzaren 20an bidalitako bertsioak «herri guztietan eta orduan bezala?» dio (Euskaltzaindiaren Artxiboa, Jokin Zaitegi funtsa).

[803] Bilboko Udalak egindako ezohiko erroldaren arabera, 21.582 euskaldun bizi ziren Bilbon 1920an, hiriak 112.819 inguru biztanle zituenean. Uste izatekoa da hiru hamarkadaren ondoren, hiriak 229.334 biztanle zituela, euskaldun kopurua ere hazi egin zela, baina, batez besteko, gutxiago ziratekeela euskaldunak Bilbo frankistan (cf. Aizpuru & Zarraga 2011).

IKER-35.indd 306 2/9/19 10:56

> Ezta naikhoa euskaraz ikasteko kathedrak eduki, euskara ikas-obiektu bat bailizen, ezta hori naikhoa, euskaraz irakatsi beharr da, euskara irakasteko bidea delarik. Halakotz geuk euskararen duintar[z]una reivindikatzen dugu, beraren eskubideak reklamatzen ditugu, euskaldunok Elizaren gorphutz mystikoan paryak izan eztaitezen, ez eta nehon ere![804]

Euskal Herriaren erdalduntzea desnazionalizazioarekin nahiz desmoralizazioarekin parekatzen zituenean, S. Aranaren doktrinaren oihartzuna oso nabarmena zen, berak abertzaletasuna inoiz aipatu ez arren. Besteak beste, Italia faxistak Tirolgo eskualde alemanofonoa italianizatzeko ahalegina ere ekarri zuen hizpidera. Esan bezala, abertzaleen aurrean bere izen ona berreskuratzeko balio zezakeen ekitaldi publikoan egindako Espainia frankistaren politika linguistikoaren salaketak. Baita ere, adibidez, J. M. Azaola batek CSICen *Arbor* aldizkarian agertutako posibilismoaren ondoan ausartago («viril» esango zuketen garai hartan) agertzeko (cf. Azaola 1951). Zalantzarik gabe, XX. mendean euskaraz idatzitako testu garrantzitsuenetako baten aurrean gaude, bai eduki jasoaren aldetik, bai erabilitako euskara formaren aldetik, bai eta testuinguru politikoaren aldetik ere. Hain zuzen, ordurako Bizkaiko agintari politikoen jomugan zegoen euskaltzainarendako, atzera-bueltarik gabeko urratsa zen hura. L. Villasantek J. M. Mocoroari gutunez adierazi zionez, entzule askok txalotu egin zuten erantzun hitzaldia (Sudupe 2011a: 234).[805]

Ekitaldian zeuden agintari politikoek berehala hitzaldiaren testua eskatu zuten, euskara hura ongi ez ulertu arren, delitu zantzuak zeudelako entzundakoan, txalo zaparradak konfirmatzen zuen bezala. L. Villasanteren testigantzaren arabera, H. Bilbaok, Akademiaren sorreraren lekuko izandakoa diputatu tradizionalista gisa, adierazpen hau egin zuen uneren batean: «Ese judío polaco nos va a enseñar lo que tenemos que hacer!» (apud Arana Martija 1992a: 28). Erbesteko prentsa abertzaleak interes handiarekin jarraitu zuen Euskaltzaindiak barnealdean eragindako istilu politikoa, noski. Baionan argitaratzen zen aldizkari jeltzalearen Bizkaiko berriemaile anonimoa izan zen informazioa xeheagoa zabaldu zuena:

> El discurso del nuevo académico versó sobre la necesidad de un euzkera único literario para fines de cultura. Defendió la opinión de adoptar a tal fin el dialecto laburdino, y en este sentido presentó sus conclusiones.

---

[804] ABA-EUS: F. Krutwigen erantzun hitzaldia L. Villasanteri, 1952-05-23.

[805] ABA-AIB: L. Villasanteren gutuna J. M. Mocoroari, 1942-05-25

IKER-35.indd 307 2/9/19 10:56

La contestación estuvo a cargo del académico señor Krutwig. Ambos leyeron sus discursos en dialecto laburdino, comenzando sin duda a poner en práctica sus preferencias dialectales. Conocida es la tendencia innovadora de ambos escritores y las estupendas licencias de léxico —antieuzkericas a juicio del cronistas [sic]— que en sus escritos suelen permitirse.

El tema desarrollado por el señor Krutwig fue el de los derechos del Euzkera ante la Iglesia. Disertación maciza y contundente, documentada y valentísima que el auditorio siguió con enorme interés. A su término, el público que llenaba totalmente el salón, otorgó al señor Krutwing [sic] una ovación estruendosa y prolongada.

La presidencia del acto estuvo inadecuadamente ocupada por don Hilario Bilbao, quien según parece quedó poco satisfecho del acto. Pidió al señor Krutwing [sic] sus cuartillas, y parece que manifestó seguidamente: — ya veremos en qué va a parar esto.

Con las cuartillas se fue al Gobierno Civil, donde entre él, Riestra y probablemente Seminario de Rojas, habrán hecho la traducción. Riestra ha pedido a la Academia que le envíen una copia de los Estatutos por que se rige, y la lista de académicos, y no se qué cosas más… (*Alderdi* 1952-06).[806]

[806] Sarrera ekitaldian egondako jeltzale anonimoak, agian *Alderdi*ko berriemaile zenak, modu informal eta gordinagoan azaldu zion gertatutakoa EAJ-PNVko zuzendaritzari. Testua maiatzaren 28an idatzi zen eta ekainaren 23an jaso zuen erbesteko EBBk: «Mucha gente. No era el salón demasiado grande, pero se llenó, y colmó la medida y la rebasó. Presidió, como Académico, D. Manuel Lecuona; como Diputado D. Hilario Bilbao, hermano de D. Esteban. Nada hay que decir del P. Villasante; leyó parte de su trabajo, con rapidez y facilidad. Nada nuevo, ni el euskera, ni el fondo, ni la forma ni nada para los que le han leído. Krutwig se encargó de responder al nuevo Académico. El tiempo había corrido ya un poco; y él, según se vio, no quiso dejar nada en el tintero. A toda marcha, con durísima pronunciación y para mí extraña acentuación, dio el mitin en francés, alemán, español, griego y latín y, naturalmente, en su argot, con h aspiradas y todo, pero con energía, con entusiasmo, con atrevimiento, con travesura, con ironía y con salero. Qué no dijo de la Jerarquía eclesiástica, de los párrocos, de las Órdenes religiosas, de los Colegios de religiosos, del derecho natural... A vueltas de premiar a los PP. Franciscanos su labor por el pueblo vasco, qué diatribas a diestro y siniestro, caiga quien caiga, aunque sin rozar al Estado, dirigiéndose casi exclusivamente a la Iglesia. Fue emocionante. Una ovación cerrada coronó la peroración de Krutwig» (SAF-AA: EAJ-PNVko EBBren dosierra F. Krutwigen hitzaldiaz, 1952-05-28, PNV_NAC_EBB,K.00084,C.4.)

IKER-35.indd 308 2/9/19 10:56

5.4. **FEDERICO KRUTWIGEN AURKAKO AUZIA**

Euskaltzaindiko idazkariak maiatzaren 17an egin zuen hilaren 30erako batzar deia.[807] 1952ko lehen lau hilabeteetan batzarrik ez egin ondoren, maiatzean hiru batzar egin zituen Akademiak, beraz. Aurreko bi batzarrekin gertatu ez bezala, maiatzaren 30eko akta ofiziala gordetzen da. GPDko jauregian, A. Irigaray mahaiburuaz gain, J. Gorostiaga, L. Villasante eta N. Oleaga euskaltzainak eta L. Michelena urgazlea bildu ziren. Bileraren garrantziagatik, F. Krutwigen eta I. M. Echaide euskaltzainburuordearen hutsuneak nabarmentzen ziren. Sarrera ekitaldian mahaiburu izandako M. Lecuona ere ez zen agertu. Gai nagusia, noski, erantzun hitzaldiak sortutako arazoa izan zen:

> Urrengo adierazo da, Villasante euskaltzain jaunaren sarrera ospatzeko, Bizkaiko Ekautaren jauregian, Jakintza-Batzordearen gelan, Orrila onen ogetairuan egindako batzar nagosian aitatutako Euskaltzain barriari erantzunik Krutwig euskaltzainak irakur eban itzaldia dala-ta, batzar orretara etorri ziren agintari batzuk naigabe ta aserrea erakutsi dabela, ta euren eritziz Euskaltzaindiak egoki deritxona erabagi bear leukela eskatu dabela. Zer erabagi leiteken ondo ebazteko aitaturiko itzaldia entzun ez ebean euskaltzainak ezagutu ta guztiok ondo aztertutea bear izango leitekela-ta, ijeki bat Oleaga jaunak eskatu ta urrengo batzarrerako ekarri dagiala ebatzi da (Euskaltzaindia 1982: 24).[808]

Bestalde, Durangoko alkateak P. P. Astarloaren jaiotzaren bigarren mendeurrena ospatzeko Akademiari eskatutako laguntzaren berri eman zen. Horretarako ekainean egingo zen ekitaldian J. Gorostiagak hitzaldia ematea erabaki zuten. Halaber, R. M. Azkue eta J. Saint-Pierreren hutsuneak betetzeko bina hautagai aurkeztu zituzten: L. Michelena eta P. Múgica, alde batetik, eta J. Moulier eta J. Diharce, bestetik. Hura zen, bestalde, L. Michelena partaide zuen Euskaltzaindiaren lehen batzarra (Ibarzabal 2001: 158-159). Idazkariak eta F. Krutwigek azken aldian egindako eskaerei erantzunda, euskara sustatzeko, «jaursaila edo jagola-batzordea» (gerra zibilaren ondorioz desagertutako «yagoleen» saila) berriz abiatzea erabaki zuten euskaltzain hauekin: J. Gorostiaga, N. Oleaga, L. Villasante, P. Lafitte eta L. Dassancerekin. «Yagoleen» azken sailburu izandako D. de Inzak Txileko erbestean jarraitzen zuen artean. Erabaki garrantzitsua izan zitekeen, 1920ko estatutuen arabera, besteak beste,

[807] ABA-EUS: N. Oleagaren batzar deia, 1952-05-17.

[808] ABA-EUS: N. Oleagaren akta mekanografiatua euskara hutsean dago, A. Irigarayk, jarduneko euskaltzainburuorde gisa, eta idazkariak sinatuta, 1952-05-30.

IKER-35.indd 309 2/9/19 10:56

«yagokideen» esku baitzegoen euskara literarioaren finkatzea, baina izendatutako batzordea ez zen operatiboa izan (Euskaltzaindia 1982: 24).

Bilboko idazkariaren zirriborroan, akta ofizialean aipatu gabeko gai bakarra aurkitu dut: 1952ko irailean Londresen ospatu zen VII. «International Congress of Linguists» (ICL) delakoan parte hartzeko Akademiak jasotako gonbita, Ralph L. Turner buruarengandik.[809] Uste izatekoa da Euskaltzaindiak, ohi zuenez, ezezkoarekin erantzun zuela, erantzunik eman bazuen. Argentinako *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*ek, bestalde, maiatzaren 30eko batzarrean hartutako beste erabaki bat aipatu zuen, garaiko gainerako iturrietan agertzen ez dena:

> Con respecto a la imposición de nombres vascos causó penosa impresión entre los señores académicos la conducta del colega Seminario Rojas, quien no obstante esta circunstancia, había publicado en «El Correo Español», del que es subdirector, algunos artículos en apoyo de los antieuskeristas. En la reunión de Donostia, la Euskalzaindi reprobó por unanimidad el proceder de su consocio, siendo entregado este acuerdo al señor Seminario, personalmente, por el también académico bilbaíno D. Nazario Oleaga (IAEV 1952c: 178-179).

Esan bezala, Akademiaren aktek ez dute J. M. Seminariorekikoa aipatzen. Arazoa otsailetik zetorren, Bizkaiko gobernadore zibilak Sestaoko zazpi laguni bandalismo zigorrak ezarri zizkienean, parrokia orri batean «Miren», «Edurne», «Andone» edota «Koldobika» izenak erabili zituztelako. Zigorrak oihartzun handia izan zuen, izendegi jeltzalea hilarrietatik ezabatzeko G. Riestraren agindua gogorarazten zuelako. *CE-PV* egunkarian «Biurri» ezizeneko batek bost artikulu idatzi zituen S. Aranaren izendegiko neologismoak lotsagarri uzteko asmoarekin. EAJ-PNVren agerkariak behin eta berriz salatu zuen *CE-PV*ko artikuluen egilea J. M. Seminario euskaltzaina zela (*Alderdi* 1952-03; 1952-04; 1952-05).

Barnealdeko prentsa frankistak oro har isilarazi egin zuen L. Villasanteren sarrera ekitaldiak sortutako istilu larria. Ekainaren 19an Donostiako *La Voz de España*n «La bomba H de nuestro alfabeto» umorezko artikulua argitaratu zuen A. Gazteluk, gaztelaniaren ortografia fonetikoki arautzeko aukeraz. Artikuluaren amaieran, tonua aldatuta, RAEko V. García de Diegori galdera hau egin zioten:

---

[809] ABA-EUS: «Seventh International Congress of Linguists» delakoaren zirkularra eta N. Oleagaren akta zirriborroa, [1952-05-30].

IKER-35.indd 310 2/9/19 10:56

— ¿No considera conveniente la creación de una Academia de la Lengua Vasca que corre peligro de desaparecer?

— Desde luego y puede que la cátedra recientemente creada en Salamanca se ocupe de esto. Multitud de filólogos de todo el mundo han estudiado a fondo esa lengua y los españoles no podemos dejar que se pierda (*La Voz de España* 1952-06-19).[810]

Ikusi dugunez, RAEko liburuzaina izan zen, hain zuzen, J. Urquijo eta R. M. Azkue akademikoen nekrologiak idatzi zituena, eta ez zen oso sinesgarria Euskaltzaindia gerraondoan bizi zenik ez jakitea. Nolanahi den, egunkariko erredaktoreak ohar bat ezarri behar izan zuen:

N. de la R.- Aunque en Bilbao existe una «Academia de la Lengua Vasca», con domicilio en Ribera 1 [sic], hemos dejado la pregunta y, sobre todo, la respuesta porque ambas indican que su funcionamiento tiene tan poca resonancia que ni el reporter ni —lo que es más importante— el docto miembro de la Real Academia de la Lengua tienen noticia de ella; prácticamente es como si no existiera, y ello es claro indicio de cómo las instituciones científicas vascongadas se desenvuelven en un clima de atonía, indiferencia e ineficacia que no hacen sino confirmar lo que recientemente afirmaba José Miguel de Azaola en su famosa «Carta de Vasconia» publicada en la revista «Arbor» (*La Voz de España* 1952-06-19).

EAJ-PNVren agerkariak adierazi bezala, frankismoaren zigor makineria ordurako abian zen. BPDko presidenteak ekainaren 9an mezu hau idatzi zion G. Riestra gobernadore zibilari Akademiaren ekitaldi irekian gertatutakoa azaldu eta, bide batez, BPD eta JCVren erantzukizuna zuritzeko:

Aceptada la sugerencia de la Academia, el día señalado al efecto y bajo la presidencia del Vice-presidente de la Diputación Provincial D. Hilario Bilbao, que actuaba como Presidente de la misma por hallarse en Madrid en viaje oficial el Presidente efectivo que ahora suscribe, se celebró la sesión prevista y en ella, el nuevo académico leyó su discurso de ingreso, de contenido completamente normal en un acto de ese tipo.

Esta era la única actuación prevista en el programa (se incluye una de las invitaciones que al efecto se circularon), pero la Academia, siguiendo la costumbre,

[810] Kontuan har bedi V. García de Diego izan zela R. M. Azkueren eta J. Urquijoren RAEko sarrera hitzaldiei erantzuna emateaz arduratu zena diktadura primorriveristan (KMK-JU: V. García de Diegoren gutunak J. Urquijori, 1929 & 1931).

IKER-35.indd 311 2/9/19 10:56

designó a uno de sus miembros, Dn. Federico Krutwig, español, hijo de alemán y española, leyéndose entonces por aquél un discurso a cuyo término y por considerar que al parecer contenía graves afirmaciones, el Sr. Bilbao Eguia reclamó airadamente su texto original, obteniendo por sorpresa del Sr. Krutwig la entrega de las páginas del discurso que acababa de leer, levantándose ya la sesión sin incidente alguno.

Pasado el discurso al estudio de persona que posee los más profundos conocimientos del vascuence y de patriotismo sin tacha, resulta que el texto leído por el Sr. Krutwig está redactado en la variante que se denomina laburtano [sic], característica de la vasconia francesa [sic], con estilo arcaico, en suma, una pedantería que probablemente no pudo ser comprendida por ninguno o casi ninguno de los asistentes al acto, máxime cuando, según oímos, la pronunciación del conferenciante, con vocalización muy imperfecta, acusaba aspiraciones y otras características nunca halladas en el vascuence.

En lo que afecta a su contenido, la presunción inicial sobre su gravedad queda plenamente confirmada una vez conocido el texto de la traducción, por lo que remito a V. E. el original recogido del conferenciante y la traducción del mismo, para que con su superior criterio y Autoridad disponga lo que considere oportuno.

Sí debo anticipar a V. E. que por acuerdo adoptado por la Junta de Cultura de Vizcaya en lo sucesivo y antes de acoger acto alguno de la Academia de la Lengua Vasca, se exigirá el conocimiento completo de los discursos que vayan a pronunciarse, con su texto en vascuence y en castellano; y también debe conocer V.E. que según se me ha informado, la Academia de la Lengua Vasca espera conocer el texto íntegro del discurso para deliberar sobre si debe adoptar alguna medida con respecto al Sr. Krutwig.[811]

Besteak beste, G. Riestrak F. Krutwigen hitzaldiaren gaztelaniazko itzulpena E. Bilbao Gorte frankistetako presidenteari bidali zion ohar honekin: «Como este discurso ha tenido muy escasa difusión hasta ahora, conviene que no se divulgue».[812] BPDko presidenteak izenik ez eman arren, itzulpenaren egilea J. M. Seminario zen. Emandako laguntzaren sari gisa, JCVren izenean, J. M. Ruiz Salasek liburuki garestiak oparitu zizkion euskaltzainari: Revista de Occidente-ren *Diccionario de Historia de España* (1952) eta J. A. Spencer-en

[811] BFAH-EC: J. M. Ruiz Salasen ofizioa G. Riestrari, 1952-06-09, Junta de Cultura C-40 -01-.

[812] SAF-AA: J. M. Seminariok egindako F. Krutwigen hitzaldiaren itzulpena eta G. Riestraren txartela E. Bilbaori, [1952ko ekaina], DP-1734-02.

IKER-35.indd 312 2/9/19 10:56

(1816-1898) *Historia de los Estados Unidos*.[813] J. Irigoyen eta E. Esparzak batzarretan parte hartzeari uko egin ziotenetik, aginte frankistaren Akademiako ordezkaria J. M. Seminario zen, baina hura ere M. Lecuonaren 1950eko ekaineko sarrera ekitalditik ez zen batzarretara agertzen. Aitzitik, JCVk Euskaltzaindiarekin 1952ko urtarrilean antolatutako R. M. Azkueren omenaldian egon zen Bilbon. J. M. Seminariok Iruñetik idatzi zion N. Oleagari ekainaren 17an arazoaz bere ikuspegia azaltzeko, baina ezkutatu egin zizkion Bizkaiko agintari frankistak hartzen ari ziren neurriak. Tonu bakegile eta ulerkorra gorabehera, gaitzetsi egin zuen hitzaldi abertzalea, eta Euskaltzaindiaren (eta idazkariaren beraren) istiluarekiko erantzukizunaz aritu zen:

> Sigo creyendo que el asunto es de verdadera importancia. Toda la primera mitad del discurso es una invectiva política por el conocido procedimiento de «a ti te lo digo, Juan, para que me entienda Pedro». La segunda parte es francamente injuriosa para la autoridad eclesiástica.
>
> Tengamos presente, por otra parte, que durante el acto en que fue leído el discurso, nuestra Corporación era una invitada de la Diputación, a través de la Junta de Cultura, cuyo presidente nato es el de la Diputación. El efecto, pues, no pudo ser más lamentable.
>
> No ya desde el punto de vista político sino hasta desde el de la más elemental buena educación, aquello no se podía decir. Mejor dicho, muchas cosas se podían y se debían decir, pero no en aquel tono mordaz e incisivo, «echando de comer a la fiera» y conquistando ciertos aplausos fáciles y bien poco gratos para quien como yo, antepone a todos sus afectos en este orden de cosas su calidad de español.
>
> Por otra parte, como usted, que es hombre de experiencia sabe muy bien, los efectos que con esas cosas se producen son contrarios a los que se persiguen. Qué ganamos cosechando antipatías? Y, esto, precisamente ahora, cuando las cosas comenzaban a entrar por cauces más normales. Por otra parte, cosas así no son materia propia de una Academia de la Lengua sino de una entidad dedicada a las Ciencias Morales y políticas [sic]. Esto, sin olvidar que es más eficaz pero más penoso y oscuro, decir muchas de estas cosas —lo que hay de verdad en el discurso, sin hipérboles ni frases molestas— es más eficaz, repito, pero más oscuro y trabajoso, repetir esas cosas en privado ante quien puede remediarlas, llevando a su convencimiento el criterio ajustado a la resolución de nuestros problemas.
>
> No olvide usted tampoco —y no quiero molestarle sino que, sencillamente, creo cumplir un deber diciendo las cosas como son— que si bien en el terreno

[813] BFAH-EC: J. M. Ruiz Salasen gutuna J. M. Seminariori, 1952-07-23, eta Librería-Papelería Villar-en 1.179,47 pezetako faktura, 1952-07-22, Junta de Cultura C-40 -01-

IKER-35.indd 313 2/9/19 10:56

amistoso el hecho de que usted no conociera el discurso es una explicación humana y perfectamente aceptable, en el terreno oficial no lo es. Todos los discursos académicos se leen antes del acto. Sucede aquí exactamente igual que en la Dirección de un periódico. Todos sabemos, en efecto, que el director no lee todo el periódico, pero eso no se puede alegar en los tribunales ni ante las autoridades. Oficialmente tiene obligación de haberlo leído y es responsable de cuanto se publique.

Creo que debía usted ponerse al habla con Don Hilario Bilbao para arreglar esto lo mejor posible, en bien de la Corporación a que pertenecemos y de sus finalidades específicas.[814]

Eskuz erantsitako oharrean, G. Riestra eta J. M. Ruiz Salasekin hitz egin ondoren, Euskaltzaindiak arazoarekiko adierazpen ofizial bat erabaki behar zuela adierazi zion:

Creo que, antes de la reunión debiera usted ponerse en contacto también con las máximas autoridades de la plaza Elíptica y de la Gran Vía. El Sr Bilbao podría ser un excelente para [sic] suavizar asperezas.

En cuanto a nosotros, creo imprescindible adoptemos una decisión seria para liquidar este lamentable episodio y quedar dignamente.[815]

Legez kontrako propaganda

N. Oleaga idazkariak ekainaren 18an bidali zien euskaltzainei hilaren 27an Donostian egin zen batzarrerako deia. Batzar deiarekin batera, gai ordena zehazten zuen orria gordetzen da artxiboan:

– Lehendabizi estatutuen berritzea aipatzen zen. Argi zegoen gerraondoko Akademiak ezin zituela bete 1920ko araudiak ezartzen zituen baldintzak. Besteak beste, berriz arautu behar zen diru eta giza baliabidez urrituta zegoen Akademiaren batzarrak eta kargu aldaketak nola egin. Halaber, batzarretara joaten ez ziren eta lanik aurkezten ez zuten euskaltzainek kargua galdu beharko luketen ala ez erabaki behar zen.
– R. M. Azkue eta J. Saint-Pierreren aulkiek bete gabe jarraitzen zuten. Hautagaiak, esan bezala, L. Michelena eta P. Múgica, eta J. Moulier eta J. Diharce ziren, hurrenez hurren.

[814] ABA-EUS: J. M. Seminarioren gutuna N. Oleagari, 1952-06-17.
[815] ABA-EUS: J. M. Seminarioren gutuna N. Oleagari, 1952-06-17.

IKER-35.indd 314 2/9/19 10:56

– Era berean, E. Erquiaga eta S. Michelena urgazle izendatu ala ez erabaki behar zen.

– Gai zerrendan azkena, F. Krutwigen hitzaldiak sortutako arazoa zegoen.[816]

Araudiaren eguneratzea beharrezkoa zen, baina horretarako Akademiaren egoera juridikoa argitu behar zen. Karguak galtzeari dagokionez, J. Aguerreri gertatu zitzaion hori 1920an, Sevillara bizitokia aldatu eta Akademiaren zereginetan parte hartzen ez zuelako; baina kasu bakarra izan zen gerra zibilera arte. Gerraondoko testuinguru politikoan, ordea, askoz gehiago ziren kargua gal zezaketenak. Uste izatekoa da erbestean zeuden S. Altube eta D. de Inzaren aulkiak babesteko proposatu zituela F. Krutwigek horien ordezkari gisa L. Michelena eta J. Aguerre. Bestalde, Euskal Herritik kanpo bizi zirelako batzarretara ia ez ziren agertzen R. Lafon, P. Lhande edota B. Echegaray. Hala ere, Akademiarekin nolabaiteko harremana bazuten, ezin etorriak justifikatu eta egiten zituzten lanen berri emateko. Kargugabetzeak, halaber, seguru asko J. M. Seminario euskaltzain zelatariari eragin zekiokeen, batzarretara joan ez eta euskaltzain asko aurka zituelako. Dena dela, agian J. M. Seminario bera batzarrean egon zelako, badirudi araudiarena ez zela eztabaidatu.

Beste batzar garrantzitsu batzuekin gertatu bezala, ez dago akta mekanografiatu ofizialik, baina N. Oleagak idatzitako eskuzko zirriborroa gordetzen da. Horren arabera, zortzi euskaltzain bildu ziren Donostian ekainaren 27an: A. Irigaray mahaiburu, J. M. Seminario, P. Lafitte, M. Lecuona, L. Dassance, J. Gorostiaga, L. Villasante eta N. Oleaga. Aktak ez adierazi arren, P. Lafittek jakinarazi zuen L. Michelena urgazlea ere bertan izan zela (*Herria* 1952-07-03). Idazkariak I. M. Echaide eta B. Echegarayren ezin etorria adierazi zuen. Euskaltzainburuordea Madrilen zegoen, gaixotasunagatik, eta horregatik ez zen agertzen batzarretara.[817] L. Dassancerengandik maiatzean jasotako ezin etorria ere bidali zion idazkariari.[818] B. Echegarayk ekainaren 22an idatzi zion Madrildik idazkariari, azkenaldian gaixorik egon ondoren, lanez gainezka zegoela Auzitegi Goreneko idazkaritzan, eta ezin zuela Akademiaren batzarrean parte hartu. Euskaltzain berriak izendatzeko, J. Moulier eta L. Michelenaren aldeko botoa delegatu nahi zuen. Gipuzkoako linguistaren aparteko balioaz hasieratik jabetu zen horietakoa zen: «Desde hace años conozco su valor extraordinario y no dudo en vaticinar que su nombre figu-

[816] ABA-EUS: N. Oleagaren batzar deia eta gai ordena, 1952-06-18.
[817] ABA-EUS: I. M. Echaideren txartela N. Oleagari, 1952-06-23.
[818] ABA-EUS: L. Dassanceren gutuna I. M. Echaideri, 1952-05-29.

IKER-35.indd 315 2/9/19 10:56

rará como glorioso entre los euskerálogos eminentes».[819] B. Echegarayk lan jargoien ikerketarekin jarraitzen zuen eta udazkenean Euskaltzaindiari aurkezteko asmoa zuen.

Hain zuzen, batzarreko gai nagusia F. Krutwigen maiatzeko hitzaldiak BPD eta JCVko agintariengan eragindako protestari korporazioaren erantzun ofiziala ematea zen, J. M. Seminariok gutunez adierazitakoaren bidetik. Ekitaldi publiko batean euskaltzain batek egindako salaketarekiko posizio bateratua agertu behar zuen Akademiak, batez ere JCVrekin azken urtean izandako gorabeherak, diru laguntzen etena eragin zutenak, kontuan hartuta. N. Oleaga idazkariaren eskuzko zirriborroan, batzarrak hartutako erabakia ezabatutako zenbait hitzez eta esaldiz betea ageri da, iritziak bateratzea ez zela erraza izan frogatzen duena:

> Haber visto con profundo desagrado la actuación del Sr. Kr[utwig] que la Academia estima inoportuna, ~~inconveniente~~ y ~~por~~ los términos empleados, el tono ~~empleado y~~ de exposición, ~~y~~ la ocasión y aun el mismo tema, altamente censurable ~~y comprometedora para la Academia, siquiera esta resulte ser ajena a dicha actuación de la que es el Sr. K[rutwig] quien debe responder a quien corresponda,~~ y demandar de K[rutwig] que ~~explique~~ [posteriormente?] ante la Academia su actuación para las resoluciones procedentes.[820]

Zirriborroan ezabatuta agertzen den oharraren arabera, Akademiaren hurrengo batzarra uztailaren 29an egitea erabaki zuten, baina ez zen halakorik gertatu.[821] EAJ-PNVren agerkariak, orobat, Akademiak GPDko jauregian egin zuen batzarraren berri eman zuen, ohi ez bezalako partaidetza izan zuela nabarmenduta. Euskaltzain berri bi izendatu zituztela adierazteaz gain, zirriborroan ageri ez den JCVko ordezkariaren esku hartzea aipatu zuen:

> Seminario Rojas jaunak (danok dakitenez Bizkai'ko Alundiaren diru-laguntza koxkor baten trukean onartu bear izan zuten napar-falangiste au Euskaltzaindia'ren barruan) Bizkai'ko Gobernadorearen izenean esan zun jaun onek atsegiñez ikusiko lukela Krutwig jauna Euskaltzaindi'tik bota balezate. Itzez-itz «el Gobernador de Bizkaya vería con sumo agrado la expulsión del Sr. Krutwig de la Academia de la Lengua Vasca».

[819] ABA-EUS: B. Echegarayren gutuna N. Oleagari, 1952-06-22.
[820] ABA-EUS: N. Oleagaren akta zirriborroa, 1952-06-27.
[821] ABA-EUS: N. Oleagaren akta zirriborroa, 1952-06-27.

IKER-35.indd 316 2/9/19 10:56

> Euskaltzaindiak ordea ezezko borobilla bota' dio Gobernadorearen aurkezleari, Euskaltzaindiak ezpaitu iñoiz Gobernadore ta politikoen agindurik aintzakotzat artu eta ez artuko ere (*Alderdi* 1952-07).

Bizkaiko agintari frankista gorena Akademia presionatzen ari zen F. Krutwig egotzi zezaten, baina batzarrak euskaltzainaren hitzaldia gaitzetsi arren, ez omen zuen onartu gobernadore zibilaren interbentzionismoa. Hain zuzen, N. Oleagaren batzar zirriborroan ez agertu arren, L. Michelenak gero adierazi zuen bera batzarrean izan zela eta *Alderdi*k emandako informazioa konfirmatu zuen, agian bera (edo M. Lecuona) izan zelako agerkariaren iturria:

> Asistí también a la reunión en que Genaro Riestra […] propuso a la Academia por medio de Seminario que expulsara a Federico Krutwig.
>
> Esta proposición no fue aceptada; varios académicos, entre ellos D. Manuel Lekuona, mantuvieron la tesis de que si había algún delito que sancionar lo hiciera el código correspondiente, pero que la Academia no entraba ni salía en la cuestión (Ibarzabal 2001: 159)

Dena dela, Euskaltzaindiaren berehalako eginkizuna, P. P. Astarloa euskal apologistaren omenaldian parte hartzea izan zen. JCVk maiatzaren 15ean jakinarazi zion Akademiari Durangoko Udalak zuen asmoaren berri, L. Villasanteren sarrera ekitaldia baino lehenago. Durangoko ekitaldia ekainaren 28-29etan izango zen, eta A. Tovar errektoreak eta euskaltzainen batek hitzaldi bana ematea nahi zuten.[822] Biharamunean Durangoko Udalak berak berritu zion eskaera Euskaltzaindiari.[823] JCVk maiatzaren 20ko batzarrean hainbat erabaki hartu zituen: 1) J. J. Zabala alkatearen gonbita eskertzea, 2) JCVko ordezkaritza batek parte hartzea ekitaldian, eta 3) lehiaketa bat antolatzea Bilbo, Donostia eta Gasteizko prentsan, P. P. Astarloa apaiz antimodernoaz idatzitako artikulu onenak saritzeko.[824] A. Tovarrek maiatzaren 31n JCVko idazkariari idatzitako gutunean onartu zuen ekitaldian parte hartzea.[825] Normaltasun itxura emateko, JCVren erabakien berri erbesteko prentsan eman

[822] ABA-EUS: E. Calleren gutuna Euskaltzaindiari, 1952-05-15.

[823] ABA-EUS: Durangoko alkatearen gutuna Euskaltzaindiari, 1952-05-16.

[824] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1952-05-20, Junta de Cultura C-62.

[825] BFAH-EC: A. Tovarren gutuna E. Calleri, 1952-05-31, Junta de Cultura C-7 -09-. Jaietako programaren A. Tovarren alea gordetzen da Euskaltzaindiaren bibliotekan: AYUNTAMIENTO DE DURANGO (1952): *Fiestas de San Antonio y centenario de Pablo Pedro de Astarloa 1952*. Durango: Ayuntamiento de Durango.

IKER-35.indd 317 2/9/19 10:56

zuten, lehenengo aldiz, oker ez banago. Ildo propagandistiko beretik, RSVA-Pen batzarrean *RIEV* berriz argitaratzeaz edota euskal hiriburuetan unibertsitate fakultateak zabaltzeaz esandakoak aipatu ziren (Gernika 1952a: 226).

Esan bezala, F. Krutwigek sortutako istiluaren ondoren, Euskaltzaindiaren maiatzaren 30eko batzarrean, erabaki zuten Akademiaren ordezkari J. Gorostiaga izendatzea eta hala jakinarazi zieten JCVri eta Durangoko Udalari ekainaren 6an.[826] Egun bereko JCVren batzarrean, aktaren arabera, ez zuten Euskaltzaindiko ekitaldiaren arazoa aipatu, baina P. P. Astarloaren omenaldirako ordezkari F. Echegaray izendatzeaz gain, J. Gorostiaga euskaltzainak Durangon irakurri behar zuen hitzaldiaren kopia eskatzea erabaki zuten, edukia zentsuratu eta istilurik ez izateko.[827] Ekainaren 25ean JCVko F. Echegarayk honako artikulu hau saritzea erabaki zuen: Bilboko J. Ortega Galindo institutu katedradunak Gasteizko *Pensamiento Alavés* egunkarian argitaratutako «Vida y obras de Pedro Pablo Astarloa» [sic].[828] Artikuluan erregimen foraleko hizkuntza eztabaiden testuinguru politikoa azaltzeaz gain, Salamancako Unibertsitateko euskara katedra ustez orbangabea goratu zuen.[829] Hala ere, A. Tovarrek ezin izan zuen Durangoko ekitaldian parte hartu eta azken gorabeheren informazioa bertatik bertara jaso. Salamancan geratu behar izan zuen, uztailaren 21ean hilko zen T. Andrés Marcos errektoreorde zaharraren osasunak okerrera egin zuelako.[830]

---

[826] BFAH-EC/ABA-EUS: N. Oleagaren ofizioak JCVko buruari eta Durangoko alkateari, 1952-06-06, Junta de Cultura C-7 -09-.

[827] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1952-06-06, Junta de Cultura C-62. Hauek bildu ziren: J. M. Ruiz Salas, F. Echegaray, J. B. Merino, H. Bilbao, A. Bilbao, C. Lasterra, F. Ygartua, Conde de Superunda, J. M. Maiz eta E. Calle.

[828] BFAH-EC: JCVko F. Echegarayren ofizioa, 1952-06-25, Junta de Cultura C-7 -09-.

[829] «El segundo centenario que celebramos en el presente año de 1952 coincide con el final del nefasto sistema tendencioso del siglo XIX en que la investigación de lo vascongado se asemejaba a un enconado pleito curialesco. Hoy el idioma vascongado ocupa el lugar que le corresponde en la Universidad española. Se le estudia con amor y toda tendencia preconcebida ha sido relegada. Este año de 1952 nos ha llenado de júbilo a todos los amantes del idioma al ser creada, en la prestigiosa Universidad de Salamanca, la cátedra de Vascuence. Hoy comienza una nueva era. La paz de los claustros de Salamanca llama a todos los hombres de buena voluntad. Para entrar en ellos se ha de abandonar el antiguo orgullo que nos lanzó con una violencia tal por nuestro propio parecer, que se nos escapó el sentido de lo universal. Hemos de dejar la necia irritación, que rechaza las críticas y se aferra al error. Quitados esos obstáculos, siguiendo el camino que Astarloa nos iniciara el maravilloso idioma vascongado alcanzará su propio destino» (*Pensamiento Alavés* 1952-05-31).

[830] Sancho el Sabio Fundazioa, José Miguel Azaola funtsa: A. Tovarren gutuna J. M. Azaolari, 1952-07-04.

IKER-35.indd 318 2/9/19 10:56

Akademia, ordea, gaizkile agertzen zen. Sarrera ekitaldiak sortutako arazoa larria zela argi geratu zen F. Krutwigek muga zeharkatu eta Frantziara ihes egitea erabaki zuenean, besteak beste, C. Billalabeitia jeltzalearen aholkuz (Ibarzabal 1979: 60). Ikusi dugunez, ez zuen Euskaltzaindiaren maiatzaren 30eko eta ekainaren 27ko batzarretan parte hartu. Bizkaiko berriemaileak F. Krutwig auzipetua zegoela zabaldu zuen uztaileko EAJ-PNVren agerkarian:

> [H]ubo un prolongado lapso de silencio, contrastando con la rapidez y hasta precipitación que al señor Riestra suele caracterizar en sus decisiones. Se dijo que al camarada no l[e] agradaba el paquete y que se lo había trasladado a su superior jerárquico Don Blas Pérez, Ministro de la Gobernación. Y también se dijo que la trinidad camaradística local (Gobierno, Diputación, Ayuntamiento, o sea, Riestra, Ruiz de Salas, Zuazagoitia) opinaban al unísono que lo mejor era no dar ninguna importancia al asunto.
>
> Pero a los pocos días —última decena de junio— un policía del Juzgado nº 3 de Bilbao se presentaba en casa de los señores Krutwig, con orden de detener al académico. No se hallaba en casa, pues se había ausentado días antes con objeto de solucionar algún asunto personal más interesante, que hacía tiempo tenía pendiente. Por lo tanto, no pudo efectuarse la detención, a Dios Gracias (*Alderdi* 1952-07).

Frankismoaren aurka egin eta nazioartean salatzea eginkizun nagusitzat zuen EAJ-PNVrentzat istilu hura ezin zen oharkabean igaro. EBBren artxiboan F. Krutwigen jatorrizko testua eta gaztelaniazko itzulpena gordetzen dira. Itzulpenak «R.»k sinatutako ohar luze bat du Bilboko epailearen sumarioaz. Horren arabera, fiskalak ekainaren 16an aurkeztu zion epaileari F. Krutwigen aurkako ofizioa:

> Se acompaña al presente escrito un oficio del Fiscal de la Audiencia de Bilbao al Juez de Instrucción del Juzgado número tres en el que poco más o menos dice así:
>
> … Que el día 24 de mayo [sic] ppdo. tuvo lugar una reunión en la Academia de la Lengua Vasca [sic] en la que se trató de la difusión de la lengua vasca, y durante la cual el Sr. Dn. Federico Krudwig (?) en vez de disertar sobre el asunto de que se trataba, pronunció una alocución que más pareció un mitin de matiz netamente político y de inclinación netamente también nacionalista y durante el cual usó de palabras injuriosas tanto para las Autoridades civiles como para las jerarquías eclesiásticas, por lo que se estima que dicho Sr. ha incurrido en dos delitos, tales como el de Propaganda Ilegal y el de Desacato a la Autoridad, con el agravante como queda dicho de usar palabras altamente injuriosas para la Iglesia y sus jerarquías.

IKER-35.indd 319 2/9/19 10:56

> En consecuencia se dicta auto de procesamiento y se ordena la detención inmediata del acusado.
>
> Se acompaña con el presente oficio el texto íntegro de la disertación del Sr. Krudwig [sic] en vascuence y su traducción al castellano, y es en ésta donde el Fiscal ha subrayado los párrafos que cree más ofensivos e injuriosos en los que se basa la orden de procesamiento y detención.
>
> La numeración que va entre paréntesis figura en el escrito del Sr. Krudwig [sic]. Lleva fecha del 16 de Junio ppdo. el oficio que se cita.
>
> Se acompaña también al Sumario un oficio de la Dirección General de Seguridad —Jefatura Superior de Policía de Vizcaya— en el que se dice el no haberse podido proceder a la detención de D. Federico Krudwig [sic] por no hallarse en su domicilio y sí en San Juan de Luz —Francia— a donde sus familiares dicen haberse trasladado a pasar una temporada con una hermana que allí vive.
>
> Posteriormente se ha cursado de nuevo un oficio del Juez del Juzgado de Instrucción número tres en el que se encarga a la Policía trate de averiguar la fecha del regreso del Sr. Krudwig [sic].
>
> Según referencias del Juzgado donde se instruye este sumario, la denuncia ha partido del Gobernador Civil de Vizcaya.[831]

J. M. Barandiaranen egunkariari esker dakigu, ekainaren 10erako F. Krutwig Frantzian zegoena. Lehen aldiz Baionan ezagutu zuten elkar 1950eko uztailean, R. Lafon eta L. Dassanceren sarrera ekitaldian. F. Krutwigek eskatuta, 1952ko ekainaren 10ean Donibane Lohizunen bildu ziren:

> Dela zenbait egun Bilbaon, itzaldi batean esan emen zian, Eliza'k eta Estatuak euskerari kalte aundia egin diotela. Orregatik —beldur bait uan Bilbao'ko agintariak baituko ote zuten—, Prantzia'ra etorri emen dek illabete bat edo bi emen igarotzeko asmoan. Esan zeâk, euskerazko aldizkari bat nai luketela argitarazi, eta neri nere iritzia galdetu zeâk. Ontzat artu zoât asmo au (Barandiaran 2009: 809).

F. Krutwigen inkontzientziaren froga da Bilbon giroa hilabete pare batean baretuko zela uste izatea, azkenean erbestean geratu behar izan baitzuen. *Euskо-Jakintza*ko zuzendariaren Sarako etxean (Pirinio Behereak) berriz bildu ziren ekainaren 13an: «Euskalzale benetakoa zirudik gizon gazte orrek. Euskerari bizierazi nai badiogu, gogo-landu eta argiko lagunak bear diate euskeraz

[831] SAF-AA: EBBren dosierrak F. Krutwigen hitzaldiaz, PNV_NAC_EBB, K.00308, K.10 & PNV_NAC_EBB, K.00084, C.4. Testu hori Euskaltzaindiko A. Ibinagabeitiaren funtsean ere gordetzen da (cf. Sudupe 2011a: 232-234).

IKER-35.indd 320 2/9/19 10:56

mintza, batez ere ikasgai eta ikaskuntzari buruz. Nik beintzat iritzi ori azaldu zoât eta berak ontzat artu zeâk» (Barandiaran 2009: 809).

Bilboko hitzaldiaren arazoak zuen izaera politiko-judizialarekiko arduragabetasuna ageri da, halaber, P. Lafitte euskaltzainari ekainaren 25ean Donibane Lohizuneko Hôtel Eskualduna-tik idatzi zion gutunean. Ez zion azaldu zergatik zeramatzan aste batzuk Frantzian. Soilik aldizkari bat argitaratu nahi zuela Pirinio Behereetan, Espainia frankistako zentsurarekin arazoak zituztelako. Aldizkaria Bilbon finantzatuko zuten, baina lapurtera klasikoz argitaratu, eta horretarako Frantziako lankideak ere nahi zituzten, Euskal Herri osoa hartzeko asmoarekin. Literatura lanak alde batera utzita, jakintza orokorreko euskal aldizkaria egin asmo zuten. Fisika, teknika, historia edota filosofia hizpide izateaz gain, munduko berri nagusiak zabaldu nahi zituzten, UNESCOrekin harremanetan jarri eta Bilboko itzultzaile talde baten bidez.

Bilboko taldea, 1952ko maiatzeko dosierrean agertutako «Euskal-Kulturaren Elkharrgoa»rekin lotuta zegokeen. Nolanahi den, F. Krutwigek gai hauek debekatu nahi zituen aldizkarian: politika (nahitaez alderdikoia zelakoan), filologia (bereziki euskal filologia) eta literatura (kritika izan ezik). Aldizkariak, batez ere, «hizkuntzaren etnologia» eta jakintzaren dibulgazioa egingo zuen. 1952ko apirilean P. Lafitteri idatzi zion gutunarekin erkatuta, bistan dago ez zuela aipatzen ez Euskaltzaindirik ez EAJ-PNVrekiko elkarlanik, bere hitzaldiak sortutako arazoari ez ikusiarena egin nahian (cf. Andiazabal & al. 2006: 213-214).[832]

Gerra Hotzaren testuinguru antikomunistan, itxaropen hutsalak ziren. Espainia frankistaren alde egiten ari ziren AEBak nazioartean, 1950eko azaroan NBEk Gobernu frankistaren aurka zuen ebazpena indargabetzea lortuta. Ondorioz, NBEko zenbait erakundetan parte hartzen hasi zen Espainiako Gobernua, eta UNESCOn 1952ko azaroaren 19an onartu zuten, EAJ-PNVren etsipena areagotuz (cf. Goiogana Mendiguren 2007). José Miguel Azaola (1917-2007) ere ekainean Frantzian izan zen, bere jarduera europeistek erakarrita. F. Krutwigekin biltzea lortu ez arren, hainbat informazio eskuratu zuen. J. R. Amézola filosofoarekin batera, euskal ikasketen zentro baterako diru laguntza bila aritu zen, Domingo Epalza diputatu ohiaren gisako abertzale erbesteratuen artean, baina ezezkoa jaso omen zuten, EIL-SIEB bera ere geldialdian baitzegoen.[833] J. R. Amézola Bilbora itzuli zen, baina F. Krutwigek

[832] ABA-LAF: F. Krutwigen gutuna P. Lafitteri, 1952-06-25.

[833] F. Krutwigek 1952ko maiatzean Akademian aurkeztutako dosierrean, J.R. Amézola «Euskal Kulturaren Elkhargoa»ren kide gisa ageri zen (ABA-EUS: F. Krutwigen eranskin izen-

IKER-35.indd 321 2/9/19 10:56

erbestean geratzea erabaki zuen. J. M. Azaolaren ustez, F. Krutwigek, agian gaizki aholkatu zutelako, arinegi hartu zuen erabaki hori.[834] J. M. Azaola Donostian euskal filologiako mintegi bat abiatu nahian ari zen aurreko urte bukaeratik. 1952an Donostiako Udalari euskara katedra bat sortzea proposatu zioten. Nolanahi den, ekainaren 9an E. Calle JCVko idazkariarekin bildu zen Bilbon. F. Krutwigen hitzaldiak eragindako egoeraren berri A. Tovarri emateaz gain, katedra bideratzeko Salamancako errektorearen laguntza eskatu zuen:

> Hace 2 días estuve en Bilbao y hablé ampliamente con Esteban Calle que, como sabes, es secretario de la Junta de Cultura de Vizcaya. La Junta de Cultura de Vizcaya tenía antes de la guerra civil una cátedra de vascuence con tres grados o cursos, que alcanzaba una altura muy considerable. Con la guerra, ocurrió lo que todos sabemos, y no se ha vuelto a hablar del asunto. Le pregunté si no estarían dispuestos a restaurar la cátedra, contestándome que de ninguna manera, y mucho menos después del incidente ocurrido hace pocos días al reunirse públicamente la Academia de la Lengua Vasca para recibir al Padre Villasante. Sabrás que Krutwig pronunció un discurso atacando furiosamente a las órdenes religiosas y clero secular, sin excluir al Vaticano, por las negligencias que observa ante las medidas de orden gubernativo entorpecedoras de la enseñanza del vascuence y por la colaboración que prestan a esta obra de desaparición del idioma. Esto levantó un revuelo inmenso, mucho más en Bilbao, población eminentemente timorata, y la Junta de Cultura de Vizcaya, como el gato escaldado, huye ahora del agua fría. Ella fue quien cedió sus locales para la reunión de la Academia, y no quiere que le cuelguen sambenitos de ninguna especie. Entonces le pregunté a Esteban, si no encontraba viable la fórmula que estamos intentando poner en práctica aquí: o sea que la iniciativa parta de la universidad de Salamanca, en el mismo sentido y con los mismos fines que han sido expuestos al Ayuntamiento de San Sebastián. A esto me cont[estó] que, si la iniciativa partía de Salamanca, no tendrían inconveniente ni[n]guno, sino que lo harían encantados.
>
> […]
>
> La reinstalación de los cursos de vascuence dependientes de la Junta de Cultura de Vizcaya, sería un gran paso dado en Bilbao para unir a los vascófilos de allí, un tanto dispersos y desorientados. Aparte el grupo de la Academia, ya envejecido, están los elementos del grupo de Krutwig, disperso y desorientado desde que se separó del Ateneo. Entre estos elementos hay una porción de gente verdaderamente valiosa, como Gorostiaga —a quien ya conoces—, el propio Krutwig, el escritor Eusebio de Erquiaga, el Padre Villasante, y otros que en este momento

gabea, [1952-05-09]).

[834] Sancho el Sabio Fundazioa, José Miguel Azaola funtsa: J. M. Azaolaren gutuna E. Erquiagari, 1952-06-20.

IKER-35.indd 322 2/9/19 10:56

> no recuerdo. Además existen, bajo la dirección de Grandes [sic], un centro de estudios vascos que podía muy bien haber desempeñado el papel que ahora se trata de que desempe[ñe] la Junta de Cultura, si no hubiese tenido la infeliz idea de establecerse en el seno del SEU [Sindicato Español Universitario] y bajo el patronazgo del jefe provincial del Movimiento. Este hecho basta por sí solo para alejar automáticamente del mismo a todos los vascólogos o vascófilos de ideas independientes o contrarias a las que el aparato político oficial representa. Es necesario, por tanto, establecer a la sombra de una entidad como la Diputación Provincial, que es la casa de todo el mundo, una zona de coincidencia a la que puedan acudir las personas interesadas en los estudios vascos, sean cuales sean su ideología y su procedencia, lo mismo las que están en el SEU, como las que están en otros sitios, como las que no están todavía en ninguna parte y que también son bastante numerosas. Por eso [entiendo] (y perdona que me tome la libertad de darte estos consejos; pero creo que puedo hacerlo por conocer Bilbao muy a fondo, mejor aún de lo que conozco San Sebastián) que puedes insinuar a Calle Iturrino la conveniencia de designar los profesores de la futura academia (o como se llame) dependiente de la Junta de Cultura, entre los representantes de los diversos grupos antes mencionados. Es decir, que si hay (como los había antes) tres cursos, uno de ellos podía ser encomendado a Grandes [sic], o alguno de su Centro, otro a Gorostiaga o a Erquiaga, y el otro a alguno de los viejos académicos que pueden dar a la cátedra el prestigio de la institución oficial que es la Academia. El nombre de Krutwig, sobre todo después de la botaratada que acaba de hacer (aun cuando es justo decir que no le faltaba razón en gran parte de lo que afirmó), no me parece prudente airearlo de momento.[835]

Katalanismoa eta euskaltasuna Estatuko kultura ofizialera erakarri nahian ari zen ministerioaren ordezkari gisa, kategorikoa izan zen A. Tovarren euskaltzain gaztearekiko epai etsitua: «No me extraña nada lo de Krutwig que es un insensato».[836] Nolanahi den, Bizkaiko agintari frankisten presioen aurrean Akademiaren duintasuna eta autonomia babesteko ardura guztia hartu zuena N. Oleaga idazkaria izan zen. Euskaltzain sortzaileak hilak ziren eta I. M. Echaide buruordea 1951ko azarotik ez zen batzarretara agertzen, osasunez makal zebilelako. N. Oleaga eskarmentu handiko abokatua zen. Gainera, diktadurako goi karguen aldetik nolabaiteko begirunea espero zezakeen. Izan ere, Bizkaiko abokatuen elkargoko buru gisa, Esteban Bilbaoren eta Bilboko alkate errepublikanoaren arteko trukaketan esku hartu zuen gerra zibilean (Oleaga

[835] Sancho el Sabio Fundazioa, José Miguel Azaola funtsa: J. M. Azaolaren gutuna A. Tovarri, 1952-06-11.

[836] Sancho el Sabio Fundazioa, José Miguel Azaola funtsa: A. Tovarren gutuna J. M. Azaolari, 1952-07-04.

IKER-35.indd 323 2/9/19 10:56

2002). Era berean, E. Bilbao Justizia ministro izendatu zutenean, N. Oleaga arduratu zen ministro berriaren Bizkaiko gestio pertsonal eta profesionalak ixteaz. [837] Kontuan har bedi Gorte frankistetako presidentearen anaia Hilario Bilbao BPDko presidenteordea izan zela, hain zuzen, F. Krutwigen hitzaldia salatu zuen lehen agintaria Euskaltzaindiaren maiatzeko ekitaldi irekian.

I. M. Echaide buruordeak uztailaren 13an sei orrialdeko gutun luzea idatzi zion Donostiatik. Gaixotasunagatik ez zuen artean Akademiaren 1952ko zereginetan parterik hartu, baina A. Irigarayk bisita egin eta, gorabehera guztien berri emateaz gain, F. Krutwigen hitzaldiaren kopia eskuratu zion. I. M. Echaide bezalako uste osoko integrista batentzat, Eliza katolikoaren aurkako hitzaldi hura oso iraingarria zen. Osorik gaztelaniara itzuli eta lerroz lerro aztertu zituen F. Krutwigen erasoak. Erlijioa alde batera utzita, bereziki deitoratzen zuen Akademia politikoki erabili izana, hain zuzen, R. M. Azkuek beti saihestu zuen jarduera. Euskaltzainburuordeak uste zuen Akademiak erabaki ofizial bat hartu behar zuela arazoarekiko, baina presaka ibili gabe. Erruki zen F. Krutwigez, bere senean ez zegoelakoan, eta damutzeko aukera eman nahi zion:

> Tenía que contestar al señor Villasante y no le ha contestado; se ha limitado a aprovechar la ocasión que el honor de contestar le brindaba, para lanzar un furioso discurso, político desde el principio hasta el fin; se ha parapetado tras los enormes prestigios de la Academia de la Lengua Vasca para lanzar tiros contra instituciones que no le son gratas. Y esto no es correcto. Todo lo que dijo en la recepción del Sr. Villasante, podía haberlo dicho por su exclusiva cuenta y riesgo desde cualquier tribuna pública, sin poner en gravísimo riesgo —como lo ha puesto— la vida de la Academia, que, si ha gozado hasta hoy de tan altos prestigios, ha sido debido a prescindir en absoluto de toda clase de política, sabia conducta que aprendió de su nunca bastante llorado primer Presidente y maestro de todos los vascos, el inmor[t]al Dn. Resurrección María de Azcue, de nombre universalmente respetado en todos los ámbitos del país vasco [sic], de España y del mundo, por su ciencia, por su virtud y por su alejamiento de las luchas políticas.
>
> Y no solo ha quedado desairada y comprometida la Academia, sino el mismo recipiendario señor Villasante, cuyo estupor juzgo que no tendría límites al escuchar aquella contestación tan «sui generis».
>
> Ante todo parece lógico y necesario oír al encartado; debe remitírsele un pliego de cargos y en términos corteses rogarle que alegue cuanto estime necesario en su defensa. Es cierto que el Sr. Krutwig no puede destruir los hechos; ahí está su discurso que lo oyeron todos los asistentes a la recepción y que, escrito por él

[837] SAF-AA: N. Oleagaren gutuna E. Bilbaori, 1939-08-31, DP-1676-01.

IKER-35.indd 324 2/9/19 10:56

mismo, lo hemos leído muchos. No obstante, a nadie se puede condenar, sin oírle previamente…

Como atenuantes siempre pesarán en favor del Sr. Krutwig su juventud, su absoluta inexperiencia, su temperamento tan exaltado que sobrepasa los límites normales y quizás una falta de esa profunda formación religiosa que por la misericordia de Dios y sin mérito alguno nuestro hemos recibido los demás.

Si el Sr. Krutwig se mostrase pesaroso de lo ocurrido, reconociese humildemente su falta y diese plenas garantías de que nada semejante va a volver a ocurrir en lo sucesivo, yo me inclinaría por la máxima benevolencia; tal vez en esta manera de pensar influya el mucho cariño que profeso al Sr. Krutwig y la profunda compasión que me inspira el estado de su alma no iluminada por la antorcha de la fe. Pero es claro que, por grande que sea en todos este sentimiento de cariño, ante todo y sobre todo debe prevalecer el interés supremo de la Academia.[838]

Gutunaren berri J. M. Seminario eta J. Gorostiagari ematea eskatu zion idazkariari. Bere aldetik gutunaren kopia bana bidali zien A. Irigaray eta L. Villasanteri.[839] Agian euskaltzainburuordearen jarrera zuhurraren ondorioz, ekainaren 27ko akta ofizialik ez egitea erabaki zuten, bestelako gertakarien zain. I. M. Echaide kezkatuta zegoen istiluak frantziskotarrarengan izan zezakeen eraginagatik. Bilboko ekitaldian egon zen Pablo Lete (OFM) probintzialak atsekabetuta egon behar zuen nahitaez. Hain zuzen, L. Villasantek, buruordearen gutunaren kopia irakurri eta gero, bere burua eskaini zuen F. Krutwigen arazoa bideratzen saiatzeko, seguru asko P. Leterekin adostuta. Oñatitik bizkaieraz idatzi zion idazkariari uztailaren 21ean udako oporrak, aurreko urtean bezala, Frantzian igaroko zituela gogorarazteko. Bordeleko frantziskotarren komentuko egonaldia baliatu nahi zuen, R. Lafonen laguntzarekin, P. Axularren *Guero*ren filologia azterketa abiatzeko. Bestalde, I. M. Echaiderekin hitz egin ondoren, F. Krutwig adiskidearekin bildu nahi zuen eragindako arazoa konpontzen saiatzeko:

Etxaide jaunak bere idazkiaren bukaeran diñona kontuan artuta, eragingo deutsat Euskaltzaindiari agiri bat egin dagion bere damutasuna agertuaz ta auŕerantzean olakorik geiago gertatuko eztala itza emanaz. Eta ia onenbestegaz gauzak aztuten direan eta asunto gogaikaŕi oni luŕa emoten yakon betiko.[840]

---

[838] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari & F. Krutwigen hitzaldiaren gaztelaniazko itzulpena, [1952-07-13].

[839] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutunak A. Irigarayri eta L. Villasanteri, 1952-07-13.

[840] ABA-EUS: L. Villasanteren gutuna N. Oleagari, 1952-07-21.

IKER-35.indd 325 2/9/19 10:56

Bitartean, frankismoaren instantzia ofizialetatik zenbait keinu oso ikusgarri egin ziren euskal kulturarekiko. Donostiako «Centro de Atracción y Turismo»k maiatzean *El Diario Vasco* egunkariaren programa onartu ondoren, 1952ko udan «Semana Vasca» delakoa antolatu zuten Gipuzkoako hiriburuan. Erabakiak susmo politikoak eragin zituen zenbait agintari frankisten artean, aldi berean sindikatu bertikaleko «Educación y Descanso» sailaren programa baztertu zelako (cf. *El Diario Vasco* 1952-05-01; 1952-05-03; *La Voz de España* 1952-05-02). Euskal Herri osoko folklore taldeek, Frantziakoek barne, parte hartu zuten erakustaldian. RSVAPek, orobat, hitzaldi sorta antolatu zuen: A. Arrue, J. M. Areilza, A. Tovar, L. Pericot prehistorialaria, Conde de Peñaflorida eta A. Iturmendi ministroa aritu ziren. Gipuzkoako buruzagi karlistak euskarazko hitzaldia eman zuen udaletxe zaharreko balkoitik, ekitaldi publiko batean guztiz harrigarria zena, garaiko testuinguruan. Gainera, euskararen arazo nagusia iraupenarena zela adierazi zuen. Salamancako errektoreak euskal hiztegi etimologikoaren proiektuaz hitz egin zuen. Conde de Peñaflorida RSVAPen ohorezko buruaren azken eguneko hitzaldia bereziki esanguratsua izan zen. A. Iturmendi Justizia ministro karlistaren aurrean, Euskaltzaindiaren autoritatea baztertzeke, GPDri euskal filologiako mintegia sortzeko eskatu zion, hau izan zitekeelarik «Universidad Vasco-Navarra»ren lehen urratsa.[841]

Hala ere, gainerako hitzaldietan aginte frankistaren goi mailetako uniformismo politiko eta kulturala gailendu zen.[842] EAJ-PNV asmo horretaz jabetu arren, bere politikagintza posibilistari jarraituta, lankidetza eskaini zuen T. Monzonen bitartez Pirinio Behereetako ordezkariek ere parte har zezaten, bereziki euskal teatro lanen emanaldietan, horrelako jaialdiek etsipen giroari aurka egiten laguntzen zutelakoan.[843] Beste jarrera batzuk, ordea, deitoratu egin zituzten. *La Voz de España*ko I. Eizmendi «Basarri»rena, adibidez, EAJ-PNVren *Eguna* egunkariko idazle ohia errazegi makurtzen zelakoan frankismoaren irizpideetara.[844] Hain zuzen, kanpora begira liberalizazio keinuak

[841] J. M. Azaolaren arabera, diktaduraren morroi otzana izan ez zen euskal oligarkiaren ordezkari bakanetakoa izan zen Joaquín Mendizábal (1886-1954) «Conde de Peñaflorida». GPDko presidente izatea eskaini zioten, baina uko egin omen zion probintziak kontzertu ekonomikoz gabetuta egon artean (Azaola 1985: 266).

[842] *El Diario Vasco* 1952-07-27; 1952-07-29; 1952-07-30; 1952-07-31; 1952-08-02; 1952-08-03; 1952-08-05; cf. IAEV 1952d; Gernika 1952b.

[843] SAF-AA: Barnealde eta erbesteko EBBen arteko komunikazioa, 1952-06-01 & 1952-08-04, EBB-0377-1.

[844] SAF-AA: Barnealde eta erbesteko EBBen arteko komunikazioa, 1952-07-05, EBB-0377-1. Bestalde, «Semana Vasca»ren harira, A. M. Labayen buru zuten barnealdeko idazle

IKER-35.indd 326 2/9/19 10:56

egiten ziren bitartean, euskararen aurkako zentsurak gogor jarraitzen zuen, agian Akademiaren hitzaldiak eragindako istiluagatik. Donostiako egunkari horrek eskatu berria zion Informazio eta Turismoko ministerioaren Gipuzkoako delegatuari (L. Dotres) folklorearekin lotutako euskarazko testu laburrak berriz argitaratzeko baimena, baina ezezkoa jaso zuten, J. L. Banús *La Voz de España*ko zuzendariordeak berak onartzen zuen bezala.[845]

Diktaduraren helburua zen ortodoxia espainolistaren esku uztea bai euskararen sustapen mugatua eta bai ikerketa ere. Alde batetik, XX. mendean abertzaletasunaren eremu hegemoniko bilakatu zena kontrolatzearren eta, bestetik, erbestetik politika linguistikoaz egiten ziren salaketei aurre egiteko. 1941etik aurrera saiatu ziren hori egiten JCV eta Euskaltzaindiaren bidez. 1952an beste mugarri bat ezarri zuten, A. Tovar falangistak Salamancako Unibertsitatean abiatutako euskara katedraren eskutik. J. M. Areilzak, uztailaren 26an Donostiako udaletxe zaharraren balkoitik eman zuen pregoian (agian Akademian sortutako istilu politikoa eta berak 1941eko berrabiatzean izandako zeregina gogoan zituela), zinikoki egin zuen abertzaletasun armaz garaituak egiten zuen kulturaren erabilera politikoaren aurka:

> Porque hubo un tiempo, no tan lejano para que corramos sobre él un demasiado tupido velo, en que esta clase de fiestas —espontánea manifestación de la vida popular vasca— eran triste motivo de explotación política bajo el signo del odio y de la discordia. Se pretendía encubrir bajo el manto sagrado de lo vascongado una estúpida tesis secesionista que hiciera de nuestra lengua éuskara, reliquia gloriosa de la primitiva cultura céltica de la Península, clave de ruptura de la unidad lingüística española; de cada elemento de nuestro rico patrimonio vernáculo, arma de disgregación, y de los festivales vascos argumentos dialécticos de rencor político y de proselitismo partidista. Hasta que surgió inevitable, trágica y sangrienta la contienda y el glorioso Alzamiento de 1936 (*El Diario Vasco* 1952-07-29; cf. Areilza 1952: 33).[846]

---

abertzaleek ere bilera xume bat egin zuten Donostian, eta lekukotasunezko agurra bidali zioten erbesteko A. Ibinagabeitiari (ABA-AIB: A. M. Labayen, J. Garmendia «Zeleta», L. Michelena, J. C. Elguezua, N. Echániz eta A. Irigarayren gutuna A. Ibinagabeitiari, 1952-07-28).

[845] Sancho el Sabio Fundazioa, José Miguel Azaola funtsa: J. M. Azaolaren gutuna J. Apariciori, 1952-07-02.

[846] Entzuleen arabera, hitzaldia prentsak zabaldutako bertsioa baino askoz gogorragoa izan zen: «El pregón de la Semana, obra de Areilza, fue detestable. El texto taquigráfico que han dado los periódicos no corresponde a lo que dijo, empleando un tono y unos términos que resucitan las envenenadas cuestiones que produjeron la guerra civil y sin el menor espíritu de superación de antinomias» (Sancho el Sabio Fundazioa, José Miguel Azaola funtsa: J. M. Azaolaren gutuna E. Erquiagari, 1952-07-30; cf. Urkia Etxabe 2006: 296-297).

IKER-35.indd 327 2/9/19 10:56

Nolanahi den, L. Villasantek arreta handiz prestatu zuen oporretako egonaldia erbesteko hainbat lagunekin egoteko, baina ez zuen esperotako etekinik atera. J. M. Barandiaranekin bildu nahi izan zuen, baina *Eusko-Jakintza*ko zuzendariaren egunkari zehatzaren arabera, S. Michelena (OFM) baino ez zen agertu irailaren 6ko bisitara (Barandiaran 2009: 814).[847] R. Lafonekin ere oso labur hitz egin ahal izan zuen L. Villasantek, eta irailean Donostian berriz elkartzeko geratu ziren, Frantziako linguista Madrilera abiatu aurretik.[848] Gerra zibil aurreko euskaltzain jeltzale gisa zuen ospeagatik, bereziki garrantzitsua zen Pauen erbesteratuta zegoen S. Altuberekin ados jartzea.

S. Altubek Euskaltzaindiaren ekitaldi irekian sortutako istiluaren berri jakin bezain laster F. Krutwigi gutun bat bidali zion Akademiako idazkaritzara.[849] F. Krutwigek 1951ko abenduaren 30ean idatzitakoari egindako erantzuna zen, eta uste izatekoa da Bilboko gutuna jaso zuenean ez ziola garrantzirik eman, Akademiarekin etsita zegoelako. Baina prentsa jeltzalean hitzaldiaren berri jakin ondoren, erantzun egin zion. Nuevo Ateneo-n egindako lanagatik zoriontzeaz gain, R. M. Azkueren *Morfología vasca*ren ale bat Pauera bidaltzeko eskatu zion. Liburua I. M. Echaideren Donostiako bulegoan omen zegoen geldi, eta horrek errezeloren bat ematen zuen aditzera. Dena dela, S. Altubek ez zuen Akademian parte hartzeko asmorik agertzen. Iradokizunen bat egitera mugatu zen: euskaltzain berriei *Euskera*ren bilduma osoa eman beharko litzaiekeela, gerra zibil aurreko erabakien jarraitutasuna ziurtatzeko.[850] Gutunean ez zuen erantzun hitzaldiaren arazoa aipatu, baina L. Villasantek irailean Pauen gorabehera guztiak azaldu zizkion (cf. Altube 1959: 47-48).[851] Frantziatik itzuli ondoren, honela azaldu zion frantziskotarrak idazkariari S. Altuberen iritzia, azken finean Akademiari eta bereziki euskaltzainburuordeari jarrera erresistenteagoa eskatuz diktadura frankistaren aurrean:

> Exaide Jaunak [F. Krutwigen] hitzaldiari buruz egindako dosier hura utzi neraukon irakurtzeko. Etzitzaion bat ere gustatu, gogorregi zerizkion. Euskaltzain bat, euskararen eskubideen alde aurpegia athera duelako eta egizkoak ta jakinak diren erru ta obenak salatu dituelako, nork eta bertze euskaltzain batek era horretara joko du ba (zion)? Krutwigren [sic] gehiegikeri bat[z]u ontzat ez hartuarren, hain errukigabeko idazti hori berak ezin omen du onetsi. Zer erranen lukete (zion) kanpoaldean dabiltzen euskaldunek, paper hori beren eskuetan ero-

[847] ABA-EUS: J. M. Barandiaranen gutuna L. Villasanteri, 1952-08-20.
[848] ABA-EUS: R. Lafonen gutuna L. Villasanteri, 1952-09-03.
[849] ABA-EUS: S. Altuberen gutuna L. Villasanteri, 1952-08-20.
[850] ABA-EUS: S. Altuberen gutuna F. Krutwigi, 1952-07-01.
[851] ABA-EUS: S. Altuberen gutuna L. Villasanteri, 1952-09-24.

IKER-35.indd 328 2/9/19 10:56

riko balitz eta zer pentsatuko lu[ke]te gure Akademiaz? Bere ethorkia ukhatu duela, hilik dagoela, alegia eta gehiago itzalik merezi ezduela. Hauxe zan bere iritzi edo aburua, eta gizon zuur batena denaz gero, zuk jakitea konbeni dela gogoratu zait eta hala, hark erran bezala, jaulki derautzut.[852]

S. Altubek artean harreman testimoniala zuen Akademiarekin. 1952ko abenduan bere *Erderismos* (1930) liburuaren ale bat Bilbotik J. Zaiteguiri bidaltzea eskatu zion idazkariari.[853] Frantziskotarrari Pauen adierazi zionez, zurrunegi agertu zen liburu horretan euskal sintaxi kanonikoa deskribatzean (Villasante 1975: VIII). Nolanahi den, N. Oleagak ale bat bidali zuen Guatemalara eta adeitasunez zera galdetu zion: «¿Noz ikusiko zaitugu gure artean? Egoki-egoki litzateke».[854] Baina S. Altubek mutu jarraitu zuen, eta J. Zaiteguik berak idatzi zuen esker oneko gutuna 1953ko martxoan, bide batez *Euzko-Gogoa*rako lankide euskaltzainak eskatuta.[855]

L. Villasantek, Bordeletik, orobat, J. Zaiteguiri idatzi zion, *Euzko-Gogoa*ri ekonomikoki komentuetako harpidetzen bidez laguntzeko asmoarekin. Era berean, protesta egin zuen N. Ormaecheak «Quito'n arrebarekin» idazlanean Arantzazuko frantziskotarren gerra zibileko jarrera salatu zuelako (Iztueta & Diaz 2007: 325-326; cf. Ormaetxea 1991a: 736).[856] Guatemalatik adeitsu erantzun zion, baina N. Ormaechearen salaketari eutsita. Aldizkarian joera guztietako idazleek parte hartzen zuten (S. Altube, C. Jemein, J. Mirande, N. Ormaechea edota F. Krutwig) eta, bai L. Villasanteren sarrera hitzaldia bera, bai *Guero*ren azterketa argitaratzeko prest zeuden.[857] Zuhurki, ez batak ez besteak ez zuten aipatu F. Krutwigen hitzaldiaren arazoa, baina *Euzko-Gogoa*ko zuzendariak bazuen horren berri. A. Ibinagabeitia uztailean Pirinio Behereetan bildu zen, besteak beste, J. Diharce eta S. Michelenarekin; azken hau lapurtera klasikoaren bidearekin oso kritiko ageri zen. Gainera, Parisen F. Krutwig berarekin egoteko aukera izan zuen, eta honela jakinarazi zion J. Zaiteguiri uztailaren 23an:

Krutwig ere ikusi dut. Emen dago orain, Parisen, eta ostatua bila ta beste zenbait gauzetan lagundu diot. Iz-aspertu luzeak eginak gaituzu. Bere ta Villasanteren itzaldiak ere utzi dizkit irakurtzeko. Badakit zuk ere irakurri dituzula. Krut-

852 ABA-EUS: L. Villasanteren gutuna N. Oleagari, 1952-09-27.
853 ABA-EUS: S. Altuberen gutuna N. Oleagari, 1952-12-07.
854 ABA-EUS: N. Oleagaren gutuna S. Altuberi, 1952-12-13.
855 ABA-EUS: J. Zaiteguiren gutuna G. Maidagani, 1953-03-11.
856 ABA-EUS: L. Villasanteren gutuna J. Zaiteguiri, 1952-08-19.
857 ABA-EUS: J. Zaiteguiren gutuna L. Villasanteri, 1952-08-23.

IKER-35.indd 329 2/9/19 10:56

wig'en euskerari buruz, ondo dakizu nere aburua. Itzaldiaren mamiari nagokila irakurri lanetan ernegarrienetarik irudi zait. Bekoz-beko ta bildur gabe euskeraren benetako auzia arakatzen dizu eta Hierarkhia ere bidez ta bear bezala astintzen. Bete-betean naukazu jaun orrekin «euskera ikas-objektu barik irakats bide bear dula izan» dionean. Bilbaoko gotzaiak irakurri omen du itzaldia baita aren baranoko apaizek ere. Eder iritxi omen die ta gainera bidezko. Or ikusiko dugu irakatsi aien arioratuko dituten beren eginak ere. Oraingoz ez du Zeru-Inperioan sartzerik, Parisen bertan zenbait ilabetez egongo da oraindik (Iztueta & Diaz 2007b: 318).[858]

F. Krutwigek hitzaldian landutako gaia bereziki minbera zen jeltzale katolikoentzat, frankismoak behin eta berriz aurpegiratu zielako marxista ateoekin bat egin izana gerra zibilean. A. M. Labayenek bere ikuspegia azaldu zion, genozidio kulturala hizpide, euskaltzain gaztearekin harremanetan zegoen A. Ibinagabeitiari:

Askotan ausnarka aritzen naiz artzai txarren eskutik euskera nolatan azkatu genezaken. Erri agintari ta artzaiak bat eginik baitdaude gu itotzearren, genozidio orren kaltean edozein gauza zillegi. Gure artean protestantismo eliz-batzar bat bilduko ba litzake orduan beldurrez bear bada apezpikuok bestela jokatuko lukete. Krutwig'ek reformista bokazioa duen ezkero euskera «izorratzen» ibilli bearrean, —barkatu itza— uste dut erreligio aldaketa'ra, au da! ots! «Kristau Eliza Euskaldun» Toledotik azkatua sortzen leiako balitz, asmo onen inguruan beinik bein zarata aterako ba'lu «Leizarraga»tzaz oroituaz eta abar eta abar... Agian beste ollar batek egingo liguke kukurruku! Zer esan nai dudan antzematen diozu... Eliza katolikoak jipoia ta zigorra bear ditu garbi Ebangeri ta Jesukristoren arabera iraun dezan. Erroma'k ikusiko balu euskaldun protestantismo ori indartzen ari dala ez ginuzke ostikoka ibilliko eta gutxiago bidaliko orain ditugun bezelako «sasi» artzaiak.[859]

Dena dela, frantziskotarraren udako hitzordu garrantzitsuenak huts egin zuen. Bordelera idatzi zion gutunaren arabera, F. Krutwigek uztailaren 25ean Donibane Lohizunetik Parisera alde egin zuen.[860] Bion hitzaldiak hainbat laguni eman zizkion irakurtzeko, besteak beste, EAJ-PNVren informazio zerbitzuetako A. Ibinagabeitiari. Parisen S. Michelenarekin elkartzeko asmoa

[858] Euskaltzaindiaren Artxiboa, Jokin Zaitegi funtsa: A. Ibinagabeitiaren gutuna J. Zaiteguiri, 1952-07-23. Horren arabera, C. Morcillo Bilboko apezpikua hitzaldiaren edukiarekin bat zetorren, baina hori ez da oso sinesgarria, *Egiz* aldizkariarekin izandako jarrera ikusita.

[859] ABA-AIB: A. M. Labayenen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1952-09-03.

[860] A. Ibinagabeitiaren arabera, ordea, F. Krutwig uztailaren 23rako Parisen zegoen (Iztueta & Diaz 2007b: 318).

IKER-35.indd 330 2/9/19 10:56

zuen. L. Villasantek uste zezakeenaren kontra, ez zuen damurik egindakoaz. Bere erantzun hitzaldiaren kopia bat Vatikanora bidean omen zihoan. Sarrera ekitaldiko balentriak Akademia kaltetu baino areago, gainditu egin zuela uste zuen: «Behaŕekoa zan euskararen alde zerbait egitea eta neuk uste dut' zure abegiaren egunean zuk eta biok euskararen eta euskal kulturaren alde asko, anhitz egin dugula. Euskararen salbatzekotz lan egin dugu eta orain euskalzain ephelen belduŕagatik' aitzinatu garela uste dut».[861]

L. Villasanteri hasitako bidean ez etsitzeko eskatu zion, euskararen etorkizuna ziurtatzeko bide bakarra zelakoan. Parisen bi hitzaldiak argitaratzeko asmoa agertzen zion. Frantziskotarrak bidalitako beste gutun bati erantzuteko, Paristik idatzi zion berriz ere irailaren 2an. Seguru asko L. Villasantek xeheago azaldu zion euskaltzainburuordearen konponbiderako proposamena, baina F. Krutwigek bere posizioari eutsi zion. Erbestean geratzea erabakita zuen, A. Ibinagabeitia eta EJ-GEko zenbait kiderekin hitz egin ondoren, Bizkaira itzultzea arriskutsuegia zelako. Erabat sinetsita zegoen bere teoriak onartzen hasiak zirela A. Ibinagabeitia, T. Monzon edota J. Mirande.[862]

Hogeita hamaika urteko euskaltzainak erbesteko bizimodu gogorrari aurre egin behar zion, baina uste izatekoa da aita industrialariaren diru laguntza jasotzen zuela. Bestalde, L. Villasanteri Sorbonako Unibertsitatean euskara katedra bat lortzeko aukera aipatu zion, ameskeria hutsa zena unibertsitate lizentziarik ere ez zuela kontuan hartuta. EJ-GEko kideek, halaber, sarrera ekitaldiko bi hitzaldiak argitaratzeko asmoa omen zuten. Espainian lapurtera klasikoaren bidean ez etsitzea nahi zuen; berak erbesteko eta Frantziako idazleen artean eragingo zuen. Hitzaldiaz den bezainbatean, ez zuen atzera egiteko asmorik eta Akademiarengan uzten zuen horri erantzuteko ardura guztia.[863] F. Krutwigen mezua jakinarazi zuen L. Villasantek, idazkariari irailaren 27an Oñatitik lapurtera klasikoz idatzitako gutunean:

> Huna hemen hitzez hitz bere guthunetik aldatua: «Erran iezezu Euskaltzaindikoei, beldur izan eztaitezen, zure eta nire hitzaldiez orain Euskaltzaindiak

[861] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri, [1952ko abuztua?].

[862] Hain zuzen, oso pozik zegoen EGLZ-DCEko buruak EAJ-PNVren aldizkarian F. Krutwigen teoriak azaldu eta hurrengo zenbakian L. Villasanteren sarrera hitzaldi «ederra» aztertuko zuelako. Euskaltzaina oker informatuta zegoen edo frantziskotarra manipulatu nahian ari zen. «Elentxea» ezizenarekin «Buru-lan, kultur-lan» artikulu saila sinatzen zuena ez baitzen T. Monzon sailburua, baizik eta A. Ibinagabeitia (*Alderdi* 1952-07; 1952-08; 1952-09; cf. ABA-EUS/ABA-AIB: A. Ibinagabeitiaren gutuna L. Villasanteri, 1952-10-01).

[863] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri 1952-09-02

IKER-35.indd 331 2/9/19 10:56

nehoiz baino handiago bere prestijea duela; bertzenaz orain uzta egin dituen ereñotzak galduren dituela. Zure eta nire bitartez Euskaltzaindiak euskararen interesseak zaindu nahi dituela erakhutsi du; bainan han dagozen euskaltzainak bildurtzen badira, laisterr akademiak bere prestija galt dezake». Nik hark agindua zuri jakin erazi bertzerik eztut egiten. Baita batzarretarako lanen batzuk igortzeko asmo zuela ere erran zerautan.[864]

Frantziskotarrak, gehiegizkotzat jo zuelako, ez zuen F. Krutwigen aipuko azken esaldia kopiatu: «Euskaltzainek euskararen onura nahi baldin badute, gure bidean barna iarraik bitez».[865] Hain zuzen, *Boletín Oficial de la Provincia de Vizcaya*k frankismoaren zigor judiziala publikoki baieztatu egin zuen, F. Krutwigen aurkako errekisitoria argitaratu zuenean irailaren 3ko zenbakian:

Juzgado de instrucción número 3 de Bilbao

Requisitoria

Federico Kruceig [sic] Sagredo, de 31 años, hijo de Federico y de Isidra, de estado soltero, natural de Guecho, partido de Bilbao, provincia de Vizcaya, domiciliado últimamente en Bilbao, Rodríguez Arias, 1, 3º derecha y cuyo actual paradero se ignora, comparecerá en término de diez días en el Juzgado de instrucción número 3 de Bilbao, con el fin de constituirse en prisión, según lo acordado por auto dictado en causa número 279 de 1952, por el delito de propaganda ilegal, apercibiéndole que de no comparecer, será declarado rebelde y le parará el perjuicio a que haya lugar.

Bilbao, 29 de agosto de 1952.–El juez de instrucción, Félix Sánchez (Núm. 2928)[866]

Hiru hilabete igaroak ziren BPDko presidenteak gobernadore zibilari F. Krutwigen hitzaldia salatu eta honek Frantziara ihes egitea erabaki zuenetik. Besteak beste, G. Riestrak E. Bilbao Gorte frankistetako presidenteari bidali zion Bizkaiko aldizkari ofizialaren zenbaki horren alea, baita «Radio Yugoeslavia» komunistak irailaren 25ean zabaldu omen zuen kontrainformazioaren

[864] ABA-EUS: L. Villasanteren gutuna N. Oleagari, 1952-09-27.

[865] ABA-EUS: F. Krutwigen gutuna L. Villasanteri 1952-09-02

[866] *Boletín Oficial de la Provincia de Vizcaya*, 1952-09-03. Bizkaiko Artxibo Historiko Probintzialaren artxibozainaren komunikazio pertsonalaren arabera, ez dago F. Krutwigen hitzaldiaren inguruko espedienterik Bizkaiko Gobernu Zibilaren dokumentazioan (2014-01-22). Ondoren, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusira idatzi nuen, Bizkaiko Probintzia Auzitegiaren erregistro liburuan auziaz informaziorik zegoen jakiteko, baina ez nuen erantzunik jaso.

IKER-35.indd 332 2/9/19 10:56

testua ere. Horren arabera, F. Krutwigek hitzaldia E. Bilbaoren onespenarekin prestatu zuen Bilboko prentsan argitaratzeko, baina gobernadore zibilak baimena ukatu ez ezik, F. Krutwig atxilotu ere egin omen zuen irailaren 3an. G. Riestrak ohar hau erantsi zuen: «Usted, ¿sabe algo? Yo, no. Todo mentira. Un abrazo».[867] Ikusi dugunez, F. Krutwigek hasieran hilabete batzuen buruan Espainiara itzultzeko itxaropena zuen. Erbesteko EAJ-PNVko kideen bidez ez ezik, familiaren bidez ere hitzaldiak eragindako gorabeheren berri izan behar zuen. Adolfo Careaga (1923-2009) adiskide eta Nuevo Ateneo-ko kide ohiari galdetu nionean Bilbon egindako gestioez, F. Krutwigen aitak laguntza eske berarengana jo zuela erantzun zidan:

> Bueno, también conocí a su padre, un alemán. Decían que era judío, pero yo no lo sé, no me fío mucho de la gente. Lo que sí era un hombre muy cordial, muy simpático, gran defensor de su hijo. Claro, cuando su hijo se exilió, yo me acuerdo que su padre me vino a ver para que Fede pudiera volver aquí. [...] Pues yo me acuerdo de que me vino a ver, como yo estaba más o menos bien situado con la gente de la situación, para que interviniera con el Gobernador Civil, que era aquel Genaro Riestra. Fui a verlo para interceder por Fede, para pedirle que lo dejaran volver y tal. Me dijo: «¡De Krutwig no me hable usted! ¡Estoy harto de oír hablar de ese tema!»[868]

Erbestean geratzea erabaki eta *Boletín Oficial de la Provincia de Vizcaya*k errekisitoria argitaratu ondoren, EJ-GEk Parisko berripaper ofizialeko lehen orrian salatu zuen F. Krutwigen egoera: «La justice franquiste recherche un membre de l'Académie de la langue basque» (*Euzko Deya* 1952-10-01). Auzipetuarekin berarekin adostutako informazioa izan behar zuen, Akademiaren gerraondoko egoera azaltzeaz gain, erantzun hitzaldiaren edukia zabal aipatzen zuelako frantsesera itzulita. Informazioaren arabera, F. Krutwigen karrari sor zitzaion neurri handi batean Akademiaren gerraondoko jarduera, baina era berean J. M. Seminario euskaltzain falangistaren inposizio politikoa salatzen zuen. Erantzun hitzaldia gaztelaniara itzuli ondoren, G. Riestraren aginduz, F. Krutwig Akademiatik kanporatzen alferrik saiatu zela adierazi zuten. Erantzun hitzaldiaren zati luzeak kopiatu ondoren, egozten zitzaion delituagatik izan zezakeen zigorra jakinarazi zuten:

> La police le recherche comme responsable de deux délits: propagande illégale et insulte aux autorités. Pour le premier délit, le Code Pénal prévoit des peines

867 SAF-AA: G. Riestraren txartela E. Bilbaori, [1952ko iraila?], DP-1733-01.

868 A. Caregaren komunikazio pertsonala, 2008-06-03.

IKER-35.indd 333 2/9/19 10:56

allant de six mois et un jour à six ans de prison, plus une amende de 10.003 [sic] à un demi-million de pesetas. Pour le second délit, le Code stipule une peine d'emprisonnement allant d'un mois et un jour à six mois, plus une amende de 1.000 à 10.000 pesetas (*Euzko Deya* 1952-10-01).

Urriaren 2an I. M. Echaidek idazkariari idatzi zion Akademiaren hurrengo batzarra prestatzen joateko. Madrilera zihoan laster, eta batzarra azaroan egitea proposatzen zuen, bera egon ahal izateko. Hura Frantziatik itzuli ondoren, bigarren aldiz bildu zen L. Villasanterekin, eta miretsita zegoen euskaltzain berriaren gaitasunarekin. F. Krutwigen gutunak erakutsi zizkion, eta argi zegoen balentriatzat zuela egindakoa eta ez zuela berehala iritziz aldatuko. Auzia «in absentia» epaituta omen zegoenez, arazoa amaitutzat jo eta bestelako lanari, bereziki euskara literarioaren arautzeari, ekitea nahi zuen:

En esta segunda visita me informó el P. Villasante de un hecho que me dejó consternado y asombrado; a saber, que habían condenado a Krutwig a 25 años de prisión como consecuencia de su discurso ya citado. Consternado, pues, juzgo el dolor del pobre Krutwig al verse así separado de su familia y de sus amigos; asombrado, porque nunca pensé que pudiera recaer sobre él una sentencia tan dura.

Reflexionando sobre el particular, he pensado si ello será debido a haber sido juzgado en rebeldía, no pudiendo, por tanto, designar un defensor; creo que si hubiera mediado un abogado hábil, hubiese salido absuelto o con una penalidad insignificante. Pero el defensor habría sido nombrado de oficio y sería probablemente un abogado joven sin conocimiento ni interés alguno por el asunto y que no se habría molestado en estudiarlo, porque nada le iba a producir. Yo espero confiadamente que Krutwig podrá acogerse en lo futuro a algún indulto; pero es de temer, por bien que vayan las cosas, que pasen varios años sin que pueda regresar a Bilbao.

Ello hace, por desgracia, inútil el que en la Academia nos ocupemos más de su discurso. Cuanto ahora pudiéramos acordar resultaría extemporáneo dentro de tres, cinco o diez años; y el propio Sr. Krutwig, transcurrido ese tiempo y con lo mucho que se aprende en el exilio, habrá modificado mucho sus puntos de vista actuales. Creo, pues, que este asunto debe archivarse.

Pero hay otro asunto que plantea, no el discurso de contestación, sino el de ingreso. El P. Villasante habla de la creación del Euskera literario y este asunto no puede ser extraño a la Academia. Creo que debiéramos cambiar impresiones sobre el mismo en nuestra próxima reunión.[869]

[869] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1952-10-02.

IKER-35.indd 334 2/9/19 10:56

5.5. **IZENDAPEN BERRIAK**

Ekaineko batzar zirriborroaren arabera, L. Michelena eta J. Moulier euskaltzain eta E. Erquiaga eta S. Michelena urgazle izendatu zituzten. Akta ofizialik ez egon arren, egun berean idazkariak lau kide berriei izendapenaren jakinarazpenak bidali zizkien.[870] Horrelako izendapenetan nabari da, akta ofizialik ez egon arren, batzar horietan hartutako erabakiek ondorio eraginkorrak izan zituztela bizitza akademikoan. *Herria*k eta *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vasco*ek, halaber, batzarreko gainerako edukietan sartu gabe, lau izendapenon berri eman zuten.[871] P. Lafittek ezin izan zion kexu bat adierazteko tentazioari eutsi: «Heldu den aldian, diotenaz, erabaki handiak hartuko dituzte. Alabainan ordu litake, elheak elhe utzirik, lanak ere norapait ager ditezen : gauden beha» (*Herria* 1952-07-03).

Luis Michelena

Luis Michelena Elissalt (1915-1987) Gipuzkoako Errenterian jaio zen. Martín Lecuona elizgizonaren eskutik, gazte langile katolikoen taldeetan parte hartu zuen. 1934an izena eman zuen EAJ-PNVn eta ELA-STV sindikatuan. Errepublikako armadaren teniente gisa, Santoñan atxilotu egin zuten 1937ko abuztuan. Heriotza zigorra, lehenengo, eta hogeita hamar urteko presoaldia, ondoren, ezarri zizkioten. Zigorra hamalau urtera mugatu ondoren, azkenean 1943an presondegitik irten eta Madrilen hasi zen lanean altzari enpresa batean. Besteak beste, R. Piñeiro galegistarekin batera, 1946an berriz atxilotu zuten indar antifrankisten koordinazio lanetan aritzeagatik, eta beste bi urtez egon zen preso, 1948ko apirilera arte. Ondoren, urdailetik betirako makalduta, Gipuzkoara itzuli eta J. Ajuriaguerraren idazkari lanetan aritu zen ezkutuan, baina 1951ko udaberriko greba orokorraren ondorioz barnealdeko EBBren burua erbesteratu ondoren, kulturgintza posibilistan murgildu zen, EAJ-PNVren Gerra Hotzeko ikuspegiarekin bat etorriz (Coromines & al. 1997; Ibarzabal 2001; Urkizu 2004).

J. Vallejo latin katedradunak adierazi omen zien, 1949ko irailean RSVAPen «Seminario de Lenguas Prerromanas» delakoan bildutako zenbaiti, L. Michelena Espainiako linguista handienetakoa izango zela (Agud Querol 1988). Madrilgo Unibertsitate Zentralean filologia klasikoko lizentzia 1948-1949 ikasturtean bere kabuz hasi eta 1951ko urriaren 19n amaitu zuen, sari bereziarekin.

---

[870] ABA-EUS: N. Oleagaren ofizioak L. Michelena, J. Moulier, E. Erquiaga eta S. Michelenari, 1952-06-27.

[871] Argentinako aldizkariak batzarra abuztuan izan zela adierazi zuen (IAEV 1952d).

IKER-35.indd 335 2/9/19 10:56

Irudia 16. **Ezezaguna, Luis Michelena, Pilar Garde, Marcelino Garde, Pilar Sansinenea eta Juan José Beloqui (Uztarrotze, 1952-09-29)**

© argazkiarena: Koldo Mitxelena Kulturunea (Koldo Mitxelena funtsa).

Donostiako 1950eko «Congreso Internacional de Estudios Pirenaicos»en ezagutu zituen R. Lafon edota A. Tovar. Euskal filologia eskolaren sortzaile izan zena, unibertsitate lizentziarik gabe hasi zen artikuluak argitaratzen CSICeko *Emerita*n edota RSVAPen aldizkarian. Hizkuntza italiko, zeltiko eta germanikoetan sakondu zuen, hizkuntza paleohispanikoen eta, konparazioz, euskararen historia egin ahal izateko.[872] Baldintza ekonomiko zailetan, 1949ko uztailean ezkondu zen Matilde Martínez de Ilárduyarekin eta bi seme-alaba izan zituzten. Aurrekari penalen zamarekin, 1951tik aurrera Eusebio Fuertesen Irungo akademia pribatuan askotariko eskolak eman zituen.

RSVAPeko kultur gizon frankistek emandako laguntzari esker, 1950eko abendurako *BRSVAP*en erredakzioan probak zuzentzen ari zen.[873] RSVAPen

[872] CCG-RP: L. Michelenaren gutuna R. Piñeirori, 1951-05-03.

[873] Koldo Mitxelena Kulturunea, Koldo Mitxelena funtsa: L. Michelenaren gutuna J. Garateri, 1950-12-21.

IKER-35.indd 336 2/9/19 10:56

aldizkariko linguistika sailaren mailak poliki-poliki gora egin zuen, eta 1951ko udazkenean *Apellidos vasco*s (1953b) bilakatuko zen liburua idaztea agindu zioten. Urte bereko abenduan, Madrilgo CSICen egindako bileran eskaini zion A. Tovarrek Salamancan irakasle laguntzaile izatea, baina artean nahiago zuen Donostian institutu katedra lortzen saiatu.[874] Lizentziako sari berezia eskuratu ondoren, RSVAPen 1951ko abenduaren 9ko batzarrean, zorionak ematea erabakitzeaz gain, M. Ciriquiainek proposatu zuen L. Michelena formalki izendatzea *BRSVAP*en erredakzioko idazkari, hilean 250 pezetako lansariarekin, eta batzarrak aho batez onartu zuen.[875] Hala ere, ardura politikoen zamaren erakusgarri, ez zuten aldizkariaren erredakzio batzordeko kide izendatu 1956ra arte.[876] F. Arocena GPDko artxibozainaren bidez, *Egan* literatura aldizkariaren erredakzioan ere gero eta esku gehiago hartzen joan zen.[877]

Manuel Aguden bidez, 1950-1951 ikasturtetik aurrera euskara eskolak eman zituen Centro Cultural Guipuzcoano-n, eta Donostiako ateneoa atlas linguistikoaren proiektuan inplikatzen saiatu zen.[878] Besteak beste, L. Michelenak 1952ko irailean landa lanak egin zituen, Grupo de Ciencias «Aranzadi»ko kideekin eta M. Garde Uztarrozeko koadjuntorearekin, desagertzen ari zen Nafarroako erronkariera jasotzeko, eta emaitzak *BRSVAP*en argitaratu zituzten.[879] CSICeko agintariek nolabait L. Michelenaren esku utzi nahi zuten atlas linguistikoaren ardura, baina berak ez zuen eremu ikerketarako joerarik, baizik eta datu eskuragarriak «bulegoan» sistematizatu eta teorizatzekoa, euskal fonetika historikoaz 1954-1955 ikasturtean abiatu zuen tesian erakutsiko zuenez.[880]

---

[874] CCG-RP: L. Michelenaren gutunak R. Piñeirori, 1951-10-23, 1951-10-26 & 1951-12-22.

[875] KMK: RSVAPeko buruaren ofizioa L. Michelenari, 1951-12-14.

[876] KMK: RSVAPeko buruaren ofizioa L. Michelenari, 1956-01-14. Batzordeko beste kideak hauek ziren: J. Yrizar, F. Arocena, J. L. Banús, J. Berruezo, M. Ciriquiain eta G. Manso de Zúñiga.

[877] ABA-AIB: A. M. Labayenen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1952-03-06.

[878] Egin behar izan zituen askotariko zereginen artean, J. Bilbao Kuban izan zenean 1950-1954 artean, *Eusko Bibliographia*ren egitasmoaz ere arduratu zen (Euskaltzaindiaren Artxiboa, Odon Apraiz funtsa: L. Michelenaren gutuna O. Apraizi, 1951-10-31).

[879] Antza denez, 1952ko udan A. M. Labayen urgazleak bi lagun entzun zituen euskaraz hizketan Uztarrotzen, eta berehala horren berri eman zuen. M. Garde Iruñeko *El Pensamiento Navarro*n bezala, J. Arteche ere erronkarieraren egoera agonikoaz aritu zen Donostiako egunkarian (*La Voz de España* 1953-11-25; Urkizu 2004: 36-37; Michelena 2011a: 572, 609-610).

[880] CCG-RP: L. Michelenaren gutuna R. Piñeirori, 1955-09-20.

IKER-35.indd 337 2/9/19 10:56

Euskaltzaindiari dagokionez, A. Irigarayk proposatu zuen L. Michelena urgazletarako eta 1951ko otsailean egin zuen lehen aldiz bisita Akademiaren Bilboko egoitzara. Ribera kaleko bibliotekan hainbat idazlan eskuratu ahal izan zituen.[881] Akademiaren artxiboan ez dago euskaltzain hautagaitzarako proposamen formalik, baina M. Lecuona eta A. Irigaray beraren alde zeuden (Villasante 1987: 189; Satrustegi 1997: 328).[882] Dena dela, uste izatekoa da Gipuzkoako euskaltzainek eta probintziako zenbait agintari frankistek izendapena babestu zutela, L. Michelenak ohi ez bezalako gaitasuna erakusten zuelako: «nuestro inteligentísimo Michelena», B. Echegarayren hitzetan.[883]

L. Michelenak berak, artean 37 urte betetzear zegoen gizon gazteak, kargua zuhurtziaz hartu zuen, klandestinitateko lan politikoagoa alboratu ondoren, R. Piñeiro adiskideari esan zionez: «te diré que me han elegido para la Academia, en lugar, si así puede decirse, del difunto D. Resurrección. No es que me sienta muy orgulloso de ello, porque me falta toda posibilidad de justificar el nombramiento con la obra ya realizada, pero pienso que quizá podré ser más útil dentro que fuera».[884] Hain zuzen, J. Arteche RSVAPeko kideak Donostiako egunkarian euskaltzain berriari gorazarre egin eta Errenteriako Udalari eskatu zion sarrera ekitaldia antolatzeko, baina L. Villasanterenak eragindako traumaren ondoren, Euskaltzaindiaren historian berebiziko arrastoa utzi zuen L. Michelenak ez zuen sarrera hitzaldirik egin 1961 arte (*La Voz de España* 1953-05-09; 1953-07-09).[885]

---

[881] F. Krutwigek, orobat, K. Boudaren «Die tibetisch-kaukasische Sprachwissenschaft» (1950) artikulua eraman zion Akademiak otsailaren 23an Donostian egin zuen batzarrera (Koldo Mitxelena Kulturunea, Koldo Mitxelena funtsa: F. Krutwigen gutuna L. Michelenari, 1951-02-26).

[882] F. Krutwigen memoria interesatuaren arabera: «Tan sólo recuerdo que cierta vez Ángel de Irigaray nos vino diciendo, quizá hacia 1952, que en San Sebastián había un joven estudioso que prometía mucho. Lo que ya no sé si nos dijo que había salido ya de la cárcel o que seguía en ella y allí estudiaba, pero lo que sí recuerdo bien es que dijo que era considerado por la gente del PNV algo así como un rojillo, de suerte que por esta condición el PNV había renegado —o casi renegado— de aquel rojillo» (Krutwig 1991: 94).

[883] apud ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna L. Michelenari, 1956-02-08.

[884] CCG-RP: L. Michelenaren gutuna R. Piñeirori, 1952-08-02.

[885] «Euskal-iztegigilleak XVII-XVIII'garren mendeetan» izeneko sarrera hitzaldia eman zuen Errenteriako udaletxean 1961eko urtarrilaren 22an. Agian sarrera hitzaldi antzekotzat jo liteke *Renteria* aldizkarian (1952-07-22) argitaratu zuen «Los renterianos y la literatura en lengua vasca» artikulua ere (Michelena 2011d: 505-522; 2011f: 537-544).

IKER-35.indd 338 2/9/19 10:56

Jules Moulier

Jules Moulier «Oxobi» (1888-1958) Bidarrain (Pirinio Behereak) jaio zen. Arrangoitzeko erretoreak hirurogeita lau urte zituen euskaltzain izendatu zutenean. J. Saint-Pierre eta L. Dassanceren belaunaldikoa zenez, ez da harritzekoa Frantziako euskaltzainek Baionako euskal aldizkarietako lankidearen alde egin izana. Idazle gisa, poesian eta alegietan nabarmentzen zen. Euskal elizgizonen artean ezohikoa zen, Lehen Mundu Gerran parte hartu arren, hasieratik izan baitzen J. Ybarnegaray diputatu eskuindarraren aurkakoa. P. Lafitteren mugimendu erregionalista eta *Herria* astekaria lagundu zituen (Charritton 1990; Larronde 1994: 43; Murua Uria 1997, Bidegain 2013). *Gure Herria*ren 1938ko zenbakian, gerra zibil betean, bere jarrera ustez apolitikoa azaldu behar izan zuen:

> Eskualzaleen Biltzarrak ez du politika deitzen duten saltsatik jastatu ere nahi... Ez gira, erdaldun eta, entzuna dutanaz, eskualdun zenbeitek girela derasatena: Autonomistes-Separatistes. Hein batean, gure chokhoan bekhaitzgorik gabe, Gureak Gure nahi ditugu, bertzerik ez (apud Hernández Mata 2007: 74).

J. Moulier «Oxobi»k ez zuen 1920ko araudiak ezarritako sarrera hitzaldirik egin. 1930 ingurutik urgazle izan arren, Euskaltzaindiaren zeregin akademikoetatik urrun zegoen, hartzaile bakar Baionako elizbarrutiko irakurle arruntak baitzituen.[886] P. Lafittek, 1949ko irailean euskaltzain izendatua izan ondoren, *Herria* astekaria itxuraz eta edukiz berritu zuenean, J. Moulierrek haren anbizio intelektualari iseka egin zion: «Il ne faut pas se placer devant le miroir du *Monde*, du *Sud-Ouest*, ou de *l'Humanité*, ou de l'Académie Basque mais devant le lecteur moyen de la Basse Navarre et du Labourd».[887]

Urgazleak eta baztertutako hautagaiak

F. Krutwigek maiatzean aurkeztutako dosierrean Lino Aquesolo karmeldarra ere proposatu zuen urgazletarako, baina hautagai hori kanpoan geratu zen. Bizkaiko Lekeition jaiotako Eusebio Erquiaga (1912-1993) urgazle berriak Banco de Vizcaya-n lan egiten zuen eta, besteak beste, 1937ko urtarri-

[886] J. Moulier-en urgazle izendapenaren arrastorik ez dago, ez aktetan, ezta artxiboko jakinarazpenetan ere. Aitzitik, 1930eko *Euskera*n argitaratutako urgazleen zerrendan ageri da, agian akats baten ondorioz (Euskaltzaindia 1930b).

[887] ABA-LAF: P. Lafitte eta J. Moulierren arteko gutunak, [1949-12-15].

IKER-35.indd 339 2/9/19 10:56

letik ekainera, EAJ-PNVren *Eguna* egunkariko erredaktore izan zen, baina 1950eko hamarkadaren hasieran F. Krutwigek bereganatuta ageri zen, hura baino ia hamar urte zaharragoa izanagatik (Mielgo Merino 1995; Erkiaga 2001; 2002). Uste osoko abertzalea zen beste urgazle berria ere: Gipuzkoako Zarautzen jaiotako Salvador Michelena (1919-1965). Frantziskotarren gerraondoko euskal sermoigile eta idazle nagusiak 1949ko *Arantzazu* liburu suspertzailearen ondoren argitaratu zituen 1951ko *Ama-semeak Arantzazuko kondairan* eta 1952ko *Ogei kanta Arantzazuko*. Ezinegonak 1954an eraman zuen Donostiako komentua utzi eta Ameriketara alde egitera (Mitxelena 1977-1984). Bilboko talde literarioarekin zerikusirik ez zuen, baina ikusi dugunez, M. Lecuonak ere frantziskotar hautagaiaren alde egin zuen maiatzeko batzarrean. Garaiko arazoen erakusgarri, E. Erquiagak ez zuen erantzun 1953ko otsailera arte.[888] L. Villasanteri adierazi zionez, berandu iritsi zitzaion Akademiaren jakinarazpena.[889]

Jean Diharce «Iratzeder» (1920-2008) beneditarra Donibane Lohizunen (Pirinio Behereak) jaio zen. J. Saint-Pierre apezpikuaren aulkia betetzeko beste hautagaia, lapurteraduna ez ezik, 32 urteko gaztea ere bazen, F. Krutwig eta L.Villasanteren belaunaldikoa. Belokeko monasterioa Mundu Gerrako erresistentzia-gune eta gerra zibileko erbesteratuen laguntzaile izan zen, eta horrek, agian, barnealdeko Euskaltzaindian ezinegona eragiten zuen. Era berean, Beloken euskararen alde ari ziren lanean, Arantzazuko santutegiaren antzera. Ezkila argitaletxearen bidez euskal liturgiari edota «Loi Deixonne»k irekitako bideari ekarpen garrantzitsuak egin zizkieten. Testuinguru horretan kokatu ziren G. Lerchundiren *Kantikak* (1948) edota J. B. Harymbat eta B. Pons-en *Méthode basque pour debutants* (1951), azken hori Bordeleko Unibertsitateko katedran ere erabiltzen zena.[890] 1954tik aurrera *Othoizlari* aldizkaria ere argitaratu zuten (Charritton 1994; Diharce 1997).

F. Krutwigek maiatzeko dosierrean R. M. Azkueren aulkirako P. Múgicaren alde egin izana, L. Michelena bezalako lehiakide akademiko indartsu bati jarritako eragozpena ere izan zitekeen.[891] Plácido Múgica Berrondo (1906-1982) jesuita Gipuzkoako Urnietan jaio zen eta, *RIEV*en lankide ohia izateaz gain, M. Lecuonak maiatzean adierazi zuenez, gaztelania-euskara hiztegi han-

[888] ABA-EUS: E. Erquiagaren gutuna Euskaltzaindiari, 1953-02-10.

[889] ABA-EUS: E. Erquiagaren gutuna L. Villasanteri, 1953-04-02.

[890] SAF-AA: Barnealde eta erbesteko EBBen arteko komunikazioa, 1951-12-15, PNV_NAC_EBB, K.00300, C.11.

[891] ABA-EUS: F. Krutwigen dosierra Akademia berriztatzeaz, [1952-05-09].

IKER-35.indd 340 2/9/19 10:56

dirako 200.000 fitxa bilduta zituen.[892] Loiolako santutegiko irakasleak, Akademiaren lexikografiarekin ez lehiatzearren, hasieran aszetika hiztegia egin nahi izan zuen, R. Olabidek (SI) egindako Bibliaren itzulpenetik abiatuz. Baina R. M. Azkue hil ondoren hiztegi orokorra egitera ausartu zen, garai hartan argitaratutako corpus nagusiez lagunduta: hiztegiak (R. M. Azkue, P. Lhande eta I. López Mendizábal), itzulpenak (R. Olabide, N. Ormaechea) edota gramatikak (R. M. Azkue).[893]

1952ko Gabonetan N. Oleagarekin bildu ondoren, R. M. Azkueren *Diccionario español y vasco* (1916a) bukatu gabearen lehen bi liburukiak eskuratu zituen.[894] Bilboko idazkariak, halaber, R. M. Azkueren beste gaztelania-euskara hiztegi bat utzi zion, amaitu gabea, liburuki bakarrez osatua (cf. Akesolo 1989: 47).[895] Helburua, M. Larramendik (SI) XVIII. mendean abiatutako bidetik, RAEren hiztegi arruntaren (1947koa zen hamazazpigarren edizioa) sarrera guztiei euskal ordainak ematea zen. Lan nekeza izan zen, eta 1958an ordenako agintariek liberatu egin zuten hiztegia bukatu ahal izateko. Euskaltzaindiaren gaztelania-euskara corpusak ere partez erabili zituen. Jesuitek argitaratu zuten *Diccionario castellano-vasco* (1965) handia, L. Michelenak ezarritako Akademiaren lexikografia normatiboaren baldintzak ase ezin arren, 1987 arte lau edizio izan zituena (*La Gaceta del Norte* 1958-10-18; Múgica Berrondo 1987: 5-14; Sarasola 2006: 906-911; Alvarez: 2011: 21-23).

5.6. **EUSKALTZAINDIAREN ERRESILIENTZIA**

Euskaltzainburuordearen eskaerari jarraituta, azaroaren 27an GPDko jauregian bildu ziren euskaltzain hauek: I. M. Echaide, A. Irigaray, L. Villasante, N. Oleaga eta A. M. Labayen urgazlea. B. Echegaray eta R. Lafonen ezin etorria adierazi zen. B. Echegarayk, berriz ere, Auzitegi Goreneko idazkaritza lanagatik Madrilen geratu behar izan zuen. Galiziako jargoietako euskal hitzak ikertzen jarraitzen

[892] ABA-EUS: M. Lecuonaren idazkia Euskaltzaindiari, [1952-05-09].

[893] Koldo Mitxelena Kulturunea, Koldo Mitxelena funtsa: P. Múgicaren gutuna L. Michelenari, 1953-11-17. Data horretan 250.000 fitxa inguru zituen bilduta.

[894] Hirugarrena Loiolako santutegian zuten, eta azken bi liburukiak GPDko J. Urquijoren bibliotekan eskuratu zituen (ABA-EUS: P. Múgicaren gutunak N. Oleagari eta G. Maidagani, 1953-03-14).

[895] ABA-EUS: N. Oleaga eta P. Múgicaren arteko gutunak, 1953-03-24 & 1953-03-27. «A» letrako hitzak jasotzen dituen R. M. Azkueren *Diccionario español-vasco = Dictionnaire espagnol-basque* (circa 1916b) bide da, zati soltetan Euskaltzaindiaren bibliotekan eta J. Urquijoren bilduman gordetzen dena (KMK-JU).

IKER-35.indd 341 2/9/19 10:56

zuen, eta euskaltzainburu kargurako I. M. Echaideren aldeko botoa eman nahi zuen.[896] R. Lafonek ere ezin izan zuen etorri, Bordeleko Unibertsitatean eskolak ematen zituelako. Postaz bere bi idazlan bidali zituen Akademiara: *Word* aldizkari ospetsuan argitaratutako «Concordances morphologiques entre le basque et les langues caucasiques» (1951-1952) eta *BRSVAP*en argitaratzen ari zen B. Decheparen frantsesezko itzulpen-edizio kritikoa, G. Guillaumie-Reicher-ekin Mundu Gerran egindako saioa berreskuratzen zuena. Gauza bera egin zuen A. Oihenarten poemekin 1955eko *BRSVAP*en (Lafon 1999: 759-794; 819-860).[897]

Nazioarteko artikuluek ikusgarritasuna ematen zioten euskarari eta euskaltzainburuordeak, esker onez, AEBko aldizkarian argitaratutako artikuluaren iruzkin luzea egin zuen *BRSVAP*en, harreman genetikoak guztiz baieztatu gabe, R. Lafonen gaitasuna goratuta. J. Urquijo hil ondoren, hasieran I. M. Echaide saiatu zen RSVAPen agerkarian linguistika arloko zentsore lana egiten, haren maila erdietsi gabe (Echaide 1952; 1953). Gainera, idazlan horiek nazioarteko akademikoen harreman sareari nolabait eusteko balio izan zuten: R. Lafon, H. Gavel edota Txileko D. de Inza.[898] Buruordearen separatak izan ziren, hain zuzen, D. de Inzari (OFMCap) Euskal Herritik iritsi zitzaizkion euskararen inguruko lehen berriak.[899]

Kasu honetan akta ofiziala gordetzen da, soilik euskaraz egina, eta horren arabera, euskaltzainburuordeak esan bezala F. Krutwigen auzia epaituta egon arren, JCVrekiko arazoak konpondu gabe jarraitzen zuen, nahiz eta Akademiako idazkaria JCVko buruarekin harremanetan egon: «Oleaga jaunak azaltzen dauz lenaurreko batzarrean artu zan Krutwig jaunaren gaizko erabagia beterik Bizkai'ko Junta de Cultura'ren lendakariagaz erabili dabezan autuen gora-berak. Onetsiak izan dira ete bar[r]iro ezartzen dako arazo oneri ekin dagiola. Euskaltzaindiaren onerako elburua lortu arte» (Euskaltzaindia 1982: 25).

Euskaltzaindiaren akta nahiko iluna izan arren, JCVren akta liburuari esker jakin dezakegu argiago zein zen bi erakundeon arteko tirabira. Euskaltzaindiaren ekitaldi publikoan sortutako arazoa Bizkaiko gobernadore zibilaren eskuetan utzi zuenetik ekainaren hasieran, JCVk ez zuen arazoa hizpide izan, akten arabera. CSICek urteko diru laguntza 3.000 pezetatan handituko

[896] ABA-EUS: B. Echegarayren gutuna N. Oleagari, 1952-11-25.

[897] ABA-EUS: R. Lafonen gutuna N. Oleagari, 1952-11-24. Bordeleko irakasleak egindako lanaren kalitatearen erakusgarri, berak egindako frantses itzulpenak behin eta berriz berrargitaratu dira gaur arte.

[898] ABA-EUS: H. Gavelen gutunak I. M. Echaideri, [1952?] & 1953-06-17.

[899] ABA-EUS: D. de Inzaren gutuna I. M. Echaideri, 1953-08-24.

IKER-35.indd 342 2/9/19 10:56

zuela (18.000 pta.) adierazi eta J. Irigoyenek Zumetxaga ermitan eta Ondarroako elizan zaharberritze lanak proposatu ondoren, Akademiarekiko harremanaren egoera azaldu zuten:

> El Sr. Presidente informa ampliamente a los Sres. Vocales de lo ocurrido con motivo del lamentable incidente a que dio lugar la intervención del Sr. Kru[t]wig en una reunión de la Academia de la Lengua Vasca celebrada en los locales de la Junta, y de como a pesar de haber acordado la directiva de dicha Academia en el mes de Julio dar una explicación a esta Junta, que neutralizase el desagradable efecto que causó la intervención del Sr. Kru[t]wig, dicha explicación no ha llegado, habiendo expuesto personalmente el Sr. Oleaga al informante que no creía procedente dar dicha explicación mientras estuviese pendiente de acuerdo el seguir concediendo a la Academia la subvención que le otorgaba la Junta, por si se interpretaba dicha gestión de la Directiva de la Academia, cerca de la Junta de Cultura, como una humillación mendigante para obtener dicha subvención.
>
> Los reunidos coincidieron con el Sr. Presidente con que el efecto que a todos hacía esta suspicacia del Sr. Oleaga, era contraproducente y por lo tanto continuaría en suspenso el acuerdo de otorgamiento de la subvención en espera de la explicación acordada por la Academia en el mes de Julio, y que no se ha dado todavía.[900]

Horri esker dakigu Euskaltzaindiak erabaki zuela F. Krutwigen hitzaldiaren inguruko azalpenik ez ematea, JCVk 1951ko bukaeratik etenda zuen diru laguntza eman arte. Bestalde, nabari da N. Oleaga idazkariaren jarrera adoretsua, R. M. Azkue zenaren laguntzarik gabe eta I. M. Echaidek Bizkaian zuen eragin ezarekin, berak hartu behar baitzuen erantzukizun guztia BPD eta JCVko agintarien aurrean. Seguru asko gorabehera horiekin lotuta, Euskaltzaindiaren egoitza hondatua konpontzeko ardura eman zitzaion idazkariari azaroko batzarrean, akta zirriborroaren arabera.[901]

Ikusi dugunez, ekainaren 27ko batzarrean, Akademiak F. Krutwigen hitzaldia gaitzesteko erabakia hartu zuela dirudi, baina ez dago argi nolako adostasunarekin. J. M. Seminario bertan izan zen eta uste izatekoa da JCV eta Gobernu Zibilari jakinarazi ziela estraofizialki bertan eztabaidatutakoa. Euskaltzainburuordea, ordea, ez zen bertan egon, eta hitzaldia aztertu ondoren,

---

[900] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1952-12-01, Junta de Cultura C-62. Batzar horretan hauek bildu ziren: J. M. Ruiz Salas, J. B. Merino, J. Irigoyen, H. Bilbao, A. Bilbao, F. Ygartua, N. Zorrilla, C. Lasterra, B. Bureba eta E. Calle. Idazkariak aktako zerrendan bi aldiz aipatu zuen Antonio Bilbao, eta uste dut Hilario Bilbaorekin nahastu zuela horietako batean.

[901] ABA-EUS: N. Oleagaren akta zirriborroa, 1952-11-27.

IKER-35.indd 343 2/9/19 10:56

damutzeko aukera eman nahi izan zion F. Krutwigi. Uztailean, L. Villasantek bere burua eskaini zuen Frantzian harekin bildu eta buruordearen mezua helarazteko. Horregatik, ekaineko akta zirriborroak aipatzen zuen uztailaren 29ko batzarrik ez zen egin eta JCVri ez zitzaion azalpen ofizialik eman, ihes egindako euskaltzainaren berri jakin arte.[902]

F. Krutwigek, ordea, eskaintzari uko egin zion eta ez zuen atzera egin nahi izan. Irailean bere aurkako errekisitoria argitaratu ondoren, auziari ihes egiteagatik epaituta omen zegoen. BPDko presidenteak zor zitzaion azalpena ahoz eskatu zionean Bilboko idazkariari, honek Akademiaren duintasunaren aurkakotzat jo zuen azalpenen bat ematea JCVk diru laguntzak etenda zituen bitartean. Akademiaren azaroko batzarrak babestu egin zuen N. Oleagaren jarrera. Bestalde, akta ofizialak ez esan arren, L. Villasanteren bidez iritsitako S. Altuberen mezua ere eztabaidatu zen, baina Akademia politikoki ezbaian jartzen zuelako ez zen ofizialki aipatu.[903] Hain zuzen, EJ-GEren berripapereko euskal orriaren ardura zuen A. Ibinagabeitiak, urriko zenbakian F. Krutwigen auzia aipatu ondoren, istilu hura euskaltzainen aurka egiteko baliatu zuen:

> Ez dira pozgarriak, ez orixe, Euskaltzaindia dala-ta Bilbaotik datozkigun berriak. Azkue jauna il ezkero, ez omen dago Euskal-Akademian autsa, zitza ta alperkeria baizik. Negargarria omen Ribera kaleko etxearen itxura. Zertan zerate euskalzainok? Ez da aski Akademiku tituluaren jabe izatea: titulu orren jabe danak euskal arloan lan egin bear du eta beste euskaldun guziak baino gogozago. Edota zuen izenak «de l'Academie Basque» esakuntxoaz apaintzeko baizik ez ote zerate Euskalzaindiratu? Beude apainkeriak eta betoz langileak. Ori, ori bear dugu. Ai berrogei urte lenagoko Azkue sortuko ba'litz! Ederki akulatuko zinduzkee. Bai orixe (*Euzko Deya* 1952-11-01).[904]

Nolabait F. Krutwigen lekukoa hartuta, L. Villasantek batzarreko dosier nagusia aurkeztu zuen: «Euskal-liburu sorta argitaratzeko era edo bideaz Euskaltzaindiari». Lanak ekainaren 27ko data darama eta uste izatekoa da egun horretako batzarrerako prest zegoela, baina, F. Krutwigen arazoak hartu zuen garrantzia ikusita, geroratu egin zuela aurkezpena. Donostiako *La Voz de España*k ekainaren 19ko artikuluan Euskaltzaindia hiltzat jo izanak eragindako dosierra zen. Akademiak, bizi zela frogatzeko, nahitaezkoa zuen idazlanak argitaratu eta banatzea. *Euskera* agerkaria berriz plazaratzea ordura arte

[902] ABA-EUS: N. Oleagaren akta zirriborroa, 1952-07-29.

[903] ABA-EUS: N. Oleagaren akta zirriborroa, 1952-07-29.

[904] 1952ko urrian hartu zuen A. Ibinagabeitiak *Euzko Deya*ren euskal orriaren zuzendaritza (Iztueta & Diaz 2007b: 332)

IKER-35.indd 344 2/9/19 10:56

ezinezkoa izan zenez, liburu bilduma bat argitaratzea proposatu zuen. Horrek zituen eragozpen ekonomiko-juridikoak argitzeko, J. M. Gogeascoechea editorearekin harremanetan zegoen. Bilboko Desclée De Brouwer argitaletxearen sortzailearekin hitz egin ondoren, hauek ziren proposamenaren urratsak:

1. Euskaltzaindiaren egoera juridikoa argitu behar zen nahitaez. Horretarako Akademiaren ordezkariek Espainiako Gobernura jo behar zuten gestioak egiteko. Aldi berean, Euskaltzaindiaren argitalpen programa bat zehaztu behar zen Madrilen aurkezteko. Bistan dago BPD eta JCVrekiko lotura hondatua saihestu eta zuzenean ministerioekin hitz egiteko asmoa.
2. Argitalpen programa bat zehaztu: klasikoen edizioak, euskaltzainen nahiz bestelako egileen idazlan berriak, literatura, ikerketa, didaktika, dibulgazioa, etab.
3. Bilboko egoitzan bulego bat antolatu, argitalpen programa hori aurrera eraman eta iragarki eta harpidedunez ardura zedin. Gerora bulego berriak zabal zitezkeen gainerako hirietan.
4. Oinarri ekonomikoa harpidetza sistema baten bidez ziurtatu. 1.000 harpidedun inguru behar ziren (25 pta/hiruhileko) urtean lau liburu argitaratzeko.
5. Liburuak saltzeko, banaketa zirkuitu bat antolatu, liburu denda eta saltzaileen bidez.[905]

Agiri ofizialean ez agertu arren, idazkariaren zirriborroaren arabera, frantziskotarraren dosierreko lehen puntuaren ardura I. M. Echaide eta A. Irigarayren esku utzi zuten. Une horretan BPDrekiko harremana erretzat jotzen zen, eta Donostiako ordezkarien ardura izan zen gestioak egitea, seguru asko GPD eta RSVAPen bidez, izan ere Gipuzkoan aldaketak gertatzen ari ziren, berehala ikusiko dugunez. Frantziskotarraren dosierrak liburu bilduma hizpide izan arren, proiektua Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala berreskuratzera bideratu zuten berehala. A. M. Labayen urgazlearen familia «Gráficas Laborde y Labayen» enpresaren jabe zen Tolosan (Labayen 1947: 180). Berak idatzi zion abenduaren hasieran L. Villasanteri, *Euskera* agerkari berrituaren gorabeherak zehazteko. Frantziskotarrak agerkariaren lehen aroko aurkibidea osatu behar zuen, zenbaki berriko lan nagusia izango zena. Tolosako jeltzalearen ustez, honela banatu behar zen zenbaki berriko edukia:

[905] ABA-EUS: L. Villasanteren «Euskal-liburu sorta argitaratzeko era edo bideaz Euskaltzaindiari», 1952-06-27.

IKER-35.indd 345 2/9/19 10:56

1. «Ekin eta Jarrai (asierako artikulutxoa)»
2. «Gora-Berak. Ildako euskaltzainen ilberri eta nekrologi laburra»»
3. «Euskaltzain berrien izendabizen»
4. «Euskera lanen arkibidea (1920-1936)»
5. «Etorkizunerako gure asmoak»[906]

Akademiaren hurrengo batzarrerako gaiak gertu izan nahi zituen, euskaltzainek ontzat eman eta aurrera egiteko. Gehiegizko optimismoarekin, uste zuen agintari frankistek ez zutela eragozpenik jarriko, besteak beste, Frantziako euskaltzainek argitaratzearekin mehatxu egin zezaketelako. 40-48 orrialdeko liburuki xume bat izango zenez, arazoa ez zen ekonomikoa izango, baizik eta euskaltzainen borondate falta edo alferkeria. A. Irigaray eta L. Michelena bat zetozen egitasmoarekin eta «gazteen» parte hartzea ere nahi zuten agerkaria antolatu eta 1953ko lehen hiruhilekoan argitaratzeko.[907]

L. Villasante Arantzazuko bibliotekan ari zen osatzen *Euskera* agerkariaren lehen aroko aurkibidea, eta laguntza eskatu zion A. M. Labayeni zenbait xehetasun argitzeko.[908] Oñatiko santutegian giro bizia zegoen, basilika berria eraikitzeko lanetan ari zirelako.[909] N. Echániz apaizak, frantziskotarren giro euskaltzale hori baliatuz, *Aránzazu* aldizkariaren 1952ko udaberriko zenbakian santutegian euskal idazleen biltzar bat antolatzea eskatu zuen:

> Baña Euskera gure bizitzako amesik gozoena degunok, gure alegiñak oso bakan eta alkarregandik etenak darabilzkigu. Onegatik gure lanak indar gutxi dute. Gaitz au sendatzeko, gure lanak batzea, ta lokarri baten ariltzea, bear-bearrekoa zaigu.
>
> ¿Ta nun obeto batasun ori iristeko, Arantzazun baño? Euskalerri biotzean gure aurrekoen sinismenak jasotako jarleku goitia antxe degu. Andik Andre Mariak gure erri au begi onez zaitu ta bedeinkatzen du (Etxaniz 1952a).

---

[906] ABA-EUS: A. M. Labayenen gutuna L. Villasanteri, 1952-12-02.

[907] ABA-EUS: A. M. Labayenen gutuna L. Villasanteri, 1952-12-02.

[908] ABA-EUS: L. Villasanteren gutuna A. M. Labayeni, 1952-12-17. Gutun honetan erabiltzen duen hizkera, gipuzkera eta lapurtera arteko bat, «h» grafemarekin, nire ustez gaur egungo euskara batutik oso gertu dago.

[909] Besteak beste, euskararen aldeko lana Bizkaira ere hedatzen hasi ziren, baina ez lapurtera klasikoz, noski. Bizkaiera erabiltzen hasi ziren, lehenengo *Arantzazuco Andre Mariaren Egutegia*n (1952) eta gero I. Berriatuak (OFM) zuzendutako *Anaitasuna* (1953) gehigarrian (Intxausti 2014a: 190-191, 342-343).

IKER-35.indd 346 2/9/19 10:56

Ondoren, L. Villasantek «La literatura euskérica en la Provincia Franciscana de Cantabria» artikulua argitaratu zuen *Aránzazu* aldizkarian, euskal literaturaren historiarako hasikina.[910] Artikuluarekin batera, euskaltzain gazteari egindako elkarrizketa laburrean, F. Krutwigek sortutako iskanbilarik aipatu gabe, Akademiako sarrera ekitaldian esandakoak aurkeztu zituen, hau da, euskara literarioa lapurtera klasikoaren bidetik sortzeko beharra (Villasante 1952c: 236). N. Echánizen ideiak oihartzuna izan zuen, besteak beste, EJ-GEren agerkarian. Zoritxarrez, proiektu erlijiosoaren abiadurak kolpe latza jaso zuen Pablo Lete (OFM) probintziala aireko istripuan hil zenenean, abenduaren 6an, José Lizarralde (OFM) idazkariarekin batera Kubara bidean zihoanean finantzazio bila.[911] Idazleen biltzarra egiteko baimenik ere ez zen lortu azkenean, New Yorkeko *Time* aldizkariaren Europako edizioan agertutako artikulu batek eragindako istiluagatik.[912] Piero Baporitti Espainiako berriemaileak berri sentsazionalista argitaratu zuen irailaren 22an, aditzera ematen zuena Arantzazuko frantziskotarrak guardia zibilak setiatuta bizi zirela kristau doktrina euskaraz irakasten zutelako eta predikuetan euskal ohiturak hizpide izaten zituztelako. Berriak Frantziako prentsan ere oihartzuna izan zuen. Ondorioz, A. Martín Artajo Kanpo Arazoetako ministroak esplikazioak eskatu zizkien santutegiko agintariei eta *Time*ko kazetariari (*Euzko Deya* 1952-11-01; Álvarez Gila 1992; Iztueta & Diaz 2007b: 294).

Nolanahi den, agerkari ofizialarena funtsezko auzia zen Euskaltzaindiaren jardueraren berri eman eta hartutako erabakiak plazaratzeko. Tresna hori gabe, ezin zitzaion aurre egin askok salatzen zuten Akademiaren gelditasun edo hutsaltasunari. Ikusi dugunez, F. Krutwig, *Gernika*ko arduradunekin hautsi eta gero, saiatu zen *Euzko-Gogoa* erabiltzen Euskaltzaindiaren berriemaile gisa.[913] Nolanahi den, F. Krutwigek hartutako alde bakarreko erabakiak

[910] Lanaren kalitatearen erakusgarri, J. Echaidek euskarara itzuli zuen Guatemalako *Euzko-Gogoa* aldizkarian (Villasante-Kortabitarte 1954b).

[911] ABA-EUS: A. M. Labayenen gutuna L. Villasanteri, 1953-01-02.

[912] ABA-AIB: A. M. Labayenen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1952-12-20.

[913] 1952-1953 artean, Guatemalan argitaratzeko zituzten arazoek luzatuta, F. Krutwigen hainbat poemaz beste, J. M. Seminariori (1949) eta R. Lafoni (1950) emandako erantzun hitzaldiak plazaratu ziren. Era berean, J. M. Seminariorena (1949) ez, baina J. Gorostiagaren sarrera hitzaldia (1951) argitaratzea lortu zuen Guatemalako aldizkarian. L. Villasanteri emandako erantzun hitzaldia (1952) ere bidali zion J. Zaiteguiri, baina honek ez zuen argitaratu, hitzaldian Eliza katolikoari egiten zitzaion kritika gogorregia omen zelako. *Euzko-Gogoa*n jesuiten edota frantziskotarren gerra zibileko jarrera frankista ez ezik, Bilboko elizbarrutiaren euskararekiko axolagabekeria ere nola kritikatu zen ikusita, F. Krutwigen epaiak bidegabea dirudi (cf. Ibinagabeitia 1952a; 1954b; Krutwig 1986: 11-12; Ormaetxea 1991a: 736).

IKER-35.indd 347 2/9/19 10:56

ziren aurrerako ihesaldian zubiak erre ahala. Izan ere, aurreko bi urteetako ohiturari jarraituta, 1952an *BRSVAP* izan zen euskal akademikoen lanak plazaratzeko tresna nagusia.[914]

Baina 1952an urrats berri bat eman zen bide horretan. Ordura arte akademikoek norberaren izenean eta erdaraz argitaratzen zituzten artikuluak *BRSVAP*en, ez akademiko gisa, ezta euskaraz ere.[915] Baina L. Villasanteren sarrera hitzaldia irakurri ondoren, A. Irigarayk Akademiak euskara literarioaren auzia plazaratzeko aukera paregabea ikusi zuen. Ekainaren hasieran gutuna idatzi zion L. Villasanteri. Funtsean bat zetorren hitzaldiko ikuspegiarekin, eta uste zuen idazlan hori mugarria izango zela euskararen historian. Berak N. Ormaecheari hitzez antzeko asmoak adierazi zizkion gerra zibil aurretik, eta, Arantzazuko frantziskotar batena zenez, uste zuen Gipuzkoan harrera ona izango zuela.

Errepublikaren garaitik zuen ametsari helduta, P. Axularren *Guero* berrargitaratzea ezinbesteko ikusten zuen, eredu estilistiko gisa Akademiak gomendatzeko, normatibizazio zorrotzago baten lehen urrats antzera. Gainera ortografia sinplifikatu nahi zuen, kontsonante ondoko «h»rik gabe, batez ere. Aldi berean, halako liburua Euskaltzaindiaren izenean irtenez gero, Akademiak 1920an onartutako sabindar ortografia ere bazter batean utz zezakeen. Horrela, 1951ko apirilean hartutako erabakiaren bidetik —«ŕ», «ĺ», «đ» eta «ť» ez ezik, «rr», «ll», «dd» eta «tt» ere onartzea— urrats gehiago eman ahal ziren (Euskaltzaindia 1982: 19).

Berehala erakutsi nahi izan zien sarrera hitzaldia A. M. Labayen eta L. Michelenari. Egileak nahi izanez gero, A. Irigaray *BRSVAP*en argitaratzen saiatuko zen, idazlaneko errakuntzak zuzendu ondoren. Geolekto bizien arteko norgehiagoka saihesteko, Aro Modernoko literaturaren ezaugarri diakronikoa nabarmendu nahi zuen, P. Axular eta J. Etcheberri klasiko eredugarri gisa aurkeztuz, F. Krutwigek nahi izan zuen bezala, baina malgutasun askoz gehiagorekin. Hortik abiatuta, Akademiak poliki-poliki oinarrizko lexiko arautua (maileguak barne) eta ondoren gramatika arau xumeak eman zitza-

[914] I. M. Echaide, B. Echegaray, R. Lafon, M. Lecuona, L. Villasante, A. Irigaray, L. Michelena, I. López Mendizábal, A. Tovar eta P. Zabalak idatzi zituzten artikuluak edota iruzkinak (cf. Elósegui Irazusta 1970).

[915] Gainera, *BRSVAP*ek ez zuen Akademiaren jardunik aipatzen, Baionan egin zen R. Lafon eta L. Dassanceren sarrera ekitaldiaren salbuespen bakarrarekin. Gipuzkoako gobernadore zibilak aurreko eguneko ekitaldia Donostian debekatu izanak agian bultzatu zituen horretara (cf. RSVAP 1950).

IKER-35.indd 348 2/9/19 10:56

keen. Bilboko E. Erquiaga eta M. Arruzarekin ere harremanetan zegoen, eta F. Krutwigek bultzatutako filosofia tratatuak alde batera utzi eta lan irakurterrazagoak itzultzera jarri nahi zituen: geografia eta historia eskuliburuak edota polizia nobelak, adibidez.[916]

Bistan da A. Irigarayk, sortutako arazo politikoa gorabehera, ez zuela lapurtera literarioaren bidea amaitutzat jotzen, eta F. Krutwigek berak L. Villasanteri sarrera hitzaldia erbestean argitaratzea proposatu baino lehenago, prest zegoela idazlana *BRSVAP*en plazaratzeko, euskararen estandarizazio akademikoaren lehen urrats modura. Are Bilbon umezurtz geratutako Nuevo Ateneo-ren inguruko kideak ere baliatu nahi zituen lapurteraren aldeko giroari eusteko.[917] Bistan dago A. Irigarayk GPD eta RSVAPeko kideekin zuen tratua, eta erbesteko abertzaleek salatzen zuten Akademiaren hutsaltasuna gainditzeko nahia. Frantziskotarraren idazlana problematikoa izan zitekeen, euskara estandarraren auziak hizkuntzaren estatusarekin zuen lotura zuzenagatik, eta euskaraz idatzitako prosa lan jasoa zelako, diktadura frankistan ordura arte baimendutako literatura lanak ez bezala. Hala ere, kontuan hartu behar da BPDko presidenteak G. Riestrari F. Krutwigen hitzaldia salatu zionean, L. Villasanterenaren edukiak ez zuela inolako eragozpenik adierazi ziola.[918]

Horrela, R. Lafonek egindako B. Decheparen itzulpenarekin, P. Zabalaren toponimia lanarekin, A. Tovarren fonologiazko artikuluarekin eta M. Lecuonaren arkeologia ikerketarekin batera, L. Villasanteren «Literatur-euskara laphurrtarr klassikoaren gain eratua»ren lehen zatia argitaratu zen *BRSAVP*en 1952ko lehen zenbakian.[919] Euskaraz idatzitako bakarra izateaz gain, A. Irigarayk egindako aurkezpena zeraman aurrean, gerraondoko Akademiaren lehen argitalpen ofizialtzat jo daitekeena.[920] Kasu honetan, RSVAPen baimenari esker, aldizkarian sail berezi bat abiatzen zen euskaltzainen lanak plazaratzeko «Trabajos de la Academia = Euskaltzaindiaren lanak» goiburua-

[916] ABA-EUS: A. Irigarayren gutuna L. Villasanteri, 1952-06-02.

[917] F. Krutwigek, Frantziara ihes egin zuenetik, seguru asko ez zekien A. Irigarayren asmoen berri, baina hura hil ondoren agerian jarri nahi izan zuen Nafarroako medikuaren jarrera ustez koldarra (cf. Krutwig 1986: 16; 1991: 95).

[918] BFAH-EC: J. M. Ruiz Salasen ofizioa G. Riestrari, 1952-06-09, Junta de Cultura C-40 -01-.

[919] Kontuan hartu behar da *BRSVAP* ere atzerapen handiarekin plazaratzen zela eta L. Villasanteren hitzaldi osoa (bi zatitan) urte amaieran zabaldu zela. *BRSVAP*en 1952ko hirugarren eta azken zenbakia, adibidez, 1953ko otsailean banatu zen (ABA-AIB: A. M. Labayenen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1953-02-24).

[920] Ordura arte, sarrera hitzaldiak norberaren izenean plazaratu ziren askotariko argitalpenetan: I. M. Echaideren 1944ko liburuan, eta *Herria*, *Gernika* edota *Euzko-Gogoa* aldizkarietan.

IKER-35.indd 349 2/9/19 10:56

rekin. A. Irigarayk argi utzi zuen Euskaltzaindiak ez zuela euskara estandarraz erabaki ofizialik, baina Akademiaren itzala baliatuz, bere aspaldiko asmoak agertu zituen aurkezpenean, gipuzkeraren aldekoei eta erbesteko idazleei keinu adeitsuak eginda:

1. La necesidad de iniciar el aprendizaje de un estilo de lengua literaria uniforme, que bien pudiera ser el de Axular, adaptado a actuales exigencias en algún punto.
2. Este estilo o idioma literario se refiere exclusivamente a lo escrito.
3. Este estilo literario no pretende, ni debe ser obstáculo a que se sigan cultivando como hasta ahora los dialectos vascos, y sobre todo el llamado «gipuzkera osotua» (pues uno no puede escribir sino en el euskara que sabe el cual no ha sido extraño a la influencia, de ese lenguaje de los escritores axularianos, desde Lizardi, Ormaechea, Ibinaga, etc. Al propio tiempo que se sigue escribiendo en los dialectos vivos (y si se sigue haciendo con éxito, será señal de que el idioma vive en la calle, problema este que no se debe desdeñar), muy loable parece el intento de dedicarse los que escriben a leer y a aprender en esos escritores olvidados, lamentablemente desconocidos. Sin que haya ninguna incompatibilidad en que un escritor cultive el «gipuzkera» por ej. y a la vez aprenda el estilo de Axular, para escribirlo cuando lo domine.
4. No parece factible el poder infundir el estilo de Axular a los escritores, por arte de unas reglas y una gramática. Parece muy difícil escribir en el estilo que lo hace el Padre Villasante, y sin duda este escritor ha pasado muchas veladas leyendo a esos autores; y aun así otros no logran servir al lector el manjar bien condimentado. ¿No será mejor, pues, que mientras lo lleguen a dominar, escriban en el estilo que saben?
5. Lo primero que es preciso, pues, es tirar algunas copias del Guero sin correcciones claro está, aunque en grafía actual. Y lo mismo respecto a trozos selectos, cuando menos, de otros autores Axularianos.
6. Después sería conveniente acordar unas normas entre lexicógrafos, respecto a la forma de adaptación en el diccionario vasco de esas voces cultas greco-latinas, de los sufijos de derivación, etc, elaborando un pequeño lexicón, restringido a las voces que usa el vulgo letrado (dejando de lado las voces especializadas) y oyendo el consejo de lexicógrafos vasco-franceses igualmente (Yrigaray 1952: 88).

Erantzun hitzaldiarekin sortutako arazo politikoaren ondoan, estandar literarioaren gaia asimilagarriagoa zen, besteak beste, abertzaleen joera garbizaleen aurka egiten zelako. Sarrera hitzaldia *BRSVAP*en argitaratuta, halaber, erbesteko zentsura salaketei aurre egiten zioten barnealdeko kultura gizon frankistek. Euskaltzainburuordea bera ez zen L. Villasanteren

IKER-35.indd 350 2/9/19 10:56

maiatzeko sarrera ekitaldian egon, gaixorik zegoelako, baina *BRSVAP*ek irail inguruan argitaratu zuenean, frantziskotarrari idatzi zion zorionak emateko:

> Ederra baita. Euskera jatorra, garbiya ta errexa; aixago erakurtzen dira, benetan, neologismo gutxi dituzten idazkiak. Itz grekak ta latiñezkoak orok esaunak ditugu; neologismoak, berriz, idazle bakoitzak beriak. Igartzen oyek, alperrik beta galdu.
>
> Sakona dala esan det. Egitan, asko ta asko darakus. Batasunaz itz egin diozu Euskalzandiari zure sarreran. Ezin obeki. Euskalzandiak ezpadu zerbait egiten arazo ortan; zeñek lezakean?
>
> Nere aburuz, zer edo zer egin bear degu. Datorren Batzarrean berba egingo degu onatz, beste euskalzaiñak ontzat artzen badute.[921]

Espainiako euskaltzainen estandarizazio asmoak gorabehera, Frantziako P. Lafittek lehenago jakinarazitako eragozpenak jarri zituen F. Krutwig eta L. Villasanteren proposamenei buruz, eliztar publiko xehea liburu eta predikuetatik aldendu zezaketelakoan:

> Derabilagun eskuara laborariek dute asmatua behar arau, eta atchiki dute, ez sort-herriaren maitez, ez burukeriaz, bainan den bezala beren heinekoa dutelakotz. Heieri mintzatzen gireno, ez da dudarik heien heineko eskuara begiratu behar dugula; eta nahi baditugu ere gero-eta gehiago argitu, ez ditugula eginen hitz arrotz ukaldika, bainan heien meneratuz, eta heien menetik heiekin batean goiti hegaldatuz (Lafitte 1952d: 307-308).

L. Villasanteren sarrera hitzaldiari harrera abegitsua egin zion, ordea, A. Ibinagabeitiak EAJ-PNVren agerkarian. F. Krutwig euskaltzaina erbesteratuta egoteak nolabaiteko zilegitasun morala ematen zion lapurtera klasikoaren proposamenari.[922] Euskarazko kultura maila jasotzeko ahalegina txalotu arren, funtsean bat zetorren gipuzkera osotuaren aldeko idazleek jarritako eragozpenekin:

---

[921] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna L. Villasanteri, 1952-09-29. Hamar urte igaroak ziren, I. M. Echaidek lapurteraren aldeko F. Krutwig urgazlearen 1943ko dosierra irakurri zuenetik. 1952ko azaroko aktaren nahiz eskuzko zirriborroaren arabera, ordea, ez zuten estandar literarioaren gaia eztabaidatu.

[922] C. Jemein «sabinolatria»ren zaindariak, aldizkari berean, gogor egin zuen nork bere dialektoan idaztearen eta neologismo garbizaleen alde (*Alderdi* 1952-08; 1952-09; 1952-10)

IKER-35.indd 351 2/9/19 10:56

Gainera «gipuzkera osotua»k ere badizu bere tradizinotxoa, berria nai ba duzute, baina sakontasun eta zabaltasunez, orainarteko gure tradizino guzien betekoa, bai idazle kopuruz, baita bikaintasunez. Lizardi, Orixe, Labaien, Zaitegi, Olabide Aundia, Azkue garai, Mitxelena Salbatore, Lekuona, Monzon, Etxaniz, Mirande'tar Jon eta abar. Izkera ortan euskal lanik aundienak burutu dira eta zati baten beintzat burutuko ere dira. Sail ortako idazleak Axularrena gaurkotu besterik ez dute egin eta saratar aundi bien urratsetan ibiliz euskerarik berebizikoena mamitu dute, partidismu eta targoak aldebat utzirik. Beraz zer dala eta bat bateko yauzi ori Axular'en izkera zâarrera? (*Alderdi* 1952-09).

IKER-35.indd 352 2/9/19 10:56

6. EUSKALTZAINDIA 1953-1954: IRAUN ETA JARRAI

6.1. «JUNTA DE CULTURA DE VIZCAYA»REKIN BAKEA

1953ko urtarrilaren 30ean Donostian batzartu ziren sei euskaltzain: I. M. Echaide, A. Irigaray, J. Gorostiaga, L. Villasante, L. Michelena eta N. Oleaga. Berriz ere, ez dago batzarraren akta ofizialik, baina idazkariaren zirriborroa gordetzen da. Hain zuzen, N. Oleagak adierazi zuenez, Euskaltzaindiaren Bilboko laguntzaile batzuen eskaria jaso zuten.[923] José Urrutia Bilbao (SI) Deustuko Unibertsitateko ikasketa prefektuaren aurkezpen gutun batekin zetorren eskaria.[924] Gazte talde batek Akademiari egoitzako gelaren bat erabili ahal izatea eskatzen zion, euskararen eta euskal kantutegiaren inguruko bilerak egiteko.[925] Eskaera bera A. Irigoyen, L. Torrontegui eta J. Peñak sinatzen zuten eta hiru puntu zituen:

– Akademiaren liburutegiko altzari eta apalak kristalezko xaflekin ixtea, liburuak giltzapean babestuta egoteko, erabiltzaileak hazi ahala. 3.500 pezetako aurrekontua ere aurkeztu zuten eta prest zeuden diruz laguntzeko.
– Akademiaren liburutegiko egile eta gaien aurkibidea katalogatzea, agian BPDko liburutegiko langileren baten laguntzarekin.
– Proiektu horien arduradun izateko Euskaltzaindiak ordezkari bat izendatzea.[926]

---

[923] Argitaratutako Akademiaren akten arabera, Bilboko laguntzaileen eskari horren berri 1952ko azaroko batzarrean eman zen, baina uste dut a posteriori egindako eransketa izan zela, 1953ko urtarrileko akta ofizialik egin ez zelako (cf. Euskaltzaindia 1982: 25).

[924] M.ª Dolores Revuelta Deustuko Unibertsitateko Artxibo Nagusiaren zuzendariak konfirmatutako datuak, 2016-03-10.

[925] ABA-EUS: J. Urrutiaren gutuna G. Maidagani, 1952-09-20.

[926] ABA-EUS: «Proyecto que los colaboradores de la Academia de la Lengua Vasca presentan a los miembros de esta», 1952-10-25.

IKER-35.indd 353 2/9/19 10:56

Eskaerak, belaunaldi gaztearen lankidetza itxaropentsuaren zantzua izan arren, Ribera kaleko egoitzaren egoera kaxkarra ere agerian jarri zuen. Batzarrak liburutegiko dokumentuen zerrenda egitea erabaki zuen.[927] Lide Torrontegui abertzalez osatutako «Txinpartak» teatro taldeko kidea zen. A. Irigoyen eta J. Peña (gero E. Erquiaga urgazlearekin batera) euskara eskolak ematen hasi ziren Bilboko egoitzan ikasturte horretatik aurrera. Gipuzkoako Javier Peña (1914-1980), erbestetik itzuli ondoren, Seguros Bilbao-n lanean ari zen eta euskara eskolak ematen zituen 1949az geroztik. Alfonso Irigoyen (1929-1996) kontularia Bilboko talde ugarirekin harremanetan zegoen: Asociación de Artistas Vizcaínos, Nuevo Ateneo edota Ekin taldea izan zenarekin. EAJ-PNVren politikagintza auzitan jarri zuen gazte abertzaleen belaunaldia, artean kulturalismora mugatuta, gerturatzen zen Akademiara. A. Irigoyen F. Krutwigekin harremanetan eta L. Villasanteren sarrera ekitaldian entzule egon zen. Akademiaren bulego lanetan hasi zen 1954ko udazkenetik aurrera, baita Bizkaiko *Anaitasuna* gehigarria edota Guatemalako *Euzko-Gogoa* aldizkaria laguntzen ere (Irigoyen 1987: 265-272; 1990: 241-256; Garmendia 2008).[928]

Urteak igaro ahala «Euzkadi Ta Azkatasuna» (ETA) bilakatu zen taldeaz den bezainbatean, kontuan har bedi aipatutako J. Urrutia Bilbao (SI) ikasketa prefektuak jarri zituela harremanetan 1952-1953 ikasturtean talde klandestinoa eratzen hasi ziren Deustuko Unibertsitateko zenbait ikasle: J. Madariaga, J. M. Aguirre Bilbao edota C. Ansola. Bestalde, Donostian jaiotako J. L. Álvarez «Txillardegi» (1929-2012) Bilboko ingeniari eskolan ari zen ikasten.[929] Euskaltzainburua hil baino lehenago, J. Echaide eta A. Irigoyenen bitartez, ezagutu zituen F. Krutwig eta R. M. Azkue zaharra bera. 1950ean atxilotua izan ondoren, BPDren bibliotekan historiografia foruzalea ikertzeaz gain, jeltzale historikoekin Akademiaren egoitzan izandako bileretan parte hartu zuen.

F. Krutwigen ideiak ezagutu arren, gazte intelektual abertzale horien irizpide linguistikoek artean *Euzko-Gogoa*ren bide garbizalea jarraitzen zuten. Gerra Hotzaren testuinguruan EAJ-PNV noraezean ageri zenez, 1953ko udaberrian J. M. Benito del Valle ikaslearen Bilboko etxean bildutakoek (J. L. Álvarez, J. Madariaga, J. M. Aguirre eta A. Irigoyen) kulturalismotik antifran-

---

927 ABA-EUS: N. Oleagaren akta zirriborroa, 1953-01-30.

928 ABA-AIB: A. Irigoyenen gutunak A. Ibinagabeitiari, 1954-09-29, 1955-04-03, 1955-06-16, 1955-08-11, 1955-08-31, 1955-09-29 & 1955-10-21.

929 Donostian C. Santamaríaren talde katolikoak ezagutu zituen 1946az geroztik, baina J. Arteche batek bilera pribatuetan euskararen inguruan esaten zituenak seguru asko ez zituen nahikotzat jo: «La política no tiene nada que ver con lo que os proponéis. Acoged a todos. A todos sin excepción» (Urkia Etxabe 2006: 265).

IKER-35.indd 354 2/9/19 10:56

kismora igarotzea erabaki zuten. Bizkaian eta Gipuzkoan 1954-1955 ikasturtetik aurrera proselitismoa egiteko landu zituzten liburuxketatik (*Ekin*) hartu zuen taldeak izena (Equipo de Hordago 1979: 9-32; Alvarez Enparantza 1994: 128-133, 176, 183-187; Madariagako 2014: 62-63).

Akademiaren 1953ko lehen batzarrean, I. M. Echaide eta A. Irigarayk euren arduraren berri eman zutela adierazi zen. Akta zirriborroan ez da ezer argitzen, baina, gero ikusiko dugunez, GPDko presidentearekin izandako bileraz aritu ziren seguru asko. Hain zuzen, zenbait berri pozgarri eman ziren diru laguntzez, Gipuzkoako CAPi 5.000 pezetako laguntzagatik eskerrak ematea erabaki baitzen. *Euskera* agerkaria berriz argitaratzeaz den bezainbatean, L. Villasante lehen aroko aurkibideen (1920-1937) prestaketaz aritu zen. Hain zuzen, batzarrean Akademiaren agerkaria berriz argitaratzea erabaki zuten, eta Gipuzkoako L. Michelena, M. Lecuona eta A. M. Labayenen esku utzi zituzten horrekin lotutako zenbait ardura. Era berean, Euskaltzaindiaren estatutuen gaia ere izan zuten hizpide, eta euskaltzain izateko Euskal Herrian jaioa izateko baldintza kentzeko aukera aipatu zen, «itzez ala idatziz» euskaldun izatera mugatuz.[930]

Akademiak, orobat, gonbita jaso zuen 1953ko apirilean Bartzelonako Unibertsitatean ospatu zen VII. «Congreso Internacional de Lingüística Románica» delakotik.[931] Euskaltzaindiak nazioarteko biltzar zientifikoetatik kanpo jarraitzen zuen. Hain zuzen, Akademiaren urtarrileko batzarrean J. Gorostiagak argitaratutako *Épica y lírica vizcaína antigua* (1952b) liburuaren eta «Literatura ibérica pre-clásica» (1952c) artikuluaren berri eman zen. J. Gorostiagaren ustez idazkun iberikoetako hizkuntza ez zen iberiera, punikoa baizik. Akademiak idazlanak plazaratzeko gaitasunik ez zuenez, artikulua Salamancako Unibertsitate Pontifikalaren *Helmántica* aldizkarian agertu zen. Liburua, berriz, M. Grandek zuzentzen zen «Centro de Estudios Vascos de FET y de las JONS» sortu berriak argitaratu zuen, eta ekimen hau Akade-

[930] ABA-EUS: N. Oleagaren akta zirriborroa, 1953-01-30.

[931] ABA-EUS: VII Congreso Internacional de Lingüística Románica-ko zuzendaritzaren gutuna Euskaltzaindiari, 1952-12-09. Biltzarraren zuzendaritza kide hauek osatzen zuten: A. Griera, A. M. Badia, A. Tovar, R. Balbín eta F. Udina idazkariak. A. M. Badiaren eta Institut d'Estudis Catalans-eko kideen gaitasunari esker, maila zientifiko handiko biltzarra izan zen. Katalana lan hizkuntza izateaz gain, katalanaren aurkako politika salatu zuten hainbat partaidek, horrek frankismoarekin lerrokatutako hizkuntzalarien ezinegona eragin zuelarik. Badirudi euskal partaide bakarra J. Caro urgazlea izan zela, Institut d'Estudis Catalans-eko kideekin harreman onetan zegoena. Diktadura frankistaren inposizioak inposizio, Euskal Herriak Kataluniarekiko zuen atzerapen kulturala agerian zegoen (Balcells, Izquierdo & Pujol 2007: 110-114).

IKER-35.indd 355 2/9/19 10:56

miaren eta Bizkaiko agintari frankisten arteko istiluak konpontzeko saioen artean kokatu behar da. Uste izatekoa da J. Gorostiagak aurrekari politikoen zamagatik onartu zuela liburua hor argitaratzea, agian A. Tovar falangista bitartekari zela.[932] Hain zuzen, batzar egunean bertan I. M. Echaidek, jarduneko euskaltzainburu gisa, F. Krutwigek sortutako arazoaz Akademiak hartutako erabakiaren berri bidali zion Bilbotik JCVko buruari, urte erdiko atzerapenarekin:

> Haber visto con profundo desagrado la actuación del Sr. Krutwig que la Academia estima inoportuna y por los términos empleados, el tono de exposición y la ocasión y aun el mismo tema, altamente censurable, y que se requiera al citado Académico para que la justifique para las resoluciones procedentes.[933]

Euskaltzaindiaren erabakiaren jakinarazpenak berehalako ondorioa izan zuen, JCVren otsailaren 19ko batzarrean kide hauek bildu zirenean: J. M. Ruiz Salas, F. Echegaray, J. B. Merino, H. Bilbao, C. Lasterra, F. Ygartua, Conde de Superunda eta E. Calle. Besterik adierazi gabe, baina inplizituki Akademiaren jarrera ontzat emanda, JCVren batzarrak etenda zegoen diru laguntza ordaintzea erabaki zuen: «Se acordó satisfacer a la Academia de la Lengua Vasca, tres trimestres de los cinco en la actualidad pendientes del año 1951 y 1952, y facultar al vocal Tesorero para que continúe efectuando los pagos en la forma que estime conveniente».[934]

1953ko otsailaren 27an sei euskaltzain hauek batzartu ziren Donostian: I. M. Echaide, A. Irigaray, J. Gorostiaga, L. Villasante, L. Michelena eta N. Oleaga. A. M. Labayen urgazlea ere bertan egon zen. Akademiaren zalantzazko egoera zela-eta, berriz ere ez dago akta ofizialik, baina idazkariaren akta zirribo-

---

[932] Euskaltzaindiaren bibliotekan dagoen J. Gorostiagaren *Épica y lírica vizcaína antigua*ren alea A. Tovarri eskainitakoa da, Salamancan 1952ko urriaren 3an.

[933] ABA-EUS/BFAH-EC: I. M. Echaideren ofizioa J. M. Ruiz Salasi, 1953-01-30, Junta de Cultura C-40 -01-. Euskaltzainburuordearen ofizioak dio erabakia uztaileko batzarrean hartu zela, baina ekainean izan zen. Hilabeteen izenak euskaraz bateratu gabe egoteak, bikoiztasunak eta nahasketak sortzen zituen, gaur arte iraun dutenak. «Garagarrila» ekaina nahiz uztaila izan daiteke, euskalkiaren arabera. Dena dela, Akademiaren idazkaritza eta diruzaintzan erabiltzen zen hilabete izenen terminologia nagusia hau zen: Urtarrila = Urtarrila; Otsaila = Otsaila; Epaila = Martxoa; Jorraila = Apirila; Orrila = Maiatza; Bagila = Ekaina; Garagarrila = Uztaila; Dagonila = Abuztua; Iraila = Iraila; Urrila = Urria; Azila = Azaroa; Lotazila = Abendua.

[934] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1953-02-19, Junta de Cultura C-62.

IKER-35.indd 356 2/9/19 10:56

rroa gordetzen da.[935] Hasteko, 1952ko ekainean urgazle izendatutako E. Erquiagaren esker oneko gutunaren berri eman zen.[936] Horrekin lotuta, «Academia Montiano» delakoaren idazki bat jaso zen, martxotik aurrera euskarazko eskolak emateko baimena eskatzen zuena, E. Erquiaga bera irakasle zela.[937]

Akademiaren biziraupenerako garrantzitsuago zena, N. Oleaga idazkariak «Junta de Culturagaz bakea» egin eta diru laguntza berreskuratu zela adierazi zuen. Auzi ekonomikoekin jarraituta, 1951z geroztik etenda zegoen NFDren diru laguntza ere hizpide izan zuten. Bestalde, «Jefatura Nacional de Estadística»ren Bizkaiko ordezkaritzak laguntza eskatu zion Euskaltzaindiari, Bizkaiko toponimia ofizialeko euskal izenen ortografia eta esanahia zehazten laguntzeko.[938] Akademiaren idazkariak poz handiarekin erantzun zion eskariari, Espainiako Gobernuaren instituzio ofizialak aintzat hartzen zituelako hala euskara, nola Euskaltzaindia bera.[939]

Frankisten eta abertzaleen arteko euskal kulturaren inguruko norgehiagoka are barnealdeko aldizkarietan ere islatzen zen. Euskaltzaindiaren 1953ko otsaileko batzarrean, L. Michelenak, Elvira Zipitria «Ira» (1906-1982) jeltzalearen «Aditz-aia» artikulua irakurri zuen. E. Zipitriak, isilpeko ikastola andereño izateaz gain, Círculo Cultural Guipuzcoano ateneoan euskara eskolak eman zituen, L. Michelenak bezala.[940] Artikulua A. Tovarrek eta bestelako linguistek euskal aditzaren zailtasunaz eta horrek islatzen zuen hizkuntzaren «egoera kaotikoa»z esandakoari emandako erantzuna zen, erreibindikazio tonu argiarekin. E. Zipitriak salatzen zuenez, euskaldunen-

---

[935] ABA-EUS: N. Oleagaren akta zirriborroa, 1953-02-27. Akademiaren otsaileko batzarrean, halaber, A. M. Labayen *Euskera* agerkariaz aritu zen eta R. M. Azkue zenaren bibliotekarekin zerbait egitea erabaki zen, gero ikusiko dugunez.

[936] ABA-EUS: E. Erquiagaren gutuna Euskaltzaindiari, 1953-02-10.

[937] ABA-EUS: J. Montianoren gutuna Euskaltzaindiari, 1953-02-24. Baiezkoa jaso bide zuten, E. Erquiaga zazpi lankideri eskolak ematen hasi baitzen, baina zailtasunak zituen ikasbide egokiak aurkitzeko, eta L. Villasanterengana jo zuen, Arantzazuko santutegian euskara irakasle zelako, laguntza bila. Tartean estandar literarioaren eta lapurtera klasikoaren auzia zegoen (ABA-EUS: E. Erquiagaren gutuna L. Villasanteri, 1953-05-02).

[938] ABA-EUS: Jefatura Nacional de Estadística-ren Bizkaiko ordezkariaren ofizioa Euskaltzaindiari, 1953-02-14.

[939] ABA-EUS: N. Oleagaren ofizioa Jefatura Nacional de Estadística-ren Bizkaiko ordezkariari, 1953-03-03.

[940] E. Zipitriak 1945-1946 ikasturtetik eman zituen eskolak Donostiako ateneoan. L. Michelena 1950-1951 ikasturtean hasi zen eskolak ematen bertan. L. Michelenak SFVJUko zuzendaritza hartu zuenean 1954-1955 ikasturtean, N. Echániz elizgizon abertzaleak hartu zuen lekukoa (Mina 2008: 143, 158, 163, 170, 172).

IKER-35.indd 357 2/9/19 10:56

tzat gaztelaniazko aditza ikastea bezain zaila zen alderantzizko bidea. Artikulua *BRSVAP*en argitaratu zuten «Euskaltzaindia-ren lanak» sailean, baina M. Lecuonaren izenean. Benetako egilea nor zen argitzeke, A. Tovarren erantzun mindua argitaratu zen *BRSVAP*en hurrengo zenbakiaren «Euskaltzaindia-ren lanak» sailean. Aditza zaila izateak ez zuen hizkuntzaren beraren balioaz ezer adierazi nahi Salamancako Unibertsitateko errektorearen ustez (Zipitria 1953; Tovar 1953; Abásolo, López de Munain & Urbe 2004). A. Tovarri lehen azalpenak L. Michelenak eman zizkion, *BRSVAP*en erredakzioko arduradun gisa.[941] Euskaltzainburuordeak, halaber, esplikazio bat ematera behartuta ikusi zuen bere burua: «El ataque de que fue Vd. objeto me pareció inf[u]ndado e incorrecto, aun cuando la incorrección, tengo por seguro, fue involuntaria».[942]

6.2. «SEMINARIO DE FILOLOGÍA VASCA *JULIO DE URQUIJO*»

Dena dela, etorkizunari begira, Akademiaren 1953ko otsaileko batzarreko berri garrantzitsuena GPDk sortutako «Seminario de Filología Vasca *Julio de Urquijo*» delakoarena izan zen. I. M. Echaide eta A. Irigarayren bidez, J. M. Caballero GPDko presidenteari zorionak ematea erabaki zuen batzarrak. Erabakia formalismo hutsa zen. 1952ko abenduan Donostiako euskaltzainak J. M. Caballerorekin bildu ziren abiatzear zegoen egitasmoaz hitz egiteko. GPDk 1953ko otsailaren 3an SFVJU sortu zuenez, I. M. Echaide jarduneko euskaltzainburuak zoriondu egin zuen presidentea, Akademia batzartu arte itxaron gabe.[943] GPDren Educación, Deportes y Turismo sailak, orobat, eskerrak eman zizkion Euskaltzaindiaren kooperazio eskaintzari.[944]

Bizkai-Gipuzkoetako industrializazio berritua erakartzen ari zen immigrazioak ageriago uzten zuen euskararen ahultasun demolinguistiko erlatiboa. Hala ere, diktadura frankistan ezin zen gizarte erabileran zuzenean eragin, tokiko zenbait agintari politiko arazoaz arduratuta agertu arren. Gerra zibilaren ondorioz, oinarrizko hezkuntzaren eskumena Gobernu zentralak guztiz bereganatu eta

[941] Euskaltzaindiaren Artxiboa, Antonio Tovar funtsa: A. Tovarren gutunak L. Michelenari, 1953-06-08 & 1953-06-19.

[942] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna A. Tovarri, 1953-11-02.

[943] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutunak J. M. Caballerori eta N. Oleagari, 1953-02-17.

[944] ABA-EUS: GPDren Educación, Deportes y Turismo sailaren ofizioa I. M. Echaideri eta I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-03-03 & 1953-03-06.

IKER-35.indd 358 2/9/19 10:56

gaztelaniazko monolinguismoa ezarri zuen[945]. Probintziako baserri eskoletako («escuelas rurales») irakasleei sari ekonomiko bereziak ematera mugatzen ziren, elebitasunaren arazoa kontuan hartuta. GPDko Educación, Deportes y Turismo sailak 1953ko abenduaren 24ko irizpenean salatu zuenez,

> La misión del maestro en estas escuelas es más difícil e incómoda que las de aquellos otros maestros que ejercen su magisterio en localidades o zonas urbanizadas. Ello trae como consecuencia un frecuente trasiego de maestros, con el consiguiente régimen de interinidades, perjudicial para la escuela por los cambios de métodos y procedimientos de enseñanza y por la inadaptación al idioma y a la idiosincrasia de los familiares y alumnos, que hace más difícil la labor de enseñanza y de formación educativa (GPD 1955: 15).

GPDk sortutako mintegiak euskara eskolak ere eman nahi zituen, baina batez ere goi mailako ikerketa linguistikoa eta filologikoa bultzatzera zetorren, bereziki J. Urquijo zenaren ondare bibliografikoa erabiliz. Euskal Herriak unibertsitate egituraz gabetuta jarraitzen zuenez, SFVJU Valladolideko Unibertsitateari atxikita sortu zen nahitaez, baina Salamancako Unibertsitateko «Manuel de Larramendi» katedrarekin elkarlanean aritzeko asmoarekin. RSVAPek, orobat, txalotu egin zuen egoitza probintzia jauregian zuen SFVJUren sorrera, EI-SEVen eta J. Urquijoren legatuari jarraipena ematen ziolako eta euskararen ikerketa zientifikoa koordinatzeko gune nagusi bilaka zitekeelako. Ordeztuta geratu zen, berariaz adierazi ez arren, 1949an bide beretik Gipuzkoan abiatutako saioa: RSVAPen «Seminario de Lenguas Prerromanas» (cf. Ciriquiain-Gaiztarro 1949a; RSVAP 1953a).

1952ko martxoaren 23ko hauteskunde antidemokratikoen ondorioz, Espainiako diputazio guztiak berritu egin ziren. A. Elorriaga GPDko presidenteak hasieran karguan jarraitu arren, berehala dimisioa aurkeztu zuen, argitu gabeko arrazoiengatik.[946] Agian A. Elorriagak korporazio berrituaren lehen saioan, apirilaren 2an, salatutako probintziako ogasunaren eta benefizentziaren egoera txarrak eragina izan zuen erabakian, ezabatutako kontzertu ekonomikoaren aldarrikapenarekin zukeen loturagatik. Dena dela, Herrizaintza ministerioak ez zuen dimisioa onartu apirilaren 26ra arte, ezta GPDko presidente berria

[945] «Ley de 17 de julio de 1945 sobre Educación Primaria», *BOE*, 1945-07-18.

[946] J. M. Azaolaren ustez, L. Dotres Informazio eta Turismo ministerioaren Gipuzkoako delegatu eta diputatu ohiak ez zion prentsari dimisioaren berri ematen utzi, hutsunea berak betetzeko asmoa omen zuelako, baina dimisioaren onarpena da atzeratu zena (Sancho el Sabio Fundazioa, José Miguel Azaola funtsa: J. M. Azaolaren gutuna F. Pérez Embidi, 1952-04-27).

IKER-35.indd 359 2/9/19 10:56

izendatu ere uztailaren 7ra arte: José M.ª Caballero Arsuaga (1910-1983) tradizionalista, gerra zibilaren hasieran errepublikanoek preso hartutakoa, Tolosako abokatu eta paper fabrikaren kudeatzailea (Errazkin Agirrezabala 2013: 84).[947]

Presidente berriak 1952ko uztailaren 12an kargua hartu zuenean, 1951ko udazkenetik Gipuzkoako gobernadore zibil zen Tomás Garicano Goñi (1910-1988) iruindarrak lerro gorriak markatu zituen, GPDren administrazio autonomiaz eta kultura ezaugarrien erabilera ustez separatistaz den bezainbatean:

> Mas hay que tener cuidado en estos momentos y en estos casos, no suceda que el árbol nos impida ver el bosque y demos carácter permanente y fundamental a aquello que es circunstancia y contingente. El enemigo está siempre alerta. No entreguemos en sus manos las armas y no obremos de una manera ingenua e inocente, que pudiera dejar cual fruta madura armas o medios que sirvieron una vez para intentar la desintegración de la Patria. Conviene mantener nuestras tradiciones, nuestros usos, nuestras costumbres. Principalmente aquellos que se refieren a la familia, piedra angular de la sociedad, de la Nación y del Estado. La familia española, la familia guipuzcoana, ha sido siempre la base de nuestra vida, la base de nuestra organización; hay que mimarla, hay que darle todos los medios que precise para el desarrollo de su vida y sus actividades. Lo mismo os digo, aunque en un plan inferior, respecto de aquellos usos y costumbres de carácter externo. Aquellos que, en determinados momentos, nos ponen calor en el corazón y lágrimas en los ojos. Es esa una manifestación de esta diversidad que existe en nuestra Patria. Pero todo aquello, en su conjunto, ha sido base de la unidad nacional. Todo ello nos impone una responsabilidad que es totalmente irrenunciable. Hacer todo aquello que sirve para unirnos y renunciar a todo lo que nos separe (GPD 1953: 74).

Izendatu eta berehala, I. M. Echaide eta A. Irigaray GPDko presidentearekin bildu ziren, Akademiarentzat bulego egoki bat eskatzeko asmoarekin.[948] J. M. Caballeroren euskararekiko asmoak harago joan ziren eta 1952ko abenduaren 13an aurkeztu zion «Seminario de Vascuence, *Julio de Urquijo*» delakoa sortzeko mozioa GPDko Educación, Deportes y Turismo sailari.[949]

---

[947] *La Voz de España* 1952-04-27; 1952-07-10; 1952-07-13; *El Diario Vasco* 1952-04-27; 1952-07-13; GPD 1953: 25-30, 35-36, 71-72; Arrieta & Barandiaran 2003: 39. J. M. Caballero presidenteaz gain, hauek izan ziren Gipuzkoako diputatuak 1952-1955 artean: A. Ugalde, J. R. Aguirreche, F. Sagarzazu, F. Legorburu, P. Irazusta, J. L. Guinea, D. Tellería (1952ko ekainean hil zen), J. M. Martínez Zumalabe, C. Anítua, E. Laborde, L. Martín Santos (idazle ospetsuaren aita), M. Sagardía eta R. Mendiola.

[948] KMK: I. M. Echaideren gutuna A. Irigarayri, 1954-07-14.

[949] GPDk argitaratutako akta liburuan ez dago presidentearen mozio hori jasota, baina SFVJUk berak argitaratu zuen sorrerako bestelako dokumentazioarekin (cf. GPD 1953; SFV-

IKER-35.indd 360 2/9/19 10:56

Gipuzkoako instituzio ofizialetan euskararen aldeko gutxieneko giro bat eratzen ari zen, tokiko erakundeek zuten autonomia oso mugatuaren barruan. Ikusi dugunez, 1952ko otsailean Salamancako Unibertsitatean sortutako «Manuel de Larramendi» katedrak ezinegona sortu zuen Gipuzkoan, konparazioz probintziako agintarien euskararekiko utzikeria agerian uzten zuelakoan. M. Ciriquiain GPDko idazkariak artikulu bat idatzi zuen Madrilgo prentsan, Gipuzkoak erositako J. Urquijoren biblioteka goratzeko ez ezik, horren inguruan goi mailako erakunde zientifiko bat ere eskatzeko:

> Pero no puede ser una pieza muerta; el propio Servicio de la Biblioteca Provincial, la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País y la Academia de la Lengua Vasca han de laborar en ella siguiendo el espíritu de su fundador. Y posiblemente no bastará el esfuerzo de todos para sacarle el rendimiento que ella puede dar; acaso una fundación de rango universitario lograra rematar dignamente tan digna empresa (*ABC* 1952-04-25).

SFVJUren ereduak, ordea, unibertsitate mailakoak ziren; Bordelen eta Salamancan, hurrenez hurren, R. Lafon eta A. Tovarrek zuzentzen zituzten euskara katedrak. Bestalde, ezaguna zen 1951az geroztik Nafarroan Institución Príncipe de Viana-ren bidez euskara eskola ofizialak ematen zirela. F. Tirapuren ikastaroek hainbeste arrakasta izan zuten, 1952ko urrian laguntzaile bat eskatu behar izan ziola NFDri (Jimeno Jurío 1996: 511-513). Bordele eta Salamancako euskal filologia eskolek, ordea, curriculumez kanpokoak zirenez eta Euskal Herritik urrun zeudenez, ez zituzten ikasle asko erakartzen. SFVJUk euskal filologoak formatzeko, doktorego tesiak burutzeko eta atzerriko irakasleak erakartzeko gune izan nahi zuen. Presidentearen mozioaren eduki nagusiaz den bezainbatean, L. Michelenaren eskuaren egiletza oso nabaria da, GPDko idazkariak testuari jarri zizkion legezko sarrera eta bukaera gorabehera[950]. 1950-1951 ikasturtean Círculo Cultural Guipuzcoano-n euskara eskolak ematen hasi zenetik, L. Michelenak mintegi zientifiko eta literario bat sortzeko nahia zuen, linguistak eta idazleak formatzeko.[951] Mintegiari «Julio de Urquijo» izena berak jarri zion, adibidez. M. Ciriquiain GPDko idazkaria, halaber, pertsonalki inplikatu zen instituzio berriaren sorreran (Urkizu 2004: 41; Michelena 2011c: 270).

JU 1955: 35-46).

[950] KMK: [M. Ciriquiainen eta L. Michelenaren mozio zirriborroak, 1952].

[951] CCG-RP: L. Michelenaren gutunak R. Piñeirori, 1951-11-22 & 1952-06-17.

IKER-35.indd 361 2/9/19 10:56

SFVJUren programa handiguraren arabera, euskal lexiko eta onomastika bizia jasotzen, tokiko hizkeren monografiak idazten eta mapa dialektologikoak osatzen lagundu behar zuen. Bestalde, euskal hitzen corpus historikoa zerrendatu behar zuen, iturri idatzietan jasotako lexiko eta onomastikarekin, A. Holder-ek zeltarekin *Alt-celtischer Sprachschatz* (1896-1913) hiztegian egin zuen erara. Euskal literaturaren hiztegi historikoa osatu ondoren, azken urratsa R. M. Azkueren *Diccionario vasco-español-francés* eguneratu eta zuzentzea zatekeen. SFVJUko eskoletan, alde batetik, linguistika historikoaren oinarriak erakutsi nahi ziren, ikasleak ikerketak egiteko gauza izan zitezen. Bestetik, euskal literatura aztertuko zen, ikuspegi estetikotik nahiz historiko-kulturaletik. Esan bezala, 1943ko «Ley sobre ordenación de la Universidad española»ri jarraituta, mintegia Valladolideko Unibertsitateari eta CSICi atxiki nahi zitzaion. Agerkari moduan, CSICen Gipuzkoako ordezkari zen *BRSAVP* erabiltzea proposatzen zuen presidentearen mozioak (SFVJU 1955: 35-46).[952]

Irudia 17. **Luis Michelena, Pío Baroja, Ángel Irigaray, Antonio Arrue, ezezaguna eta Julio Caro Baroja (Bera, 1955)**



© argazkiarena: Koldo Mitxelena Kulturunea (Koldo Mitxelena funtsa).

[952] «Ley de 29 de julio de 1943, sobre ordenación de la Universidad española», *BOE*, 1943-07-31.

IKER-35.indd 362 2/9/19 10:56

M. Sagardía diputatua buru zuen GPDko Educación, Deportes y Turismo sailak aldeko irizpena eman zuen 1953ko urtarrilaren 29an, «Seminario del Vascuence» ordez «Seminario de Filología Vasca» izena proposatu, eta urteko 35.000-40.000 pta. inguruko aurrekontua aurreikusita. GPDren otsailaren 3ko batzarrak SFVJU sortzea erabaki zuen. J. M. Caballero presidenteaz gain, hauek izan ziren batzartutako diputatuak: M. Sagardía, J. R. Aguirreche, F. Sagarzazu, J. L. Guinea, A. Ugalde, L. Martín Santos, R. Mendiola, J. M. Martínez Zumalabe, C. Anítua, P. Irazusta, F. Legorburu eta E. Laborde. Kontu hartzailea L. Ezcurdia eta idazkaria M. Ciriquiain izan ziren (GPD 1954: 2-7; SFVJU 1955: 47-56).[953] Konparazione, Euskaltzaindiak 16.000 pezetako diru laguntzak baino ez zituen eskuratu 1950ean, euskal instituzio frankistekiko harremana gaiztotu baino lehenago. Baina egia da, halaber, Espainiako Gobernuak 1953 abenduan legea aldatzearen ondorioz, tokiko administrazioek baliabide ekonomiko eta eskumen gehiago izan zituztela eskura, eta GPDk diru sarrera gehiago eta aurrekontu handiagoak izan zituela urte horretatik aurrera. Akademiarentzat ere onuragarri izan zen administrazioen egoera ekonomiko lasaiago hori, ikusiko dugunez (cf. Arrieta & Barandiaran 2003: 60-62).[954]

Nolanahi den, Euskaltzaindiaren ikerketa gaitasuna guztiz gaindituta ageri zen SFVJUren programarekiko. Horrek, bide batez, N. Oleaga, F. Krutwig eta A. Irigarayk era batera edo bestera adierazitako «yagoleen» sailaren nagusitasunari arrazoia ematen zion. Euskararen aldeko proiektu ofizial batek, frankista izanagatik, susmoak eragiten zituenez, aldarrikapen espainolista batekin itxi zuen presidenteak otsailaren 3ko batzarra, gerra zibila hizpide, GPDk aho batez irizpena onartu aurretik:

> No creo que estas mis manifestaciones puedan suscitar recelos de nadie, como no sea el de aquellos que entendieron que la conservación, defensa y difusión de nuestro acervo espiritual era monopolio de determinada ideología. Este concepto de exclusiva no lo admitimos jamás, sino que, por el contrario, y a impulsos de nuestro corazón, levantamos bandera en pro de tan altos ideales, sin que en momento alguno se haya entibiado nuestro amor por cuanto representa

[953] Miguel Sagardía Laurnaga GPDko presidenteordea eta Gorte frankistetako prokuradorea zen. Beste lau diputatu hauek osatzen zuten Educación, Deportes y Turismo saila: Enrique Laborde, Rufino Mendiola, José Luis Guinea eta Alfonso Ugalde. Gipuzkoako kultura ofizialaren arloan, garrantzia izan zuen Rufino Mendiola Querejeta (1890-1975) filosofia eta letretan doktore eta institutu katedradunak, Donostiako udal bibliotekaren zuzendaria baitzen (GPD 1953: 30-34; Mendiola Querejeta 1963).

[954] «Ley de 3 de diciembre de 1953 sobre modificación de la de bases de Régimen Local de 17 de julio de 1945», *BOE*, 1953-12-04.

IKER-35.indd 363 2/9/19 10:56

manifestación viva del viejo pueblo vasco. Pero al proceder así y dirigiendo una mirada retrospectiva a la historia, reafirmamos nuestro españolismo tanto más vivo por haberse forjado en el yunque de la lucha por la Patria. Por amar con delirio a nuestra patria chica y en ella sus instituciones, costumbres, manifestaciones, etc., amamos también a España, siendo para nosotros timbre de gloria, el poder ser llamados españoles.

Hoy prestamos nuestra atención a la lengua vernácula que independientemente de cuál pueda ser su origen, antigüedad e incluso su interés filológico es el instrumento o medio de expresión de gran número de guipuzcoanos[.] Sentimentalmente tampoco podemos olvidarla quienes en la misma empezamos a elevar nuestras primeras oraciones al Divino Hacedor y fué arrullo que llegó a nuestros oídos como canción de cuna. Si imperativos de la vida y el medio ambiente en que nos vemos rodeados, la desplazaron más tarde, contribuyendo a que disminuyera su uso, hemos de poner cuantos medios estén a nuestro alcance para evitar su desaparición y lograr nuevamente su pujanza (apud SFVJU 1955: 54-55).

Izan ere, 1936ko abuztuaren 1ean ezkerreko milizianoek, jeltzaleen ahaleginen aurka, Donostian fusilatutako José Caballero Orcolaga eta Pedro Caballero Insausti tradizionalisten familiakoa zen GPDko presidente berria.[955] SFVJUren sorreraren berria Madrilgo prentsaraino iritsi zenean, Donostiako berriemailearen bidez, J. M. Caballeroren «ejemplo de comprensión, de generosidad y de perdón y olvido» zinikoki goratu zuten. Erbesteko abertzaleei kontraeraso egiteko ere baliatu zuten aukera: «Los que han dicho y siguen diciendo que en el País vasco [sic] está prohibido hablar y escribir en vascuence van a sufrir una decepción» (*ABC* 1953-02-11; cf. 1966-07-08). EAJ-PNVren barnealdeko EBBk informazioa jaso eta agintari frankisten zurikeria salatu zuen:

Habrán leído en la prensa el discurso del Sr Caballero. Tal como se están poniendo las cosas cualquier día nos van a hablar en puro «jagi» estos señores. Lo cierto es que éste extraño movimiento es consecuencia de haber constatado que en lugar de debilitar han reforzado el sentimiento nacional vasco que desearon y pretendieron hacer desaparecer radicalmente. Veremos [hasta] dónde se atreven en la nueva orientación que están marcando. Por fin, se ha anunciado en la prensa

[955] Lehenengoa Tolosako alkate izan zen mendearen hasieran, eta bigarrena Errepublikan Autonomia Estatutuaren aurka nabarmendu zen Tolosako zinegotzi gisa (Rodríguez Ranz 1995; Barruso Barés 2006: 158-160; Errazkin Agirrezabala 2013: 84; Mees 2013: 471-475).

IKER-35.indd 364 2/9/19 10:56

el plazo para matricularse en la Escuela de Declamación Vasca, en cualquiera de los tres cursos que va a constar.[956]

1953ko maiatzaren 12ko GPDren batzarrak onartu egin zuen Educación, Deportes y Turismo sailak maiatzaren 7an prestatutako SFVJUren araudia. Horren arabera, euskaltzainburua (I. M. Echaide) sortzez SFVJUren patronatuko kide zen, beste instituzio batzuetako ordezkariekin batera: GPDko presidentea, patronatuko buru gisa; Educación, Deportes y Turismo saileko bi diputatu (M. Sagardía, R. Mendiola); Valladolideko Unibertsitateko errektorea eta zegokion fakultateko dekanoa; Donostiako «Peñaflorida» institutuko zuzendaria (J. M. Royo Villanova); *BRSVAP* aldizkariaren zuzendaria; eta GPDko artxibo zerbitzuaren zuzendaria (F. Arocena), patronatuko idazkari gisa. SFVJUren zuzendariak, bestalde, probintzia funtzionarioaren maila izango zuen, eta GPDk izendatu behar zuen oposizio bidez, filosofia eta letretako lizentziadunen artean (GPD 1954: 57-59; SFVJU 1955: 57-59).[957]

Bost hilabete igaro ziren mozioa aurkeztu zenetik araudia onartu zen arte, prozesu zaila izan zenaren seinale.[958] Valladolideko Unibertsitateak lotura organikoa onartu zuen 1953ko udan, baita barrutiz kanpoko ordezkaritza egokiagoa proposatu ere SFVJUren aholku batzordean: A. Tovar Salamancako errektorea. Urrian ikasturtea behar bezala hasteko guztiak bideratuta zirudienean, zuzendaria izendatzeko maniobrak porrot egin zuen.[959] Gipuzkoako zenbait agintarik eta euskaltzainek eta A. Tovarrek adostuta, L. Michelena abertzalea proposatu zuten posturako, baina bere aurrekari politikoengatik, betoa jarri zioten. Kolpe handia izan zen hura, 1946ko atxiloketa gogorarazi ziona, R. Piñeiro presondegiko adiskideari 1954ko Urteberri egunean adierazi zionez:

> Una de las razones de mi silencio ha sido que mis proyectos naufragaron lastimosamente. A pesar de que no podía quejarme de falta de apoyos, pues también intervino D. Antonio, lo único que tuvieron en cuenta fue un documento —mi ficha— que tuvieron la delicada atención de pedir a los organismos competentes. La segunda sorpresa, aunque la primera no fue tanta, fue que la provisión se hizo en una persona totalmente desconocida para mí y en general para todos —y

[956] SAF-AA: Barnealde eta erbesteko EBBen arteko komunikazioa, 1953-02-07, EBB-0377-1; cf. *Alderdi* 1953-02; 1953-04.

[957] KMK: I. M. Echaideren gutuna A. Irigarayri, 1954-07-14.

[958] KMK-JU: J. M. Caballeroren gutuna V. Olazábali, 1953-05-19.

[959] CCG-RP: L. Michelenaren gutunak R. Piñeirori, 1953-07-19 & 1953-08-22.

IKER-35.indd 365 2/9/19 10:56

cuenta que en el gremio no pasamos de cuatro gatos y medio—: un canónigo de nuestra nueva iglesia catedral. No voy a extenderme sobre el giro que han tomado las cosas, pues no necesita comentarios: todo ha quedado reducido a una clase elemental «para enseñar a los que no saben», o poco menos.

No te voy a ocultar que éste fue para mí el mayor disgusto desde la muerte de mi madre y creo que en intensidad no fue menor que el que me llevé cierta madrugada de Marzo, que ya recordarás, allá en Madrid. El estómago vaciló y las cosas se presentaron negras durante bastante tiempo. Luego me he repuesto, moral y físicamente —si los excesos de estos días no vuelven a trastornarme—, y ahora estoy como si tal cosa. Iré a Salamanca este año seguramente, pues Tovar está esperando a tener arreglado lo de los fondos para invitarme formalmente.[960]

Hain zuzen, SFVJUren araudia onartu eta ia sei hilabetera, 1953ko azaroaren 5ean, M. Sagardía diputatua buru zuen Educación, Deportes y Turismo sailak adabaki hutsa zirudien irizpena prestatu zuen. Ezin omen ziren zuzendaria hautatzeko araudiak eskatzen zituen oposizioak antolatu, prozesu osoak hastear zegoen 1953-1954ko ikasturtea baldintzatuko lukeelako. Konponbide gisa, José M.ª Urrutia elizgizona behin-behineko zuzendari izendatzea proposatu zuten, probintzia funtzionario mailarik gabe.[961] L. Michelenaz ezin esan zitekeena nabarmendu zuen irizpenak, Buen Pastor katedraleko kanonigoaz: «sus antecedentes políticos son de absoluta limpieza y no le inhabilitan para el ejercicio de una función que, por sus características especiales, es materia de recelos» (GPD 1954: 175). Ikasturte horretako SFVJUren 30.000 pezetako aurrekontua honela banatu zen: 12.000 pta. zuzendariarendako (batez ere abiatzear zeuden euskara eskolez ardura zedin) eta 18.000 pta. bestelako gastuetarako (hiztegi etimologikoa, onomastika fitxategia, atlas linguistikoa, etab.). 1953ko azaroaren 7an GPDren batzarrak irizpena onartu eta J. M. Urrutia SFVJUren behin-behineko zuzendari izendatu zuen (GPD 1954: 174-176).

Hautaketa prozesuak probintzian eragindako gorabehera politikoen erakusgarri, zuzendaritza berria zuten Donostiako egunkariek tratamendu ezberdina eman zioten izendapenari. J. M. Peñaren *El Diario Vasco* monarkikoa J.

---

[960] CCG-RP: L. Michelenaren gutunak R. Piñeirori, 1954-01-01.

[961] José M.ª Urrutia Salsamendi (1917-2008) Gipuzkoako Andoainen jaio zen. Gasteiz eta Comillasen eliza ikasketak egin ondoren, filosofia eta letretan lizentziatu zen Salamancan. 1943tik aurrera latin irakasle izan zen Gasteizko elizbarrutiaren seminarioan eta, 1953-1963 artean, Donostiako seminario berriko idazkari, eta latin eta euskarako irakasle. Buen Pastor katedraleko kanonigo zen, oposizio bidez, 1953ko uztailetik (Jose Angel Garro Donostiako Elizbarrutiko Artxibo eta Bibliotekako zuzendariaren komunikazio pertsonala, 2016-04-07; Antía Munduate 1999: 253).

IKER-35.indd 366 2/9/19 10:56

M. Caballeroren aldekoago ageri zen eta zuzendaritza behin-behinekoa zela nabarmendu zuen. J. Revuelta falangistaren *La Voz de España*k, ordea, ez zuen behin-behinekotasunik aipatu eta J. M. Urrutia bera elkarrizketatu zuen, fotografia eta guzti. J. Font katalana apezpiku zuen Donostiako elizbarrutiaren seminario berrian latina eta euskara irakasten zituen SFVJUko zuzendariak, Gipuzkoan euskarareriko giro zurruna aldatzen ari zenaren froga, agian F. Krutwigen erantzun hitzaldiak izandako urrutiko oihartzuna.[962] Hain zuzen, seminarioko ikasleekin dialektologia eta toponimia lantzeko asmoa omen zuen. Horretarako, A. Tovarren laguntza eskuratu nahi zuen, haren ikasle izandakoa baitzen Salamancan:

> Hice la carrera sacerdotal en Comillas, licenciándome en Filología y Teología. En el Seminario de Vitoria fui ocho años profesor de Latín y Griego. Mi especialidad es el griego. En la Universidad de Salamanca, con Tovar y Ramos Loscertales, cursé Filosofía y Letras, rama de Filología clásica, en la que soy doctor. Preparaba oposiciones a cátedras de griego, cuando me ha venido esto... (*La Voz de España* 1953-11-08).[963]

Erabakiak ezustean harrapatu zituen ia guztiak, baina euskaltzainburuordeak, noski, zorionak eman behar izan zizkion SFVJUko zuzendariari.[964] Betoaz den bezainbatean, L. Michelenak gero azaldu zuenez, J. M. Caballerok berak eman zion azalpena: «Si fuera un problema de mi empresa, apoyaría su nombre incondicionalmente. El problema reside en que el Seminario ha sido recibido ya con suspicacias en ciertos sectores; mantener su candidatura sería aumentar los recelos y poner en grave riesgo la vida del Seminario» (apud Ibarzabal 2001: 147). J. L. Banús *La Voz de España*ko zuzendariordeak ere nahigabea adierazi zion: «Me enteré —cómo no?— de lo del Seminario y creeme que lo he sentido, por ti y por el mismo Seminario. Ha sido una soberana torpeza».[965] A. Ibinagabeitiak ere, Parisko EJ-GEren berripaperean SFVJUren

[962] Donostiako elizbarrutian lehenengoz apaiztu zen 1951ko promozioko kide ospetsuak honela gogoratu zuen 1940ko hamarkadako euskararekiko giroa Gasteizko seminarioan: «No puedo decir que se persiguiera nuestra lengua vasca, sí que se barrió todo su cultivo y estudio y que, por miedo, quedaba relegada al trato íntimo: una limitación que en mí ha dejado importantes consecuencias» (Tellechea Idígoras 2003: 138).

[963] cf. *El Diario Vasco* 1953-11-08.

[964] KMK: I. M. Echaideren ofizioa J. M. Urrutiari, 1953-11-09.

[965] Koldo Mitxelena Kulturunea, Koldo Mitxelena funtsa: J. L. Banúsen gutuna L. Michelenari, 1953-12-05. Gutun hori L. Michelena eta N. Alzola «Anai Berriotxoa»ren arteko korrespondentzian dago.

IKER-35.indd 367 2/9/19 10:56

sorrera ordura arte errespetuz aipatu bazuen ere, protesta egin zuen izendapenaren beto politikoagatik:

> Aspaldi artu zuen Gipuzkoa'ko aldundiak seminario ori irikitzeko erabakia, euskera eta euskal philologia azter eta lantzeko. Orain berriki, seminario ortako zuzendaria izentatu dute, Donostiako apaiz gazte bat, Urrutia izenez. Euskalari artean ez genuen iaun orren izenik iñoiz ere entzun. Bear bada ixillean ariko zan nunbait, gure arloa lantzen. Ezagutzen genitun ordea euskalari ospetsuak Donostian bertan, toki ortarako autak, bat batez ere. Bañan nunbait, kutsuturik arkitu dute, Caballero jaunaren iauregiko iaunek... Or ere zeru imperi saindu artako agintariek belarritxoa erakusten dute, beti bezela (*Euzko Deya* 1953-12-01).

J. M. Urrutiaren euskara eskolak 1953ko azaroaren 16an hasi ziren probintzia liburutegian, hirurogei ikaslerekin (emakume gazteak barne, prentsak nabarmendu zuenez), eta matrikula abenduaren hasieran itxi zutenean, 137 ikasle zeuden, hiru mailatan banatuta.[966] J. Urquijoren bibliotekaz den bezainbatean, Educación, Deportes y Turismo sailak urriaren 22an emandako irizpenari jarraituta, GPDren batzarrak abenduaren 1ean 1.400.000 pezetako aurrekontu berezia onartu zuen, Gipuzkoako CAPi 1951ko udatik zor zitzaiona ordaindu eta probintzia jauregian gordailututa zeuden funtsez behin betiko jabetzeko (GPD 1954: 188-189). Izan ere, J. Urquijo zenaren biblioteka aberatsak ere ez zuen merezi adinako erabilerarik, F. Arocena GPDko artxibozainak prentsan interesatuki iradoki bezala:

> Bibliotecas parejas en importancia sobre el tema vasco, la de don José María Azcona, en Tafalla, y la de don Luis Lezama Leguizamón, esta última, por desgracia, destruída. Las otras dos, es decir, la de Urquijo y la de Azcona, resultan indispensables para conocer los arcanos del país, y son únicas en el Continente, pues la del príncipe Bonaparte está en Norteamérica, la de Do[d]gson olvidada y la de Lacombe dispersa (*La Voz de España* 1953-12-23).[967]

Nolanahi den, argi dago zenbait agintari politikok, J. M. Caballerorekin identifikatzen ez zirenak, ezezkoa eman ziotela L. Michelenaren hautagaitzari. Uste izatekoa da, zenbait diputatuz gain, T. Garicano Goñi gobernadore zibi-

---

[966] *El Diario Vasco* 1953-11-08; 1953-11-11; 1953-11-17; 1953-11-18; 1953-12-03; *La Voz de España* 1953-11-11; 1953-11-17; 1953-12-03.

[967] Nafarroako Tafallan jaiotako José M.ª Azcona Díaz de Rada (1882-1951) eskuindar aberatsaren biblioteka pribatua gaur egun Biblioteca de Navarra-n gordailutua dago. Espainiaren XIX. mendeko historia politiko eta militarrean berezitua, 8.500 lan eta 11.500 liburuki inguruz osatua dago (San Martín Casi 2016).

IKER-35.indd 368 2/9/19 10:56

lak eragin handia izan zukeela erabakian. Dena dela, Akademiak instituzio berrian pisu handia izaten jarraitzen zuen. I. M. Echaide, GPDko presidentearen aginduz, J. M. Urrutiarekin bildu zen SFVJUz hitz egiteko 1954ko urtarrilaren 28an.[968] Euskaltzainburuordeak elkarrizketaz J. M. Caballerori idatzitako gutunean, zurikeriak gorabehera, nabari da J. M. Urrutiak ezustean eta fede gutxirekin jaso zuela zuzendari izendapena, L. Michelenaren hautagaitzak porrot egin ostean:

> Le ví muy animado respecto de los asuntos del Seminario. Parece que va sintiendo entusiasmo por esta obra. Inútil es decir que lo animé mucho; y es que realmente creo que el Seminario tiene una importancia extraordinaria y va a ser el más firme puntal del vascuence. En la primera entrevista con el Sr. Urrutia hablamos en castellano; pero ayer, como es costumbre en las charlas, solamente hablamos en vascuence y pude notar con agrado que habla un vascuence fluido, sencillo, correcto y elegante.[969]

I. M. Echaidek, azken finean, Euskaltzaindiaren Donostiako ordezkaritza eta SFVJU gauza beratzat jotzen zituen. 1954ko urte amaieran erretiroa hartu zuen, eta probintzia jauregiko solairu nagusian zuen bulegoan kokatu nahi zuen bi erakundeon ordezkaritza bateratua.[970] SFVJUri zegokion aurrekontuaren zati bat Akademiari emateko itxaropena zuen, GPDko kontu hartzaileari adierazi zionez: «*Uno es el que siembr*[*a*] *y otro el que siega*, dice el Evangelio. Yo me alegraría de que el *Seminario Julio Urquijo* obtuviera abundante cosecha. Si la Academia tiene su pequeña parte en ella, miel sobre hojuelas».[971] Erretiroa hartzear zegoen probintzia ingeniaria, A. Elorriaga aurreko presidentearekin harreman txarra izandakoa, pozez beterik agertzen zen, GPDren laguntza ofizialarekin euskararen alde gizartean egin zitekeen lanarekin. Bide batez erbesteko EJ-GEren eta EAJ-PNVren kritikak isildu nahirik:

> A pesar de mis muchos años (no quiero estampar la cifra, por no asustarle) tengo entusiasmos juveniles y un empeño decidido a poner la Academia y, más si cabe, el Seminario «Julio Urquijo» a una gran altura. No hay que regatearles medios. Hacer vascuence es más importante que hacer carreteras. Sin éstas se puede vivir (un poco peor); pero si el espíritu de la raza se hunde, la catástrofe es pavorosa e irreme-

[968] KMK: I. M. Echaideren ofizioa J. M. Urrutiari, 1954-01-28.

[969] KMK: I. M. Echaideren gutuna J. M. Caballerori, 1954-01-29. Aniceto Zugasti Donostiako katedraleko benefiziodunak A. Yturriagaz (1778-1851) GPDko bibliotekan emandako hitzaldiaren harira bildu ziren (cf. Zugasti 1955-1956).

[970] KMK: I. M. Echaideren gutuna A. Irigarayri, 1954-07-14.

[971] KMK: I. M. Echaideren gutuna L. Ezcurdiari, 1954-07-14.

IKER-35.indd 369 2/9/19 10:56

diable. Ya ve Vd. que los que somos «euskalerrizales» tenemos tanto y más entusiasmo por lo vasco que los «euzkadizales» con sus buenas dos zedas.[972]

L. Michelenak, hisiaz, gordinago adierazi zion R. Piñeiro adiskideari zein zen egoera etsigarria: «Lo del Seminario no ha sido ningún éxito, desde ningún punto de vista, y su ocupante debe andar bastante desanimado».[973] L. Michelenak 1954ko otsailaren 18an eta 21ean hitzaldi bana eman zuen Gipuzkoako CAPen egoitzan, Grupo de Ciencias «Aranzadi»k antolatuta, eta frantziskotarren Arantzazuko santutegian, Gipuzkoako euskaltzainaren eragin intelektuala gero eta gehiago hedatzen ari baitzen (cf. Villasante 1954a).[974] «Problemas teóricos y prácticos de la lingüística vasca» hitzaldi samina RSVAPen *Munibe* zientzia gehigarrian argitaratu zen urte berean. Linguistikaren autonomiaren aldeko eta amateurismoaren kontrako aldarria zen, bere burua erreibindikatu nahi zuen goi mailako filologo baten haserrea. Kontuan hartu behar da formazio linguistiko aldetik, bera zela zalantzarik gabe tokiko lagunik gaituena, A. Tovarren edota R. Lafonen lantokiak Euskal Herritik kanpo baitzeuden. Hitzaldian I. M. Echaide bezalakoen arinkeriak kritikatzera ausartu zen, seguru asko SFVJUko hautagaitzaren porrotak minduta (Michelena 2011c: 343-364).[975]

Arazo horien ondorioz, 1954ko udan SFVJU itopuntuan zegoen, 1953ko araudiak ezarritakoa ezin beteta. Patronatua nominala zen; Valladolideko Unibertsitateak ez zuen inolako lotura praktikorik erakundearekin. J. M. Urrutia zuzendariak ere ezin zuen aurreikusitako ikerketa lanik burutu, hain zuzen, L. Michelenaren ohi ez bezalako gaitasunendako «ad hoc» diseinatutako postua zelako. Esan bezala, 1953-1954 ikasturtean, 137 lagunek eman zuten izena euskara ikasteko eskoletan, Círculo Cultural Guipuzcoano-ren eskolekiko eta «Escuela Municipal de Lengua y Declamación Vasca»rekiko nolabaiteko konkurrentzian. Ikerketa lanak eta ikasle kopuruak gaindituta, GPDko bibliotekan euskara eskolak ematera mugatu zen J. M. Urrutia. Lan horregatik, hiruhileko 4.000 pezetako soldata jasotzen zuen elizgizonak.[976]

1954ko udaberrian bi astez ordezkatu behar izan zuen N. Echániz apaizaren arabera, ikasleak etsita zeuden, SFVJUko euskara eskoletako irakaslea sarri gaixo-

[972] KMK: I. M. Echaideren gutuna A. Arrueri, 1954-07-24.

[973] CCG-RP: L. Michelenaren gutuna R. Piñeirori, [1954-01-24].

[974] ABA-EUS: L. Michelenaren gutunak L. Villasanteri, 1954-02-09 & 1954-04-04.

[975] CCG-RP: L. Michelenaren gutuna R. Piñeirori, [1954-02-21].

[976] KMK: I. M. Echaideren gutuna J. M. Caballerori, SFVJUrako plangintza eta dekretu zirriborroa, 1954-09-16.

IKER-35.indd 370 2/9/19 10:56

tzen zelako.[977] I. M. Echaideren ustez, zuzendaritzan ordezko egokia hautatu behar zen. Araudiak aipatzen zuen «Comité de Estudios» delakoa ere sortu gabe zegoen. A. Arrue abokatua uztailean bildu zen adiskide zuen J. M. Caballerorekin SFVJUz hitz egiteko.[978] Abuztuan I. M. Echaide eta A. Arruerekin bildu ondoren, GPDko presidentea prest zegoen 100.000 pezetako aurrekontua onartu eta L. Michelena SFVJUn nolabait integratzeko. A. Irigaray euskaltzainak berrargitaratu nahi zituen euskal literaturaren «klasikoak» ere ontzat ematen zituen.[979]

Antonio Arrue Gipuzkoako buruzagi «falcondista»k, GPDko presidentearen eta euskaltzainburuordearen onespenarekin, gero eta eragin handiagoa zuen proiektu hauetan. A. Arrueren ustez, J. M. Urrutiak jarraitu behar zuen SFVJUko behin-behineko zuzendari nominala izaten. «Comité de Estudios» delakoan, bere buruaz gain, beste kide hauek sartu nahi zituen: J. Elorza, J. Yrizar, Conde de Peñaflorida eta A. Irigaray.[980] Nabari zen Gipuzkoaz kanpoko eraginak saihesteko nahia, Valladolideko Unibertsitateak 1953ko udan proposatutako A. Tovarren ordezkaritza aipatzen ez zutelako. I. M. Echaide, jarduneko euskaltzainburu gisa, patronatuko kide zen. Bestalde, soldatapeko euskara irakasle bat eta ikerketa zuzendari bat (L. Michelena) izendatzea proposatzen zuen.[981] Baina horrek guztiak nolabait 1953ko araudia aldatzea zekarren, eta GPDko presidenteak ez zuen horretan sartu nahi.[982]

Nolanahi den, I. M. Echaidek abuztuaren 20an gutun luze bat idatzi zion J. M. Caballerori, formalki aurkezteko A. Arruerekin adostutako lehen proposamena, eta era berean, L. Michelenak, A. Irigarayren laguntzarekin, prestatutako lan plangintza: ediziogintza filologikoa (esku artean zituzten N. Landuchioren 1562ko hiztegia eta J. Beriaynen 1626ko katixima), lexikografia, atlas linguistikoa, onomastika, trebakuntza ikastaroak edota unibertsitate mailako elkarlana. Euskaltzainburuordeak urteko 18.000 pezetako soldata proposatu zuen L. Michelenarentzat. Bereziki euskararen gizarte sustapenean, SFVJU eta Akademiaren arteko elkarlana indartzeko aukera ikusten zuen.[983]

---

977 ABA-AIB: N. Echánizen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1954-04-22.

978 KMK: I. M. Echaideren gutuna A. Arrueri, 1954-07-28.

979 KMK: I. M. Echaideren gutuna A. Irigarayri, 1954-08-04.

980 J. Elorzak ez zuen gerra zibil aurreko protagonismo politikorik, baina probintzian pertsona ospetsua izaten jarraitzen zuen. Esaterako, 1955eko maiatzean Gipuzkoako CAPen batzordeko kide izendatu zuten (GPD 1956: 113).

981 KMK: A. Arrueren gutuna I. M. Echaideri, 1954-08-13.

982 KMK: I. M. Echaideren gutuna A. Arrueri, 1954-08-14.

983 KMK: I. M. Echaideren gutuna J. M. Caballerori, 1954-08-20.

IKER-35.indd 371 2/9/19 10:56

Aipatutako beste hirurekin adostuta, I. M. Echaidek irailean gutun formala idatzi zion GPDko presidenteari, SFVJUren etorkizuneko plangintzarekin eta 1953ko araudia aldatzeko dekretu egitasmoarekin. 1953-1954 ikasturteko euskara ikastaro arruntak alde batera utzi, eta ikerketa zientifikoa indartu nahi zuen, L. Michelenak zehaztutako bidetik.[984] Irailaren 18an, GPDko presidentea eta idazkaria bildu ziren euskaltzainburuordearekin. J. M. Caballero eta M. Ciriquiainek ez zuten araudirik aldatu nahi, funtsean gauzatu gabe jarraitzen zuelako. Onartzen zuten hautatutako zuzendaria ez zela egokia, eta aholku batzorde bat osatzeko prest zeuden, behin-behinean zuzendaritza lanak egiteko, euskaltzainburuordeak azken gutunean proposatutako hainbat kiderekin: I. M. Echaide bera, R. Mendiola diputatua, J. Yrizar arkitektoa eta A. Irigaray.

Era berean, SFVJUren ikasturte berriari solemnitatea eman nahi zioten, euskaltzainburuordeak aipatutako K. Boudaren hitzaldiekin. Alemaniako linguistak distira politikoki orbangabea (seguru asko A. Tovarren bermearekin) ematen zion egitasmoari, Gipuzkoako agintarien ustez. SFVJUren ikerketa lana indartzeko prest agertu arren, GPDko agintariek ez zuten euskara ikastaroak baztertzeko asmorik, eta J. M. Urrutia SFVJUko euskara katedradun izendatu nahi zuten.[985] J. M. Caballero eta M. Ciriquiainek adierazitako baldintzak gehituta, proposamen berria bidali zuen euskaltzainburuordeak, aurrekoa jaso gabekotzat jo baitzen.[986] L. Michelenak ordurako aurreratuta zituen hainbat egitasmoren bidetik, hauek ziren SFVJUko ikerketa filologikoen zuzendariari esleitu nahi zitzaizkion eginkizunak:

- Publicación de cuatro textos antiguos de interés científico en el BRSVAP.
- Publicación del Diccionario de Landuchio (1562) en Salamanca.
- Recogida de microfilms de impresos y manuscritos para la Biblioteca de la Diputación.
- Puesta en limpio de los materiales Roncaleses recogidos ya en magnetofón e impresión en discos.
- Preparación de una campaña de recogida de primavera o verano en Salazar, Roncal u otro lugar apropiado.
- Recogida de materiales Iruneses, en invierno, para la tésis de Mas.[987]

---

[984] KMK: I. M. Echaideren gutuna J. M. Caballerori, SFVJUrako plangintza eta dekretu egitasmoa, 1954-09-16.

[985] KMK: [M. Ciriquiainen] idazkia I. M. Echaideri, 1954-09-18.

[986] KMK: I. M. Echaideren gutuna J. M. Caballerori, SFVJUrako plangintza eta dekretu egitasmoa, 1954-09-20.

[987] Emilio Mas tesia Salamancan burutzen saiatu zen, A. Tovar errektorearen bidez, baina badirudi Irungo *El Bidasoa* astekarian tokiko dialektoaz artikuluak idaztera mugatu zela. Dena

IKER-35.indd 372 2/9/19 10:56

– Preparación de fichero de léxico durante el curso 1954-55; mil a 2.000 papeletas.
– Preparación de una encuesta (250 a 500 preguntas) lingüística en el país para Navidad.
– Preparación de dos trabajos sobre onomástica para el Congreso Internacional Onomástico de abril próximo.
– Tésis doctoral sobre Fonética Histórica Vasca.[988]
– Cursillos dados por vascólogos de reconocido prestigio.
– Cursillos de verano de introducción a estudios sobre la lengua vasca.
– Publicación de una antología de textos en prosa.
– Fomento de la apertura en la Provincia de escuelas de lengua y literatura vascas.[989]

GPDko presidenteak euskaltzainburuordearen azken proposamena onartu egin zuen. Fiteroko bainuetxean zegoen J. M. Caballeroren aginduz, irailaren 25ean probintzia jauregian batzartu ziren lagun hauek: M. Sagardía GPDko presidenteordea, R. Mendiola, I. M. Echaide, F. Arocena eta F. Juaristi idazkari lanak egiten. Francisco Juaristi A. Arruerekin batera probintziako Junta de Guerra Carlista-n ibilitakoa zen, eta GPDko funtzionario gisa, J. Urquijoren bibliotekaren erosketan parte hartutakoa. F. Juaristik, GPDren eskumenak babestu nahian, I. M. Echaideren asmoak geldiarazi nahi izan zituen; Educación, Deportes y Turismo sailak berariazko irizpena egin arte.[990]

Dena dela, GPDko artxibozainak adierazi zuen J. M. Urrutiak ez zuela euskara irakasle izaten jarraitzeko asmorik. F. Arocenari eskatu zioten Buen Pastor-eko kanonigoarekin hitz egitea, erabakian atzera egin zezan. Bestalde,

---

dela, A. Tovarren euskal hiztegi etimologikoaren egitasmoan parte hartu zuen (Salamancako Unibertsitatearen Artxiboa, Antonio Tovar funtsa: E. Masen gutunak A. Tovarri, 1955-02-10 & 1955-02-23; Elósegui Irazusta 1970; Agud & Tovar 1989-1994).

988 L. Michelenak 1954ko Urteberrian hartu zuen tesia euskal fonetika historikoaz egiteko asmo sendoa, R. Menéndez Pidalek gaztelaniarekin egin zuen bezala, euskal gramatika historikoa burutzeko oinarri gisa (CCG-RP: L. Michelenaren gutuna R. Piñeirori, 1954-01-01/1954-01-24).

989 KMK: I. M. Echaideren gutuna J. M. Caballerori, 1954-09-20. Azken bi puntuak A. Irigarayren eta A. Arrueren iradokizunak ziren, hurrenez hurren (KMK: A. Arrueren eta L. Michelenaren gutunak I. M. Echaideri, 1954-09-11 & 1954-09-12).

990 KMK: I. M. Echaideren gutuna J. M. Caballerori, 1954-09-21. GPDren batzorde kudeatzaile matxinoak F. Juaristi 1936ko urriaren 28an berriz onartu zuen lanpostuan, baina hiru hileko kartzela zigorra ere ezarri zioten, seguru asko FET-JONSen alderdi bateratzea ez onartzeagatik (Martorell 2011: 856; Buces & Querejeta 2016: 110-111).

IKER-35.indd 373 2/9/19 10:56

L. Michelena SFVJUko literatura irakasle izendatu nahi zuten, urteko azken hiruhileko soldata gisa 2.000 pta. kobratuta. Bi hautagaiok ezezkoa emanez gero, ordezko egokiak bilatu behar ziren. Azkenik, ikasturte berria irekitzeko, K. Boudak lehenbailehen hiru hitzaldi ematea erabaki zuten.[991] Urriaren 9an, GPDko presidentea, R. Mendiola, F. Arocena, I. M. Echaide eta M. Ciriquiain batzartu ziren. J. M. Caballerok erabaki hauek hartu zituen:

– SFVJUren aholku batzordea dekretuz sortzea, GPDko presidentea mintegiaren zuzendari izendatuta.
– J. M. Urrutiak behin eta berriz adierazitako nahiari jarraituta, hura SFVJUko zuzendari karguaz gabetzea.
– 1954-1955 ikasturtearen irekiera ekitaldia azaroaren 3an egitea, probintziako agintariak gonbidatuta.
– I. M. Echaidek hasieratik proposatu bezala, K. Boudari 3.500 pta. ordaintzea irekiera ikastaroaren truke.

Bestalde, probintzia jauregian eraberritze lanak egingo zituztenez, 2.000.000 pezetako aurrekontuarekin, ez zen arazorik egongo SFVJUren bulegoa behar bezala atontzeko.[992] Batzarrak zalantzak zituen euskal hizkuntza eta literaturako ikastaroek izan zezaketen arrakastaz, baina horren inguruko erabakiak behin betiko aholku batzordearen esku uztea eskatu zuen I. M. Echaidek.[993] Urriaren 11n sortu zuten SFVJUren zuzendaritzaz arduratu zen aholku batzordea: GPDko presidentea, Educación Deportes y Turismo-ko sailburua, I. M. Echaide, A. Arrue, R. Mendiola, A. Irigaray eta J. Yrizar (SFVJU 1955: 10). Biharamunean Movimiento Nacional-aren Donostiako egunkariak berri luze bat argitaratu zuen, F. Arocena eta J. Arteche funtzionarioen fotografia eta guzti, GPDko bibliotekaren funts aberatsak goratzeko: «La mejor Biblioteca de Lengua Vasca la tiene la Diputación de Guipúzcoa: está formada por el fondo Aizkibel, el legado Allende-Salazar y el fondo Urquijo» (*Unidad* 1954-10-12).

SFVJUren aholku batzordea lehen aldiz batzartu zen GPDko jauregian urriaren 14an: J. M. Caballero, R. Mendiola, I. M. Echaide, A. Irigaray eta A. Arrue. J. Yrizarrek ezin izan zuen etorri. Batzarrean parte hartu zuten, halaber, beste hiru lagunek: M. Ciriquiain, F. Arocena eta F. Juaristik. GPDko presidentearen ekimenez, euskara eta literatura ikastaroak bateratu egin ziren, osa-

[991] KMK: SFVJUren behin-behineko aholku batzordearen akta, 1954-09-25.

[992] CAPen bulegoak «Guipúzcoa» plazatik «Garibay» kalera aldatu ondoren, gela asko hutsik zituen jauregian erreformak egitea erabaki zuten 1948an, baina probintzia arkitektoaren proiektua ez zuten 1953ko abenduaren 1era arte onartu (GPD 1954: 199-200).

[993] KMK: SFVJUren behin-behineko aholku batzordearen akta, 1954-10-09.

IKER-35.indd 374 2/9/19 10:56

garrizko hitzaldiekin. J. M. Caballerok, halaber, ikasleei matrikularik ez kobratzea, eta ikastaro amaieran gaitasun tituluren bat ematea erabaki zuen. Ikastaroak eta ikasturte hasierako ekitaldi solemnea prentsan iragarriko zituzten. Euskara eta literatura irakasletzarako SFVJUren aholku batzordeko kiderik ez hautatzea erabaki zuten. Hizkuntza irakasteko hautagai gisa Juana Forcada, Nemesio Echániz apaiza eta Milagros Bidegain aipatu zituzten; baina J. M. Caballero eta A. Arrueren esku utzi zuten GPDko bibliotekan emango ziren eskoletarako irakasleak izendatzea.[994]

Bestalde, ikasketa filologikoen arduradunaren kargua sortzea erabaki zuten, L. Michelena zela hautagai bakarra. Zuzendari izena ematea ez zuten egoki ikusi, zuzendari bakarra GPDko presidentea zelako, eta «asesor técnico de estudios filológicos» terminoa erabiltzea erabaki zuten. Hileko 1.500 pezetako soldata izan zuen, eta J. M. Caballerok berak hitz egin zuen L. Michelenarekin xehetasunak argitzeko. Azkenik, I. M. Echaide arduratu zen beharrezko inprimakien zerrenda eta bulegoko egokitzeak zehazteaz.[995] Hain zuzen, SFVJUren 1954-1955 ikasturterako, euskaltzainburuordeak 100.000 pezetako aurrekontua prestatu zuen: 60.000 pta. langile gastuetarako, 25.000 pta. argitalpen gastuetarako eta 15.000 pta. material gastuetarako.[996] I. M. Echaidek, halaber, K. Boudaren bibliografia labur bat zerrendatu zuen, irekiera ekitaldiari begira.[997]

Euskara irakasleari dagokionez, hautagaiez informazioa biltzeaz arduratu ziren. Horietako bat M.ª Isabel Ormazábal izan zen, GPDko funtzionarioen alaba eta emaztea. Filosofia eta letretan lizentziaduna eta, prestatutako dosierraren arabera, erregimenaren aldekoa zen.[998] SFVJUk eragin zituen tirabira politikoen erakusgarri, zenbait diputatuk Jon Echaide abertzalea proposatu zuten euskara irakasle izateko, baina GPDko presidenteak betoa jarri zion. Euskaltzainburuordearen semeak berak azaldu zuen zergatik: «Aditzea dudanez, falanjisten presioak eta *kutsadura gaizto gabeko* bere patriotismo español iñork zalantzan jar zezakeen kezkak, eragin zioten neurri *premiatsu* hau hartzera» (Etxaide-Itharte 1986: 212). Azkenean, Milagros Bidegain (1922-2006) filosofia eta letretan lizentziaduna izendatu zuten J. M. Caballero eta A.

---

[994] KMK: SFVJUren aholku batzordearen akta, 1954-10-14.

[995] KMK: SFVJUren aholku batzordearen akta, 1954-10-14.

[996] KMK: I. M. Echaideren gutuna J. M. Caballerori, 1954-10-20.

[997] J. Urquijok zuzendutako *RIEV*eko lankide ohia zen 1930eko hamarkadatik K. Bouda. Akademiak 1954ko irailean Donostian egindako batzarrean ere parte hartu zuen (KMK: I. M. Echaideren gutuna F. Arocenari, 1954-10-22; Euskaltzaindia 1982: 40).

[998] KMK: Dosier anonimoa M. I. Ormazábal Arzuagaz, 1954-10-30.

IKER-35.indd 375 2/9/19 10:56

Arruek.[999] Horrek R. Mendiola integristaren protesta eragin zuen, agian berak J. Echaideren alde egin zuelako.[1000] Dena dela, Elvira Zipitria (Círculo Cultural Guipuzcoano), M.ª Dolores Aguirre (Escuela Municipal de Lengua y Declamación Vasca) eta Milagros Bidegain (SFVJU) helduen alfabetatzaileen inguruan, gerraondoan emakumeen gutxieneko agerikotasuna berreskuratu zen Gipuzkoako euskararen aldeko ekintza publikoetan.[1001]

Horrela bada, SFVJU ofizialki sortu eta ia bi urtera, 1954ko azaroaren 3an, egin zen inaugurazio solemnea probintzia jauregian. Ekitaldiko mahaiburuak J. M. Caballero, M. Sagardía, R. Mendiola, E. Laborde, I. M. Echaide, Marqués de Aycinena eta A. Arrue izan ziren. R. Mendiolak, institutu katedradun gisa, Hezkuntza Nazionaleko ministerioaren ordezkaritza bete arren, bistan dago gobernu mailako karguen absentzia. GPDko presidenteak bere hitzaldian euskararen atzerakada deitoratzeaz gain, SFVJUren espainolismo frankista orbangabea berriz nabarmendu behar izan zuen:

> Esta forma de pensar y de actuar es el mayor mentís que podemas ofrecer a cuantos nos critican, con mala intención o ignorancia supina, nuestra política vasquista. Conocedores de la Historia de España no olvidamos que las regiones españolas tienen costumbres, modalidades o formas de ser distintas, lo que origina su variedad, hallándose su unidad en la fe, creencias y gloriosa historia que nos sirve de indestructible aglutinante. Resucitando cuanto nos es propio y privativo, hoy el vascuence, más adelante otras facetas y particularidades de nuestra manera de ser, prestamos un magnífico esfuerzo a la vida cultural de la Patria, en pleno resurgir espiritual bajo el mandato de nuestro Jefe del Estado, el Generalísimo Franco (apud SFVJU 1955: 16).

Euskaltzainburuordearen aurkezpenaren ondoren, K. Boudak frantsesez eman zuen bere ikastaroko lehen hitzaldia, atzerriko euskalariez. Erlangen-go Unibertsitateko irakasleak agur hitzak euskaraz esan zituen, agian gerra zibiletik probintzia jauregiko ekitaldi publiko batean entzundako lehenak.

---

[999] M. Bidegain eta L. Michelenak elkar ezagutu zuten Irungo akademia pribatuan 1951n. F. Arocenak erretiroa hartu ondoren, M. Bidegainek 1967ko abenduan GPDko artxibozain-bibliotekari postua eskuratu zuen oposizio bidez (Lasarte 2008).

[1000] KMK: I. M. Echaideren gutunak R. Mendiolari eta A. Arrueri, 1954-11-18 & 1954-11-19.

[1001] GPDren ekimenez, M. Bidegainek eta M. D. Aguirrek 1949ko abendutik parte hartzen zuten Radio San Sebastián-etik astean behin baserritarrei zuzendutako euskarazko emanaldietan, I. Munita apaizaren *Gure mendi ta oianak* (1952) liburuaren gisako edukiekin (*La Voz de España* 1952-10-25; Urkia Etxabe 2006: 23-25).

IKER-35.indd 376 2/9/19 10:56

Hurrengo egunetan, hiru hitzaldi eman zituen «kaukasiar» hipotesiaz.[1002] L. Michelenaren iritziaren aurka emandako hitzaldiak izan ziren, noski: «lo de las etimologías vasco-caucásicas ya me va resultando cargante: es por lo visto una cuestión de fe, que yo por suerte o por desgracia no poseo, y resulta molesto tenerse que tragar aparentemente enormes ruedas de molino porque no parece cortés ponerse a discutir».[1003] I. M. Echaide integristak, aldiz, euskararen bazterketa azaltzeko, arrazoi politikoak isilarazi eta garapen sozioekonomikoak gizarte psikologian eragindako aldaketan jarri zuen arreta:

> No en vano somos hijos de esta generación frívola y, pese a las apariencias, vulgar, que ha arrinconado las carrozas antiguas y se extasía ante las horrendas «carrocerías» impuestas por el infantil gusto americano, eso sí, chorreantes de cromado y barniz a pistola, fabricadas... ¡en serie! ¡Y luego se tendrá una piadosa sonrisa para los pobres indios de América e indígenas de Oceanía que cambiaban su oro por cuentas de cristal! (apud SFVJU 1955: 21).[1004]

6.3. **GIPUZKOAKO PROBINTZIA BIBLIOTEKAKO HITZALDIAK**

GPDrekiko harreman ofizialetarako I. M. Echaide jarduneko euskaltzainburu gisa agertu arren, Akademia Gipuzkoan abiatzen ari zen zenbait egitasmoren egile intelektuala A. Irigaray izan zen. Gerra zibilean arrisku bizian egon ondoren, Nafarroako medikuak hari-harian ikasi zuen bere abertzaletasunaren eta diktadurak mugatzen zuen posibilismoaren artean ibiltzen: esanguratsua da nola mozorrotu zuen bere ohiko «Irigaray» deitura «Yrigaray» grafia arkaistarekin, adibidez. Bera eta euskaltzainburuordea J. M. Caballero presidentearekin bildu ondoren, I. M. Echaideri idatzi zion GPDren laguntzarekin «charlas literarias» direlakoak antolatzeari buruz. A. Irigarayk dozena bat lagun bildu nahi zituen hilero euskal literaturaz eta filologiaz hitz egiteko.[1005] Ideia aspaldikoa zen, L. Villasanteren sarrera hitzaldia irakurri eta *BRSVAP*en argitaratu zenekoa. Bizkaian zeuden tirabirak alde batera utzita, Gipuzkoan euskararen aldeko giroa suspertu nahi zuen instantzia ofizialetan.

[1002] *El Diario Vasco* 1954-11-03; 1954-11-04; 1954-11-05; *Unidad* 1954-11-04; *La Voz de España* 1954-11-04; 1954-11-05. K. Bouda berehala Frantziara abiatu zen, R. Lafonekin Société de Linguistique de Paris-en parte hartzeko (Barandiaran Irizar 1995: 15).

[1003] CCG-RP: L. Michelenaren gutuna R. Piñeirori, 1954-11-02.

[1004] SFVJUk hitzaldiak argitaratu zituenean, irekiera ekitaldia urriaren 8an izan zela adierazi zuten, baina datu okerra da (cf. SFVJU 1955: 10).

[1005] ABA-EUS: A. Irigarayren gutuna I. M. Echaideri, 1953-03-14.

IKER-35.indd 377 2/9/19 10:56

1952ko azaroan frantziskotarrari idatzi zion J. Etcheberri Sarakoaren bizitza eta lanaz hitzaldi bat presta zezan, Aro Modernoko euskara literario hori jendaurrean aurkezteko asmoarekin. Halaber, J. Urquijoren omenezko hitzak ere eskatu zizkion, haren izenean egitasmoren bat abiatzear zenaren froga.[1006]

1953ko martxoan, A. Irigarayk ohar batzuk bidali zizkion I. M. Echaideri SFVJU sortu berriaren egitekoez, GPDko presidenteari aurkezteko asmoarekin. Euskaltzainaren ustez, SFVJUn bi sail ongi bereizi behar ziren, aurrekontu banarekin, bata ikerketa filologikoari zegokiona eta bestea euskal literaturari, nolabait Akademiaren «ikerleen» eta «yagoleen» sailak emulatuta. Antzematen da ikerketa, izenik aipatu gabe, L. Michelenaren esku uzten zuela eta bera agertzen zela literatura sailaren arduradun. Bigarren sail horretarako hiru proposamen zehatz egin zituen, bere aspaldiko kezka zirenak:

– Prosa literarioko lehiaketak antolatu eta sariak banatzea. Eliza testuetatik harago, irakurleak erakartzeko bestelako gaiak eta generoak landu nahi zituen: folklore narrazioak, itzulpenak, nobela laburrak edota teatro lanak.
– Bizimodu modernora egokitutako gaztelania-euskara hiztegi txikia argitaratzea. Euskaltzaindiaren gaztelania-euskara hiztegi handia mementoz alde batera uzten zuen, agian ikerketa sailari zegokiolako.
– Euskal testu klasikoen edizioak oharrekin argitaratzea, grafia eguneratuta: B. Dechepare, P. Axular, J. Etcheberri, S. Pouvreau, E. Materre (OFM) edota A. Oihenart. Bistan da Frantziako euskal literatura zaharraren ezagutza sustatu nahi zuela Espainiako euskal irakurle eta idazleen artean. Era berean, 1596ko *Refranes y sentencias* bezalako atsotitz liburuak ere argitaratu nahi zituen. Horretarako, J. Urquijo zenaren bibliotekako funtsak erabiliz, noski. Azken finean, J. Urquijok 1936 arte *RIEV*en egindako lanaren garapena zen hura.[1007]

I. M. Echaidek berehala erantzun zion, GPDko presidenteari bidalitako zorion mezuan ez bezala, horrelako proposamena egiteko formak gorde behar zirela, eta hobe zela Akademiaren batzarrean gaia eztabaidatu lehendabizi. «Charlas literarias» direlakoez bat zetorren funtsean, baina GPDko presidentearekin ordez, M. Ciriquiain idazkariarekin hitz egin nahi zuen antolaketaz eta bereziki gonbidatuak aukeratzeaz. Nolanahi den, medikuari uzten zion ekimenaren ardura.[1008] Euskaltzainburuordeak berehala Bilboko idazkariari

[1006] ABA-EUS: A. Irigarayren gutuna L. Villasanteri, 1952-11-05.
[1007] ABA-EUS: A. Irigarayren «Instituto Julio Urquijo» idazkia, [1953-03-14].
[1008] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna A. Irigarayri, 1953-03-16.

IKER-35.indd 378 2/9/19 10:56

idatzi zion, A. Irigarayrekiko korrespondentziaren kopiekin. Hurrengo batzarraren gai ordenan sartu nahi zuen SFVJU eta Akademiaren arteko harremana zehaztea, A. Irigarayren proposamenetan oinarrituta.[1009]

1953ko martxoaren 20an, euskaltzainburuordea, A. Irigaray, M. Lecuona eta F. Arocena bildu ziren SFVJUko hitzaldiez aritzeko.[1010] GPDko funtzionarioek ez zuten eragozpenik jarri laguntza emateko, baina hitzaldien ardura nagusia Euskaltzaindiarengan jarri zuten. Hala ere, SFVJUren jarduera normaldu ondoren, bi erakundeak agertu ziren hitzaldion antolatzaile. Lehendabiziko literatura hitzaldia L. Villasantek eman zuen 1953ko martxoaren 26an J. Urquijoren bibliotekako aretoan, probintzia jauregiko lehen solairuan. Aurkezpenean, I. M. Echaide eta A. Irigarayk hitzaldion asmoa agertu zieten entzuleei (RSVAP 1953b). Frantziskotarrak 1952ko abendutik prest zuen hitzaldia. J. Urquijoren 1907ko *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri (1712)* liburuan oinarrituta, XVIII. mendeko egilearen bizitza eta lanaz aritu zen. Bilboko sarrera hitzaldiaren bidetik, lapurtera klasikoari eutsi zion Donostiako azalpenean ere, eta hori arrotz izan behar zitzaien gerturaturikoei. Akademiako sarrera hitzaldia bezalaxe, *BRSVAP*en argitaratu zen, «Euskaltzaindia-ren lanak» atalean.

Aro Modernoko euskal literaturaren aldeko giro bat sortu nahi zen, euskara estandar baten oinarri izan zitekeelako. Bilbon zapuztuta eta noraezean geratutako lapurterazaleak ere erakartzen saiatu ziren. Hitzaldiaren ondoren, J. Etcheberri Sarakoaren zati aukeratuak irakurri eta entzuleek zenbait galdera egin zituzten.[1011] Izan ere, euskaltzainen hizkuntza egitasmoari frankismo ofizialaren kutsua kendu nahiz, erbesteko argitalpenetan A. M. Labayen, A. Ibinagabeitia eta P. Lafittek XVIII. mendeko idazleari egindako laudorioak aipatu zituen hizlariak (Villasante 1953a).[1012] Ekitaldian, A. Irigarayk GPDko presidentearen laguntza eskertzeaz gain, Akademiaren asmoez eta egoeraz zenbait berri eman zituen:

[1009] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-03-17.

[1010] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-03-20.

[1011] Kolaborazionismo salaketak saihesteko, A. Ibinagabeitiarekin korrespondentzian hasi zen A. Irigaray eta Euskaltzaindiaren asmoen berri azaldu zion zuhurtzia handiz (ABA-AIB: A. Irigarayren gutuna A. Ibinagabeitiari, 1953-04-20).

[1012] ABA-EUS: E. Erquiagaren gutuna L. Villasanteri, 1953-04-02. Sortutako istiluen ondoren, nahigabetuta egon arren, E. Erquiagak, agian esker onez, bi idazlan argitaratu zituen lapurtera klasikoz *Gernika* aldizkarian. N. Ormaecheak, agerkari bereko predikalekutik, berritzaileen pedantekeriaren aurka jarraitu zuen (Onaindia 1974: 15-16; Ormaetxea 1991b: 951-955; Erkiaga 2001: 421-422, 635-636).

IKER-35.indd 379 2/9/19 10:56

> Nai izan dugu mintzaldi ok antolatu Euskaltzaindia-ren itzalpean eta babesean, oraindik ere bizi delaren seiñalagarri bezala.
>
> Errumes eta gabea daukagu, damuz, Euskaltzaindia, agerkari xume bat argitara-arazteko ere. Ez gara, ordean, eskale oraiño, eskatzen ezpaitakigu, edo bederik sosik biltzen ez yakin. Alan ta ere, laster argitara gogo dugu aldizkari ttipi bat, aspaldiko «Euskera» haren kume bezala: laguntzaille daitezkenen bizkar dagoke, seurki, paper hunen gerora irautea eta yarraikitzea (Yrigaray 1953a: 229).

Biharamunean, euskaltzainburuordeak N. Oleagari eman zion ekitaldiaren berri. Hogeita hamar lagun inguru bildu ziren, tartean J. M. Lojendio abokatua eta Conde de Peñaflorida, RSVAPen ohorezko burua. I. M. Echaide integristak, halaber, bi emakume bertaratu zirela nabarmendu zuen. GPDko presidentea ere gonbidatu zuten, baina ezin izan zuen joan.[1013] 1953ko apirilaren 30ean Akademiak bigarren hitzaldia antolatu zuen GPDko bibliotekan. L. Michelenak, A. Oihenarten (1592-1667) poesiaz hitz egin zuen, eta *BRSVAP*eko «Euskaltzaindia-ren lanak» atalean argitaratu zuten. J. Urquijo zenaren bibliotekari esker literatura klasikoa maitasunez aztertu arren, L. Michelenak bere burua bereizi nahi izan zuen P. Axularren neojarraitzaileetatik. Haren izenik aipatu gabe, F. Krutwigen bide erradikal bezain boluntarista gaitzetsi egin zuen:

> Ez beza iñork pentsa gaurko zenbaiten asmoak erabat baztertzekoak direla derizkiodanik, batez ere —errepide ortan bide ta bidexka askok baitute asiera— Aita Villasante-Kortabitarte'k azaltzen dituen eran. Autore zaarrenganako joera, joera utsa, ezin-egokiagoa da gaurkoz, ene ustez. Ba-dirudi, ordea, euskaldunak izatez oso-zale edo integrista gerala, edo oituraz ala biurtu. Eztugu bear erdizkako gauzarik, zatirik edo apurrik; zearo eta erabat bear ditugu egin gure egitekoak. Nai izate utsa zernaitarako aski dela uste dugu nonbait, eta ez aitortu nai aunitz gauza direla gure naimenarentzat eziñezkoak. Buruenik, urteek eta mendeek jasoa edo desegiña egun eta aste gutxiren buruan eraberritzea (Michelena 1953a: 446).

Artean lapurtera klasikoa onartu zuen J. Mirandek, hori irakurri ondoren eta L. Michelena miretsi arren, protesta egin zion adeitsuki 1954ko otsailean: «Batasunera eltzen ez geran artean, ondore guti ekarriko dute gure aaleginek —eta Euskaltzaindiak erabaki sendoak arrtu bearr lituzke orrtarako, azkenekotz» (Mirande Aiphasorho 1999: 181). Euskal filologoa, N. Ormaechearen iritzi estetikoak aintzat hartu arren, inori zorrik ez zion autoritate berri gisa agertzen zen. Lotsagarri iruditzen zitzaion J. Gorostiaga euskaltzainak *Épica y lírica vizcaína antigua*n (1952b) P. Axularri baino ez aitortzea talenturik eus-

[1013] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-03-27.

IKER-35.indd 380 2/9/19 10:56

kal literaturaren historian, eta hala adierazi zuen hitzaldian. A. Oihenarten purismo lexikala, R. Olabideren (SI) aurrekari antzekoa, gaitzetsi zuen, baina baita S. Altuberen purismo sintaktikoa ere:

> Bai Axular'ek bai Oihenart'ek euskera gaitu, egokitu nai zuten, batek itz-lauz, besteak itz-neurtuz. Ba-zekiten garbitasunak gutxi ajola diola izkuntzari, aberastasunak, biguntasunak, errextasunak, berriz, asko. Eta latin-eredura euskera egokitu bearrean ari zirenean, uste zuten, zuzen noski, etzirela euskera naaspilatzen eta zikintzen ari, aberasten eta gaiagotzen baizik (Michelena 1953a: 461).[1014]

GPDko biblioteka nagusian egiten hasi ziren euskarazko hitzaldi hauek, J. Urquijoren bibliotekari eskainitako gela txiki geratzen zelako. Hala ere, garaiko giro politikoan eragin zezaketenaren beldurrez, bilera pribatuak ziren, eta Donostiako prentsak ez zituen iruzkintzen biharamunean. I. M. Echaidek adierazi zuenez, L. Michelenaren hitzaldi ondoko eztabaida bizi-bizia izan zen. Hogeita hamar lagun inguru biltzen ziren: besteak beste, J. Múgica Donostiako alkate ohia, Conde de Peñaflorida, J. M. Lojendio, F. Arocena edota A. M. Labayen.[1015] Hain zuzen, A. M. Labayen urgazleak zabaltzen zuen informazioaren ondorioz, A. Ibinagabeitiak EJ-GEren Parisko berripaperean eman zuen Donostiako hitzaldi literarioen berri (*Euzko Deya* 1953-05-01).[1016]

Euskaltzainburuordeak gordetako dokumentazioan lehen bi urteetako programa zehatza agertzen da. Horri esker baieztatu daiteke A. Irigarayk eman

---

[1014] «Erbestean bezala, leenarekin edo geroarekin ametsetan bizi diren» abertzaleei keinu egitera ere ausartu zen (Michelena 1953a: 446)

[1015] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna J. C. Zabalori, 1953-05-30 *El Diario Vasco*ren administrazio kontseilua uztear zegoen José Múgica Múgica (1894-1981) abokatu monarkikoak ongi islatzen du nolako jendea erakarri nahi zuten hitzaldietara: frankistak, baina distantzia kritikoa izan zezaketenak. Serapio Múgica (1854-1941) artxibozainaren semea eta Gregorio Mújica [sic] (1882-1931) idazlearen anaia zen, biak J. Urquijo zenaren lankide ohiak (cf. KMK-JU: J. Múgicaren gutuna J. Urquijori, 1949-06-20). J. Múgica, 1936ko hauteskunde orokorretan Gipuzkoako hautagai kontrairaultzailea (Renovación Española) izan ondoren, Donostiako alkate izendatu zuten, 1936ko irailean kolpistek hiria okupatu bezain laster. Baina udal depurazioan bigunegi agertu zelako, J. M. Arellano gobernadore zibilak 1937ko otsailean kargugabetu, eta Nafarroako Lizarrara arroztu zuen martxoan. 1937ko irailean Gipuzkoako gobernadore militarrak kargu hartu zion A. Urbina gobernadore zibil berriari, J. Múgica Santanderreko ebakuaziorako ordezkari izendatu zuelako. Eskuindar liberalismoaren ikuspegitik, eta RSVAPeko kide gisa, *Carlistas, moderados y progresistas* (1950) historia liburua argitaratu zuen (Peña Ibáñez 1984; Múgica 2005: 261-267; Barruso Barés 2006: 82-83; Aizpuru & al. 2007: 111-112; Marañón & al. 2013).

[1016] ABA-AIB: A. M. Labayen eta A. Ibinagabeitiaren arteko gutunak, 1953-04-28 & 1953-05-20.

IKER-35.indd 381 2/9/19 10:56

zuela hirugarren hitzaldia P. Axularrez maiatzaren 28an.[1017] F. Krutwig eta L. Villasante bikoteak sortutako erantzun gogorren ondoren, tentu handiz ekarri zituen hizpidera, Frantziako euskal literaturaren tradizioa ez ezik, baita M. Larramendi (SI), N. Ormaechea eta J. M. Mocoroaren aldeko iritziak ere. Nafarroako medikuaren nahia zen P. Axularren idazlanaren zatiak aurkeztu eta *Guero*ren edizio berria iragartzea, literatura eredu ez-purista eta jasoaren erakusgarri. Hitzaldia RSVAPen *Egan*en argitaratu zuenean, berak nahi zuen grafia eguneratuarekin transkribatu zituen pasarte luzeak. J. Artecheren eskuetatik pasatu ez zen aldizkariaren lehen zenbakia izan zen hura (Yrigaray 1953b).

Euskera agerkarian argitaratzeko aukerarik ezean, *Egan*en argitaratu zituzten hurrengo hitzaldiak ere «Euskaltzaindi-ko solas-aldia» azpitituluarekin. Izan ere, zailtasunak gorabehera, euskararen alde egon zitezkeen tokiko gizarte frankistaren pertsona esanguratsuak erakartzea lortu zuten berehala, I. M. Echaide eta A. Irigarayk nahi bezala. 1953ko ekainaren 25ean A. Arrue abokatu karlistak eman zuen hitzaldia, J. B. Aguirre Asteasukoaz (1742-1823), agian gipuzkerazko idazle klasiko onenaz. Euskal literaturaren kanona Espainiara hedatu nahi izan zuen eta P. Axularren dohaina ukatu gabe, gipuzkeraren alde agertu zen estandar literariorako (Arrue 2008: 3-9).[1018] Euskaltzainburuordea oso eroso zegoen tradizionalista euskaltzaleekin harremanetan eta gutun adeitsuak idatzi zizkion Gipuzkoako buruzagi karlistari: «No deje V. de aprovechar esas dotes magníficas que Dios le ha concedido, para su gloria y para bien de Euskalerría».[1019]

Hurrengoak, J. M. Lojendio legegizonak, 1953ko uztailaren 30ean hitz egin zuen J. A. Moguelez (1745-1804), bizkaierazko (eta gipuzkerazko) idazle kontraiaultzaile ospetsuaz. Euskaltzainburuordearen arabera, probintzia jauregiko aretoa jendez beteta egon zen egun horretan.[1020] Bistan dago S. Aranak eragindako iraultza linguistiko bezain politikoaren aurreko muga ezarri nahi zela literatura kanona finkatzean (Lojendio 1954). Besteak beste, euskararen gizarte sustapenerako kaltegarritzat jotzen zen purismoaren aurkako giro bat sortu nahi zen. Horrek Akademiaren lexikografia edota gramatika proiektuak arintzen lagunduko zuela uste zuten. Ondoren, J. B. Elissamburu (1828-1891) lapurterazko poeta laikoaz hitz egin zuen A. M. Labayen urgazleak

[1017] ABA-EUS: I. M. Echaideren GPDko bibliotekako hitzaldien zerrenda, [1955eko otsaila].

[1018] 1954ko urriaren 28an Gipuzkoako J. I. Guerricoren (1740-1824) katiximaz hitz egin zuen GPDko bibliotekan (Arrue 2008: 21-30).

[1019] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna A. Arrueri, 1953-10-08.

[1020] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-08-14.

IKER-35.indd 382 2/9/19 10:56

1953ko irailaren 24an, gero EIL-SIEBen biltzarrean ezizen baten pean aurkeztu eta azkenean *Egan* aldizkarian argitaratu zuena (Labayen 1955).

Euskal literaturaren historiazko 1953ko azken bi hitzaldiak D. Azcuek (urriaren 29an, I. Bizcarrondo «Vilinch»ez) eta S. Onaindiak (azaroaren 28an, B. de Santa Teresaz) eman zituzten. 1954an hizlari hauek aritu ziren: A. Zugasti (urtarrilaren 28an eta otsailaren 25ean), J. J. Beloqui (martxoaren 25ean), J. Gorostiaga (apirilaren 29an), S. Michelena (maiatzaren 28an), J. Echaide (ekainaren 24an), A. Arrue (urriaren 28an), J. Elósegui (azaroaren 25ean) eta M. Lecuona (abenduaren 30ean). Hurrengo urteetan ere hitzaldiekin jarraitu zuten eta horietako asko argitaratu ziren aldizkarietan (*Egan*, *Euzko-Gogoa* nahiz *Euskera*) edota separata gisa (Onaindia 1955; 1974: 21-22; Artetxe Sánchez 2011: 26-29).[1021]

Asmoak asmo, gipuzkera osotua lantzen jarraitzen zuten, R. Olabideren (SI) purismotik ulertuta, eta bereziki erbesteko EJ-GEren hurbileko idazleek. *Euzko-Gogoa*ren lanaz beste, Vicente Amézagak Ameriketan urte horietan itzuli eta argitaratu zituen W. Shakespeare-ren *Hamlet* (1952) edota J. R. Jiménezen *Platero eta biok* (1953), horrek Espainiako euskal literaturaren eskaintza mugatua agerian uzten zuelarik.[1022] Hala ere, edizio garestiak ziren, Europan urtebeteko atzerapenarekin zabaltzen zirenak, eta artean ez zegoen euskal publiko zabalik goi mailako literatura horrentzat. Besteak beste, M. Arruza urgazleak gertutik jarraitu zituen itzulpen horiek, eta berak eskatuta, J. M. Seminario euskaltzain frankistak iruzkin positiboa argitaratu zuen Bilboko *CE-PV* egunkarian 1953ko udaberrian, agian F. Krutwigen kontrako eredu linguistikoa zelako. *BRSAVP* eta *Egan* aldizkarietan, L. Michelena euskaltzainak ere aitortza egin zion Euzkadiko «Lenen Maľako Irakaskintzaren» («Primera Enseñanza») zuzendari nagusi ohiaren itzulpen lan handiari (Irujo Ametzaga 2009a: 194-196; 2009b: 162-163, 190, 214).

6.4. RESURRECCIÓN M.ª AZKUEREN ONDAREA ETA BILBOKO EGOITZAREN EGOKITZAPENA

1953ko apirilaren 24an Donostian batzartu ziren euskaltzain hauek: I. M. Echaide, A. Irigaray, M. Lecuona, J. Gorostiaga, L. Villasante, N. Oleaga, A. M. Labayen, J. Cincunegui eta S. Michelena. Ezin etorria adierazi zuten L. Michelena eta L. Dassancek. Uztaritzeko alkatea egun horietan Frantziako

[1021] ABA-EUS: I. M. Echaideren GPDko bibliotekako hitzaldien zerrenda, [1955eko otsaila].

[1022] cf. ABA-EUS: E. Erquiagaren gutuna L. Villasanteri, 1954-02-11.

IKER-35.indd 383 2/9/19 10:56

udal hauteskundeetan buru-belarri zebilen.[1023] Euskaltzainburuordeak, halaber, GPD eta SFVJUrekin izandako harremanen berri eman zuen. Diru laguntza gehiago jasotzeko asmoarekin, Gipuzkoako CAPi hilaren 16an bidalitako idazkia aipatu zuen. Era berean, GPDko jauregian abiatutako literatura hitzaldien berri ere eman zen (Euskaltzaindia 1982: 26-27). Batzarrean, R. M. Azkuek izendatutako oinordeko Gregorio Maidagan eta Jorge Villa Cobian elizgizonek Akademiari zuzendutako idazki garrantzitsu bat irakurri zen:

> Los que suscriben, herederos únicos y universales de D. Resurrección María de Azcue y Aberasturi (q.e.p.d.) Director que fue de esa Academia, en memoria del finado y respondiendo a deseos que tenía manifestados, nos complacemos en ceder o donar a esa Academia de la Lengua Vasca los libros y papeles de la pertenencia de aquél existentes en los locales académicos (Ribera 6 entresuelo), así como los derechos de propiedad literaria o créditos pendientes por este concepto correspondientes al mencionado causante.
>
> Significamos a la Academia el deseo del finado y por tanto el nuestro inherente a la expresada donación de que la parte de los libros y papeles aludido que integraban la biblioteca particular de aqué[l], en el evento de que algún día desapareciera esa Academia, queden transferidos a la Biblioteca de la Excma. Diputación de Vizcaya, debiendo por tanto [s]er conservados por esa Academia con tal destino. No así los demás libros consistentes en obras publicadas por el finado y constitutivas de fondo comercial destinado a la venta, de los cuales podrá la Academia disponer libremente como precise o le convenga.[1024]

Ordurako anai-arrebak guztiak hilak zituen R. M. Azkuek 1946ko uztailaren 3an egina zuen testamentua, Celestino M.ª del Arenal notarioaren aurrean, aipatutako bi elizgizonak oinordeko unibertsal izendatuta (Arana Martija 1983: 34). Batzarrak aho batez onartu zuen dohaintza eta emaileei esker ona adieraztea erabaki zuen. Halaber, dohaintzako liburu eta eskubideen zerrenda zehatza egitea erabaki zuten, ongi bereiziz BPDri zegozkionak eta besteak. Eginkizun horren ardura J. Gorostiagak hartu zuen. Bide batez, liburuzainari egoitzako liburu eta dokumentu guztien katalogoa egin eta horien erabilera irizpideak zehaztea agindu zioten. G. Lacombe zenak 1936 arte izandako «gutuntzain» postua berreskuratu eta J. Gorostiagak hartzen zuen, beraz (Arana Martija 1992b: 658).[1025]

[1023] ABA-EUS: L. Dassanceren gutuna I. M. Echaideri, 1953-04-21.

[1024] ABA-EUS: G. Maidagan eta J. Villa Cobianen idazkia Euskaltzaindiari, 1953-04-06.

[1025] Dohaintza horri esker, besteak beste, Akademiak handik lau urtera argitaratu zuen R. M. Azkueren korrespondentzia aberatsaren 1886-1936 arteko 120 gutun (Irigoyen 1957).

IKER-35.indd 384 2/9/19 10:56

Irudia 18. **Bilboko egoitza zaharra etxe honetako solairuartekoan zegoen (2005eko argazkia)**

Iturria: Bilboko Udala-Surbisa.

Azkenik, horren guztiaren berri BPDri jakinaraztea erabaki zuten. Hain zuzen, N. Oleaga eta J. Gorostiagak JCVko ordezkariekin izandako elkarrizketen berri eman zuten. JCVk nolabait konpondutzat ematen zituen iraganeko istiluak, Akademiari diru laguntza gehitzeko asmoa zuelako, bereziki Bilboko egoitza hondatuan egokitze lanak egiteko. Horrela, euskaltzainek ez ezik, bestelako erabiltzaileek ere R. M. Azkue zenaren dohaintzak aberastutako bibliotekara jo ahal izan zuten. Batzarrak esker ona adierazi zion JCVri eta J. Gorostiaga izendatu zuten asmo horiek burutzeko artekari. Ondoren, J. M. Seminariok 1949ko ekainetik zeraman ordezkaritza kendu eta N. Oleaga izendatu zuten JCVren ordezkari Euskaltzaindian (Euskaltzaindia 1982: 26-27).[1026]

[1026] Argitaratutako euskal bertsioa baino zehatzagoa da artxiboan gordetzen den gaztelaniazko bertsioa, eta komeni da horra jotzea (ABA-EUS: Euskaltzaindiaren gaztelaniazko akta ofiziala, 1953-04-24).

IKER-35.indd 385 2/9/19 10:56

Bistan da erabaki garrantzitsu horiekin JCVk zeregin akademikoetan izan zezakeen eragina mugatu nahian zebiltzala. Akademiako idazkariak erabakien berri eman zion idazki banatan J. M. Ruiz Salasi maiatzaren 11n.[1027] Euskaltzaindiko ofizioak jaso bezain laster, JCVko kide hauek batzartu ziren: BPDko presidentea, F. Echegaray, H. Bilbao, J. Irigoyen, C. Lasterra, N. Zorrilla, B. Bureba, Conde de Superunda eta E. Calle. Bi erakundeon arteko harremanak hobera egin arren, ez zeuden prest JCVko kideen Akademiako presentziari uko egiteko:

> El Sr. Ruiz Salas dio cuenta de las conversaciones sostenidas en su día con el Sr. Oleaga, sobre el incidente surgido en la toma de posesión de nuevo Académico de la Academia de la Lengua Vasca, y a su vez informó también el Sr. Merino de otras conversaciones que se habían tenido con dicho Sr. Oleaga sobre una posible reorganización de la Academia con determinada intervención de la Junta de Cultura, y se dio lectura de una comunicación de 11 del actual enviada a la Junta por el Secretario de la Academia en que se da cuenta de haber sido designado don Nazario Oleaga y Muguruza para que en lo sucesivo ostente ante esta Junta, la representación de la Academia de la Lengua Vasca.
>
> Cambiaron amplias impresiones los reunidos sobre las relaciones que se han mantenido y deberán mantenerse en lo sucesivo con la Academia y se convino en realizar las gestiones necesarias para que, un miembro de la Junta, fuese admitido como Académico y representase a su vez a esta entidad en la Academia, procurándose robustecer las relaciones de toda clase entre ambos organismos.[1028]

E. Calle idazkariak JCVren erabakiaren berri jakinarazi zion Euskaltzaindiari.[1029] J. M. Seminario 1952ko ekainetik ez zen agertzen Akademiaren batzarretara. Garai horretan Bilboko *Zumárraga* aldizkari berrituan artikulu atzerakoiak argitaratzen zituen, euskarak bizitza modernoarekiko harremanak etetea eta baserrian gordetzea aldarrikatzen zutenak (Seminario de Rojas 1952).[1030] *Zumárraga* urtekariaren 1953ko zenbakian J. M. Seminariok argitaratu zuen «Cuatro actitudes ante una realidad evidente» idazlana. 1949ko sarrera hitzaldiaren jarraipena izan zitekeen. Euskarari buruz lau jarrera nagusi zerrendatzen zituen. Batzuk gorroto zuten herri hizkuntza. Bigarrenek eus-

---

[1027] BFAH-EC/ABA-EUS: N. Oleagaren ofizioak J. M. Ruiz Salasi, 1953-05-11, Junta de Cultura C-40 -01-.

[1028] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1953-05-13, Junta de Cultura C-62.

[1029] ABA-EUS: E. Calleren ofizioa N. Oleagari, 1953-05-18.

[1030] J. M. Areilza RSVAPeko buruak ere, F. Krutwigen futurismo elitistarekiko ez oso urruti, euskararen azterketa zientifikoa abertzaletasunaren eskuetatik kentzeko asmoa agertu zuen *Zumárraga* urtekariaren bigarren zenbakian (Areilza1953).

IKER-35.indd 386 2/9/19 10:56

kara soilik ikergai zientifikotzat jotzen zuten, baina, M. Unamunok bezala, etsaien argudio politikoak arduragabeki indartzen zituzten. Hirugarrenak, hain zuzen, herri hizkuntzaren alde neurri utopiko eta inozoak nahi zituzten abertzaleak ziren. Laugarren jarrera hiztunen gehiengoarena ei zen. Talde horri euskararen inguruko eztabaidek ez zioten ardurarik.

J. M. Seminariok hiztun arrunten pasibitatea goraipatzen zuen, hizkuntzaren etorkizuna Jaungoikoaren eskuetan uzten zutelako. Hiztun arruntak nekazariak ziren, batez ere, baina baita burges txikiak ere. Hain zuzen, azken hauetakoak izan ziren euskal idazleak XIX. mendera arte. Errealitate bizi horren aurka jartzen zituen foru erregimenaren garaiko fantasia etimologikoak nahiz atzerriko hizkuntzalarien eztabaida zientifiko antzuak. Erbestean zegoen F. Krutwigi zuzentzen zitzaiola ematen zuen. Indoeuroparrak ez izanagatik, euskara ezin zen milioika hiztunez osatutako hungariera edo finlandiera bezalako hizkuntza nazionalen pare jarri. Herri hizkuntza zaharberritua barregarri mozorrotutako aitona bezalakoa zen:

> Entonces a sus nietos, que le querían mucho, no se les ocurrió mejor cosa para animarle que ponerle un bisoñé y hacerle un traje «principe de Gales», de esos de «gigoló», con dos aberturas muy monas en la chaqueta... y comprarle unos calcetines amarillo canario y una corbata americana del más estimulante, abigarrado e insólito cromatismo... Y para ponerle al día, su nieto mayor le compró unos libros que hablaban de la física, de los «quanta», de la desintegración atómica y de todas esas cosas así... Y le hicieron leer novelas de Lajos Zilahy, y ver películas llenas de complejos por todas partes... Item más, le enseñaron a decir que «se aburría como un tigre», o que «lo estaba pasando bárbaro»; que estaba «hecho un muslo de mar»; que aquello era una «pocholez»... ; que desde hace ya mucho tiempo, todos los que quieran pasar por gente al día, no deben decir que una cosa o una acción es mala, sino «desagradable», de «mal gusto» o «molesta» y le enseñaron a bailar el «booghie», y a montar en bicicleta, y a «soplar» en las barras de los bares (Seminario de Rojas 1953: 117).

1953ko maiatzaren 29an, akademiko hauek batzartu ziren GPDko jauregian: A. Irigaray, J. Gorostiaga, L. Villasante, L. Michelena, N. Oleaga eta J. Cincunegui urgazlea. L. Dassancek ezin etorria adierazi zuen. A. Irigaray izan zen behin-behineko mahaiburua, I. M. Echaide Madrilen zegoelako bestelako eginkizunetan.[1031] N. Oleaga idazkariak jakinarazi zuen JCVri bidali ziola aurreko batzarrean hartutako erabakien berri. JCVren ordezkari bat Akademian onartzeaz den bezainbatean, ordea, batzarrak arazo hori geroratu eta hobeto aztertzea erabaki zuen. Euskaltzain-

[1031] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna J. C. Zabalori, 1953-05-30.

IKER-35.indd 387 2/9/19 10:56

dia bere autonomia galtzearekiko uzkur ageri zen, batez ere J. Irigoyen eta J. M. Seminariok egindako ekarpen urrien ondoren. J. Gorostiagak, bestalde, «Euskaltzaindiaren Adiskideak» izeneko taldeak egindako elkarlanerako eskaintzaren berri eman zuen, eta horrek, A. Irigoyenen taldearekin zerikusia zuen, seguru asko. A. Irigarayk, orobat, Donostiako hitzaldien eta *Euskera* argitaratzeko gestioen berri eman zuen. Azkenik, R. Lafonek bidalitako bi idazlan hartu zituzten: Salamancako Unibertsitateak argitaratutako *Études basques et caucasiques* (1952) liburua eta *Revue historique de Bordeaux et du Departament de la Gironde*n argitaratutako «Sur une étymologie basque du nom *burdigala*» artikulua (Euskaltzaindia 1982: 28).[1032]

1953ko ekainaren 26ko batzarrean, Bilboko egoitzaren arduradun izan behar zuen J. Gorostiagak bere azken idazlanaren ale bat eman zion Akademiari: Salamancako Unibertsitateak argitaratutako *Vocabulario del refranero vizcaino de 1596* (1953). Izan ere, J. Urquijo eta R. M. Azkue hil ondoko eta L. Michelena plazara atera aurreko interregno laburrean, Liburu Sakratuetan eta asiriologian aditua zen barnealdeko Akademiak erakuts zezakeen euskaltzain jantziena. Esan bezala, 1952-1953 ikasturtean, «Manuel de Larramendi» katedra ofizialki inauguratu aurretik, J. Gorostiaga Salamancako Unibertsitatean izan zen ikastaroak ematen, A. Tovarrek gonbidatuta (Gernika 1952b; IAEV 1954). Dena dela, ez zuen lan sendorik egiteko gaitasunik. Gainera, L. Michelena berehala hasi zen bere autoritatea markatzen. *BRSVAP*en kritika zorrotza argitaratu zuen J. Gorostiagaren zabarkeria filologikoa nabarmenduz (Michelena 2011d: 127-129).

Aurreko batzarrean huts egin zuenez, ekaineko batzar egunean sinatu zituen euskaltzainburuordeak egoitzako bibliotekari eta R. M. Azkueren dohaintzari buruz apirilean hartutako erabakien jakinarazpen ofizialak.[1033] Bestalde, N. Oleagaren akta zirriborroari esker dakigu JCVko ordezkariaren izendatzea ere eztabaidatu zela.[1034] Akademiaren egoitza konpontzen laguntzeko JCVk hartutako erabakiari jarraituta, ekainaren 13an E. M. Aguinaga BPDko arkitektoa Euskaltzaindiaren Ribera kaleko egoitzan izan zen eta egoera negargarria konfirmatu zuen:

[1032] L. Michelenak, hain zuzen, liburuaren iruzkin oso positiboa argitaratu zuen *BRSVAP*en, batez ere zubereraren fonologiaz egindako ekarpena nabarmenduta. «Kaukasiar» hipotesiari egin ohi zion kritika disolbatzailea alde batera utzi zuen (Michelena 2011a: 47-50).

[1033] BFAH-EC/ABA-EUS: I. M. Echaideren ofizioak J. Gorostiaga, G. Maidagan, J. Villa eta J. M. Ruiz Salasi, 1953-06-26, Educación, Deportes y Turismo 9, C-930 -EXP-043.

[1034] ABA-EUS: N. Oleagaren akta zirriborroa, 1953-06-26. I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-09-30.

IKER-35.indd 388 2/9/19 10:56

Irudia 19. **Bilboko egoitzaren planoaren krokisa (Eugenio M.ª Aguinaga, 1953-06-15)**



Iturria: Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa (Educación y Cultura funtsa).

IKER-35.indd 389 2/9/19 10:56

El pasado sábado se ha hecho una inspección de estos locales sitos en la calle de la Ribera nº 6 entresuelo.

Constan de una escalera particular de acceso, un hall de entrada, 3 habitaciones que dan a la calle Jardines y unos aseos.

Todo ello está en un deplorable estado de conservación, con los paramentos abombados, agrietados y con raseos descubiertos, trozos de papel despegados y viejos, pintura antiquísima, y aseos sin baldosas ni azulejos.

La instalación eléctrica es toda ella exterior y en su mitad aproximadamente no funciona.

Las obras mínimas de adecentamiento deberán consistir en rascar y enlucir los paramentos de nuevo, empapelarlos y pintarlos, embutir la instalación eléctrica, colocar baldosas y azulejos y tapas de retre[t]es en los aseos, cepillar los suelos y limpiar los cristales.

El costo aproximado de estas obras, dependería del detalle concreto de lo que quisiera realizarse, pero oscilaría alrededor de las 50.000.- ptas. como mínimo.[1035]

W. Bernaola buru zuen BPDko Educación, Deportes y Turismo sailak arkitektoaren dosierra aintzat hartu, eta lan proiektu bat burutzea agindu zioten, baina 20.000 pezetako aurrekontua gainditu gabe.[1036] Horrela, uztailaren 11n JCVko kide hauek batzartu ziren: J. M. Ruiz Salas, F. Echegaray, J. B. Merino, C. Lasterra eta E. Calle. Ezohiko batzarra izan zen, JCV eta Akademiaren arteko harremanak eztabaidatzeko:

El Sr. Presidente dio cuenta de los propósitos de la Corporación de atender a la reforma y mejor acondicionamiento de los locales de la Academia, y el Sr. Merino tras de dar cuenta de las gestiones hechas por su parte para el sostenimiento de la institución por la que debe velar la Junta de Cultura, habló de la necesidad de establecer un puesto fijo y permanente de custodio de la Academia, creyendo que el más indicado para ello era el sacerdote don Juan Gorostiaga.

Los Sres. Echegaray y Lasterra por su parte coincidieron en un todo con las apreciaciones y criterios de los Sres. Ruiz Salas y Merino, que, como dijo el Sr. Echegaray era el criterio de la Junta en pleno según se pudo colegir en todas las reuniones en las que se había abordado el tema.

[1035] BFAH-EC: E. M. Aguinagaren «Academia de la Lengua Vasca» dosierra, 1953-06-15, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP- 10. Ordura arte beti Ribera 5 izandakoa lehen aldiz agertzen da Ribera 6 gisa.

[1036] BFAH-EC: BPDko Educación, Deportes y Turismo sailaren xedapena, 1953-07-01, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP- 10.

IKER-35.indd 390 2/9/19 10:56

> Después de este cambio de impresiones se acordó: 1º. Aumentar la subvención que actualmente se concede a la Academia de cinco a diez mil pesetas al año. 2º. Gestionar de la Academia la designación de don Juan Gorostiaga, con carácter permanente para ponerse al frente de la labor burocrática de la institución. 3º. Que el Sr. Gorostiaga permanezca diariamente en los locales de la Academia cuidando de su funcionamiento de 10 de la mañana a una de la tarde, por lo menos. 4º. Que de la subvención que la Junta concede a la Academia se destinen 4.800 pesetas anuales (400 mensuales) a indemnizar al académico don Juan Gorostiaga de las molestias que le ocasione su diaria permanencia en los locales de la Academia. 5º. Facultar al Vocal señor Merino y al suscrito Secretario para llevar a la práctica estos acuerdos en relación con los directivos de la Academia de la Lengua Vasca.[1037]

JCVk erabaki horien berri uztailaren 29an eman zion Akademiari, nolabait euskaltzainburuak J. Ybarrari 1949ko urtarrilean eskatutakoari erantzuten ziona.[1038] Izan ere, R. M. Azkueren testamentuan Bizkaiko Probintzia Diputazioa liburu eta dokumentuen azken hartzaile agertzeak, Euskaltzaindia inoiz desagertuko balitz, Bizkaiko agintari frankisten jarrera goxatzen lagundu zuen. Izan ere, J. Urquijo zenaren biblioteka erosteko gestioek porrot egin eta bilduma baliotsua GPDk bereganatu izanak asko mindu zituen. Gainera, GPDk biblioteka horren inguruan SFVJU sortu berria zuen ikerketa filologikoa eta euskararen nolabaiteko sustapena bultzatzeko asmoarekin. J. Urquijoren ondarearen balioarekin ezin konparatu arren, J. M. Ruiz Salas presidente zuen BPDk uztaileko gobernu batzarrean formalki adierazi zuen atsegin handiz hartu zuela R. M. Azkueren azken nahia.[1039] BPDko idazkariak ofizio baten bidez abuztuan jakinarazi zion horren berri jarduneko euskaltzainburuari.[1040] BPDko arkitektoak Educación, Deportes y Turismo sailaren agindua bete eta 20.000 pezetako aurrekontu zehatza prestatu zuen igeltserotza, arotzeria, dekorazio, pintura eta elektrizitate lanekin. E. M. Aguinagaren laburpenak Ribera kaleko egoitzaren egoera penagarria erakusten zuen:

[1037] Asociación Artística Vizcaína-k, ordea, soilik 2.000 pta. hartzen jarraitu zuen. BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1953-07-11 & 1953-12-28, Junta de Cultura C-62.

[1038] BFAH-EC: E. Calleren ofizioa I. M. Echaideri, 1953-08-11, Junta de Cultura C-40 -01-.

[1039] BFAH-EC/ABA-EUS: BPDko idazkariaren izapidea, 1953-07-24, Educación, Deportes y Turismo 9, C-930 -EXP-043.

[1040] BFAH-EC/ABA-EUS: BPDko idazkariaren ofizioa I. M. Echaideri, 1953-08-11, Educación, Deportes y Turismo 9, C-930 -EXP-043.

IKER-35.indd 391 2/9/19 10:56

Vestíbulo.–Picar y lucir los techos y paredes, colocar un nuevo rodapié y pintar.

Pasillo.–Picar y lucir techos y paredes, ejecutar un techo falso, colocar un rodapié nuevo y pintar.

Sala de Juntas y Biblioteca.–Pequeños remiendos, quitar el empapelado y pintar.

Aseos.–Colocar un inodoro nuevo, embaldosar, colocar un enchapado de azulejo blanco de 15 X 16 y pintar.

Además de lo expuesto, se colocará un punto de luz empotrado en el vestíbulo y en los aseos y 2 en el pasillo, Sala de Juntas y Biblioteca, ya que toda la instalación existente lo está por cordón descubierto.[1041]

Educación, Deportes y Turismo sailak aurrekontu horren aldeko dosierra egin eta dekretuz onartzea proposatu zion BPDko presidenteari.[1042] Urtea amaitu baino lehenago 20.000 pezetako aurrekontua ezarri zen Euskaltzaindiko egoitzan lanak egiteko, eta J. M. Ruiz Salas presidenteak obrak abiatzea agindu zuen dekretuz 1954ko urtarrilaren 29an.[1043] BPDko aparejadorearen ardurapean martxoan amaitu zituzten igeltserotza, arotzeria, dekorazio, pintura eta elektrizitate lanak, 13.898,94 pezetako gastuarekin.[1044] Uztailean, aldiz, pintura lanak eta bibliotekako arotzeria lanak amaitu ziren, 4.346,71 pezetako gastuarekin.[1045] JCVko diruzaina Euskaltzaindiaren egoitzan egindako lanen berri emateaz arduratu zen *BRSVAP*en (Merino Urrutia 1954).

6.5. GIPUZKOAKO ETA NAFARROAKO DIRU LAGUNTZA OFIZIALAK

GPDk SFVJU sortu ondoren, J. M. Caballero presidenteak I. M. Echaide eta A. Irigarayri agindu zien 1953an eskatutako 3.000 pezetako diru laguntza

[1041] BFAH-EC: E. M. Aguinagaren «Obras de reforma de la Academia de la Lengua Vasca en Bilbao» aurrekontua, 1953-10-10, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-10.

[1042] BFAH-EC: BPDko Educación, Deportes y Turismo-ko sailaren dekretu proposamena J. M. Ruiz Salasi, 1953-10-21, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-10.

[1043] BFAH-EC: J. M. Ruiz Salasen dekretua, 1954-01-29, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-

[1044] BFAH-EC: R. Guerediagaren dosierra BPDri, 1954-03-16, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-10.

[1045] BFAH-EC: R. Guerediagaren dosierra BPDri, 1954-07-09, Educación, Deportes y Turismo 16, C-937 -EXP-10.

IKER-35.indd 392 2/9/19 10:56

baino handiagoa lortzen saiatuko zela Akademiarentzat. Halaber, gutxiegi irizten zion Gipuzkoako CAPek emandako 1.000 pezetakoari. Gipuzkoako berri ekonomikoak onak zirenez, NFDko kontuez galdetu zioten Bilboko idazkariari.[1046]

I. M. Echaide eta A. Irigaray 1953ko apirilean J. Beñarán Gipuzkoako CAPeko zuzendari integristarekin (euskaltzainburuordearen adiskidea) bildu ziren. Idazki formal bat aurkeztu nahi zioten aurrezki kutxari, diru laguntza handiagotu zezan. A. Irigarayk, halaber, Donostiako CAMeko eta Banco Guipuzcoano-ko arduradunekin bildu nahi zuen. Diru laguntza gehiago lortuko zutelakoan, euskaltzainburuordeak emakume mekanografoa kontratatu nahi zuen, euskarazko gutunez eta bestelako idazkiez arduratzeko.[1047]

Bizkaiko diru laguntzak bideratzea Bilboko euskaltzainen esku utzita, I. M. Echaidek arreta handia jarri zion Nafarroako eta bereziki Gipuzkoako erakundeen aurrean egin beharreko diplomazia lanari. 1953ko apirilean eskari luze bat zuzendu zion Gipuzkoako CAPen zuzendariari. Akademiak burutu nahi zuen argitalpen programa handinahirako 50.000-100.000 pta. behar zituztela adierazi zuen.[1048] GPDk 5.000 pezetako diru laguntza ematea erabaki zuenez, euskaltzainburuordeak eskerrak eman zizkion J. M. Caballero presidenteari maiatzaren 15ean.[1049] Honela azaldu zion N. Oleaga idazkariari, adibidez, Donostiako CAMi egin zion eskaria: «Es un poco altisonante; pero nunca faltan en estos Consejos personas que miran con malos ojos lo nuestro. Hay que acogerse a lo *científico* y a lo *hispánico*. Veremos si resulta».[1050] Gipuzkoako CAPeko zuzendariari aurkeztutako eskaria, A. Irigarayren argitalpen plangintzan oinarrituta zegoen:

– *Euskera* agerkari ofizialaren bigarren aroa.
– Liburu klasikoak grafia eguneratuarekin.
– Idazle garaikideen antologia.
– Haur literatura: elezaharrak, ipuinak eta kantak.
– Hiztegiak: R. M. Azkuerenaren bigarren edizioa eta gaztelania-euskara hiztegi txikia, irakasle eta idazleei zuzendua.[1051]

[1046] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-03-27.
[1047] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-04-17.
[1048] KMK: I. M. Echaideren gutuna J. Beñaráni, 1953-04-16.
[1049] KMK: I. M. Echaideren gutuna GPDren gobernu batzordeari, 1953-06-08.
[1050] KMK: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-10-08.
[1051] ABA-EUS: A. Irigarayren «Para el Sr. Director de la Caja de Ahorros Provincial» idazkia, [1953-04-16].

IKER-35.indd 393 2/9/19 10:56

I. M. Echaidek, Euskaltzaindiaren ekaineko batzarrean, adierazi zuen GPDk 5.000 pezetako diru laguntza eman zuela; 1943az geroztik eman ohi zituen 3.000 pezetak baino gehiago, alegia. N. Oleaga idazkariak, bestalde, jakinarazi zuen JCVk aurrera segitzen zuela Bilboko egoitza konpontzeko asmoarekin (Euskaltzaindia 1982: 29). N. Oleagak, akta zirriborroan, GPDren 5.000 pezetak honela banatu zituztela adierazi zuen: 3.000 pta. A. M. Labayenek egindako *Euskera*ren argitalpen gastuetarako, 500 pta. Donostiako bulego gastuetarako eta 1.500 pta. Akademiaren kutxan gordetzeko.[1052] Horrela, Euskaltzaindia GPDk Educación, Deportes y Turismo sailaren arloan gainerako elkarteek 1953an jaso zituzten diru laguntzen batezbestekotik gertu geratu zen: Museo Naval Provincial (3.500 pta.), Sociedad de Oceaonografía de Guipúzcoa (2.000 pta.), Museo Municipal de San Telmo (10.000 pta., «Sala de Etnografía Vasca» delakoa handitzeko), RSVAP (5.000 pta.), Grupo de Ciencias «Aranzadi» (3.000 pta.), Euskaltzaindia (5.000 pta.), Academia Médico-Quirúrgica (3.000 pta.), Círculo Cultural Guipuzcoano (6.000 pta.), Círculo de San Ignacio (5.000 pta.), Comisión de Monumentos de Guipúzcoa (5.000 pta.), etab. (GPD 1954: 56-57).

Nafarroatik ere etorri ziren berri onak, Gipuzkoan bezala, diputazioko presidentzian izandako aldaketekin lotuta zeudenak. 1952ko apiriletik Miguel Gortari (1887-1968) zen NFDko presidente eskuindar berria, aurreko J. M. Arellano baino euskaltzaleagoa. Ikusi dugunez, ordura arte Iruñeko alkate zenak harreman adeitsua gorde zuen Akademiarekin, Errepublikan parlamentario gisa izan zuen jarrera politiko irekiagoarekin bat zetorrena. Kontuan hartu behar da M. Gortarik, EI-SEVeko kide izateaz gain, CEDAren ildoko ideologiatik Euskal Herriko Autonomia Estatutu bateratuaren alde egin zuela, eta horregatik V. Pradera eta E. Esparzaren erasoak jaso zituela. Hain zuzen, M. Gortari presidentearen jarrera giltzarri izan zen NFDren eskuduntzak babestu eta L. Valero Nafarroako gobernadore zibil falangista 1955ean kargugabetzeko (Estornés Zubizarreta 1990; García-Sanz Marcotegui & al. 1998; Agirreazkuenaga & al. 2007; Mikelarena Peña 2013).[1053]

1953ko ekainean, A. Irigaray, Akademiaren Nafarroako ordezkari gisa, euskaltzainburuordearen aurkezpen gutun batekin agertu zen 1945az geroztik NFDko idazkari zen J. Uriz Beriáinen (1908-1990) aurrean, hau da, Nafa-

[1052] ABA-EUS: N. Oleagaren akta zirriborroa, 1953-06-26. I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-09-30.

[1053] NFD une horretan zazpi diputatu hauek osatzen zuten: M. Gortari, A. Marco, J. Larráinzar, J. Fortún, J. Echandi, A. Adrián eta C. del Villar (García-Sanz Marcotegui & al. 1998: 47-49).

IKER-35.indd 394 2/9/19 10:56

rroako Junta de Guerra Carlista-ren idazkari ohia zenaren aurrean, atzeratutako diru laguntzak eskatzeko.[1054] Arazoa berehala konpondu zuten, uztailean I. M. Echaidek baimena eman ziolako A. Irigarayri 1951, 1952 eta 1953ko diru laguntzak jasotzeko: guztira 15.000 pta.[1055] Jarduneko euskaltzainburuak ofizialki eskerrak eman zizkion M. Gortariri, diru laguntza horiekin Akademiaren ikerketa eta argitalpen proiektuak aurrera atera ahal izango zirelako.[1056] Gestioa A. Irigarayri zor zitzaion, eta berehala gerra zibilean izandako zigorrak konpontzen hasi zen Nafarroako medikua, M. Gortarirekin zuen harreman onaren erakusgarri. 1952ko irailean Iruñeko Udalak 1937ko desgaikuntza zigorra kentzea erabaki zuen eta 1953ko azaroan NFDk erabaki hori onartu egin zuen, euskaltzainari lasaiago ibiltzeko aukera emanda (Irigaray 1985: 22).

Nolanahi den, Euskaltzaindiaren izaera juridikoak kolokan jarraitzen zuen. I. M. Echaidek jarduneko euskaltzainburu gisa bidalitako gutun ofizialetarako Akademiaren kautxuzko zigilu bat behar zuen. Abuztuaren 25ean T. Garicano Gipuzkoako gobernadore zibilari baimena eskatu zion zigilu ofiziala egiteko, Akademiaren izenaren bertsio frantsesaz zuhurki gabetua:

> En el círculo, parte superior: «Euskaltzaindi», que significa «Academia de la Lengua Vasca».
>
> En la parte inferior: Academia de la Lengua Vasca.
>
> En el centro: un árbol que simboliza la pureza del idioma con una leyenda que dice «Ekin eta Yarrai» que significa «dar comienzo y seguir» y alude también a esa misma acción protectora.[1057]

Gobernu Zibiletik irailaren 1ean zigiluaren diseinuaren bi kopia eskatu zizkioten eta berak irailaren 7an bidali zituen.[1058] Baina administrazioaren isiltasuna erabatekoa zenez, GPDko presidentearengana jo zuen laguntza bila irailaren 25ean, eta diseinuaren beste kopia bat bidali zion.[1059] J. M. Caballeroren gestioari esker, T. Garicanok biharamunean eman zion Akademiaren zigilua egiteko baimena euskaltzainburuordeari.[1060] Horrela, Gráficas Valver-

---

[1054] KMK: I. M. Echaideren gutuna J. Urizi, 1953-06-24.

[1055] KMK: I. M. Echaideren gutuna M. Gortariri, 1953-07-20.

[1056] ABA-EUS/KMK: I. M. Echaideren gutuna M. Gortariri, 1953-08-14.

[1057] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna T. Garicanori, 1953-08-25.

[1058] ABA-EUS: T. Garicano eta I. M. Echaideren arteko ofizioak, 1953-09-01 & 1953-09-07.

[1059] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna J. M. Caballerori, 1953-09-25.

[1060] ABA-EUS: T. Garicanoren ofizioa I. M. Echaideri, 1953-09-26.

IKER-35.indd 395 2/9/19 10:56

de-k egin ahal izan zuen zigilua Euskaltzaindiarentzat.[1061] 45,50 pezetako kostua izan zuen, baina Antonio Valverde «Ayalde»k azkenean ez zien ezer kobratu nahi izan.[1062]

Euskaltzaindiaren 1953ko iraileko batzarrean I. M. Echaidek adierazi zuen A. Irigarayk NFDtik hartutako diru laguntzaren berri. Horrela, 1952an hartutako 1.000 pezetako diru laguntza negargarria, 38.750 pezetara igaro zen 1953an, agintari politikoekiko harremanak konpondu eta 1951-1952 artean atzeratutako kopuruak berreskuratzearen ondorioz. Honela banatu ziren 1953ko diru laguntzak: NFDk 15.000 pta., JCVk 13.750 pta., GPDk 5.000 pta. eta Gipuzkoako CAPek beste 5.000 pta. Horrela ordaindu ahal izan ziren urteko 17.000 pta. inguruko gastuak: egoitzaren errenta, *Euskera* agerkariaren argitaratzea, aldizkari harpidetzak, langileen soldatak (J. Gorostiaga liburuzainarena barne) edota euskaltzainen dietak.[1063]

1953ko azaroan, euskaltzainburuordeak hainbat arazo eztabaidatu zituen idazkariarekin. G. Maidagan 1941az geroztik Akademiako diruzaina zenik ez zekiten askok, 1948az geroztik ez baitzen Euskaltzaindiaren batzarretan diru sarrera eta irteeren errendapena egiten (Euskaltzaindia 1956: 329). I. M. Echaidek nahi zuen diru funtsak erabiltzeko baimena soilik Espainiako euskaltzainei ematea, Frantziako erakundeek ez zutelako laguntzarik ematen. Idazkariari aginpidea eman nahi zion euskaltzainen osterak edozein unetan ordaintzeko. Bestalde, Donostian 500 pta. gordetzen zituzten, batez ere korrespondentziarako.[1064] Hala ere, Donostian ezin izan zuten Gipuzkoa-Nafarroetako diru laguntza ofizialak jasotzeko kontu korronterik ireki Euskaltzaindiaren izenean, izaera juridikorik ez zuelako. Horregatik, Banco de San Sebastián-en aurrezki libreta soil bat ireki behar izan zuten I. M. Echaideren (banku horretako kontseilari zen mende hasieratik) eta A. Irigarayren izenean.[1065]

1954an, egoera erlatiboki normalizatuan, Euskaltzaindiak 23.750 pezetako diru laguntza jaso zuen, itolarri ekonomikoa gainditzeko bidean jarrita, inflazioa gorabehera. Dena dela, kontuan hartu behar da JCVk 1953an eta 1954an CSICen «Patronato *José M.ª Quadrado* de Estudios e Investigaciones Locales»etik soilik hori baino gehiago jaso zuela. Honela banatu ziren JCVren 1954ko diru laguntzak: BPDk 100.000 pta., Bilboko Udalak 50.000 pta. eta

[1061] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna A. Valverderi, 1953-09-29.
[1062] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-12-03.
[1063] ABA-EUS: G. Maidaganen kontabilitate liburua, 1953.
[1064] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-12-03.
[1065] KMK: I. M. Echaideren gutuna A. Irigoyeni, 1954-11-17.

IKER-35.indd 396 2/9/19 10:56

Irudia 20. **Euskaltzaindiaren zigiluaren diseinua (Antonio Valverde, 1953)**

Iturria: Euskaltzaindia (Azkue Biblioteka eta Artxiboa).

CSICek 25.000 pta. Guztira 175.000 pta; Euskaltzaindiak baino zazpi aldiz gehiago, alegia. Gainera, JCVren liburuak salduta, 14.325 pta. gehiago irabazi zituzten urte horretan.[1066]

Izan ere, honela banatu ziren Euskaltzaindiaren 1954ko diru laguntzak: NFDk 5.000 pta., JCVk 8.750 pta., GPDk 5.000 pta. eta Gipuzkoako CAPek beste 5.000 pta. Horrela ordaindu ahal izan ziren urteko 25.700 pta. inguruko gastuak: besteak beste, *Guero*ren berrargitalpenaren 2.000 pezetak, J. Gorostiagaren 4.000 pezetako soldata, euskaltzainen dietak edota egoitzako lanak. Azken erabakien arabera, JCVri 10.000 pta. ematea zegokion. 8.750 pta. besterik eman ez izana, J. Gorostiagak irailaren 25ean Ameriketara alde egitearen ondorio izan zen; JCVren diru laguntzaren ia erdia (4.800 pta.) liburuzainaren soldata ordaintzeko baitzen. N. Oleagak, Euskaltzaindiaren JCVko ordezkari gisa, hurrengo urtean protesta egin zuen diru laguntzaren murrizketagatik, Akade-

[1066] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1953-12-12 & 1954-12-28, Junta de Cultura C-62.

IKER-35.indd 397 2/9/19 10:56

miak A. Irigoyen izendatu baitzuen J. Gorostiagaren behin-behineko ordezko.[1067] 1955eko abenduan JCVk berriz ere diru laguntza osoa ematea erabaki zuen.[1068] Ikusi dugunez, Euskaltzaindiak BPDren berariazko laguntza izan zuen egoitzaren konponketa ordaintzeko.[1069] Bestalde, Donostiako CAMak emandako 1.000 pezetak Akademiaren diruzaintzak ez zituen laguntza ofizialen artean jaso, I. M. Echaidek ez zuelako informazio hori behar bezala adierazi.[1070]

6.6. EUSKALTZAINDIAREN ARGITALPENAK

Euskera agerkari ofiziala

1953ko apirileko batzarrean, A. M. Labayen urgazleak *Euskera* berriz argitaratzeaz dosierra irakurri zuen, eta Pedro Axularren (1556-1644) jaiotzaren laugarren mendeurrena ospatzeko *Guero*ren (1643) berrargitalpena egiteko diru laguntzak eskatzea proposatu zuen. *Euskera* agerkariaren zenbaki berriaz, A. M. Labayenek martxoaren 7an N. Oleaga idazkariari idatzitako gutunean, hainbat xehetasun eman zizkion. Zenbaki berriak 48 orrialde izango zituen goiburu honekin: «1953 *Euskera* 2 gn Aroa 1'go Zenbakia XVII urtea».[1071] Edukiak honela banatuko ziren:

– Zenbakiaren aurkibidea (2. orrialdea)
– Hitzaurrea (3)
– Euskaltzainen hilberriak (4-19)
– *Euskera*n 1920-1937 artean argitaratutako artikulu eta akten aurkibidea (20-39)
– Euskaltzain eta urgazle berrien zerrenda (40-42)
– Euskaltzaindiak azkenaldian egindako batzarren, hartutako erabakien eta zenbait argitalpenen berri laburra (43-48)

[1067] BFAH-EC: N. Oleagaren ofizioa F. Echegarayri, 1955-11-28, Educación, Deportes y Turismo 9, C-930 -EXP- 043.

[1068] BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1955-12-16, Junta de Cultura C-62.

[1069] ABA-EUS: G. Maidaganen kontabilitate liburua & A. Irigoyenen urteko balantzea, 1954-12-31.

[1070] KMK: I. M. Echaideren ordainagaria Donostiako CAMari, 1954-06-15 (cf. Euskaltzaindia 1982: 36).

[1071] ABA-EUS: A. M. Labayenen gutuna N. Oleagari, 1953-03-07. Orrialde kopuruaren eskasiaz jabetzeko, argitaratuko azken hiru *Euskera* monografikoek 169, 192 eta 64 orrialde izan zituzten, hurrenez hurren (cf. Moguel 1935-1937; Altube 1936).

IKER-35.indd 398 2/9/19 10:56

Irudia 21. **1953ko *Euskera* agerkariaren azala eta 1954ko eranskailua**





Iturria: Euskaltzaindia (Azkue Biblioteka eta Artxiboa).

IKER-35.indd 399 2/9/19 10:56

A. M. Labayen bera antolatzen ari zen lehen atalak, A. Irigaray, L. Villasante eta L. Michelenaren laguntzarekin. Azken bi atalak N. Oleagaren esku uzten zituen, 1941ean izendatutako idazkariak gorabehera horien berri zehatza zuelako. 500 ale argitaratzeak 3.000 pezetako kostua izango zuen. Euskaltzaindiaren diru laguntzen arazoa bideratu ezean, Akademiaren argitalpen zaharrak saltzea proposatu zuen. Nolanahi den, Akademiak kosta ahala kosta plazaratu behar zuen agerkari ofiziala urgazlearen ustez: «Nai ta naiezkoa zaigu gure bizi-agiri ta lekukotzat».[1072] Tolosako jeltzaleak, orobat, hitzaurrerako prestatutako «Aurrera!» izeneko testua bidali zion idazkariari, ezinbestean gipuzkeraz idatzia eta gerra zibil aurreko Akademiarekiko jarraitutasuna aldarrikatzen zuena, ideologia politikoen gainetik:

> Amasei urteko isilunearen ondotik berriz EUSKERA gure aldizkaria argitaratzen jarraitzera goaz.
>
> Betikoak dira gure asmoak: alderdikeri ta etsaigo guzien gañetik gure izkuntza aztertu ta zaintzea, onela euskal-jakintza ta Literaturari indar emanez. Ori izan bait da sartu zanetik EUSKALTZAINDI'ren xede ta elburu nagusia.
>
> EUSKERA'ren azken banakoa agertuz geroz aldakuntza gaitzak izan ditugu gure artean. Ain maite ta begiko genitun euskaltzain ta adiskide auek il zaizkigu: Campión, Eguzkitza, Olabide, Inzagarai, Urkixo, Mgr Saint Pierre jaunak. Eta batik bat, azkenik D. R. Azkue gure lendakari ta maiburu guziz agurgarri ta aztueziña. G. B[.] guziok!
>
> Beste leku batean irakurri zenitzakete aien oroitzapenez azaltzen ditugun nekroloji ta omenaldi laburrak. Ez ditugu ere antziko gure otoitzetan gure irakasle ta lankide izan ziranak Jauna'gan atseden ar dezaten.
>
> Euskaltzaindi'n aiek utzi diguten utsunea, ordea bete bearra zegon eta orregatik al izan dugun eran beste euskaltzain berri batzuek izendatu ditugu. Jaun auen izen eta xehetasunak dagokion toki berezian arkituko dituzute, baita ere.
>
> Onela euskaltz[a]in zahar eta berriak elkarturik gure aurrekoek zabalduriko bidetik joan al izango gera; ta jarraituko diogu aiek egindako lanari. Ez zan errez beti erakusbide ta lan aiek zeintzuek izan ziran jakitea. Eta ona zergatik Euskera'n amasei urtez argitaratu idaz-lan eta agirien Arkibidea emen ematen dugun.
>
> «Index» onen bitartez irakurleak eroso arki ditzake Euskaltzaindia'ren erabaki nagusienak eta idazlan eta beren egilleen izenak.
>
> Askok uste ez bezelako uzta ugari ta joria dago Euskera'ren orrialdeetan eta guzientzat ba-dago zer ikasia.

[1072] ABA-EUS: A. M. Labayenen gutuna N. Oleagari, 1953-03-07.

IKER-35.indd 400 2/9/19 10:56

> Eztabaidetan zentzuz jokatuz, eta utsegite ta okerretik igesi egiñez lotu gaitean lanari gogo on et[a] biotz zabalez gure euskeraren alde galdu dugun astia Jainkoa'ren laguntzaz irabaztearren.
>
> Gure bultzagai bitez itz auek: Ekin eta Jarrai.[1073]

Euskaltzaindiaren gerraondoko historia nahasiaren erakusgarri, A. M. Labayenek prestatutako hilberrien zerrendan J. C. Guerra, G. Lacombe eta P. Zamarripa falta ziren. Akademiaren apirileko batzarraren ostean, A. M. Labayenek eskatu zion N. Oleagari, euskaltzainen zerrenda ez ezik, bizirik zeuden urgazle eta deduzkoena ere osatzeko, *Euskera* berriaren argitaratze lanak hasiak zirelako.[1074] A. M. Labayenen berezko optimismoa gorabehera, frankismoaren instantzia ofizialekin harremanetan zeuden I. M. Echaide eta A. Irigarayk berehala atzeman zituzten agerkari ofiziala berriz argitaratzeko oztopoak. Hasteko, prestatutako hitzaurrea kentzea nahitaezko ikusten zuen euskaltzainburuordeak:

> Surgen dificultades de consideración para que la censura lo apruebe y por ello estimamos prudente no dar a imprenta, por el momento, el texto que para la continuación de la misma ha sido redactado.
>
> Ignoramos si convendrá editarla como revista o como libro, pues bien pudiera ocurrir, que como libro hallásemos mayores facilidades. Tampoco sabemos si convendrá imprimirla en San Sebastián o fuera de la Provincia. Tal vez fuera hallemos menos dificultades y mejores precios de imprenta. Parece que en Pamplona los precios son notablemente más bajos y más aun en Zaragoza.[1075]

Tolosako alkate ohiak erbesteko A. Ibinagabeitiari Akademiaren asmo guztiak jakinarazi zizkion, eta EAJ-PNVk zalantzarik gabe urrats horien berri bazuen. Hain zuzen, A. Ibinagabeitiak, Euskaltzaindiari presio egitearren, EJ-GEren Parisko berripaperaren euskal orrian jakinarazi zuen gerra zibilak etendako *Euskera* agerkari ofiziala berriz agertzear zela: «Euskal-bidetik, noizbait bada ere, sartuko al gera, eta betiko» (*Euzko Deya* 1953-05-01).[1076] Agian erbesteko prentsak eragindako oihartzunaren ondorioz, A. M. Labayenek etsi-

---

[1073] ABA-EUS: A. M. Labayenen «Aurrera!» hitzaurrea, [1953-03-07].

[1074] ABA-EUS: A. M. Labayenen gutuna N. Oleagari, 1953-04-26.

[1075] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna A. M. Labayeni, 1953-05-04.

[1076] ABA-AIB: A. M. Labayen eta A. Ibinagabeitiaren arteko gutunak, 1953-04-28 & 1953-05-20. Hain zuzen, A. Ibinagabeitia arduratzen zen barnealdeko zenbait akademikori *Euzko Deya*, *Alderdi*, *Gernika*, *Elgar* edota *Euzko-Gogoa* eskuratzeaz. Trukean, *BRSVAP*, *Egan* edota *Aránzazu* jasotzen zituen.

IKER-35.indd 401 2/9/19 10:56

penez eman zion aurkitutako eragozpenen eta zenbait euskaltzainen jarrera ezkorraren berri *Euzko Deya*ko euskal orriaren arduradunari.[1077] Izenik ez aipatu arren, badirudi batzar horretako A. Irigaray mahaiburua zatekeela euskaltzain beldurtia. Bertan izandako L. Villasantek ere, izenik aipatu gabe, harrituta zegoela jarrera horrekin adierazi zion Bilboko idazkariari: «Eta gaiñera erriari dirua eskatu nai diogu? Zertarako eta nola, baiña, ezpaitugu ezer ere egiten?».[1078] Dena dela, maiatzean A. Irigarayk aldizkariaren baimena bideratzeko laguntza eskatu zion CSICen Madrilgo argitalpen zerbitzuan lanean ari zen J. M. Azaolari. Horren arabera, aldizkaria CSICen izenean argitaratzeko asmoak huts egina zuen lehenago, eta RSVAPen laguntzarekin argitaratzeko aukera aztertzen ari ziren.[1079]

1953ko ekainaren 26an euskaltzain hauek batzartu ziren GPDko jauregian: I. M. Echaide, A. Irigaray, J. Gorostiaga, M. Lecuona eta N. Oleaga. L. Villasantek ezin etorria adierazi zuen, Arantzazuko santutegiko irakasleen bilera zuelako.[1080] L. Dassancek ere telegrama bidali zuen bere burua desenkusatzeko.[1081] Euskaltzainburuordeak adierazi zuen *Euskera* agerkariaren zenbaki berriaren argitalpena ia bukatuta zegoela. N. Oleagak, B. Bureba Prensa y Propaganda-ren Bizkaiko delegatuarekin hitz egin ondoren, baimena laster lortuko zutela uste zuen (Euskaltzaindia 1982: 29).[1082] Idazkariak, orobat, egun horretan eskuratu zion I. M. Echaideri euskaltzain, deduzko eta urgazle bizien zerrenda.[1083]

Euskaltzaindiak ez zuen batzarrik egin 1953ko uztailean, hileko azken ostirala urte horretan San Ignacio de Loyolaren (SI) eguna izan zelako, Bizkai-Gipuzkoetako patroia. Donostiako euskaltzainak, GPDren babesarekin, indarberrituta ageri ziren. *Euskera* agerkariaren inprimaketa ia amaituta zegoen, eta ale batzuk bidali nahi zizkioten N. Oleagari, zentsura igarotzeko Bizkaian erraztasunak izango zituztelakoan. Bestalde, literatura lehiaketa bat antolatzeko asmoaz beste, Bilboko egoitzan salgai zeuden idazlanen zerrenda nahi zuten.[1084]

[1077] ABA-AIB: A. M. Labayenen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1953-06-08.

[1078] ABA-EUS: L. Villasanteren gutuna N. Oleagari, 1953-06-23.

[1079] Sancho el Sabio Fundazioa, José Miguel Azaola funtsa: A. Irigarayren gutuna J. M. Azaolari, 1953-05-02.

[1080] ABA-EUS: L. Villasanteren gutuna N. Oleagari, 1953-06-23.

[1081] ABA-EUS: L. Dassanceren telegrama N. Oleagari, 1953-06-25.

[1082] Bernardo Burebaren izena soilik akta zirriborroan agertzen da (ABA-EUS: N. Oleagaren akta zirriborroa, 1953-06-26).

[1083] ABA-EUS: N. Oleagak I. M. Echaideri emandako euskaltzainen zerrenda, [1953-06-26].

[1084] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-08-14.

IKER-35.indd 402 2/9/19 10:56

Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkaria 1953ko urriko datarekin inprimatu zen «Cuaderno I» gisa, eta «Editorial de la Academia Vasca Bilbao-San Sebastián» oinarekin, legezko izaerarik ez zuen argitaletxe batenarekin, alegia. Babesorrian, euskaltzain eta urgazle bizien zerrenda agertzen zen, I. M. Echaide buruaren eta N. Oleaga idazkariaren azpian. Euskaltzainen artean, J. Irigoyen ez zen agertzen, bai ordea, J. M. Seminario. Erbesteko F. Krutwig eta D. de Inza ere zerrendan zeuden, baina hutsune begien bistakoa zegoen: S. Altube.[1085] Euskaltzaindiaren artxiboan ez da gordetzen S. Altuberen ukorik, eta pentsa liteke arrazoi politikoengatik kendu zutela erbesteko jeltzalearen izena. Hain zuzen, idazkariak I. M. Echaideri 1953ko ekainean eskuratu zion zerrendan, S. Altube ageri zen lehenengo, eta hura ezabatzea ezin zen kasualitate hutsa izan. Zerrenda horretan P. Lafitte falta zen, baina akats hori konpondu egin zuten 1953ko *Euskera*ren babesorrian.

Dena dela, S. Altubek erbesteko kulturgintzan ere ez zuen parte hartze oso nabarmenik. *Gernika* aldizkarian «Acentuacion española y francesa de los apellidos y topónimos vascos» artikulu luzea argitaratu zuen, N. Ormaecheak beti bezala eztabaidatu zuena (Altube 1951-1953). S. Aranaren heriotzaren 50. urteurrenean, EAJ-PNVren intelektual nagusiekin batera agertu zen, alderdiaren agerkariaren zenbaki berezian. «Arana Goiri idatz-iztilari» artikuluan bere betiko leloari eutsi zion. S. Arana 1903an hil geroztiko linguistika eta filologia kontuan hartu beharra, ortodoxia antzuan erori gabe. A. Ibinagabeitiak, aldiz, «Arana Goiri euskel-idazle» artikuluan EAJ-PNVren sortzailearen defentsa politikoagoa egin zuen (*Alderdi* 1953-11; 1954-06). S. Altube, besteak beste, gerra zibilean frankistek Arrasate jaioterrian eta inguruko herrietan egindako hilketen informazioa biltzen ari zen, *Alderdi*n argitaratzeko.[1086]

Urgazleei dagokienez, N. Oleagaren zerrendan 1952ko udan izendatutako bi kideak (S. Michelena eta E. Erquiaga) falta ziren, baina akats horiek ere konpondu zituzten argitalpenean. J. Thalamás, ordea, zerrendatik argitalpenerako bidean galdu egin zen. Idazkariaren agirian agertutako bi urgazle (J. Jud eta J. Jauréguiberry) 1952an hil zirenez, kendu egin zituzten zerrendatik. Baina N. Oleagak prestatutako zerrendan ageri ez zirelako, 1953ko *Euskera*n hamazazpi urgazle falta ziren, Akademiaren historia gorabeheratsuaren era-

[1085] 1953ko *Euskera*n agertutako euskaltzain zerrendan, N. Oleagak prestatutako agiritik jasotako bi akats bitxi daude. Alde batetik, M. Olasagarre eta «Dámaso de Inza» (OFMCap) bi pertsona ezberdintzat jotzen ziren; bata urgazle eta bestea euskaltzain. Bestetik, Constantin aita-semeak, Jean-Baptiste (1847-1922) eta Albert (1873-1957) nahastu egin zituzten.

[1086] SAF-AA: S. Altuberen gutuna I. Uncetari, 1953-10-19, PNV_NAC_EBB,K.00144,C.5.

IKER-35.indd 403 2/9/19 10:56

kusgarri.[1087] Bestalde, idazkariaren ekaineko zerrendan eta, ondorioz, 1953ko *Euskera*n J. Diharce agertzen zen urgazle, nahiz eta aktetan izendapen horren arrastorik ez egon. Seguruenez N. Oleagaren nahaste horri zor zaio «Iratzeder» urgazle izatea. Idazkariaren zerrendan deduzko gisa ageri zen H. Gavel, halaber, urgazle soil izatera pasatu zen 1953ko argitalpenean.[1088]

Urgazle izendapenek eragin zitzaketen gatazkak erakusteko, Michel Labéguerie (1921-1980) Kanboko mediku gaztearen kasua aipatuko dugu, F. Krutwigen 1949ko erreforma dosierrean jadanik urgazletarako proposatua ageri zena. J. Elissalde euskaltzainak 1953ko irailaren 25eko batzarra baliatu zuen urgazletarako proposatzeko eta hala onartu zuten (Euskaltzaindia 1982: 30-31).[1089] Hain zuzen, irailaren 10ean Donazaharren (Pirinio Behereak) egindako Eskualzaleen Biltzarrean, J. Elissalde zaharrak elkartearen idazkaritza utzi eta J. Camino elizgizon gazteak hartu zuen. Besteak beste, M. Labégueire «buru-lagun» izendatu zuten eta, belaunaldi berriaren ordezkari gisa, hitzaldi kartsua egin zuen:

> Eskuara galtzen ari dela, eskual gogoa hiltzera doala, ez da bertzerik aiphazen dela kazetetan, dela mintzaldietan. Bainan guk, eskualzaleek zer egiten dugu eskual mintzaira eta eskual arima ez diten suntsi? Uste duzue Eskual-Herria Eskual-Herri atchikitzeko aski dela urthean behin maahin baten inguruan egun bezala jartzea eta lagunekin zonbeit oren gochoen iragaitea? Uste duzue bada Eskual-Herria Eskual-Herri atchikitzeko aski dela udan gure herrirat arrotzak trumilka jiten direnian, heien aintzinean eta heien ohoretan galtza churiak jauntzirik pilotan edo dantzan aitzea? (Labéguerie 1953: 372).

Hala ere, A. Ibinagabeitiak, etorkizun oparoko medikuaren izendapenaren berri jakin zuenean, argi antzeman zion J. Mirandek, meritu gehiago izan arren, Baionako elizbarrutiko gizonen beto ideologikoa zuela.[1090] A. M. Labayenek agindu zion hurrengo batzarrean bera eta J. Mirande proposatuko

---

[1087] O. Apraiz, J. M. Errazti, L. González de Echavarri, 1953ko uztailean hildako C. Elguezabal, Ch. Orabe, W. Rollo, M. Inchaurrondo, R. J. Slaby, J. Caro, J. Azcárate, J. Chabagno, J. Ithurriague, M. P. Ciganda, M. Labéguerie eta hiru fraide kaputxino: E. de Echalar, P. Soloeta-Dima eta B. de Oyeregui. Hain zuzen, *Zeruko Argia* euskal aldizkaria berriz argitaratzen hasia zen B. de Oyereguik (OFMCap) protesta egin zuen akats horregatik (ABA-EUS: B. de Oyereguiren gutuna I. M. Echaideri, 1955-03-30; cf. Torrealdai & Murua Uria 2009: 161-165).

[1088] ABA-EUS: N. Oleagak I. M. Echaideri emandako euskaltzainen zerrenda, [1953-06-26].

[1089] Garaiko giro nahasiaren eta erabakien ziurtasunik ezaren ondorioz, M. Labéguerie berriz izendatu zuten urgazle 1960ko urtarrilean, Eskualzaleen Biltzarreko buru izendatu zuten urtean (Euskaltzaindia 1982: 91).

[1090] ABA-AIB: A. Ibinagabeitiaren gutuna A. M. Labayeni, 1953-10-06.

IKER-35.indd 404 2/9/19 10:56

zituztela urgazletarako, baina ez da horren frogarik.[1091] J. Chabagno Parisko «Société des Missions Etrangères» delakoaren idazkari nagusi eta urgazleak, adibidez, bere oposizioa adierazi zion P. Lafitteri 1953ko urtarrilean: «Malheureusement Mirande groupe dans un café quelques basquisants. Il leur fait un mal sérieux. Je me demande s'il est communiste» (Andiazabal & al. 2006: 217).

Nolanahi den, zenbaki berriaren atal nagusia frantziskotar euskaltzainak prestatutako 1920-1937 arteko aurkibideek osatzen zuten, Euskaltzaindiaren garai distiratsuagoaren erakustokia zirenak (Villasante 1953b). Ondoren «Algunos acuerdos de la Academia Vasca» atal laburra zetorren gaztelaniaz, Akademiak 1951ko apirilean hartutako erabaki ortografikoak azaltzen zituena, «h» eta «ñ» grafemez ohar batzuk gehituta. Erabaki ortografiko horiek zelako oihartzun mugatua zuten, P. Barojak 1953ko ekainean Bartzelonako Destino argitaletxearekin plazaratutako *El País Vasco* gidaliburuko hitz hauek erakusten dute: «Advierto que cuando pongo alguna palabra o alguna frase en vascuence, no empleo la ortografía moderna, porque me parece una ridiculez en una lengua vieja y moribunda cambiar los signos ortográficos y hacerlos incomprensibles para el hombre corriente» (Baroja 2006: 7). Dena dela, 1951ko hura zen Euskaltzaindiak gerraondoan argitaratutako lehen erabaki ofiziala, 1920an araututako ortografia partez aldatzen zuena, F. Krutwigek egindako proposamenen bidetik (Zuazo Zelaieta 1988: 383-385).

> Mantener la grafía r, l, t, d, con tilde para los sonidos de erre fuerte y consonantes mojadas; pero acordó igualmente admitir como grafías correctas los signos rr, ll, tt, dd, para dichos sonidos porque en ocasiones será ventajosa esa forma por dificultades tipográficas o particular clase de lectores.
>
> También se ha acordado aceptar como forma académica en los dialectos meridionales el signo h, aun no correspondiendo a pronunciación aspirada en determinados casos de evitación del hiato de vocales, como «ohore», «ahate», «zuhurra», etc.; o en algún caso de diferenciación semántica, como «ori-hori», «ura-hura», «ari-ahari», etc., siendo naturalmente correcto el no uso de dicho signo h.
>
> Se ha consultado a la Academia la manera correcta de emplear los nombres geográficos. Se debe en general respetar la grafía original así por ejemplo en: Quebec, Vaticano, Córdoba, etc. o recurrir a las formas españolas o francesas que son las más conocidas entre nosotros.

[1091] ABA-AIB: A. M. Labayenen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1953-10-21.

IKER-35.indd 405 2/9/19 10:56

> Respecto a las variantes baño, baino o baiño será preferible escribir esta última en los dialectos meridionales (Euskaltzaindia 1953: 27).[1092]

Ondoren gerra zibilaz geroztik hildako euskaltzainen hilberri laburrak idatzi zituzten euskaraz N. Ormaecheak (R. M. Azkue), A. Irigarayk (A. Campión), L. Michelenak (J. Urquijo), S. Michelenak (R. Olabide), M. Lecuonak (J. B. Egusquiza), A. Anabitartek (R. Inzagaray), P. Lafittek (J. Saint-Pierre) eta «X» sinatzen zuen egile batek (P. Zamarripa, J. C. Guerra eta G. Lacombe).[1093]

Azkenik, «Actividades de la Academia» atal anonimoa zegoen gaztelaniaz. GPDko jauregian emandako literatura hitzaldi eta hizlarien berri emateaz gain, *BRSVAP*en argitaratuko zituztela iragartzen zuten, nahiz eta gero batzuk *Egan*en agertu ziren. Era berean, Euskaltzaindiaren argitalpenak iragarri zituzten, diru laguntza ofizial nahikorik izanez gero: P. Axular, A. Oihenart, E. Garibay eta J. Etcheberri Sarakoa. Bestalde, idazle garaikideen antologia eta haurrentzako folklore bilduma. Bukatzeko, Akademiaren lexikografia eta A. Irigarayk proposatutako lehiaketa izan zuen hizpide liburuxkak:

> Pero el menester más obligado de «Euskaltzaindia», que no lo aborda por falta absoluta de medios, será siempre la edición invertida castellano-euskera, iniciada ha tiempo, del gran diccionario de Azkue: o por lo menos, la de un lexicón manual restringido, castellano-euskera, con criterio moderno; y dedicado a los Instructores y literatos, en el que se dé cabida a algunos términos técnicos, científicos y urbanos, de uso corriente. Si las asistencias esperadas con fundamento no fallan, será acaso conveniente pensar en algún Concurso de trabajos del tipo de los reseñados (Euskaltzaindia 1953: 47).

1953ko urriaren 25ean bederatzi euskaltzain batzartu ziren GPDko jauregian: I. M. Echaide, A. Irigaray, M. Lecuona, L. Dassance, J. Gorostiaga, L. Villasante, L. Michelena, J. Moulier eta N. Oleaga. A. Irigarayk adierazi zuen *Euskera* agerkariaren zenbaki berria prest zegoela, eta idazkariaren esku utzi zuen argitalpenerako behar zen baimena lortzea (Euskaltzaindia 1982: 32). Izan ere, N. Oleaga idazkariak urriaren 15ean idatzi zion Informazio eta Turismoko ministerioaren Bizkaiko delegatuari Akademiaren agerkaria argitaratzeko baimen eskaera formala, baina artean ez zegoen erantzunik. Aldizka-

---

[1092] *Euzko-Gogoa*ko arduradunek sabindar tradizioko «ŕ» grafema maite arren, lankideei eskatu zieten horren ordez «rr» digrafoa erabiltzeko, Guatemalako inprimategian ez zutelako «ŕ» hori (Euzko-Gogoa 1954c)

[1093] Egilea A. M. Labayen urgazlea zatekeen, *Euskera*ren edizioaz arduratu zena (cf. Euskaltzaindia 1953: 29-43).

IKER-35.indd 406 2/9/19 10:56

riaren izaera apolitikoa nabarmendu zuen idazkariak, eta euskarazko testuen gai arantzatsuan, zentsurari erraztasunak emateko prest zeudela:

> Que esta Academia, Corporación creada y sostenida por las Excmas. Diputaciones Provinciales de Vizcaya, Guipuzcoa y Navarra, y cuyo objeto es el estudio científico del vascuence, trata de publicar con el título de «Euskera» una modesta revista en que se insertan, a la par que sus acuerdos corporativos, los trabajos que en relación con sus fines científicos y culturales ofrezcan sus miembros de número y correspondientes, así como los colaboradores y cuantos se interesen por el estudio del milenario idioma que desde hace ya muchos años lleva tras sí la atención y preocupación de los sabios más destacados en el campo filológico y lingüístico.
>
> Al efecto solicita por mi mediación la necesaria autorización de V.S.
>
> Como es obvio, tratándose de publicación de esta Academia y dada la materia sobre que han de versar, muchos de los trabajos que habrán de publicarse en dicha revista irán redactados en vascuence, circunstancia que se hace notar por lo que afecta a la censura gubernativa a que hayan de someterse y que esta Academia ofrece facilitar en el más alto grado posible.[1094]

N. Oleagak, halaber, jakinarazi zuen Bilboko egoitza konpontzeko lanen prestaketa JCVk abiatu berri zuela. L. Michelenak, bestalde, bere lehen liburuaren ale bat eman zion Euskaltzaindiari: RSVAPek agindu eta «Monografías vascongadas» bilduman argitaratutako *Apellidos vascos* (1953b). Liburu hau, egilearen hasierako zalantzak gorabehera, mugarri izan zen euskal onomastika eta etimologia modu zientifiko batean aztertzeko eredu gisa. Berehalako oihartzuna eta arrakasta kormetziala izan zituen, eta 1955ean bertan agertu zen bigarren edizioa.[1095] *BRSVAP*en ez ezik, lagunek iruzkin positiboak egin zizkioten Société de Linguistique de Paris-en edota CSICen aldizkarietan.[1096] M. Agud Donostiako institutu katedradunak ere, L. Michelenaren gaitasuna goratu zuen *BRSVAP*en idatzitako iruzkinean. Jeltzalearen aurrekari politikoak baztertu eta hari SFVJUn toki bat egiteko eskari ofiziosotzat ere har zitekeen: «Hombre de un rigor en la investigación, de una probidad y de una prudencia poco común en estas cuestiones, ha sabido, si no presentar la obra definitiva (como él mismo dice), sí establecer un punto de arranque serio y en

---

[1094] ABA-EUS: N. Oleagaren eskaria B. Burebari, 1953-10-15.

[1095] RSVAPek «Monografías vascongadas» sailean argitaratu zituen, besteak beste, A. Tovarren *La lengua vasca*ren bigarren edizioa (1954), J. Gorostiagaren *Antología de poesía popular vasca* (1955) eta aipatutako L. Michelenaren *Apellidos vasco*en bigarren edizioa (1955).

[1096] CCG-RP: L. Michelenaren gutuna R. Piñeirori, 1953-08-22.

IKER-35.indd 407 2/9/19 10:56

su mayor parte inconmovible en tan resbaladizo terreno» (Agud 1953: 279; cf. Lafon 1953b; Vallejo 1954).

Hain zuzen, *Euskera*k izoztuta jarraitzen zuen bitartean, *BRSVAP* zen euskaltzainen lan gehienak argitaratzen zituen aldizkaria. Adibidez, L. Villasantek urriko batzarrean J. Etcheberriz emandako hitzaldiaren separataren ale bat eman zion Akademiari. 1953an akademiko hauek argitaratu zituzten artikulu, iruzkin edota berri laburrak *BRSVAP*en: I. M. Echaide, B. Echegaray, J. Gorostiaga, A. Irigaray, R. Lafon, M. Lecuona, L. Michelena, L. Villasante, K. Bouda, A. M. Labayen, A. Tovar, J. Vallejo eta P. Zabalak. L. Michelenak bereziki, A. Oihenartez egindako hitzaldia argitaratzeaz gain, liburu iruzkinen bidez, euskaltzainburuordeak taxuz bete ezin zezakeen J. Urquijo zenaren zentsore lana egiten zuen.[1097] Euskaltzain berria *BRSVAP*eko erredakzioaz arduratzen zen. I. M. Echaidek, esaterako, artikulu jakinen separatak euskaltzain guztiei bidaltzeko eskatzen zion, bereziki erbestekoei, gehien eskertzen zutenak zirelakoan.[1098]

1953ko azaroaren 27ko batzarrean, idazkariak azaldu zuen artean ez zuela B. Burebarekin biltzerik izan, eta ondorioz Informazio eta Turismoko ministerioaren Bizkaiko delegatuaren baimenik gabe jarraitzen zutela *Euskera* berria argitaratzeko. Batzarrak berriz ere N. Oleagaren esku utzi zuen hori bideratzea. Baimenik lortu gabe, *Euskera* zenbaki berriko aleak banatzen hasi ziren argitaletxetik.[1099] A. Ibinagabetiak, adibidez, azaroan bertan jaso zuen bere alea Parisko erbestean.[1100] Hori oso arriskutsua zen. Buruordeak agerkaria 15 pezetako prezioan saldu nahi zuen eta harremanetan zegoen Donostiako liburu dendekin gordailua eta propaganda bideratzeko.[1101] Tolosako Editorial Muguerza-k, 48 orrialdeko *Euskera* agerkariaren 500 alegatik, 3.200 pezetako faktura egin zion Akademiari abenduaren 10ean.[1102]

Nire ustez arazo nagusiak bi ziratekeen. Alde batetik, Espainiako Gobernuak Mundu Gerrako aro falangistenean aldizkariak argitaratzeko ezarritako arauak oso zorrotzak ziren. 1936ko uztailaren 18aren aurretik argitaratzen ziren aldizkariek oso argi azaldu behar zuten noiz eta zergatik utzi zioten argitaratzeari, zein zen agerkariaren helburua eta arduradun nahiz lankide guztien

---

[1097] Bere eskuetatik igaro ziren 1953an egile hauen lanak: R. Lafon, K. Bouda, J. Errandonea asiriologoa, J. Hubschmid, J. Gorostiaga, V. Amézaga, J. M. Barandiaran eta J. Séguyrenak (cf. Elósegui Irazusta 1970).

[1098] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna L. Michelenari, 1953-11-10.

[1099] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-12-03.

[1100] ABA-EUS: A. Ibinagabeitiaren gutuna L. Villasanteri, 1953-11-21.

[1101] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari eta A. Irigarayri, 1953-12-10.

[1102] ABA-EUS: Editorial Muguerza-ren faktura Euskaltzaindiari, 1953-12-10.

IKER-35.indd 408 2/9/19 10:56

datu pertsonalak, besteak beste.[1103] Izaera legal ziurrik gabe, Euskaltzaindia ez zegoen baldintza horiek betetzeko egoeran. Bestetik, zenbaki berriko euskarazko testuak oso delikatuak ziren, Informazio eta Turismoko ministerioaren Bizkaiko delegazioan ez zegoelako euskarazko irakurlerik, J. M. Madina elizgizonak itzultzaile lanetan lagundu arren (Torrealdai 2000: 49-50).

Une horretan leher egin zuen egitasmoak. Euskaltzainburuordeak baimenaren eskaera idazkariaren esku utzi nahi arren, A. Irigaray urduriak, Bizkaiko gestioak aurrera egiten ez zuelako, bere kasa A. Tovarri ale bat bidali zion Salamancara, «Manuel de Larramendi» katedrako argitalpen gisa ateratzeko bidea azter zezan. A. Tovarrek auziaz galdetu zuen Informazio eta Turismoko ministerioaren Salamancako delegazioan. Ordezkaritza horrek berehala jo zuen Gipuzkoara, gestioen berri eman eta agerkariaren aleak banatzen ari zirela jakinarazteko.

Izan ere, 1952ko abenduan L. Dotres mailaz igo zutenetik, Felipe Ugarte Lambert (1916-1988) koronela zen Informazio eta Turismoko ministerioaren Gipuzkoako delegatu berria, lerro politiko berberari eutsi ziona (*La Voz de España* 1952-12-10). J. M. Azaola bereziki saiatu zen kargu hori pertsona liberalago baten esku gera zedin, eta J. Aparicio Prensa-ko zuzendari nagusiak berari eskaini zion postua, baina azkenean uko egin zion, agian zuzendari nagusiaren beldur zelako.[1104] Nolanahi den, F. Ugartek telefonoz deitu zion A. Irigarayri, baina euskaltzainak ukatu egin zuen aleak banatzen ari zirenik eta adierazi zion baimena Bizkaiko delegazioan eskatu zutela. Biharamunean Gipuzkoako gobernu zibiletik deitu zieten telefonoz I. M. Echaide eta N. Oleagari. Madrilen galdetzen ari ziren ea zein inprimategik izan zuen argitaratzearen ardura, aldizkarian ez zelako ageri. Euskaltzainburuordeak babestu nahi izan zituen Tolosako tradizionalistak, baina azkenean Editorial Muguerza-ren izena eman behar izan zuen, arazoa gehiago ez gaiztotzearren.

Edizioa bahitu eta isuna jasotzeko arriskua handia zen. Bitartean, I. M. Echaide J. Elorza EI-SEVeko buru ohiarekin egon zen hizketan: N. Oleagaren ildoko karlista zen hau. Dena dela, euskaltzainburuordeak Akademiaren

---

[1103] «Vicesecretaría de Educación Popular (Sección del Papel y Revistas).- Dictando normas relacionadas con la publicación de Revistas», *BOE*, 1942-03-04.

[1104] Gipuzkoako delegatu izateko, J. M. Azaolak hautagai zerrenda hau iradoki zion Prensa-ko zuzendari nagusiari: C. Ribera, J. Guelbenzu, J. Berruezo, J. M. Lojendio, J. A. Urquizu eta J. L. Banús. Ministerioak, ordea, L. Dotresen ondorengoa ordurako hautatua zuen (Sancho el Sabio Fundazioa, José Miguel Azaola funtsa: J. M. Azaola eta J. Aparicioren arteko gutunak, 1952-04-09/1952-08-18).

IKER-35.indd 409 2/9/19 10:56

kanpo jarduera eten egin nahi zuen, istiluak zer bide hartzen zuen ikusi arte.[1105] Bestalde, A. Irigarayren 1953ko abenduaren 22ko gutunari A. Tovarrek abenduaren 28an erantzun zion. Salamancako errektoreak zuzenean hitz egin zuen Informazio eta Turismoko ministroarekin. G. Arias Salgadok gomendatu zion argitaratzeko baimen eskaera Salamancako Unibertsitatearen bidez egitea. A. Tovar prest agertzen zen Euskaltzaindiari laguntzeko, baina bide hori hartzea Akademiaren izaera autonomoari uko egitea zitekeen.[1106] Errektorea, ustez, ministerioko goi kargu falangisten adiskidea zen: G. Arias Salgado ministroarena berarena eta J. Aparicio Prensa-ko zuzendari nagusiarena.[1107] Baina Akademiaren agerkari ofiziala argitaratzeak propagandista katolikoen laguntza behar izan zuen. Areago, Informazio eta Turismoko ministerioaren delegazioak Donostian zegoen edizio osoa bahitu zuen 1954ko urtarrilean, nahiz eta horren berri ez zen eman udaberriko batzarrera arte.[1108]

EAJ-PNVren agerkaria euskararen aurkako neurriak salatzeaz arduratu zen. Hurrengo urtean, Guatemalako aldizkariaren zenbaki bat ere ministerioaren Gipuzkoako delegazioak bahitu egin zuen. Kolpe horien ondorioz, berez defizitarioa zen (J. Zaiteguik 6.000 dolar zituen galduta ordura arte) aldizkaria bertan behera uzteko zorian egon ziren. Urte eta erdian *Euzko-Gogoa*ren hamahiru zenbaki argitaratu ondoren, 1955eko udazkenean J. Zaiteguik aldizkariarekin Europara itzultzea erabaki zuen, amarengandik gertuago ere egoteko, eta A. Ibinagabeitiak Venezuelara jo zuen (*Alderdi* 1954-03; *Euzko Deya* 1954-03-01; Euzko-Gogoa 1954e; Euskaltzaindia 1982: 36).[1109]

Euskaltzaindiaren agerkariaz den bezainbatean, S. Michelena (OFM) urgazleak Informazio eta Turismoko ministerioaren delegazio horretan gestioak egin zituen, baina alferrik, F. Ugartek eragozpenak jartzen baitzizkion are J. Arteche GPDko artxibozain laguntzaileari ere.[1110] Giro zelatariaren erakusgarri, 1954ko otsailean bertan elizgizon batek N. Jiménez de Aberásturi salatu egin zuen, Donostiako «Easo» liburu dendan Argentinako Ekin argitaletxe abertzaleko zenbait liburu baimenik gabe salgai zituelako.[1111]

[1105] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-12-18.

[1106] ABA-EUS: A. Tovarren gutuna A. Irigarayri, 1953-12-28.

[1107] ABA-EUS: A. Tovarren gutuna I. M. Echaideri, 1954-01-28.

[1108] ABA-EUS: F. Ugarteren ofizioa I. M. Echaideri, 1954-01-13.

[1109] ABA-AIB: A. Ibinagabeitiaren gutunak A. Urrestarazuri, 1955-07-02, 1955-10-12 & 1955-12-21.

[1110] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna S. Michelenari, 1954-02-09.

[1111] Sancho el Sabio Fundazioa, José Miguel Azaola funtsa: J. M. Azaolaren gutuna F. Pérez Embidi, 1954-02-15.

IKER-35.indd 410 2/9/19 10:56

Urgazle izan gabe Akademiaren batzarretan parte hartzen zuen N. Echániz elizgizon abertzaleak zioenez, 1954ko udan Euskaltzaindiaren zuzendaritza etsita zegoen: «Oleaga ta Etxaide zarra, an buru. Galde egin zien ia zertan zan Euskaltzaindiko aldizkingi Euskera´ren baimena; ta Oleaga´k erantzun: etzutela oraindik ezertxo egin. Obe zala, alegia, arazo ori pixkat aztutzen lagatzea».[1112] Azkenean, bi irtenbide eman zizkioten arazoari. Alde batetik, *Euskera* liburu gisa argitaratzeko baimena eskatu zuten, aldizkari gisa baino errazago izango zelakoan. Bestetik, probintzia arteko eskumen gatazkaren arriskua saihestu, eta zuzenean Madrilera jo zuten. José M.ª Lojendio euskaltzainorde izendatu berriak laguntza eskatu zion Luis M.ª Lojendio (1907-1987) anaiari, Madrilen «Jefe Técnico de la Oficina de Información Diplomática» zena 1946az geroztik eta, besteak beste, J. Artecherekin harreman ona zuena.[1113] Bulego hori A. Martín Artajo Kanpo Arazoetako ministroak sortu zuen Mundu Gerra amaitu ondoren, diktadura frankista nazioartean legitimatzeko saioen artean. Espainia erregimen katoliko, antikomunista, baina ez-totalitarioa zela frogatu nahi zuen sektore horri laguntza eskatzen ari zen Euskaltzaindia, falangismoaren intolerantzia nazionalistari ihes egitearren (cf. Lojendio Osborne 2009; Fernández Fernández-Cuesta 2016).

L. M. Lojendiok *Euskera* agerkariaren zentsura espedientea arintzea eskatu zion F. Pérez Embid Información-eko zuzendari nagusiari 1954ko azaroaren 30ean.[1114] Florentino Pérez Embid (1918-1974) diktadura frankistako katoliko monarkikoen gizona zen Informazio eta Turismoko ministerioan. Hura bezalako Opus Dei-ko intelektualak irekiago zeuden, falangista monolitikoki zentralistak baino, katolizismoak ezaugarritutako Espainiako pluraltasun kulturala onartzera, bereziki burgesia katalanistaren kasuan (cf. Saz 2003; Díaz Hernández 2008). Horrela, Bizkaiko delegaziotik bidalitako *Euskera* liburuxka abenduaren 2an iritsi zen Madrilgo zentsurara, eta F. Pérez Embiden aginduari jarraituta, baiezkoa eman zioten espedienteari.[1115]

Prozesu ikaragarri zaila izan zen. Inprimatu eta urtebetera, 1954ko azaroaren 22an Euskaltzaindiak egindako eskaerari erantzunez, argitaratzeko bai-

---

[1112] ABA-AIB: N. Echánizen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1954-07-27.

[1113] «Decreto por el que se nombra Jefe Técnico de la Oficina de Información Diplomática del Ministerio a don Luis de Lojendio Irure», *BOE*, 1946-01-21.

[1114] ABA-EUS: F. Pérez Embiden gutuna L. M. Lojendiori eta J. M. Lojendioren txartela A. Irigarayri, 1954-11-30 & 1954-12-02.

[1115] ABA-EUS: F. Pérez Embiden gutuna L. M. Lojendiori eta J. M. Lojendioren txartela A. Irigarayri, 1954-12-03 & 1954-12-11. Gorabehera hauek guztiak disimulatzeko asmoarekin, Euskaltzaindiko bibliotekan dauden 1953ko *Euskera* agerkariaren zenbait alek eranskailu bat dute azalean, «1954ko urria» datarekin.

IKER-35.indd 411 2/9/19 10:56

mena lortu zen abenduaren 3an, baina jakinarazpen ofiziala ez zen 1955eko martxora arte eskuratu.[1116] Dena dela, Akademiaren 1954ko abenduaren 30eko batzarrean baimena lortuta zegoela adierazi zuten, eta 15 pezetako prezioan saltzen hasi ziren. Esker on gisa, J. M. Lojendio euskaltzainordearen «Introducción al estudio de la literatura vascongada» hitzaldia antolatu zuten BPDren bibliotekan, Akademiaren Bilboko hurrengo batzarrarekin batera. 1956tik aurrera *Euskera* berriz argitaratzen hasi zen normaltasunez, agerkariaren benetako bigarren aroari ekinez, besteak beste, 1941-1948 arteko euskarazko akten argitalpenarekin, eta horrekin nolabait erakundearen jarraitutasun historikoa ziurtatu zen, azken euskaltzainek ez baitzuten garai zail horren berri akademikorik (*CE-PV* 1955-01-23; *Hoja del lunes*, Bilbo, 1955-01-24; *Hierro* 1955-01-24; Euskaltzaindia 1956; 1982: 44-46).

Literatura sariak, lexikografia eta «klasikoak»

1953ko irailaren 25ean hamar euskaltzain batzartu ziren GPDko jauregian: I. M. Echaide, J. Elissalde, A. Irigaray, J. Gorostiaga, L. Dassance, P. Lafitte, L. Villasante, J. Moulier, N. Oleaga eta A. M. Labayen. A. Irigarayk egin zion ongietorri J. Moulier «Oxobi» euskaltzain berriari. Pirinio Behereetako euskaltzainak batzarrera etorriko zirela Baionaldeko astekariak berak iragarri zuen (*Herria* 1953-09-24; Euskaltzaindia 1982: 30). Hizpide izan zituzten BPDk R. M. Azkue zenaren testamentuaz agertutako poza eta JCVk J. Gorostiaga liburuzainak Akademiaren egoitzan egunero lan egin zezan hartutako erabakia. Batzarrak aho batez onartu zituen JCVren baldintzak eta eskerrak ematea erabaki zuten. Bide batez, J. Gorostiagak jakinarazi zuen hasia zela egoitzako liburu eta dokumentuen zerrenda prestatzen.[1117]

A. Irigarayk, orobat, euskal literatura eta lexikografia sustatzeko lehiaketa bat antolatzea proposatu zuen. Batzarrak ontzat eman eta baldintzak zehaztea eskatu zion. Dena dela, aktan ez islatu arren, euskaltzain izengabe batek gogor egin omen zuen Nafarroako medikuaren proposamenen aurka.[1118] Izan ere, Akademiak ia

[1116] ABA-EUS: B. Burebaren ofizioa Euskaltzaindiari, 1955-03-04.

[1117] Irailaren 28an JCVko kide hauek batzartu ziren: J. M. Ruiz Salas, F. Echegaray, J. B. Merino, C. Lasterra, A. Bilbao, J. M. Urrutia, E. Calle. Akademiak proposamena onartu zuela jakinarazi zuten: «Se dio cuenta [...] de la comunicación recibida de la Academia de la Lengua Vasca, sobre la toma de posesión del Sr. Gorostiaga». BFAH-EC: «Libro de Actas de la Junta de Cultura de Vizcaya», 1953-09-28, Junta de Cultura C-62.

[1118] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna A. Irigarayri, 1953-09-30.

IKER-35.indd 412 2/9/19 10:56

isilpeko jarduera izan arren, zenbait euskaltzainek berebizikotzat jotzen zituzten eztabaidatutako gaiak, euskaltzainburuordeak berak adierazi zuenez: «La experiencia de los años que llevo presidiendo las reuniones de la Academia, me ha enseñado que cuestiones, aun nimias, se discuten en su seno con un fuego que no recuerdo haber visto, en mis casi 70 años de vida, sino en asociaciones juveniles, perdiéndose un tiempo precioso y sin llegar a un acuerdo muchas veces».[1119]

Sariketak hartu zuen bidea ikusita, uste dut, alde batetik, A. Irigarayk aspalditik bultzatu nahi zuen erdara-euskara hiztegia arbuiatu zela. A. Ibinagabeitiari azaldu zionez, (prosazko antologiaz, ipuin bildumaz edota polizia nobelaz beste) Espainia-Frantzietarako 200 orrialdeko hiztegi bateratua osatu nahi zuen, EAJ-PNVren garaiko europeismo zaharberrituarekin bat etorri zitekeena.[1120] Seguru asko Bilboko idazkaria izan zen, 1941az geroztik euskaltzainburuarekin lexikografian aritutakoa zenez, Nafarroako medikuari eragozpenak jarri zizkiona. Izan ere, N. Oleagak adierazi zuen R. M. Azkuek bere hiztegiari egindako gehigarriak eta *Latsibi* bizkaierazko nobela argitaratu beharko lituzketela, azken hori *Euskera* agerkarian zatika. Batzarrak idazkariaren proposamena ere ontzat eman zuen.[1121] Kontuan hartu behar da N. Oleaga erabateko garbizalea zela, eta ez zituela inolaz ere Aro Modernoko euskal idazleak eredugarritzat jotzen (Urgell 1991: 903).

Ikusi dugunez, A. Irigaray tematuta zegoen Euskaltzaindiak hiztegi modernoa burutzearekin: lexiko urbanoa, geografiako eta historiako termino nagusiak, eta euskal onomastika, santu izendegi jeltzalea barne. Frantziako kideekin eta jeltzaleekin koordinatu nahi zuen lana eta ordura arteko konpartimentazioa gainditu. Ortografia bateratua zehazteko asmoarekin, N. Oleaga idazkariari galdetu zioten Akademiak erabakirik hartu ote zuen ingelesezko «sh» soinua irudikatzeko grafiari buruz.[1122] Nafarroako medikua 1953ko abuztuan, Donostiako frankismoak «Semana Vasca» delakoa prestatzen zuten bitartean, A. M. Laba-

[1119] ABA-EUS: I. M. Echaidek euskaltzainei zuzendutako «Acerca de la reforma de los reglamentos» dosierra, 1954-01-07.

[1120] ABA-AIB: A. Irigarayren gutuna A. Ibinagabeitiari, 1953-10-01. A. Ibinagabeitiak, besteak beste, *Euskera irudi-bidez = Nuevo método de euskera básico* (1953) liburua argitaratu berri zuen.

[1121] R. M. Azkue *Latsibi* 1935ean saiatu zen argitaratzen, baina Gasteizko apezpikuak geroratu egin zuen, nobelan hauteskundeak aipatzen zirelako, eta hori desegokitzat jotzen zen Errepublikako tentsio politikoen ondorioz (Kintana Goiriena 2008: 303-305). Euskaltzaindiak eta Labayru Ikastegiak ez zuten 1989 arte argitaratu.

[1122] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-04-17. 1920an arututako ortografian S. Aranak ezarritako «x» grafema onartu zen soinu horretarako, baina Frantziako euskal literaturan «x» grafemak S. Aranaren «ts» digrafoa irudikatu ohi zuen.

IKER-35.indd 413 2/9/19 10:56

yen, A. Ibinagabeitia eta J. Miranderekin bildu zen Pirinio Behereetan, hiztegiaren egitasmoaz hitz egiteko, baina arrakasta gutxirekin.[1123] Era berean, J. M. Barandiaranekin egon zen Saran, eta EI-SEVen *Eusko folklore* bilduman agertzen ziren ipuinak liburu gisa argitaratzeko baimena eskatu zion, Euskaltzaindian prestatzen ari zen sariketaren bidetik (Barandiaran 2009: 829).[1124]

Nafarroako euskaltzainaren Frantziarekiko muga zeharkatzeak testuinguru politiko oso esanguratsua izan zuen. Espainia frankista Vatikanoarekin konkordatua (abuztuaren 27an) eta AEBrekin hitzarmen ekonomiko-militarra (irailaren 23an) sinatzear zegoelako, oposizio errepublikanoaren eta abertzaletasunaren atsekaberako. Uda horretan Euzkadiko Jaurlaritza hainbat aldiz bildu zen Baionan egoera politikoa aztertzeko. Giro etsigarriaren aurrean elkartasun irudia emateko, irailean Donibane Lohizunen abertzaleak, errepublikazaleak eta sozialistak elkartu ziren. Politikari entzutetsuek (J. A. Aguirre lehendakariak, A. Garbisu sailburuak, M. Irujok, etab.) hitzaldiak eman zituzten, eta A. Ibinagabeitiari egokitu zitzaion «euskeraren auzia»z aritzea, bide bakarra Israelek hebreerarekin erakutsitako monolinguismoa zela amorruz adierazita: «An ez dira ibili txepelkeri eta kontenporazinokerietan» (*Euzko Deya* 1953-10-01). Lehen esan bezala, EAJ-PNVko T. Monzon eta M. de la Sota ohorezko kide zituen Eskualzaleen Biltzarrak 450 lagun bildu zituen irailaren 10ean Donazaharren. Gainera, «Embata» Bordeleko unibertsitario talde protoabertzalea jendaurrean agertu zen eta, azkenik, A. Tournier eta P. Lafitteren *Lexique français-basque* hiztegia iragarri zuten prentsan.[1125]

Hain zuzen, P. Lafittek lexiko kultua guztiz baztertzen zuen 320 orrialdeko lehen liburukia aurkeztu ahal izan zuen Akademiaren iraileko batzarrean, A. Ibinagabeitiaren maximalismotik oso urrun, neologismoak guztiz baztertu eta neolapurtera literariora mugatu zirelako. Bestalde, Baionako elizbarrutiak P. Charritton apaiz urgazlea Parisera bidali zuen filosofia ikasketak burutzera. Bertako Eskualdun Gazteria eta Eskual Etchea antolatzen ibiltzeaz gain, euskal idazleen antologia prestatu nahian zebilen, A. Irigarayk bultzatzen zuen ortografia bateratuaren bidetik (cf. Andiazabal & al. 2005: 225;

[1123] ABA-AIB: A. Irigarayren gutuna A. Ibinagabeitiari, 1953-08-23 (cf. Ibiñagabeitia 2000: 141).

[1124] Azkenean, A. Irigarayk *Euskalerriko ipuiñak = Cuentos populares vascos* (1957) elebidun bilduma Zarauzko Itxaropenaren «Kuliska» liburu sortan argitaratu zuen, Akademiaren aginduz.

[1125] *Herria* 1953-08-06; 1953-08-13; 1953-08-20; 1953-08-27; 1953-09-03; 1953-09-10; 1953-09-17; 1953-09-24; *Euzko Deya* 1953-08-01; 1953-09-01; 1953-10-01; 1953-11-01.

IKER-35.indd 414 2/9/19 10:56

Charritton 2013: 420).[1126] P. Lafittek, halaber, Donostiara egindako bidaian dozena erdi euskal liburu berri erosi zituen, euskal argitalpenek bizi zuten loralditxoaren erakusgarri. Izan ere, berak zuzentzen zuen Baionaldeko astekariak eman zuen iraileko batzarraren berri, zenbait xehetasun gehituta, baina Pirinio Behereetako euskaltzainen Akademiarekiko urruntasuna islatzen zuela: «Eskuararen batasunari erabili dute elhe, baina ez dute orainokoan erabaki nola hel chede hortarat. Bilhatzea ere bada zerbait» (*Herria* 1953-10-01).

L. Villasantek frantziskotarren euskal aldizkari baterako Euskaltzaindiaren laguntza eskatu zuen batzarrean (cf. Onaindia 1974: 30-31).[1127] I. Berriatuak 1953ko ekainetik zuzentzen zuen *Anaitasuna* bizkaierazko gehigarria baino jasoagoa zatekeen. Bizkaiko frantziskotarra Akademiaren lexikografiarako begiz jotako lankideetako bat zen, Foruko komentuan gaztelania-euskara hiztegia lantzen ari zirelako. A. Irigarayren bidetik, *Langenscheidt* eskuzko hiztegi alemanaren antzekoa egin nahi zuten, hau da, Akademiaren proiektua baino apalagoa.[1128] Asmoak asmo, I. Berriatuarekin 1954ko urrian Donostian bilera egin ondoren, L. Michelenaren epai erabakigarria negatiboa izan zen:

> Eztabil guk uste genduen bidetik, zaarretik alegia, ezta gutxiagorik ere: berria dugu, berririk baldinbada. Ene iritzirako berriegia ere bai. Agertu zizkigun oiñarriak jatorrak dira geienbat, derizkiodanez, baiña populistegia, Krutwig'en itza erabilli bear emen, arkitzen dut. Gauzak bere neurria bear dute beti eta erabateko jokabide extremistak eztira beti onenak izaten jendea nai dugun bidetik eramateko. Ta batez ere euskal-literaturari zor zaiona eztiola ematen iruditzen zait. Erdal-itzak ere, iruditu zitzaidanez, gazteleratik artu nai ditu geienetan, gorago jo gabe eta beste aldekoak bertan beera utzirik, eta ortan enator bat berarekin.[1129]

1953ko azaroaren 27an hamar euskaltzain batzartu ziren GPDko jauregian: I. M. Echaide, J. Elissalde, A. Irigaray, P. Lafitte, L. Dassance, J. Gorostiaga, L. Villasante, L. Michelena, J. Moulier eta N. Oleaga. A. Irigarayk agindutako literatura lehiaketaren programa aurkeztu zuen. Hiru sari ezberdin egongo ziren:

[1126] ABA-EUS: P. Charrittonen gutuna L. Villasanteri, 1953-12-20. A. M. Labayen, Bergarako J. Oregui eta L. Villasanteren esku utzi nahi zituen Espainiako euskal teatro, poesia eta prosa atalak, hurrenez hurren. Bera Frantziako euskal poesia garaikideaz arduratuko zen: J. Moulier, J. Diharce, baita J. Mirande «beldurgarria» ere, baina antologia ez zen gauzatu. J. M. Barandiarani ere eskatu zion ahozko literaturaz arduratzea eskola liburu baterako (Onaindia 1974: 32; Barandiaran 2009: 828).

[1127] ABA-EUS: L. Villasanteren gutuna N. Oleagari, 1953-10-11.

[1128] Koldo Mitxelena Kulturunea, Koldo Mitxelena funtsa: I. Berriatuaren «Normas básicas del diccionario castellano-vasco», [1954?]. Dosier hori SFVJUren gutunerian dago.

[1129] ABA-EUS: L. Michelenaren gutuna L. Villasanteri, 1954-11-06.

IKER-35.indd 415 2/9/19 10:56

polizia nobelarako, ipuin bildumarako eta 1850 arteko (S. Arana sortu aurreko, alegia) euskaldun ospetsuen biografia bildumarako. Sarien kopuruek, ikusiko dugunez, Akademiaren egoera ekonomiko berria islatzen zuten. Idazlan guztiak euskaraz egon behar zuten eta Euskaltzaindiaren esku zegoen sariak banatu ala ez, idazlanen kalitatearen arabera. Nolanahi den, idazlan sarituen eskubideak Akademiarentzat izango ziren. N. Oleagak hirugarren sariko gaia euskal idazleetara mugatu nahi izan zuen, baina batzarrak atzera bota zuen proposamena, J. Elissalderen abstentzioarekin (Euskaltzaindia 1982: 33-34).

1936 aurreko literatura lehiaketak berreskuratzen ziren eta Akademiari presentzia publikoa eman zion, deialdiak prentsan izan zuen zabalkundeagatik. M. Lecuonak ere epaile lanak egin arren, literatura sailaren arduradun nagusi A. Irigaray eta L. Michelena agertzen ziren, SFVJUren *Egan* aldizkariarekin bezala, euskarazko prosa sustatu eta gaiak berritu nahi zituztelako. Euskaltzaindiaren izaera juridikoak kolokan jarraitzen zuenez, idazlanak RSVAPen San Telmo museoko egoitzara bidaltzeko eskatzea adostu zuten F. Arocenarekin, GPDren izena erabiltzeko baimen ofizialik ez zutelako.[1130] Lehiaketarako iragarki bat prestatu zuten Gipuzkoako euskaltzainek 1953ko abenduan, batez ere Bilbo eta Donostiako egunkarietan ager zedin:

– Novela policiaca o de aventuras, original o versión preferida, tema no vasco. Alrededor 300 cuartillas, máquina, doble paso, una cara, en euskera. Primer premio 1.000 pts., segundo 750, tercero 500. Plazo, 6 meses fecha este anuncio.

– Colección de 50 a 100 cuentos en euskera tomados de Folklore o autores vascos, adoptados [sic] lenguaje popular infantil. Pueden ir acompañados de dibujos aptos reproducción. Primer premio texto 1.000 pts., segundo 500. Dibujos (si se aceptan) 1er. premio 500 pts.; segundo 250 pts. Plazo, 6 meses fecha este anuncio.

– Galería euskaldunes ilustres, incluidos propulsores lengua vasca, prefiriéndose los poco conocidos. 500 a 600 cuartillas, una cara, máquina, doble paso, en euskera. Preferible orden alfabético y acompañar estampa personaje. Primer premio 3.000 pts.; segundo 2.000 pts. Plazo, un año fecha este anuncio.[1131]

Euskaltzaindiaren gorabeherak zirela-eta, iragarki hori ez zen 1954ko otsailera arte argitaratu, Euskal Herriko prentsan ez ezik, baita Parisen edota Ame-

[1130] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1954-12-10.
[1131] ABA-EUS: I. M. Echaidek N. Oleagari bidalitako iragarkia, 1953-12-10.

IKER-35.indd 416 2/9/19 10:56

riketan ere.[1132] Euskaltzainburuordeak, besteak beste, informazioa bidali zien Salamancako A. Tovarri, Buenos Airesko G. Garrigari edota Guatemalako J. Zaiteguiri.[1133] *Euzko-Gogoa*rekiko tirabiren erakusgarri, aldizkariak iragarri egin zuen lehiaketa, baina gero kexu izan zen Akademiak ez ziolako sarituen berririk eman. Gainera, Guatemalako aldizkariak literatura lehiaketa propioa antolatzen zuen 1953az geroztik, nahiz eta bi urtez sari nagusia bertan behera utzi, gaia zailegia zenez (S. Aranarekin hasi eta R. M. Azkuerekin bukatzen zen euskal literaturaren historia) idazlan egokirik jaso ez zutelako.[1134] Nolanahi den, Ameriketatik ez zuten idazlanik aurkeztu Akademiaren lehiaketara. Jendeak eskatuta, Donostiako euskaltzainek berehala lehiaketaren baldintzei buruz azalpen luzeagoak eman behar izan zituzten: adibidez, «dialecto central»a erabiltzea gomendatu zuten.[1135] Uste baino idazlan gehiago jaso zituzten (hamaika nobela, bost ipuin bilduma eta bi biografia), baina J. Echaide, adibidez, hiru sailetara aurkeztu zen.[1136] Besteak beste, Akademiaren Bilboko egoitzara joaten hasi zen Gabriel Aresti artean ezezagunak 1954ko udan gutunez eskatu zuen informazioa, baina bere idazlanek ez zuten lehiaketan tokirik, eta A. Irigoyenen bitartez *Euzko-Gogoa*ra bidali zituen (Kortazar 2016).[1137]

Frantziskotarren komentuetan lehiaketaren propaganda egin zuten, fraide ugari agertu baitziren sarituen artean, ordenak Akademiarekin zuen harreman estuagoaren ondorioz.[1138] Baionaldeko prentsaz, L. Dassance eta P. Lafitte arduratu ziren, baina Akademiaren zereginetan zuten pisu txikiaren

---

[1132] *La Voz de España* 1954-02-09; 1954-03-04; *El Diario Vasco* 1954-02-10; *La Gaceta del Norte* 1954-02-10; *Hierro* 1954-02-10; *CE-PV* 1954-02-11; *Herria* 1954-02-25; *Alderdi* 1954-02; *Euzko Deya* 1954-03-01; Euskaltzaindia 1954; Euzko-Gogoa 1952a; 1954a; 1954b; 1954d.

[1133] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna A. Irigarayri, 1954-02-10.

[1134] ABA-EUS: J. Zaiteguiren gutuna I. M. Echaideri eta I. M. Echaideren gutuna A. Irigarayri, 1954-04-30 & 1954-06-10.

[1135] ABA-EUS: Euskaltzaindiaren «Información para los concursantes al certamen literario de la Academia de la Lengua Vasca», 1954-02-12.

[1136] J. Echaidek, nolabait *Euzko-Gogoa*rekin barnealdetik bat eginda, 1949az geroztik bultzatzen zuen programa literario abertzale eta garbizalea hau zen: «1). Eztu euskal-elertiak bere burua eći xearen maľara makurtu bear, eći xea euskal-goi-elertia ulertzeko gaitu baizik. 2). Ez dezagun eći a gogait eragin irakurgai ulerkaitzez. Eći ari euskal-jakintza erakutsirik goitu dezagun euskera» (Etxaide 1950: 12).

[1137] ABA-EUS: G. Arestiren gutuna Euskaltzaindiari, 1954-07-08. N. Ormaechea Ameriketako erbestetik Bilboaldean lehorreratu zenean, 1954ko azaroaren 24an, G. Arestik eta A. Irigoyenek, Labayen aita-semeekin batera, egin zioten ongietorria (Iztueta 1991: 129-133).

[1138] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna A. Irigarayri, 1954-02-10.

IKER-35.indd 417 2/9/19 10:56

erakusgarri, Frantziatik ez zen lanik agertu lehiaketara.[1139] Iruñeko prentsaz, halaber, J. M. Seminariok arduratu behar zuen, baina Nafarroako idazlerik ere ez zen agertu.[1140] L. Michelena eta A. Irigarayk euskarazko produkzio literarioaren edukiak eguneratu nahi zituzten. Kontuan har bedi, adibidez, frankismoaren moraltasun hertsiak nobela beltzak, edozein hizkuntzatan, gaitzesten zituela. Hautagaien gabezien artean, kalitate estetiko mugatua eta itzulpenen ugaria nabarmendu behar dira. Irabazleak 1954ko abenduko eta 1955eko urtarril-urrietako batzarretan iragarri zituzten eta, urteak eta zentsuraren oztopoak igaro ahala, argitaratu ziren idazlanak, batez ere Zarauzko Itxaropenaren eskutik (cf. Torrealdai 2000).[1141]

- Nobela sailean hauek saritu zituzten: J. Echaideren *Joanak-joan*, Argentinako «Hugo Wast» eskuindarraren *Bide izkutua* (S. Berasaluce (OFM) buru zuen hirukoteak itzulia) eta Belgikako G. Simenon-en *Aspaldiko Maigret* (E. Erquiagak gaztelaniatik itzulia), hurrenez hurren. J. A. Loidi botikariaren *Amabost egun Urgain'en* poliziakoari «accesit» saria eman zioten.[1142]
- Ipuin sailean beste hauek saritu zituzten: F. Bilbaoren (OFM) *Ipuin-barreka* eta Burgosen deserritutako Julene Azpeitia irakaslearen *Amandriaren altzoan* bilakatu ziren bildumak, hurrenez hurren. M. Ziarsolo jeltzaleak «accesit» saria jaso zuen.[1143]
- Biografia saila hutsik utzi zuten, aurkeztutako bi idazlanek baldintzak betetzen ez zituztelako, baina 500 bana pta. jaso zituzten J. Echaidek *Amasei seme Euskalerri'ko* lanagatik eta V. Iñurritegui (OFM) buru zuen taldeak (cf. Yrigaray 1955: 43; Euskaltzaindia 1982: 44, 47, 57; Michelena 2011e: 404-405).

Lexikografia, beraz, lehiaketatik kanpo geratu zen, A. Irigarayri egindako oposizioaren eta gaiak eragiten zituen arazoen erruz. P. Múgicak (SI) 1953ko martxoan adierazitakoaren arabera, Akademiak gaztelania-euskara hiztegiarekin jarraitzeko asmoa zuen, eta frantziskotarrak eskuizkribuak mekanografiatzen ari omen ziren, baina garbira pasatutako kopia horiek ez dira gordetzen

[1139] ABA-EUS: L. Dassanceren gutuna I. M. Echaideri eta N. Oleagaren gutuna P. Lafitteri, 1954-02-09 & 1955-01-22.

[1140] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutunak J. M. Seminariori, 1954-02-04 & 1954-08-28.

[1141] ABA-EUS: Lehiaketara aurkeztutakoen zerrenda & Akademiaren epaia, 1955-02-08.

[1142] Aurkeztutako gainerako egileak hauek izan ziren: Maryla Hepner, R. Querejeta, J. M. Estomba, J. M. Balenciaga, M. Aguerre (G. Greene itzuli zuen), E. Urruzola (E. Wallace itzuli zuen) eta R. Uriarte.

[1143] Aurkeztutako gainerako egileak D. Martiarena eta J. Echaide izan ziren.

IKER-35.indd 418 2/9/19 10:56

Euskaltzaindiaren artxiboan.[1144] Urtea amaitu baino lehenago, R. M. Azkuek zuzendutako gaztelania-euskara hiztegiko «a» letraren corpusa aztertzen aritu zen I. M. Echaide, eta zailtasunak ikusten zituen hura argitaratzeko. Fitxa mekanografiatuak barik, eskuzko zerrendak izateak asko zailtzen zituen bai zuzenketa lana, bai akatsik gabe inprimatzea.[1145] 1954ko hasieran A. Irigaray eta L. Michelenak aztertu zuten «a» letraren corpus hori.[1146] SFVJUko arduradun filologikoak berariazko dosier bat aurkeztu zuen 1954ko maiatzeko batzarrean. Ekainean bildutakoek luze eztabaidatu zuten gaia, baina joera ezberdinak zeuden: L. Michelenaren dosierrekoa, A. Irigarayk nahi zuen hiztegi txikia, edota P. Múgica eta I. Berriatua nor bere kasa egiten ari ziren lanak (Euskaltzaindia 1982: 37).[1147]

Bistan dago L. Michelenak ez ziola etorkizun handirik ikusten egitasmoari, landutako corpusak ez zirelako egokiak. Besteak beste, egileen purismoak eta euskalkien berezitasunei emandako garrantziak eragotzi egiten zuten hiztegi moderno bat arrazoizko denboran egitea. Nahiago zukeen P. Múgicaren esku utzi Akademiako corpusak, eta jesuita lexikografoaren azken emaitzaren arabera, Euskaltzaindiaren babesa eman, baina hiztegi normatibo ofizial bihurtu gabe. Uste zuen Akademiak Errepublikan hiztegia argitaratzea lortu izan balu arrakasta izango zukeela, baina diktadura frankistak baldintzatuko ziurtasun juridikorik gabe, eta abertzaleek erbestean egin zezaketen aurkako kanpainaren arriskuarekin, etsita agertzen zen dosierrean.[1148]

Hasieran, euskaltzainburuordea lexikografiarako lankide bila aritu zen. 1954-1955 ikasturtean J. Echaidek eta Julio N. Ochoak, SFVJUko laguntzaile gisa, milaka fitxa prestatu zituzten gaztelania-euskara hiztegirako, 1.226,40 pezetaren truke.[1149] Hala ere, proiektuak ez zuen aurrera egin. Hiztegiaren tamainak, terminologia internazionalak, erdarazko maileguek edota

---

[1144] ABA-EUS: P. Múgicaren gutuna G. Maidagani, 1953-03-14. Era berean, Loiolako santutegiko irakasleak ukatu egin behar izan zuen bere hiztegi handia amaitzear zegoenik, zurrumurruek kontrakoa adierazi arren (Koldo Mitxelena Kulturunea, Koldo Mitxelena funtsa: P. Múgicaren gutuna L. Michelenari, 1953-11-17). Ikusi dugunez, ez zuen *Diccionario castellano-vasco* handia argitaratu 1965 arte.

[1145] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-12-03.

[1146] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna L. Michelenari eta A. Irigarayri, 1954-03-05.

[1147] ABA-EUS: N. Oleagaren akta zirriborroa, 1954-06-25.

[1148] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna A. Irigarayri eta berak gaztelaniara itzulitako L. Michelenaren «El diccionario de la Academia» dosierra, 1954-06-14.

[1149] Koldo Mitxelena Kulturunea, Koldo Mitxelena funtsa: [L. Michelenaren] dosierra SFVJUren 1954-1955 ikasturteaz, 1955-10-31.

IKER-35.indd 419 2/9/19 10:56

neologismoek eztabaida gehiegi sortzen zituzten hiztegi normatibo bat sortzerakoan.[1150] Prozesu oso nekeza izan zen hiztegi normatiboaren oinarriak finkatzen joatea. L. Michelenaren lanean oinarrituta, 1959ko apirilean euskal hitzak zein ziren jakiteko irizpide garrantzitsua onartu zuen Akademiaren batzarrak, nolabait S. Altuberen lexikologia eguneratzen zuena. Gehiegizko purismoak eragindako neologia etimologista gaitzetsi zuen, XX. mendeko tradizio indartsuenarekin etenda. Garbitasun genealogikoari ordez, erabilerari eta antzinatasunari (hots, literatura historikoari) eman zion lehentasuna; inpaktu handia eragin zuen erabakiak, bereziki abertzaleen artean (Euskaltzaindia 1982: 75-76).

Gainera, L. Michelenak dosierrean onartu bezala, Pirinio Behereetan ordurako aurreratu egin ziren A. Tournier eta P. Lafitte bikotea, 550 orrialdeko *Lexique français-basque* (1954ko martxoan argitaratua) delakoarekin. P. Lhanderen hiztegiaren bigarren zatiaren antzekoa zen, ez EIL-SIEBen 1948ko biltzarrean iragarritakoa bezain handia, baina bai «Loi Deixonne»ren zeharkako beste emaitza bat. Hiztegiak praktikan Espainiako muga politiko-kulturala ez gainditu arren, Nafarroako medikuak txalotu egin zuen egileen norabide orokorra, neologismoak baztertu zituztelako eta ez zirelako jeltzaleek egindako hiztegiak bezain garbizaleak (Yrigaray 1954).[1151] Urte horretako *Euzko-Gogoa*n argitaratu zen, orobat, L. Aquesolok 1952ko otsailean ezizenarekin idatzitako artikulua.[1152] Akademiaren ordez, RSVAPen esku uzten zuen lexikografiaren ardura:

> Egia erran, holako lan bat Azkue zenak egin zuena dugu, nehoiz aski ederrets ezineko lana, batez ere batek egina delarik. Bainan Larramendiren lana bezalaxe, Azkuen lana ere ezta xitu ezina. Azkuen hiztegia ere berrhetu eta hobetu daiteke. Iaun berorrek hor utzi du berak erabiltzen zuen hiztegi-alea (exemplarea) berak eskuz gehitutako hitzez beltz egina. Ale horrek bortz mila hitzen heina ba du, Azkuek bere eskuz ezarririk. Bertze norbaitzuek euskarazko erranera-hiztegia oso aitzina daramatela ba dakigu. Lanik erdia eginda dago. Euskalherriaren Adiskideek beren xedeak erakhutsi zituztenik huna euskararen aldeko lanek bide handiak egin dituzte, batez ere Azkue iaunari esker. Bainan oraindik euskaldunek

[1150] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutunak P. Múgica eta I. Berriatuari, 1954-03-05.

[1151] Adibidez, Bizkai-Gipuzkoetako frantziskotar eskoletan berehala zabaldu zen hiztegia (ABA-LAF: L. Villasanteren gutunak P. Lafitteri, 1953-09-29, 1953-11-05 & 1953-11-16; Andiazabal & al. 2006: 218-220).

[1152] A. Ibinagabeitiak 1952ko abenduan bidali zion artikulua Paristik J. Zaiteguiri, F. Krutwigi zor zaizkion lapurtera klasikozko ortografia eta aditz moldaketekin (Iztueta & Iztueta 2006: 346).

IKER-35.indd 420 2/9/19 10:56

beren hizkuntzari zor deraukoten orhoitgailua egiteko dago. Nork hartuko othe du Azkuen lanak aitzina eramaiteko ardura?

Huna nire hitza. Larramendiren hurrena, Euskalherriaren Adiskideak agertu ziren haren lana hamaitu eta hobetu beharrez. Azkue itzali denean. Izen berekoak eta asmo berekoak ez? Hor dute lehenagokoen lana bere gai hartuko? Heiek agindua ez othe deraukote hauiek Euskalherriari emanen? (Akesolo 1954: 153).[1153]

Bartzelonan P. Fabraren *Diccionari general de la llengua catalana*ren bigarren edizioa (1954) argitaratzen zuten bitartean, L. Michelenak, gainetik zama astuna kentzen duenaren arinduarekin, baztertu egin zuen artean forma estandarrik ez zuen euskararen lexikografia normatiboa. Linboan geratu ziren Akademiaren *Diccionario español-vasco* nahiz A. Irigarayren asmoak. Baina R. M. Azkueren *Diccionario vasco-español-francés*en edizio berrituak ere ez zuen aurrera egin edo, hobe esan, guztiz aldatu zuen proiektua L. Michelena arduradunak. Akademiak 1955ko otsailean R. M. Azkueren eskuzko eranskina *Euskera*n argitaratzea erabaki eta A. Irigoyenek urrian proposatu zuen 1905-1906ko hiztegia argitaratzea, frantsesezko atalaz gabetuta, baina eranskin-oharrez gehituta.[1154] Adibidez, erbesteko M. de la Sota jeltzaleak hainbat ohar bidali zizkion A. Irigarayri. Azkenean, R. M. Azkueren *Diccionario vasco-español-francés*en edizio kritikoa prestatzen joateko lanetan hasi ziren 1955ko azarotik aurrera (Euskaltzaindia 1982: 49, 56-62). Finantzaketa ere arazo zen, eta horretarako erbestearekin harremanetan zeuden. Kubatik itzulitako J. Bilbaori honela azaldu zion bere proiektua L. Michelenak:

No sé qué decirte sobre el Azkue. La idea de estudiar los dos presupuestos, para ver si económicamente vale la pena de hacer lo uno o lo otro, me parece muy bien. Ahora que una revisión del Azkue me parece tarea de gigantes. Creo que yo mismo, a base exclusivamente de Landuchio, textos vizcaínos antiguos, Dechepare, Leicarraga [sic], Oihenart y Tartas podría hacer cómodamente 2.000 papeletas ampliando y sobre [todo?] modificando artículos de Azkue. Me olvidaba además del diccionario de S. Pouvreau. Con material dialectal moderno podría añadir tranquilamente otras 1.000 adiciones o modificaciones. Una persona que estudiara Larramendi, Ubillos y otros autores guipuzcoanos podría añadir también una buena porción. Y eso sin contar las adiciones de Garate que son muy

[1153] L. Aquesoloren idazlan guztien edizioko bertsioa, lapurtera klasikoan idatzita egonagatik, ez dator guztiz bat *Euzko-Gogoa*n agertutakoarekin (Akesolo 1989: 46).

[1154] «A-abantzu» arteko hitzen 30 sarrerako lagin xumea Akademiaren agerkarian argitaratu zen R. Lafonek egindako zenbait hiztegi oharrekin batera, baina ez zuen jarraipenik izan (Irigoyen 1956; Lafon 1956).

IKER-35.indd 421 2/9/19 10:56

> pocas y en general mal oídas o mal explicadas. Estoy convencido de que casi se podría, incluyendo las notas posteriores del mismo Azkue, duplicar el volumen de su diccionario. De todas maneras, cabe pensar si aunque la revisión estuviera lejos de ser perfecta, no valdría la pena de hacerla.[1155]

Gipuzkoako euskaltzainaren anbizio zientifikoak (besteak beste, tesia egiten ari zen) eta eragozpen tekniko nahiz ekonomikoek luzatu zuten proiektua: «[h]ice un proyecto, por el que resulta que su preparación, no la impresión, costaría de 250.000 a 300.000 pesetas» zioen 1956ko udan.[1156] Ordurako Gipuzkoako erakundeek Bizkaikoek baino diru askoz gehiago ematen zioten Akademiari, eta horregatik lexikografia akademikoa BPDk finantzatu zezakeela uste zuten, JCVko I. Urquijoren bitartekaritzari esker.[1157] Euskaltzainburuordea erbesteko M. de la Sota jeltzalearekin jarri zen harremanetan edizioa bideratzeko. Dena dela, ez zetozen bat I. M. Echaide eta A. Arruek bi urteren buruan amaitu asmo zuten R. M. Azkueren hiztegiaren edizio zuzendua eta L. Michelenaren arnas luzeko ikerketa: gutxienez sei urte kalkulatzen zituen, behar bezalako baliabide ekonomiko eta pertsonalekin.[1158] Euskaltzainburuordeak, L. Michelenaren baldintzak aztertu ondoren, sei urteko proiekturako 1.212.000 pezetako gastua aurreikusi zuen.[1159] 1957an abiatutako Akademiaren lexikografia uste baino askoz gehiago luzatu zen, L. Michelenak R. M. Azkueren hiztegiaren edizio kritikoa egin nahi zuelako: goitik beherako zuzenketak, argibideak, aldaketak, eransketak, etab. L. Michelena pozez beterik zegoen, diputazioek proiektuarekin eskuzabal jokatu zutenez, eskola partikularrak emateari utzi ahal izan ziolako (Michelena 1957; *La Gaceta del Norte* 1958-06-12).[1160]

Dena dela, 1905-1906ko hiztegia lehenago bere horretan ez berrargitaratzea akatsa izan zen. Akademiari aurrea hartuta, Bilboko José M.ª Martín de Retana (1936-2014) editoreak *Diccionario vasco-español-francés* facsimilean plazaratu zuen 1969an, J. Gorostiagaren hitzaurrearekin eta L. Aquesolok,

---

[1155] Koldo Mitxelena Kulturunea, Koldo Mitxelena funtsa: L. Michelenaren gutuna J. Bilbaori, 1955-10-13.

[1156] CCG-RP: L. Michelenaren gutuna R. Piñeirori, 1956-06-22.

[1157] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna L. Michelenari, 1956-02-11.

[1158] ABA-EUS: M. de la Sota eta I. M. Echaideren arteko gutunak, 1956-09-25/1956-11-09.

[1159] Koldo Mitxelena Kulturunea, Koldo Mitxelena funtsa: I. M. Echaideren gutuna L. Michelenari, 1956-07-09.

[1160] Koldo Mitxelena Kulturunea, Koldo Mitxelena funtsa: L. Michelenaren gutuna J. Carori, 1957-06-04.

IKER-35.indd 422 2/9/19 10:56

euskaltzainburua bizi omen zela, kopiatutako eranskinarekin: ehun orrialdeko «Suplemento al Diccionario precedente». Horrek tirabira gogorrak eragin zituen, Akademiaren izaera juridikoa diktadura frankistan auzitan baitzegoen. Ondoren, M. de la Sotak erbestean abiatu, P. Lafittek gainbegiratu eta L. Aquesolok zuzenduta, hamar liburukiz osatutako *Diccionario Retana de autoridades de la lengua vasca* (1976-1991) hasi ziren argitaratzen (Euskaltzaindia 1982; Akesolo 1989: 47-50; 1992: 55-57, 335-346).[1161]

Ordurako unibertsitate katedradun zen L. Michelenak, bere benetako nahiari jarraituz, oin berriko hiztegi literario deskribatzaile eta historikoaren bidetik jotzea erabaki zuen. R. M. Azkue autodidaktaren lexikografia esentzialista erruz gainditu zuten L. Michelenak hogeita hamar urtez irizpide filologiko zorrotzekin landutako materialek. Bost milioi hitzeko corpusaren lanketa exhaustiboa Eusko Jaurlaritzak diruz lagundu, eta Ibon Sarasola unibertsitate irakasleak koordinatutako taldeak amaitu zuen, L. Michelena hil ondoren: hamasei liburukiko *Diccionario general vasco = Orotariko euskal hiztegia* (1987-2005) erraldoia (Lizundia & Zearreta 2005; Alvarez 2011; Sarasola 2015).[1162]

Dakogikun garaira itzulita, argitalpenen arloan, Akademiaren berehalako lorpen handiena M. Lecuonak ortotipografia berrituarekin prestatutako P. Axularren *Guero*ren edizioa (1954) izan zen. A. M. Labayen urgazleak zabaltzen zuen informazioaren ondorioz, argitalpen asmoaren lehen berriak 1953ko udaberrian agertu ziren EJ-GEren Parisko berripaperean eta P. Lafittek zuzentzen zuen astekarian (*Euzko Deya* 1953-05-01; *Herria* 1953-05-14).[1163] Baina *Euskera* agerkaria argitaratzeko izandako arazoen ondoren, J. Font apezpikuarengana jo behar izan zuten, zentsura erlijiosoa eskuzabalagoa izango zelakoan. Zarauzko Itxaropenak inprimatu zuen, J. L. Ansorena eliza zentsorearen eta J. C. Sudupe Donostiako bikario jeneralaren baimenarekin. Izan ere, eduki aldetik, Kontrarreformako aszetika liburuak ez zuen eragozpen berezirik sortu, euskaltzainburuorde integristaren erreguan ageri denez:

> Por lo cual a V. E. I. muy encarecidamente suplica se digne conceder la aprobación canónica necesaria para que pueda aparecer esta nueva edición de una

[1161] KMK: L. Aquesoloren gutuna J. L. Lizundiari, 1970-05-21. Euskaltzaindiak 1984an berrargitaratu zuen euskaltzainburuaren hiztegia facsimilean, sarrera gisako L. Michelenaren *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue* (1970) ikerketarekin (Michelena 2011b: 29-191).

[1162] Eusko Jaurlaritzak R. M. Azkueren hiztegiaren gaztelania-euskara bertsioa ere prestatu zuen (HAEE-IVAP 1987).

[1163] ABA-AIB: A. M. Labayen eta A. Ibinagabeitiaren arteko gutunak, 1953-04-28 & 1953-05-20.

IKER-35.indd 423 2/9/19 10:56

obra escrita con la finalidad de conseguir una reforma cristiana de las costumbres de sus lectores, para la cual sigue conservando su eficacia aun en nuestros días.[1164]

Baina ez zen eduki hutsa epaitzen zena, egilearen izenak eta erabilitako hizkuntzak ere pisu handia zuten, noski. Guatemalako J. Zaiteguik 1953az geroztik prest zuen *Bidalien egiñak* liburua, Itun Berriaren exegesia, R. Olabideren (SI) ildoko hizkera garbizalean idatzia. Gipuzkoan argitaratu nahi zuten, baina Donostiako elizbarrutiak eragozpenak jarri zizkion A. M. Labayen jeltzalearen bidez egindako eskariari, eta 1955 arte atzeratu zen Itxaropenako argitalpena.[1165] J. Font Donostiako apezpikuak 1954ko urtarrilaren 5ean eman zion «imprimatur» baimena, eta N. Ormaecheak hitzaurrea erabili zuen, berriz ere, gazte berritzaileen aurka egiteko (Zaitegi ta Plazaola 1955).[1166] P. Axularren *Guero*ri, M. Lecuonaren hitzaurreaz gain, A. Irigarayk aurkibide onomastikoa eta L. Michelenak hiztegi laburra erantsi zizkioten. Nafarroako medikuak honela azaldu zion erabilitako irizpidea P. Lafitteri 1954ko apirilean, XX. mendeko purismoak eragozpenak jarri baitzizkion *Guero*ren zabalkundeari:

> Axularren «Gero» ari dira, nik ere zerbeit laguntzen diet, imprimatu nahiean; 1ko edizionea den bezala, oraiko graphian emana: «rr» doble eta «ll» dobleaikin; eta «h» letrak errespetatuz, ez denak..., ezen hemengoentzat zuzendua baitago; eta hemen traba handia da letra hori; hala erabaki dugu, konsonantekin dauden «h»-ak ekentzea eta vocal-en artekoak konserbatzea; bide bitxia da, bainan, zerbait erregela hartu behar, «h»-ak gutxitzeko; horreri buruz ere nahi ginuke mintzatu, eta erakuts zuri zenbeit orrialde; lana abantzu finitua dago (Andiazabal & al. 2005: 226).[1167]

XIX. mendean egindako hirugarren edizioaz geroztik, J. Urquijok *RIEV*en facsimilea eman zuen zatika, baina gerra zibilak eten egin zuen argitalpen hori

---

[1164] ABA-EUS: I. M. Echaideren ofizioa J. Fonti, 1954-05-19. Oker ez banago, edukiaren zentsuraz den bezainbatean, M. Lecuonaren edizioa «putaner(a)» eta «puta seme» hitzen ordez, hurrenez hurren, «p...ner(a)» eta «p...-seme» jartzera mugatu zen (cf. Axular 1954: 261, 263, 276, 302).

[1165] ABA-AIB: A. M. Labayenen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1953-06-08.

[1166] N. Ormaechearen *Aitorkizunak* itzulpenak ere 1956ko apirilera arte itxaron behar izan zuen J. L. Ansorena eta J. C. Sudupek sinatutako elizbarrutiaren baimena lortzeko (Ruiz Arzalluz 2003: 51-53).

[1167] A. Irigarayk dirurik kobratzeari uko egin zionez, euskaltzainburuordeak edizio lanagatik M. Lecuona eta L. Michelenari mila bana pta. ordaintzea proposatu zuen, bereziki azkenak bizi zuen larritasun ekonomikoagatik (ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1954-09-02).

IKER-35.indd 424 2/9/19 10:56

(Urgell 1991).[1168] Hain zuzen, M. Lecuonak ezin izan zion eutsi zenbait egokitzapen morfologiko-sintaktiko, ahozko gipuzkeraren bidetik, egiteko tentazioari. Artean S. Altube eta R. M. Azkueren teoriak kanokikotzat jotzen ziren. Are F. Krutwig eta L. Villasante «klasizistek» ere *Guero*ren sintaxia zuzentzea beharrezko ikusten zuten. Artean ez zen onartzen ahozko euskarak bere legeak zituela, hein batean S. Altuberen *Erderismos*en (1930) jasotakoak, baina idatzizko euskara nahitaez zela «artifiziala», Europako tradizio kultuan txertatua.[1169] L. Michelenak, hain zuzen, editorearen zenbait erabaki kritikatu zituen *Egan* aldizkariko iruzkinean:

> Lekuona jaunak erri-izkera geiegitxo jasotzen duela ere esango nuke, ori egiteko literatur-izkera beeratzen baitu. Ezta naitaezkoa, batetik, bi mota auek elkarren etsai izatea. Bestetik, adibidez, iñork esaten aal du Fray Luis de León edo Montaigne edo Francis Bacon'en izkuntza baino ederragoa zanik orduko edozein Peru nekazari edo Matxin urtzaillerena? Nik eztut beintzat orain arte entzun. Jatorragoa, bai, izango zan agian, aurrekoen oiturei estuago lotua, baiña, zer egingo zukean nekazari orrek edo urtzaille orrek besteek esan zituzten gauzak esan bear izan balitu? Berriz ere: argia guretzat bakarrik piztu aal du Jainkoak? Beste guziak itsutu egin aal ditu? Gatozen mamira, eta mamia adierazten saia gaitezen eta izkuntza saia dezagun (Michelena 1954: 41).

Nolanahi den, edizio berriak eragin handiko literatura eredu bat berriz jarri zuen zirkulazioan. M. Lecuonak Euskaltzaindiaren 1954ko martxoaren 26ko batzarrean bildutakoei (I. M. Echaide, J. Gorostiaga, A. Irigaray, L. Michelena eta N. Echániz elizgizona) irakurri zien hitzaurrean adierazi zuenez, argitalpenak euskararen batasuna helburu zuen: «Nola? *Gero*'ren argitaratze berri au, guztiontzako era errezean, Euskaltzaindiaren idazkeran eta ortographian antolatuz» (Axular 1954: XXX-XXXI; cf Euskaltzaindia 1982: 35). Besteak beste, A. Irigarayk *Guero*ren edizio berriaren ale bat eraman zion J. M. Caballero GPDko presidenteari SFVJUren aholku batzordea lehen aldiz batzartu zenean.[1170]

[1168] Euskaltzaindiak 2015ean argitaratu zuen Blanca Urgell unibertsitate irakasleak egindako edizio filologikoa.

[1169] L. Michelenaren kritikei erantzutearren, «Literatur-Euskera» artikulua idatzi zuen Paueko euskaltzain erbesteratuak (Altube 1956).

[1170] KMK: SFVJUko aholku batzordearen akta, 1954-10-14. *Euzko-Gogoa*k, bestalde, edizio berria txalotu arren, inprenta akats gehiegi zituela nabarmendu zuen (Ibinagabeitia 1954a).

IKER-35.indd 425 2/9/19 10:56

Irudia 22. **Manuel Lecuonak prestatutako Pedro Axularren *Gero* (1954) eta jatorrizko edizioaren facsimilea**



GVERO
BI PARTETAN
partitua eta berecia,
LEHENBICIÇOAN
EMAITENDA, ADITCERA,
cenbat calte eguiten düen, luçamendutan ibiltceac, eguitecoen gueroco utzteac.

Bigarrenean quidatcenda, eta aitcinatcen, luçamenduac vtcirtc, bere hala, bere eguin bideari, lothu nahi çaicana.

Escritura saindutic, Eliçaco Doctor etaric eta liburu debocinozco etaric, Axular Saraco errotorac vildua,

Ne tardes converti ad Dominum, & ne differas de die in diem, Eccles. 5.

BORDELEN,
G. MILANGES Erregueren Imprimaçaillea baithan.
M. DC. XLIII.



Euskaltzaindia'ren Arduapean

GERO
BI PARTETAN PARTITUA
eta berezia

Lehenbizikoan emaiten da aditzera zenbat kalte egiten duen luzamendutan ibiltzeak.

Bigarrenean kidatzen da eta aintzinatzen, luzamenduak utzirik berehala bere egin-bideari lotu nai zaikana.

Eskritura Saindutik, Elizako Doktoretarik eta Liburu Debozinozkoetarik

AXULAR SARA'ko ERRETORAK bildua

IV ARGITARA-ALDIA
EUSKALTZAINDIKO LEKUONA APAIZAK
PRESTATUA ETA AITZIN-SOLASTUA

Ne tardes converti ad Dominum, et ne differas de die in diem.
(Eccles. 5)

ZARAUTZ'en
«Itxaropena»-irarkolan
1954

Iturria: Euskaltzaindia (Azkue Biblioteka eta Artxiboa).

IKER-35.indd 426 2/9/19 10:56

6.7. IGNACIO M.ª ECHAIDEREN ZUZENDARITZA ETA ARAUDI BERRIA

F. Krutwigek 1949ko dosierrean adierazitako eskaerari jarraituta, 1950-1954 arteko 39 batzar ia guztiak Donostian izan ziren, Bilbon egindako hiru eta Baiona-Iruñetan egindako bana izan ezik. Hala ere, Frantziako euskaltzainak, J. Moulier kide berria barne, batzarretara noizean behin agertu ziren. J. Urquijo eta R. M. Azkue hil ondoko urteetan, Bilboko N. Oleaga idazkariak eta Donostiako I. M. Echaide eta A. Irigaray euskaltzain alargunek eraman zuten Akademiaren pisua.[1171] 1940ko hamarkadan egiten ziren urteko 5,44 batzarrak 9,75 izatera igaro ziren tarte horretan. Gainera, 1949ko handitzearen eta izendapen gazteagoen ondorioz, 39 batzarretatik 23tan (%58,97) lortu zuten 1920ko estatutuek ezarritako sei euskaltzainak biltzea. 1940ko hamarkadan batzarren %18,36tan baino ez zuten estatutuek eskatutako baldintza hori bete. Gainera, urgazleak batzarretan sarriago parte hartzen hasi ziren. 1954ko batzar guztiak Donostian (probintzia jauregiko I. M. Echaideren bulegoan) izan arren, Pirinio Behereetako kiderik ez zen bertaratu, nahiz eta abuztuko batzarrera agertuko zirela agindu. Gainera, Bilboko idazkari makalduak (insomnio arazoak zituen eta memoriak huts egiten zion) urte horretako bost batzarretan huts egin zuen, eta horrek ezinegona eragin zuen, batez ere *Euskera*ren edizioarekin zituzten arazoak kontuan hartuta (Euskaltzaindia 1982: 35-45).[1172]

Hain zuzen, 1954ko abuztuan (EIL-SIEBen biltzarrarekin lanpetuta zebiltzan Frantziako euskaltzainik gabe) onartu zuten araudi berriaren arabera, Akademiaren egoitza sozialak, biblioteka eta artxiboa barne, Bilbon jarraitu zuen, baina Donostian ordezkaritza ofiziosoa zegoen, GPD eta SFVJUri esker. Ikusi dugunez, L. Michelenaren prestigioak zerikusi handia izan zuen horretan. Argi dago I. M. Echaideren agintaritzan Gipuzkoak Akademiaren bizitzan indar handia hartu zuela tantaz tanta. Euskaltzainburuordeak honela adierazi zuen 1954ko udan: «el centro de gravedad de las actividades de la Academia, se está desplazando hacia Guipúzcoa desde hace muchos años».[1173]

[1171] Honela geratu ziren 1950-1954 arteko partaidetzak: N. Oleaga (34), A. Irigaray (31), I. M. Echaide (29), J. Gorostiaga (24), L. Villasante (20), M. Lecuona (17), L. Michelena (16), F. Krutwig (15), R. M. Azkue (10), J. Elissalde (8), L. Dassance (8), P. Lafitte (7), A. M. Labayen (7), J. Cincunegui (4), J. Moulier (3), S. Michelena (3), B. Echegaray (2), J. M. Seminario (2), J. M. Lojendio (2), A. Arrue (2), M. Arruza (2), B. M. Garro (2), J. Urquijo (1), R. Lafon (1), J. Saint-Pierre (1), G. Manterola (1), J. A. de Donostia (1) eta K. Bouda (1).

[1172] 1955-1964 artean batzar gutxi batzuk Gipuzkoatik kanpo egin arren, Donostiak eutsi zion bilgune nagusi izateari alde handiarekin (cf. Euskaltzaindia 1982).

[1173] KMK: I. M. Echaideren gutuna A. Irigarayri, 1954-07-14.

IKER-35.indd 427 2/9/19 10:56

Lehenago, 1953ko martxoaren 20an, F. Arocenarekin bildu ziren I. M. Echaide, A. Irigaray eta M. Lecuona. Besteak beste, R. Inzagaray Akademiako idazkari ohiaren akta liburuaz hitz egin zuten, baina falangisten eskuetan erori bide zen gerra zibilean. Datu hori GPDko artxibozainak emandakoa zatekeen.[1174] Nolanahi den, A. Irigarayk nahi zuen N. Oleagak aktak hurrengo batzarrera eramatea, *Euskera*n argitaratzeko asmoarekin. Era berean, Akademiaren gaztelania-euskara hiztegiaren corpusak ere eskatu zituen, argitaletxeekin harremanetan baitzegoen. R. M. Azkue zenak utzitako zein liburu zeuden salgai ere jakin nahi zuen, erosleak bilatzen hasteko.[1175]

N. Oleaga klinika batetik irten berria zen, beste ebakuntza bategatik. Donostiako euskaltzainek adierazitako asmoekin bat etorri arren, Akademiaren batzarra hilabete atzeratzea eskatu zuen, deialdirik egiteko astirik ez zuelako izan. Ordainetan, bi eguneko batzarrak berreskuratzea proposatu zuen, bilerei etekin gehiago ateratzeko.[1176] Donostiako euskaltzainek erantzun zuten nahiago zutela hilean behin batzartu, agian goizez eta arratsaldez. N. Oleaga azkenaldian makalduta zebilenez, akten kopiak beti I. M. Echaideri bidaltzea eskatu zioten, Bilboko idazkariak ezin izanez gero, Donostiatik deitutako batzarrak egin ahal izateko. Era berean, 1941 ondoko aktak argitaratu eta lexikografiarekin jarraitzeko asmoari eusten zioten.[1177]

Donostiako euskaltzainen asmoa zen hileko azken ostegun arratsaldeetan SFVJUko hitzaldiak egin ondoren, biharamun goizean Akademiaren ohiko batzarra egitea. Bizkaiko euskaltzainak gonbidatzen zituzten hitzaldietan parte hartzera. Uztaritzeko alkatearen bidez, halaber, Pirinio Behereetako euskaltzainak erakarri nahi zituzten.[1178] Ikusi dugunez, A. Irigarayk muga estatala zeharkatu zuen 1953ko abuztuan, besteak beste, P. Lafitte eta L. Dassancekin biltzeko (Andiazabal & al. 2005: 225). Frantziako kiderik ez zen Akademiako batzarretara agertu 1952ko ekainetik 1953ko irailera arte. Batzar deiak berandu jasotzen omen zituzten, eta muga zeharkatzeko eskaera egitetik baimena eskuratu arte, sei egun igarotzen ziren. Hori zen batzarretara ez agertzeko arrazoi nagusia, baina kontuan hartu behar da erbesteko abertzaleekin zuten harreman estua, EJ-GEk diruz ere laguntzen baitzituen Pirinio Behereetako euskal argitalpenak.[1179]

[1174] F. Arocena lanean ibili zen Donostiako euskaltzain zenaren paperekin eta bera arduratu zen *Historia Eclesiástica de San Sebastián* postumoaren edizioaz (cf. Inzagaray 1951).

[1175] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-03-20.

[1176] ABA-EUS: N. Oleagaren gutuna I. M. Echaideri, 1953-03-24.

[1177] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-03-27.

[1178] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-04-17.

[1179] ABA-EUS: J. A. Esnozen gutuna N. Oleagari, 1953-08-18.

IKER-35.indd 428 2/9/19 10:56

Irudia 23. **José M.ª Caballero, Ignacio M.ª Echaide eta Juan Pagola (Donostia, 1954-04-09)**

Iturria: *Los veinte primeros años de la Red Telefónica de Guipúzcoa (1908-1928)*. San Sebastián: Imprenta de la Diputación de Guipúzcoa, 1954.

I. M. Echaidek, Donostiako ordezkaritzako korrespondentzia idazteko, GPDko laguntzailea erabiltzen zuen, baina J. A. Esnoz ez zen gauza gutunak euskaraz idazteko. Horregatik, buruordearen gutunak ia beti gaztelaniaz zeuden.[1180] Dena dela, berak nahi zuen N. Oleagak ere laguntzaile bat kontratatzea Bilboko idazkaritzarako. Batzarrak arintzearren, I. M. Echaidek eskatu zion aurreko akten zirriborroak euskaltzainei postaz bidaltzeko beti.[1181] Uste izatekoa da N. Oleagak ez zituela beti gogo onez hartu Donostiatik iristen zitzaizkion ohar eta agindu horiek, hamar urte oso zailetan R. M. Azkuerekin eskuz esku Akademiaren zuzendaritzaz arduratu ondoren.

1953ko abenduaren 21ean N. Oleaga Donostian izan zen Euskaltzaindiaren urteko azken batzarrerako. Ez dago aktarik ezta zirriborrorik ere, baina idazkariak

[1180] A. Irigarayk, adibidez, 1953ko irailean Bizkaiko karmeldarrei laguntza eskatu zien halako laguntzailea Donostian bilatzeko (Onaindia 1974: 17).

[1181] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1953-12-03.

IKER-35.indd 429 2/9/19 10:56

bidaiaren dieta kobratu egin zuen.[1182] Donostian bizi zirenez, likidazioan ez agertu arren, seguru asko I. M. Echaide eta A. Irigaray ere bertan izan ziren, *Euskera* agerkariaren arazo larria eztabaidatzeko. L. Villasantek aldez aurretik jakinarazi zuen ezin etorria, Arantzazuko santutegian ikasleek ekitaldi bat antolatu zutelako.[1183] Hain zuzen, agerkari ofizialarekin kolpe berri bat jasota, Akademia uzkur ageri zen jarduera ageriarekiko. E. Erquiaga urgazleak Euskaltzaindia bizirik ote zegoen galdetu behar izan zion L. Villasanteri, egunkarietan ez zuelako Akademiaren batzarren berririk irakurtzen (Sudupe 2011a: 235).[1184]

1954ko hasieran hirurogeita hamar urte betetzear zeuden bi adinekok osatzen zuten Euskaltzaindiaren zuzendaritza: I. M. Echaide jarduneko euskaltzainburuak eta N. Oleaga idazkariak. «Ikerleen» edo «yagoleen» sailbururik ezean, hurrengo kargua J. Gorostiaga liburuzainarena zen, Bilboko egoitzako soldatapeko arduradunarena. Bestalde G. Maidagan urgazleak behin-behineko diruzain izaten jarraitzen zuen, estatutuek diruzaina euskaltzain izatea agindu arren. Ikusiko dugunez, urtea amaitu baino lehenago azken lanpostu bientzako behin-behineko ordezkoa bilatu behar izan zuten.

I. M. Echaide jarduneko euskaltzainburua ez zen R. M. Azkuek izan zuen itzalaren mailara iristen, baina Euskaltzaindiaren zuzendari izan zen 1962an hil arte. N. Oleagak ere idazkari izaten jarraitu zuen 1961ean hil arte. Erakundearekiko konpromiso irmoa erakutsi zuten beti, eta diktadura frankistarentzat politikoki onargarria zen irudia eman zioten Akademiari. Buruorde integrista foruzaleak, 1949-1950 artean GPDk telefono sarearen eskumenak behin betiko galdu zituenean, gorabeherak izan zituen diputatuekin, baina 1952an J. M. Caballero karlista presidente izendatu zutenetik, harreman hobeak izan zituen probintziako agintariekin.

GPDko presidenteak 1953ko martxoaren 18an erabaki zuen omenaldi ofiziala egitea Gipuzkoako telefono sarearen zuzendari ohiari. Urriaren 8an, halaber, J. Ruiz Giménez Hezkuntza Nazionaleko ministerioari erregutu zion I. M. Echaide «Alfonso X el Sabio»ren ordenan onartua izan zedin. 1953ko abenduaren 14an sinatu zuen ministerioko idazkariordeak baiezkoaren jakinarazpena, baina enkomienda mailan; J. Irigoyenek edota J. Urquijok jasotako gurutze handia baino apalagoa izan zen, alegia.[1185]

[1182] ABA-EUS: Euskaltzaindiaren batzarretako dieta eta osteren likidazioa, 1953-12-21.

[1183] ABA-EUS: L. Villasanteren gutuna N. Oleagari, 1953-12-18.

[1184] ABA-EUS: E. Erquiagaren gutuna L. Villasanteri, 1953-12-24.

[1185] Adibidez, A. Tovarrek ere gurutze handia jaso zuen: «Decreto de 18 de julio de 1954 por el que se concede la Gran Cruz de la Orden Civil de Alfonso X el Sabio a don Antonio

IKER-35.indd 430 2/9/19 10:56

Dena dela, euskaltzainburuordearen aginpideari emandako bultzada ofiziala izan zen sari hura. Goi mailako ordezkaritza bildu zen probintzia jauregian 1954ko apirilaren 9an: GPDko presidentea, E. Vidal Munárriz gobernadore militarra, J. Pagola Donostiako alkatea, J. Garnica itsas komandantea, D. Laffitte Gipuzkoako ingeniari nagusia eta probintziako diputatuak. Mahaiburuen, funtzionarioen eta familia-adiskideen aurrean, J. M. Caballerok, M. Ciriquiainek eta I. M. Echaidek berak hitz egin zuten. Euskaltzainburuordeak euskararen alde egindako lana goratu zuenean, GPDko presidenteak berriz ere ortodoxia politiko frankista aldarrikatu zuen. Buruordeak, orobat, bere ideologia erreakzionarioa nabarmendu zuen hitzaldian:

> Pero llegó un buen día, allá por los años de 1812, en que unos señores que se llamaban «modestamente» a sí mismos, espíritus ilustrados y progresivos, iniciaron una ridícula parodia de la Asamblea Legislativa Francesa y entonces brotó en España esa altisonante verborrea que ningún Gobierno, hasta ahora, ha sido capaz de curar. No obstante, yo espero que esto mejorará con el tiempo; ahora se trabaja más en España y el trabajo y la verborrea son enemigos (Echaide 1954: 22).

Guztiek euskaltzainburutzat hartzen zuten, baina formalki buruorde izaten jarraitu zuen, behin-behinekotasun kronikoaren erakusgarri, 1957ko ekainean euskaltzainburu izatea onartu zuen arte.[1186] I. M. Echaidek ez zuen bere buruarentzat R. M. Azkuek bizitza akademikoan izandako aginte mailaren parekorik hartu nahi izan. R. M. Azkue bere garairako zientifikoki atzeratuta bazegoen, zuzendari berriaren gaitasuna atzerapauso bat izan zen, filologia eta linguistikari dagokionez.[1187] Politikoki parekotasunak izan bazituzten: ideologiaz eskuindar autonomistak, Eliza katolikoaren guztiz menpekoak, espainolismoa ez ezik, frankismoa ere lotsarik gabe onartu zutenak, baina batez ere inoiz amorerik eman ez zuten euskaltzaleak. Bestalde, wagnertarrak ez ezik, biak izan ziren musikagile, I. M. Echaidek hiru zarzuela konposatu baitzituen. GPDko ingeniari izatetik erretiroa 1954ko abenduaren 1ean hartu zuen, hirurogeita hamar urterekin. Abenduaren 8an enbolia batek jo zion eta horren ondorioz hanka bat ebaki behar izan zioten, baina gero ere Euskaltzaindiko ardurekin jarraitu zuen, eginkizun horrek pozez

---

Tovar Llorente», *BOE*, 1954-07-18.

[1186] Dena dela, ez dago batzar horretako akta ofizialik (ABA-EUS: N. Oleagaren akta ez onartua, 1957-06-28).

[1187] Linguistika aldetik, ekarpen oso puntualak egin zituen, hala nola «korr» morfemaz eztabaida etimologikoa eragitea 1954an A. Tovar, D. de Inza, R. Lafon edota A. Arrue artean (Euskaltzaindia 1982: 38).

IKER-35.indd 431 2/9/19 10:56

betetzen baitzuen I. M. Echaide estoikoa (Etxaide-Itharte 1985: 362-363; 1986: 81-82, 207-213). L. Michelenari zuzendutako hitz hauetan ageri da buruordearen izaera gogotsua:

> Dirá Vd. que estoy metalizado y lo reconozco. Pero es que con el dinero se consiguen muchas cosas (el Cielo es una rara excepción). Si tuviésemos bastante dinero para comprar a los que se nos oponen, habríamos triunfado. Y en Euskalerría hay dinero de sobra para hacerlo. Pero no sobra, sino que falta, el amor a lo que unos cuantos «chiflados» nos interesa.[1188]

F. Krutwigen erantzun hitzaldiak sortutako arazoak gaindituta zirudien, eta baita JCVrekiko harremanak bideratuta ere. Lehenago J. Irigoyen eta E. Esparzarekin gertatu bezala, J. M. Seminario iraganeko oroipena zen, batez ere. Euskaltzainburuordeak laguntza eskatu zion literatura lehiaketa Iruñeko egunkarietan iragartzeko, eta Donostiako batzarretara gonbidatu zuen, baina Nafarroako kazetariak ez zuen inoiz gehiago parte hartu Akademiaren zereginetan.[1189] Abertzaleekiko gutxieneko elkarlana ere ziurtatuta zegoen L. Michelena eta M. Lecuona euskaltzainen edota A. M. Labayen urgazlearen bidez. Hain zuzen, 1954ko azaroaren 24an N. Ormaechea Ameriketatik itzuli eta Bilboaldean lehorreratu ondoren, A. M. Labayenek Gipuzkoara autoz eraman zuen eta, Akademiaren izenean, L. Michelenak eman zion ongietorri ofiziala Gabonetan.[1190] SFVJUren *Egan* aldizkari berrituan elkarrizketatu zuenean, «Orixe»k garaiko euskal kulturaren muga sozioekonomikoak (publiko eskasa) aipatu zituen, ohi bezain kontentagaitz. Egitasmo euskaltzale ofizialistekiko mesfidantza ez ezik, belaunaldi berrien joerekiko etena ere bistan zegoen ordurako (Iztueta 1991: 129-133; Urkizu 2004: 40, 43, 45-46; Michelena 2011f: 327-328).

Erbesteko kulturgintzari dagokionez, C. Mathieu apezpikua buru zuen EIL-SIEBek 1954ko uztail-iraila artean Baiona eta Uztaritzen euskal hizkuntza eta kulturaz antolatutako biltzarra aipatu behar da. EIL-SIEBek ez zuen biltzar gehiagorik antolatu. 1948ko EIL-SIEBen biltzarrarekin erkatuta, ahula izan zen, diru laguntza gutxiago eta oihartzun mediatiko txikiagoarekin. Diktadura frankistak nazioartean lortutako aitortzak EJ-GEren inguruko politikagintzan, kultura mailakoan barne, kolpe latza eragin zuen. Akizeko

[1188] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna L. Michelenari, 1956-02-11.

[1189] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutunak J. M. Seminariori, 1954-02-04 & 1954-08-28.

[1190] B. Echegaray hil ondoren, 1957an L. Michelenari egokitu zitzaion, halaber, N. Ormaecheari euskaltzain izateko proposamena egitea. Hasieran IAEVeko I. López Mendizábal ere euskaltzain izendatzeko baldintza jarri zuen, baina Akademiak ez zuen onartu, Argentinan bizi zelako (Iztueta & Iztueta 2006: 336-337, 494-502).

IKER-35.indd 432 2/9/19 10:56

apezpikua irekiera hitzaldian euskara estandarizatzearen beharraz aritu zen (Mathieu 1954). Batzorde antolatzailean, EAJ-PNVko kideez gain, P. Lafitte eta L. Dassance euskaltzainak aritu ziren, eta seguru asko horregatik ez zuten urte horretako Akademiaren batzarretan parte hartu.[1191] I. M. Echaidek uztail-abuztuetako batzarretan adierazi zuenez, EIL-SIEBen biltzarrean parte hartzeko gonbita berandu jaso zuelako ezin izan zien garaiz jakinarazi gainerako euskaltzainei (Euskaltzaindia 1982: 38-39).

Lehia politikoak eragindako aitzakia hutsa zen. Izan ere, S. Altubez gain («Itz-berriak, itz-zaarrak eta itz-aldakuntzak» eta «Origen de la palabra *Txabier*, *Javier*»), J. Gorostiagak («El ciclo poético de Mondragón»), L. Michelenak («Quelques problèmes de phonétique historique basque») edota A. M. Labayenek («Elizanburu, bere bizitza eta lanak») komunikazioak bidali zituzten biltzarrera. Hain zuzen, salbuespen politiko gisa, aipatu behar da J. Ybarrak «Lo romano en Vizcaya» komunikazioa aurkeztu zuela. Besteak beste, A. Campiónen jaiotzaren mendeurrena ospatu (M. Irujoren ekimenez) eta Euskal Herriko atlas linguistikoa abiatzeko deia berritu zuten.

A. Irigarayk, beti bezain zuhur, honela idatzi zion P. Lafitteri 1954ko apirilean: «Ikusi dugu Euskal Ikaskuntzetako batzarraren deia gustagarria biziki, bainan... hunara etorri beharrak, badakizu...» (Andiazabal & al. 2005: 226). Hain zuzen, P. Lafitte euskaltzaina buru zuen biltzarreko «Défense de la langue basque» sailak idazki bat plazaratu zuen euskararen etorkizun agonikoaz. Gipuzkoako eta Bizkaiko euskararen egoera EAJ-PNVko J. Rezolak eta ELA-STVko G. Ruiz de Ercillak azaldu zuten, hurrenez hurren. Hizkuntza sailaren kalkuluen arabera, 1934-1954 artean, Euskal Herriko 700.000 euskal hiztunak 525.000 izatera igaro ziren, besteak beste, migrazioen ondorioz.[1192] Atzerakada hori geldiarazteko neurriak Aljeriako kolpea jasotzear zen Frantziako egoera sozioekonomiko eta politikoari begira aldarrikatu ziren, Espainia frankistari eta, ondorioz, Euskaltzaindiari ez ikusiarena eginda (Larronde 2004b; 2004c). Erbestean zegoen giro etsigarriaren erakusgarri, J. M. Leizaola lehendakariordeak V. Amézagari EIL-SIEBen biltzarrerako klasikoen euskal itzulpengintzaz komunikazioa eskatu ondoren, Uruguaiko jeltzaleak garaiko frustrazioa adierazi zion M. Irujori 1954ko urrian:

[1191] R. Lafon, H. Gavel, J. M. Barandiaran, G. Eppherre, J. Ithurriague edota M. Labéguerie akademikoak ere aritu ziren antolaketan. Biltzarreko eztabaidetan P. Charritton, P. Narbaitz, J. Diharce edota P. Larzabal urgazleek ere parte hartu zuten.

[1192] Atzerakada hori konfirmatu egin zuten Arabarako O. Apraiz urgazleak *Avance Vitoriano* aldizkarian, eta Euskal Herri osorako G. Fleuriot-ek Parisko *La Nature* aldizkarian (cf. *Euzko Deya* 1954-11-01).

IKER-35.indd 433 2/9/19 10:56

Irudia 24. ***Estatutos y reglamento de la Academia de la Lengua Vasca* (1955). Araudia 1954ko abuztuaren 24an onartu zela adierazi arren, abuztuaren 27an onartu zen**


ESTATUTOS
Y
REGLAMENTO
DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
Aprobada en reunión de 24 de Agosto de 1954

Iturria: Euskaltzaindia (Azkue Biblioteka eta Artxiboa).

> La verdad es que después de «Hamlet» he terminado otras obras de Shakespeare —«Macbeth» hace tres o cuatro días—, pero no veo que haya que felicitarme, pues ni tengo lectores ni plata para editar esas y otras cosas que tengo listas para aparecer en nuestra lengua. Lo cual es bien triste, y no por mí, que poco interesa, sino por lo que ello nos dice del estado desesperado de nuestro idioma que se nos va de entre las manos, muerto más que por el odio de los de fuera —que cómodo es esto de tener un buen pretexto!— por la indiferencia de los de casa. Yo pienso seguir cumpliendo con mi deber hasta el último momento, pero la verdad es que hay momentos —demasiados momentos— en que uno no puede menos de pensar en que si Dios no hace un milagro, nuestra patria, vacía de euskera y pletórica de maketos se nos va sin remedio (Irujo Ametzaga 2009a: 203).

Bestalde, batez ere I. M. Echaide jarduneko euskaltzainburuaren ekimenez, Akademiak instituzio gisa bere egoera argitu nahi izan zuen, eta hori nolabait formalizatzeko 1920ko araudia eguneratzea aukeratu zen. 1954ko martxoko batzarrean eztabaidatu zen gaia. A. Irigarayk nabarmendu zuen eus-

IKER-35.indd 434 2/9/19 10:56

kaltzain izateko euskal jatorriaren baldintza desegokia zela. Euskaltzainburuordeak gogorarazi zuenez, puntu hori ez ezik, 1920ko beste asko ere ez ziren betetzen. 1954ko abuztuan, EIL-SIEBen biltzarra ospatzen zen bitartean, buruordearen proposamena onartu eta azken idazketa egiteko batzordea osatu zuten Donostiako euskaltzainen nukleoarekin: I. M. Echaide, A. Irigaray eta L. Michelena (Euskaltzaindia 1982: 35-36, 39).

Eragozpenak saihestearren, 1920ko araudia ez bezala, 1954koa soilik gaztelaniaz eta inprimategiaren daturik gabe argitaratu zen: *Estatutos y reglamento de la Academia de la Lengua Vasca*. Agerkariarekin izandako arazoen ondorioz, Tolosako Editorial Muguerza-k uko egin zion araudi berria inprimatzeko eskaintzari. Ia isilpean, 100-150 inguru ale besterik ez ziren argitaratu Donostiako Izarra inprimategian 1955ean.[1193]

Euskaltzainburuordeak 1920ko araudia ahalik eta gehien errespetatu eta berrikuntzak ezinbestekora mugatu nahi izan zituen. Akademiaren izaera juridikoa eskuratzea, diktadura frankistako legediaren arabera, ezinezkotzat jotzen zen. Hogeita hamalau urteko araudia zaharkitua zegoen, baina asmoa ez zen horrenbeste iraungo zuen araudi berria egitea, baizik eta gerraondoko Akademiaren egoera aintzat hartu eta urte batzuetarako egonkortzea. Usteak uste, araudi berriak hogei urte iraun zuen. Euskaltzaindia frankismoak toleratutako baina izaera juridikorik gabeko elkartea izan zen, F. Franco estatuburua hil eta berehalako Hezkuntza eta Zientzia ministerioaren 1976ko dekretu batek Errege Akademia ofizial bilakatu zuen arte, estatutu berrituekin (cf. Euskaltzaindia 1972; 1974; 1976).[1194]

Formalki, «ikerleen» eta «yagoleen» sail bitasuna errespetatu zen, nahiz eta praktikan halakorik egon ez. 1920an iragarritako fonetika eta lexikografia bulegoak sortzeko asmoa, ordea, ezabatu egin zen errealismoari men eginda. Euskara literarioa ezartzeko aginduari ez zitzaion uko egin, baina klasikoen kanon antzeko bat ezarri beharra gehitu zen. Halaber, lexikografiari, itzulpengintzari, literatura lehiaketei eta euskara eskolei garrantzia ematen jarraitu zuten.

Batzarrak hilean behin egitea ezarri zuen araudi eguneratuak, gerra zibil aurreko batzar bikoitzak behin betiko baztertuta. Era berean, sailbururik ezean, batzarretan mahaiburuorde lanak euskaltzain zaharrenak egitea eta

---

[1193] ABA-EUS: I. M. Echaide eta A. M. Labayenen arteko gutunak, 1955-04-02 & 1955-04-15.

[1194] «Decreto 573/1976, de 26 de febrero, por el que se reconoce a la Academia de la Lengua Vasca bajo la denominación de Real Academia de la Lengua Vasca», *BOE*, 1976-03-25.

IKER-35.indd 435 2/9/19 10:56

idazkariorde lanak euskaltzain gazteenak egitea erabaki zuten. Quoruma betetzeko zeuden arazoak ikusita, batzarrak egiteko gutxieneko euskaltzainen kopurua seitik bostera jaitsi zuten.

1920ko araudiarekiko aldaketa garrantzitsua EI-SEVekiko harremana eta mendekotasun teorikoa ezabatzea izan zen. Euskaltzaindiak bizitza akademiko autonomoa izan arren, 1920ko erregelek EI-SEVen filialtzat jotzen zuten. 1954an, ordea, EI-SEV ez zen existitzen. Akademiaren arduradunek aukera baliatu zuten independentzia akademikoa ezartzeko. Euskaltzaindia ez zen inoiz kuotak ordaintzen zituzten bazkidez osatutako EI-SEVen gisako elkartea izan, baina ezta RAE bezalako estatu mailako instituzio ofiziala ere. Gainera, ez zuten JCVk edota RSVAPek CSICekiko zuten mendekotasun organikorik sortu nahi. Jarduneko euskaltzainburuak 1954an nahiago izan zuen entzungor egin ziurtasun juridikorik ezari:

> Veo, pues, muy difícil que se pueda legalizar la existencia de la Academia. Pero, si para ello fuera preciso convertirla en rama de una Asociación legalmente establecida, esto lo encuentro muy peligroso y atentatorio a la honra de la sabia Corporación.
>
> Por hoy creo que este asunto no debe preocuparnos. Sigamos como hasta ahora, que el tiempo, gran proveedor de oportunidades, ya nos proporcionará una solución. La existencia de la Academia depende hoy de nuestra voluntad de vivir. Que ésta no nos falte.[1195]

F. Krutwigen 1949ko dosierrak ezarritako hamabitik hemezortzirako euskaltzainen gutxieneko kopuru aldaketa onartzeaz gain, batzarretara agertzen ez zirenentzako euskaltzainordearen («académico suplente») figura sortu zen: «Si un académico deja de asistir durante todo un año a las reuniones sin excusar su falta de asistencia con razones que la Academia estime suficiente, se designará un académico suplente que gozará de todos los derechos de los académicos de número y que no cesará en su cargo aun cuando el suplido comenzare a asistir» (Euskaltzaindia 1955: 4).

Hain zuzen, 1954ko irailean jarduneko euskaltzainburuak hiru euskaltzainorde proposatu zituen: J. M. Lojendio, G. Maidagan eta A. Arrue. Ordurako osasun arazoak zituen diruzainak, bere betiko apaltasunarekin, ez zuen izendapena onartu, nahiz eta proposamena bihotzez eskertu. Aitzitik, beste bi

[1195] ABA-EUS: I. M. Echaidek euskaltzainei zuzendutako «Acerca de la reforma de los reglamentos» dosierra, 1954-01-07.

IKER-35.indd 436 2/9/19 10:56

izendapenekin, Euskaltzaindiak aginte politikoarekiko lotura sendotzea lortu zuen. Asmo hori argi ageri zen buruordearen hitzetan:

> La familia Lojendio la constituyen varios hermanos todos inteligentísimos, muy unidos y de gran influencia en las esferas oficiales. El nombramiento de don José María nos abriría muchas puertas hoy cerradas y aumentaría enormemente el prestigio de la Academia, pues, el apellido «Lojendio» es universalmente conocido.
>
> El Sr. Arrúe es íntimo del Presidente de la Diputación de Guipúzcoa y por tanto llave para las subvenciones de la Diputación y de la Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Es promotor del Seminario Filológico Julio de Urquijo que ha de constituir un puntal formidable para la Academia.[1196]

Interesdunei ere disimulurik gabe jakinarazi zien, hala nola Gipuzkoako buruzagi karlistari: «yo he pensado hace mucho que está Vd. llamado a ocupar sitiales más altos y lo mismo que yo opina un compañero de la Academia».[1197] Abertzaleek, noski, zalantzaz hartu zituzten izendapenok.[1198] Hala ere, Euskaltzaindiaren egoera hauskorraren erakusgarri, I. M. Echaideren nahia gorabehera, 1954ko urrian izendatutako bi euskaltzainorde berriek ez zuten sarrera hitzaldirik egin.[1199]

1954ko irailean, halaber, J. Gorostiagak Ameriketara alde egin zuen «viaje de estudios»ean, eta hortik aurrera A. Irigoyen kontularia hasi zen Bilboko egoitzako bibliotekaz, diruzaintzaz eta bestelako lanez arduratzen, G. Maidagan urgazlea ere ikusmena galtzen hasia baitzen. J. Gorostiagaren alde egiteko erabakian nabari da huts egin zuela Bilbon egitura egonkorrago bat sortzeko asmoak. Agian arrazoi politikoak zeuden Espainiatik alde egitea erabakitzeko, baina, era berean, bere burua linguista gisa gaindituta ikusten zuen SFVJUtik zetorren haize berriarekin.[1200]

Ikusi dugunez, A. Irigoyen 1952-1953 ikasturtetik euskara eskolak ematen ari zen Euskaltzaindiaren egoitzan modu informalean. Akademiaren 1954ko irailaren batzarrean, Bizkaiko euskaltzainek «Resurrección María de

---

[1196] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna N. Oleagari, 1954-09-02.

[1197] KMK: I. M. Echaideren gutuna A. Arrueri, 1954-07-24.

[1198] ABA-AIB: A. M. Labayenen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1954-12-13.

[1199] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna J. M. Lojendiori, 1954-10-30.

[1200] «Nik uste Gorostiaga berriz Ameriketara bialtzea gauza ona izan dela. Bere agertzean idazten bezela baldin bada, eztut uste or mesede andirik egingo zuanik. Ezitzaion atsegiñen nik *ex-nihilo*'tik bezela idazten zuela jartzia, baña ala zegokion agian» (Koldo Mitxelena Kulturunea, Koldo Mitxelena funtsa: J. Garateren gutuna L. Michelenari, 1954-10-15; cf. Garate 1952b).

IKER-35.indd 437 2/9/19 10:56

Azcue» [sic] katedra sortzea proposatu zuten, A. Irigoyen eta J. Peña bikoteak eta E. Erquiaga urgazleak urritik maiatzera ematen zituzten eskolak egonkortzeko. Katedraren programak SFVJUren eredua jarraitzen zuen modu askoz apalagoan: literatura ikastaroak, euskara eskolak eta hileroko hitzaldiak. Batzarrak, katedra sortzea onartzeaz gain, esker ona adierazi zien A. Irigoyen eta J. Peñari, Bilboko egoitzan altzariak konpontzeko egindako lanagatik. Urriko batzarrean, A. Irigoyenek, «diruzainorde» gisa, Akademiaren egoera ekonomikoaren, JCVk ordaindutako egoitzaren egokitze lanen eta bibliotekako harpidetzen berri eman zuen. 1955eko urtarrilean A. Irigoyen, politika klandestinotik aldentzen zen aldi berean, Bilboko egoitzaren langile izendatu zuen Euskaltzaindiak, G. Maidagan eta J. Gorostiaga behin-behinean ordezka zitzan, urtean 4.000 pezetako soldatarekin. L. Michelenaren eta Donostiako euskaltzainen onespenarekin, ordea, Bilboko egoitzaren soldatapeko arduradun gisa, lan akademikoan gero eta eragin handiagoa izan zuen, antifrankismoak beti begi onez ikusi ez zuena, bereziki 1963an euskaltzain izendatu zutenean (Euskaltzaindia 1982: 40-43, 47, 63, 158-159; Arana Martija 1992b: 658-659; Urkizu 2004: 39, 46).[1201]

Ikusi dugunez, euskaltzain batzuek (N. Oleagak?) Akademiatik kanporatu egin nahi zituzten batzarretara agertzen ez ziren kideak. I. M. Echaidek ez zuen inor kanporatzea nahi, baina bai A. Arrue eta J. M. Lojendiok bezalako eragin politikoa zuten ordezkoak izendatzea. B. Echegarayk gogorarazi zuenez, Gerra Hotzaren egoera politikoki iraulian, RAEko N. Alcalá Zamora errepublikazalea edota Académie Française-ko Ph. Pétain eta Ch. Maurras kolaborazionistak ordezkatu ez baldin bazituzten, nola kanporatuko zituen Euskaltzaindiak bere kideak batzarretara agertzen ez zirelako?[1202] Auzitegi Goreneko idazkariak honela deskribatu zion bere egoera F. Arocenari: «soy, aunque durmiente, miembro de la Academia de la Lengua Vasca».[1203]

Gainera, A. Irigarayk eskatu bezala, iraganeko baldintza genealogiko zurrunak gainditu eta R. Lafonen gisako euskaltzainen egoera normaldu zen estatutu-erregela berrietan: «Los numerario serán vascos de naturaleza e idioma. No obstante, la Academia podrá dispensar del primero de estos dos requisitos, cuando, a juicio de la misma, concurran en los candidatos méritos especiales» (Euskaltzaindia 1955: 4). Urgazleei dagokienez, ordurako hiruro-

[1201] ABA-EUS: A. Irigoyenen gutuna I. M. Echaideri & «Informe sobre proyectos en la Academia de la Lengua Vasca» dosierra, 1954-09-29.

[1202] ABA-EUS: B. Echegarayren gutuna I. M. Echaideri, 1954-08-23.

[1203] KMK: B. Echegarayren gutuna F. Arocenari, 1954-05-19.

IKER-35.indd 438 2/9/19 10:56

gei inguru ziren, baina ez zieten ekarpen berezirik eskatzen. A. Irigarayk proposatuta, 1954ko abenduan Pragako N. Tauer urgazle izendatu zuten (Euskaltzaindia 1982: 44).

1954ko hogei euskaltzainetatik, seik presentzia nominala besterik ez zuten. Lauk ezin zuten parte hartu bizitza akademikoan, erbesteratuta (S. Altube, D. de Inza, F. Krutwig) edota fisikoki ezinduta (P. Lhande) zeudelako. Eta beste bik ez zuten inoiz batzarretan parte hartzen: J. M. Seminario eta R. Lafonek. Hautatutako bi euskaltzainordeen izaera politiko eskuindarra zalantzagabea zen: A. Arrue eta J. M. Lojendiorena. Dena dela, iraganeko akatsetatik ikasita, zuhurtziaz hautatutako ordezkoak izan ziren. Haien ekarpena, Akademiaren erakundetzeaz den bezainbatean, garrantzitsua izan zen, J. Irigoyen, E. Esparza eta J. M. Seminario hiruko politikoarena ez bezala. I. M. Echaidek Bizkaiko beste bi euskaltzainorde politikoki orbangabe izendatu nahi izan zituen, baina ez zen halakorik gertatu.[1204]

Guztiak ziren gizonezkoak eta batez besteko adina 58,61 urtekoa zen 1954an, hots, aztertu dugun garaian lehen aldiz hirurogei urtez azpikoa. Abertzaleen presentzia hein batean normalizatu egin zen 1954rako, 1936an bezala Akademiaren %25 izatera igaro baitziren: L. Michelena, S. Altube, J. Gorostiaga, M. Lecuona eta A. Irigaray. Hala ere, diktadura frankistan euren ideologia isilpean gordetzera behartuta zeuden. Hogei euskaltzainetatik, elizgizonak %40 ziren, 1936an zuten gehiengoa galduta: L. Villasante, J. Gorostiaga, P. Lafitte, J. Elissalde, M. Lecuona, D. de Inza, P. Lhande eta J. Moulier. Euskal «intelligentsia»ren oinarri klerikala poliki-poliki apaltzen zihoan.

Lurraldetasunari dagokionez, Espainiakoak ziren %70 (hamalau) eta Frantziakoak %30 (P. Lafitte, J. Elissalde, P. Lhande, R. Lafon, J. Moulier eta L. Dassance). F. Krutwigen dosierrak 1949an ezarritako bidetik, Frantziako kideen ordezkaritza hazi egin zen 1936an zuten %25etik. Erbeste abertzalearekin harreman estuagoa zutenez, aztertu dudan garaian Akademian partaidetza ia testimoniala izan arren, hortik aurrera Frantziako euskal tradizio literarioak Akademiak bultzatutako eredu linguistikoan eragin handiagoa izan zuen.

GPDrekin lotura sendotzearen ondorioz, 1936an Bizkai eta Gipuzkoa artean zegoen %25 banako oreka makurtu egin zen. 1954an %35 ziren

[1204] ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna A. Arrueri, 1954-07-20. 1950eko hamarkadan soilik beste bi euskaltzain izendatu zituzten. Alde batetik, erbestetik itzulitako N. Ormaechea, 1956an hildako B. Echegarayren ordez. Bestetik, G. Eppherre elizgizona, 1957an hildako P. Lhanderen ordez. Dena dela, eragin urria izan zuten Akademiaren bizitza akademikoan (Arana Martija 1990: 27).

IKER-35.indd 439 2/9/19 10:56

Gipuzkoakoak (L. Michelena, B. Echegaray, I. M. Echaide, S. Altube, M. Lecuona, A. Arrue, J. M. Lojendio) eta %20 Bizkaikoak (L. Villasante, J. Gorostiaga, N. Oleaga, F. Krutwig). Nafarroakoak bitik hirura igaro ziren (D. de Inza, J. M. Seminario, A. Irigaray), nolabait Arabako ordezkaritza galdua bereganatuz.

1. Luis Michelena
2. Bonifacio Echegaray
3. Luis Villasante (OFM)
4. Ignacio M.ª Echaide
5. Severo Altube
6. Juan Gorostiaga
7. Pierre Lafitte
8. Jean Elissalde
9. Manuel Lecuona
10. Dámaso de Inza (OFMCap)
11. Juan Miguel Seminario
12. Nazario Oleaga
13. Ángel Irigaray
14. Pierre Lhande (SI)
15. Federico Krutwig
16. René Lafon
17. Jules Moulier «Oxobi»
18. Louis Dassance
19. José M.ª Lojendio
20. Antonio Arrue

6.8. **EUSKALTZAINORDE BERRIAK**

Antonio Arrue

Gipuzkoako Asteasun jaiotako Antonio Arrue Zarauz (1903-1976) zuzenbidean lizentziaduna zen. 1930eko hamarkadan Donostiako *La Constancia* egunkari tradizionalistako euskal atalaz arduratu zen. Comunión Tradicionalista alderdiaren Gipuzkoako idazkari nagusi gisa, Errepublikaren eta EAJ-PNVren autonomismoaren aurka nabarmendu zen, hots, J. Urquijo eta N. Oleaga euskaltzain karlistak ez bezala. Gerra zibilean probintziako Junta de Guerra Carlista-ko kide izan zen, baina FET-JONSen bateratze politikoa

IKER-35.indd 440 2/9/19 10:56

ez zuen onartu, eta 1937ko abenduan militar kolpistek Granadan atxilotu egin zuten, Javier Borbón-Parma erregeorde-nahiaren idazkari zela.

Mundu Gerran, karlismo «falcondista»k falangistekin izandako tirabiretan parte hartzeagatik, Gijonera deserritu zuten urtebetez. Euskal Herrira itzulita, abokatu lanetan jarraitu zuen Donostian. 1950eko hamarkadan Gipuzkoako buruzagi karlista nagusia izan zen, baina frankismoarekiko kolaborazionismoa bultzatzen zuen Espainiako tradizionalismo ofizialarekiko oposizio etengabean. Ikuspegi ideologiko doktrinario-alderdikoi batetik, euskal kultura sustatzeko ekintzetan parte hartu zuen, bereziki hizlari gisa. Gipuzkoako agintean zeuden tradizionalistei esker, eragin politikoa kultura mailan hedatzeko plataformak eskuratu zituen 1954an: euskaltzainorde ez ezik, SFVJUren aholku batzordeko kide eta *Egan* aldizkariaren zuzendarikide ere izendatu zuten, A. Irigaray eta L. Michelenarekin batera. Besteak beste, agintari frankisten baimen eta laguntza ofizialak lortzeaz edota bertsolari txapelketak antolatzeaz arduratu zen (Rodríguez Ranz 1994; Vázquez de Prada 2009; Martorell 2010; 2011; Sudupe 2012).

Akademiaren nahiz SFVJUren ekitaldi publikoetan hitzaldiak emateko ohitura zuen. Filologoa ez izan arren, euskal literaturaren historia oso ongi ezagutzen zuen. Euskara estandarrerako eredu gisa, gipuzkera literarioa bultzatu zuen. Horren adibide bat, 1955eko irailaren 9an, «Semana Vasca» delakoan, euskaraz emandako hitzaldia dugu. Donostiako udal liburutegiko mahaiburuan hauekin eseri zen: P. Mourlane idazle falangista, A. Irigaray, J. M. Lojendio eta L. Michelenarekin. Biharamunean egunkariek gaztelaniaz azaldu zutenez, A. Arruek «Euskeraren batasuna»z hitz egin zuen:

> Zeatzago ta dotorexeago esango degu. Gure aburuz, oñarritzat gipuzkera artu bear da, ta giltzarritzat berriz lapurdiera. Ta gero osatu gure itz-etxea beste euskalkiez, batez ere Bizkai-aldekoaren giartasunaz. Gañerakoz, batasun-lan guziak Euskaltzaindiak zuzendu bear lituzkela derizkiogu, ta «Euskera», «Herria», «Gure Herria», «Euzko-Gogoa», «Zeruko Argia», «Egan» eta beste euskal-aldizkarien bidez batez ere, saiatu lan orietan.
>
> Baldin orain arte bezalako arrera ona aurrera ere gure «Egan»-i euskal-irakurleek egiten ba-die, denbora asko baño len zertxobait saiatuko gera, bear-bada, «Egan»-en orrialdeetan lanbide ontan. Ez gaude beintzat asmoa galduta (Arrue 2008: 40).[1205]

[1205] cf. *El Diario Vasco* 1955-09-10; *La Voz de España* 1955-09-10; *Unidad* 1955-09-10; *El Bidasoa* 1955-12-03.

IKER-35.indd 441 2/9/19 10:56

José M.ª Lojendio (eta lojendiotarrak)

Donostian jaiotako José M.ª Lojendio Irure (1910-1979) zuzenbidean doktorea Donostiako adingabeen tutoretzako auzitegiko burua eta propagandista katolikoa zen. Conde de los Acevedos-en alabarekin ezkonduta zegoen (*ABC* 1945-07-13; Lojendio Irure 1958). Tradizionalismoarekin identifikatzen ez zen eskuindar familia ospetsu bateko kide zen. Julián Lojendio Garín (1881-1952) aita, Gipuzkoako mikeleteen buruzagiaren semea zen. Estatuaren abokatua izan zen 1902az geroztik eta, besteak beste, Duque de Mandas plutokratak testamentu betearazle izendatu zuen.[1206] Gerra zibila amaitu bezain laster, Ogasun ministerio frankistak familiaburua «Comisario de Desbloqueo» izendatu zuen, diru errepublikanoaren bikoiztasunak eragindako arazoa konpontzeko. Ondoren ogasun eta nekazaritza arloetako «Consejero permanente de Estado» (1940, 1945) izateaz gain, Estatu abokatuen dekanotza (1945) eta «Gran Cruz de la Orden de Isabel la Católica» (1949) delakoa eskuratu zituen, 1951n erretiroa hartu zuen arte.[1207]

Seme guztiek karguak izan zituzten diktadura frankistan. Ignacio M.ª Lojendio (1914-2002), Euzko Ikasle Batzaren («Federación de Estudiantes Vascos») buru hautatu zuten Errepublikan, baina erakundeak joera abertzalea hartu ahala, utzi egin zuen. 1942tik aurrera Sevillako Unibertsitateko zuzenbide politikoko katedraduna izan zen. Juan Pablo Lojendio (1906-1973) diplomazialaria, Gobernu errepublikanoak kargugabetu ondoren, Gipuzkoako «Derecha Autónoma Vasca»ren burua izan zen.[1208] José M.ª Lojendio euskaltzainordea, halaber, Euzko Nekazari Bazkuna («Federación de Campesinos Vascos») sindikatuaren abokatu izan zen, eta anaiarekin bat egin zuen CEDAren ildoko alderdian. 1936ko hauteskunde orokorretako bigarren itzulian (ezkerraren arrakastari aurre egitearren) EAJ-PNVren aldeko botoa eskatzea leporatu zieten karlistek eta falangistek. José M.ª beste anaia batzuekin Loiolako santutegian atxilotuta egon zen gerra zibilean, jeltzaleek milizianoen mendeku asmoetatik babesten zituztela. Informazio eta Turismoko ministe-

---

[1206] Julián Lojendio izan zen, adibidez, Arantzazuko Ama Birjina Gipuzkoako zaindari izendatu zezatela lehen aldiz proposatu zuena 1912an, eta Arantzazuko basilika berria egiteko batzordean parte hartu zuen 1949an (Intxausti 2001: 63, 233).

[1207] *BOE*, 1939-12-27; 1939-12-28; 1940-11-17; 1940-12-04; 1945-01-06; 1945-12-28; 1949-04-18; 1951-07-02.

[1208] J. P. Lojendioren Errepublikako ikuspegi politikoa, eskuindarra eta espainolista baina euskararen aldekoa, are administrazioko hizkuntza eskakizunetan ere, nabarmen ageri da *El hecho histórico vasco en la unidad imperial de España* (1935) hitzaldian.

IKER-35.indd 442 2/9/19 10:56

rioaren Gipuzkoako ordezkari izateko estraofizialki proposatu zuenean, J. M. Azaolak honela deskribatu zuen:

> José María Lojendio, abogado y hermano de los abundantes Lojendios que pueblan el Ministerio de Asuntos Exteriores, así como de Ignacio, el catedrático de Sevilla. Creo que es el más inteligente de la dinastía, y también el de mayor independencia de criterio. Persona estimadísima en la ciudad, su nombre no se halla ligado a ningún grupo, camarilla ni bandería.[1209]

Gipuzkoako foru zuzenbidea Espainiako kode zibilera egokitzeko prozesuan parte hartu zuen. Besteak beste, A. Elorriaga presidente zuen GPDk 1952ko otsailean beste lau urterako izendatu zuen Gipuzkoako CAPeko batzordekide (GPD 1953: 2, 69). Akademiari diktadura frankistan ematen zion itzalagatik, J. M. Lojendio legegizona euskaltzainburu izendatu zuten, I. M. Echaide 1962an hil ondoren. Donostiako lojendiotarrak eragin politiko handiko familia ziren, beraz. Besteak beste, gerraondoan Donostiako Conversaciones Católicas Internacionales kristau-demokrata joerakoak babestu zituzten.

Esan bezala, diktadura frankistan anaia guztiek ibilbide garrantzitsuak izan zituzten. Luis M.ª Lojendio (1907-1987) Kanpo Arazoetako ministerioaren «Jefe Técnico de la Oficina de Información Diplomática» gisa 1946-1958 artean aritu ondoren, Santa M.ª del Valle de los Caídos-eko abade mitraduna izan zen 1960ko hamarkadan.[1210] Miguel M.ª Lojendio (1908-1977), aldiz, Txileko Falange-ren burua izan zen gerra zibilean, eta Juan Pablok bezala, diplomazialari ibilbide luzea izan zuen. 1952az geroztik Habanan enbaxadore zen J. P. Lojendio oso mediatikoa bilakatu zen 1960ko urtarrilean, Kuba iraultzailearekin gatazka larria sortu zuenean Fidel Castroren konspirazio salaketei aurre egiteagatik telebistaren zuzeneko saio batean (Rodríguez Ranz 1994; Barruso 1999; 2006; Molina Cano 2005; Aizpuru 2012; 2017; Cava Mesa 2013; Urrutia Badiola 2013; López-Chaves 2016).

[1209] Sancho el Sabio Fundazioa, José Miguel Azaola funtsa: J. M. Azaolaren gutuna J. Aparicio-ri, 1952-08-11. Iritzi berbera errepikatu zuen F. Pérez Embidi bidalitako gutunean (1952-12-16).

[1210] *RIEV*en aritutako L. M. Lojendiok gerra zibilean egindako kontrainformazio lanen emaitza da *Operaciones militares de la Guerra de España 1936-1939* (1940) liburua, bestelako historia lanekin batera.

IKER-35.indd 443 2/9/19 10:56

7. **ONDORIOAK**

Ez da azterketa honen helburua Euskaltzaindia ezinbestez frankistaren 1936-1954 arteko hagiografia korporatiboa egitea izan, ezta euskaltzain eskuindarren apologia egitea ere. Erabili dudan dokumentazio aberatsari eta egindako azterketa zorrotzari esker, uste dut frogatu dudala lekuz kanpo daudela iraganaren idealizazioak nahiz sinplifikazioak, azken finean «gure» historiaren ezagutza eskasean oinarritzen direnak.

Ehun urte betetzear dagoen Euskaltzaindiaren historia hiru arotan banatzen duen konbentzioa onartuta ere (1919-1936, 1936-1968, 1968-gaur arte), ikerketa honetan, zalantzarik gabe, garai ezezagunena deskribatu dut orain arte ez bezalako ponderazioarekin. Izan ere, Akademia ezinbestez frankistaren gaia sakon azaltzea tabu moduko bat izan da gaur egungo ikerketa akademikoan.

Hain zuzen, berehala sortzen den galdera da nola lortu zuen bizirik irautea Akademiak diktadura frankistan, esaterako, Eusko Ikaskuntzak (eta honen *RIEV* aldizkariak) linboan jarraitzen zuen bitartean. Propagandarako erakunde kolaborazionista izan al zen? Diktaduraren politika linguistikoa kanpora begira zuritzeko tresna, alegia?

Ala Institut d'Estudis Catalans-en barne erresistentzia toleratuaren moduko kasu bat izan al zen? Izan ere, EI-SEVen pareko Kataluniako erakundea baimen eta laguntza ofizialik gabe aritu zen lanean, Bizkaiko aginte frankistak Akademia ontzat ematen zuen aldi berean.

Nire ustez, Euskaltzaindiak frankismoan iraun ahal izan zuen Euskal Herriko autonomia politikoarekin lotura zuzenik izan ez zuelako, Real Academia Gallega-ren kasura hurbiltzen duena. Gerra zibilean Euskaltzaindia eta

IKER-35.indd 445 2/9/19 10:56

EI-SEV ez ziren Euzkadiko Jaurlaritzaren egituran integratu, baina bigarrena publikoki konprometitu zen Errepublikako Autonomia Estatutuaren proiektuarekin. Horrela, Euzko Irakastola Nagusiaren 1936ko sorrera dekretuan J. M. Leizaola sailburuak EI-SEVi aitortza ofiziala egin zionean, Akademiari ez zion aipamenik egin behar izan.

«Euzkadi'ren Berjabetasun Araudia»k eman zion koofizialtasunari esker, euskarak inoiz ez bezalako garapena izan zuen Bizkaian zortzi hilabetez. Lehen hezkuntzan ez ezik, medikuntza fakultatean, eguneroko prentsan edota aldizkari ofizialen terminologia juridikoan ere izan zuen sarbidea aurreneko aldiz. Baina EAJ-PNVren menpeko organoek erabilitako eredu linguistikoan, Akademian landutako norma eta proposamenek ez zuten pisurik izan.

Euzkadiko Jaurlaritzaren euskarazko hezkuntza eta kultura sailak idazle eta elizgizon jeltzaleek kudeatu zituzten osoki, bestelako alderdi edo ideologien inolako elkarlanik gabe. Errepublika frontepopulistak gerra irabazi izan balu, Euzkadin «euzkera»k garapen sozial handia izango zukeen, baina eten kulturalak gertatuko ziratekeen, Nafarroa eta Frantziaraino hedatzen zen «continuum» etnolinguistikoan.

Bilbo frankistek okupatu baino lehenago, Euzkadiko Jaurlaritzarekiko oposizioa barik, hoztasuna nabarmendu zen R. M. Azkue euskaltzainburu eta elizgizonarengan, eta Fronte Popularrari zion beldurrak hori areagotu besterik ez zuen egiten. Zer esanik ez, E. Molaren tropek 1936ko irailean Donostia okupatu arte gordeta egon zen J. Urquijo euskaltzain karlistarengan. Bata zein bestea, gerra zibileko Instituto de España-ren nahiz RAEren jardunean frankismoari erakutsi zioten leialtasunagatik, politikoki gaituta geratu ziren Akademia berpizten saiatzeko.

Gerra zibilak eten egin zuen Euskaltzaindiaren jarduera, baina diktadurak ez zuen etena betikotu. Horregatik, zauriaren metafora erabiliko nuke, erakundeak bizirik jarraitu ahal izan zuelako frankismo betean. Diktadura frankistaren politika linguistikoa, euskara legez aktiboki zapaltzea baino areago, zentsura mailako debekuekin bizitza pribatura estuki lotzea izan zen, inolako garapen kulturalik gabe. Hezkuntza Nazionaleko ministerioari zegokiokeen herri hizkuntzen eskumenaz den bezainbatean, erakutsitako arduragabekeria, euskararen erabilera publiko eta ofiziala abertzaletasun politikoarekin lotzen zuen neurrian, epe luzera hilgarria gertatu zatekeen; frankismoak, Mundu Gerraren ondorioz, bere irudia nazioartean garbitu behar izan zuen arte.

Horregatik, barnealdeko euskaltzain zaharrek tokiko diputazioetara eta euskal jatorriko aginte politikora (J. M. Areilza Bilboko alkate ohia edota

IKER-35.indd 446 2/9/19 10:56

Esteban Bilbao ministroarengana) jo zuten babes bila, falangismoaren uniformismo erradikalak Euskal Herrian eragin gutxiago izateaz baliatuta. Nolanahi den, Estatu frankistaren egitura hierarkikoan, Akademiari Junta de Cultura de Vizcaya-k emandako bermeak nahitaez zuen eduki politikoa. Jeltzalez depuratutako Akademia beste tresna sinboliko bat izan zitekeen euskararen «bandera» abertzaleei kendu eta Euskal Herrian espainolismoa inposatzeko.

Baina, aldi berean, Bizkaiko egitura frankista berrian agintzen zuen elite monarkikoak nolabaiteko autonomia administratiboa aldarrikatzen zuen Gobernu zentralarekiko, hots, kontzertu ekonomikoaren berrezarpena. Historikoki oso emankorra zen euskararen apologia eta autonomia politikoa uztartzen zituen ideologia foruzalea. Akademia diskurtso horren osagarri ere izan zitekeen, batez ere Bizkaiko eta Gipuzkoako probintzia «euskaldunagoak» Araba-Nafarroekiko irainduak agertzen zirelako, kontzertu ekonomikoaren ezabatzearekin.

Diktadurak, jakina, baldintza politikoak ezarri zituen, R. M. Azkue euskaltzainburuak onartu egin zituenak: alde batetik, erbesteko euskaltzainak kide espainolistekin ordeztea; bestetik, Frantziako hiru euskaltzainak batzarretara ez deitzea. Nafarroak, ordea, bere ordezkaritza gorde zuen, frankismoak probintziaren euskaltasuna artean zalantzan jartzen ez zuelako. Araba «erdaldunena», aldiz, gerra zibil aurretik zegoen Akademiatik aldenduta, diru laguntza ofizialek erakusten dutenez.

1936ko kolapsoaren ondoren, 1941eko apirilean Bilboko egoitzan egin zen batzarra birfundazio bat izan zen, euskaltzain asko ordeztu eta Akademiaren egitura organikoa aldatu zutelako. Hasierako izendapenak politikoki oso markatuak izan ziren, ideologia eskuindarreko kideak nagusitu zirelako. Euskaltzaindia bere kideak gutxieneko normaltasunez hautatzeko aukerarik gabe geratu zen. Euskaltzaleak izanagatik, lehendabizi frankismoaren galbahe geo-ideologikoa igaro behar zuten.

EI-SEVen filial izateak ematen zion legezko izaerarik gabe geratu zen Euskaltzaindia, diktadurak toleratutako instituzio ofizioso gisa. Frankismo beligerantearen erasoen nahiz erbesteko abertzaleen kolaborazionismo salaketen beldurrez, Akademiak jarduera ia sekretua izan zuen 1940ko hamarkadan. Gainera, 1920-1930eko hamarkadetan urtero jasotzen zuen diru laguntza ofiziala %70 murriztu zen. Bilboko egoitza bera egoera negargarrian egon zen hainbat urtez: are R. M. Azkueren pianoa ere saldu egin behar izan zuten. Itolarri ekonomikoaren eta zentsura zorrotzaren eraginez, Euskaltzaindiak lehen frankismoan ez zuen argitalpen propiorik gauzatzeko aukerarik izan.

IKER-35.indd 447 2/9/19 10:56

Euskara estandarra arauturik gabe zegoen neurrian, garrantzi handiko urratsa zitekeen Euskaltzaindiak *Diccionario español-vasco* normatibo bat argitaratzea, artean 1920ko ortografia baitzen Akademiak zehaztutako arau bakarra. Hura izan zen 1940ko hamarkadako proiektu akademiko nagusia, hala denbora nola gastu aldetik, baina euskaltzainburuaren heriotzak ezinezko bilakatu zuen hiztegia amaitzea.

EAJ-PNVri dagokionez, hasieratik izan zuen diktadurapeko Akademiaren berri, baina ez ikusiarena egin zion, erabaki publikoak hartzeko gaitasunik ez zuelako, eta jeltzaleek ezin zutelako zuzenean eragin jarduera akademikoan. Euskararen batasuna arazoa zen jeltzaleentzat, baina ez zuten irizpide ofizialik, batez ere alderdiko kideen artean sortzen zituen eztabaidak ikusita.

Dialektalismo literarioak edota lexikoaren purismoak eztabaida zismatikoak eragiten zituen. EAJ-PNVren lehentasunak nazioartean frankismoa salatzea eta Espainiako demokratekiko elkarlana izan ziren. Are monarkikoekin ere harremanetan zegoen T. Monzon «Euzkadi'ko Gogo-lantze Zaingoa»ren buruak, masa gizartearen ondorioez kezkatuta, folklorearen bidea hartu zuen, kultura jasoa eta maila akademikoko eztabaidak baztertuz: bertsolari txapelketak, «eskualzaleen biltzarra»k edota «euzkeraren eguna»k antolatzera bideratu zituen baliabide ekonomikoak.

J. Urquijo eta R. M. Azkue 1950-1951etan hil zirenean, Euskaltzaindi zaharrarekiko lotura sinbolikoki hautsi egin zen. Betiereko euskaltzainburuak erakundean izandako eragin dominanteagatik eta J. Urquijok diktadura frankistan zuen ospe politikoagatik, Akademia desagertzeko zorian egon zen une horretan.

«Impasse» arriskutsu horren aurrean bi irtenbide proposatu ziren. Lehenengoaren bide erresistentzialista bezain boluntaristak erabateko porrota izan zuen. F. Krutwig autodidaktak bere burua euskaltzainburuaren premu gisa ikusten zuen ordurako. Botere hutsunea baliatu zuen, bere posizioa Akademian indartzen saiatzeko. Barnealdean separatistatzat eta erbestean faxistatzat salatua, euskaltzain gaztea maniobrarako espaziorik gabe geratu zen.

Bilboko ekitaldi publikoan Akademiaren mugak agerian utzi zituen. Aginte politiko frankistari zuzenean eraso ordez, Eliza katolikoaren euskararekiko jarrera salatu egin zuen, are austromarxismoa ere barne hartzen zuen liberalismo klasistatik. Hutsegite handia izan zen hura, euskararen erabilera publikoak garai hartan zuen babes sendoenari (ortodoxia katolikoa) haginka egin baitzion. Atzera-bueltarik gabeko erabakia zenez, erbesterako bide nekeza hartu behar izan zuen. Hamar urte igarota, *Vasconia* (1963) saiakera politiko

mindua idatzi zuen, frankismoaren aurkakoa ez ezik, EAJ-PNVren kontrakoa ere bazena.

Hain zuzen, EAJ-PNVren ildoko bigarren soluzio posibilista L. Michelena «entrista» abertzaleak gorpuztu zuen. R. M. Azkueren ordez izendatutako euskaltzain berriak bere baitan bildu zituen eskarmentu pertsonal eta gaitasun zientifiko ohi ez bezalakoak. F. Krutwigez bestera, gerra egin eta urte luzez preso egondakoa zen. Era berean, filologia ikasketak distiraz burutu zituen Espainiako eskola menendezpidalistaren eskutik.

Batez ere L. Michelenaren bidez, Errepublika iritsi zenerako euskarazko kulturaren motor nagusi bilakatutako abertzaletasuna berriz sartu zen Akademian isilpean, nahiz eta politikoki onargarria zen tradizionalismoak (I. M. Echaide, N. Oleaga) osatu zuen nominalki Akademiaren zuzendaritza 1960ko hamarkadara arte. Dena dela, L. Michelenak oso argi bereizi zituen euskarari nahiz Akademiari zegozkien bi alderdiak: ikerketa linguistikoa eta babes soziala.

Alde batetik, linguistikak, eta bereziki euskararen azterketa umotu gabeak, gorabehera politiko eta ideologikoen gainetik egon behar zuen, erbeste/barnealde eszisio ahulgarria barne. Zenbait abertzalek, adibidez, euskararen ikerketa «arkeologikoa» deitoratzen zuten, euskara hizkuntza hiltzat jotzen zuelakoan. Era berean, Espainia frankistako erakunde zientifikoak (CSIC, «Manuel de Larramendi» katedra, are RSVAP ere maila lokalean) euskararen bakartasun genetikoaren «misterioa» gezurtatzen saiatzen ziren, nazionalismoaz den bezainbatean, horrek zuen korrelatu antiseparatista begien bistakoarekin.

L. Michelenak, Gipuzkoak erositako J. Urquijoren funts bibliografikoei esker, ordura arte ez bezalako ikerketa filologikoa abiatu zuen, euskararen historia linguistikoa (oinarrizko fonetika mailatik hasita) nazioarteko parametro zientifikoetan homologatzeko. Akademiak, SFVJUk edota Salamancako Unibertsitateak eskaintzen zizkioten tresna eta baliabide ekonomikoekin, gaur egungo euskal linguistika eta filologia eskolaren oinarriak ezarri zituen.

Bizkaiko gizarte eskuindar erdaldunetik sortutako F. Krutwigi, euskara bereganatzeko meritua ez ezik, adorea eta jarrera proaktiboa ere aitortu behar zaizkio. Beraren ekimenez, Frantziako euskaltzainak berriro deitu zituzten batzarretara. Baina batez ere, Aro Modernoko lapurteraren eta nazioarteko terminologiaren bidez, euskara literarioaren auzia berriro mahai gainean jarri zuen. Frankismoak beti saihestu nahi izan zuen herri hizkuntzen estandarizazioaren arazo arantzatsua, nazionalismo periferikoak indartzea zelakoan.

IKER-35.indd 449 2/9/19 10:56

L. Michelenak baztertu egin zuen, mementoz, Euskaltzaindiaren eta berorren Gipuzkoako ordezkari ofiziosoa zen SFVJUren zeregin esplizituki normatiboa, F. Krutwigek ez bezala, euskal gizarte zapalduaren semea zenez, garaiko egoera soziopolitikoa errealismoz neurtu zuelako. Lexikografia adibidetzat hartuta, neologismoz edota barbarismoz betetako hiztegi normatiboaren ala hiztegi historiko deskribatzailearen arteko eztabaida berriz piztu zenean, bigarrenaren alde egin zuen. Berak ezarritako lehentasunek hainbeste markatu zuten zeregin akademikoa, non atlas linguistikoa edo hiztegi etimologikoa bigarren planoan geratu baitziren.

Izan ere, Akademiatik euskararen batasuna lortzeko iragartzen ziren neurriak, eredu literarioan, ortografian edota neologismoetan, linguistikoki eztabaidagarriak ez ezik, politikoki ere zeharo bidegabeak ziren erbesteko abertzaleentzat, diktadura frankistak indarrez sortutako eten kultural eta historiko batetik zetozelako. Egoera horretan, Euskal Herriaren kohesio linguistiko eta kulturalaren kalterako izan zitekeen Akademiaren araugintza.

Ikerketa linguistikoak, ordea, ez zuen euskara biziaren zalantzaz beteriko etorkizunean eragin zuzenik. Diktadura frankistak ezartzen zituen mugak onartuta, L. Michelenak (ezin aipatu gabe utzi A. Irigarayk gerra zibil aurretik egin zuen bidegile lana) Donostiako *Egan* aldizkariaren zuzendaritza hartu eta, RSVAPen gehigarri literario xumea zena, kultura aldizkari duina bilakatu zuen. Euskal literatoak dogma linguistiko eta moraletatik (frankismoarenak, baina baita abertzaleenak ere) libreago formatu nahi zituen; eta baserri mundu tradizionaletik harago zihoazen kritika eta berrikuste garaikideen topaleku eroso samarra aurkitu zuten idazle gazte berriek.

Hala ere, estandarizazioaren proposamen zehatzetan sakondu gabe, praktika hutsaren bidez, L. Michelenak euskara formaz eta edukiz altxatu zuen, gizartea gutxienez maila horretaraino noiz helduko zain. Ikerketa zientifikoan ezinbestean gaztelania erabili zuen arren, literaturan nafar kutsuko gipuzkerazko prosa jasoa erabili zuen. Hain zuzen, egokitze formalak gorabehera, etorkizuneko euskara estandarrean nagusituko zen oinarri dialektala. Horrela, eredu etikoa nahiz estetikoa eskaini zizkion euskal kultura gutxituari.

Erresistentzia eta oposizio antifrankista, noski, erbesteko Euzkadiko Jaurlaritzaren eta EAJ-PNVren inguruko instituzio eta argitalpenen esku geratu ziren. Hala ere, Gerra Hotzaren testuinguru antikomunistan, nazioartean onartutako diktadura frankistak luze iraungo zuela argi geratu zenean, barnealdeko proiektu kulturalek pisu erabakigarria hartu zuten, erbestekoak (EIL-SIEB, *Gernika*, *Euzko-Gogoa*, etab.) higatzen ziren neurrian. Euskararen

IKER-35.indd 450 2/9/19 10:56

etorkizunaz den bezainbatean, berebizikoa izan zen jatorrizko lurraldearen eguneroko arazo eta nekeekin lotura zuzena gordetzea, Euzkadiko Jaurlaritzak 1956an Parisen antolatutako mundu biltzar antzuan argi geratu zen bezala.

Akademia garai horretan ez zen izan barne erresistentzian aritu zen elkarte heroikoa, ezta diktaduraren propagandarako tresna otzana ere, baizik eta muga estuen barruan gutxieneko jarduera prekario baina duinari eutsi zion giza instituzio inperfektua. Besteak beste, zentsura aparatuaren kontra, baina euskal frankista erreformisten eta falangismo errebisionistaren laguntzarekin (A. Tovar errektorearen konpromisoa euskararekiko zintzoa izan zen, baldintza ideologikoak gorabehera), *Euskera* agerkari ofiziala berriz argitara eman, estatutuak berritu, lexikografia akademikoaren oinarriak ezarri, ortografia jeltzalea eguneratu, geolekto zentralerako joera indartu edota Aro Modernoko tradizio literarioa berreskuratu zituzten.

Ondorioz, diktadura frankistaren urte beltzetan hipoteka politiko astunaren zama leporatu ordez, Euskaltzaindia autonomia akademikoa eta kapital sinbolikoa metatzen joan zen. Autogobernurik gabeko Euskal Herri osoa besarkatzen zuen erakunde bakar gisa, 1960ko hamarkadan Espainiako baldintza sozioekonomikoak aldatzen hasi zirenean, «statu quo» politikoaren aurka, urrats kultural erabakigarriak egiteko erabili ahal izan zuen kapitala. Frankismoak toleratutako, baina izaera juridikorik gabeko elkartea izan zen, F. Franco estatuburua hil osteko Hezkuntza eta Zientzia ministerioaren 1976ko dekretu batek Errege Akademia ofizial bilakatu zuen arte

Nolanahi den, onartzen joan beharko dugu egungo euskal kulturaren tradizioaren zati garrantzitsu batek, euskarazkoak barne, funtsean ez duela bere gertuko jatorria XX. mendearen lehen hereneko autonomismoan, ez abertzaletasun errepublikanoan, ezta erbesteko nahiz barnealdeko antifrankismoan ere, baizik eta pertsona eta erakunde eskuindar nahiz frankistetan. Diktadurak errepublikanismoa eta abertzaletasun politikoa ez ezik, euskal kultura bera ere (kontzertu ekonomikotik hasi eta herri hizkuntzaraino) suntsitzeko asmoa agertu zuenean, euskal eskuin garailearen eta elizgizonen zati bat, karlismora mugatzen ez zena, desegite hori oztopatzen saiatu zen, bereziki euskararen arloan Gerra Hotzeko abertzaletasun posibilistarekin bat eginda. Beti areagotu beharko litzatekeen euskal kulturaren pluraltasun historiko horri egiten dio erreferentzia behinola L. Michelenak erabili zuen esaldi biblikoak: «Nere Aitaren etxean egoitza asko dira».

IKER-35.indd 451 2/9/19 10:56

8. ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

8.1. ARTXIBOAK ETA BIBLIOTEKAK

Aranzadi Zientzia Elkartea (Donostia)

Baionako Euskal Museoa

Biblioteca Nacional de España (Madril)

Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa

Bizkaiko Foru Liburutegia

Consello da Cultura Gallega (Coruña)

Donostiako Udal Agiritegia

Euskadiko Artxibo Historikoa (Bilbo)

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea

Euskaltzaindia (Bilbo)

Eusko Ikaskuntza (Donostia)

Fundación Universitaria Española (Madril)

Getxoko Udal Erregistro Zibila (Bizkaia)

Josu Lavin (Beranga, Kantabria)[1211]

[1211] Josu Lavinek F. Krutwigen liburutegi pertsonalaren zati handiena gordetzen zuen, nik 2010eko udan aztertu nuenean. Liburuak aipatzean, F. Krutwigen aleen edizio urtea aipatzen dut, ez jatorrizko edizioa.

IKER-35.indd 453 2/9/19 10:56

Koldo Mitxelena Kulturunea (Donostia)

Médiathèque de Bayonne

Olaso Dorrea Sorrerakundea (Bergara, Gipuzkoa)

Portugaleteko Udal Erregistro Zibila (Bizkaia)

Real Academia Española (Madril)

Sabino Arana Fundazioa-Abertzaletasunaren Agiritegia (Bilbo)

San Telmo Museoa (Donostia)

Sancho el Sabio Fundazioa (Gasteiz)

Surbisa-Bilboko Berregokipenerako Hirigintza Elkartea

Universidad de Salamanca

8.2. **HEMEROTEKA**

Egunkariak

ABC (Sevilla, Madril)

La Constancia (Donostia)

El Correo Español-El Pueblo Vasco (Bilbo)

Le Courrier de Bayonne (Baiona)

El Día (Donostia)

Diario de Navarra (Iruñea)

El Diario Vasco (Donostia)

Eguna (Bilbo)

Euzkadi (Bilbo)

Frente Popular (Donostia)

La Gaceta del Norte (Bilbo)

Hierro (Bilbo)

Hoja del Lunes (Bilbo)

IKER-35.indd 454 2/9/19 10:56

Hoja del Lunes (Donostia)

Pensamiento Alavés (Gasteiz)

El Pensamiento Navarro (Iruñea)

El Pueblo Vasco (Bilbo)

El Pueblo Vasco (Donostia)

Sud-Ouest (Bordele)

Unidad (Donostia)

La Vanguardia Española (Bartzelona)

La Voz de España (Donostia)

Aldizkariak

Alderdi (Baiona)

Anaitasuna (Bilbo)

Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» (Donostia)

Aránzazu (Oñati)

Arbor (Madril)

Argia (Donostia)

Ateneo (Madril)

Atlantis = Actas y memorias de la Sociedad Española de Antropología, Etnografía y Prehistoria (Madril)

Azkatasuna (Donibane Lohizune)

El Bidasoa (Irun)

Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos (Buenos Aires)

Boletín de la Real Academia Española (Madril)

Boletín de la Real Academia Gallega (Coruña)

Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País (Donostia)

IKER-35.indd 455 2/9/19 10:56

Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos = Eusko-Ikaskuntza'ren Deia (Donostia)

Bulletin Hispanique (Bordele)

Bulletin de la Société de Linguistique de Paris (Paris)

Bulletin de la Société des Sciences & Arts de Bayonne (Baiona)

Bulletin du Musée Basque (Baiona)

Cantabria Franciscana (Oñati)

Domingo (Donostia)

Egan (Donostia)

Elgar (Paris)

Emerita (Madril)

Escorial (Madril)

Estudis Romànics (Bartzelona)

Euskaltzaleak (Buenos Aires)

Euskera (Bilbo)

Eusko Ikaskuntzen Lagunartea (Biarritz)

Eusko-Jakintza (Baiona)

Euzkerea (Bilbo)

Euzko Deya (Paris)

Euzko-Enda (Baiona)

Euzko-Gogoa (Guatemala, Biarritz)

Gernika (Donibane Lohizune, Buenos Aires)

Gure Herria (Baiona)

Herria (Baiona)

Ikuska (Sara)

Karmen'go Amaren Egutegia (Zornotza)

Luberri (Donostia)

IKER-35.indd 456 2/9/19 10:56

Munibe (Donostia)

Oficina Prensa Euzkadi (Paris)

Oñate (Bilbo)

Pirineos (Zaragoza)

Príncipe de Viana (Iruñea)

Rentería (Errenteria)

Revista Internacional de Estudios Vascos (Paris, Donostia)

Revue des Études Anciennes (Bordele)

San Sebastián (Donostia)

Vida Vasca (Bilbo)

Vizcaya (Bilbo)

Yakintza (Donostia)

Zeruko Argia (Iruñea)

Zumárraga (Bilbo)

Aldizkari Ofizialak

Boletín Oficial del Estado (Burgos, Madril)

Boletín Oficial del Obispado de Bilbao (Bilbo)

Boletín Oficial del Obispado de San Sebastián (Donostia)

Boletín Oficial del Obispado de Vitoria (Gasteiz)

Boletín Oficial de la Provincia de Vizcaya (Bilbo)

Diario Oficial del País Vasco = Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa (Bilbo)

Gaceta de Madrid (Madril)

Gaceta de la República (Valentzia, Bartzelona)

Journal officiel de la République française (Paris)

IKER-35.indd 457 2/9/19 10:56

8.3. **BIBLIOGRAFIA**

Abásolo, R., López de Munain, J. & Urbe, A., 2004, *Elbira Zipitria: ilunetik argira*. Donostia: Xangorin.

Abeberry, J., 1965, «Il était une fois…», *Enbata*, **52**, 14-15.

Agirre, D., 2008, *Gutun bilduma.* Paratzailea, Sebastian Gartzia Trujillo. Bilbao: Euskaltzaindia.

Agirre, T., 1950[1937], *Uztaro: gure erriaren bizierari buruz, edesti jakingarria*. Bilbao: Editorial Vasca-Irakorlan.

Agirreazkuenaga, J. & al., 1998, *Diccionario biográfico de Eusko Ikaskuntza (1918-1998).* Donostia-San Sebastián: Eusko Ikaskuntza.

———, 2007, *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia (1876-1939)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra.

———, 2008, *Bilbao desde sus alcaldes*, v. III. Bilbao: Bilboko Udala.

Agud, M., 1953, «*Apellidos vascos.* Luis Michelena», *BRSVAP,* **IX**, 279-281.

———, 1988, «Luis Michelena y la ciencia del lenguaje», *Oarso,* **23**, 69-71.

Aguirregabiria, M., 1978, «Euskaltzaindiaren lehen urratsak», *Euskera,* **23**, 355-356.

Aitzol, J., 1931, *La muerte del euskera o Los profetas de mal agüero: tríptico euskeralógico*. San Sebastián: Imprenta de R. Leizaola.

Aizpuru Murua, M., 2000, *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa: (1893-1923): orígenes, organización y actuación política.* Bilbao: Universidad del País Vasco, Servicio Editorial = Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua

———, 2012, *Amets baten oinordeko gara, 1936ko Euskal Unibertsitatea = Heredamos un sueño, La Universidad Vasca de 1936*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua.

———, 2017, «Sindicalismo agrarista y nacionalismo vasco (1933-1936)», *Historia y Política,* **38**, 259-287.

——— & al., 2007, *1936ko udazkena Gipuzkoan. Hernaniko fusilatzeak*. Irun: Alberdania.

IKER-35.indd 458 2/9/19 10:56

——— & Zarraga, K., 2011, «Hizkuntzaren eremuak. Bilboko euskaldunak 1920. urtean», *Bidebarrieta,* **22**, 115-133.

[Akesolo, L.] Zubero, A., 1954, «*Euskalherriaren Adiskideak* eta euskal-hiztegia», *Euzko-Gogoa*, **9-10**, 152-153.

———, 1989; 1992, *Idazlan guztiak*, v. I; v. III. Edizioaren prestatzaile, Julen Urkiza. Larrea, Zornotza: Karmel.

———, & al. Aquesolo, L. & al., 1989, *Federico Belaustegigoitia: 1876-1947.* Vitoria: Diputación Foral de Alava = Arabako Foru Aldundia.

Alonso Carballés, J. J., 1998, *1937: los niños vascos evacuados a Francia y Bélgica: historia y memoria de un éxodo infantil, 1936-1940*. [S.l.]: Asociación de Niños Evacuados el 37 = 37an Atzerriraturiko Haurren Elkartea.

Alonso Olea, E. J., 2014, «La Diputación Provincial durante la Dictadura de F. Franco (1937-1979)» in Agirreazkuenaga, J. (dir.), *Historia de la Diputación Foral de Bizkaia*. Bilbao: Bizkaiko Foru Aldundia = Diputación Foral de Bizkaia, 523-550.

Alted Vigil, A., 1984, *Política del nuevo estado sobre el patrimonio cultural y la educación durante la guerra civil española*. Madrid: Ministerio de Cultura, Centro Nacional de Información Artística, Arqueológica y Etnológica.

Altonaga, K., 2006, *Etxepare, Aldudeko medikua*. Bilbo: Euskaltzaindia; Euskal Herriko Unibertsitatea.

Altube, S., 1933, «La vida del euskera: divulgación de los principios de la lingüística general aplicables a su defensa», *Euskera*, **14**, 299-397.

———, 1936, «Más sobre la vida del euskera: barriro euskeraren bizitzari buruz», *Euskera*, **17**, 1-192.

———, 1949, «La unificación del euskera literario», *Eusko-Jakintza*, **III**, 181-204.

——— (Euskaltzaiña), 1950, «Erbestetuek erbestetuei», *Euzko-Gogoa*, **1**, 8.

———, 1951-1953, «Acentuación española y francesa de los apellidos y toponímicos vascos», *Gernika*, **15**, 86-95; **16**, 44-51; **17**, 49-52; **19**, 145-151; **20**, 211-213; **21**, 283-286; **24**, 139-141.

———, 1952, «¡Agur, Azkue jauna, agur!», *Gernika*, **18**, 20-21.

———, 1956, «Literatur-Euskera: (sobre sintaxis vasca)», *Euskera*, **1**, 3-13.

IKER-35.indd 459 2/9/19 10:56

———, 1959, «Euskaltzaindiari», *Euskera*, **4**, 43-56.

Altuna, P., 2001, *Raimundo Olabide.* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Altzibar, X., 2005, «Lauaxeta eta *Euzkadi* egunkariaren euskal atala», *Euskera*, **50**, 559-626.

———, 2015, «*Eguna* egunkariko idazleak (1937)», in Ezeizabarrena, M.-J. & Gómez, R. (ed.), *Eridenen du zerzaz kontenta: sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008).* Bilbo: Universidad del País Vasco, Servicio Editorial = Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, 27-48.

Álvarez, M. & Garay Urresti, M., 2013, *Kirolariak, artistak, idazleak = Deportistas, artistas, escritores.* Bilbao: Euskal Museoa.

Alvarez Enparantza «Txillardegi», J. L., 1994, *Euskal Herria helburu*. Tafalla: Txalaparta.

———, 2011, «Euskaltzaindiaren hiztegi batuaren historiaz eta metodologiaz», *Hizpide*, **77**, 3-50.

Álvarez Gila, O., 1992, «Iglesia vasca y política franquista. Ejemplos en la provincia franciscana de Cantabria» in *Actas del I Encuentro de Investigadores del Franquismo, Barcelona 5, 6 y 7 de Noviembre*. Barcelona: Universitat Autónoma de Barcelona; Societat Catalana d'Estudis Històricos, 155-158.

Álvaro Ocáriz, J. A., 2012, *Antonio Tovar: el filólogo que encontró el idioma de la paz*. Logroño: Siníndice.

Amador Carrandi, F., 1940, *Ensayo bibliográfico de las obras y folletos publicados con motivo del Movimiento Nacional.* Bermeo: Imprenta Librería Gaubeca.

Amézaga, E., 1993, *Esteban Calle Iturrino: centenario de un poeta*. Bilbo: Bilbao Bizkaia Kutxa.

Anaut, D., 2013, *Euskararen kate hautsiak: hizkuntza zapalkuntzaren memoria*. Donostia: Euskal Memoria Fundazioa.

Andiazabal, P. & al. (ed.), 2004; 2005; 2006, «Pierre Lafitten gutundegia», *Euskera*, **49**, 955-983; **50**, 211-274; **51**, 195-239.

Antía Munduate, A., 1999, *El Buen Pastor: de parroquia a catedral: 1897-1997*. Donostia-San Sebastián: Fundación Social y Cultural Kutxa.

IKER-35.indd 460 2/9/19 10:56

Antxustegi, E., 1998, *Luis de Eleizalde: un vasco polifacético*. Bilbao: Fundación Sabino Arana: Instituto Luis Eleizalde = Luis Eleizalde Ikaskundea.

Apraiz Buesa, Á., 1938, «Notas hispánicas sobre la cultura de las peregrinaciones», *Bulletin Hispanique*, **XL**, 241-249.

Arana Martija, J. A., 1982, «José Juan Bautista Merino Urrutia (1886-1982)», *Euskera*, **27**, 721-724.

———, 1983, *Resurrección María de Azkue*. Bilbo: Caja de Ahorros Vizcaína.

———, 1990, «Euskaltzaindiko aulkien historiaz hurbiltze bat: euskaltzain sarrera hitzaldia», *Euskera,* **35**, 15-33.

———, 1992a, «Luis Villasanteren bio-bibliografia» in *Luis Villasanteri omenaldia = Homenaje a Luis Villasante = Hommage à Luis Villasante*. Bilbo: Euskaltzaindia, 11-87.

———, 1992b, «*Azkue Bibliteka*ren historia», *Euskera,* **37**, 657-664.

———, 1993, *Julio Urkixo (1871-1950).* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2004, *Bonifazio Etxegarai (1878-1956).* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

——— & Ugalde, M., 1984, *Euskaltzaindiaren historia laburra = Breve Hª de la Real Academia de la Lengua Vasca = Brève histoire de Euskaltzaindia, Académie de la Langue Basque = A brief history of Euskaltzaindia, Royal Academy of the Basque Language = Zur geschichte des Euskaltzaindia, der Akademie des Baskischen Sprache*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Aranart, Ph. & Lafitte, P. 1941, *Vocabulaire français-basque : les mots basques groupés d'après le sens*. Bayonne: Gure Herria.

Areilza, J. M., 1952, *Discurso de Vergara en el centenario de los ingenieros industriales; Pregón de la Semana Vasca de 1952*. Madrid: [s.n].

———, 1953, «Una minoría indispensable: *Los Amigos del País*», *Zumárraga*, **2**, 71-75.

———, 1974, *Así los he visto*. Barcelona: Planeta.

———, 1992, *A lo largo del siglo, 1909-1991*. Barcelona: Planeta.

Arejita, A., 2012, «Zamarriparen zurkulu ezkutu batzuk», *Idatz eta Mintz*, **53**, 3-14.

IKER-35.indd 461 2/9/19 10:56

Arocena, F., 1950, «Don Julio de Urquijo e Ybarra», *BRSVAP*, **VI**, 375-376.

——, 1951, «Don Resurrección María de Azkue», *Aránzazu*, **s.n.**, 363.

Arotçarena, 1951, *Grammaire basque*: *(dialectes navarro-labourdins)*. Tours: Maison Mame.

Arrieta, L. & Barandiaran, M., 2003, *Diputación y modernización: Gipuzkoa 1940-1975*. Donostia-San Sebastián: Diputación Foral de Gipuzkoa, Gabinete del Diputado General, Dirección General de Cultura.

Arrue, A., 2008, *Idaztiak eta hitzaldiak = Escritos y conferencias*. Aurkezpena eta argitalpenaren paratzailea, Antonio Zavala. Bilbo: Euskaltzaindia.

Artetxe Sánchez, K., 2011, *Euskara unibertsitatera bidean: eragileak eta proiektuak (1939-1990)*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

———, 2013, *Einstein «Euzkadi»n: gerraurreko zientzia eta goi mailako kultura euskaraz*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

Ascunce, J. A., 1999, *San Sebastián, capital cultural (1936-1940)*. Donostia-San Sebastián: Michelena.

Aurrekoetxea, G., 1987, «Euskararen hizkuntz atlasa eta K. Mitxelena», *Egan*, **3-6**, 55-64.

Axular, 1954[1643], *Gero: bi partetan partitua eta berezia*. Euskaltzaindia'ren ardurapean. Zarautz'en: Itxaropena irarkolan.

Aycart Orbegozo, J. M., 2005*, La Sociedad Económica Vascongada de los Amigos del País y su «segunda época»: (San Sebastián 1899-1944).* Donostia-San Sebastián: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.

———, 2006, «El nacimiento de un Boletín *Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País / Euskalerriaren adiskideen elkartea*», *BRSVAP*, **LXII**, 171-192.

Azaola, J. M., 1951, «Carta de las regiones: Vasconia», *Arbor*, **69-70**, 118-130.

———, 1985, «Vizcaya, de la foralidad residual a la Comunidad Autónoma» in *El Correo Español-El Pueblo Vasco: 75 años informando*. Bilbao: El Correo Español-El Pueblo Vasco, 253-276.

Azcona Pastor, J. M. & Gortari Unanua, J., 2001, *Navarra y el nacionalismo vasco: ensayo histórico-político sobre las señas de identidad originaria del viejo Reino*. Madrid: Biblioteca Nueva.

IKER-35.indd 462 2/9/19 10:56

Azkarate, M., 1997, «Hiztegi batua» in *Federiko Krutwig-i omenaldia = Homenaje a Federico Krutwig = Hommage à Federico Krutwig.* Bilbo: Euskaltzaindia, 79-104.

———, 2015, «Euskal lexikografia: kodetzetik garatzera» in Fernández, B. & Salaburu, P. (ed.), *Ibon Sarasola, gorazarre: homenatge, homenaje*. Bilbao: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 119-136.

Azkue, R. M., 1916a, *Diccionario español y vasco.* Bilbao: Garmendia y Viciola.

———, 1916b, *Diccionario español-vasco = Dictionnaire espagnol-basque*. [s.n.]. [s.l.].

———, 1918, *Diccionario de bolsillo.* Bilbao: Imp. del Corazón de Jesús.

———, 1925, «Curiosos documentos copiados en la Biblioteca Imperial de Berlín, de los manuscritos de Guillermo Humboldt, a 5 de agosto de 1922», *Euskera*, **6**, 60-66.

———, 1935a, *Gipuzkera osotua*. Bermeo: Gaubeka.

———, 1935b, «Observaciones acerca de *Euskaltzaindiari* de Altube'tar S.», *Euskera*, **16**, 144-149.

———, 1935-1947, *Euskalerriaren yakintza: (literatura popular del País Vasco)*. Madrid: Espasa Calpe.

———, 1949, *Estudio comparativo entre el vascuence y varias lenguas cultas*. Bilbao: Talleres Gráficos del Noticiero Bilbaíno.

———, 1969[1905-1906], *Diccionario vasco-español-francés*. Prólogo de Juan de Gorostiaga; presentación de Jaime de Querexeta. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca.

Azkue Biblioteka Batzordea, 2006, «Azkue Bibliotekaren *katalogazio erregelak*», *Euskera*, **51**, 1109-1258.

Azurmendi, J., 2007, *Volksgeist = Herri gogoa: ilustraziotik nazismora*. Donostia: Elkarlanean.

Bakker, P., 2008, «C. C. Uhlenbeck's work on the Basque language», *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*, **42**, 237-264.

IKER-35.indd 463 2/9/19 10:56

——— & Hinrichs, J. P., 2008, «An annotated bibliography of C. C. Uhlenbeck's writings on Basque (1888-1981)», *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*, **42**, 265-282.

Balcells, A., Izquierdo, S. & Pujol, E., 2002; 2007, *Història de l'Institut d'Estudis Catalans*, v. I; v. II. Barcelona: Institut d'Estudis Catalans.

[Barandiaran, J. M.] Eusk.-I.-ren Z., 1951, «Azkue jaunaren oroitzan», *Eusko-Jakintza*, **V**, 241.

———, 2005; 2009, *Diario personal,* v. I; v. II. Ataun: Fundación José Miguel de Barandiarán.

Barandiaran Irizar, L., 1995, *Cartas a José Miguel de Barandiarán (segunda etapa, 1952-1991).* Donostia: Kutxa Fundazioa.

Baroja, P., 2006[1953], *El País Vasco*. Tafalla: Txalaparta.

Barreiro Noya, A., 1942, «Al entrar en un nuevo período: resumen de una gestión», *Boletín de la Real Academia Gallega*, **264**, 313-320.

Barruso, P., 1999, «El difícil regreso. La política del Nuevo Estado ante el exilio guipuzcoano en Francia (1936-1939)», *Sancho el Sabio*, **11**, 101-140.

———, 2006[1996], *La Guerra Civil en Guipúzcoa: (julio-septiembre de 1936).* San Sebastián: Hiria Liburuak.

Bausani, A., 1947, «*El Enigma del vascuence ante las lenguas indoeuropeas* (Madrid 1944) de F. Castro Guisasola», *BRSVAP*, **III**, 281-295.

Belauste, P., 1936, *Hacia una lucha verdad pro-euskera: apuntes*. Bilbao: Talleres Gráficos Jesús Alvarez.

Benjamin, W., 2015, *Denbora, historia eta artearen inguruko testuak*. Hitzaurrea, José Luis Delgado Rojo; itzulpena, Amaia Donés Mendia, Danele Sarriugarte Mochales, Teresa Pradera Goikoetxea, Iñaki Segurola eta Mikel Babiano López de Sabando; zuzenketa, Garazi Ugalde Pikabea. Barcelona: Sans Soleil.

Bera, P. & López Mendizábal, 1948[1916], *Diccionario castellano-vasco*. Zarauz: Icharopena.

Beramendi, J. F., 2012, *Instituto Americano de Estudios Vascos*. Buenos Aires: Fundación Vasco Argentina Juan de Garay.

IKER-35.indd 464 2/9/19 10:56

Berriochoa Azcárate, P., 2018, «Franquistas guipuzcoanos tempranos», *Cuadernos de Alzate,* **50-51**, 219-241.

Berruezo Albéniz, R., 1988, «Un nuevo proyecto de Universidad en Pamplona: 1936», *Príncipe de Viana. Anejo*, **10**, 59-66.

Bidador, J. (ed.), 2000, *José Agerre Santesteban: gerra-ondoko olerki-lanak (1949-1962)*. Iruñea: Ayuntamiento de Pamplona = Iruñeko Udala.

———, 2003, «Euskararen memoria Nafarroan 36ko gerran: Larrekoren *Gerla urte gezur urte*», *Hegats*, **34**, 141-159.

Bilbao, J., 1947, «Bibliographie basque de M. Georges Lacombe», *Eusko-Jakintza*, **I**, 495-503.

———, 1949, «Bibliografía de don Julio Urquijo» in *Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra: estudios relativos al País Vasco,* v. I. San Sebastián: Real Sociedad Vascongada de Amigos del País, 67-87.

———, 2004, «Exposición sobre la actual posición de las autoridades españolas respecto de la lengua vasca» in Larronde, J.-C. (ed.), *VIIème Congrès d'Études Basques = Eusko-Ikaskuntzaren VII. Kongresua = VII Congreso de Estudios Vascos: Biarritz, 1948*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 847-852.

Bouda, Ch., 1951, «C.C. Uhlenbeck», *Eusko-Jakintza*, **V**, 237-240.

Boussagol, G., 1960, «Henri Gavel 1880-1960», *Bulletin Hispanique*, **LXII**, 245-246.

[BPD], 1932, *Proyecto de Estatuto del País Vasco-Navarro, aprobado por las Comisiones Gestoras de las Diputaciones de Álava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya = Araba, Gipuzkoa, Naparroa ta Bizkai'ko Aldundien bein-beñeko ordezkariak ontzat arturiko Euskalerriarentzako sortarau-asmoa.* Bilbao = Bilbo: Diputación de Vizcaya = Bizkai'ko Aldundia.

Buces, J. & Querejeta, E., 2016, *Gipuzkoako Aldundiko langileak, 1936 = Personal de la Diputación de Gipuzkoa, 1936*. Donostia-San Sebastián: Gipuzkoako Foru Aldundia = Diputación Foral de Gipuzkoa.

Cal, R., 1999, «Apuntes sobre la actividad de la Dirección General de Propaganda del Franquismo (1945-1951)», *Historia y Comunicación Social*, **4**, 15-33.

Calvo Sotelo, J. & al., 1992, *Las Reales Academias del Instituto de España.* Madrid: Instituto de España.

IKER-35.indd 465 2/9/19 10:56

Campión, A. & Broussain, P., 1920, *Informe de los señores académicos A. Campión y P. Broussain a la Academia de la Lengua Vasca sobre la unificación del euskera*. Bilbao: Imp. del Ave María.

Cantabrana, I., 2009, «Octavistas contra oriolistas: la lucha por el control de las instituciones, 1936-1957» in Rivera, A. (dir.), *Dictadura y desarrollismo: el franquismo en Álava*. Vitoria-Gasteiz: Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, 121-174.

Caro Baroja, J., 1936-1940, «El tocado antiguo de las mujeres vascas: (un problema de etnología)» *Atlantis,* **XV**, 93-71.

———, 1941a, «Retroceso del vascuence», *Atlantis*, **XVI**, 35-62.

———, 1941b, *Algunos mitos españoles: (ensayos de mitología popular)*. Madrid: [s. n.].

———, 1942-1943, «Observaciones sobre la hipótesis del vascoiberismo considerada desde el punto de vista histórico», *Emerita*, **X**, 236-286; **XI**, 1-59.

———, 1943, *Los pueblos del norte de la Península Ibérica: (análisis histórico-cultural)*. Madrid: Editora Nacional.

———, 1946, *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*. Salamanca: Universidad de Salamanca.

———, 1949a, «Cuestiones ibéricas: a propósito de la estela de Sinarcas» in *Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra: estudios relativos al País Vasco,* v. I. San Sebastián: Real Sociedad Vascongada de Amigos del País, 111-118.

———, 1949b, *Los vascos: etnología*. San Sebastián: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País.

———, 1972a, *Semblanzas ideales*. Madrid: Taurus.

———, 1972b, *Los Baroja: memorias familiares*. Madrid: Taurus.

Castro Guisasola, F., 1944, *El enigma del vascuence ante las lenguas indoeuropeas*. Madrid: Instituto «Antonio de Nebrija».

Cava Mesa, M. J., 2013, «Juan Pablo de Lojendio e Irure (1906-1973). El balcón de las apariciencias» in Moreno Cantano, A. C. (coord.), *Cruzados de Franco: propaganda y diplomacia en tiempos de guerra (1936-1945)*. Gijón: Trea, 241-269.

IKER-35.indd 466 2/9/19 10:56

Chacón Delgado, P. J., 2015, *Nobleza con libertad: biografía de la derecha vasca*. Bilbao: Ediciones Atxular Atea.

Charritton, P., 1990, *J. M. Moulier «Oxobi»: (1888-1958)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Publizitate Zerbitzua.

———, 1994, *Xabier Diharce «Iratzeder»*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

———, Xarritton, P. (ed.), 1997a, «P. Broussainen gutunak J. Urkijori; F. Krutwigen gutunak J. Urkijori» in *Federiko Krutwig-i omenaldia = Homenaje a Federico Krutwig = Hommage à Federico Krutwig*. Bilbo: Euskaltzaindia, 383-422.

———, 1997b, «Alemanak eta Baionako Eliza (1940-1944)», *Oihenart*, **14**, 203-215.

———, 2003a, *Jean Saint-Pierre «Anxuberro» (1884-1951)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2003b, «Euskaltzaleen Biltzarra 1919tik, 2001era» in *Euskaltzaleen Biltzarraren mendeurrena*. Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa, 135-144.

———, 2007[1984], *Pierre Broussain: sa contribution aux etudes basques (1895-1920)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

———, 2009, «Euskaltzaindiaren 90. urteburukari», *Euskera*, **54**, 169-174.

———, 2013, *Le fondement moral des droits culturels de l´homme (Kultura eskubideen oinarri etikoak).* Bilbo: Euskaltzaindia.

Chueca, J. P., 1989, «José Aguerre. Euskaltzale eta abertzale baten oroimenez», *Gerónimo de Uztariz*, **3**, 92-96.

———, 1999, *El nacionalismo vasco en Navarra (1931-1936)*. Bilbao: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco = Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

Cid J.A., 1991, «Una encuesta en Gernica (1920-1921). Menéndez Pidal, el romancero y los nacionalismos ibéricos» in Lakarra, J.A. & Ruiz Arzallus, I. (ed), *Memorial L. Mitxelena magistri sacrum.* Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 527-552.

Ciriquiain-Gaiztarro, M., 1949a, «Seminario de Lenguas Prerrománicas», *BRSVAP*, **V**, 269-270, 387.

———, 1949b, «El homenaje de Guipúzcoa a Don Julio de Urquijo», *Escorial,* **59**, 928-940.

IKER-35.indd 467 2/9/19 10:56

Clavero Salvador, B., 2016, «Reconocimiento de nacionalidad vasca interforal en la Constitución española = Euskal naziotasun interforalaren aitorpena Espainiako Konstituzioan» in *la cuestión Foral ayer y hoy = Foraltasuna: iragana eta oraina.* Vitoria-Gasteiz: Eusko Legebiltzarra = Parlamento Vasco, 57-77.

Clero Vasco, 1966, *El clero vasco frente a la cruzada franquista: más documentos.* Toulouse: Egi-indarra.

Cohen, M., 1978, *Matériaux pour une sociologie du langage*, v. I. Paris: François Maspero.

Coromines, J. & al., 1997, *Koldo Mitxelena Elissalt: 1915-1987: erakusketa, 1997ko martxoak 21-maiatzak 10 = exposición, 21 de marzo-10 mayo 1997*. Donostia-San Sebastián: Gipuzkoako Foru Aldundia = Diputación Foral de Gipuzkoa.

Cortés, L., García Blanco, M. & Tovar, A., 1958, *Cinquième Congrès International de Toponymie et d'Anthroponymie: Salamanca, 12-15 avril 1955: actes et memoires = Fifth International Congress of Toponymy and Anthroponymy: Salamanca, 12th-15th April 1955: proceedings and transactions*, v. I. Salamanca: [s.n.].

Daranatz, J.-B., 1937, «M. le Commandant de Hoÿm de Marien», *Bulletin de la Société des Sciences & Arts de Bayonne*, **21**, 5-20.

Dassance, L., 1949, «La Forêt au Pays Basque français», *Eusko-Jakintza*, **III**, 205-216.

———, 1952, «Eskualzaleen Biltzarraren sortze eta hastapenak», *Gure Herria*, **XXIV**, 211-215.

Delgado Cendagortagalarza, A., 2005, *Gernika-Lumo entre dos guerras: de la capital foral al bombardeo (1876-1937)*. San Sebastián: Txertoa.

Diaz Egurbide, J., 2013, *Jokin Zaitegiren ekarpenak euskal curriculumean: eginak eta asmoak*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

Díaz Hernández, O., 2008, *Rafael Calvo Serer y el grupo Arbor*. Valencia: Universitat de València.

Díaz Noci, J., 1995, *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939).* Donostia: Eusko Ikaskuntza.

IKER-35.indd 468 2/9/19 10:56

Diharce «Iratzeder», X., 1997, «Alemana Arranoak inguruka eta aztaparka Beloke-ko gainean», *Oihenart*, **14**, 169-178.

Donézar Díez de Ulzurrun, J. M., 1993, «La presencia de la Historia Contemporánea en la revista *Príncipe de Viana*», *Príncipe de Viana*, **200**, 621-635.

Echaide, I. M., 1925, *Programa integrista explicado*. Burgos: Imp. Rafael Ibáñez de Aldecoa.

———, Etxaide, I., 1929, *Telefonoaren sortze ta aurrerapena: 1927'g. urteko azaroa'ren 27'an irakurritako itzaldia*. Donostia'n: Martin eta Mena'ren Etxean.

———, 1944, *Desarrollo de las conjugaciones euskaras: perifrásticas y sintéticas, respetuosas y familiares*. San Sebastian: Gráfico-Editora.

———, 1952, «A propósito de la *Teoría del lenguaje*, de Karl Bühler», *BRSVAP*, **VIII**, 53-60.

———, 1953, «El Euskera y las lenguas Caucásicas», *BRSVAP*, **IX**, 21-35.

———, 1954, *Los veinte primeros años de la Red Telefónica de Guipúzcoa (1908-1928).* San Sebastián: Imprenta de la Diputación de Guipúzcoa.

Echegaray, B., 1943, «Vascos y Vascongados», *Bulletin Hispanique*, **XLV**, 105-116.

———, 1945, «¿Se establecieron los moriscos en el País Vasco de Francia?», *Bulletin Hispanique*, **XLVII**, 92-102.

Echenique Elizondo, M. T., 2016, «Luis Michelena-Koldo Mitxelena: mirada a su perfil humano y científico tras el centenario de su nacimiento», *Grand Place*, **5**, 205-218.

Echeverría, J. A., 2007, «Los capuchinos de Navarra-Cantabria-Aragón en los años treinta» in Dronda, J. & Majuelo, E. (ed.), *Cuestión religiosa y democracia republicana en España (1931-1939).* Pamplona: Universidad Pública de Navarra, 145-296.

Eguzkitza, J., 1935, *Gizarte-auzia: ugazaba ta langille arteko gora-berak.* Zornotza: Jaungoiko-Zale-Bazkuna.

[EI-SEV], 1935a; 1936a, «Naskaldia», *Eusko-Ikaskuntza'ren Deia = Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos*, **65**, 37-47; **69**, 34-43.

IKER-35.indd 469 2/9/19 10:56

———, 1935b, «Los cursos de verano de 1935: crónica de los actos de San Sebastián», *Eusko-Ikaskuntza'ren Deia = Boletín de la Sociedad de Estudios Vascos*, **67**, 8-17.

———, 1936b, *Cursos de verano (Año X) y VII Congreso de Estudios Vascos sobre Estudios Históricos: 1936 (de 15 de julio en San Sebastián a 13 de septiembre en Estella)*. [S.l.]: [s.n.]

——— & Euskaltzaindia, 1935, *Informes sobre el poema «Euskaldunak» de Nikolás de Ormaechea «Orixe»*. San Sebastián: Tip. Arrieta.

Elósegui Irazusta, J., 1970, «Índices de autores, de materias, de recensiones de los 25 primeros años (1945-1969)», *BRSVAP*, **XXVI**, 1-160.

———, 1978, «Revista *Eusko-Jakintza*: índice de autores y de materias», *BRSVAP*, **XXXIV**, 129-167.

Entwistle, W. J., 1936, *The Spanish language : together with Portuguese, Catalan and Basque*. Londres: Faber and Faber Limited.

Equipo de Hordago (ed.), 1979, *Documentos Y*, v. I. Donostia: Lur.

Erize Etxegarai, X., 1997, *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936): soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*. Iruña: Nafarroako Gobernua, Hezkuntza eta Kultura Departamentua.

Erkiaga, E., 2001; 2002, *Berbalauaren kulunkan: (prosa lanak)*, v. I; v. II. Sarrera eta edizioa, Andrés Urrutia. Bilbao: Labayru Ikastegia: Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.

Errazkin Agirrezabala, M., 2013, *Los nombres de la memoria, Tolosa 1936-1945*, v. II. Donostia-San Sebastián: Aranzadi Zientzia Elkartea = Sociedad de Ciencias Aranzadi.

Escribano Hernández, J., 1998, *Pedro Sáinz Rodríguez, de la monarquía a la República*. Madrid: Fundación Universitaria Española.

———, (ed.), 2011, *Historia viva en las cartas de Pedro Sainz Rodríguez, 1897-1986: el ministro de Franco que quiso restaurar a Don Juan*. Madrid: La Esfera de los Libros.

Esparza, E., 1943, «Nuevas investigaciones sobre lengua vasca», *Príncipe de Viana*, **11**, 234.

———, 1945, «Sobre la representación, en Lesaca, en 1566, de la *Pasión trovada* de Diego de San Pedro», *Príncipe de Viana*, **20**, 487-491.

IKER-35.indd 470 2/9/19 10:56

Esparza Leibar, A., 2005, «La heráldica del *movimiento renacentista* vasco», *Emblemata*, **11**, 307-348.

Estornés Lasa, B. (dir.), 1965-1982, *Diccionario Auñamendi español-vasco = Auñamendi erdal-euskal iztegia.* San Sebastián: Auñamendi.

———, 1996, *Memorias: recuerdos y andanzas de casi un siglo*. Donostia: Auñamendi.

Estornés Zubizarreta, I., 1983, *La Sociedad de Estudios Vascos: aportación de Eusko Ikaskuntza a la Cultura Vasca (1918-1936)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

———, 1990, *La construcción de una nacionalidad vasca: el autonomismo de Eusko Ikaskuntza (1918-1931)*. San Sebastián: Eusko Ikaskuntza.

Etxaide, Y., 1950, *Alos-torrea: elezar berritua*. Zarautz: Itxaropena.

———, 1985, «Inazio Maria Etxaide Lizasoainen bizitza eta lanak», *Euskera*, **30**, 345-371.

———, 1986, *Etxaide Jauna: (Inazio Maria Etxaide Lizasoain injinadorearen bizitza, inguru-giroa eta lanak)*. Donostia: Erein.

Etxaniz, N., 1952a, «Euskal-idazleak Arantzazura», *Aránzazu*, **327**, 112.

———, 1952b, *Izeko aberatsa: iru eginzadun eres-antzerkia irritsua; Irulearen negarra: iru egintza ta antzezburua dituan zorigaitz-antzerkia*. Gasteiz: Montepio Diocesano-ren Irarkolan.

Etxebarria, J. M., 1986a, «Euskal Herriko atlas linguistikoaren historiarako», *Euskera*, **31**, 375-412.

———, 1986b, «Euskal hiztegietarako ondakin batzuk (II)», *Karmel*, **176**, 30-36.

[Euskaltzaindia], 1920a, *Euskaltzaindiaren sońtarauak = Estatutos de la Academia de la Lengua Vasc*a. Bilbao: Eusko Argitaldaria = Editorial Vasca.

———, 1920b, *Euskaltzaindiaren barneko araudia = Reglamento interior de la Academia de la Lengua Vasca*. Bilbao: Eusko Argitaldaria = Editorial Vasca.

———, 1920c; 1930b; 1931; 1958; 1961b; 1962; 1963-1964; 1968, «Euskaltzain kideak = Miembros de la Academia de la Lengua Vasca = Mem-

IKER-35.indd 471 2/9/19 10:56

bres de l'Académie de la Langue Basque», *Euskera*, **1**, 13-18; **11**, 319-320; **12**, 84-86; **3**, 168-170; **6**, 357; **7**, 357-358; **8-9**, 503-507; **13**, 273-279.

———, 1925; 1926; 1930a; 1933; 1956; 1982; 2014, «Euskaltzaindiaren batzar-agiriak», *Euskera*, **5**, 115-135; **7**, 60-78; **11**, 44-61; **14**, 12-25, 276-287; **1**, 317-329; **17**, 1-34; **59**, 223-232.

———, 1953, *Euskera: Euskaltzaindia'ren lan eta agiriak = trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca: cuaderno 1 (octubre = urrilla 1953).* Bilbao, San Sebastián: Editorial de la Academia Vasca.

———, 1954, «Concours littéraire 1954», *Gure Herria*, **XXVI**, 91-94.

———, 1955, *Estatutos y reglamento de la Academia de la Lengua Vasca: aprobada en reunión de 24* [sic] *de agosto de 1954*. [S.l.]: [s.n.].

———, 1961a, «Gregorio Maidagan (1891-1961)», *Euskera*, **6**, 350-351.

———, 1972, «Arautegia», *Euskera*, **17**, 178-214.

———, 1974, «Euskaltzaindiaren barne-erregelak = Reglamento interior de la Academia de la Lengua Vasca = Reglement interieur Academie de la Lengue [sic] Basque», *Euskera*, **19**, 363-387.

———, 1976, «Real Decreto de Reconocimiento de la Real Academia de la Lengua Vasca, *Euskaltzaindia*: Decreto 573/1976, de 26 de febrero, por el que se reconoce a la Academia de la Lengua Vasca bajo la denominación de Real Academia de la Lengua Vasca = Euskaltzaindiaren Onartze Dekretoa : 573/1976 otsailaren 25ko [sic] Dekretoa, zeinetan onartzea ematen zaion Euskeraren Akademiari, Euskeraren Erret Akademiaren izena ipintzen zaiolarik», *Euskera*, **21**, 5-23.

Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordea, 1998, *Nomenclátor de apellidos vascos = Euskal deituren izendegia*. Madril: Ministerio de Justicia = Justizia Ministerioa; Gasteiz: Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social = Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila; Bilbo: Euskaltzaindia = Real Academia de la Lengua Vasca.

[Eusko-Jakintza], 1950, «Congreso Internacional de Toponimia y de Antroponimia», *Eusko-Jakintza*, **IV**, 84.

Euzko Apaiz Talde, 1981, *Historia general de la guerra civil en Euskadi*, v. V. San Sebastián: Luis Haranburu; Bilbao: Naroki.

[Euzko-Gogoa], 1950, «Opariz», *Euzko-Gogoa*, **1**, 3.

IKER-35.indd 472 2/9/19 10:56

———, 1951, «Euskalzaindia», *Euzko-Gogoa*, **1-2**, 13.

———, 1952a, «1953'gko Euzko-Gogoa'ren sariketa», *Euzko-Gogoa*, **11-12**, 6.

———, 1952b; 1954d, «Irakurlearen txokoa», *Euzko-Gogoa*, **11-12**, 31-32; **11-12**, 205-207.

———, 1954a, «Euzko-Gogoa'ren bigarren elerti-norlenka 1954 Urtea», *Euzko-Gogoa*, **1-2**, 35.

———, 1954b, «Euskaltzaindia: 1954'gko elerti-norlenka», *Euzko-Gogoa*, **1-2**, 35.

———, 1954c, «Idazleei oharra», *Euzko-Gogoa*, **1-2**, 41.

———, 1954e, «Idazle, arpidedun eta irakurleei», *Euzko-Gogoa*, **11-12**, s.p.

Fabra, P., 1983[1932], *Diccionari general de la llengua catalana*. Revisat i ampliat per Josep Miracle. Barcelona: Edhasa.

Fernández Fernández-Cuesta, J. M., 2016, «Luis María de Lojendio, portavoz de la política exterior española en la guerra fría», *Hispania Nova*, **14**, 213-228.

Ferreiro Currás, A., 2013, *Consejos de guerra contra el clero vasco (1936-1944): la Iglesia Vasca vencida: asesinada, encarcelada, desterrada y exiliada*. Oñati: Intxorta 1937 Kultur Elkartea.

Fouché, P., 1943, *A propos de l'origine du basque*. [S.l.]: [s.n.].

Fuster, F., 2017, «República, guerra civil y exilio: una lectura contextualizada de *El último Baroja*» in Granjel, L. S., *El último Baroja*. Pamplona: Urgoiti Editores, XXXV-LXIV.

Gallastegi, C., 2005, «Mikel Arruza (1890-1966) Bizkaiko Aldundiko euskarazko itzultzaile», *Boletín de la Academia Vasca de Derecho*, **6**, 61-72.

Gamboa, J. M. & Larronde, J.-C. (ed.), 2005, *La guerra civil en Euzkadi: 136 testimonios inéditos recogidos por Jose Miguel Barandiaran*. Milafranga: Bidasoa.

Garate, J., 1951, «Bi lerro», *Gure Herria*, **XXIII**, 190.

———, 1952a, «Berbizkunde Azkue zana», *Gernika*, **18**, 4-6.

———, 1952b, «Euskal abizenak», *Euzko-Goga*, **11-12**, 10-12.

IKER-35.indd 473 2/9/19 10:56

García de Diego, V., 1950, «Don Julio Urquijo», *Boletín de la Real Academia Española*, **XXX**, 353-362.

———, 1951, «D. Resurrección María de Azkue», *Boletín de la Real Academia Española*, **XXXI**, 361-368.

García de Juan, M. A., 2001, «Prólogo» in Baroja, P., *Libertad frente a sumisión: (las colaboraciones periodísticas publicadas en España durante 1938)*. Madrid: Caro Raggio, 7-128.

———, 2016, «*Comunistas, judios y demás ralea,* de Pío Baroja. Nuevas aportaciones y precisiones a su génesis, edición y recepción por los medios», *Dicenda*, **34**, 137-150.

García de la Concha, V., 2014, *La Real Academia Española: vida e historia*. Barcelona: Espasa Libros.

García Isasti, P., 2004, *La España metafísica: lectura crítica del pensamiento de Ramón Menéndez Pidal (1891-1936).* Bilbo: Euskaltzaindia.

García-Sanz Marcotegui, A. & al., 1998, *Diccionario biográfico de los diputados forales de Navarra (1931-1984) y de los secretarios de la Diputación (1834-1984).* Pamplona: Gobierno de Navarra, Departamento de Presidencia e Interior.

———, Iriarte, I. & Mikelarena, F., 2002, *Historia del navarrismo (1841-1936): sus relaciones con el vasquismo*. Pamplona: Universidad Pública de Navarra.

Garmendia, E., 2008, *Xabier Peña Albizu (1914-1980)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Garmendia, P., 1945, «Don Telesforo de Aranzadi y Unamuno», *BRSAVP*, **I**, 206-207.

Gassol i Bellet, O., 2017-2018, «El franquismo a Catalunya: intelectuals, cultures, llengües. Balanc, perspectivas (2000-2015)» *Journal of Catalan Studies*, **20**, 34-63.

[Gasteizko elizbarrutia], 1940, *Vitoriaco Eliz-barrutiraco Cristau dotriña: Guipuzcoaco eusqueraz: lenengo malla osoa*. Vitoria: Montepio Diocesano.

Gavel, H., 1929-1937, *Grammaire basque*, Bayonne: Cournier.

———, 1947, «Georges Lacombe (1879-1947)», *Eusko-Jakintza*, **I**, 491-494.

IKER-35.indd 474 2/9/19 10:56

———, 1950, «En mémoire de Don Julio de Urquijo», *Gure Herria*, **XXII**, 257-260.

[Gernika], 1950; 1951a; 1951b; 1951c, 1952a; 1952b; «Notas-comentarios-correspondencia», *Gernika*, **13**, 51-56; **14**, 54-60; **15**, 159-164; **17**, 57-68; **20**, 223-232; **21**, 288-296.

Goenaga, P., 2000, «Euskaltzaindia eta euskararen arautzea», *RIEV*, **45**, 11-41.

Goicoetxea Marcaida, A., 1997, *La Sociedad de Ciencias Aranzadi: medio siglo de trabajos, 1947-1997*. Donostia-San Sebastián: Sociedad de Ciencias Aranzadi.

Goiogana Mendiguren, I., 2007, «Denbora aurrera eta harria geldirik. La oposición antifranquista vasca entre 1947 y 1960» in Agirreazkuenaga, J. & Sobrequés, J. (ed.), *Eusko Jaurlaritza eta Catalunyako Generalitatea, erbestetik Parlamentuen eraketara arte = El Govern Basc i la Generalitat de Catalunya, de l'exili a la formació dels Parlaments = El Gobierno Vasco y la Generalitat de Catalunya, del exilio a la formacion de los Parlamentos: (1939-1980)*. Oñati: HAEE-IVAP, 93-121.

Gómez Asencio, J. J., 2011, «El último epítome académico (1938)» in Bustos Tovar, J. J. & al. (ed.), *Sintaxis y análisis del discurso hablado en español: homenaje a Antonio Narbona*. Sevilla: Universidad de Sevilla, Secretariado de Publicaciones, 1097-1114.

González González, M. J., 2010, *Periplo histórico del Instituto de España; sesión conmemorativa de la fundación del Instituto de España, celebrado el 4 de febrero de 2009*. Madrid: Instituto de España.

Goñi Galarraga, J. M., 1989, *La guerra civil en el País Vasco: una guerra entre católicos*. Vitoria: Eset-Seminario de Vitoria.

Gorostiaga, J., 1934, «*Urtzi*, Dios», *RIEV*, **25**, 672-673.

———, 1951a, «Antigüedades vascas», *Gernika*, **14**, 16-17; **15**, 98-99.

———, 1951b, «Examen de etimologías vasco-caucásicas», *Gernika*, **16**, 8-9.

———, 1951c, «¿Bilbado? (La etimología de Bilbao)», *Gernika*, **17**, 42.

———, 1952a, «Bizkai zaharreko izenak», *Euzko-Gogoa*, **5-6**, 22-25.

———, 1952b, *Épica y lírica vizcaína antigua*, v. I. Bilbao: Centro de Estudios Vascos de F.E.T y de las J.O.N.S.

IKER-35.indd 475 2/9/19 10:56

———, 1952c, «Literatura ibérica pre-clásica», *Helmántica*, **12**, 421-426.

———, 1953, *Vocabulario del refranero vizcaino de 1596*. Salamanca: Universidad de Salamanca.

———, 1954, «Toponimia de Vizcaya», *Zumárraga*, **3**, 55-76

Goyhenetche Etxamendi, J., 1997, «Memoire et histoire immédiate : quelques remarques d´ordre epistemologique», *Oihenart*, **14**, 133-145.

[GPD],1932, *Proyecto de Estatuto del País Vasco-Navarro, aprobado por las Comisiones Gestoras de las Diputaciones de Álava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya = Araba, Gipuzkoa, Naparroa ta Bizkai'ko Aldundien bein-beñeko ordezkariak ontzat artutako Euskalerriarentzako sortarau-asmoa*. San Sebastián = Donosti: Imprenta de la Diputación de Guipúzcoa = Gipuzkoa Aldundiaren Irarkola.

———, 1937a; 1937b; 1939; *Actas de las sesiones celebradas por la Comisión Gestora de la Excma. Diputación de Guipúzcoa durante el segundo período semestral del año 1936; el segundo período semestral del año 1937; el primer semestre del año 1938*. San Sebastián: Imprenta de la Diputación de Guipúzcoa.

———, 1940; 1942; 1943; 1946; 1947; 1949, *Actas de las sesiones celebradas por la Comisión Gestora de la Excma. Diputación de Guipúzcoa durante el año 1939; 1941; 1942; 1945; 1947; 1948*. San Sebastián: Imprenta de la Diputación de Guipúzcoa.

———, 1950; 1951; 1953; 1954; 1955; 1956, *Actas de las sesiones celebradas por la Excma. Diputación de Guipúzcoa durante el año 1949; 1950; 1952; 1953; 1954*; *1955.* San Sebastián: Imprenta de la Diputación de Guipúzcoa.

Granja Pascual, J. J., 1988, «Arturo Campión y la historia», *Príncipe de Viana*, **10**, 169-182.

———, 1991, «Algunas aportaciones de Ramón Menéndez Pidal al progreso de la lingüística vasca» in Lakarra, J.A. & Ruiz Arzalluz, I. (ed.) *Memorial L. Mitxelena magistri sacrum.* Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 571-579.

Griera, A., 1963, *Memòries*. San Cugat del Vallés: Instituto Internacional de Cultura Románica.

Guaza, M. L., 1952, *La toponimia romana en Vizcaya*. Bilbao: Ayuntamiento de Bilbao.

IKER-35.indd 476 2/9/19 10:56

[Gure Herria], 1936a; 1937b; 1950a; 1950b; 1950c, «Nos echos», *Gure Herria*, **XVI**, 380-384; **XVII**, 380-382; **XXII**, 62-64; 127-128; 252.

———, 1936b; 1939, «A nos lecteurs», *Gure Herria*, **XVI**, 385-386; **XIX**, 1-3.

———, 1937a; 1938, «Assemblé générale de l'Association *Gure Herria*», *Gure Herria*, **XVII**, 31-47; **XVIII**, 48-60.

Gurrutxaga Uranga, A., 2017, *Zarauzko gutunak: 36ko gerra*. Zarautz: Amaia Gurrutxaga Uranga.

[HAEE-IVAP], 1987, *Azkue hiztegiaren aurkibidea*. Oñati: HAEE-IVAP.

———, 1997, *Hiztegia: Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa: (1936ko urritik 1937ko ekainera) = Diario Oficial del País Vasco: (octubre 1936-junio 1937)*. Vitoria-Gasteiz: HAEE-IVAP.

Haritschelhar, J., 1975, «Le Professeur René Lafon», *Bulletin du Musée Basque*, **70**, 171-180.

———, 1997, «Aitzin-solasa» in *Federiko Krutwig-i omenaldia = Homenaje a Federico Krutwig = Hommage à Federico Krutwig*. Bilbo: Euskaltzaindia, 9-13.

———, 2009, «Gerla Zibila: Iparraldeko ikuspegia», *Euskera*, **54**, 991-1026.

Hernández Mata, A., 2007, *Piarres Lafitteren ekintzabideak (1920-1944): kultura jasoko euskaltzaleen sarearen baitan*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Hurch, B. & Kerejeta, M. J. (ed.), 1997, *Hugo Schuchardt, Julio de Urquijo: correspondencia (1906-1927)*. Bilbo-Bilbao: Universidad del País Vasco = Euskal Herriko Unibertsitatea; Donostia-San Sebastián: Diputación Foral de Gipuzkoa = Gipuzkoako Foru Aldundia.

[IAEV], 1950a; 1950b; 1951a; 1951b; 1952a; 1952b; 1952c; 1952d; 1954, «Informaciones», *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, **I**, 56-57; 184; **II**, 44-45; 238-240; **III**, 55-56; 114-115; 178-179; 241-244; **V**, 53-55.

Ibáñez Arana, A., 2005, *Historia del Seminario Diocesano de Vitoria*, v. I. Vitoria-Gasteiz: Eset.

Ibarzabal, E., 1979, «Ayer y hoy de Federico Krutwig», *Muga*, **2**, 50-68.

———, 2001[1977], *Koldo Mitxelena*. Donostia: Erein.

IKER-35.indd 477 2/9/19 10:56

Ibinagabeitia, A., 1951, «PEN euskal bilkura», *Euzko-Gogoa*, **7-8**, 28.

———, 1952a, «Idazti berriak», *Euzko-Gogoa*, **1-2**, 28-30.

——— Idazkariak, 1952b, «Pen Euskal Bilkuraren urteko batzarra», *Euzko-Gogoa*, **3-4**, 36.

———, 1952c, «Kultur bidean», *Gernika*, **21**, 237-239.

———, 1954a, «Gero», *Euzko-Gogoa*, **9-10**, 161-162.

———, 1954b, «Euskera urkatzen», *Euzko-Gogoa*, **11-12**, 191-193.

———, 1999, *Andimaren idazlan hautatuak*. Pako Sudupek prestatua. Donostia: Elkarlanean.

———, 2000, *Erbestetik barne-minez: gutunak 1935-1967*. Patri Urkizuren edizioa. Zarautz: Susa.

Ibisate Elícegui, M. L., 1998, *La telefonía en Gipuzkoa: un modelo original*. Donostia-San Sebastián: Kutxa Fundazioa = Fundación Kutxa.

Inchaurrondo Arriarán, M., 1927*, La Iglesia y el euskera: obligacion de hablar al pueblo en su lengua nativa y cultivarla: discurso leído en la solemne apertura del curso académico 1926-1927 en el Seminario Conciliar de Pamplona*. Pamplona: Imp. Federación C.S.M.

[Institución Príncipe de Viana], 1940, «Capítulos de la Institución *Príncipe de Viana*», *Príncipe de Viana*, **1**, 176-178.

Intxausti, J. (zuz.), 2001, *Arantzazu: euskal santutegi bat XX. mendean = un santuario vasco en el siglo XX.* Oñati: Arantzazu.

———, 2007, «Joanes Etxeberri egitasmoa (2007-2008): Euskararen historia sozialerako proiektua, EHS», *Euskera*, **52**, 239-267.

———, 2011; *Euskararen historia soziala (EHS): argibide bibliografikoak: (lehen emanaldia),* Euskaltzaindiko teknikari lankideak, Izaskun Etxebeste, Koro Segurola. Bilbo: Euskaltzaindia.

———, 2014a; 2014b, *Euskara eta hizkuntzak, gizartean,* v. I; v. III. Bilbo: Euskaltzaindia.

Inzagaray, R., 1951, *Historia eclesiástica de San Sebastián*. Introducción e índices por Fausto Arocena. San Sebastián: Diputación de Guipúzcoa.

IKER-35.indd 478 2/9/19 10:56

Iranzo, J. E., 1952, «Unamuno y el vascuence», *Gernika*, **18**, 29-31; **20**, 177-180.

Irigaray «Larreko», F., 1993, *Gerla urte, gezur urte: Iruñea 1936-40, isiltasunean mintzo*. J. A. Irigaray-ren edizioa. Iruña: Pamiela.

Irigaray, J. A., 1985, «Aingeru Irigaray-ren biografia», *Cuadernos de sección. Hizkuntza eta literatura*, **4**, 17-28.

Irigoyen, A. (ed.), 1956, «Aportaciones al diccionario vasco», *Euskera*, **1**, 47-48.

——— (ed.), 1957, «Del epistolario de Azkue», *Euskera*, **2**, 261-393.

———, 1987; 1990, *De re philologica linguae uasconicae,* v. II; v. III. Acedo: Wilsen.

Irujo Ametzaga, X., 2007, «Erbesteko Eusko Jaurlaritzak Parisko Marceau kaleko egoitzan finkatutako politika kulturaleko ildo nagusiak (1938-1940)» in Muñoz, E. (koord.), *José Antonio Agirre: proiektu kultural bat = José Antonio Agirre: un proyecto cultural*. Donostia: Saturrarán, 77-90.

——— (ed.), 2009a, *Bingen Ametzaga Aristi gutunak I (1941-1968)*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

———, (ed.), 2009b, *Bingen Ametzaga Aristiri egindako gutunak II: (1939-1969)*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

——— & Urrutia, I., 2009, *A Legal History of the Basque Language (1789-2009)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

———, 2014, «El estatus jurídico del euskera en las transiciones políticas a lo largo de los siglos XIX y XX» in Madariaga Orbea, J. & Adot, A. (coord.), *Jornadas Internacionales: el euskera en las altas instituciones de gobierno a través de la historia = Nazioarteko Jardunaldiak: euskera gobernuko goi erakundetan historian zehar*. Arre: Pamiela, 203-256.

Itçaina X., 2007, *Les virtuoses de l'identité: religion et politique en Pays Basque.* Rennes: Presses Universitaires de Rennes.

Itzaina, M., 2008, *Louis Dassance: (1888-1976).* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Iztueta, P., 1991, *Orixe eta bere garaia*. Donostia: Etor.

IKER-35.indd 479 2/9/19 10:56

———, 2003, «Sabino Arana eta bere eragina euskal pizkundean», *Euskera*, **48**, 849-930.

——— & Iztueta, I. (ed.), 2006, *Orixe: gutunak (1917-1961)*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

——— & Diaz, J. (ed.), 2007a, *Jokin Zaitegi: gutunak (1923-1973)*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

———, 2007b, *Jokin Zaitegiri egindako gutunak*, v. I. Donostia: Utriusque Vasconiae.

Jauregi, O. (ed.), 2005, *Correspondencia de Gerhard Bähr con R. M. Azkue, H. Schuchardt y J. Urquijo (1920-1944)*. Donostia: «Julio de Urquijo» Euskal Filologia Mintegia: Gipuzkoako Foru Aldundia.

[JCV], 1952, *La obra de D. Resurrección María de Azcue: edición-recuerdo de la velada necrológica celebrada en Bilbao el día 4 de enero de 1952 para honrar la memoria del virtuoso sacerdote e ilustre vascófilo*. Bilbao: Junta de Cultura de Vizcaya.

Jiménez de Aberásturi Corta, J. C., 1999, *De la derrota a la esperanza: políticas vascas durante la segunda guerra mundial (1937-1947)*. Oñati: HAEE-IVAP.

Jimeno Jurío, J. M., 1996, «La Diputación de Navarra, el euskera y Euskaltzaindia (1949-1952)», *Fontes Linguae Vasconum*, **73**, 509-515.

Johnston, W. M., 2009[1972], *El genio austrohúngaro: historia social e intelectual (1848-1938).* Oviedo: KRK Ediciones.

Juretschke, H., 1940[1937], *España ante Francia*. Madrid: Editora Nacional.

Kalzakorta, J., 2012, «Jean Elissalderen *Alemanak* testua», *Idatz eta Mintz*, **53**, 20-26.

Kamusella, T., 2012, *The Politics of Language and Nationalism in Modern Central Europe*. Basingstoke: Palgrave.

Kanpion, A., 1954, «Itzaltzuko koblaria» Sorrarainek euskaratua, *Euzko-Gogoa,* **5-8**, 81-85.

Kelso de Montigny, A. H., 1949, *How did language originate?* Habana, Cuba: [s.n.].

IKER-35.indd 480 2/9/19 10:56

Kempis, 1953 [XV. mendea], *Kristo'ren antz-bidea*. Apaiz batek euskeratua. Donosti'n: M.B. «Anai-etxe».

Kintana Goiriena, J., 2008, *Intelektuala nazioa eraikitzen: R.M. Azkueren pentsaera eta obra*. Bilbo: Euskaltzaindia.

———, 2015, *Azkue: bilbotar ezezaguna.* Donostia: Erein.

Kortazar, J., 2016, «Gabriel Arestiren lehen argitalpenez berri ezezagunak», *Euskera*, **61**, 551-567.

Krutwig, F. K., 1950a, «Sobre la reorganización de la Academia de la lengua vasca», *Gernika*, **12**, 43-44.

———, 1950b, «Arantzazu euskal-poema», *Aránzazu*, **320**, 302-303.

———, 1951, «Euskara Euskalerriaren Kultur-Bidea ledin izan», *Gernika*, **14**, 8-11.

——— & al., 1952a, «Juicios sobre el artículo *Euskalerria o Euzkadi* de Carlos Ruiz Galarreta», *Gernika*, **18**, 57-58.

———, 1952b, «Azkue iaunaren in memoriam», *Euzko-Gogoa*, **3-4**, 39-44.

———, 1952c, «Lafon jaunari ongi-etorria Euskaltzaindian», *Euzko-Gogoa*, **3-4**, 51-54.

———, 1952d, «Seminario yaunari ongi-etorria», *Euzko-Gogoa*, **7-8**, 29-32.

———, Sarrailh de Ihartza, F., 1963, *Vasconia: estudio dialéctico de una nacionalidad.* Buenos Aires: Norbait.

———, 1979a, *Mikelditarrak: euskal errankaria hamaika irazkietan eta bederatzi bilbetan*. San Sebastián: Ediciones Vascas.

———, 1979b, «Sarrera = Prologue = Prólogo» in Ithurry, *Grammaire basque: dialecte labourdin*. San Sebastian: Ediciones Vascas, I-XXXVI.

———, 1986, «Hitzaldi bat eta bere aurre-historia», *Egan*, **XXXIX**, 11-36.

———, 1991, *Bilbao de los años cuarenta: en torno a Blas de Otero y Resurrección Mª de Azkue*. Bilbao: [s.n.].

Labayen, A. M., 1947, *Escenas papeleras: a la sombra de la celulosa en mi pueblo.* Zarauz: Icharopena.

——— Aspaldiko, 1951a, «Urkijo'ren eriotza», *Gernika*, **14**, 25.

IKER-35.indd 481 2/9/19 10:56

——— Aspaldiko, 1951b, «Euskeraren batasuna», *Egan*, **4**, 9-11.

——— Ibalan, 1952, «Euskera'ren batasuna», *Euzko-Gogoa*, **1-2**, 26-28.

———, 1955, «Elizanburu: bere bizitza ta lanak», *Egan*, **1-2**, 23-31; **3-4**, 14-34.

———, 1984, «Nun eta noiz ezagutu nuen R.M. Azkue jaun agurgarria, eta nola egin nion azken-agurra», *BRSVAP*, **XL**, 408-410.

Lacarra, J.M., 1949, «Homenaje de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País al Excm. Sr. D. Julio de Urquijo e Ibarra», *Pirineos*, **13-14**, 699-701.

Labéguerie, M., 1953, «Labéguerie jaun medikuaren mintzaldia», *Gure Herria*, **XXV**, 371-372.

Lacombe, G., 1933, «M. Henri Gavel à l'Académie Basque», *Gure Herria*, **XIII**, 428-429.

———, 1938a, «Structure de la langue basque : (esquisse)» in *Conférences de l'Institut de Linguistique de l'Université de Paris : V. Année 1937*. Paris: Boivin, 13-18.

———, 1938b, «Le Dictionnaire basque-français du Père Lhande», *Gure Herria,* **XVII**I, 328-332.

———, 1952, «Langue basque» in Meillet A. & Cohen, M. (dir.), *Les langues du monde*. Paris: Centre national de la recherche scientifique, 257-270.

———, 1952-1972, «Notes sur le basque des Aldudes», *Eusko-Jakintza*, **6**, 3-10; *Anuario de Eusko-Folklore*, **24**, 25-44.

——— & Lafon, R., 1936, «Indo-européen, basque et ibère» in Arntz, H. (ed.), *Germanen und Indogermanen. Volkstum, Heimat und Kultur. Festschrift für Herman Hirt,* v. II. Heidelberg: Carl Winter Universitätsbuchhandlung, 109-123.

Lafitte, P., 1944, *Grammaire basque: (navarro-labourdin littéraire)*. Bayonne Librairie Le Livre.

———, 1947, «La langue basque de 1939 à 1947», *Eusko-Jakintza*, **I**, 11-20.

———, 1949, *Georges Lacombe : 1879-1947*. Bayonne: Courrier.

———, 1950a, «Paulo Zamarripa aphez zena», *Gure Herria*, **XXII**, 291-292.

IKER-35.indd 482 2/9/19 10:56

———, 1950b, «A l'Académie Basque», *Eusko-Jakintza*, **IV**, 456 = *Ikuska*, **4-6**, 158.

———, 1951, «Bibliografía», *Eusko-Jakintza*, **V**, 309-310.

———, 1952a, «Le linguiste et l'écrivain basque», *Gure Herria*, **XXIV**, 57-63.

——— (ed.), 1952b, *Les meilleures pages de monseigneur Jean Saint-Pierre*. Bayonne: Le Courrier.

———, 1952c, «Ascue», *Gure Herria*, **XXIV**, 129-133.

———, 1952d, «Auzi bati datchikola», *Gure Herria*, **XXIV**, 305-308.

———, 1979, «Georges Lacombe (1879-1947)», *Euskera*, **24**, 487-493.

———, 2002, *Kazetari-lan hautatuak*. Pako Sudupek prestatua. Donostia; Baiona: Elkar.

Lafon, R., 1936, «Notes complémentaires sur *adiskide* et sur le suffixe casuel *-ekin*», *RIEV*, **27**, 66-72.

———, 1943, *Le système du verbe basque au XVIe siècle*. Bordeaux: Delmas.

———, 1950, «Euskaltzaindian Sartze Itzaldia», *Gernika*, **13**, 2-5.

———, 1952, *Études basques et caucasiques*. Salamanca: Universidad de Salamanca.

———, 1953a, «Le Basque dans la nouvelle édition des *Langues du monde* (1952)», *BRSVAP*, **IX**, 299-334.

———, 1953b, «Luis Michelena : apellidos vascos», *Bulletín de la Société de Linguistique de Paris*, 160-161.

———, 1956, «Corrections et additions aux dictionnaires d'Azkue et du P. Lhande», *Euskera*, **1**, 26-30.

———, 1999, *Vasconiana*. Prestatzaileak, Jean Haritschelhar Duhalde eta Pierre Charritton Zabaltzagarai. Bilbo: Euskaltzaindia.

Lakarra, J. A., 2011, «Dialektologia diakronikoaz eta euskara batu zaharraz» in Epelde, I. (ed.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatea, 155-241.

Landa Montenegro, C., 2007, «Bilbao, 4 de enero de 1937: memoria de una matanza en la Euskadi autónoma durante la Guerra Civil española», *Bidebarrieta*, **18**, 79-115.

IKER-35.indd 483 2/9/19 10:56

Lardizabal, F. I., 1957[1850], *Testamentu berriko kondaira edo historia*. Bilbao: Euskal Idaz-Lanak.

Larrañaga, I., 1988, «Aitzol euskal soziolinguistikaren aitzindari?» in Ariztimuño «Aitzol», J., *Idazlan guztiak = Obras completas*, v. I. Donostia: Erein, 257-290.

Larronde, J.-C., 1994, *Eskualerri-zaleen biltzarra (1932-1937): eskualerrizaleen mugimendu abertzalearen sortzea Iparraldean = Le mouvement eskualerriste (1932-1937) : naissance du mouvement nationaliste basque en Iparralde = El movimiento eskualerrista (1932-1937): nacimiento del movimiento nacionalista vasco en Iparralde.* Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa.

———, 1997, *Exil et solidarité : La Ligue Internationale des Amis des Basques.* Villefranque: Bidasoa.

———, 2004a, «Histoire du VIIème Congrès d'Etudes Basques. Biarritz, 1948» in Larronde, J.-C. (ed.), *VIIème Congrès d'Études Basques = Eusko-Ikaskuntzaren VII. Kongresua = VII Congreso de Estudios Vascos: Biarritz, 1948*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 17-61.

———, 2004b, «Crónica del Congreso» in Larronde, J.-C. (ed.), *VIIIème Congrès d'Études Basques = Eusko-Ikaskuntzaren VIII. Kongresua = VIII Congreso de Estudios Vascos: Baiona, Ustaritz, 1954.* Donostia: Eusko Ikaskuntza, I-XXXVI.

———, 2004c, «Histoire de VIIIème Congrès d´Etudes Basques. Bayonne, Ustaritz 1954» in Larronde, J.-C. (ed.), *VIIIème Congrès d'Études Basques = Eusko-Ikaskuntzaren VIII. Kongresua = VIII Congreso de Estudios Vascos: Baiona, Ustaritz, 1954*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 13-39.

Larzabal, P., 1952, «Okillomendi Alkate», *Egan*, **3-4**, 25-35.

Lasarte, M. P., 2008, «Milagros Bidegain (1922-2006)», *Euskera*, **53**, 1127-1138.

Lekuona Berasategi, J. M., 1995, *Manuel Lekuona Etxabeguren*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

[Lekuona, M.] (itzul.), 1949[1921], *Gazteiz-ko Eliz-barrutirako kristau-ikasbidea: lenengo maila: Gipuzkoako euskeraz*. Vitoria: Secretariado Catequístico.

———, 1984, *Idaz-lan guztiak*, v. VIII. Tolosa: Librería Técnica de Difusión.

IKER-35.indd 484 2/9/19 10:56

Lhande, P., 1926-1938, *Dictionnaire basque-français et français-basque : (dialectes labourdin, bas-navarrais et souletin)*... Paris: Gabriel Beauchesne.

———, 1950, «En zigzag à travers les Amériques», *Gure Herria*, **XXII**, 216-222.

Lizundia, J. L. & Zearreta, J., 2005, «Orotariko Euskal Hiztegiaren historia», *Euskera*, **50**, 703-715.

Lobera Revilla, A., 1995, «Hainbat jakingarri *Euzkadi'ko Agintaritzaren Egunerokoa*ren gainean», *Karmel*, **212**, 28-55.

Lojendio, J. M., 1954, «Mogel», *Egan*, **2-4**, 16-24.

———, 1958, *Modificaciones del código civil y de la ley de enjuiciamiento civil, según leyes de 24 de abril de 1958, y su alcance con relación a la jurisdicción tutelar de menores: ponencia presentada a la XVIII Asamblea de la Unión Nacional de Tribunales*. San Sebastián: Nueva Editorial.

Lojendio, J. P., 1935, *El hecho histórico vasco en la unidad imperial de España.* Madrid: Estudios Hispánicos.

Lojendio, L. M., 1940, *Operaciones militares de la Guerra de España 1936-1939*. Barcelona: Montaner y Simon.

Lojendio Osborne, J.B, 2009, «Vida y obra de Luis M.ª de Lojendio». *Ondare,* **27**, 151-192.

López Antón, J. J., 1996, «Hispanismo menéndezpelayista y vasquismo cultural: la ortodoxia espiritual de la ilustracion vasca», *BRSVAP*, **LII**, 533-552.

———, 1999, *Arturo Campión: entre la historia y la cultura*. Iruñea: Gobierno de Navarra, Departamento de Educación y Cultura; Bilbao: Fundación Sabino Arana Kultur Elkargoa.

López-Chaves, P., 2016, *Los intelectuales católicos en el franquismo: las Conversaciones Católicas Internacionales de San Sebastián (1947-1959)*. Granada: Universidad de Granada, Campus Universitario de Cartuja.

Luengo Teixidor, F., 1990, «La formación del poder local franquista en Guipúzcoa (1937-1945)», *Gerónimo de Uztariz*, **4**, 83-95.

———, 2000, «En la memoria cercana: 1936-2000» in Artola, M. (ed.), *Historia de Donostia-San Sebastián*. Donostia-San Sebastián: Nerea, 387-478.

IKER-35.indd 485 2/9/19 10:56

Machado, M. & Pemán, J. M., 1940, *Unos versos, un alma y una época*. Madrid: Ediciones Españolas.

Madariaga Orbea, J., 2006, *Anthology of apologists and detractors of the Basque language*. Reno: Center for Basque Studies, University of Nevada.

———, 2014, *Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Madariagako, I., 2014, *Egiari zor*. Donostia: Erein.

Maidagan, G., 1957, «Azkue-ren gorazarrez egindako hitzaldiak: Maidagan jaunarena», *Euskera*, **2**, 23-26.

Majuelo, E., 2011, *La idea de historia en Arturo Campión*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

Makazaga, J. M., 2012, «Jose Zinkunegiren *Sendakintz-euzkera*-ren oinordeko gara», *Ekaia*, **25**, 295-307.

Manterola, G., 1934, «Agirre euskeltzale», *Yakintza*, **11**, 323-334.

Marañón, A. & al., 2013, *Donostiako Udalean errepresaliatutako langileei buruz: 1936-1940 = Sobre las y los trabajadores represaliados en el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián: 1936-1940*. Donostia-San Sebastián: Donostiako Udala = Ayuntamiento de San Sebastián.

Martínez Rueda, F., 2016, «Telesforo Monzón, del nacionalismo aranista a Herri Batasuna: las claves de una evolución», *Revista de Estudios Políticos*, **174**, 267-297.

Martínez Sánchez, S., 2012, «Las tensiones político-eclesiásticas en torno a Fermín Yzurdiaga, 1936-1939», *Hispania Sacra*, **extra. 1**, 223-260.

Martorell, M., 2010, *Retorno a la lealtad: el desafío carlista al franquismo*. Madrid: Actas.

———, 2011, «Antonio Arrue, el carlista que colaboró en el relanzamiento de Euskaltzaindia», *Euskera*, **56**, 847-872.

Mathieu, 1951, «Un grand deuil. Oraison funèbre de Mr St-Pierre», *Gure Herria*, **XXIII**, 321-237.

———, 1954, «Comment servir la langue basque», *Gure Herria*, **XXVI**, 151-163.

IKER-35.indd 486 2/9/19 10:56

Mees, L., 2013, «El fracaso de Estella: las pautas y claves del Estatuto de 1936», *Iura Vasconiae*, **10**, 461-490.

Mendiola, F., 2010, «De aquellos sotos. Aproximación a las raíces económicas e ideológicas del exterminismo a través de la trayectoria del Conde de Rodezno» in *Conde de Rodezno: la justicia al revés*. Iruña-Pamplona: Autobús de la memoria = Oroimenaren autobusa, 9-104.

Mendiola Querejeta, R., 1963, *La vida cultural en San Sebastián: anotaciones histórico-retrospectivas: los centros docentes, las sociedades culturales, las publicaciones y revistas, las bibliotecas*. San Sebastián: Ayuntamiento de San Sebastián.

Menéndez Pidal, R., 1921, «Introducción al estudio de la lingüística vasca» in *Cursos de metodología y alta cultura: curso de lingüística*. San Sebastián: Eusko Ikaskuntza, 7-33.

Merino Urrutia, J. B., 1954, «La Academia de la Lengua Vasca en Bilbao», *BRSVAP*, **X**, 101.

Merry del Val, M., 1939, *Spanish Basques and separatism*. London: Burns Oates and Washbourne Ltd.

[Michelena, L.] Mitxelena, L., 1951, «Euskal-literaturaren etorkizuna», *Egan*, **3**, 17-21.

———, 1953a, «Arnaut Oihenart», *BRSVAP*, **IX**, 445-463.

———, 1953b, *Apellidos vascos*. San Sebastián: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País.

———, 1954, «P. Axular, *Gero,* ed. M. Lekuona (1954)», *Egan*, **2-4**, 17-21.

———, 1957, «Una Nueva edición del diccionario de D. Resurrección María de Azkue», *BRSVAP*, **XIII**, 358-360.

———, 1987-2005, *Diccionario general vasco = Orotariko euskal hiztegia*. Bilbao: Real Academia de la Lengua Vasca = Euskaltzaindia.

———, 2011a; 2011b; 2011c; 2011d; 2011e; 2011f, *Obras completas,* v. VII; v. VIII; v. X; v. XI; v. XIII; v. XIV. Al cuidado de Joseba A. Lakarra e Iñigo Ruiz Arzalluz. Donostia-San Sebastián: Julio Urquijo Euskal Filologia Mintegia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Vitoria-Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea.

IKER-35.indd 487 2/9/19 10:56

Mielgo Merino, R., 1995, *Eusebio Erkiagaren gerraosteko elaberrigintza: (1958-1964).* Bilbao: Labayru Ikastegia; Zornotza: Zornotzako Udala.

Mikelarena Peña, F., 2013, «Navarra entre el Estatuto Vasco y un Estatuto singular para Navarra», *Iura Vasconiae*, **10**, 395-459.

———, 2017, «La memoria de Pío Baroja y la memoria compartida de su familia: recopilación y nuevos datos sobre su detención y encarcelamiento el 22 de julio de 1936», *Memoria y civilización*, **20**, 309-336.

Mina, J., 2008, *El Ateneo guipuzcoano: una historia cultural de San Sebastián entre 1870 y 2005*. Donostia-San Sebastián: Txertoa.

Mirande Aiphasorho, J., 1999, *Obra osoa*, v. II. Alegia: Hiria.

Mitxelena, S., 1977-1984, *Idazlan guztiak*. Edizioaren prestatzaile Karmelo Iturria eta José A. Gandarias. Oñati: Ed. Franciscana Aranzazu.

[Mocoroa, J. M.] Ibar, 1935, *Genio y lengua*. Tolosa: Lib. de Mocoroa Hermanos.

Moguel, J. A., 1935-1937, «La historia y geografía de España ilustradas por el idioma vascuence». Edición dirigida por el Dr. Garate, *Euskera*, **16**, 185-354; **18**, 1-64.

Molina Cano, S., 2005, «El derecho político en Ignacio María de Lojendio», *Empresas Políticas*, **6**, 49-70.

Monier, S., 1992, *Le père Lafitte : entretiens souvenirs*. Donostia: Elkar.

Montejo Garai, J. R., 2003, *El euskera, lengua de transmisión del conocimiento científico: Ignacio Etxaide uno de los precursores del euskera técnico = Jakintza-zabalkundea euskararen bidez: Ignazio Etxaide, euskara teknikoaren aitzindarietako bat*. Madrid: Delegación en Corte, Departamento de Publicaciones.

Morente, F., 2016, «La Historia de los intelectuales durante el franquismo: un ensayo bibliográfico», *Bulletin de Histoire Contemporaine de l'Espagne,* **50**, 163-194.

Múgica Berrondo, P., 1987[1965], *Diccionario castellano-vasco*. Bilbao: El Mensajero del Corazón de Jesús.

Múgica, J. I., 2005, *Una familia vasca: Serapio Múgica Zufiria (1854-1941)*. San Sebastián: Txertoa.

IKER-35.indd 488 2/9/19 10:56

Mujika, G., 1923[1922], *Zurtasun-gogoa: umeentzat oartxo egokiak*. Oleaga'tar Nazario'k euskeratua. [S.l.: s.n.].

Munita, I., 1952, *Gure mendi ta oianak: (nuestros montes y bosques): zuaizti berriak antolatu, ta lengoak zaintzeko zuzenbide batzuek*. Tolosa: Mugerza.

Muñoz Soro, J., 2006, «Joaquín Ruiz-Giménez o el católico total: apuntes para una biografía política e intelectual hasta 1963», *Pasado y memoria*, **5**, 259-288.

Murua Uria, I., 1996, «Piarres Xarritoni elkarrizketa», *Jakin*, **97**, 85-134.

———, 1997, «Federiko Krutwigi elkarrizketa», *Jakin*, **101**, 61-106.

Oihanburu, P., 1950, «Sur le néologisme», *Gure Herria*, **XXII**, 241-247.

Olabide, E., 1917, *Giza-soña*. Tolosa: [s.n.].

———, (itzul.), 1931, *Itun Berria*. Bilbo'n: Yesu'ren Biotzaren Deya.

Olavide, Albarellos & Vigón, 1963, *San Sebastián: historia de sus fortificaciones, siglos XVI y XVII; El sitio de 1813.* Notas ampliatorias Mexía Carrillo. San Sebastián: Ayuntamiento.

Oleaga, R., 2002, «Bilbao, 1936: Gestiones de Nazario de Oleaga para el canje de prisioneros», *Bidebarrieta*, **11**, 199-212.

Omaetxebarria, I., 2001, *Arantzazu izena: evocación franciscana y proyección misionera: escritos históricos y literarios sobre Arantzazu = Arantzazuren inguruan histori eta literatur idazlanak*. Argitalpen paratzailea, Paulo Agirrebaltzategi. Oñati: Arantzazu.

———, 2016, *Euskara barrutik: estudios de lingüística vasca*. Argitalpen paratzailea, Paulo Agirrebaltzategi. Bilbo: Euskaltzaindia.

Onaindia, J., 1955, «Aita Prai Bartolome, euskal idazle», *Euzko-Gogoa*, **5-12**, 87-90.

———, 1974, *Eskutitzak: euskal literaturari buruz*. Bilbao: Gráficas Bilbao.

Ondarra, F., 1997, «Aita Polikarporen bizitza eta obrak», *Euskera*, **42**, 61-75.

Ormaechea, N., 1966, «Prólogo», *Egan*, **1-6**, 128-132.

———, 1991a; 1991b, *Idazlan guztiak*, v. I; v. III. Arduraduna Paulo Iztueta. Donostia: Etor; Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

IKER-35.indd 489 2/9/19 10:56

Ors, E. & Pemán, J. M. 1944: *Humanidades y literatura comparada*, Madrid: Escelicer

Pablo, S., Mees, L. & Rodríguez Ranz, J. A. (2001): *El péndulo patriótico: historia del Partido Nacionalista Vasco*, v. II. Barcelona: Crítica.

Pagola, R. M., 2005, *Migel Olasagarre (1886-1986): aita Dámaso Intza*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Peña Ibáñez, J. M., 1984, *El Diario Vasco: 50 años en Guipúzcoa: biografía de un periódico.* San Sebastián: Sociedad Vascongada de Publicaciones.

Peña Rodríguez, F. J., 2014, «Prólogo» in Herczeg, F., *La familia Gyurkovics*. Madrid: Ediciones Palabra, 3-10.

Plata Parga, G., 1991, *La derecha vasca y la crisis de la democracia española (1931-1936)*. Bilbao: Diputación Foral de Bizkaia.

Portillo Valdés, J.M., 2018, *Entre tiros e historia: la constitución de la autonomia vasca: (1976-1979)*. Barcelona: Galaxia Gutenberg.

Prat de la Riba, E., 2007[1906], *La nacionalitat catalana*. Reproducció facsímil de la primera edició. Barcelona: Escola d'Administració Pública de Catalunya.

[Príncipe de Viana], 1950a; 1950b; 1951, «Los trabajos y los días: crónica de seis meses», *Príncipe de Viana*, **38-39**, 181-186; **40-41**, 361-369; **44-45**, 399-402.

Puig-Samper Mulero, M. A. (ed.), 2007, *Tiempos de investigación: JAE-CSIC, cien años de ciencia en España*. Madrid: Consejo Superior de Investigaciones Científicas.

Ramírez Jerez, J. M., 2005, *Académicos numerarios del Instituto de España (1938-2004)*. Madrid: Instituto de España.

Ramos Ruiz, M. I., 2007, «El impulso del estudio de las lenguas en la Universidad de Salamanca en la década de 1950», *Papeles Salmantinos de Educación, **8***, 201-226.

———, 2009, *Profesores, alumnos y saberes en la Universidad de Salamanca en el rectorado de D. Antonio Tovar (1951-1956)*. Salamanca: Universidad de Salamanca.

Recalde, J. R., 1982, *La construcción de las naciones*. Madrid: Siglo XXI de España.

IKER-35.indd 490 2/9/19 10:56

[RIEV], 1936, «Une société paléoméditerranéenne», *RIEV*, **27**, 177.

Riquer, B., 1997[1996], *El último Cambó (1936-1947). La tentación autoritaria*. Barcelona: Grijalbo-Mondadori.

Rivera, A. & Pablo, S,. 2018, «¿Qué sabemos y qué no sabemos del franquismo en el País Vasco y Navarra?» *Cuadernos de Alzate*, **50-51**,17-38

Robles, C., 1997, *José María de Urquijo e Ybarra: opinión, religión y poder*. Madrid: Consejo Superior de Investigaciones Científicas.

Rodríguez Ranz, J. A., 1994, *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Donostia-San Sebastián: Fundación Social y Cultural Kutxa = Kutxa Fundazio Sozial eta Kulturala.

——— (koord.), 1995, *Tolosa euskal abertzaletasunaren bihotza: EAJ-ren historia Tolosan*. Bilbao: Sabino Arana Kultur Elkargoa = Fundación Sabino Arana.

——— & Unanue López, J., 1994, *Hizkuntz politika, Autonomia eta Euskal Administrazioa: hizkuntz eskakizunak Gipuzkoako toki administrazioan II. Errepublikaren garaian*. Gasteiz: HAEE-IVAP.

[RSVAP], 1950, «Reunión de la Academia de la Lengua Vasca en Bayona», *BRSVAP*, **VI**, 358-359.

———, 1951, «Una cátedra de vascuence en Salamanca», *BRSVAP*, **VII**, 585-586.

———, 1953a, «El Seminario de Filología Vasca *Julio de Urquijo*», *BRSVAP*, **IX**, 125-126.

———, 1953b, «Actividades de la Academia de la Lengua Vasca», *BRSVAP*, **IX**, 130-131.

Ruiz Arzalluz, I., 2003, *«Aitorkizunen» historia eta testua: Orixeren eskuizkributik Lekuonaren ediziora*. Donostia: «Julio de Urquijo» Euskal Filologia Mintegia; Gipuzkoako Foru Aldundia.

Saint-Pierre, J., 1950a, «A nos amis», *Gure Herria*, **XXII**, 1-3.

———, 1950b, «L'antique ceinture des Basques», *Gure Herria*, **XXII**, 233-236.

———, 1951, «Le destin du Peuple Basque», *Gure Herria*, **XXIII**, 328-345.

Sainz Rodríguez, P., 1987, *Semblanzas*. Barcelona: Planeta.

IKER-35.indd 491 2/9/19 10:56

Saiz Valdivielso, A. C. & al., 1993, *Crónica de cincuenta años (1943-1993): Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País = Euskalerriaren Adiskideen Elkartea*. [S.l.]: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.

Salaburu, P., 2015, *Writing words: the unique case of the standardization of Basque*. Reno, Nevada: Center for Basque Studies, University of Nevada.

San Martín, J., 1968, «Bodas de oro de la Academia de la Lengua Vasca», *Euskera*, **13**, 293-299.

——— & Xarritton, P., 1983, «Euskaltzainen zerrenda osotzeaz», *Euskera*, **28**, 563-567.

San Martín Casi, R., 2016, «La biblioteca de D. José María Azcona (1882-1951), erudito y bibliófilo navarro», *Huarte de San Juan. Geografía e Historia*, **23**, 51-155.

Sánchez Carrión «Txepetx», J. M., 1987, *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. Donostia: [s.n.].

———, 1991, «La herencia de Koldo Mitxelena» in Lakarra, J. A. & Ruiz Arzalluz, I. (ed.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1317-1334.

———, 1992, «Las lenguas vistas desde la historia versus la historia vista desde las lenguas (o el giro copernicano de un nuevo discurso social)» in *XI congreso de estudios vascos: Nuevas formulaciones culturales: Euskal Herria y Europa = Kultur antolabide berriak: Euskal Herria eta Europa*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 89-143.

———, 2015, «La otra herencia de Koldo Mitxelena», *Oarso*, **s.n.**, 41-44.

Sánchez Gómez, L. A., 1990, «La Sociedad Española de Antropología, Etnografía y Prehistoria (1921-1951)», *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares*, **XLV**, 61-87.

Sánchez-Tabernero, A., 1989, *El Correo Español-El Pueblo Vasco y su entorno informativo: 1910-1985*. Pamplona: Universidad de Navarra.

Sarasola, I., 2004, «Euskal lexikografiaren historiarako oharrak: Añibarro, Iztueta eta Aizkibelen hiztegiez eta Azkueren lexikografiaz» in Artiagoitia, X., Goenaga, P. & Lakarra, J. A. (ed.), «*Erramu boneta*» *: festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, 611-627.

IKER-35.indd 492 2/9/19 10:56

———, 2006, «Oharrak XX. mendeko lexikografiaz *Orotariko Euskal Hiztegia* arte», *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*, **40**, 895-920.

———, 2015, «Koldo Mitxelena hiztegigle», *Oarso*, **s.n.**, 45-47.

Satrustegi, J. M., 1997, «Gerra ondoreko Euskaltzaindiaren pizkundea» in *Federiko Krutwig-i omenaldia = Homenaje a Federico Krutwig = Hommage à Federico Krutwig*. Bilbo: Euskaltzaindia, 313-338.

Saz, I., 2003, *España contra España: los nacionalismos franquistas.* Madrid: Marcial Pons.

Schuchardt, H., 1947[1923], *Primitiae Linguae Vasconum*. Versión española con notas y comentarios de la original alemana por A. Yrigaray. Salamanca: Colegio Trilingüe de la Universidad; Madrid: Consejo Superior de Investigaciones Científicas.

Sebastián García, L., 1994, *Entre el deseo y la realidad: la gestión del Departamento de Cultura del Gobierno provisional de Euzkadi (1936-1937)*. Oñati: HAEE-IVAP.

Seminario de Rojas, J. M., 1952, «El caserío, piedra angular del País Vasco», *Zumárraga*, **1**, 125-138.

———, 1953, «Cuatro actitudes ante una realidad evidente», *Zumárraga*, **2**, 107-117.

[SFVJU], 1955, *El Seminario Julio de Urquijo: antecedentes y constitución*. San Sebastián: Imp. de la Excma. Diputación Provincial de Guipuzcoa.

[Société de Linguistique de Paris], 1938-1939, «Séance du 4 mars 1939», *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris*, **118**, XVI-XVII.

———, 1947-1948, «Séance du 6 décembre 1947», *Bulletin de la Société de Linguistique de Paris*, **128**, XXXV-XXXVI.

Sota, M., Lafitte, P. & Akesolo, L., 1976-1991, *Diccionario Retana de autoridades de la lengua vasca: con cientos de miles de nuevas voces...* Bilbao: Gran Enciclopedia Vasca.

Sudupe, P., 2011a; 2011b; 2011c, *50eko hamarkadako euskal literatura*, v. I; v. II; v. III. Donostia: Utriusque Vasconiae.

———, 2012, «Antonio Arrue: Euskaltzaindiaren eta Francoren erregimenaren laguntzaile», *Euskera*, **57**, 823-838.

IKER-35.indd 493 2/9/19 10:56

Svensson, 1952[1915], *Noni eta Mani: islandiar mutiko biren gertaldiak*. Alemanetik euskeratzallea, Muxika'tar P. Zarautz'en: Itxaropena.

Tellechea Idígoras, J. I., 1982, «Cátedras Universitarias de Euskera: a cien años de la propuesta del P. Fita (1881)», *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*, **16**, 25-44.

———, 2003[1991], *Tapices de la memoria: historia clínica 279.952*. Salamanca: Sígueme.

Torrealdai, J. M., 1998, *El libro negro del euskera*. Donostia: Ttarttalo.

———, 1999, *La censura de Franco y el tema vasco*. San Sebastián: Fundación Kutxa.

———, 2000, *Artaziak: euskal liburuak eta Francoren zentsura 1936-1983.* Zarautz: Susa.

——— & Murua Uria, I., 2009, *Euskaltzaindia: ekin eta jarrai*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Tournier, A., 1951, «Réponse à un groupe de basques», *Gure Herria*, **XXIII**, 295-298.

——— & Lafitte, P., 1954, *Lexique français-basque*. Bayonne: Herria.

Tovar, A., 1947, «El Diccionario de Azkue», *BRSVAP*, **III**, 256.

———, 1948, «Estado actual de los estudios de filología euskérica. Revista de los trabajos lingüísticos aparecidos entre 1936 y 1947», *BRSVAP*, **IV**, 3-30.

———, 1950, *La lengua vasca*. San Sebastián: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País.

———, 1953, «Respuesta a *Aditz-aia*», *BRSVAP*, **IX**, 227-228.

Trebiño, I., 2014, «La administración civil histórica en euskara a través de los textos que nos han llegado» in Madariaga Orbea, J. & Adot, A. (coord.), *Jornadas Internacionales: el euskera en las altas instituciones de gobierno a través de la historia = Nazioarteko Jardunaldiak: euskera gobernuko goi erakundetan historian zehar*. Arre: Pamiela, 35-57.

Ucelay-Da Cal, E., 2012, *Nacionalisme i imperialisme catalanista: d'Almirall a Prat de la Riba*. Barcelona: Universitat Pompeu Fabra.

IKER-35.indd 494 2/9/19 10:56

Ugalde, M. (ed.), 1981, *Obras completas de José Antonio de Aguirre y Lecube*, v. I. Donostia: Sendoa.

———, 1988, «Biografía de Aitzol» in Ariztimuño «Aitzol», J., *Idazlan guztiak = Obras completas*, v. I. Donostia: Erein, 19-105.

Ugarte Muñoz, A., 2010-2011, «Federiko Krutwig (1921-1949): ideologo abertzale baten hezibidea», *Gerónimo de Uztariz*, **26-27**, 62-102.

———, 2012, «XX. mendeko euskal ideia soziolinguistikoen genealogiarako», *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, **85**, 121-140.

———, 2013, *Jose Miguel Azaola Uriguen: Bilboko liberal euskaltzalea (1917-2007)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

———, 2014, «Euskararen akademia Donostian (1880-2011)», *Txoriapi*, **2**, 24-35.

———, 2015, «Euskaltzaindia 1960ko hamarkadan: diktadura frankistako hezkuntza publikoan euskara sartzeko ahaleginak», *Uztaro*, **92**, 41-64.

———, 2016, «The relaunching of Euskaltzaindia (1937-1941): from the Ministry of National Education's omission to the Board of Culture of Bizkaia's imposition», *Bidebarrieta*, **26**, 165-184.

———, 2017, «Bibliografía anotada de Federico Krutwig», *Sancho el Sabio*, **40**, 261-289.

Uhlenbeck, C. C., 1948, «La langue basque et la linguistique générale», *Lingua*, **1**, 59-76.

———, 1949, «Zur allerjüngsten Fachliteratur» in *Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra: estudios relativos al País Vasco*, v. II. San Sebastián: Real Sociedad Vascongada de Amigos del País, 25-31.

Urgell, B., 1991, «Axular eta Larramendi», *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*, **25**, 901-928.

Urkia Etxabe, J. M. (coord.), 2006, *José de Arteche, un hombre de paz*, v. I. Donostia-San Sebastián: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País = Euskalerriaren Adiskideen Elkartea.

Urkiaga «Lauaxeta», E., 2005, *Gure aberriaren elea: kazetari-lanak*. Sarrera eta testu-aukeraketa Xabier Altzibar; edizinoa Igone Etxebarria. Bilbao: Labayru Ikastegia; Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.

IKER-35.indd 495 2/9/19 10:56

Urkiri, T., 1979, *Un claretiano euzkeldun: semblanza del R. P. Ángel de Urrutia C.M.F.* Vitoria: Eset.

Urkizu, P., 1998, *Pierre Lhande.* Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.

——— (ed.), 2004, «Koldo Mitxelenaren euskal gutunak (1951-1984)», *Bilduma*, **18**, 13-223.

Urquijo, J., 1934a, «Notas necrológicas: Nicolás Marr (1864-1934)», *RIEV*, **25**, 720-722.

———, 1934b, «Caro Baroja, J.: *La significación del antiguo tocado* «*corniforme*» *de las mujeres vascas*», *RIEV*, **25**, 726-727.

———, 1945, «La famosa inscripción ibero-vasca de un vaso de Liria», *BRSVAP*, **I**, 123-143.

———, 1946, «Una tesis doctoral de lingüística vasca del Dr. René Lafon, publicada por la Universidad de Burdeos», *BRSVAP*, **II**, 243-259.

———, 1951, «Discurso» in *Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra: estudios relativos al País Vasco,* v. III. San Sebastián: Real Sociedad Vascongada de Amigos del País, 480.

Urrutia Badiola, A., 2001, *Juan Bautista Eguzkitza (1875-1939)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2004, *Nazario de Oleaga (1884-1961)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

———, 2013, *Código, Compilación y Fuero Civil. Elementos para una historia del Derecho civil foral vasco (1876-1992)*. Bilbao: Zuzenbidearen Euskal Akademia = Academia Vasca de Derecho.

———, 2015, *Euskara Foru Aldundien zirkularretan: Bizkaia (1917-1919), Gipuzkoa (1918-1923).* Bilbao: Zuzenbidearen Euskal Akademia = Academia Vasca de Derecho.

Vallejo, J., 1946, «Exploraciones ibéricas: en torno a Arsesken, Otogesa y Otobesa», *Emerita*, **XIV**, 242-272.

———, 1954, «L. Michelena, *Apellidos vascos*, San Sebastián 1953», *Emerita*, **XXII**, 372-373.

IKER-35.indd 496 2/9/19 10:56

Varela, J., 2017, *Eugenio d'Ors (1881-1954)*. Barcelona: RBA.

Vázquez de Prada, M., 2009, «El nuevo rumbo político del carlismo hacia la colaboración con el régimen (1955-56)», *Hispania*, **231**, 179-208.

Velez de Mendizabal, J., 1979, *Sebero Altube*. San Sebastián: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.

Videgain, X., 1987, «Mitxelenaz eta dialektologiaz», *Egan*, **3-6**, 141-153.

[Villasante, L.] Kortabitarte, 1951a, «*Munificentissimus Deus*...», *Aránzazu*, **s.n.**, 74-78, 99-102, 133-136.

———, 1951b, «Ángeles Sorazu edo emakume goitarr baten berri laburra», *Gernika*, **16**, 19-24.

———, 1951c, «¿Esperanto o vascuence?», *Cantabria Franciscana*, **8**, 40-54.

———, 1952a, «Aclaraciones a *Esperanto o vascuence*?», *Cantabria Franciscana*, **11**, 55-66.

———, 1952b, «Literatur-euskara laphurrtarr klassikoaren gain eratua», *BRSVAP*, **VIII**, 91-119, 259-298.

———, 1952c, «La literatura euskérica en la Provincia Franciscana de Cantabria», *Aránzazu*, **328**, 132-137; **331**, 236-240.

———, 1952d, «Andre Dena Mariaren Assumpzinoa», *Gernika*, **19**, 129-133; **20**, 214-216.

———, 1953a, «Joanes Etxeberri (1668-1749)», *BRSVAP*, **IX**, 231-243.

———, 1953b, «Euskera'ren I aroa: (1920-1937): aurkibideak = I Epoca: índices = tables», *Euskera*, **I**, 3-25.

———, 1954a, «El estudio del euskera en nuestra carrera», *Cantabria Franciscana*, **20**, 138-147.

———, 1954b, «Euskal-elertia Prantziskotarren Kantauri Barrutian». Etxaitar'ek euskerara emana, *Euzko-Gogoa*, **11-12**, 174-178.

———, 1971, «Don Julio de Urquijo y el problema de la unificación del euskera literario», *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»*, **5**, 361-381.

———, 1975, «Hitzaurre gisa», in Altube'tar, S., *Erderismos*. Bilbao: Indauchu, 5-12.

IKER-35.indd 497 2/9/19 10:56

———, 1976, *Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca, Euskaltzaindia*. Madrid: Servicio de Publicaciones del Ministerio de Educación y Ciencia.

———, 1984, «Atari gisa» in Azkue, R. M., *Diccionario vasco-español-francés.* Bilbo: Euskaltzaindia, 9-14.

———, 1987, «Koldo Mitxelena eta Euskaltzaindia», *Egan*, **3-6**, 189-194.

———, 1997, «Krutwig jauna edo kultura-hitzenganako minberatasuna» in *Federiko Krutwig-i omenaldia = Homenaje a Federico Krutwig = Hommage à Federico Krutwig*. Bilbo: Euskaltzaindia, 361-381.

Vizcarra y Arana, Z., 1939, *Vasconia españolísima: datos para comprobar que Vasconia es reliquia preciosa de lo más español de España.* San Sebastián: Editorial Española.

Yanke, G., 1986, «Jose María Areilza y Jon Juaristi: una conversación sobre la cultura vasca», *Arbola*, **2**, 32-35.

Ybarra, E., 1985, «El Correo Español-El Pueblo Vasco» in *El Correo Español-El Pueblo Vasco: 75 años informando*. Bilbao: El Correo Español-El Pueblo Vasco, 11-134.

Ybarra y Bergé, J., 1947, *Política nacional en Vizcaya: de la Restauración a la República*. Madrid: Instituto de Estudios Políticos.

Yrigaray, A., 1947a, «Traducción al vascuence de un capítulo de *El Quijote*», *BRSVAP*, **III**, 197-203.

———, 1947b, «*Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina* por Julio Caro Baroja», *BRSVAP*, **III**, 413-415.

———, 1949, «Euskara antiguo y moderno» in *Homenaje a D. Julio de Urquijo e Ybarra: estudios relativos al País Vasco,* v. II. San Sebastián: Real Sociedad Vascongada de Amigos del País, 119-127.

———, 1952, «Presentación», *BRSVAP*, **VIII**, 87-89.

———, 1953a, «Euskaltzaindia-ren Euskal-batzarreak», *BRSVAP*, **IX**, 229-230.

———, 1953b, «Piarres de Axular», *Egan*, **1-4**, 1-13.

———, 1954, «*Lexique française-basque* por A. Tournier y P. Lafitte», *BRSVAP*, **X**, 111-112.

———, Apat-Etxebarne, 1955, «Naas-maas», *Egan,* **1-2**, 43-46.

IKER-35.indd 498 2/9/19 10:56

———, Irigaray, A. (ed.), 1957, *Euskalerriko ipuiñak = Cuentos populares vascos: con su versión castellana*. Zarautz: Itxaropena.

Yrizar, P., 1981, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, v. I. Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.

———, 2001, *Memorias de un vascólogo: mis relaciones con lingüistas y colaboradores*. Edición revisada y anotada por Henrike Knörr e Iñigo de Yrizar. Madrid: Delegación en Corte, departamento de publicaciones.

[Zaitegi, J.] Etxetxo, 1950, «Aitzol'en gizaldia», *Euzko-Gogoa,* **1**, 5-7.

———, 1955, *Bidalien egiñak*. Zarautz: Itxaropena.

Zalbide, M., 1988, «Mende hasierako euskalgintza: urratsak eta hutsuneak» in *Euskara Biltzarra = Congreso de la Lengua Vasca = Congrès de la Langue Basque = Conference on the Basque Language*, v. II. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia, 390-412.

———, Joly, L. & Gardner, N., 2015, *Euskararen historia soziala lantzeko eredu metodologikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Zamarripa, 1926, *Zaparradak eta*. Bilbo: [s.n.].

———, 1947a[1915], *Gramática vasca*. Bilbao: Casa Dochao.

———, 1947b[1930], *Vocabulario vasco-castellano*. Bilbao: Casa Dochao.

———, 1947c, «El artículo determinado sin valor traductivo», *BRSVAP*, **III**, 225-231.

———, 1948, «Particularidades de beste, *otro*, y naikoa, *bastante*», *BRSVAP*, **IV**, 387-389.

———, 2011[1913], *Manual del vascófilo*. Bilbao: Mendebalde Kultura Alkartea.

Zamora Vicente, A., 1999, *La Real Academia Española*. Madrid: Espasa.

[Zipitria, E.] Lecuona, M., 1953, «Aditz-aia», *BRSVAP*, **IX**, 119-123.

Zuazo Zelaieta, K., 1988, *Euskararen batasuna = La unificación de la lengua vasca = L'unification de la langue basque*. Leioa: Servicio Editorial, Universidad del País Vasco = Argitarapen Zerbitzua, Euskal Herriko Unibertsitatea; Bilbo: Euskaltzaindia = Real Academia de la Lengua Vasca = Académie de la Langue Basque.

IKER-35.indd 499 2/9/19 10:56

Zubiri (Manezaundi), E., 1934, «Piarrechen izialdura. (Benabarreko eskuaraz)», *RIEV*, **25**, 272-273.

Zugasti, A., 1955-1956, «Iturriaga apaiza euskal-idazle», *Egan*, **5-6**, 25-31; **1**, 25-31.

———, 1971, «Zugasti jaunaren hitzaldia Intzagaraiz», *Euskera*, **16**, 90-97.

Zurutuza, J. L., 2003, «Aita Villasante eta Arantzazu» in Intxausti, J. (zuz.), *Arantzazu: ikerlan eta saiakerak XX. mendeko historiaz = investigaciones y ensayos acerca de su historia en el siglo XX*. Arantzazu: Ed. Frantziskoarrak, 487-504.

IKER-35.indd 500 2/9/19 10:56

9. ERANSKINAK

9.1. «REAL ACADEMIA ESPAÑOLA»REN BATZAR EZ-OFIZIALAK (1937-1939)

Gerra zibilak iraun artean, «Instituto de España» frankistan integratutako RAEk hemezortzi batzar egin zituen, gehienak Donostian, J. Urquijo euskaltzaina behin-behineko idazkari zela. R. M. Azkuek ere parte hartu zuen batzar horietan, biak baitziren RAEko kide 1927az geroztik. Azkenean akta horiek ez ziren ofizialki onartu, eta ez dira igaro RAEren Akta Liburura. Aitzitik, historiografikoki interesgarria deritzot onartu gabeko batzar horien oinarrizko informazioa ahal den neurrian emateari: data, partaideak eta tokia.[1212]

1937-12-30: JMP, AGA, MA, MAP, SBC, EO, PB, RMA, JU, PSR (do)[1213]

1938-01-05: JMP, LE, AGA, MA, RC, SBC, EO, WFF, RMA, JU (sa)[1214]

1938-01-13: JMP, AGA, MA, MAP, SBC, EO, MM, PB, RMA, JU (do)[1215]

[1212] Iturri hauek erabili dira zerrenda osatzeko: J. Urquijo behin-behineko idazkariaren akta zirriborroak, J. Casares idazkariak J. Urquijorengandik jasotako dokumentuen inbentarioa (1940-01-31) eta, prentsa oharrak eta Calvo Sotelo & al. 1992.

[1213] Batzar hau J. Urquijoren akta zirriborroetan ageri da, baina ez J. Casaresen inbentarioan. Seguru asko Salamancako ekitaldia prestatzeko batzar ofiziosoa izan zen. J. M. Pemánen izenari galdera ikur bat jarri zion behin-behineko idazkariak, agian bertan egon ez zelako (KMK-JU).

[1214] Egun horretan sei errege akademiek IdeE eratu zuten ekitaldi pribatuan. Biharamunean IdeE-ren lehen ekitaldi publikoa egin zen Salamancan (*ABC*, Sevilla, 1938-01-06; 1938-01-07; *La Gaceta del Norte* 1938-01-06; 1938-01-07; *El Diario Vasco* 1938-01-06; 1938-01-07).

[1215] Donostiako prentsak bi egun ondoren eman zuen batzarraren berri, baina partaide guztiak zerrendatu gabe (*El Diario Vasco* 1938-01-15; García de Juan 2001: 36-37).

IKER-35.indd 501 2/9/19 10:56

1938-02-18: JMP, AGA, MA, MAP, EO, MM, RMA, JU (do)[1216]

1938-02-21: JMP, AGA, MA, MAP, EO, MM, RMA, JU (do)[1217]

1938-03-29: JMP, MAP, SBC, EO, MM, JU (do)[1218]

1938-04-30: JMP, LE, EO, GM, RMA, MM (se)[1219]

1938-05-26: MAP, AGA, SBC, JU (do)

1938-06-30: PSR, MAP, AGA, SBC, EO, MM, JU (do)

1938-08-30: PSR, JMP, MAP, AGA, MA, EO, WFF, RMA, EM, JU (do)[1220]

1938-10-31: PSR, MAP, AGA, MA, SBC, EO, MM, RMA, JU, JM (do)

1938-11-26: MAP, JU (do)[1221]

1938-12-19: MAP, AGA, MA, SBC, EO, MM, JU (do)

1939-01-26: MAP, JU (do)[1222]

1939-02-20: PSR, JMP, AGA, MA, MAP, SBC, EO, MM, RMA, JU (do)

1939-03-27: PSR, MAP, AGA, SBC, EO, MM, RMA, JU (do)

1939-04-29: MAP, AGA, SBC, GM, RMA, JU, JM (do)

1939-05-30: MAP, JU (do)[1223]

[1216] Donostiako prentsak batzarraren berri eman zuen, baina edukirik eta partaiderik gabe. IdeE-ren bigarren ekitaldi publikoa biharamunean egin zen Donostian (*El Diario Vasco* 1938-02-19; 1938-02-20; *La Voz de España* 1938-02-19, 1938-02-20; Calvo Sotelo & al. 1992:90).

[1217] Bilboko egunkariak bi asteren ondoren eman zuen batzarraren berri, R. M. Azkue eta J. Urquijoren izenik aipatu gabe (*La Gaceta del Norte* 1938-03-04).

[1218] IdeE-ren hirugarren ekitaldi publikoa biharamunean egin zen Gasteizen (*El Diario Vasco* 1938-04-01; *La Voz de España* 1938-04-01).

[1219] Batzar horretan M. Machadok bete zuen idazkari kargua. IdeE-ren laugarren ekitaldi publikoa apirilaren 28-30 artean egin zen Sevillan (*ABC*, Sevilla, 1938-04-29, 1938-04-30, 1938-05-01).

[1220] J. Urquijoren eskuzko akta zirriborroan, behin-behineko idazkariak bere izena zerrendaratzea ahaztu zuen (KMK-JU).

[1221] Batzar hau J. Casaresen inbentarioan ageri da, baina ez J. Urquijoren zirriborroetan. Ondorioz data, tokia mahaiburua eta aktaren egilea baino ezin dira zehaztu (KMK-JU; Calvo Sotelo & al. 1992:90).

[1222] Ibidem.

[1223] Batzar hau maiatzaren 29an egin zen J. Casaresen inbentarioaren arabera, baina Donostiako prentsak biharamunean egin zela dio, edukirik eta partaiderik zehaztu gabe (*La Voz de España* 1938-05-30; 1938-05-31). Areago, J. Urquijoren zirriborroak apirilaren 29ko eta maiatzaren 30eko datak nahasten ditu akta zirriborro berean (KMK-JU).

IKER-35.indd 502 2/9/19 10:56

Akademikoen batzar kopuruak

AGA: Agustín González de Amezúa (13)

EM: Eduardo Marquina (1)

EO: Eugenio d'Ors (13)

GM: Gabriel Maura (2)

JM: Juan Moneva (2)

JMP: José M.ª Pemán (9)

JU: Julio Urquijo (17)

LE: Leopoldo Eijo (2)

MA: Miguel Artigas (9)

MAP: Miguel Asín Palacios (16)

MM: Manuel Machado (10)

PB: Pío Baroja (2)

PSR: Pedro Sainz Rodríguez (6)

RC: Ramón Cabanillas (1)

RMA: Resurrección M.ª Azkue (11)

SBC: Salvador Bermúdez de Castro (11)

WFF: Wenceslao Fernández Flórez (2)

Batzar kopuruak tokiko

(do) Donostia (16)

(sa) Salamanca (1)

(se) Sevilla (1)

IKER-35.indd 503 2/9/19 10:56

9.2. **EUSKALTZAINDIAREN BATZARRAK (1941-1954)**[1224]

1941-04-28: RMA, JU, PZ, JI, JCG, NO (bi)

1941-05-29: RMA, JU, PZ, JCG, NO (do)

1941-06-26: RMA, JU, PZ, JI, NO (bi)

1941-09-25: RMA, JU, RI, PZ, JI, JCG, NO (do)

1941-10-30: RMA, PZ, JI, NO, AI (bi)

*1941-11-27: RMA, NO (do)[1225]

1941-12-20: RMA, JU, JI, NO (bi)

1942-01-30: RMA, JU, JI, AI, NO (do)

1942-02-27: RMA, JU, PZ, JI, NO (bi)

1942-03-26: RMA, JU, AI, NO (do)

1942-04-24: RMA, JU, PZ, NO (bi)

1942-06-24: RMA, JU, RI, IME, AI, NO (do)

1942-10-29: RMA, JU, PZ, IME, NO, FB (bi)

1942-12-18: RMA, JU, RI, IME, NO (do)

1943-02-26: RMA, PZ, JI, IME, NO, FK (bi)

*1943-04-30: RMA, JU, RI, IME, NO (do)[1226]

1943-06-25: RMA, PZ, NO (bi)

*1943-09-24: RMA, JU, RI, IME, NO (do)[1227]

1943-11-26: RMA, PZ, IME, NO (bi)

1944-01-28: RMA, JU, IME, NO (do)

1944-03-31: RMA, JU, NO, FK (bi)[1228]

[1224] Iturri hauek erabili dira zerrenda osatzeko: Akademiaren akta ofizialak, N. Oleaga idazkariaren zirriborroak, G. Maidagan diruzainaren kontabilitatea, prentsa oharrak eta testigantza pertsonalak. Akta ofizialik ez dagoenean, oin oharrean aipatzen dut erabilitako iturria.

[1225] ABA-EUS: Batzar dieten likidazioa.

[1226] ABA-EUS: Batzar dieten likidazioa.

[1227] ABA-EUS: Akta zirriborroa.

[1228] J. Caro Baroja ere batzarrean egon zen, baina artean urgazle ez zenez, ez dut zenbatu.

IKER-35.indd 504 2/9/19 10:56

1944-05-26: RMA, JU, RI, PZ, IME, NO (do)

1944-09-29: RMA, PZ, NO (bi)

1944-11-24: RMA, JU, IME, NO (do)

1945-01-26: RMA, JU, IME, NO (bi)

1945-03-23: RMA, JU, NO (do)

1945-05-25: RMA, JU, PZ, NO (bi)

1945-09-28: RMA, JU, IME, AI, NO (do)

1945-11-30: RMA, JU, PZ, NO (bi)

1946-01-25: RMA, JU, IME, NO (do)

1946-03-29: RMA, JU, PZ, IME, NO (bi)

1946-05-31: RMA, JU, NO (do)

1946-09-27: RMA, JU, PZ, NO (bi)

1946-11-28: RMA, JU, IME, NO (do)

1947-01-31: RMA, JU, PZ, NO (bi)

1947-03-28: RMA, JU, IME, NO (do)

*1947-05-30: RMA, JU, IME, PZ, NO (bi)[1229]

1947-09-26: RMA, JU, IME, AI, NO (do)

1947-11-29: RMA, JU, PZ, NO (bi)

1948-01-30: RMA, JU, IME, AI, NO (do)

1948-04-02: RMA, JU, NO (bi)

1948-05-28: RMA, JU, FK, NO, AT (do)

*1948-09-24[1230]

1948-11-26: RMA, AI, FK, NO (do)

1949-01-28: RMA, PZ, FK, NO (bi)

[1229] ABA-EUS: Batzar dieten likidazioa.

[1230] ABA-EUS: Kontabilitate liburua.

IKER-35.indd 505 2/9/19 10:56

1949-03-25: RMA, JU, IME, AI, FK, NO (do)

1949-06-25: RMA, PZ, FK, JMS, NO (bi)

1949-09-30: RMA, JU, PLh, BE, JE, PZ, AI, IME, FK, JMS, NO (do)

1949-11-25: RMA, JE, PZ, AI, IME, FK, PL, LD, NO (do)

1950-01-27: RMA, JE, AI, IME, FK, PL, LD, ML, NO (do)

1950-03-31: RMA, JU, JE, AI, IME, FK, ML, NO (do)

1950-06-24: RMA, FK, JMS, ML, NO (ir)

1950-07-14: RMA, JE, IME, FK, PL, LD, NO (do)

1950-07-15: IME, JE, FK, PL, LD, RL, JSP, NO (ba)[1231]

1950-10-27: RMA, JE, IME, FK, NO (do)[1232]

1950-12-29: JE, AI, IME, FK, PL, LD, NO (do)

1951-02-23: RMA, AI, IME, FK, ML, JG, NO (do)

1951-04-28: RMA, BE, AI, IME, FK, JG, NO, GM, MA, BMG, LV (bi)

1951-04-29: RMA, BE, AI, IME, FK, NO, MA, BMG, LV (bi)

*1951-06-28: RMA, FK, JG, NO (do)[1233]

*1951-09-28: RMA, FK, ML, JG, NO, AML (do)[1234]

1951-11-30: IME, AI, FK, JG, NO, JAD (do)

*1952-05-09: AI, FK, ML, JG, LV, NO, JC (do)[1235]

*1952-05-23: ML, FK, JG, LV, NO (bi)[1236]

1952-05-30: AI, JG, LV, NO, LM (do)

[1231] L. Dassance eta R. Lafonen sarrera ekitaldi horretako entzuleen artean, besteak beste, J. M. Barandiaran urgazlea egon zen, baina aktak ez du batzartuen artean zerrendatzen (Barandiaran 2009: 775).

[1232] F. Krutwigen arabera, A. Irigaray ere batzar horretan egon zen, baina aktak ez dio halakorik (cf. Iztueta & Iztueta 2006: 446-447)

[1233] ABA-EUS: Akta zirriborroa.

[1234] ABA-EUS: Akta zirriborroa; *La Gaceta del Norte* 1951-09-29.

[1235] ABA-EUS: Akta zirriborroa.

[1236] *CE-PV* 1952-05-24.

IKER-35.indd 506 2/9/19 10:56

*1952-06-27: AI, JMS, PL, ML, LD, JG, LV, NO, LM (do)[1237]

1952-11-27: IME, AI, LV, NO, AML (do)

*1953-01-30: IME, AI, JG, LV, LM, NO (do)[1238]

*1953-02-27: IME, AI, JG, LV, LM, NO, AML (do)[1239]

1953-04-24: IME, AI, JG, LV, ML, NO, AML, SM, JC (do)

1953-05-29: AI, JG, LV, LM, NO, JC (do)

1953-06-26: IME, AI, JG, ML, NO (do)

1953-09-25: IME, JE, AI, LD, PL, JG, LV, JM, NO, AML (do)

1953-10-30: IME, AI, LD, ML, JG, LV, JM, NO (do)

1953-11-27: IME, JE, AI, LD, PL, JG, LV, LM, JM, NO (do)

*1953-12-21: NO (do)[1240]

*1954-01-29: IME, AI, JG, LV, LM, NO, SM (do)[1241]

*1954-02-26: IME, AI, JG, LV, LM, NO, JC (do)[1242]

1954-03-26: IME, AI, ML, JG, LM (do)[1243]

1954-04-30: IME, AI, ML, JG, (do)

1954-05-28: IME, AI, LV, LM, SM (do)

*1954-06-25: IME, AI, JG, LV, LM, NO, AML (do)[1244]

1954-07-30: IME, AI, LM (do)

[1237] ABA-EUS: Akta zirriborroa; *Herria* 1952-07-03; Ibarzabal 2001: 159.

[1238] ABA-EUS: Akta zirriborroa.

[1239] ABA-EUS: Akta zirriborroa.

[1240] ABA-EUS: Batzar dieten likidazioa. Uste izatekoa da Donostiako euskaltzainak (I. M. Echaide, A. Irigaray...) ere bertan egon zirela, baina dietarik kobratu ez zutenez, ez dira agertzen likidazioan.

[1241] ABA-EUS: Euskaltzaindiaren artxiboan akta mekanografiatu ofiziala dago, baina ez zuten *Euskera* agerkarian argitaratu (cf. Euskaltzaindia 1982).

[1242] ABA-EUS: Akta zirriborroa & I. M. Echaideren gutuna B. de Oyereguiri, 1954-03-01.

[1243] N. Echániz elizgizona ere batzarrean egon zen, baina 1955eko azarora arte urgazle izendatu ez zutenez, ez dut zenbatu (cf. Euskaltzaindia 1982: 59).

[1244] ABA-EUS: Akta zirriborroa. Zirriborroak ez adierazi arren, badirudi N. Echániz ere bertan egon zela (ABA-AIB: N. Echánizen gutuna A. Ibinagabeitiari, 1954-07-27).

IKER-35.indd 507 2/9/19 10:56

1954-08-27: IME, AI, ML, JG, NO, AML (do)

1954-09-24: IME, AI, ML, JG, LM, KB (do)[1245]

1954-10-29: IME, AI, ML, LV, LM, NO (do)[1246]

1954-11-27: IME, AI, LM, JML, AA, NO (do)

1954-12-30: AI, ML, LV, LM, JML, AA, NO (do)

Akademikoen batzar kopuruak

AA: Antonio Arrue (2)

AI: Ángel Irigaray (42)

AML: Antonio M.ª Labayen (7)

AT: Antonio Tovar (1)

BE: Bonifacio Echegaray (3)

BMG: Bernardo M.ª Garro «Otxolua» (2)

FB: Federico Belausteguigoitia (1)

FK: Federico Krutwig (24)

GM: Gabriel Manterola (1)

IME: Ignacio M.ª Echaide (51)

JAD: José Antonio de Donostia (OFMCap) (1)

JC: José Cincunegui (4)

JCG: Juan Carlos Guerra (3)

JE: Jean Elissalde (10)

JI: Juan Irigoyen (8)

JG: Juan Gorostiaga (24)

[1245] A. Irigoyen kontularia ere batzarrean egon zen, baina artean urgazle ez zenez, ez dut zenbatu (cf. ABA-EUS: I. M. Echaideren gutuna A. Irigoyeni, 1954-10-02).

[1246] A. Irigoyen kontularia ere batzarrean egon zen, baina artean urgazle ez zenez, ez dut zenbatu.

IKER-35.indd 508 2/9/19 10:56

JM: Jules Moulier «Oxobi» (3)

JML: José M.ª Lojendio (2)

JMS: Juan Miguel Seminario (4)

JSP: Jean Saint-Pierre (1)

JU: Julio Urquijo (39)

KB: Karl Bouda (1)

LD: Louis Dassance (9)

LM: Luis Michelena (16)

LV: Luis Villasante (OFM) (20)

MA: Miguel Arruza (2)

ML: Manuel Lecuona (17)

NO: Nazario Oleaga (82)

PL: Pierre Lafitte (8)

PLh: Pierre Lhande (SI) (1)

PZ: Pablo Zamarripa (24)

RI: Ramón Inzagaray (6)

RL: René Lafon (1)

RMA: Resurrección M.ª Azkue (58)

SM: Salvador Michelena (OFM) (3)

Batzar kopuruak tokiko

(ba) Baiona (1)

(bi) Bilbo (26)

(do) Donostia (59)

(ir) Iruñea (1)

IKER-35.indd 509 2/9/19 10:56